



Iturria: *Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak*, Joakin Lizarraga
(Juan Apecherearen eta Francisco Ondarraren edizioa). Nafarroako Gobernua, 1994.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LizarragaSanduak.htm>

SANDUEN BIZITZAK

Joakin Lizarraga

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Sandu zenbaiten bizitzak euskaras laburkiro paratuak, asis Abendutik; daizkenak konta urbilen jai edo igandeetan urteas kristio fielei; ez adiarazteko sollik, baita ikusiarazteko ere errelijione kristioaren doktrina ona ongi kunpliturik aienganik, mogiarazteko imitatzer aiek nork bere ariora dezaken gisan, eta ala plazer emateko Jangoikoari, ta logratzeko beraren grazia, ta gloria. Berexi dire Aita Pedro Ribadeneirak kontatzen-tuenetaik bere *Flos Sanctorum* deitzen den libruan, ez an diren guziak, baizik ezaunago direnenak, ta protxu iago eman dezaketela iduri dutenak aldiritar pobreen erlean.

Naieztituenak kontatu ala nola dauden emen, dezazke atra emendik naituenak, ta utzi naituenak, prinzipalkiro exenplu onak.

Guzia biz Jangoikoaren, Ama Birjinaren, ta sanduen gloriatan, eta arimaen probetxutan. amen.



Abenduaren Irugarrenean San Franzisko Xabier

1. Sandu bat andia, gure lekukidea, Nafartarra, Nafarroaren honra, gloria, ta sendagalla da S. Franzisko Xabier. Jaio ze Xabiengo Kasteluan jendaki nobletik milla, laur eun, ta laur ogei, ta amazpigarren urtean. Azirik ongi, ta ikasirik lenbiziko letrak, biali zute Parisa, non ikasi zituen arte goragokoak, ta Katedratiko eginik erakutsi zituen. Ellegatu ze an estudiatzera S. Ignazio Loiola Jangoikoaren probidenzias, ta billatu naies lagun, fundatzeko Jesusen Konpañiako errelijioa, ta irabazteko arimak zerurako, egunzekio adiskide. Ze S. Franzisko animoso, goapo, garboso, ta gora naia, ta ala bizarrogi portatzen zena guzietan. Zue arreba bat onja deskalza Gandian sandaren fama zuena. Oni eskribitzen zio Aitak, nola bere anaia Franziskok alzinamentu asko egiten zuen bere estudioetan Parisen, baña gastu anitz ematen ziola. Sandak errespondatu zio Aitari, etzeiela errepara gastatzean bere anaia Franziskoreki, ezi Jangoikoak zeukala destinaturik Indietako Apostolu, ta Eskojitua eramateko Jesu Kristoren Ebanjelio sandua jende gaietara.

2. Ortako S. Ignaziok amoltsuki maiz konsejatzan zio despeitzea munduko banidadea, ta osokiro ematea zen guzia Jangoikoari, errepetitus Ebanjelioko egia andi gura, *quid prodest homini & O Franzisko Franzisko, zer protxu du batek, naiz irabazi mundu guzia, galtzen barin badu bere arima?* Itz ebeki, ta exerzizio espiritualeeki argiturik Jangoikoaren graziaz, ta errenditurik biotz andi gura, eman ze beingoas betikos Jangoikoari. Asi ze garaitzen pasioneak, ta kastigatzen gorputza: eta zeren indar andies, laster eta salto egiteas izan zuen sendagalla, penitenziatako lotu zitue fuerteki azpiak eta besoak kordel batzueki, pasatus enbarazu ta oñaze asko, eman gabe aditzera niori. Ama Birjinaren Asunzione egunean eginik lagunek Boto Jerusalengo peregrinazioaren, bere denboran atra zire Parisdik Beneziara oateko oñes pobre gisa neguaren ekaitz, ta erregeen ertean. Bide gartan ibiltzeareki sarturik kordel gaiek aragiak barna, aurkitu ze sandua ezin pausurik eman: bear izan zue agertu kausa lagunei, ta gelditu lenbiziko errian. Deiturik Barbera, ta agerturik llagak, ta ikusirik kordelak ondaturik aragian, arriturik alako penitenzia gisas gelditu ze, etzela trebe botatzera eskuak, bear zela ebaki anitz, idikitzeke, ta atratzeko aragietarik kordel gaiek. Guziak penas beterik, etzelaik erremediorik, ezpaze Jangoikoaganik, egon zire orazioan gau gartan; eta aditu zitue Jangoiko onak,

zeren ezi biramonean aurkitu zire kordelak zatikaturik, llagak sendaturik, ta sandua ain sendo, ezi bereala paratu ze bidean, gozoso guziak ezin aspertus eman esker milla milla Jangoikoari.

3. Benezian epleatzen ze asistitzen heriei hospitalean, egines bear ziren zerbitzu guziak ain nola Kristo berari. Berzeen ertean ze bat llagas, materias, usai gaixtos gogaitz ematen ziona. Sanduak garaitzeko, zer egin zue? Beiratus pobre gura, nola balitz Kristo bera, aplikatu zue bere agoa llagara, txupatu zio materia zeriona; eta akziona gonon kastos egin zio Jangoikoak grazia, ez sentitzeas andik alzina gogaitzik batere alako lanetan, baizik debozio ta gusto. Erroman disputatuzue Aita Sanduaren presenzian, ta beraren bedeizioareki itzulirik, ta ordenaturik Sazerdote, ta presaturik asko denboras zebratu zue meza lenbizikoa Binzenzian: ta asi ze predikatzen ebanjelioa, erakusten doktrina Kristioa, aditzen konfesioak, ta konbertitzen arimak, nola balitz zerutik etorria. Denbora gartan Portugalgo Errege D. Juan Irugarrenak eskaturik sei konpaniakoetaik bialtzeko bere Indietara: bida señalaturik ortako, baña ebetaik bat heriturik, onen partes señalatu ze S. Franzisko, ia zegona Jangoikoas. Bereala atra ze animoso alegre bere Brebriarioareki sollik, nola balidoeie erri batetik berzera urbil. Eman zio lendanik orren señale zenbait Jangoikoak. Bein mostratu zio bere borondatea zela, zerbitza zezon Indietan, ta balema bekala Indio bat bere soñean ezin jasis: berze bein adiarazi zio pasatu bear zuen trabajuketa andia: baña naiz bai, alaere Jangoikoaren amores asi ze oiuz, iago, Jauna, iago, iago. Bidean ia asi ze Jangoikoa mostratzen, zela Franzisko bere maite eskojitua, obratus beraren medios prodijio miragarriak, eta sanduak ere bai Jangoikoas sollik kaso iten zuela, zeren ezi pasaturik urbil bere errira, etzue nai izan saiestu, ikustera, ez bere Ama ere, bizi zena an.

4. Portugala ellegaturik, bereala hospitalean ze bere ostatua. Bereala asi ze barratzen santidadearen atxona; ta denbora gutiren, barnean progatzen probetxu andia Erregeren Kortean. Orgatik ia Erregek ezluzke nai utzi andik; baña S. Ignazioaren konsejus artu zue ontzat gelditzea an laguna, ta uztea S. Franzisko Indietara. Ortako logratu zio Aita Sanduaganik Nunzio Apostolikoaren bula. Biaje luze gartan eman zue birtute ta santidade guziaren exenplu, guzien zerbitzari, guziei konsejatzan, lagun egiten, asistitzen sano, ta heri, ta iltzen zirenei: de manera ezi guziek admiratzen, ta estimatzen zute sandu bekala. Amirur ilabeteen buruan ellegaturik Goan, lenbiziko egin zuena ze presentatzea an Obispo zenari bere titulo zuena Aita Sanduaganik, etzuela nai usatu, baizik noiz ta nola nai zuen Obispoak, ta eskatzen ziola bedeizioa. Admiraturik alako humiltasunas



arre, eta ezaundurik zela Jangoikoaren gizon sandua, erran zio usa zeza-la nai zuen bekala. Asi ze obratus karidadea hospitaleetan beti bekala. Bizi zire an Kristioak eta infielak nasteka; eta ezaundurik Kristioen gaixto izatea dela estorbu andia kristiatzeko infielak, asi ze predikatzen aiei goizetan ta arratsaldetan espiritu andiareki; ta ortas landara erakusten doktrina Kristioa aurei ta ignorantei humil arresti miragarriro. Ikusteko ze gizon sandu gura, Aita Sanduaren Legado izanik, ibiltzea karrikas karrika soñatus txintxa bat, eta erranes oius, *o Kristio fielak, Jesu Kristoren adiskideak, bializeuren hume ta etxeokak doktrina Kristiora, otoi, Jangoikoaren amoreagatik*: Pregoa berri gau aditus akuditzen zute jendeek montonka, ta aditzen zute sanduaren itza ala nola Jangoiko beraren itza: eta sandua akomodatzen ze aien itzkuntzara entendarazteagatik. Sinesta daiken baño iago da atra zuen fruitua erakutsis ala doktrina; ta doktrinako orazioak zire ango kantak bideetan, kanpoetan, leku guzietan: borz ilabetez ala logratu zue berritzea kostumbres Ziudade andi gura, ta ingurukoak, ezaizaizek ezaun, lenekok ziren ia. Konfesatzera eldu zekion jendetzearen amargarren zatia ere etzuke aditu, naiz ortan egonik gau ta egun al guzian.

5. Andik joan ze Probinzias Probinzia, Erreinus erreinu eraikis Jangoikoaren itza, ta logratu zerurako eraizio abasto. Prinzipioan naiz ez ainberze logratu persona larrietaik, baño iago ezi milla aur il zire bataiatu; zeñei enkomendatzen ze sandua, zerura zirenei bekala, logratzeko Jangoikoaganik grazia, konbertitzeko aien buratsoak; eta zio, aur gaiengatik sollik ere plazer zuela ainberze milla lekoa-bide pasatuas. Gero asi zire konbertitzen larriak ere, gizonkiak, emastekiak, aberatsak, pobreak, jakintsuak, Erregeak berak. Ogeitamar milla lekoa bide pasatu zuela diote bere misionetan: Zenbat milla ta millon arima konbertitu zituen, nork daki? Bazire egunak, noiz bataiatuaren utses akaiturik ezin goratu zuen besoa, ta ezin atra agotik itzak. Bitarteo zenbat trabaju, zenbat biziaren peligro, zenbat lanze gogor pasatu zuen, nork konta. Baña Jangoikoak zion amore andi garrek guzia guti iduriarazten zio, ta despreziarazten deskansua, osasuna, ta bizia ere, zeren ezi beraren ansia ze akabatzea Jangoikoaren zerbitzutan. *Enetako bizitza da Kristo*, zio S. Pabloreui, *ta iltzea gananzia*. Baña Jaunak ere kuidatzen zue bere zerbitzuko onetsias, guardatzen zue bere eskuas, betetzen zue konsolazios ta grazias, eta beraren medios obratzen zitue Apostoluen denboretako prodijio ta milagroetaik abasto: mintzarazis anitz mintzo gisa diferente; batean mintzatus entendarazis guziei nork berean, botatus Demonioak, kalmatus itsasoak, detenitus iruzkia zeruan, jautsiarazis andik su, biztus ilak orzi ondoan ere, sendatus heri-mota guziak: eta on ez bere personas solamente, baizik bialis aurrak bere palo,

edo errosario, edo alako gauzaren bateki heriengana, ta an errezzatus aiek zerbait orazio.

6. Amar urte ta zenbait ilabete iraundu zue India gaietan lan ta lan, atzundurik deskansuas, irabazi naies mundu guzia Jesu Kristoren. Azkenerat Japongo erreinuan erran ziote ango jakintsuek, aien erreljioea etorri zela Txinatik, eta etzutela aurtuko Jesu Kristoren erreljioea, ezaizute artzen Txinan. Sartu zekio gogoan pasatzea Txinara, naiz zegoen ertxirik erreinu gura kanpokoendako biziaren penareki. Injeniatu zue nola zeiken joan: estorbaturik ori gizonen intxa gaixtos: injeniatu zue berze gisas oatea, naiz biziaren arrixkoan: ellegaturik Santxoango islara, nondik Txinara den ogeitamar lekoa; emendik uste zue pasatu; baño etze izan posible: ta Jangoikoak admititu zio deseoa, naiz ezin kunpli. An eman zio sukar, edo kalentura batek; ezin sendatu ze ongi: eta ezaundurik nai zuela Jangoikoak eraman zerura, guzia itzuli ze deseatzera Jangoikoaren ikustea. Errebelatu zekio nola il bear zen; ta erretiraturik etxola batean an oianean, desanparaturik munduaganik, baño zeruaganik ongi anparaturik konsolazio ta fabore andieki, Jesus ta Mariaren besoetan entregatu zue espiritu andi gura igateko gloriara errezibitzera korona. 2 Dec. ann. 1552.

7. Gelditu ze gorputz sandua edertasun berri bateki bizi iduri zuela mostratus arimaren gloria, ta kausatus debozio, erreberenzia, ta admirazio, beiratzeas nola honratzen zuen Jangoikoak arima andi garren kontxa izana. Portuan zeudenek aiturik berria, laster egin zute etxola gartara, eta deboziosko negarreki errebestiturik ornamenta sazerdotalees paratu zute kaja batean eraman naies bereki itsasonzian: ta ortako inguratu zute kalzina bizi kantidades konsumi zeizen aragiak joan bear zuteneko. Andik bi ilabete terdi ia joan bear zutelatik, bialitute ikustera, ote zeuden ezur sanduak disposizioan pasatzeko onzira: eta aurkitu zute gorputz guzia bola len bere aragieki batere aldatu gabe ain fresko flamante, zeruko atxon gozo bat errespiratzen zuela. Arriturik Jangoikoaren milagro gartas eraman zute itsasonzira, ta andik Malakara, non errezibiturik prozesio solemne bateki agertu ze ain oso fresko fragrante orat nola il zen eguean, obratus bateo Jangoikoak arren medios asko fabore miragarri. An atrarik kajatik orzi zute lur-barnean Jangoikoaren permisios, baño urbilen Agustuan debozios ikusi naies Goatik joan ziren erreljiosoeak aurkitu zute ain oso, ta odola zeriola, ta fragranzia bat Zeruko bekala. Paratu zute berriz kaja batean eramateko Goara, non depositatu zute gorputz sandua amasei ilabeteen buruan ain oso fresko fragrante beti nola lenbiziko eguean. Deklaratus Jangoikoak beraren santidadea, oneki, ta berze infinizio



bat milagroeki, kanonizatu zue Aita Sandu Gregorio XV.ak 1622 urtean. (S. Teresa, S. Felipe Neri, S. Ignazio, ta S. Isidro Nekazariareki bateo.)

1. Ezin konta ala dire S. Franzisko Xabieren medios Jangoikoak egin-tuen milagroak, il baño len ta il ondoan. Baña gure doktrina, exenplu, ta probetxutako obe da kontatzea prendak, birtuteak, ta obra onak. Nork ordea aipatu ere arima sandu garrenak? Zenbait bakotx aipa zagun geuren onerako. Nondik asiko gara? Humilatasuna da nola barnatzea lurra, plantatzeko fedearen zimendua, onen gañ.ean fabrikatzeko santidadea. Da humilatasuna birtute bat, zeñeklui gizonak ezaundurik egiaz bere burua baitauka deustako bereganik, desestimatzten dela sines, ta batere ez presumitzen. Nola on guzia baitator Jangoikoaganik, izatekos gauza onik gizona baitan, da preziso asenta dezan humildadearen zimendu goi, ezpe-ren deus onik eztio fiatuko Jangoikoak, zeren ezi suberbo presumituei diote oposizio, baña humilei ematen diote grazia. Eta ala ezta, ta eztaike izan ere gizon onik ta probetxuskorik humil eztenik; baizik ere zenbate-nas sanduago, humilago, ezi obraren ariora bear da beti zimendua, ezpe-ren ezta iraupetsu. Sandu andia ze S. Franzisko Xabier, ta agitz humila. Baña zein humila? Humillatzen ze guzien pean, naiz izanik Aita Sandua-ren Legado, pobreei, heriei, beartsu guziei zerbitzatzen edozein ofiziotan: S. Ignazioari eskribitzeko, ta arren kartak leitzeko, paratzen ze belauriko: Beñere etzue agertu potestade zuena Aita Sanduaganik, baizik bein presentatzeko Obispoari obediencia, ta berze bein lotsatzeko Malakako Gobernaria estorbatzen zuena Txinarako biajea. Bere alimentu eskasa limosnas ematen ziotena: Bere tresenak zarra zarrak zarraturik komun-kiro. Ezin zezokete jaintsiarazi berririk. Bein etzekiela paratu zioe sotana berri bat; ikusi zelaik bestiturik artas, etze baratu, aldatu arteo bere sota-na zarra. Bada zenbat burla ta eskarnio sufritu zue gozoro? Japongo Erreinura joateko, alokatu ze Korreo gisa Zaldun bateki; ta sandua kar-gaturik meza errateko ornamentaeki, ta zaldun garren maleta bateki soñean zoeie alzinean oñes, ta aldartez lasterka ladronen kasos elur, eta loietan! Korte gartan, izanik gerra-denbora, ezin logratu zue, baizik des-prezio, ta eskarnio, tiratzen ziotela aza ta maiza kozkorres; eta ala itzuli ze sereno irabazi zuela beretako sanduen tesoroa, baitire tratamentu gaixto-ak! Bekatari ta gaixtoeki ere etze asarratzen gogor tieso, baizik humil humila errogatus, consejatus, adiskide amoltsu mostratus, iduri baizue soldadoeki soldado, guzieki adiskide irabazi naies guziak, niuri displazer egin gabe. Ala ze bere errana, ni neureareki atratzeko, sartzen naiz aiena-reki. Ala enkargatzen zioe lagunei beti usatzea modu ona ta humila. Oneki zenbat konbersione miragarri logratu zuen, nork konta? Eta iago

dena, mantenitzea leku gaietan galdu gabe, ta an iten zituen onkiak, eskri-bitzen zue, zirela bere anaia erreljiosoen orazios ta merejimentus: kontra berriz logratzen etzen guzia zio zela bere kulpa ta bekatuengatik. Milagro iten zituenetan admiratzen ta laudatzen zue Jangoikoaren ona, egiteas alako indignoaren medios, ezi gaixtoen gaixtoena kontatzen ze bera, infi-nito zor ziona.

2. Ezaumentu humil goni darraio egitea orazio Jangoikoai, ta eska-tzea pobre gisa fede ta konfianza onareki. Leku guzietan dagon becala Jangoikoaren Majestadea, guzietan akuditzen zue beragana, nola hume pobre bat Aita onagana. Etzeike egon tenploan nai adiña: baña bere etxoa konsagratu zue tenplo gisa: An biltzen zue bere gogoia iteko ta bear guzie-tan: eskatzen zio sinkiro an: eta Jaun onak an argitzen, ta erakusten zio bere borondatea, ematen zio grazia bear orduan. Ta ala beti zego bere Jangoikoareki, eta etzeike atzen. Lotan ere asko aldiz aditzen zute suspi-ratzen, ta erraten, o ene Jangoiko Jauna! O ene Jesus ona! O ene arima-ren amore! & Ze bere Aingeru guardiakoaren agitz deboto, ta S. Mige-len, ta berze Aingeruen. Bada Ama Birjinari zion amorea eztaike ponde-ra, nola hume onak Ama onari, eta bizian becala iltzerakoan progatu zue Ama dibina gonon anparoa. Baña Jesus onaren pasio ta eriotzean zue kontinoko meditazioa, ta erraten zue direla ebek Jangoikoak digun amo-rearen prenda seguro ta klaroenak. Beti zerama bereki Kristo guruzifika-tuaren imajina, zein eroririk ustekabeen bein itsasoan, etze baratu otoi ta otoi negar ta negar, ekarri zion arteo karamarro batek onzira. Sakramen-tu aldarekoan ordea nola erretzen, ta urtzen zen amores, nork explika? Meza erratean zue bere gloria gisa: prinzipalkiro sagras geros an zire bere amoresko suak, ta negar gozoak, betetzen zirela debozios ta admirazios asistitzen zutenak. Komekatzera ematen zue belauriko erreberenziaren utses, ta postura gortan ikusten zute zenbait aldiz goraturik airean. Eta bere iteko anitz ta andien ertean zeiken guzian erretiratzen ze sakramen-tuaren presenzian tenploan, nola txita olloaren egalpean. Gañarakoan etzuelaik denboraik libre, loari kentzen zio gauas, ta batzutan belauriko ta auspeska, berze batzuetan paraturik begiak zeruan elebatzen ze goga ta gorputza ere airean gora: Eta ikusi ze arroturik bi eskus sotana petxo gañetik, klamatzen, aski da, Jauna, aski da, ezin soportatus amorearen sua, ta konsolazio dibinoaren erauntsia. Askotan ikusten zute suturik aurpegia istargitzen, etzirela trebe beiratzera aurkez aurke. Baña nonnai ta noiznai zeuka presente bere Jauna aditzen, ta errespondatzen, argitzen, anima-tzen, ta kidatzen zuela, nola bear zen. Andik zue arimo andi gura, sartzeko tratatu ta arrixko andienetan, ez lotsatzeko deustas ere, ez eriotzeas,



ez benenoes, ez ezpata, saeta, arma guzies, ez mundu guzias ere. Bein etorririk Kristio berrien kontra Badagaan tropa andi bat armaturik, paratu ze bakarrik bere guruzeareki alzinean, ta koraje andiareki erreprehenditus gibelarazi zitue guziak. Askotan nai zutelai adiskideek geldiarazi etzeien joan Moroan islara, ta lekutara, non baseizien gisa ziren jendeak, iltzen ta jaten zuztenak gizonak, sandua batere turbatu gabe admiratzen ze aien fede gutias Jangoikoan: Ala eskribitzen zue bere erreljiosoei, *nik Jangoikoari sollik diot beldur, zeñen eskupean baitaude gauza guziak, ta batek ere ezpaitezake gaizkirik egin, nai ezpadu berak*. Baña zerk zuke lotsatu sandua, antsiatzen zegona padezitu naies beti ta il naies Jangoikoagatik? Eriotzeen erdian guardatzen zue Jangoikoak.

3. Andik ere, diot, oraziotik zue argi dibino gura, ikusteko ez solamente urrutiko ta geroko gauzak, baita ere biotz-barnekoak. Zenbat aldiz anunziatu zitue agituko ziren onak eta gaitzak? Malakan atrarazi zitue itsasonzi guti batzuk etsaien iruogei onzien atzean. Eta guziak zeudelaik urrikiturik utzias joatera guti gaiek ia galdutako zeuzkitela, sanduak akar in ziotte fede gutias, eta pulpilotik pintatu ziotte batalla eman zutena, nola begis ikus balez, nola irabazi zuten Biktoria, zenbat onzi ondatu, zenbat arrapatu zuten, eta noiz ellegatuko ziren triunfante. Guzia agitu bekala. Bein bear izan zue diru puska bat erremediatzeko donzella bat: Joan ze bere adiskide baten billa, eskatzeko: deitzen ze Pedro Bello; zego dibertitzen jokuan laguneki, ellegatu zelaik sandua: onek egin zio petizioa humil: ark erran zio txanzas, garai onean eldu da, Aita, diru eske, orai bearrean garelaik emen jokatzeko. Baña berla eman zio eskritorioko giltza, bidoeie Jangoikoreki; ar bez nai duena. Joan ze: artu zue irur eun dukat: ta itzuli zio giltza. Ark galdegin zio amoltsu, eta zenbat artu dida? anduak, irur eun dukat. Bellok orduan, Oh Aita, erran zio, txur ibili da: nik uste nue, an ziren ogeitamar milla dukatetaik erdia bentzait artuko zuela. Sanduak ezaundurik, sines gogotik ziola, bildurik bere baitan gutitto bat, bereala esker milla emanik seguratu zio, etziola faltatuko Jangoikoak beñere, ta il baño len ta len jakinen zuela noiz bear zen il. Andik alzina eman ze guzia Jangoikoari, eginen limosna ta obra on anitz. Asko urte pasaturik, azkenaren prinzipioan ezaundu zue señale eman ziona: asi ze prestatzen iago, ta despeitzen bere adiskideak berze munduraño; ta ikusten zutelaiak sano ta sendo, uste zute sinpletu ote zen: baña ark segi bere teman. Azken eguneko prebenitu zue bere ilaria: joan ze akonpañaturik elizara: an ilen lekuan etzan ze estalirik luto bateki: kantaturik defuntoen Ofizioa ta meza, erran ondoan *resquiescant in pace*, kendurik gañeko luto gura, aurkitu zute ilik.

4. Jangoiko berak argitus, bazekie sanduak Indian asko gauza agitzen zirenak Españan. Bein kongojaturik bota ze agosbera goatze baten gañean, egon ze ala nola sentidoik gabe: ta gero txutiturik erran zue, Jangoikoak barka dezazula, urlia. Gero jakin ze, bitartean zegola persona gura egiten zenbait ofizio Konpañiaren kontra. Biotzak ere ikusten zitue. Merkatarari aberats batek deitzen zenak Juan Duro, konfesaturik sanduareki, eskatu zio otoi ta otoi, ar zezala bere Konpañian, nai zuela eman zuen guzia pobreei, ta segitu bera. Nekez konsentitu zue sanduak, beldur zelarik arren inkonstanzias. Asi ze ura errepartitzen, baña urrikiturik bildu zitue obenttoak, ta paratu zitue onzian ixil ixila enbarkatzeko. Deitu zue sanduak: joan zekio ura disimulazio guziareki, ustez etzekien intenzio zuena. Sanduak arturik apart erran zio serio, bekatu in duzu, Juan, bekatu in duzu. Arriturik ura bota zekio oñetara, ta konfesatu zio, bekatu in dut, Aita, bekatu in dut. Ta emendaturik kunplitu zue lenbiziko propositoa, gelditus sanduaren konpañian. Lagun arturik au, zeren artu zuen zenbait limosna lizenziarik gabe sanduaren bearretako, desterratu zue isla batera zenbait eguntako. An izan zue bisione bat Jangoikoaganik. Altxatu nai zio sanduari: baña sanduak guzia deklaratu zio, nola ta zer gisas izan zen. Berze bat atra zue estado gaixtotik; eta mantentzeko grazian, konsejatu zio konfesatzea maiz, ta itzultzea andik onat. Guzia ofrezitu, ta ez kunplitu. Aurkitu zue sanduak gero berze leku batean: eta gizonori joan zekio arresti alegre besarkatzera. Sanduak sebero, nik besarkatu zu? Engañatunazulaik zeure itza faltatus, etzarellaik konfesatu irur urte gebetan? Ez, etzaitut idukiko adiskidetako, ezpazara konfesatzen. Ezaundu zue ark, Jangoikoa zegola sanduaren biotzean: konfesatu ze, ta emendatu ze. Berze bati galdegin zio, nola zegon. Ark, ongi nago, Jangoikoai esker. Sanduak berla, gorputzean ongi, baña ariman pizki. Zego ura intenzioreki egiteko gaizki at niori erran gabe; baña ikusirik, sanduari erran ziola Jangoikoak, konfesatu ze berareki, ta emendatu. Berze bat konsejatzan zue sanduak aparta zeiea emastekien komunika ziotik: Ura etze emendatzen: sanduak il bear zen Bezperan beiratzan ziola triste ta nigarti, erran zio lastimas, ai zutas, ai zutas, ai zutas. Andik guti zebilalaik gaixtakerian il zute.

5. Jangoikoaren komunika ziotie apegatu ere zekio sandu goni gorputz ta arimaren kastidade, ta garbitasun miragarri gura, zenen testimonio eman zuen Jangoikoak berak, mantentitus il ondoan ere gorputza ain oso argi ta garbi eder miragarriri. Indiarra baño len ere Portugalen admiratzen zire sanduaren ta bere lagunen kastidadearen atxon onas, fama onas. Orgatik bein ango erregek bialirik Española bere alaba Erreinatako,



ta onen konpañian bi jesuita, ebetaik bati erran omen zio Erregek, egia da erran ditatena, damaziela Jesuitek belar bat duena birtute, konserbatzeko kastidadea? (Rodr. 1. 3. tr. 4. c. 9.) Errespondatu zio irrikos, egia erran diote orren Majestadeai. Zer belar da? Jangoikoaren beldurtasuna da gure belar preziosoa egiten duena milagro goi. Nolako Jangoikoaren milagroa ezta, ibilis sandu gau India gaietan, asko jende animale gisa bizi zirenen artean ainberze denboras mantenitzea ain garbi eder mellarik gabe, nola sanduen konbentu batean? Zenbat indar, injenio, ta astuzia etzue usatu etsaiak, al bazuke mantxarazi sandua? Baña etzuke infernu guziak, zeren guardatzen zuen zeruak. Idatzarririk ezin, ta akometitu zue bein loan ametsetan: baño loan ere, ametsetan ere sanduak egin zue ainberze erresistenzia, ezi idatzarri ze odola zeriola agotik eta sudurretaik indar egina- ren utses, garaitzeko.

6. Karidadea da birtute guzien erregina, zaña, ta bizitza: guziak ezin aipa ere, onen gain erragun zerbait. Da karidadea amatzea Jangoikoa guzien gañetik, ta proximoa geurok bekala Jangoikoagatik. Zainbat, baña bi arrama, bat Jangoikoaren alde, berzea proximoen alde, amatus Jangoikoa beragatik, ta proximoak Jangoikoagatik. Amatu zue ala egiaz S. Franzisko Xabierek osoki *afektoas*, *efektoas*, eta *perfektoas*. *Lenik afektoas*, enpleatus bere afikzione guzia Jangoikoan, biotza amorosturik bere Majestadeas; memoria, oroitus atzendu gabe; entendamentua, pensatus kontino; borondatea, nai izanes sollik nai zuena Jangoikoak: arima guzia, enbargaturik ta ondaturik Jangoikoan, nola ezpalitz berze gauzarik munduan, Jangoikoa ezi. *Efektoas*, obratus ta trabajatus anitz ta al guzia Jangoikoaren gustotan, prinzipalki salbatzen bere ta berzeren arima, baita gauza agitz kuadratzen zaiona Jangoikoai. *Perfektoas*, padezitus anitz trabaju Jangoikoaren amores, ta padezitu naies iago ta iago, ta akabatu naies Martir fede Kristioagatik. Baña zertan ezaundaiken obekienik ia amatzen den Jangoikoa, da amatzean proximoak Jangoikoagatik; eta nola arimak baitire ain prezioso, ezi eben salbatzeagatik il baize Jangoiko-gizona, aien salbatzeko trabajatzean progatzen da karidadearen fiña. Zerk eraman zue Indietara sandu gau? Ez urre, zillar, ta alakoen kodiziak, baizik arimen amoreak. Zerk pasarazi zio ainberze trabaju, Pena, ta peligro, baizik arimen irabazi naiak? Diamante guziak baño iago nai zue arima bat sollik ere. Eta ala ez solamente anitzengatik, baita batengatik ere artzen zitue bjaie luzeak, ta nekepena erruak. Espezialki arima galduen irabazteko ze beraren gose ta egarria. Nabegatus itsasoan bein, zoeie onzi berean bekatari bat txoil urratua: sanduak amoltsuki nai zue konfesarazi: etzue logratu orduan, ta utzi zue geldí. Ellegatu zirelaik leorrera, konbidatu zue paseatzera bereki;

ta gutibana konbersazioan eramanik oian batera, biak sollik zeudelaik, derepente sanduak kendurik habitua bizkarretik, asi ze disziplinatzen ain erru, ezi saltatzen ze odola berzeagana: ura zego arriturik, eta geiago, erran ziolaik arrenatik artzen zuela penitentzia gura, palakatzeagatik Jangoikoa, etzezan deskarga bere ira arren gañean. Alketurik ura ta penaturik bota zekio oñetara, utzezala disziplina. Konfesatu ze negarres, egin zue proposito emendatzeko, ta emendatu ze. Oneki itzuli ze kontent sandua.

7. Berze bein enbarkaturik Bisorraiazen semea onzietan, jakin zue sanduak zoeiela an soldado bat txoil konzienzia gabea bizi zena nola ezpaliz Jangoikorik. Sandua arren onnaies berze preziosorik gabe sartu ze onzi berean: uste zutelaik guziek Bisorraiak eskatu bide ziola joatea bere semearen anparotako. Sanduak, usatu bekala, artu zue tratu soldado garreki, aldakan beti, naiz jokatzean, disimulatus arren lazokeriak, ta ala mostratzen zekio adiskide. Ia satisfakzio arturik, portura ellegatu ondoan, alako maneran mintzatu zio, ezi egin zue konfesio jenerale bat, ta kontrizio fiñareki: sanduak eman zio penitentzia lebe bat: arriturik ura ain penitentzia lebeas ainberzeko bekatuengatik, sanduak zio, nik emanen diot Jangoikoai satisfakzio ganarakoas; eta berladanik asi ze disziplinatzen latsagarríro bere burua; Berzea negar ta negar, ia berak kulpa, ta sanduak pagatu bear zuen pena. Ondorean erran zio sanduak, eztut nai zureganik, baizik emendatzea: eta orgatik sollik artu dut bjaie gau, ta itzultzen naiz kontent logratuas. Orduan berriro eman zio negarrai berzeak, ta ain agradeziturik gelditu ze Jangoikoai ta sanduai, ezi ia etze iduri lengoa, baizik gizon bat berria. Zenbat alako egin zue sandu gonek? Ala ze proprioki an oikoaren gizona: ala egin zue bera ain sandu glorioso: ala beraren medios egin zitue Jangoikoai dagozkion prodijio miragarriak: Ala bete du famas munduan, ta glorias zeruan: eta beti dago mostratzen, bere adiskide andia daukala an, beraren atenzios naituela egin graziak debotoei, ta azkenean grazia guzien korona, gloria. eman, amen.



Abenduaren laugarrenean Santa Barbara Birjin ta Martir

1. Nikomedia deitzen den Ziudadean ze Kaballero bat aberats poderosoa infiela, ta kruela. Onek zue alaba bat bakarra, deitzen zena Barbara txoil eder gorputz ta arimas eskojitua Jangoikoaren. Zer gisas izan zen onen kristiatzea, eztakigu, baizik ezi Jangoikoaren grazias. Aitak bere alaba bakar gau ikusirik ain galanta, beldurrak engañazezan ezkontzeko norbaitek ongi etzegokionak, erretiratu ta enzerratu zue dorre batean. Bere gogoaren gustora zego erretiro gontan sanda libre munduko banidadeataik, emateko sollik Jangoikoari: zenen komunikazioareki orazioan ala amorostu ze bere Majestadeas, ezi erresolbitu zue guardatzea Birjin gorputz ta ariman betikos. Denborareki nai izan zue Aitak akomodatu bere heredera bekala: Askok pretenditzen zute esposatako: baña sandak etzue nai nior, ta erran zio Aitari, etzela arrazio ezkontzea gizon lurrekoareki bera zuena a Esposo eternoa zeruan. Aitak etzue entenditzen Teologia gau: eta gogoratu, beraxtuko zela gutibana alaba artzeko senarren bat, inarazi zue bañu bat erregalatzeko, eta artan bi leio, argitzeko. Au eginik, ausentatu ze bera denbora zati batez. Donzella sandak ikusirik bañua, inarazi zue irugarren leio bat Trintateren memoriatan: eta arrisko pilare batean erias formatu zue gurutze sanduaren señalear, zein gelditu ze inprimiturik arrian, nola balitz argizari beratxa: Eta ala iraundu zue gero ere, admiratzen zirela jendeak, eta sendatzen an sartzen ziren heri guziak.

2. Ori eginik, ta ikusirik sandak Jangoiko falsuen imajina zeuzkienak an Aitak, lastimatus alako itsutasunas, lixtukatu, ta ostikatu zitue guziak ziola, zuen gisara biz adoratzen zeiztenak Jangoikotako. Itzulirik Aitak ikusi zituelaik irur leioak, ta guruzearen señalear an, galdegin zio alabari kausa. Alaba asi zekio predikatzen egietafede Kristioa, eta nola gu salbatzeagatik iltzen Kristo guruzean, desengañatu naies Aita. Onek aiturik, eztaike erran egin zuen kolera; eta alde bat bere Jangoiko falsu gaien zelos, berze alde beldurrak galdu bere ondasun andiak, ellegatzen baze Enperadorearen adimentura, itsuturik iraren suas, ta atzendurik Aita zela, atra zue ezpata iltzeko alaba berartan. Eskapatu ze orduan sanda laster, segitus atzetik ezpatareki arrek: eta ia ia erdexten zuelarik, idiki ze Jangoikoaren birtutez peña bat, zeñen ertekan libratu ze Barbara. Baña gero ere segitus segitus, ta Artzai batzuen abisus erdetxi zue Aitak; eman anitz eskukaldi, golpe, ostiko, arrapatuturik biloetaik eraman zue arrastaka larren

ta arrien ertean, ta agitz maltrataturik utzi zue giltzapean. Eta abisatu zue Presidentea, baize Marziano, eraman zezan presa Barbara, ta kastigatu Kristio bekala, eta juramentu inarazi zio, etzioia barkatuko, bai tratatuko gogorkiro ilaraziartaño. Noraño daiken ellega gizonaren gaixtoa Jangoikoaren eskutik utzirik!

3. Presidenteak bere prezenziara ekarrazirik Barbara, lenik amoltsuki mintzatu zio, utzi zezan Kristioen superstizione bano, ta tema ero gura. Sanda zego serena ta firme animosa defendatzen fede Kristioa, nola bide bakarra salbatzeko gizonak. Arrek aldatuturik beratx-iduri gura errabiatan, manatu zue billuzteko sanda, ta azotatzeko idi-bergaeki gorputz guzitik, eta gero guzia igorzitzeko silizio latz bateki. Sandak goraturik biotza Jangoikoag ana, ta beraren espirituas errebestituturik sufritu zue guzia, geldituturik guzia lastima bat eginik odola zeriola alde guzietaik. Ondorean sartu zute karzelean, non agertu zekion Jesu Kristo bere Esposo dibinoa argitasun andiareki. Konsolatu zue, aimatu zue, ta seguratu zue, beti egonen zekiola aldakan, ta anparatuko zuela bere egalpean, garaitzeko Tiranoen furia uziak. Oneki gelditu ze sanda guzis sendaturik alegre animosa.

4. Biramonean presentaturik bere alzinean Presidenteak ikusi zuelaik ain sano eder, gelditu ze arriturik, nai ziola sinestarazi aien Jangoiko falsuek in ziotela grazia gura konpaciones. Baña sandak erran zio egia zena, Jesu Kristo bere Esposo dibinoak sendatu zuela, ta konfunditu zue aien Jangoiko falsuen banidadea. Suturik berriro Presidenteak manatu zitue bi gizon temenario azkarrak, burriñasko txarrantxa batzueki arraska zezotela gorputz guzia, ta gero erre sutilleteeki, eta golpatu burua mallueki. Zego bitarteo sanda biotza ta begiak paraturik zeruan erraten ziola amorosoki, o ene Jesus ona, ikusten du berorrek ene biotzaren sekreto, orren baitan dutela esperanza: ez nazala utzi bere eskutik, ezi ori gabe deusez, orreki guzia dezaket. Alzinago segitus Presidentearen kuelak manatu zue ebakitzeko bularrak sandari kanibeta tzorrotzes. Tormentu gontan senti zue dolore andia, baña Jesusen amoreareki suabeturik egin zekio pasagarrri. Oraño iago porfiatus gaizki egiten Tiranoak, alkearazteko donzella sanda, ta lotsarazteko berze donzella Kristioak manatu zue eramatea karrikas karrika biluxirik, ta azotatzen bitartean. Emen sandak goraturik bere begi ederrak zerura, egin zue orazio; eta Jangoikoak miragarriri estali zue burutik oñetaraño argisko manto gisa eder bateki, ikusi etzuketean gisan.

5. Azkenean manatu zue Presidenteak degollatzeko. Arakintza gartan guzian egon ze presente bere Aita, ez Aita, baizik tigre rabioso; eta aiturik sentenzia, bera ofrezitu ze Berdugotako. Atrarik kanpora, an



belauriko paraturik sandak egin zue orazio Jangoikoai bere debotoen fabore. Aditu ze boza bat zerutik ziola, eginen da eskatzen duzun grazia, eta zu atoz errezibitzera korona. Oneki inklinatu zue burua, ta ebaki zio bere Aita inhumanoak. Berareki il zute berze andre bat deitua Juliana, zeñek ikusirik sandaren pazienza ta alegria tormentuetan, eta nola sendatu zuen Jangoikoak, klamatu zue Jesu Kristo dela Jangoiko egjaskoa, ta orgatik tormentaturik, ta bularrak ebaki ondoan degollatu zute au ere. Itzultzen ze Dioskoro suber antustes beterik, sakrifikatuas bere alaba bere Janoikoen obsekiotan; baña bidean ausnarri batek edeki zio bizia emengo ta betirokoa. Oroat agitu zekio Marziano Presidenteari. Orgatik agian inbokatzan da S. Barbara Patrona erauntsi, ortots, ta ausnarrien kontra. Koronatu ze Martirioas Maximino Enperadorearen denboran 235 urte-taik 238 urtetara.

Milagro andi bat kontatzen da S. Barbararen deboto bates, zein lo zegolaik, suak arrapaturik etxea ta bera, ezin inora eskapa, oroitu ze S. Barbaras, aitu baizue onen debotorik etzela iltzen sakramentuak gabe, ta ala eskatu zio, ta logratu zue agertzea sanda, ta apartatzea sugarrak, ta iraunaraztea biramoneraño, konfesatzea, komekatzea, ta oliatzea, uziak admiraturik zeudelaik beira gizona, nola sukil bat erreispildua bizi. Kontatzen du Teodoriko sazerdoteak berak konfesatu zuenak estado gartan &.

Abenduaren Seigarrenean San Nikolas Obispoa

1. Pataran, Liziako Probinzia jaiotze S. Nikolas buratso noble Kristioetaik, asko orazio ta limosnaen medios Jangoikoak emana. Aurzututik ageri ze, beretako zeukala eskojiturik, ezi Amaren bularretan azitzen zegolaik oraño, barutzen ze asteazken ta ostilaretan artus bein sollik egunean esnea. Urteak añaditus, ta birtuteak aumentatus: estudioetan egin zue agitz alzinamentu, baña iago santidadean, zelarik guzien exenplu, ta gasterik zar juizioan, modestian, bizimodu onean, orgatik guziek onesten baizute ta errespetatzen. Zue osaba bat Obispo, zeñek ordenatzerakoan sazerdote Nikolas erran zue, Iruzki berri bat dakusat datorrela anitzen konsolu ta erremediatoko. Zori onekoa saldoa, zeñen Artzai izanen den. Ala agitu ze. Konsagratu sazerdote ia etzue berze kuidadorik, baizik nola Jangoikoai egin plazer iago ta iago; Jangoikoaren Aingeru bat bekalalurrean, Jangoikoareki zue bere komunikazioa orazioan, ta proximoeki solamente ongi egiteko al guzian.

2. Il zekizkio buratsoak: gelditu ze ondasun guzien heredero, ez altxatzeko, bai eraikitze abasto limosnaetan, ez solamente emanen eskatzen ziotenei, baitaere billatus nori eman eskatu gabe. Berze ongi eginen ertean kontatzen da bat asentatu zuena Jangoikoak bere libruan. Ze gizon bat aberats izana, zituena irur alaba erremediatu bearrak, baña ezin erremedia, ezeta ere mantenatu, baizego tentaturik uztera atra zezaten bizia honestidadearen kostus. Jakin zue nondikbait sanduak: eta arturik bolsa bat diru, joan ze gau batez ixil ixila, ta gizon arren kuartoko leiatillatik bota zue barnera, ta itzuli ze laster bere etxera; ezpaizuenai jakin zezan niork, baizik Jangoikoak: ezi etze asko Kristio patarateroen gisara, iten dutela nola ollo karakariak, arrautze txar bat, ta guzia karaka. Gizonarrek jaiki ondoan goizean ikusi zuelaik bolsa, ta artan ainberze urre, kontentus zoraturik etzekie nola eman graziak Jangoikoak. Bereala erremediatu zue alaba bat. Ori ikusirik, sandua kontentago zego emanen, ezi berzea errezibitua. Andik guti gisa berean bota zio berze ainberze: sentitu orduko saltatu ze gizona ikusi naies nor zen ongiegille gura: baña etzuke, zeren sandua berla altxatu ze. Arreki erremediatu zue bigarrena, esperanzareki oroat inen zuela berzeagatik. Baña jakin naies, nor zen alako ongiegillea, zego gauoro erne beira. Ellegatu ze sandua irugarren aldian, bota dirua, ta bazoeie prisaka: berla berzea atzetik: bata laster, berze laster: gero ere



erdetxirik, ta oñetan urtikirik, o Nikolas, erran zio negarres, nola eztu nai ezaun dezaten ene ongjegille ona? Ori da gure erremedioa: orrek libratu gaitu deshonetik ta kondena ziotik. O Jangoikoaren gizona, nola dezo-kegu paga? Sanduak humil erraten zio, Jangoikoa da, nondik datorren on guzia: Berari eman graziak: eta iduri bazaio estimagarri ene borondatea, onen pagutan eskatzen diot Jangoikoas, ezdezala niori erran. Baña de- balde: Jangoikoak berak nai zue publika zeien exenplutako.

3. Faturik ia nai zue erretiratu, baña itsasos zoeielak, goraturik tenpestade bat, Jangoikoak sanduagatik ematu zue, ta ala famatu ze iago sandua. Nailuke onek bizi altxaturik bere erretiroan; baña Jangoikoak nai zue agerrarazi nola iruzki bat munduan. Ortako eman zio txasko eder bat. Inspiratu zio joatea Mirako Ziudadera: Joan ze ustez an obeki altxatuko zen. Bitartean ango katedralean zeude Obispoak bildurik konsultatzen nor egin Arzobispo. Errebelatu zio aietarik bati Jangoikoak, in zezatela lenbi- ziko zetorrena tenplora biramonean, deitzen zena Nikolas. Paratu zire guardian atari barnetik etxideten: sandua deus alakorik etzekiela oanze goiz eder tenplora: ellegatzean atari-pokalean arrapatu zute, nor da ori? Ark, ni bekatarik pobre bat. Nola deitzen da? Nikolas. Bereala eramanik, ta guziak konformaturik elejitu zute Arzobispo. Errepugnatzen zue, aflijitu- rik zio etzela gauza, negar egiten zue. Baña ezta erremediorik, ziate aiek: Jangoikoak nai duena in bear da.

4. Konsagraturik Arzobispo, nola kunplitu zuen Artzai onaren ofi- zioa: nola sandutu zen iago ta iago: nolako limosnak ta obra onak egin zituen: nolako trabajuak pasatu zituen: nolako milagroeki honratu zuen Jangoikoak, berak daki, ta dezake explika. Guk zenbait bakotx. Gose andi bat agiturik Probinzia gartan, sandua zego eskatzen Jangoikoak erreme- dio, ezpaizue berze granerorik. Bitartean Merkatarik batek urruti Sizilian kargatu zue onzi bat gari saltzeko Españan. Joateko zego Bezperan, agertu zekio lotan sandu gau erraten ziola eramateko gari gura Mirara, an ederki salduko zuela; ta señaletako bekala utzi zizkio eskuan zenbait urre. Idatzaririk eta ikusirik diru gaiek eskuan, Jangoikoaganik zela sinetsirik joan ze berla nabegatus Mirara, non saldurik ederki uzia, abrastu ze bera, ta erremediatu ze jendea; guziak kontent. Alako lanak itentu Jangoiko onak bere adiskideen medios! Bialirik bein Enperadore Konstantinok sol- dadoak sosegatzera alboroto bat, aiek asirik gaizki egiten, jendea goratu ze kontra. Sandua joan ze laster debekatzera dañu segi zeizkenak: eta beraren presenziareki erremediatu ze guzia. Konbidatu zitue soldado gaien irur Komandante bere etxera, non tratatu zituen prestukiro. Bitar- teo agitu ze ango juezaren sentenzias eramatea iltzera injustoki irur gizon

kulpa gabeak. Aitu orduko injustizia gura, jaiki ta joan ze prisaka Koman- dante gaieki: aurkitu zitue irur sentenziatuak ia begiak bendaturik iltzeko, ta berdugo ia goraturik ezpata: edeki zio eskutik, jaikiarazi, ta biali zitue libre presoak, nior etzelaik trebe txistatzera kontra. Jueza bera lotsaturik bota zekio oñetara eskatus barka zezon, ta ez eman kontu Enperadoreai. Nekez logratu zue. Guziatarra egon zire presente irur Komandanteak admiraturik sanduaren eginas: eta beraren bedeizioareki itzuli zire Enpe- radoreagana, zeñek errezebitu ta honratu zitue ongi ongi kunplituagatik beraren mandamendua. Baña gero ebek berok akusatu zuzte inbidiosok testimonio falsueki; ta preso eginik ta iltzera sentenziaturik zeudelaik kala- bozoan erremediorik gabe, an oroitu zire agitu zenas Miran. Enkomen- datu zire Jangoikoai sanduaren merejimentus, naiz zegoen ain urruti; baña Jangoikoa dago leku guzietan. Jangoikoaren podores gau gartan agertu zekio Enperadoreai ta juezai S. Nikolas sebero ziola nor zen, ta mea- txatzen kastigoareki, ezpazuzte libre uzten preso gaiek. Utzi bai utzi, ta biali irurak erregaloekei S. Nikolasengana ematera graziak.

5. Famatu ze milagro grau, eta nonnai aurkitzen ziren trabajutan, enkomendatzen zire sanduari, naiz urruti bizi zen, ikusis egiten zuena Jan- goikoak beraren amores: ala nola Mariñel batzuk itsasoan ia etsiturik ondatzten zirela, enkomendatu zire Jangoikoak sanduaren merejimen- tuengatik. Bereala agerturik sanduak erran ziate, ona, emen naukaze: Konfia Jangoikoan, zeñen Ministroa bainaiz. Eta guziak beira zeudelaik, kalmatu zue itsasoa, kidatu zue itsasonzia, ta atra zitue portura salbo guziak; ebek gero joanik Mirara, ta aurkiturik koruan sandua ofizio dibi- noetan, urtiki zire beraren oñetara, kontatu zute guzien alzinean agitu zekiotena itsasoan. Sanduak humil humila erran ziate, Jangoikoai emozie gloria, ene humeak, ezi ni gizon bekataria naiz. Gero arturik aparte dekla- ratu zizkio beren bekatu batzuk, zeñen kasos agitu zekioten trabaju gura, konfesa ta emenda zeizen: zeren ezi berze donoen erlean zue au, baize ikustea konzienziak, eta ala maraztea nai zuen guzia. Ala despeitu zitue.

6. Ala bizi zelarik nola iruzki bat munduan, ellegatu ze plazoa pasa- tzeko Zerura: Ori entendaturik, ta berri berritan prestaturik despeidara- ko, heritasun lebe bateki, alegranzia andiareki despeitu ze arima andi gura, utzirik mundu guzia triste faltatuas emendik alako gizona. Il ondoan ere honratu zue Jangoikoak milagro berri anitz ta andieki: ia manatus ladro- nei itzultzeko diru ebatsi ziotena Bandalo bati, zein orgatik konbertitu zen: ia kautibo bat libratu arturik biloetaik bere salbillareki zegolaik zer- bitzatzen Erregeren maian, ta eramanes airean bere errira: ia berze milla



milla; ikas dezagun, zein Nausi onari zerbitzaten dion Jangoikoai zerbitzatzan dionak: Emen grazia, ta an gloria &
Abenduaren 6.an. S. Pedro Paskasio pag. 320.

Abenduaren Zazpigarrenean San Ambrosio

1. Jaio ze S. Ambrosio jendaki ilustretik, zegolaik bere Aita Gobernari Franzian Romanoengatik. Aurzutuan ia izan zire señaileak, izanen zela jakintsu elegante mintzaeran. Gasterik ze ia gizon andia ta estimatua Roman. Egin zute Probinzia batzuen Gobernari fiaturik beraren prestutasun, ta prudenzian. Zoaz, erran zio Probo Prefektoak, obra zazu obispo bekala, ez Juez bekala, au da, ez gogorki, baizik amoltsuki. Ellegatu zelaik Milango Ziudade andi gartara, zeude diskordian Katolikoak ta Arrianoak, atra naies nork bere aldekoa Obispo in bear zena. Joan ze Ambrosio elizara Gobernari bekala, manteniartzeko guziak konkordian, ta bakean: Onen gain mintzatu ze miragarriri: artan dalaik, aditu ze derente aur baten boza ziola, Ambrosio Obispo. Segitu ze jende guziaren oiuketa konforme, Ambrosio bear zela Obispo. Arritu ze aditzeas ere sandua; atra ze andik: segitu zute: aiek porfia baietz; ark porfia ezetz. Asi ze justiziak egiten gaizkiegilleetan, pensa zezaten gogorra zela: ta iago dena, iduriarazten deshonesto zela, ta indigno. Baña ezaundurik jendeak ori guziori zela injenio, eskapatzeko dignidade gartaik, zenbatenas iago errepugnatzen zuen, aiek iago porfia, konsagratzeko Obispo. Ikusirik guzia etzela aski, eskapatu ze gauas, ta ibili ze gau guzian bere ustes Pabia alderat, baña goizean aurkitu ze Milango atarietan. Arriturik ontas, ezaundurik Jangoikoaren borondatea zela, errenditu ze humil, in zezatela nai zutena. Etzire fio alaere etzekioteen eskapa; paratu zizkiote guardiak: Enperadoreai ere gastigatu ziote, konfirma zezan. Egin zue kontent eder; ta guziak ere kontent; sollik bera deskontent. Eskapatu ze berriz ere, baña etzekio baliatu. Konsagratu zute Obispoek, asistitus presente Enperadoreak emanen Jangoikoai graziak.

2. Beti arimen Artzai obenak izan dire bortxaz, berek nai gabe, in direnak, ezaundurik zer den beren arimen kargaren gañetik kargatzea berzeren arimen kargua. Guzis alegratu zire Katolikoak esperanza onareki. S. Basiliok urrutitik eskribitu zio bere konplazenzia: gañarako Obispo on guziek aprobatu zute. Sandua bereala itzuli ze guzia Jangoikoai. Estudiatzen zue kontino kunplitu naies faltarik gabe: zelebratzen zue meza egunoro debozio andiareki: erakusten zue doktrina predikatus igandeoro: egiten zitue gañarako ofizio sagratuak propioiki nola Jesu Kristoren gisarako Ministroa. Bere buruareki ze gogor, gañarako guzieki beratx, humil,



afable: Bekatarieki espezialki, ezi konfesatzerakoan berak negar egines negargale ematen ziote. Kenarazitue zenbait kostunbre gaixto gelditu zirenak infielenganik. Ez omen zue nai beñere izan kasamentari, ta ez konsejatu joatea gerrara, ta ez ere konbitaetara. Ori beroi konsejatu omen zio S. Agustini, konbertitu ondoan federa. Deustan ez omen zue iago kuido paratzen, nola sazerdoteen on izatean, garbi ta liberal: eta iltzen zelarik sazerdoteren bat sandua, mostratzen omen zue anitz pena. Herejeeki izan zue asko pelea, eta naiz faboratzen zituen Justina Enperatrizak, sanduak guziei erresistitu ziote animoso, faboratzen zuela Jangoikoak. Ikusi ze Aingiru bat sanduaren aldean bearrira erraten bekala predika bear zuena: Demonio botatzen zituenak gorputzetaik zeude klamatzen egia ziona. Nai izan zute herejeek akabarazi beren kontrariorik andiena, baize S. Ambrosio: alokatu zute gizon bat ortako: sartu ze au armareki sanduaren ganbaran: goratu zue besoa ezpata biluxiareki: baña nork dezake ofendi defendatzen duena Jangoikoak? Ala gelditu ze gogorturik besoa ezin mogi: kolore gaizturik ikar ikar: eskatu zio barkazio: bereala barkatu, sendatu, ta biali zue bakean. Etzire alaere desengañatu herejeak; baliatu zire sorgin, ta arte gaixtoes; baña guzia banoan.

3. Beraren denboran etorri ze Maximo Tiranoa tropa andieki: guzia ze lotsamentura: guziak eskapatu naiak. Sanduak predikatzen ziote penitentsia, baita erremediorik obena: *Zergatik nauzie iges egin patriatik?* erraten ziote. *Nai bauzie izan salbo, iges egizie bekatuetaik. Uzten baduzie bekatu egitea, etsaia da garaitua.* Guziareki Jangoikoaren permisios agitu ze asko dañu, oneratzeko gaixtoak, ta onak obetzeko. Ondorean eman zio Jangoikoak bakea ta errepausa, Teodosio Enperadorea zela medio. Oneki gero izan zue iteko; baña eginik penitentsia, izan zue gerostik adiskiderik obena, zeñek Konstantinoplan erran zue, Ambrosio sollik ezauntzen dut Obispo mereji duena izen goi. Logratu zue lukro biktoria andi milagrosko bat, eta eskribitu zio S. Ambrosiori, emateko eskerrak Jangoikoak: eta sanduak ala egin zue, ta eskribitu zio milla zori on ta laudario: ta logratu zue barkazio anitzendako: Enperadorea bera etorri zekio konfesatus, beraren orazio eta merejimentuengatik zela salbo: ta enkomendatu zizkio bere bi semeak, atzetik Enperadore izan zirenak, eta ebei manatu ziote estima zezatela S. Ambrosio Aita bekala: entenda zagun, zenbat balio duen gizon sandu batek. Obenean iltze Enperadore glorioso, zeñen ilarian predikatu zue anitz laudario anitz negarreki. Andik bi urte sandua deitu zue beregana Jangoikoak: Heri zegolaik, ikusi ze Jesu Kristo bisitatzen zuela amoroso: ia azkenerat abisatu zue bere Majestadeak S. Honorato irur aldiz, joan ta eman zezola komunionea: errezibiturik gusto andiareki sosegu ta

errepausa onean eman zue bere espiritua Jaunaren eskuetan. Preziosa da sanduen iltzea, baita lokartzea bekala Jaunaren besotan.

4. Dударik gabe Jangoikoaren biotzeko gizon eskojitua izan ze S. Ambrosio, beraren espirituas errebestiturik izan zuena ainberze koraje, ta ausardia, deklaratzeko Emeradorei, ta munduko andiei Jangoikoaren orondatea, egiteko gauza andiak beraren honratan, pasatzeko anitz trabaju, ta peligro orgatik, eta desestimatzeko bizia ere, ta munduko ondasun guziak Jangoikoaren amorez. Lanze bat notagarria kontatzen da sandu gontas. Zoeielarik bein Romarat, baratu ze ostatu batean; ango Nausiari galdegin zio bere estadoas ta gauzes: Arrek arrullo gozoro kontatzen zitio bere fortuna, ondasunketa, osasun ederra beti, ta nai zuen guzia, txastatu gabe neke-penarik ta naigaberik beñerez. Ori aiturik, sandua oroitu ze dionas Job sanduak bekataries, *ducunt in bonis dies suos, et in puncto ad inferna descendunt*: (c. 11.) pasatzentutela beren egunak gustoso, ta puntu batean jausten direla infernuetara. Jangoikoaren argis jaiki ze bereala, ta erran ziote lagunei, goazan emendik laster, ezi dakusat Jangoikoaren ira eldu dela etxe gonon gañera, ez gaitzan arrapatu pean. Atra zire prisaka, ta andik guti lurra idikirik ondatu ze etxe gura etxeko jende ta gauza guzieki: eta arren lekuan egin ze laguna, edo balsa-leze bat memoriatako: baita lanze bat ongi erakusten diguna, bekatarien fortuna emen eztelesa deseatzeko, ta eztaikela fia emengo ondasunetan: Kontra berriz emengo trabaju ta naigabeak ezteirela ain gaixto nola iduri zaioten mundukoei, baldin ebetas baliatzen bagara itzultzeko Jangoikoagana, nola aurrak Amagana lotsamentu ta bear orduetan.

5. Sandu gonon gloria andia da, onen medios konbertitua Jangoikoak S. Agustin Elizako Doktore ain gloriosoa izan zena, zeñek baitio S. Ambrosios, *Berze Ministro* exzelente bat Jangoikoarena ikusi dut, zein ere nik ezauntzen ta errespetatzen dut Aita bekala, zeñek ni enjendratu ninduen Kristoren baitan ebanjelioaren medios. Dardukat S. Ambrosios, zeñen grazia, konstanzia, trabajuak ta peligroak itzes eta obras fede kato-likoagatik nik progatutut, eta eneki predikatzentu mundu *Kristio guziak*. Zelarik bada Obispo Milanen S. Ambrosio, ta Retorikaren Maestru S. Agustin bataiatubaño len, joaten ze au maiz aditzera sanduaren predikuak eta itz salbazioskoak. Ellegatu ze an S. Monika S. Agustinen Ama bere seme garren atzetik Kristiatu naies ta ondu naies. Eta ikusirik bere semea afizionaturik S. Ambrosiogana, sanda joaten zekio negar ta negar, eske ta eske, konberti zezan seme gura. Sanduak ikusirik alako antsia onerako, erran zio bein, bidoeie Jangoikoareki, Andrea, ezi ezta posible gal daien alako negarren humea. Nola erran, ala agitu ze andik guti, zeren ezi Jan-



goikoaren grazias argiturik ta konbertiturik S. Agustin bataiatu zue solemneki S. Anbrosiok bere eskus jendeketa andiaren presenzian, bete zirelaik alegrazias ez solamente bere Ama propria, baita ere Eliza Ama Sanda Suzia. Orduan izan zela, diote, noiz bi sanduek graziak emanen Jangoikoi, batak gauza bat erranes, berzeak berze bat aldiska, konpondu zuten himno famatu gura kasi egunoro kantatzen dena Elizan, *Te Deum laudamus* & Ori Jangoikoa laudatzen dugu, berori Jauna konfesatzen dugu &. Arima bat sollik ere irabaztea estimatzen badu ainberze Jangoikoak, zer da irabazia batean infinizio bat &?

Abenduaren Bedratzigarrenean Santa Leokadia Birjin ta Martir

1. S. Leokadia jaio ze Toledoko Ziudadean jendaki nobleaganik: eta ze Kristioetan agitz señalatua birtutean. Orgatik Daziano Presidenteak Enperadoreen ordes zebilanak Españan Ziudades Ziudade ixurtzen Kristioen odola; manatu zue eramateko presa beragana. Presente zeukalaik, asi zekio, ia loxentxus, ia meatxus porfiatzen utzi zezala kristioen superstizione banoa deitzen zuena, bere jendaki noblearen atenzios ere. Donzella sandak zio, bere noblezarik obena zela Kristio izatea, ta etzuela trukatu mundu guziagatik ere: de balde zebilala utziarazi naies. Ala arren astuzia ta furia guzia etze izan aski mogiarazteko biotz noble gura. Manatu zue sarzeko kalabozo ilun lotsagarri batean, penarazteko orreki, ta on ezpaze aski, akabarazteko tormentus. Lotsarik ez, baizik gozo zue sandak eramateas karzelera, estimatus Jangoikoaren mertxede bekala: eta negarres segitzen zutenei erran ziote, ea Kristoren soldado zaraten Kristioak, ez izan lastimarik ene penas, bai alegra ta eman zori onak niri, zeren in nauen digna padezitzeas Kristoren amoreagatik. Zenbaitek diote karzelera baño len, azotarazi zuela fuerteki, ta daike sinesta Dazianoren krueltasunas. An zegolarik ilunbe gartan asko denboras, aiturik arakintza inhumanoa egiten zutena Kristioetan, eta tormentu arrigarriak, zeñeki akabara zuten S. Eulalia Meridako martirio gloriosoan, lastimaturik biotzean Kristioen ala akabatzeas, eskatu zio Jangoikoak, konbeni barin baze ala, eraman zezan mundutik beregana, ez ikusteagatik Elizaren alako galdemendea. Aditu zue gure Jaunak, ta ala orazioan belauriko zegon bekala, señalatu zue eries ango arri batean gurutzearen señalea gelditu baize markaturik klaro, eta adoratus au humilki entregatu zue bere espiritua Jaunaren eskuetan, iru eun ta borzgarren urtean.

2. Aurkitu zute an sanda ilik guruze garren ondoan, eta orzi zute Kristioek al zuketen gisan. Irur tenplu omentu sanda gonek Toledon, bat jaio zen etxean, berzea presa egon zen karzelean, berzea orzi zuten lekuan. Eta onen debozios tenplo berean orziarazi zire Toledoko zenbait Arzobispo, nola S. Eujenio, S. Ildefonso, S. Julian: eta errege Godoen denboran zeleberratu zire an anitz Konzilio. Tenplo gontan agitu ere ze miragarri andi bat, noiz ta S. Ildefonsok defendatu zuen Ama Birjinaren birjintasun betirokoa herejeen kontra. Sanda gonon festa egun batez zeudelaik zeleberratzen ofizio dibinoak, presente Errege Rezesbinto Korte



guziareki ta jendeketa andia, S. Ildefonso zego orazioan obiaren alzinean, eta derepente asi ze goratzen bere kabo gañeko ar-lauza, ain andi pizu zena diotenez, ezi apenas mogi zezakete ogeitamar gizonen bateo: goratu ze bada, ta atrarik obiatik sandak edatu zue eskua S. Ildefonsorengana, ta erran zue O Ildefonso, berorren medios bizi da ene Señoraren gloria. Erran ta itzuli ze lekura; sanduak Erregeren puñale bateki ebaki zio beloren zatitto bat memoriatako guardatzen baita Sagraioan. Arriturik gelditu zire guziak laudatus sanda gloriosa, ta berritus Ama Birjinaren debozioa, ala baitaki estimatzen ta pagatzen. Jangoikoak eman dezagula ikustea bere glorian.

Abenduaren Amargarrenean Santa Eulalia Meridakoa Birjin ta Martir

1. Bi santa Eulalia, edo lengo euskaras Donalalla izan dire, bata Barzelonakoa, berzea Meridakoa: au da egun zelebratzen dena aioa Meridan jendaki nobletik. Azi zute sazerdote Donato deituaren doktrinan berze donzellatto Julia deituareki bateo. Ze agitz humila, modesta, juizioskoa, Jangoikoai emana aurzutuan ere. Amabi urtetakoa zelarrik, Daziano Presidentearen partes ellegatu ze Meridara Kalfurniano Juez, persegitzeko Kristioak. Ezauntzeko zein ziren, manatu zue publikatzea sakrifizio edo festa solemne bat bere Jangoiko falsuen honratan egun señalatuan akuditzeko guziek. Sandatto Kristoren amores Martir ilen zalako beldurrez zeukate buratsoek altxaturik erri batean urruti. Baña aitu zuelaik manamenduaren berri, eskapatu ze ixil ixila gau batez Meridarat laster, itxeririk amoresko suan il naiak Martir. Lagunari alzinean zoeienari erraten zio badean, Julia, alzinago bazoazi ere zu, ni lenik martirizatuko naute. Ellegaturik presentatu ze tribunalean Juezaren alzinean, eta turditu gabe defendatu zue ausarki erreljione Kristioa, erreprehenditu zue aien Jangoiko falsuen banidadea, ta Kristioeki usatzen zuten injustizia kruela. Juezak admiraturik korajea ain gastettoan, nai zue ones ekarrarazi bere opinionera: baña ikusirik geroago ta firmeago zegola Kristoren laudatzen, koleratu ze arras, ta erresolbitu zue tormentatzea tormentu genero guzieki axuritto gura, zeintan agertu ze Jangoikoaren graziaren indarra guzien garaitzeko.

2. Lenik biluxirik moldegaizki azotatu zute gorputz guzia piedaderik gabe: bereala golpatu zizkiote ezurrak plomuzko azote batzueki: gero bota ziote olio irakiten zegona gorputz guzia barna: gero burriñazko aztaparreki larranzi ta txarrantxatu zute: goratu zute gero garrutxan, ta deskoiuntatu bere lekuetaik ezurrak. Noraño pasa daiken gizon Deabruen furia, eginartaño alako inhumanidade apenas sinesta daizkenak amabi urtetako neskatxo batean! Baña nola triumfatzen duen Jangoikoaren graziak munduaren ta infernuaren kontra! Zego bitarteo sanda, zeukana bekala Jangoikoa bereki, serena mostratzen koraje ta alegria, goraturik begiak zerurat ziola, orai ene esus ona, señalatzen da obeki enebaitan lлага geben markaeki, eta letra gebek ene odolareki daude adiarazten ongi berorren pasio dolozkoa. Errabias suturik Juezak manatu zue ondatzeko guzia leporaño kalzina bizian, botatus gañetik ur, an erre ta egosi zeien



bizirik. Zenbat diskurritzen duen biotz gaixtoak gaixtakerian! Baña Jangoikoaren birtutez libre atra ze artaik ere. Azkenean manatu zue saiets guzietaik sugarrak sandari, zeñek agoa idikirik artu zue barnera sua; oneki despeitu zue bere arima, zein ikusi ze usotto baten idurian igaten zerura. Lotsaturik berdugoak, iges eginik, utzirik an gorputz sandua, estali zue elur jautsi zenak zerutik ala nola maindre edo gala txuri eder bateki. Egun berean degollatu zute bere laguna Julia, gozatzeko biak glorian elkarren konpañian. Donalalla gau honratu dute Españan Erregeek eta guziek: Obiedon, nora eraman zen gorputza, daukate Patronatako, eta Kristio guziek exenplu, mantenitzeko firme Kristoren errelijonean ta amorean.

Abenduaren Amirugarrenean Santa Luzia Birjin ta Martir

1. Jaio ze S. Luzia Siziliako Zaragozaan. Aurzututik ze onera emana, espezialki guardatzera kastidade birjinala. Il ondoan bere Aita, ajustatu zue bere Ama alargunak Eutikia deituak alaba onen ezkontza Kaballero Jentil bateki. Sana zoeie artus denbora, ta billatus eskaidaren bat, desegiteko ezkontza. Ara nola disponitu zuen Jangoikoak: eman zio bere Amari odol joatearen heritasun bat iraundu ziona laur urtes, niondik erremediorik etzukela. Famatua ze denbora gartan S. Ageda gloriosa beneratzen zena Katanan Zaragozatik irur lekoa, zeñen tenploan logratzen zuten asko fabore milagrosko sandaren medios. Konsejatu zio alabak Amari joatea Bellas arara: Joan zire biak, eta orazioan zeudelarik obiaren alzinean, eman zio S. Luziari lo gozo bat, zeintan apareziturik S. Ageda beterik argi eder miragarris, ta akonpañaturik Aingerues mintzatu zio alegre amorosa, ene aizpa Luzia Birjin konsagratua Jangoikoai, zertako eskatzen didazu niri zeurorrek aisa eman dezogezuna zeure Amari? Zure fedea baliatu dio, ta sendatua da: zeren zeure birjinidade ta garbitasunes prestatu diozu Jangoikoai biotzean tenplo bere gustorakoa. Eta ala nola enegatik Kristok honratu duen Katanako Ziudadea, ala zu zarela medio honratuko du Zaragozakoa. Idatzarri ze alegre guzis, eta erran zio Amari, ia sana dago, Ama: eman graziak Jangoikoari, ta S. Agedari, ta goazen etxera.

2. Itzuli ondoan eskatu zio sandak, etzezola ia aipatu Esposo lurrekorik: artu zuela bere Esposotako Jesus, zeñen zerbitzutan enplea zezala emanen pobreei dote eman nai ziona berai. Amak nekez nai zue desapegatu bere ondasunak bizian: erraten zio, espera zezala ilartaño bera, ondorean in zezala nai zuena. Sandak erraten zio il ondoreko limosnak eztirela ain kuadrable Jangoikoai, ematen baita eztaikena eraman; bizian lendanik in bear direla igateko zerura, ala nola argia eramaten den alzinean argitzeko bidean. Ainberze erran zio, ezi logratu zue guzia, eta saldurik barratu zue prezioa pobreetan. Ori ikusirik Kaballero garrek, non Amak ofrezitu zion alaba, akusatu zue Paskasio Presidentearen alzinean Luzia, Kristio zela. Deiturik arrek nai zio kendu burutik proposito gura ones edo gaitzes. Sandak serena zio, eztela baizik Jangoiko bat bizi eterno inmensoa, zeñi plazer egitean dagon ditxa guzia, eta sakrifizio kuadratzen zaiona dela miserikordia, ta limosna; orgatik eman zuela zuen guzia, ta ia etzuela zer eman, baizik bere burua: au nai ziola eman gogotik ere



sakrifiziotan. Juezak erran zio, oriek dire Kristioen ametsak, engañoak, ta itz banoak, etzaizkidanak erran bear niri, goardatzen baitut antiguasko erreljioea, ta Enperadoreen manamenduak. Sandak konstante miragarriro erraten dio, orrek guardatzentu bere Prinzipeen manamenduak; nik Jangoiko andiarenak. Orrek dio beldur Enperadoreai; nik solamente Jangoikoi: Orrek eztu nai desplazere egin, baizik plazer gizon lurreko bati: nik gloriako Errege Jaunari. Eztaiela neka banoan; eznau apartaraziko Jesus onaren amoretik.

3. Asarraturik arras Paskasiok tratatu zue emasteki alkegabe gaixto-tako, argatik saldu zituela ondasunak. Sandak ain serena nola len: nere ondasunak pobreen eskus seguraturut zeruan. Kristioek kuidatzen dugu arimas, aborrezitentugu gorputzen zikintasunak, aprobazentutenak oien Jangoiko falsuek, ez ordea gure Jangoiko onak. Ori da sobra jardukitzea, erran zio Paskasiok: azoteak astearreki, atertuko dire itzak. Sandak orduan Jangoikoaren zerbitzarietza eztaizke faltatu itzak, ezi berak errana da, eramaten zaiztelarik Erregeen ta Juezen prezentiara, ezuzie diskurritu bearrik, nola edo zer erran, ezi etzarate zeurok mintzatzen zaratenak, bai Espiritu sandua zuen baitan. Juezak orduan, eta zurebaitan dago Espiritu Sandua agian? Sandak errespondatu zio, Garbi ta ongi bizi direnak dire Espiritu sanduaren tenplo. Juezak emen, eramana zaitut urdeen etxera, utzi zaizan Espiritu Sanduak. Ontara errespondatu zio, bortxaz mantxarazten badu nai eztuena, kastidadea doble kontatuko da koronatzeko glorian. Manatu zue bada juez infameak, eramateko Luzia leku infamera, non deslora zezaten. Botatzentzote eskuak, eramateko: baña, o Jangoikoaren podorea! ezin niork ere mogiarazi lekutik. Ekarri sokak, jendeak, idipareak, tiratzeko: guzia banoan, nola balitz peña andi bat ederki asentatua. Gogoratu zekio Juezari zela ori sorgindierias. Ekarrarazi zitue sorgin gaixtofikatuak, desegiteko ark uste zuen arte gaixto ura: Inzute in ala Deabruen laguntzareki; baña nor Jangoikoaren kontra? Arriturik Jueza etzekiela zer egin, zego koleras nola leon bat marroa egiten abuña zerio-la agotik, ta begietaik sua, ikusirik garaitua zela donzella flaka batenganik. Erran zio sandak emekiro, eztaiela turba: zertako eztu beiratzin sosegu onareki, ezauntzeko eztela Deabruen sorgindieria, baizik Jangoiko onaren birtutea, guardatzen nauena ni berea bekala da manera, ezi mundu guziak, bildurik ere, ezi lezadaken mellarik egin? Ezpadu sinesten, egin bez progu nai adiaña.

4. Manatu zue arrek, biltzeko sandaren inguruan anitz egurketa, erre-sina, olio, ta gauza erretzeko, ta itxeki. Itxeki ze; egin ze hogera andi bat, gora sugarra bam bam bam. Sanda erdian ain libre seguro alegre, nola

balego al ze artzen jardin edo lorede batean. Andik mintzatu zekio sanda Juezari, nik eskatu diot ere Jaun Jesu Kristori, ez dezadan minik eman su gonek, ta luza dezan ene martirioa, konfirma daitzengatik fedean fielak, ta konfundi daitzen infielak ikusirik zein guti dezaketen gure kontra. Orduan manatu zue arrek traspasa zezotela ezpata bat lepotik. Errezibiturik herida eriozkoa, alaere sanda egon ze orazioan nai adiaña, ta nai adiaña mintzatu ze Kristioei, emanen berri onak Jangoikoaren ordes, bakea izanen zela andik denbora labur, utzirik manamendua Enperadoreek: eta nola Katanan zuten Patrona S. Ageda, izanen zela bere Zaragozan, konbertitzen bazire Kristoren federa. Eta Jangoikoaren justizia ikus daien, Siziliatarrek preso in zute Paskasio Juez gura Tirano bekala, ta pasatu zute ala sandaren alzinetik, ta Roman ilarazi zute. Santa Luziak, errezibiturik an komekadura, sazerdoteek ekarri ziotena sekretoan, eman zue bere arima bedeikatua Jaunaren eskuetan. Ortzin zute gorputz sandua Ziudade gartan, non dituen bi tenplo: eta Jangoikoak an ta nonnai egitentu miserikordiak sandaren atenzios. Bistaren Abogada kontatzen dute, ta eskuan bi begieki plater batean pintatzen dute. Zergatik ala, ezta seguratzin kausa espezialerik, bai maite eder zuela Jangoikoak, ta beraren begietan aurkitu zuela grazia espeziala sandak, mereji baizue pasatus asko trabaju, ta expunitus iagokoetara bere amorearen erruareki. Onak ta alakoek alkearazi bear gaitute Kristio epelok, ezpaikara pasatzeko alakorik Jangoikoaren amores. Aisa pasatzen zute, diozu agian, faboratzen ziotelarik ainberze Jangoikoak. Baña egin zute beren aldetik ere, faboratzeko Jangoikoak bear orduan. Zuk eta nik ezpaitugu garaitzen tentazio komunak, nola gindezazke garai alako tormentuak? Jangoiko Jaunak in dezagula karidades miserikordia ta grazia.



Abenduaren amalaugarrenean San Espiridion

1. S. Espiridion, lenik ardi ta auntzen Artzai, gero arimen Artzai, ta Obispo Txipren, an berean jaioa da exenplutako nora daiken ellega nor-nai Jangoikoaren etxean, beraren grazias, ta bere dilijenzia propioas. Ezkondua izanik len, karidadeari emana, honratzen zue Jangoikoak estado gartan ere asko milagroeki. Eben, ta bere bizi sanduaren atenzios egin zute Obispo. Agitu ze idorte luze bat, ta ordik gabea, gosea, ta pestea. Ilik asko jende, gañarakoak beldurak il, oan zire Obispo santuagana erremedio billa. Sanduak billatzen zue tenploan sakrifizio ta orazioeki: eta diote, ezi negarra zeriolaik sanduai begietaik, jausten zirela Zerutik euri-erauntsiak: ta ebek atertzen zirela atertzeareki negarra, entenda daien, bekatuak diren bekala plagaen motiboak, erremedioa direla penitenzia ta negarrak, ta eben ariora ura. Baña bekatuak segitus, segitus joan zire kastigoak; etzutenak, iltzen goseak; eta zutenek, ertxitzen biotzak eta arkak. Ebetaik bati eskatu zio gari edo ogi batek: etzue logratu: an ze sanduagana, kontatu zio agitua. Sanak etzue zer eman, baña erran zio, etzaitela afliji, ezi biar erremediatuko zara; ta orai ditxoso iduri zaizun abrats goi, biar ikusko duzu miserable, ta erranen dizu ar zazula bere ondasunetaik bear duzuna, ta zuk irri inen duzu. Zer agitu ze? Gau gartan eman zue erauntsi ain erru andi batek, ezi atra ta eraman zitue arren graneroko gari ta ale guziak karririk barna: an ze guziek arrapatzea al guzia, nola arrabutxan; berzeen erxean ikusirik pobre gura erraten zio ar zezala zuken guzia: eta pobreak irri, oroiturik sanduak erranas. Berze bein sanduaren adiskide on bat akusaturik malamente senteziatu zue Juezak eriotzera. Sandua berla jarri ze bidean, estorbatzeko maldade gura: pasatu bear zue erreka bat: zoeie ur anditurik, ta ezin pasa: zubirik ere ez. Eskatu zio Jangoikoai, ta manatu zio erreka geldu zeila: gelditu ze, ta pasatu ze sandua oñes, ta Ziudadera baño len, aiturik Juezak milagroa, utzi zue libre preso. Nola den Jangoikoa ona bereeki!

2. Beti zebila oñes obispo sandua; eta bein ellegaturik erri batean ostatus, nai zitio garbitu oñak emasteki batek: baña beiratus sanduak serioki erran zio, aparta aparta bedi; eta sekretoan deklaratu zio zergatik etzen digna, ta konfesa zeila, ta emendatu; ta ala egin zue. Aurkitu ze Konzilio jenerale Nizenon irur eun ta emezorzi obispo sandu gaieki, non Filosofo bano platikari agudo bat etzuketelaik ixilarazi ta errendiara-

zi ango jakintsu asko zirenek, atra ze erdira sandu gau, ez letraetan fiaturik, bai Jangoikoaren birtutean: erran zio senzillki fedeak erakusten duena Jangoikoas, Jesu Kristos, ta ganarako egia fedeskoes: Azkenean erran zio, Filosofo Jauna, auxe da sinesten duguna Kristioek: Berorrek zer sinesten du? Gelditu ze ura arriturik mutu bekala; Ta Jangoikoak argiturik erran zue, on beroi sinesten dut nik ere egietafede bekala: eta itzulirik lagunei erran ziote, mintzatu garen bitarteko itzes ta arrazios, izan dut zer erran; baña Jangoikoaren birtutea mintzatu delaik sandu gonon medios, ia ezta erresistenziarik. Ala konbertitu ta kristiatu ze, ikusiarazirik zenbat iago balio duen sandutasunak, ezi ez xakintasunak. An zegolaik, il zekio bere alaba len izan zuena matrimonioan. Eta itzulirik etxera, aurkitu zue andre bat negar ta negar, eman ziola bere alaba garri diru-kantidade bat guardatzeko, eta iltzela erran gabe non utzi zuen, eta ezin aurki nion. Sandua joan ze alabaren obiara, ta mintzatu zio bere izenas, Irene, non utzi duzu andre gonon dirua? Errespondatu zio, alako lekuan urkituko du. Joan, ta aurkitu zute. O Jangoikoaren prodijioak!

3. Egin ze Enperadore Konstanzio, ta gerrara zoeielaik, heri gelditu ze Antiokian: eta orazioen medios in zio Jangoikoak mertxede ikusiarazteas Obispoen koro bat, ta aien erxean bida sendatuko zutenak. Deiarazirik bereala ezaundu zue au zela prinzipala in bear ziona grazia, ta ala istante sendatu zue paratus gañean eskuak. Baña agitu zire bi notagarri: bat da, ezi sartu zelaik palazioan, nola baizego pobre gisa Jaintsirik, ango Paje batek eman zio bofetada bat matelean: eta sanduak kontent itzuli zio berze matela, eman zezon artan ere. Berzea da, ezi ofreziturik Enperadoreak anitz ondasun ta gauza, batere etzue nai izan du errebitu, baizik eman pobreei: erran baizue orgatik Enperadoreak, etzela admiratzen egin zezkien alako prodijioak gizon garrek ala despreziatzen zituenak munduko gauzak. Andik atra ta fite etorri zekio andre kanpoko bat zekarrana besotan aur bat ila. Etzekie mintzatzen ango lenguañean; begiek bai negarres ziote klaro aski zer nai zuen, baize biztea bere aur gura. Sanduak egin zue orazio, ta Jangoikoak biztu zue. Baña zer gero? Ama ikusteareki bere hume maitea bizirik, kontentuaren utses iltze bera an derepente. Sanduak beiratus zerura otoi ta otoi logratu zue biztea Ama ere.

4. Berze asko gauzetan ere mostratu zue Jangoikoak zion amore. Naiz obispo izanik, nola baize pobre, mantenitzen zitue nola len auntzak bere ta berzeen mantenitzeko. Erosi zitio batek eun auntz; ta sanduak nola ezpaizue kodiziarik, erran zio utzi zezala prezioa alako lekuan. Ark utzi zue, baña ez oso. Asi ze oaten auntzeki, baña batek etzue nai segitu: ark andik eta emendik eman, baña ezin zuzenarazi. Nekaturik ia artu zue



soñetan; baña auntzak marrakas ta buldurka iten zio: guziak irri. Sandua zego beira, ta ezaundurik kausa, erran zio, beira faltatu duzun pagatzean. Konfesatu zue, pagatu zue, ta berla auntzak segitu zue. Ladron batzuek nai izan zute egin baza on bat gau batez arren saldoan: Aurkitu zire ala nola loturik eskuak, ta ezin mogi gau guzian. Goizean berla sanduak ikusirik Jangoikoaren presoak, logratu zue libratzea; eta amoltsuki abisaturik eska zezatela lenago ezi ofenditu Jangoikoa, eta izan zuten trabajuaren alokairu eman zioten ari bat; ta ala bializue alegre ta korrejiturik. Andre ezkondu bat enbarazatu zena ez senarraganik sanduak exortatzen zue konfesatzera kulpa. Etzue nai obeditu. Sanduak meatxatu zue Jangoikoaren justiziareki, ta ezin libratuko zela. Ala agitu zekio: anitz oñaze, ta tormentuen buruan iltze libratu gabe, ta konfesatu gabe. Nork konta guziak? Azkenik bere onetsiari bekala bializue Jangoikoak abisu noiz il bear zen, ta eman zio iltze bat prezioso, eramateko bere arima Zerura, non daukan gozatzen betikos beterik glorias.

Abenduaren 17.an S. Franko Sena p. 322.

Abenduaren 20.an Santo Domingo de Silos

1. Eztela Jangoikoaren alzineko ez gora ta apal, ez andi ta ez txipi, ez abrats, ta ez pobre, ta alako distinziorik, baizik Kristiotasunaren, nor ere den kristiago, ura gueiago: Orra S. Domingo Silos, erri txipi batean aioa, Kanas deituan Riojan, Artzai izana gastezutuan bere Aitaren ardien guardatzen, gero erretiraturik leku soil batera kuidatzeko sollik arimas, gero Monje eginik S. Millanen konbentuan sandu egin ze ta famatua. Ordenaturik sazerdote egin zute bere sortuerriko Apezaita, edo arimen Artzai: eta ederki kunpliturik ofizio gau, itzularazi zute konbentura elejiturik Prigore: ta asi zue Jangoikoak mostratzen beraren santidadea asko milagroeki. Erregek nai zue konbentu gartan egin bere autoridades zenbait bear eztenkeria: Sanduak egin zio erresistenzia: orgatik izan ze desterratua. Errezibitu zue Kastellako Erregek, eta eginarazi zue Silosko Monasterioaren Abade. Ogei ta irur urtes gobernaturik bete zue on asun Zerukoek ta lurrekoek.

2. Famatu ze sandua milagro anitz ta andieki Jangoikoaren grazias, sendatus aisa heri-mota guziak, itsuak, estropeatuak, ezin mogi zeizkenak, ta milla alako: baña espezialkiro sokorritus kautibo preso zeuden Kristioei Moroek eskupean, dominatzen baizute denbora gartan sobre Españan: Alako maneran ze Jangoikoaren grazia gau, ezi zeudelarik beren kalabozoen barnean kargaturik burriñas, enkomendatus andik sanduari, edo Jangoikoak sanduaren merejimentus, aurkitzen zire derepente nola etzekite-la konbentuaren atarietan, uzten zuztela an memoriatako beren grilloak, kateak, eta burriñas, ezaundus Jangoikoaren mertxede libratzean sanduaren medios: baña ez an solamente, baita berze Elizaetan ere paratzen zuzte dilindan: baita miragarri bat adiarazten duena zein bere biotzekoa zuen Jangoikoak sandu gau. Gorputzen onetan ala egiten zuenak, zer etzue eginen arimen onetan? Sandu gonon tenploan egiten zue orazio S... Domingo Guzmanen Amak, eta arren merejimentus logratu zue izatea seme andi gau, zein orgatik ditu zue Domingo, ta gero izan ze Domini-koen fundadore, ta sandu bat andia.

3. Pasaturik ederki bere biziaren plazioa bukatu zue txoil ongi. Ikasirik Jangoikoaganik iltzeko ordua, eta emanik bere Monjeei anitz konseju on, ta erranik asko gauza agituko zirenak geroko denboran, zein kunplitu baizire erran bekala, errizibiturik sakramentu guziak debozio guziareki



iltze suabekiro Jangoikoaren besotan despeitus bere arima on gura, zein aur batzuek ikusi baizute zerura igaten koronaturik irur koronaes milla ta iruogei ta amalaugarren urtean, diones Brebriarioak. Zori onean jaioa, naiz pobre aldiritar humilttoa, orai ia gora eder dago Zeruan, eta munduan ere bai Jangoikoaren adiskidetasunean. Eta bada guziei kuadratzen zaigu Jangoikoak onei dioten amorea, guziek nai ginduke aien bukaera prezioso deseagarria, eta ondoreko gloria betirokoa, ezkaitzela engaña, ta ez deskuida emateko garen guzia Jangoikoai, nai baitugu ikusi ongi geuren buruok, ezi niondik ezta zer esperatu gauza onik, baizik Jangoikoaganik: miseriordia ta egia nai du Jangoikoak: Jaunak emanen du grazia ta gloria. psalm. 83. *Quam dilecta tabernacula & propr.*

Abenduaren 21.an Santo Tomas Apostolua

1. S. Tomas Apostoluas aipatuko dugu aski dena gure doktrinatako Ebanjeliotik, ta Autore grabeetaik. Izan ze Galileatarra, ta arrantzuari pobre bat; eskojitu zue Jesu Kristok bere ebanjelioaren barratzeko mundua barna, emanik ortako potestade ta grazia bear zirenak. Nai zutelarik Judatarrek ilarazi Jesus ona; zergatik? Zergatik zen ona, ta onesten gaituen gu sopra: Nai zuelarik Jesusek itzuli Judeara biztera Lazaro ila, etzute laik gañarako Diszipuloez utzi nai itzultzera, baña alaere zegolaik firme ortan bere Majestadea, S. Tomasek erran ziote guziei, *goazen gu ere, ta il gaitzen berareki*: baita señaie amore zionaren, ta arimo andiaren. Alaber azken afarian despeidan erran ziotelaik Jaun dibinoak, zoeiela prestatzera aien dako lekua, ta bazekitela ararako bidea, sandu gonek explikarazteko klaroago erran zio, *Jauna, eztagigu nora doaien; eta nola jakin dezakegu bidea?* Jaun dibinoak erran zue orduan, *ni naiz ba ea, egia, ta bizitza*: adiarazis segi zeza-tela beraren exenplua ta doktrina eman ziotena.

2. Il ondoan Jesu Kristo, ta irugarren egunean bizturik agertu zekiotelaik Apostoluei, etzego an S. Tomas: oni erran ziote aiek, nola ikusi zuten bizturik berriro. Sanduak erran zue, *ezpadut ikusten bere llogen kuntzeak, ta ukitzen neure eskuas bere bularreko lloga, ez tut sinetsiko*. Fede-falta gau izan ze Jangoikoaren permisios, firmatzeko bera eta gu fedean geiago. Zorzi egunen buruan berriz agertu zekioite, zegolaik an presente S. Tomas ere, zeñi erran zio, *beira, ta astazkizu ene llogen kuntzeak zeure eskuas, ta etzaitela izan sinestagaitz, baizik fiela*. Orduan sanduak humil amoroso ta gozoso erran zio, *o ene Jauna, ta ene Jangoikoa!* Jesusek, o *Tomas, zeren ikusi nauzun, sinetsi duzu. Zori onekoak ikusi gabe sinetsi dutenak*. O zer itza au! zein konsolagarria guretako, ezin ikusi, ta alaere sinesten baitugu.

3. Gero beterik Espiritu Sanduas ibili omen ze jendes jende Indieta-raño, argitus guziak Ebanjelioaren argias, obratus Jangoikoaren milagro miragarriak abasto Jangoikoaren gizona bekala. Azkenik baratu omen ze Kalamina, edo Malipur deitzen den Ziudadean, non fabrikatu zuen templo bat Jangoikoaren honratan. Il ondoan Martir arrika, ta lanzada bateki, ortzi omen zute an, non gero S. Franzisko Xabier joanik milla ta kasi borz eun urteen buruan enkomendatzen ze Apostoluari asko egunes ta gaves, logra zezon bere espirituaren bizitasuna, ta grazia, konbertitzeko jende gaiek fede kristiora. Eta tenplo gartan maltratatu zute Demonioek



sandua zegolarik orazioan; baña etze orgatik kobardatu, segitzeko bere tenia. Eta Apostolu sanduak dudarik gabe faboratu zue abastoki S. Franzisko Xabier bere ondorekoa bekala leku gaietan, logratu zuelarik ainberze fruitu. Eta debozio biotzezko zionaren señaile da, ezi il ondoan sandu gau gero, aurkitu ziate lepotik zeukala errelikario edo kajatto bat, eta artan papertto bat bere profesioko botoena; berze bat S. Ignazioren firmareki: eta S. Tomasen ezurto bat; errelikia estimatuak bekala beti bereki zemazkienak. Alakoa da Jangoikoaren jendakia lenta gero adiarazten digutenak nola den Jangoikoaren gustoa; egin dezagun nork bere ariora, logratzeko grazia ta gloria.

Abenduaren 26.an San Esteban Proto-Martir

1. Konbeni da ematea zerbait notizia sandu lenbiziko antiguaskoes ere, naiz eztakigun ainberze nola urbilagokoes. S. Esteban izan ze lenbiziko iltzena Martir Kristioetaik Kristoren fede ta amoreagatik. Ori nai du erran Proto-Martir. Jesu Kristo il ondoan, zoeie aumentatus Kristiogenea egunetik egunera, munduak ta infernuak nai etzuela bortxa. Eta nola baizego orduan karidadea bere ferbore lenbizikoan, ematen zuzte beren ondasunak errepartitzeko Kristioetan, guzien biotza ta arima zelarik bat, ta guziak elkarren anai arrebak bekala Aita bat sollik zutena zeruan. Okupatzen zire Apostoluak errepartitzen sustentua; orgatik zute enbarazu, enpleatzeko erakustean doktrina Kristioa nai adiña. Ortako autatu zuzte ofizio gartako zazpi Diakon oben idurituak. Ebetaik lenbizikoa, fedes ta espiritu sandus betea, izan ze S. Esteban, Aingeru bat bekala gorputz ta arimaren garbi ederrean. Eta Jangoikoaren graziaz egiten zue anitz prodijio ta milagro; disputatzen ere zue kontrario guzieki fede Kristioaren fabore: ta ezin zezakete erresisti xakintasun ta Espiritu mintzatzen zena-ri sanduaren agos. Inbidias ta konfusiones beterik nai zute bota mundutik: ortako erosi zuzte testigo falsuak, akusatzeko, mintzatzen zela kontino leku sanduaren ta legearen kontra. Eraman zute preso Judioen batzar-rrera: an akusatu zute guziek fuerteki. Sandua guzien erdian bakarrik, eztiot ongi, bakarrik, ezi Jangoikoaregi zego: eta dio Eskrituran, beiratzen zutela beraren aurpegia, nola Aingiru batena istargitzen zuena miragarri-ro. Ain ederra ze aurpegias ere, ta arimarena ze ageri kanpotik ere: ortas landara Jangoikoak ere iduriarazi zue bere grazia ta santidadea.

2. Nola baizego seguro konzienzian, zego sereno animoso alegre: ta ala egin ziate platika luze bat, kontatus Jangoikoaren ongi eginak aieki, ta aien gatzki korresponditua. Azkenean erran ziate, zuek beti erresistitzen Espiritu Sanduari zeuren alzinekoen gisara: aiek ilarazi gizon sanduak eta Profetak eman zutenak berri Jesu Kristos, eta zuek ilarazi baituze bera malamente. Aditus egia gebek zeude errabiatzen biotz barnean, ta ortzak irrikaturik arren kontra. Goratu zitue sanduak zerurat begiak, ta erran zue, *orra ikusentut idikirik zeruak, ta Jesus an txutirik Jangoikoaren eskuieko aldean*. Orduan goratu zute oiuketa, eman zute guziek batean beraren kontra, ta atrarik kanpora tiratzen ziate arrika: ta aisago egiteko, kendurik tresenak utzi zuzte Saulo deitzen zen mutil baten aldakan: au izan ze gero S.



Pablo. Sanduak arrien erlean zio, o *ene Jesus Jauna, errezibi bez nere espiritua*. Berla belauriko paraturik, klamatu zue oiur andi bateki, *Jauna, ez dezotela kargu egin bekatu gontas*. *Barka bezote*. Au erran ta lokartu ze Jangoikoan, dio Eskriturak errateko il zela Jangoikoaren besotan. Zein kuadrable den Jangoikoai barkatzea kontrarioei, nola Kristok ere adiarazi zuen guruzean, agertu ze konbertitzean gero Saulo milagrosoki, zeñen konbersionea izan zela S. Estebanen orazioaren atenzios, diote Aita Sanduek. Dolamen eta negar anitz izan ze Kristioetan, ilagatik Martir glorioso gau; orzi zute honra andiareki. Eta andik asko urte gero Jangoikoaren errebelazios aurkitu ze gorputz sandua, zeñen inbenziona zelebratzen da Agustuaen irugarrenean. Eta eraman ze azkenik Romara, non paratu zuten S. Lorenzoren urnan: eta diote paratzerakoan saietseratu zela au, utzis eskuieko alde S. Estebani: ta orgatik deitzen dela S. Lorenzo Español Kortesa.

Abenduaren 27.an San Juan Ebanjelaria

1. S. Juan Ebanjelaria, Jangoikoaren Apostolu, Profeta, Doktore, Birjin ta Martir glorioso, Jesusen Diszipulo maitea, Ama Birjinaren seme señalatu, izan ze Galileatarra, ta Santiago andienaren Españako Patroinoaren anaia gasteena. Zeudelarik bi gebek beren Aitareki konpontzen arrantzurako sareak, deitu zitue bere gana Jesus onak, eta istante utzirik sare ta guziak segitu zute gogotik. Biei paratu ziote izen-gañekoa Boanerges, nai baitu erran ortotsaren hume, edo ausnarri. Bi gebek S. Pedroriki eramaten zitue berex zenbait gauza sekreto in nai zuelarik bere Majestadeak. Ainberze fabore iten ziote Jaunak ebei, ezi beren Ama atrebitu ze bein eskatzera, Jauna, mana bez ene bi seme gebek jarri daitzen, bata berorren eskuieko aldean, berzea ezkerrekoan bere Erreinuan. Jaun dibinoak erran ziote, *Eztakize zer eskatzen duzien. Bidezakeze pasa tragoa nik pasatu bear dutena? Aiek, bidezakegu*. Jaunak, *bada pasatuko duzie ene kaliza; baña jarritzea ene aldeetaik izanen da norendako disponitu duen ene Aitak*.

2. Prebenitzeko azken afaria Jerusalemenean, biali zitue alzinean S. Pedro, ta S. Juan: Eta afari gartan egon ze au erreklinatutik Jaun dibinoaren bularretan; eta aipatu zuelarik Jaunak, bere Diszipuloetaik batek traiziatuko zuela, S. Pedrok jakin naiak nor ote zen traidorea, ez trebe izanes galdegitera, keñu egin zio S. Juani, onek galdegin zezon; ta aldegin zio, ta señaie eman zionetik ezaundu zue nor zen. Baña nork daki gañarako sekreto ikasi zituenak Jaun dibinoaren bularretan gau gartan? Fabore amoroso andi espeziala izan ze au: baña geiagokoa ze egin ziona guruzetik azken atsetan. Araraño S. Juanek, niork ez bekala, akonpañatu zue Ama Santissima, an zego berareki guruzearen ondoan penas beterik beira nola zegon Jesus dibinoa guruzean akabatzen. Andik aitu zue, nola erraten zion bere Amari, *emastekia, orra zure semea*: eta berari berla, *orra zure Ama*. Eta ordu gartaik betekos izan zue berea bekala. O grazia grazioso! Fabore ezin daikena aski pondera! Oneki deklaratu zue bere anaia bekala S. Juan, ta bere Ama Birjinaren hume maite espeziala. Guzien Ama da Maria Santissima karidades, baña S. Juanena kariño ta dretxo espeziales, testamentuan emana bekala. Zer honra, zer fabore, zer gusto zoragarria etze ain maiz beti mintzatzean Ama Santisimak erratea, *ene humea? Zer etze errespondatzea, mana bez, ene Ama? Hume onaren ofizioa kunplitze-ko, bizitu zen bitarteo Ama Birjina akonpañatu zue S. Juanek an Jerusale-*



nen, ta gero Efeson, diotenez. Eta zer etzuke logra, ta zer ez dezake oraño ere alako Amaganik debotoendako?

3. Asian lukro fundatu zitue zazpi Eliza ordenatus Obispo ta sazerdote bear zirenak. Andik Romara eramanik preso sartu zute olio irakines beterik zegon tinaja batean, nondik atra zen mellarik gabe Jangoikoaren birtutez. Desterraturik gero Patmos deitzen den Islan eskribitu omen zue Apokalipsi edo errebelazioen librua, baitare Ebanjelioa asten dena *In principio erat verbum* &. Itzulirik Asiara an Efeson bizitu ze agitz zar predikatus Kristoren doktrina, espezialki karidadea. An il omen ze eun urtetan nekepenarik gabe, ta badire diotenak, dagola gorputz ta arimareki zeruan. Edozein gisas eztaike duda, ain maite izanak Jesusen ta Ama Birjinaren, duela potestade, logratzeko bere debotoei anitz grazia.

Abenduaren 28.an Martir Inozenteak

1. Uste dut eztutela askok entendatzen ongi, zer zelebrazten den Martir inozenteen egunean, zeren itzak ere ta izenak makur entendatzen baitire munduan. Orra askok aditus itz gebek simple inozente, uste dute erran nai duela fatuo hero, zoro, edo juizio gabea: eta kontra da: ezi inozente propioiki da kulpa gabea, ona, gaizkirik iten eztena. Martir inozenteak bada dire aur zorioneko gaiak ilarazi zituenak Herodesek ilarazi naies Jesus ona jaio ta laster. Da bada ikasi bear dena ezi jaio zelarik Jesus Belenen, onen señaletako ikusi zute izar berri bat Irur Errege Magoek beren lekuetan; eta entendaturik adiarazten zuena etorri zire adoratzera Errege berri jaio zena. Sarturik Jerusalem galdegiten zute an, ia non jaio zen Judioen Errege; zenen izarra ikusi zuten iruzkiaren sortaldean. Herodes, baize Judioen Errege, turbatu ze on aditus, ustez jaio zen edekitzeko berari korona. Eta bilarazirik sazerdote prinzipalak ta jakintsuak informatu ze nola zegon Jangoikoaren errebelazio Eskritura sagratuan, bear zela Kristo jaio Belenen. Orduan inbidias ta malizias beterik erran ziote irurgaiei, zoazte Belena, ta aurkitu ondoan aurra, biali zadaze niri berria, joateko ni ere adoratzera. Joan zire aiek, aurkitu zute, adoratu zute, ofratu ziote urre, inzensu, ta mirra: eta zerutik abisaturik etzei zela itzuli Herodesengana, berze bides itzuli zire beren lekuetara. Herodes beti etxideten; denbora pasaturik, ia etzirelaik ageri berak, ez aien berririk batere.

2. Orduan beldurak galdu Erregetasuna, ta aur garrek kenduko ziola, artu zue erresoluzio barbaro inhumanoa, ilarazteko bi urtetarañoiko aur guziak Belenen, ta inguru gaietan. Bitarteo Jaunaren Ainguruak manatu zio S. Josefi, eramateko aur dibinoa ta beraren Ama Ejiptora: ta ala egin ze: ta Herodes gelditu ze burlaturik, ezi Jangoikoren kontra eztu balio gizonaren astuzia guziak. Ejipton zegon bitarteo familia dibino gura, Herodesek bialirik bere soldadoak Belen alderat, ilarazi zitue leku gaietako aur guziak, nola otso arrapariek axuritto esnekoak. Pensa nolako arakintza, nolako lotsamenturak, lamentuak, iskirituak, Amaenak prinzipalki ziren aietan. Zenbat izan ziren ala sakrifikatu zirenak ezta zierto, naiz batzuen ustez izan ziren amalaur milla: zierto dena, guziak izan zirela Martir, il baizire Kristoren motibos: eta logratu dutela glorian glorioso korona betirokoa. Ebek dire Elizan zelebrazten direnak Martir inozenteak, Martiren loreak, axuritto berriak Jesusen honratan sakrifikatuak. Eta



orra nola eztuten kalterik, baizik probetxu, ain goizik iltzeas seguratus bizitza sekulakoa, il bear zirenak alas edo olas gero ere goiz edo berant, eta agjan kondenatu, bizitu bazire luzaro. Buratsoek ere eztute kalterik ofrezituas Jangoikoai hume gaiek, ezi ala eman ziot e aiei dignidaderik andiena, Jangoikoai plazer, gloria, ta satisfakzio zor ziotenas. Eta azke-
nean guziok gara Jangoikoarenak, ta guzietas in dezake nai duena bere gauzes bekala; eta ala nola ardantze baten jabeak baitu dretxo, artzeko bere ardantzetik matsak, dela agrazean, dela zoritu ondoan, niori perjuiziorik in gabe; ala Jangoikoak non iten dio perjuizio eramateas zerura bere eskojituak, direla aur, direla gaste, direla zar? Zerk ere iten digun perjuizio adin guzietan, dire bekatuak: ezi barin bagina inozente kulpa gabeak egungoak bekala, iltzea litzake jaiotzea bizi obero &.

Abenduaren 31.an San Silbestre Papa

1. Urtearen azken egunean zelebratzen da S. Silbestre Aita Sandua-
ren festibidadea, zeñen egunetan asi zen Eliza errepausatzen Enperadore Infielen persekuzioetaik Jangoikoaren grazias. Aien beldurrez zego altxaturik oian batean Aita Sandua. Ara bitarteo Jangoikoaren probidenzia. Ze Enperadore Konstantino andia, Infiela berzeak bekala. Eman zio oni heritasun bat demanera ezi oñetaik bururaño baizego beterik lepras, ezin kura zeikenas. Kuratu naies ordenatu ziot e bañatzea, edo artzea bañuak aur txipitooen odoles. Beira zenbat eta zenbat il bear ziren ortako. Billatu andik eta emendik, ta bildu omen zire irur millataraño. Ia ia zeudelaik zorrozturik armak degollatzeko aurtto gaiek, eta Amak negarres, ta iskitus zeruraño klamatzen, lastimatu ze arren biotza, ta etzue mai izandu usatu bañu bat ain kruela, naiz gelditu heri len bekala, baizik itzularazi aurrak beren Amaei, eman zenbait diru, ta zoezila etxera Jangoikoareki. Pensa zer kontentua, zer bedeizioak!

2. Urbilen gauean agertu omen zire Konstantinori S. Pedro ta S. Pablo laudatus egin zuen miserikordia, ta manatus biali zezala billatzera Kristioen Aita Sandua deitzen zena Silbestre; onek erakutsiko ziola berze bañu aisago ta obeagoko bat, sendatzeko gorputz ta arimaren lepra. Bereala biali zue arren eskue: aurkiturik joan ze mandatarietiki, ustez naski zeramaten egitera Martir. Baña erran ziolaik Enperadoreak amets edo errebelazio izan zuena, ta nola aparezitu zekizkion bi sandu gaiek, mostratu zitio aien imaa S. Silbestrek. Seguratu ze Enperadorea berberak zirela; ta erakutsi zezola bañu manatu ziotena. Sanduak erran zio, au etzela berzerik, baizik bataioko sakramentua, nai bazue errezi bitu. Nai zue gogotik ere: ta ala erakutsirik Errelijione Kristioaren doktrinan, ta utzirik bere manto erreala ta korona, jaintzirik penitente gisa bataiatu ze sandua-
ren eskus. Agertu omen ze bataiarriaren gañean argitasun bat zerukoa, ta bera atra ze andik ain garbi eder sano aragiak, nola aur txipi batenak. Orreki alegre S. Silbestre, ta alegreago Enperadorea, asi ze triumfatzen Kristiandak.ea. Manatu zue urratzeko Jangoiko falsuen tenploak, ta fabrikatzeko Jangoiko bakar egiaskoari; eta bere kostus in zue asko tenplo Roman, ta berze lekutan: Dotatu zitue haziendas ta errentas: suplitu ornamentaes, ta urre zillarresko baso sagratues: baitare sazerdote ta Ministro bear bekalakoes. Ez oneki sollik kontent utzi zio Aita Sanduari Roma, eta



berak pasatu zue Korteia Bizanziora, zein anditurik ta ederturik deitu ze Konstantinopla ta Roma berria. Pontifize ta Enperadore geben denboran bildu ze Nizean Obispoen Konzilio jenerale lenbizikoa, zeintan egon zen presente Konstantino irur eun ta emezorzi Obispo sandu gaieki, 325 urtean: eta an dekretatu zena konfirmatu zue S. Silbestrek; zeñek emanik Jangoikoai esduerrak Eliza guziaren alako ditzas, ta eginik asko obra on, ta ordenaturik anitz Obispo ta sazerdote ogeita bi urte izan zenetan Aita Sandu, beterik urtees ta merejimentus itzuli zio Jangoikoai bere arima; ta gorputza honratu zute lurrekoek solemneki orduan; eta gerostik onat dirau beraren memoria Kristiandadean beti, zeren bere denboran asi zen burua goratzen Eliza, Jangoikoaren familia. Berak anpara bez. amen.

Izotzillaren 1.an San Fulgenzio Obispo Ruspense

1. Urteko sandu guzien bizitzak ezin kontatus, zenbait berexikotugu, zeñetaik dezakegun artu exenplu bizitzeko. Izotzillaren lenbizikoan S. Fulgenzio, ez Españakoa, baizik Afrikakoa. Jaio ze Lepten buratso nobleetaik: azi zue Amak alargundurik birtute ta letraetan ederki: eta ze Amaren anparo ta deskansu guzia seme ona. Baña desengañaturik munduas erretiratu ze erreligionera, naiz Ama bete zen penas: zeñi utzi zio bere dretxo zuena etxeko ondasunetan. Bizi zelarik sanduki erretiroan, etortzeareki jende armatuak, bear izan zue iges egitea, bizia libratzekos. Baña Infieletaik eskapaturik lagun bateki, erori ze Arriano herejeen eskuetan; ebetaik batek azotatu, golpatu, ta burua pelaturik bota zue andik. Gaizki iduritu zekiote herejeei berei ark egina, eta buruzagiak ofrezitu zue kastigatzea ura, baldin nai bazue sanduak akusatu. Baña sanduak etzue nai izan, baizik barkatu, segitus Kristoren exenplua, eskatu baizue gurutzean guruzifikazaleen faboretan: baita doktrina eder bat sandu guziek ikasi ta kunplitu zutena: kontra berriz Kristio txarrek agrabio-iduri bat errezibitu orduko, berla pensatzen mendekua ta ordaña gaitzes gaitz: ez ala Kristio nobleek, baizik gaizkiak onkieki pagatus ta garaitus, dion bekala errefran erdaraskoak, *dando gracias por agrávios negócian los hombres sabios*: Euskaras daikena erran, itzulis ongi gaizkiagatik tratu ona iten dute jakintsuek orgatik. Baña segitus.

2. Denborain buruan itzulirik bere lekuetara ordenatu zute sazerdote, ta gero Ruspeko Obispo berak nai etzuela bortxa. Solamente Diakon bat tristatu ze sanduaren Obispo eginas, zeren bera nai zen egin arte gaixtos. Sanduak ordea jenerosoki barkatu, honratu, ta ordenatu ere zue sazerdote Diakon gura, baña Jangoikoak kastigatu zue bizia kendus urtearen barnean. Oben obenean zegolarik kuidatzen bere ardi espiritualak Artzai sandua, Errege Trasimundok, hereje Adriano zenak, desterratu zitue Afrikatik Obispo Katolikoak, berreun ta iago, diotenez. Baratu zire Zerdeñan, non guzien konsolazale, animazale, ta erremediazale izan ze S. Fulgenzio. An egin zuen probetxua, nork explika? Baña erregek, kendurik Arzaiak, nai zitue engañatu ardiak, iduriarazis ark etzuela berzerik nai, baizik txuritu errelijionearen egietafedea: ortako nai zuela erresponda zezoten galdetzen ziotena, ta galdeginik ignorantei, ebek ezin errespondatzeareki, zego ura antustes beterik. Aiturik ordea desterratuen erlean zela



Fuljenzio jakintsu sandua, deiarazi zue, ez jakin naiez egia arrenanik, bai estali naies bere herejia alako gizonaren autoridadeas, ustez naski etzen atrebituko kontrarrestazera. Baña sanduak aiturik proposizioak, espaziorerki oroat, derepente oroat, desegin zitue iluntasun guziak, ta ikusiarazi zue klaro egietafedea, nola iruzkiak. Baña Herejeek dutena, eztute nai argia, bai Auna, eznaiez utzi, baizik mantenitu beren bizioak ta gaixtake-riak doktrina falsuen engañuareki. Orgatik konfunditurik eznaiez ikusi begien alzinean sandua desterratu zute berriro Zerdefiara, manatus enbarka zeuela gauas, etzezaten ikusi Katolikoek. Baña Jangoikoaren borondatez onzia deteniturik aize kontrarioeki, bisitatu zute, despeitu negarrez, ta artu zuzte beraren konseju onak ondoreko. Berzeen ertean Erreljioso bat deitzen zena Juliateo etzeike konsolatu: oni erran zio sekretoan, etzaitela aflji, ezi emendik guti atertuko da persekuzioea, ta ikusko gara elkar: zuri erraten dizut au, baña zuk etzozula niori erran.

3. Bere humiltasunes etzue nai agertu zuen grazia Jangoikoaganik; ta zukelarik ere, ez luke nai milagrorik egin, baizio milagroek ezutela egiten gizona sandu, baizik famatu: Eta ala bear orduetan iten zue orazio gau, Jauna, berorrek daki zer konbeni den gure arimen onerako; otoi sokorrigaitza beartugunetan gorputzendako de manera ezi gal ezdezazkigun arimarenak. Zerdefian fundatu zue konbentu bat, non azi zuen asko Reljioso sanduki. Bitarteo iltze Trasimundo Erregea, ta sartu ze Hilderiko agitz ona Katolikoendako. Onek itzularazi zitue Obispo desterratuak: zein izan zire errezibituak jendearen aleganzia andiareki, prinzipalki S. Fuljenzio zeintas diote kuidatzen zuela guzien gañetik Elizagizones, eta predikatzeeas kontino penitentzia. Urbildus despeida mundugontaik, prestatu ze penitentzia geiagoreki, ta sufrimentu andi bateki heritasun luze baten oñaze erruetan, ziola humil humila, Jauna, orai eman bezada pazienza, ta gero barkazio ta induljenzia. Gero il bañoen emanarazi zue pobreei zituen ondasun guzi guziak. Ondorean itzulirik Jangoikoagana orazioan, juizio oso, bake, ta sosegu admirableareki eman zue bere Espiritua Jangoikoaren eskuetan adineko irur ogei ta borzgarren urtean, Kristoren borz eun ta ogeita bedratzigarrenean. Ala Jangoiko onak bere Mutil ona trabaju puska bat pasatu ondoan, egin zue glorioso lurrean, ta glorioso zeruan, non daukan gozatzen bereki eternidadean...

Izotzillaren 3.an Santa Jenobefa Parisgo Patrona

1. S. Jenobefa Parisgo Patrona jaio ze ango aldirita batean urbil. Aurtooa zelaik oraño, ageri ze artan Jangoikoaren grazia de manera, ezi pasatzean andik S. Jerman Obispoa S. Luporeki, jendeak atrarik ikustera ta honratzera, guzien ertean sanduak ikusi ta ezaundu zue sandattoa bere buratsoeki an, ta deitu zue, ta exortatu zue konsagratzera Jesu Kristori zen guzia bere esposa eskojitua bekala, despreziatus mundua: eta entendaturik sandattoaganik, oni beroi zela arren intenzioa, eman zio señaletako guruzetto bat eraman zezan lepotik. Eta buratsoei enkargatu zio agitz kuidatzea arttoas, ditzosoak zirela izateas alaba gura. Ia prinzipiotik Jesus onak artu zue posesio arima artas, eta zeuka amorosturik bere Majestadeas, etzuela kasorik gañarako guzias. Egun batez nai zuelaik Amak elizara joan manatu zio aurttoari, geldi zeuela etxean: aurrak otoi ta otoi, porfia ta porfia eraman zezala bereki elizara, enfadaturik Amak eman zio aflon bat: ta bereala gelditu ze itsu, ta egon ze bi urtes, alik eta eskatu zion alabari ekar zezola ur guti bat butzutik, ta forma zezala gurutzeearen señailea begien gañean: oneki, ta ur artas garbitzeareki itzuli zekio bista. Ala asi ze Jangoikoa mostratzen zein maite zuen arima gura. Geroxago joan ze berze bi donzellaeki Obispoagana, bedeika zezkiela ta konsagratu Jangoikoai: ala egin zue Obispoak, ta len lenik Jenobefa, naiz gasteena izanik, ezaundus Jangoikoaren argis graziasko tesoro altxatuak petxo gartan.

2. Il zekizkio buratsoak, ta bera joan ze Parisa bizitzez: An progatu zue Jangoikoak perlesiasko heritasun luze nekepenasko bateki: purgatorio gartan ezaunarazi zue arima garren ona munduari, ta bere denboran eman zio osasuna. Denbora gaietan zebila Franzian Atila deitu zena Jangoikoaren azotea. Zoeie urbildus Parisa; ta angoak iziturik, erre ta errautstuko zuela guzia, zeude joateko iges libratu naies biziak. Sandak on aiturik erraten zioe ez egiteko alakorik, akudi zezatela Jangoikoagana penitentzias, barus, orazios, ta limosnas; konfia zezatela Jangoikoaren miserkordian, etzela sartuko azote gura Parisen. Eta sanda zego kontino eskatzen on beroi negarres bere Esposo dibinoai, ta esperanza onak ematen jendeai. Baña entenda daien, nola Jaun onak permititzen duen bere onetsiak izan daitzen persegituak ongi eginagatik, Parisdar zenbaitek, edo beldurtiagos, edo naiagos atra andik, ikusirik sandaren konsejus detenitzen zela jendea,



determinatu zute iltzea, ta etzute il berla, pensatzeagatik zer eriotze gisa eman bear zioten. Eta S. Jermanek biali zuen Arzediano batek usmaturik nai zutela ilarazi sanda, nekez doi doia logratu zue utzi zezaten bizirik sanda, zeñen atenzios Jangoikoak etzue permititu ellega zeien Parisa Atila. Oh! nola jokutzen diren gizonak itsu itsua beren kontra!

3. Admiragarria ze sanda gonon bizimodua; guzia karidade, humildade, kastidade, mansotasun, pazienza, mortifikazio: ezi amabortz urte-taik berrogeitamartaraño asteen bi egunes solamente artzen zue sustentu, ta orduan ordiosko ogi ta elzari sollik. Pasaturik urte goiek, obispoen manamendus arzen zue esne guti bat, ta bijiliako janarietaik. Antziatzen zerurat, beiratus ere beraxten, ta negarres asten ze. Milagroak arren medios nolana obratzen zitue Jangoikoak. Asko aldis argia itzalirik gauas itxekitzen ze orazio solas. Usatzen zue Errege egunetik ortzegun sanduraño egotea erretiratu ertxirik Zelda batean orazio ta penitenziatan. Emasteki batek kuriosidades nai izan zue beiratu zer ari zen: eta istantean gelditu ze itsu, ta ala egon ze atra arteo sanda erretirotik, ta eman arteo bista. Jaun bati eskatzen zio barka zezola bere mutil bati eztakit zer kulpa. Ura gogor ezetz: sandak erran zio, orrek eznau aditu nai; bego, adituko nau ene Jesus onak. Itzuli zeneko etxera Kaballeroa, erori ze gaitz mortale batean; oneki ezaundurik bere kulpa eskatu zio sandari erremedio, ofrezituz barkatzea: ta guzia egin ze. Arionontara agitu ze Franziaiko Errege Txilderiko deituareki, zeñek naiz ez Kristio izanik, zio sandari errespeto. Bein manaturik justiziazetzeko gaizkiegille batzuk Parisen, sospetxaturik eskatuko ziola sandak aben bizia, ta ezin zezokela uka, atra ze Ziuk ade-tik kanpora, ta ertxiarazi zitue atariak, etzeiken atra sanda. Onek jakinik, joan ta agertu zeneko, atariak bere kabo idiki zire; ta ellegaturik Errege-gana logratu zue nai zuen grazia.

4. Berze asko milagro-mota egin zue bizian erremedius gaitz genero guzietatik, eta bein suplitu zue Karis Ziudade andi gura, joanes bera billa, ta bidean obratus prodijio miragarriak. Laurogei ta iago urte bizitu ze bizimodu ain penitentean, eta bukaturik bere emengo plazoa, iganik Zerura arima, gorputza dago Parisen, non lenbiziko Errege Kristio izan zirenek fabrikatu ziote tenplo andi bat; eta beneratzen dute guziek Paris-go Patrona bekala. Il omen ze laur eun ta berrogeitamazazpigarren urtean, orai duela milla irur eun ta iago urte. Admiratzeko dena sanda gontan da, Jangoikoak errebelatzen baizioten bere sierboei onen santidadea ta grazia aurkitu zuena Jangoikoaren begietan, estima zezaten, ala nola beti estimatu baizue S. Jerman Obispoak; eta S. Simeon Estilitak pilare baten gañean bizi zenak iruzkiaren sortaldean, beñere ikusi etzue-

nak begis, galdegiten ziote artas zoezinei Franziatik, ta itzultzen zirelaik, bialtzen zio aieki eskatzera enkomenda zezan ura Jangoikoai, baizekie Jangoikoaren argis, zein kuadrablea zen bere Majestadeai. &



Izotzillaren 5.an

San Eduardo Inglaterrako Errege

1. S. Eduardo Inglaterrako Errege jaio ze Inglaterran, ta azi ze Bre-
tañan, nora errefujiatu zen bere Ama alargundurik. Ze guzis humila,
honestoa, ixila, debotoa afizionatua tenplora, eta enzutera mezak, kon-
bersatus gizon sandueki. Azitzen zegon bitartean, Inglaterrako erreinua
urratzen ta galtzen zute Danoek, desegines tenploak ta konbentuak, ila-
razis sazerdoteak ta gañarakoak. Bintoniako Obispo sandu bat zego kon-
tino eskatzen Jangoikoai orazioan ainberzeko galmendearen erremedio:
eman zio Jangoikoak lo gozo bat; artan ikusi zue S. Pedro, ta onen alzi-
nean Eduardo errege gisa jaintsirik: eta Apostolu berak konsagratu ondo-
an Errege bekala ematen zitiola konseju onak, prinzipalki guardatzeko
kastidadea ta deklaritzen zenbat urtes erreinatu bear zuen. Admiratu ze
bisione gartas Obispo sandua, ta aldegin zio S. Pedrori, zer adiarazi nai
zuen. Pedrok erran zio, Erreinuak daude Jangoikoaren eskuan, ta gizonen
bekatuengatik kentzen ta aldatzentu. Zuen jende gonek zeuka ofenditu-
rik bere Majestadea, orgatik du gerra gonon azotea: baña beraxtuko da,
ezi eskojitu du bere biotzeko errege izan bear dena, zeñek garaitu etsaiak,
ta obratukodu anitz obra on. Guzia agitu ze; naiz il zuzten sanduaren
anaiak, ta aide asko, arrek eskaturik Jangoikoai libra zezan bera, konbeni
barin baze; ta ofreziturik, ellegatzen baze Errege izatera, kuidatuko zuela
zerbitzatzeas berak ta bere jendeek Jangoikoai, eta S. Pedro artuko zuela
Patrono, ta joanen zela Romara bisitatzera arren tenploa. Aditu zue Jan-
goikoak, eta serenaturik tenpestadea egin zute Errege S. Eduardo kon-
formidade ta kontentu andiareki.

2. Bereala Errege sandua exenplu, konseju, ta manamendu sandueki
asi ze erremediatzen guzia, guzieki benigno, afable, miserikordioso, libe-
ral. Zego ia erreinu guzian asentaturik erreljioa, bakea, ta gobernu ona.
Eta etzeten falta ondasun gau akabatzeareki sandua, eskatu zio erreinu
guziak ezkontzeiela. Emen aurkitu ze loturik bekala, eznaies displazer
eman erreinuari; ta naies bateo konserbatu Birjinidadea ofrezitu zuena
Jangoikoai: baña Jangoiko beraren inspirazio artu zue esposa donzella
sanda bat deitzen zena Edita. Biak zire guzis konforme birtuteetan, espe-
zialki honestidadearen afizionean: eta ala elkarren borondatez ta konsen-
timentus bizitu zire kastidade perpetuoan, nola balire anaia ta arreba,
niork xakin gabe sekreto gau, baizik berek sollik eta Jangoikoak: baita

exenplu bat miragarria Jangoikoaren graziaren, ta erreljioa Kristioaren.
Danoak naiz len izan ziren botatuak Inglaterratik, zeude itzuli naiak
gerras: ta ala bildurik tropa andiak ortako, ia joateko itsasos, onzira igate-
rakoan aien Errege erori ta ondatu ze itsasoan. Lanze gau ikusi zue S.
Eduardok Jangoikoaren argis meza entzuterakoan, eta onkorean bereei
kontatu ziote errebelazio izana, ta gero etorri ze berria nola agitu zen.
Orreki sanduaren merejimentus libratu zire bera, ta bereak peligrotik.

3. Ia zegolarik trankil alde guzietatik, iduri zekio eskaida ona, kunpli-
tzeko Bella len egin zuena, joateko Romara, bisitatzera S. Pedoren erre-
likiak. Deklaratu ziote bere Konseju ta Erreinuako Jaunei: guziak ago batez
bekala asi zekizkio klamatzen etzeiela ausenta, etzekiela utzi peligroan.
Berriz sandua aurkitu ze ertxiturik etzekiela zer egin: alde bat nai kunpli-
tu bellaren obligazioa, berze alde ezna desanparatu erreinua: erresolbitu
zue bialtzea konsultatzera Aita sanduareki. Arrek dispensatu zio bellan,
manatus eman zezala limosnatan gastatu bear zuena bidean, ta egin edo
aumenta zezala tenploren bat S. Pedoren honratan. Romatik eldu zen
bitarteo errespuesta gau, zerutik gizon sandu bati errebelatu zekio S.
Pedoren ordes, eskribi zezola Erregeri, kunpli zezala manatzen ziona
Aita Sanduak, berritus Londresen tenplo bat seinalatu ziona. Eta guzia
kunplitu zue S. Eduardok: entenda daien Jesu Kristok bere Eliza edo
familia gontan dauzkiela depositaturik giltzak, baitire potestade espiritua-
lak lazatzeko ta lotzeko. Luzitzenzue S. Eduardok santidade guzian, baña
espezialki benignidadean bere menekoeki, ta karidadean beartsueki. Eto-
rri zekio hein Irlandes bat tullitu ta ezindua etzeikena ibilli: Onek erran
zio, nola sei aldis orazio eginik S. Pedrori, Apostoluak errespondatu zion,
nola nai zuen Errege lagun arren sendatzeko milagroan, eraman zezala
bere soñean palaziotik tenploraño. Bereala Erregek humil artu zue
soñean, irris batzuk zeudela, arriturik berze batzuk; ta presentatu orduko
tenploan, ain sano ta sendo gelditu ze, ezi joan ze Romara peregrinazio-
an, emanik biderako Erregek. Meza enzuterakoan ikusi zue bere begis
Jesus ekuieko eskuas ematen ziola bedeizioa guruzearen forman. Lanpa-
ronak zituen bat etorri zekio nai bazue ukitu eskuas: ukitu ta ures eman
orduko sendatu zue. Itsu bat argitu ze garbitus begiak urareki, zeñeki san-
duak garbitu zituen bere eskuak.

4. Beraren sui Godubinok suberbo andinaiak, Erregea onegi izanes,
tratatu zitue gaizki erregeren Ministro zenbait: Bazkaltzerakoan egun
batez erran zio sanduak nola sospetxa zuen lira izan zela konsient bere
anaiaren eriotzean. Suiak erran zue juramentureki, nik ortan kulparik izan
badut, Jangoikoak in dezala, ezin pasa dezaketan amen gau. Bada berar-



tan amen gura baraturik txintxurrian ezin pasatus gelditu ze ilik maian. S. Pedros landara S. Juan Ebanjelariari izan zio debozio espeziala. Onen amorez niore etzio ukatzen eskatzen zionik. Peregrino batek eskatu zio bein sanduagatik: ta berzerik etzeukalaik eskunara eman zio bere eriko erastuna. Gero Jerusalem zoezin peregrino batzuei, bidea galdurik, agertu zekiote S. Juan, ta seguratu ziote biaje ona, arrek faboratuko zituela, aien errege Eduardo zuela guzis maite bere kastidade ederragatik, eman zezotela erastun gura berak eman ziona eskatu ziolatik limosna peregrino gisa: ta andik sei ilabete joanen zela arren ikustera eramateko bereki zerura. Itzulirik Peregrinoek kontatu ziote guzia Erregeri; entregatu ziote bere erastun gura. Errege berri goneki asi ze berriro prestatzen iltzeko, egines asko limosna, obra on, ta orazio. Plazora urbil zegolaik heritu ze, ta errezibiturik Elizako ordenamentuak sanduki, egon ze bi egunes elebaturik sentidorik gabe ila bekala. Orduan ikasi zue Jangoikoaganik zenbat gaitz etorriko ziren Inglaterran. Itzulirik berebaitan deklaratu zue kastigo etorriko zekiotena bizituagatik gaizki elizagizonak, buruzagiak, andi ta txipi, abrats eta pobreak. Gero manatu zue egitea errogatibak beraren ongi iltzeagatik ainberze kuidoareki atratzeko ongi mundugontaik, xakinik eternidade guzia jokatzan dela puntu gartan, desengaña gaitzengatik bekatariok, nolako kuidoareki den arrazio gu prebenitzea, ala afanatzen direlaik prebenitzeko sanduak. Enkomendatus gero bera S. Pedro ta S. Juan bere debozioskoei, ta gañarako Aingiru ta Sandu Zerukoei, berexki bere guardiako Aingiruai, guzien gañetik Ama Birjinai ta Jesus onai, entregatu zue bere Espiritua mila ta iruogeitaseigarren urtean. Jangoikoak errezibitu ta koronatu zue zeruan, ta kanonizatu zue lurrean Aita Sandu Alexandro III.ak. Biz laudatua Jangoikoaren ona baitezake, baita-ki, ta nai baitu estado guzietatik egin bere sanduak &.

Izotzillaren 6.an San Andres Korsino

1. Florenzian senarremaste batzuk humerik gabe, baliatu zire Ama Birjinas orazio egines, ta ofrezitus aziko zutela berarendako, ematen baziote bat: Eman ziote, ta Amak erdibaño len in zue amets, zeramala sabelean otsoko bat, baña au Karmesko Elizara joan ta itzuli zela axuri. Etzue entendatu Amak misterioa, baña beti zego beira zer izanen ote zen. Jaiorik S. Andres egunean deitu zute Andres. Azi zute al guzia ongi Ama Birjinak emana bekala. Baña o lagun gaixtoen pestea, zein aisa den kutsatzea! Gastetus bekala zoeie gaixtatus, geroago ta iago. Amak bere biotzeko miñareki korrejitzen zue ia beraxki, ia gogorki: Semeak ajolarik ez batzutan, ta berze batzutan itzultzen zio futoska super. Aldi batez agitz moldegaizki tratatu zuelarik, negarres Ama gaizoak erran zio, ia entendatzen dut amets izan nuena: zu zara egiaz otsoko gura: baña esperanza dut oraño ere Ama Birjinak itzuliko zaituela axuri beretako. Baratu ze orduan Mutila derrepente: eta ia modu onean mintzatus, zer otso dio, Ama? Zer axuri? Amak kontatu zio, nola erdetxi zuen izatea seme Ama Birjinaren medios: nola ofratu zion: nola gero egin zuen amets gura: ta Ama Birjinaren amorez otoi emenda zeila. Istantean biotza aldaturik Andres negarra zeriola paraturik belauriko eskatu zio barkazio: eta berla biramonean joanik Karmesa, eskaturik Ama Birjinal grazia, ta Probinzialeai habitua errezibitu zue gozoso etorririk boladan Buratsoak ikustera, ta entregatze- ra ofrezitu bekala. Oh! zenbat balio duten buratso onek, Amak prinzipalkiro!

2. Sartudorduko Nobiziadoan ia gizon berri bat bekala enpleatzen ze guzia plazer in naies Jangoikoak guzietan, penitenzian, humiltasunean, obediencian, mortifikazioan, ta on guzien fabrikan, zein baita orazio mentala. Oneki txastatus zein gozoago den Jangoikoari ematea emengo ere, egin zekio gose ta egarri gisa bat guzien salbazioaren. Zue alde Kabilero bat heri zegona luze ta esperanza gutireki. Alibionai dibertitzen ze laguneki musikan ta jokuan bere etxean. Joan zekio fr. Andres, ta seguratu zio sendatuko zuela Jangoikoak, baldin utzirik banidade gaiek, barutzen baze zorzi egunes, ta enkomendatzen Ama Birjinai. Neke iduri zekio, baña biziaren amorez kunplitu zue, ta Jangoikoaren graziaz sendatu ze, ta emendatu esker emanen sanduari. Au ordenarazi zute mezas: eta zelebratu zue lenbizikoa erretiraturik leku soil batean espirituaren konsolazio



andiareki, eta meza-bitartean agertu zekio Ama dibina erraten ziola, zu zara ene Sierboa, zurebaitan gloriaturko naiz. Ala gelditu ze sandua admiraturik ta amorostorik ain Ama onas, nola baita Maria. Andik alzina bera sandutus iago ta iago; eta Jangoikoak ura mostratus milagroeki ere, ta zeruko argiareki. Bein adiskide andi batek eskatu zio bataia zezan arren aur bat: eta bataiatu ondoan, asi ze negar ta negar, zeren errebelatu zekion, izanen zela ura bere ta berzeen kaltetako. Ala izan ze, ta bere denboran iltze urkaturik Berdugoan eskus. Prigore eginik, kunplitu zue ofizio gura ain guzien satisfakziora, ezi ezaundu ze Jangoikoa zegola berareki gobernatzan.

3. Iltze Fiesoliko Obispoa, eta guziek konforme nonbratu zute fr. Andres. Aitu zuelarik eskapatu ze, ta altxatu ze Kartujoen konbentuan. Nion ez ageri, ta niork etxakin non zen, bazoezi nonbratzera berze bat. Ortan daudelaik, ara non jaikitzen den aurtto bat, ta erraten dioten, Jangoikoak eskojitu du fr. Andres bere sazerdotetako, eta dago orazio egiten Kartujan: joan ta aurkituko dute. Aurkiturik konsagratu zute Obispo. Guzien Aita bekala ia etze bizi beretako, baizik berzeendako erremediatu gortutzen ta arimen bear guziak, eta erremediorik etzelaik, urtus negarres. Aita Sanduak Urbano Vak biali zue Boloniarak baketzera ango diskordiak; eta logratu zue Jangoikoareki bateo. Itzulirik bere Elizara, segi ta prosegitu zue ongi egiten beti Jangoikoaren gizona bekala adinaren iruogei tamera urtetarano. Eguerri-gauean zegolarik kantatzen meza solemnea, agertu zekio berriro Maria Santissima, ta eman zitio bazkoa onak, ta konbidatu zue Zerura joateko Errege-egunean. Ala joan ze gozoso egun seinalatuan, milla irur eun, ta iruogeamirugarren urtean. Zori onekoa; alakoak dire miragarri egitentuenak Jangoikoak ta bere Ama Santismak, eztaien nior deskonfia &

Izotzillaren 7.an San Raimundo Peñafort

1. Sandu bat txoil humila, gora igateko eskaida onen ertean, izan ze S. Raimundo Barzelonan jaioa. Estudiante ta Maestru famatua izanik bere sortuerrian ta Bolonian, baitare Kalonje ta Arzediano Barzelonan, guzia despeiturik, egin ze S. Domingoren errelijioso humila. Berzeen ertean bere debozioa distingitzen da, ta habilitadea administratzean konfesioko sakramentua. Gregorio IX. Aita Sanduak eskojitu zue bere konfesoretako: eta diote, seinalatzen ziola penitentiatako despatxatzea pobreen kausak eta petizioak len baño len. An zegolaik, nonbratu zue Aita Sanduak Tarragonako Arzobispo, ta manatu zio ar zezala ainberze egunen barnean. Aflikzio ta kongojaren utses heritu ze sukar fuerte bateki, alik eta lastimaturik Aita Sanduak utzi zuen libre, baño nonbra zezala berak nor iduri zekion. Gero osasunagatik utzi zue itzultzera bere errira: itzuli ze ain pobre humil nola joan zen, bere esku zuelaik izatea asko dignidade, nai izan bazue. Desenbaturik Tosan, aurkitu zute gizon bat, akzidenteak emanik mintzorik ta deus gabe iltzen zela. Sandua lastimaturik arren iltzeas konfesorik gabe, egin zue orazio belauriko, eta heriak idikirik begiak adiarazi zue nai zuela konfesatu: Konfesatu ze sanduareki; ondorean berla iltze. Inzute bere Erreljioneko Jenerale bortxaz: bi urtes izan ze: baño bere humiltasunes utzi zue dignidade gura.

2. Ura gabe ere bazue asko iteko bere konfesararioan. Sandugoni agertu zekio Maria Santissima fundarazteko Merzedeko Erreljionea: gau berean S. Pedro Nolaskori ta D. Jaime Erregeari: ebek biok bereala joan zire konsultatzerak S. Raimundoreki, Oze bien konfesore, zeñen konsejus fundatu ze Erreljione gura erreskatatzeko ainberze kautibo Kristio. Baña kontagarri da Erregererik agitu zekiona. Joan ze Mallorkara Errege, ta bere konfesore sandua ere bai: baño joan ere ze sekretoan emasteki bat, nai zuelaik Erregek, nai etzuela sanduak, konseatu baizio len ere despei zezan bereganik. Orduan jakin zuelaik an zela, erran zio Erregeri Konfesore sanduak, Jauna, nik ez dezoket deustako zerbitzatu berorren Majestadeai, non ta eztauen despeitzen persona goi. Bai bai inen da, zio, baño geldi. Orduan despeitu ze sandua triste: ta erregek sentiturik utzi zezon alako gizonak, manatu zue biziaren penan, etzezola niork ere eman itsasonzirik, ezta ere eraman. Sandua deus alakorik etzekiela joan ze portura enbarkatzeko. Bazire onziak prest joateko Barzelonara; baño nior ez trebe artze-



ra barnean. Orduan sanduak edatu zue bere gañeko mantoa edo kapa urain gañean zabal zabala: ta bere paloa arturik eskuan, ta zeñaturik saltatu ze kapagañera oñes ain firme nola balitz onzi edo barko fuerte bat: andik deitzen zue bere laguna sar zeila seguro. Arriturik guziak beira, etze ura atrebitu: eta sandua Jangoikoaren birtutez sei ordus ellegatu ze Barzelonako portura pasaturik berrogei ta amirur lekoa. An atrarik leorrera paratu zue soñean bere kapa ain idor nola egon balitz arkan. Eta milagroa milagroain gain, joanik konbentura zeudelaik erxirik atariak sartu ze barnean. Jakin zuelaik on guzioi Erregek ikusi zue lekua, nondik atra zen; ta emendaturik beneratzen zue sandua nola zerutik etorria. Bizitu ze eun urte urbil batzuen ustez: heritasunean bisitatzen zute Kastelako ta Araguako Erregeek erreberenzia andiareki: iltze 1275 urtean &.

Izotzillaren 9.an San Julian ta Santa Basilisa Birjin ta Martir

1. Miragarria da Jangoikoa azitzean bere Kristioen familia gontan ainberze sandu diferente maneran. S. Julian buratso ilustreen seme bakarra Antiokian, onera emana ia aurzututik determinatu ze konserbatzera Birjin bizi guzian. Ellegaturik adinera ezkonarazi nai zute. Berze intenziorik zue berak: alaere obedienciaz eskatu zue zazpi egunen epea pensatzeko ongi, ta enkomendatzeko Jangoikoai. Azken egunean agertu zekio lotan Jauna; ta erran zio, obedi zezala buratsoei artzean Esposa; etzuela orgatik galduko Birjintasuna: baizik beraren exenplu lagun emen ziona ere mantenituko zela Birjin, biek imitatus zerukoen bizitza. Eta ukitus Jaunak bere eskuas añaditu zue, Julian, pelea bizkorki, ta anima bedi zure biotza. Jangoiko beraren probidenzias destinatu ziote Esposatako donzella bat deitua Basilisa, beraren gisakoa, ona, ederra, aberatsa. Zelebraturik boda jendeketa andiareki, zego bitarteo Julian bere kastidadearen botoaren kuidadotan enkomendatus biotz barnean Jangoikoai guarda zezan. Erretiraturik ia beren aposentuan, sentitu ze an arrosa loreen atxon bat miragarria, zelarik izotzilla. Basilisak admiraturik galdegin zio nola zen gauza gura, iduri baizekio zeruko gauza, kentzen ziona emengoan afiziona ta memoria ere. Errespondatu zio S. Julianek, Onen kausa ezta baizik Jesus ona kastidadearen amazalea, dituena agitz maite guardatzen dutenak, zeñei emen ematen baitiote anitz erregalo ta grazia, an goiti gero anitz gloria: guzia logratuko dugu, konformatzen bazara nereki bizitus biok garbi anai arrebak becala. Konformatu ze gogotik ere Jangoikoaren grazias: eta biok zeudelaik belauriko Jangoikoai ofratzen beren arimak eta gorputzak, argitu ze derepente aposentua, ta agertu zire an Jesus ta Maria akonpañaturik sandues ta birjines kantatzen ziotela biktoria, ta koronatzen biok, ea anima zaizte, zarate eskribituak gure listan. Ondorean gelditu zire biak beterik debozios ematen esker milla milla.

2. Denbora gutiren barnean ilik bien buratsoak, aien ondasunketa agitz andia gelditu zekiotena asi zire errepartitzen pobreei liberalki: eta biok bi etxetan paraturik, Julianengana akuditzen zute gizonkiek, ta Basilisagana emastekiek ta donzellak: eta konbertitzen zire aien exenplues ta konsejues despreziatzera mundua, ta ematera Jangoikoai. Famatuak zire Kristioetan Julian ta Basilisa. Goratu ze Infielen persekuziona: eta biek iten zute orazio, etzeien gal nior aien kargukoetaik. Basilisak izan zue



errebeldazio, bera ta bere donzellak iganan zirela zerura sei ilabeteen barnean iltze naturales: Julian geldituko zela pasatzeko martirio Jaunaren amorez, baña triunfatuko zuela. Guzia agitu ze. Diokleziano Enperadorearen ordere joan ze Antiokiara Marziano Presidente: manatu zue ez saltzeko ta ez erosteko niork ere gauzarik batere, adoratu gabe idolo paratu zuena leku guzietan. Jakin zue laster S. Julianen berri, bere nobleza, ta gauzak. Biali zio bere Konsejari laguna mintza zezon korteski, adiarazi Enperadorearen manamenduak, ta obediarazi. Arrek joanik aurkitu zue Julian inguraturik sazerdotees, eta Kristioes. Mintzatu zio: errespuesta izan ze, sollik Jesu Kristo adoratuko zutela aiek, ez idolo banoak. Ainberze asarratu ze errespuesta goneki Presidentea, ezi manatu zue bereala erretzeko etxe gura an zeuden guzieki, sollik Julian eramateko loturik preso. Ala zire ango guziak Jangoikoaren gloriatan. Eramaterakoan S. Julian preso, nola ain maite baizute, joan zire anitz ikustera pelelatzen Demonioareki: ala deitzen zute Presidentea, zeñek tentaturik asko maneras, etzukelaik logra deus nai zuenik, tormentarazi zue palos, ta azotees. Bitarteo Ministroetaik bati begian emanik golpea ustekabean, galdu zekio begi gura. Okasio goneki S. Julianek proponitu zio, bildurik aien sazerdote guziek eska zezotela beren Jangoiko zuztenei sendatzea begia; ark ere eskatuko zuela bere Jangoikoai; eta nork ere logra zezan, arren Jangoikoa sinetsi zeuela egjaskoa. Inzute bai in ala aiek; baña errespondatu zekiote, etzirela aiek Jangoiko, baizik Demonio kondenatuak, ta orduan iago tormentatuak zirela Julianen kasos: ta erori ta erraustu zire iago ezi berrogei ta amar estatua urre zillarresko. Baña sanduak formatu gurutzearen señaleara, inbokatus Jesus ona, istantean itzuli zio begia sano: eta iago dena, argiturik arimaren begiak gizon ura asi ze klamatzen Jesu Kristo dela Jangoiko adoratu bear dena. Orgatik ilarazi zue Marzianok an berla berla. Zer gizonaren itsutasuna!

3. Eramanara zizue S. Julian kargaturik grillos eta kateas karrikas karrika, noizean noiz tormentatus, ta erranes oiuis, ala bear dire tratatu direnak gure Jangoikoei errebeld, ta desobediente Enperadorei. Attendi emen Jangoiko onaren miragarriak. Zue Marzianok seme bakar bat: au zego eskolan mutiko bekala: atra zire eskolatik ikusteko pasatzen preso: atra ze ura ere, ta ikusi zue sandua ta anitz Aingiru eder akonpañatzen zutela, ta koronatzan glorioso. Bisione goneki mutiko goi, botarik libruak ta tresenak, niork ezin dezakela geldiarazi, doae laster ta laster Martir sanduaren atzean: ellegaturik apatus oñak negarres otoi ta otoi eskatzen zio artzezala laguntako & Nai zute apartarazi: baña ain fuerte apegaturik zego sanduari, ezi etzukete niolaterre, ezpaizue nai Jangoikoak ere.

Ikusi zuelaik on Marzianok, bere biloak tiratus, ta atzaparkatus aurpegia koleras, akar egin zio S. Juliani, zeren galarazi zuen arren semea arte gaixtos. Gero asi ze milla maneras bereganatu naies semea: Oroat egin zue negar ta negar etorririk bere Ama Marzionilak: guzia banoan. Mutikottoa errestiturik Jangoikoaren espirituas mintzatu ze sereno, ez aur bekala, itz gebeki: Arroza naiz jaioa den aranzeetaik, arrosa da ta atxon onekoa: Aranzeak berriz naiz arrosa emanik, aranze dire puntzatzen dutenak. Egin bez, Aita, bere ofizioa, puntzatzea ta larranzitzea aranze gisa; ezi nik arrosa gisa kuidatuko dut atxon ona ematea fielei. Beldur direnek galtzeas emengo bizitza, obedi bezote berorri, ezi nik bizitza betirokoa nai dut, ta eztiot obedituko. Aita eternoaren amorez ez tute berori ezauntzen Aitatako. Marziano, orrek bere Jangoiko falsuen amorez banazake ukatu ni seme, ta tormentatu kontrario bekala: Eztiot egiten agrabiorik uzteas ori Jangoiko onagatik, ta gogor izanes neuretako, ez naiz beratx orrendako. Burutik jautsia bekala gelditu ze Marziano etxakin zer egin, ta manatu zue guardatzeko ertxirik kalabozo ilun batean.

4. Jangoikoak argitu zue miragarriro, ta bete zue fragranzia gozoas, orgatik konbertitu baizire ogei soldado guardiakoak; eta etorririk zazpi kaballero Kristio elkarren anaiak sazerdote bateki, onek bataiatu zitue soldadoak, eta Zelso mutiko gura. Marzianok eman zio Enperadoreai kontu pasatzen zenas: ark manatu zio ilarazteko guziak tormentaturik. Paraturik tribunalea plazan, presentarazi zitue an guziak, eta daudelaik beren argumentuan, agitu ze pasatzea andik il bat ortzitzera. Presidenteak eskarnios erran zio S. Juliani, ia nola bizten duzun il goi? Sanduak eskatus Jesus onari, biztu zue istantean. Arritu ze Presidentea, ikusi zuelaik ila bizirik, eta geiago, aitu zuelaik ziola oiuis, aiek adoratzentuzten Jangoikoak direla Demonioak, eta Jesu Kristo dela Jangoiko bakar egjaskoa; ta zeramatelaik bera monstruo beltz batzuek infernuko su eternora, Jangoikoak S. Julianen atenzios manatu zuela itzuli zeuela, egiteko penitentzia, ta konfesatzeko egietafedea: ta etzeike ase ematen sanduari eskerrak. Etze aski izan au guziau desengañatzeko Presidentea: baizik manatu zue lotzeko preso il biztua ere, ilarazteko guziak. Eta nola ezpaizio sufritzen biotzak ikustea iltzen bere semea, enkargaturik berze bati erretiratu ze bera. Sartu zuzte kupa batzuetan erresinas ta pikes beterik, erretzeko an bizirik: eman zioite su, zirikatzen zute Ministroek: jendea klamatzen lastimas: Aingiruk beira: Jangoikoak orduan etzue nai izan erre zezan suak: baizik atra zeizen oso eder glorioso mellarik gabe. Arritu ze berriro Marziano, ta galde-tu zio S. Juliani, zer artes egin zuen lan gura; erran zezola egia. Erran zio egia zen bekala, egin zela Jangoiko andiaren birtutez.



5. Baña Marziano etzego sinestatzeko: berriro sarrarazi zitue guziak kalabozoan; eta manatu zue bere Andrea Marzionila zoeiela ikustera semea, ta zegola arreaki irur egunes, al bazezake itzularazi: baña kontra agitu ze. Agertu zire an Jangoikoaren miragarriak, zeñeki sanduen orazioaren medios konbertitu ze Marzionila, ta bataiatu zue sazerdote garrek, zelarik Amaren Aitabitxi bere semea Zelso. Errabiak eman zio berri berritan Marzianori orgatik: eta ilarazirik gañarakoak, erreserbatu zitue sazerdote gura, S. Julian, il biztua, ta bere semea, ta bere andrea, pensatzeko espazio iagoreki, ezi oraño tiratzen zue amore naturalak. Ze Antiokian tenplo eder bat urresko oies enlosatua, pareteak ta bobedak adornatuak perla preziosoes, gutitan idikitzen zena orgatik. Sazerdoteei prestatu zite sakrifizio ta ofrenda preziosoak: eta S. Juliani erran zio amoltsu, tenplo gartan berere in zezala erreberenzia Jangoikoei munduaren gobernari direnei. Sanduak erran zio, bilarazi zezkiela an sazerdote guziak, izateko testigo sakrifizio ofratzen zuenaren. Marzianok kontent ustez errenditu zen, bildu zitue guziak kasi milla, ta kendurik grilloak presoiei, akonpañatu zitue tenplo gartara asko aleganzireki, ta ezin konta ala jende. Ellegaturik alzinera S. Julian, paraturik belauriko egin zio orazio Jangoikoai mostra zezan bere podorea, desengañatzeko jendeak: eta lagunek errespondatu zute Amen. Istante ango estatua, urre, ta gauza guziak desegin zire kea bekala: tenploa urratu ze arras, nola izan ezpalitz. Il zire sazerdote guziak, ta berze asko jende: Zoratu ze Marziano ikustean; itzuli zire presoak karzelera, non zeudelaik orazioan, agertu zekizkiote glorioso lagunak lentxago martir il zirenak, berze alde S. Basilisa zeruko Birjinen koro bateki: eta karzelean aditzen ze kantatzen miragarriro alleluia alleluia. S. Basilisak erran zio bere Esposo sanduari, ia zoeiela bukatzera pelea, zegokiola idikirik zerua, ta prestaturik korona, ta sandu guziak etxideten errezibitzeko beren konpañian. Biramonean manatu zue Marzianok, oiñ eskuak loturik su ematea: loturak erre zire, sanduak ez. Gero desollatzea S. Julian, ta berzeei begiak atratzea; ta tormentatzea potroan Marzionila. Baña gelditu zire guziak sano mellarik gabe. Bota zuzte baseiziei, arzei, ta leonei, zatika zezkiten: baña ebek zite erreberenzia lamikatus oñak. Azkenean atrarik karzeleko presoak, aieki bateo degollatu zuzte Martirak: baña berla ikaturik lurra, galdu ze Ziudadearen irur zatitak bat: ta idoloak ziren lekuetan erori zire ausnarriak, ta il zute asko infiel: Marziano erdi ilik doi doia eskapatu ze orduan, baña andik guti akabatu ze konsumiturik arres. Ezauntzeko gorputz sanduak, jarri zire arimak zein bere gorputzean & Martirio gau agitu ze 309 urtean.

Izotzillaren 11.an San Teodosio Zenobiarka

1. Nola baitire personak beren ta berzeren galtzeko direnak, ala badiere sanduak beren ta berzeren salbatzeko. Ebetaik da S. Teodosio, jaiu zena Kapadoziako erritto batean, ta estudiaturik ongi bete zena, erakusteko berzeeri ere Jangoikoaren bidea. Joanik leku sanduetara peregrinazioan, ellegaturik ikustera S. Simeon Estelita bizitzena kolumna baten gañean kontino zeru agerrira penitenziaren admirazio ta exenplutako paraturik, onek bere pilare gartaik erran zio, sekulan ikusi gabe len, ongi etorria zarella, Teodosio Jangoikoaren gizona. Arritu ze au aditzeas ori, ta berak deiturik igan ze kolumnara, bota zekio oñetara, ta ikasi zue beraren agotik zer in bear zuen, eta agituko zekiona urrengoan. Eta beraren bedeizio arturik joan ze, ta egin ze Errelijioso, eta bildurik zenbait lagun, erakusten zite bizitzen geroko eternidaderako, beñere atzendu gabe iltzeas. Orta-ko zeuka beti obia bat idikirik: Onen inguruan zeudelaik bein, erran zue, ona, idikirik dago obia: nork gutaik bear du igatu lenik? Orduan bere Diszipuloetaik bat deitzen zena Basilio ta sazerdote zena paratu ze belauriko, ta errespondatu zio, Bida bere bedeizioa, eta ni ortziko naiz lenbizikoa. Eman zio, ta inarazirik ilaria ta sufrajoak bizi zelaik, berrogei egunen buruan, ez heri, sukar, oñaze, ta deus gabe il ze, nola lo gozo batean.

2. Milagro oneki, ta berze askoreki arrimatu zekio anitz jende zerbitzatu naiez Jangoikoai arren eskolan. Zegolarik dudan, zer egin: alde bat nai bizi erretiraturik soillik Jangoikoareki, berze alde nai proximoei ere lagundu salbatzen, deklaratu zio Jangoikoak enplea zeila kuidatzen arimak Kristok erosi zituenak bere odol preziosoaren kostus. Ala egin zue, erremediatus ez solamente arimen, baita gorputzen bearrak ere Jangoikoaren graziaz ta milagros. Sei eun ta laur ogeitamirur Diszipulo biali zituela zerura bere alzinean, diote, ta aietaik atra zirela asko Obispo, ta Artzai arimen. Mintzatzean omen zue ainberze indar ta grazia, ezi inarazten zite nai zuena, eman bakotxai karga neurriturik indarren ariora, ez gogorki kastigatus, baizik amorosoki konbidatus. Goratu zire denbora gartan hereje Azefalo deituak, zeñei faboratzen zite Anastasio Enperadoreak, tiratus bere aldera zenbait obispo, ta naies bereganatu Teodosio ere, baize ain sandu famatua. Sandu gonek bildurik monjeak animatu zitue defendatzera fede Katolikoa naiz bizien kostus, bear barin baze. Eta Enperadoreai berai eskribitu zio ausarki erresoluzioa; eta ajolarik etzuela



arren meatxues, armes, eta podore guzias; naiz adin anditakoa zen ia, ibili ze gaste bekala ziudades ziadate predikatzen egietafedea, segurutzen Katolikoak, konfunditzen herejeak. Eta bein tenplo prinzipalean infinizio bat jenderen alzinean iganik pulpitora goratu zue boza bizkor, ta erran zue, *Eztuena errezibitzen Elizako laur Konzilio jeneralak, nola laur Ebanjelioak, biz exkomekatu madarikatua*. Erran, ta jautsi ze utzirik guziak arriturik. Desterratu zue Enperadoreak: baña guti iraundu zue desterruak, zeren Jangoikoak Enperadorea ausnarri bateki bota zue infernura.

3. Itzulirik bereengana guzia ze kuidatzea Jangoikoai zerbitzatzeas, ta Jangoikoak arren medios faboratzeas genero guzietan. Azkenean eman zio heritasun luze penasko bat: eraman zue pazienza admirableareki, nola baize, ta izan baize beti gorputzaren etsai Jangoikoaren ta arimaren amores: alaere bizitu ze eun ta borz urtes, entenda daien, eztagola erregalaztean gorputzaren ona, bai bizioen mortifikazioan. Kasirik zerutik noiz il bear zen, paraturik orazioan Monjeen ta Obispoen konpañian eman zue bere espiritua Jaunaren eskuetan: eta Jaunak manifestarazi zue beraren gloria ta santidatea milagroeki bizian bekala ondorean ere. Bizitu ze bortzgarren ta seigarren jendamendean Jangoikoaren gloriatan, ta arimen protxutan.

Izotzillaren 14.an San Felix Sazerdotea Nolan

1. Gure Jangoiko Jaunak uztentuen bekala bereak pasatzera trabaju, ala konbeni delaik, guardatzen ere badakiela bear orduan nolana, dugu progu S. Felizen bizian. Ze au sazerdote sandu bat Nolan, ango Obispo zelarik Maximo agitz zar benerablea. Eben denboran goratu ze persekuzione lotsagarri bat Kristioen kontra, ilarazis ebek, ez nolana, baizik tormentu arrigarrieki. Etorri zire Nolar Enperadorearen Ministroak, da erratea, Deabruarenak. Ebek billatzen zuzte len lenik Kristioen Artzai eta kidariak. Obispo sandua pensatus, uzten baze iltzera berla, zeruan deskansatuko zela, baña bere ardiei falta inen zuela; kontra berriz, guardatzen baze orai, zezakela probetxa gero fielei, enkomentaturik ebek S. Felizen eskura, bera altxatu ze oianeko kubila batean. Ezin aurkitu zutelarik Ministro gaiek Obispoa, billatu, aurkitu, ta preso egin zute sandu gau: eta ezin errendiarazis promesas ta meatxus, sartu zute karzelean beterik tella-puskaes, ezin lorik ere in zezaken gisan. Bitarteo bere kubilan Obisp oa zego afljiturik pasatzen zenas Ziudadean; berze alde goseak eta oztzak erdi-ilik. Zeude bateo Obispoa ta sazerdotea txoil ertxiturik biak, bata zar, berze gaste; aun preso, ura araturik: Nola inen da? Jaun piadosoak biali zue bere Aingiru bat atratzera karzeletik Felix: atra zue, ta kidatu zue kubilara, non zego Obispoa il-kolore. Artu zue besarka sanduak; nai zue akorritu ats eman; baña ezin. Ori ikusirik, eta niondik etzela remediorik, itzuli ze Jangoikoagana orazioan otoi ta otoi: bereala goraturik begiak, ikusi zue malda batean matsoko bat dilindan, on neguaren erruan; artu zue Jangoikoaren erregalo bekala, eta kalkatus eskuas bota zio ago barnera arren zumoa, edo likorea; oneki asi ze akorritzen zar gizagaizoa, begiak idikirik, mintzoa itzulirik, lenik Jangoikoai eman zio esker milla, berla S. Felizi keja amorosoak, non egon zara orai arteo? ofrezitu zidalaik Jangoikoak etorriko zinala ene anparatzera desanparo gontan? Kontatzen dio sanduak pasatu zen guzia, ta Jangoikoaren fineza. O Jauna, nork eztu konfiatuko berorren baitan? Ene tema da, ezi Jangoikoai zerbitzatzen dionak Nagusi onari zerbitzatzen diola. Baña ezin iraun leku gartan.

2. Determinatzen dute itzultzea Ziudadera sekretoan: Baña Obispoa ezin ibili oñes, ta aberrik ez, lagunik ere ez: zer inen dugu emen? Injenio-soa da karidatea ta indartsua: Kurtzen da Felix, ea Aita, erraten dio, para bedi ere soñetan: pizu gau ezta pizu enetako: zen. Eramaten du gau batez



alargun zarren etxera, kuida zezan: bera altxatu ze berze etxe batean, pasatu arteo persekuzioaren ekaitza. Pasaturik, atra zire biak konsolatzera, ta erremediatzera fielak. Guti iraundu zue eguraldi onak. Berrero itzuli zire Deabruaren Ministroak arara: eta nola baizekite S. Felix zela Kristioen alzdari, au lenik billatu zute; Jangoikoak naita aurkitu zute plazan, baña etzute ezaundu. Berari galdegin ziote ia ezauntzen zuen Felix: Arrek errespondatu ziote, ezi aurpegis ezetz. Segitu zute alzdina, ta bera altxatu ze aratzago bi pareteen arteka batean. Aiek laster ikasirik, mintzatu zioten gura zela billatzen zutena bera, itzuli ta laserka segitu ziote: baña o Jangoikoaren probidenzia ta podorea! nola burlatzen den gizonen astuzias! Erran dugun bi pareteen arteka gura derepente aurkitu ze beterik armir-mau-sarees, edo telarñas, de manera ezi niori etzekio gogoratu sartu zela an gizonik aixtean. Sei ilabetez egon ze an altxaturik, iork etzekiela, Jangoikoak ezi. Eta sustentua nondik? Ona berze probidenzia miragarri ta amorosgarri bat Jangoiko onarena! Erteka artara ze etxe gaietaik baten leioa: ango etxokandreak paratzen zue egunoro leio gartan jateko gauza: beñere etze atzendu paratzeas an: ta beñere etze oroitzen paratuas. Oneki sustentatzen ze sandua. Eta edatekoa? Gauoro erortzen ze an intza aski zen adina errefreskatzeko bera: baita exenplu ona Jangoikoaren onaren bere onetsieki.

3. Pasaturik ekaitza, atra ze sandua erakustera Jangoikoaren gauzak jendeari, zeñek ikusirik ain ustekabean bera amaten ta beneratzen zue, ala nola zerutik jautsia. Iltze denbora gartan Obispoa: Bereala guzi guziek nai zute Felix Obisopotako: ezin garaitu zute, zeren baize txoil humila: berak bai logratu zue in zezaten berze bat deitzen zena Kinto, baize ordenatua zazpi egun lenago bera baño: orreki baten truk izain zuztela bida arimen lanetako. Zen bekala humila, ze desapegatua lurreko ondasunetaik. Zituen pixkak embargatu ta saldu zizkiote persekuzione-denboran. Gero berze askok erreko-bratu zute bere izana: sanduari ere consejatzen ziote, eska zazkiela justizias: baña, Jangoikoak guarda, zio, nik billatzea berriz bein utzi nituenak Jangoikoagatik. Sustentatzen ze txurkiro nekazari gisa landus bere eskus baratzetto bat, ta irur erregen erria berze nekazari pobre bateki bateo. Beñere etzue baizik bestimenta bat, ta ematen baziote berze bat, bereala ematen zue pobreren bati. Ala bizitu ze mundurako pobre, abrats Jangoikoaren alzdineko, izenean bezain Felix ditxoso errealdadean: ta ala iltze ditxoso, honratus zeruak asko milagros, ta munduak anitz debozios: ta Aita Sanduek, Obispoek, Doktoreek asko laudarios. Ze kostunbre len, ukatzen zuena deliktoren bat, etzeikelatik proga seguro berze gisas, eramatea sandu gonon obrara, eta in zezan juramentu:

eta baldin iten bazue falsu, kastigatzen omen zue Jangoikoak berartan agerri: ezperen, ez: eta S. Agustinek bialo omen zue bere denboran Afrikatik arara Apez bat infamatu zutena, garbi zeien an juramentuareki. Asko maneras honratzentu Jangoiko Jaunak bere onetsiak. amen.

Izotzillaren 14.an S. Hilarlo Obispo p. 271.



Izotzillaren 17.an San Antonio Abadea, edo San Anton

1. Nola baita debozio S. Antoni ebetan, atra zagun onen bizitzatik zerbait probetxa dezakeguna. S. Atanasiok zue sendagalla ezaunduas S. Antonio Abadea, ta eskribitu zue beraren bizia, ta eraman zue Romara, eta leituas solamente asko eman zire Jangoikoak: eta S. Agustin solamente aditus mogiturik asi ze klamatzen bere adiskide bati, *Zer da au, Alipio, letra gabekoak goratzen dire, ta arrapatzen dute Zerua: eta gu emen gauen letraeki loiean inguraka! Agian zeren alzinatu diren, dugu alke segitzeas atzetik? ta ezgara iago alketu bear ez segitzeas?* Jaio ze Ejipton Koma deitzen zen erri batean jendaki nobletik: Azi ze sanduki: emezorzi urtetan gelditu ze emazur, buratsoak ilik: gelditu zekio arrebata txipitto bat, zeñetas bear zuen kuida-tu: sei ilabeteen buruan, ia zegolaik guzia utzi naies emateko Jangoikoak sollik, aitu zue tenploan Ebanjelioko sententzia gura (Math. 19.) *Nai bauzu izan perfekto, joan ta saldutuzun gauza guziak, ta eman pobreei, ta segi nazazu ni, ezi tesoro bat izain duzu Zeruan. Itz gebek sartu zekizkio biotzean, ain nola berari sollik erran balitio Kristok. Itzuli etxera, ta utzirik bere partea arrebarendako, ta au enkomendaturik andre on batzuei, gañarakoa sal du, ta eman zue limosnas. Etze orduan, baizik zenbait Monje bakotx an emenka, zeñen birtuteak imitatzen zitue gogotik, eta zerbati espezialki arrimatu ze ikasteko perfekzioea. Lan iten zuenetik mantenitzen zue bizia eskas; ezi penitentzia, barua, orazioa ze bere iteko prinzipalena. Asi zekio Demonioa tentatzen, ta itzularazi naies mundura, gogoratus ango konbenienziak, oraiko deus gabea, ta arreatto garren desanparoa. Baña sanduak orazioareki ta Jangoikoaren graziareki garaitzen zue. Nork kontatzen bat tentazio-jenero, zenbat astuzia, indar, ta artifizioeki paratzen zion infernukoak agerrian ere? Baña orazios ta humildades beti atratzen ze triunfante. Ia denborain buruan etzio beldurrik batere: berari bai beldur andia zio etsaiak, ezaizezake sufri aipatzea ere. ta nonnai konjuratzean aipatu orduko S. Antonen izena, atratzen ze gorputzetaik gaixtofikatu. Ogei urtes egon ze kubila batean ikusi gabe nior, ezta bera ere niork, ezetaere Ministro batek ekartzen zionak bi aldiz urtean ogi guti bat. Gero atra ze andik, baña kolore onean, alegre, azkar, ezaundurik guziek zela on Jangoikoaren lana. Sinesta nira, zio; Satanak da beldur gure orazioes, barues,*

bijilies, humiltasunas, baña espezialki amore in diogunas Jesu Kristori, zeñen guruzearen señalear sollik ere aski da iges inarazteko. Eta Demonioak berak bein kejatus, botatzeas arri bekatu iten direnen kulpak erran zio, gizonen berek zutela kulpa billatus okasioak, ta naies beren gustoak, ezi berak etzuela indarririk ia, Kristo ilas geros gurutzean.

2. Famatua ze ia mundu guzian S. Anton, eta Enperadoreak ere kartas enkomendatzen zire beraren orazioetan, eta anitz jende zetorkio segitu naies bizimoduan, ta ala eremu gaiek bete zire Monjees S. Antonen kasos. Bada nork kontatzen Jangoikoak arren medios obratzen zituen miragarriak arimen ta gorputzen onetan? Guziaki ze manso, humil, amoltsu, alegre, sereno beti. Sazerdote ta Obispoei inklinatzen zue burua, eman zezoten bedeizioa. Solamente Herejeetaik iges iten zue, nola serpiente batzuetatik. Bati eskribitu zio, beira zeieela, ezi Jangoikoaren ira zegola arren gain. Herejeak desprezios bota zue karta oin petan. Andik guti bere zaldi manso batek egin zio azpitik ozka, ta irur egunen barnean iltze miserableki. Bein ikusi zue espirituas galmendea inen zutena herejeek Alexandrian. Nola anitz mando, ta animale zeuden ostikoka botatzen lurrera aldareak & ta entendatu zue alakoak zirela herejeak. Fede Katolikoaren amorez joan ze Alexandriara deiturik ango Patriarka S. Atanasioganik, ta egin zue probetxu miragarria konfirmatus Katolikoak, ta konfunditus herejeak, ta konsolatus S. Atanasio.

3. Lauretan ogei ta amar urte zituelaik, gogoratu zekio Jangoikoaren permisos, ote zen norbait ainberze urtes bizitu zenik eremuan: Errebelatu zekio bazela bat, zeñen billa bear zuen joan. Bereala argitu orduko arturik palo bat asi ze bides zar benerablea, ta etxakin nora. Naiz bero, naiz neke, segi alzina: konfianza, zio, dut Jangoikoan, erakutsiko didala bere sierbo gura ofrezitu didana. Bi egun pasaturik bides, ta gauak orazioan, ta zenbait lanze bitartean, irugarren argi astean urbildu ze kubila batera, ta pokaletik asi ze beira bererat, ezin ordea deus ikusi, ilun egones, zoeie sartus barnerat gutibana, gelditus atsa, ta paratus bearria, ia zerbait senti zen barren gartan: Gero ere ikusi zue argi-iduri bat aratago urruti: eman zue prisat orduan, eta tropezatus arrieki egin zue arroitu. Ertxi zue orduan ataria S. Paulok barnetik: eta S. Antonio urtikirik lurrean zego dei ta dei Jangoikoas idiki zezon: badakit, zio, zuk badakizula, nor nai zen ni, nondik ta zertara eldu nai zen: badakit ere ez nai zela digno ikusteko zu: baña ikusi arteo, ez naiz joanen emendik. Billatu zaitut, ta aurkitu; zure atarian nago deies, idiki zadazun. Ezpadut logratzen, emen ilen naiz; eta ortziko duzu ene gorputza. Errespondatu zio barnetik S. Paulok, niork ezta eskatzen graziarik meatxueki; ta eldu bazara iltzera, zer



milagro da ez idikitzea? Erran ta idiki zio irrikos; eta besarkatu zire elkar amere andiareki, ta salutatu zire beren izen propioes, nola ezaunak balire, etzirelaik ikusi sekulan orduraño, ta eman ziote Janpikoai eskerrak fabore gartas. Ondorean jarririk biak, erran zio S. Paulok, ona non duzun billatu duzuna ainberze nekereki; beira gorputz gau ia zarturik sarri bear dena auts biurtu. Galdegin zio gero munduas, nola zegon. Errespondatu zio S. Antoniok, ta paldetu zenbat urte zuen, nola etorri, nola bizitu zen kubila gartan. S. Paulok informatu zue guzietas, nola ango palma baten fruitas mantenitu zen, ta ostoes bestitu: Jaunak an anparatu ta konsolatu zuela miragarriro.

4. Ala zeudelaik konbersazioan elkarreki, jarri ze arbola gartan otso-rrai bat; andik jautsi, ta utzi zue bien oñetan ogi bat, eta joan ze. Erran zio Paulok Antoniori, bedeikatua biz gure Jauna, egiaz piadosoa, sines ongiegillea, biali baitigu bazkaria. Irur ogei urte du, ematen didala ogi-erdi bat egunoro: Egun zu etortzeareki, doblatu du arrazionea. Jan zute artaik biek, ta edan iturritik, eman esker milla milla: Gaua gero pasatu zute orazioan. Biramon goizean erran zio Paulok, badu denbora banekiela bizi zinala zu eremuan, ta Jangoikoak ofrezitu zida etorriko zinala ene laguntako: baña zeren urbidu den ia ene plazoa, nik ain deseata joateko mundutik, biali zaitu zu, ortzitzeko gorputz gau, ta estaltzeko lurrean lurra. Emen asi ze Antonio aioska negar ta negar; ain berant ezaundu, ta ain fite utzi bear zuen! etzezala utzi, baizik eraman bereki. Ontara Paulok, etzazula nai nai eztuena Jangoikoak: zuretako on litzake ta plazer, uztea emengoa, ta igatea zerura: baña bear duzu oraño kuidatu zure anaies: gero ere seguro izanen duzu alokairua. Orai in bear didazun faborea da joan bereala, ta ekarri manto eman zizuna Atanasiok, estaltzeko ene gorputza. Erran zue au, etzezan izan ainberze pena ikustean iltzen an. Arritu ze Antonio aditzeas aipatzen Atanasios ta mantoas: arren petxoan bizi zela Kristo: apatus eskuak ixil ixila itzuli ze bere konbenturat prisaka, ezin oñek segitus gogoia, sartu ze atsanditurik bere zeldan, artu mantoa, ta bazoeie, artu gabe amenik ere. Ikusirik bi Diszipuloek erran ziote, non egon da Aita? nora doaie? Errespondatu zue, ai ene bekatarias! Ikusi dut Elias, ikusi dut Juan Bautista desertuan, eta errealki S. Pablo paraisoan. Itzulirik bide beras, beti gogoan bere gura, ilen zekiola ellegatu baño len. Biramonean bidetik ikusi zue Pauloren arima igaten zerura ederki akonpañaturik: bota ze auspeska lurrean klatatzen, nola uzten nauzu, Paulo? Nola zoaz despeitu gabe? Gero joan ze ain prisaka, ezi iduri baizekio egatzen zela. Ellegaturik ikusi zue gorputza belauriko, ta prinzipioan ustez bizi zen, jarri ze aldakan orazioan: baña etzelaik senti

atsartzen, ezaundurik ila zegola, besarka artu zue erregatus negarres: inguratu zue manto gartas, erreztatu zue ilen ofizioa, atra zue kanpora: baña etxakin nola ortzi, ta ez zer egin. Etorri zire bi leon, zeñek aztaparka egin zute zulo bat aski zena: gero humil humila S. Antoni lamikatus eskuak ta oñak, eskatzen bekala ziote bedezioa: eman ziote Jangoikoaren izenean, ta joan zire. An orzi zue ila: eta arturik S. Pauloren tunika ostoes egina, heredero bekala itzuli ze, ta bazkoa egunetan paratzen zue gala gisa. Kontatu zue gero agitua. ta beraren testimonios kanonizatu da S. Paulo, bizitu zena eun ta amirur urte. S. Antonio gero iltze eun ta bortz urtetan, faltatu gabe ortzik, ez bista, ez indarra, ta kolorea. Iltze izotzillaren 17.an eta 361 urtean.



Izotzillaren 20.an San Sebastian Martir

1. S. Sebastian Martir animoso gloriosoak Aita izan zue Franzes Narbonakoa, Ama Milandarra: Orgatik agian bi zitude goiek dute pleitu porfiatus bata eta berzeak, bere lekukidea dela S. Sebastian; zeren ezi edozein sandu, eta iago sandu bat alakoa, aski da honratzeko bere sortuerria. Romak du gloria izanas erregatua beraren odolaz martirizatu zute-laik, ta orai izateas an bere gorputza. Bizitu ze denbora gartan, noiz ziren Enperadore Diokleziano ta Maximiano, Kristioen kontrario erruak. Ze soldado jeneroso baliente, kortes, atentoa, orgatik egin zute Kapitan lenbiziko guardia edo Konpañiaren. Ze Kristio sekretoan, naiz ez iduri agerrian, Kristoren amorez biotzean erretzen eman naiak bere bizia, baña mantenitzen, animatzeko tormentuetan Martirak bearrean zirenak. Berzeen ertean izan zire bi Kaballero elkarren anaiak, preso zeudenak fedea-gatik: bisitatu zitue S. Sebastianek an, eta animatu zitue pasatzera edozein pena ta eriotze gisa Jesu Kristoren amoreagatik. Ofrezitu zire gogotik, eta eman ze sententzia ilarazteko. Baña nola baizire Kaballero prinzipaleetaik, enpeñatu zire aien buratsoak, andreak, aideak, ta adiskideak, ta logratu zute Juezenganik ogeitamar egunen epea, mintzatzeko, ta errendiarazteko ukatzera fede Kristioa. Egun gaietan adiskide ta aideek alde batetik, berze alde beren Andreak beren humeeki loxentxus, lastimas, negarres egin zutena errendiarazteko, nola daike explika? Guzien gañetik beren Aita ta Ama bizi zirenek joanik karzeleraz porfiatu ziotena milla maneras, nork erran? Asi zire ia beraxten Martirak alako golpeeki, baizire gizon aragis-koak.

2. Ontan guzian egon ze presente S. Sebastian disimulaturik; eta ia iduriturik ordu zela manifestatzeko bere biotza, bi gaiak etzeizen galdu arimo-faltas. Mintzatu zioite firme itz ebeki: O Kristoren soldado balienteak, arimo ona; etzaiztela errendi tentazio gebetara: emastekien negarrek garai bezkite emastekiak, ta gizon delikatuak, ez zuek, baizarate fuertek zerurako eskojituak, erakutsazie obratan Kristori diozen amore egiaskoa: bera iltze guregatik; il gaitzen gu ere beragatik, seguratzeko bizitza eternoa glorian. Lantera ellegatu zarate, noiz edo ebek utzi bearkotuzie, edo Jesu Kristo bere sandueki. Nork konfesarazi dizie Kristoren fedea orai arteo? Nork iduki zaizte preso ainberze denboras? Nork eman dizie arimo ta indar? Ezta ala, ezi Kristoren amoreak? Eta orai indar iago izan

bear du eben amoreak, zuen galtzeko, ezi Jesu Kristorenak garaitzeko? Etzin dekite sentitu bear zutela ebek, emengoa baizik beiratzen ezteute-nek? Gora begiak zerura: an tugu Aita, Ama, Anai arreba, aide ta adiskide ezin obeak. Balekite, zuek bekala, ebek, an esperatzen duguna, ez lastima, baizik inbidia lukete Martir gloriosoei. Baña eztakite altxaturik dagona an Kristio onendako, ezpaitute beiratzen, baizik emengo itxura, biar edo etzi bukatu ta deseginen dena, nai badugu ezpadugu. Eta itzulirik aiengana erran zioite, zuek, Jaunak eta Andreak, etza ziela nai galarazi ebei emengo bizi labur miserableagatik zeruko gloria eternoa, ta ez dezozela erresisti Espiritu Sanduari tiraztuenari gora. Etzaiztela penatu aparta daitzen orai guti bat: an goratik logratuko dizie argi, ezauntzeko Jangoikoaren badea, baita Kristiotasuna. Eztire kontuak amiñenak ebek, baizik egiak milla milla milagroeki probatuak. Sinesta, ezi bizi obero doaz: an ikostuzie glorioso, nai baduzie.

3. Akabatzean mintzatus, bereala zerutik señaleara, jautsi ze argitasun andi bat, ta bateo agertu zire zazpi Aingeru, ta erdian Aingeruen Errege, zein ellegaturik Sebastianengana eman zio besarka, erraten ziola, zu beti nereki izanen zara. Au guziau agitu ze Nikostratoren etxean, zein baize guardatzen zituena presoak, ta zenen andrea Zoe baize mutu, baña ez sor: onek aiturik S. Sebastianen platika, ta ikusirik argi zerukoa, joanik arren oiñetara adiarazten zio zeñus, nai zela Kristiatu. Sanduak erran zue, ni barin banaiz esu Kristoren zerbitzukoa, ta egia barin bada erran dudana, Jesu Kristo berak eman dezazula mintzoa. Au erran ta zeñatu zio agoa guruzearen señaleara: momentu berartan mintzatu ze klaro emanen graziak Jaunari ta Sanduari. Milagro patente oneki konbertitu ze Nikostrato, eta bi anaia preso gaiet eskatu zio barkazio idukias preso, ta zoezila Jangoikoareki. Ia aien buratsoak ere ta Andreak konbertiturik zeude negarres, ez penas, bai konsolazios. Azkenean ekarrarazirik karzeleko guziak, ta konbertiturik S. Sebastianen medios an zirenkei bateo irur ogei ta ama-laurtaraño bataiatu zitue sazerdote batek; guzien Aitabitxi S. Sebastian. Eta lien zirenak sendatu zire. Gero konbertitu zue Kromazio Jueza ere.

4. Ia ordea persekuzioea ellegatu ze sal du, ezpaizezakete Kristioek ez sal du, ez erosi, ez izan amenik, ezpaze inzensatus lenik Jangoiko falsuak. Orgatik atra zire anitz Romatik; berze batzuk gelditu zire nola erresak iltzeko: ebeki S. Sebastian. Kristio zela soldadoaren nonbrean, jakin zue Enperadoreak. Deitu zue bere gana; ta turbaturik erran zio, zer? Nik eman dizut duzun grado goi ene etxean, izateko Kristioen defendazale gure Jangoikoen kontra? Errespondatu zio S. Sebastianek atento, ni, Jauna, beti izan naiz leala ta fiela berorrendako, ta beti eskatu dut orren



onagatik Jangoiko bakar egiaskoari, zein baita kariatutuena zerua ta lurra: tonteria iduri baizaida eskatzea idolo goiei mogi eztaizkenei. Koleraturik Enperadoreak bereala manatu zue ken zezotela begien alzinetik Sebastian, eta kanpora atrarik, ta an loturik, ta olto bat petxora dilindan paraturik Kristio zelako letrareki, akaba zezatela tiratus saetak. Egin ze, manatu bekala: eta sandua zego alegre animoso bitarteo padezitu naies iago ta iago. Ustez ia iltzen, utzi zute loturik bere zur gartan. Urbilen gauean joanik andre on bat deitua Irene ixil ixila, ortzitzeko gorputz sandua, aurkitu zue oraño bizi zela. Eraman zue bere etxera, kuratu zue, ta sendatu ze. Ori jakinik Kristioek, arara joanik eskatzen zioze eskapa zeuela kanpora, etzeien erori berriz Tiranoaren eskuetan. Baña sanduak etzue ezauntzen beldurra: maite zue eriotzea Jesusen amorez. Eta ala jakinik, pasatu bear zuela Enperadoreak karraka batetik, paratu zekio alzinean tieso, ta oius erran zio, Jauna, beren Pontifize ta Sazerdote goiek daukate engañaturik, finjitus testimonio falsuak Kristioen kontra, sinestarazis direla Inperioaren kontrario; delarik egia Kristioen orazioengatik dirauela Inperioak. Arritu ze Enperadorea ikusteas ta aditzeas ila zena bere ustez. Erran zio, zara zu Sebastian nik manatu nuena iltzeko? Etzina il? Ez, Jauna, errespondatu zio, zeren Jesu Kristok guardatu nauen emateko emen testimonio egietafedearen, nai baluke sinetsi. &. Manatu zue ark akabarazi zezatela azotetz ta palos. Ala in zute, ta ilik bota zute leku zikin itsusi batean, etzezaten honratu Kristoek: baña Jangoikoak kuidatu zue geldi zeien erori gabe inmundizian, eta andik atrarik honra zezaten guziek: ta berak honratu du milagros &

Izotzillaren 21.an Santa Ines Birjin ta Martir

1. Naiz sandu guzietan ageri den Jangoikoaren ona ta Errelijione Kristioaren sandua, baña klaroago aurtto, ta donzellatto Kristioetan: ebe-taik bat miragarria da S. Ines Roman jaioa jendaki nobletik, eta ongi azia. Ontan juntatu zire biotzaren humiltasuna ta munduko ondasunketa; urte guti, ta anitz juizio ta birtute; gorputz txipian arimo ta koraje andia; emastekiaren delikatuan balore ta biktoria martirioan: eta leku infamean berean triunfante kastidade garbi-ederra. Txipizututik asi ze pensatzen Jangoiko andiaren gauzetan, espezialkiro gizonei mostratu digun amore geiegian, jautsis zerutik guregana, ta gizon eginik pasatzean ainberze trabaju, pena, ta eriotze alakoa gaixtoengatik onak, ofendizaleengatik ofendituak berak, salbatzeagatik gu. Au da Jesus ona, salbazale bakarra, ona berebaitan egiaz, ta ona guretako sines. Pensatus bada kontino Jesus onaren amoresko exzesoean, amorostu ze Ines amazale dibinoas alako maneran, ezi ez egunas, ez gauas etzeike atzen, bai zego amores beragana anhelatzen: Etze kontent errezatzeas solamente, bai zego il naiak Martir beragatik. Señaletan konsagratu zio bere gorputz ta arimaren Birjindadea betiroko: Eta Jesus onak ere señalatu zue bere esposa espirituale ta espezialetako.

2. Baña ara Demonioaren inbidias tentazio errua sandattoaren kontra. Amabi urtetaik amirurtarako adinean zelarik uzis eder agraziatua, ikusirik Romako Pretekto edo Gobernariaren Semeak, amorosturik sandaren grazia ederras, ta informaturik bere jendakiaren noblekasunas, eskatu zue bere esposatako ain gogotik, ezi orduak ilabete, egunak urte iduri zekizkio esperatus errespuesta. Sandaren buratsoek edo zeren oraño zen aurra, edo zeren uste zuten intenzio alakorik etzuela, etzute ematen prisa berzeak nai adiña. Eta ala berantetsirik, ta prebeniturik asko joia ta ikusgarri preziosoes atra zekio bein alzinera karrikan. Deklaratu zio bere pretensioa: nolako itz, modu ta demostrazioeki ordea? Bereala erretiratu ze atzerat sanda, eta grabe firme tiesoki erran zio, aparta aparta bedi eneganik infernuko sutilletea, bekatuaren sukaia, erioaren zeboa, ezi ori ez bekalakoak artu nau ni beretako lendanik; ta ezdezala espera ta ez pensa izanzen nai zela desleala ni sekulan ene Esposo dibinogarri, zeñi eman nai zen guzis betikos, ta zenen amorez bizi nai zen. Eta ezdezala sinesta, ori daikela berareki konpara, zeren ezi ditu berak sei prenda inkonparableak:



Lenik da *jeneroso noblea*, ain gora, ezi Aita du Jangoikoa, ta Ama Birjin garbia: Da ere *ederra* ta ain ederra, ezi iruzkia, ilargia, izarrak eztire eder beraren aldean, eta berari beira egotea da gloria. Da ere *jakintsua*, ainberze, ezi jakin du arrapatzen ene biotza alako maneran, ezi ez dezaket berzerik nai, ta ez gogoratu, bera baizik. Da ere *aberatsa*, ainberze, ezi eman dida ia tesoro bat balio duena iago ezi Romako Inperioak, eta zerbitzatzen diotenak betetzendu ondasunes nai adia, ta ezta txurtzen emanen. Da ere *poderosoa*, ta ain poderoso, ezi keñu bateki garaitzenu munduko ta infernuko potestade guziak, eta itz bateki sendatzenu heriak, eta bizten ilak. Da ere *on ona*, ta ain on amablea, ezi ezauntzen duenak ez dezake baizik onetsi: eta berak onesten nau ni, ta artu nau bere Esposatako, ta paratu dida señailea, ez dezaten onetsi nior, bera ezi, ta eman dida itz, eznauela utziko sekulan ere. Orgatik bera sollik amaten dut nik iago ezi nere bizia, eta nere gusto gozoa litzake iltzea beragatik. &

3. Joan ze berzea konfuso aditurik alako gauzak: eta sinetsi zue zegola Ines erozoraturik munduko berze norbaiten amores: eta koleraturik zelos heritu ze. Bere Aitak ikasirik motiboa, deitu zue sanda, eta modu on guzies porfiatu zio admiti zezan matrimonio ain ongi zegokiona. Sandak konstante firme etzuela utziko lenbiziko artu zuen Esposoa. Sandak konstante firme etzuela utziko lenbiziko artu zuen Esposoa. Nai zue arrek jakin, nor ote zen au, zeñi ain afizionatua baizego Ines. Bere enbusteroetaik batek erran zio, Jauna, donzella goi da Kristioa, eta txipizututik azia Kristioen sorginderiaetan. Alegatu ze aditzeas on Gobernaria mendekatzeagatik bere agrabio iduri gura. Determinatu zue bereganatu bear zuela ones edo gaitzes sanda. Baliatu ze medio guzies; baña banoan. Azkenik erran zio suber tieso, Ines, edo artu senar, edo adoratu gure Jangoikoak: ezperen, kastigatu, ta eramanaeziko zaitut emasteki urdeen etxera, non ere deshona zaizaten. Sandak serena, eztaie la neka, ta asarratu debalde, ezi eztut nik utziko artu duten Esposoa; eta ez tutelaiak nai orren semea, izanik ain prinzipal andia, zenbat gutiago adoratzea orien Jangoiko falsu goiek, deustako eztirenak? Eta dionas ermako nauela leku infamera, bego entendaturik, etzaiola kuadratzen ene Jangoikoai deshonestidaderik, orien Jangoiko zikin gaiei bekala; eta dutela nereki beraren Aingeru bat guardatzen nauena. Juez infameak eramana zizue sanda biluxirik karrikas karrika; baña Jaun dibinoak estali zue miragarriro, ikusi etzeiken gisan. Eta sarturik etxe gartan aurkitu zue Aingerua agerri, guardatzeko, eta bestimenta txuri eder bat, bestitzeko: Eta aposentu guzia bete ze argitasun zerukoas: eta sanda paratu ze orazioan. Zoezi ellegatus atari

pokalera gizon deshonestoak: baña arriturik an ikusten zenas itzultzen zire atzerat aldaturik biotzez.

4. Gobernariaren semea ere ellegaturik sartu ze itsu itsua pasiones deustan erreparatu gabe: baña Aingeruak bereala utzi zue ilik berartan. Ori ikusi zutelaiak lagunek, asi zire oiuz, atozte, Romanoak, ezi Gobernariaren semea ilarazi du Ines Kristio sorginak. Etorri zire jendeak ikustera; etorri ze Aita ere zoraturik, eta beiratu zuelaiak bere semea ila, asi ze gaizki erranka, o sorgin madarikatua, infernuko furia gaizki agertua, nola ilarazi dun ene semea? Erran zue sandak, nik eztut il, baizik bere atrebenziak. Libre atra dire gañarakoak; baña onek errespetorik gabe nai nindue bortxatu: orgatik ilarazi du ene Aingeru guardiakoak. Orduan ia emeki eskatu zio arrek, logra zezan biztu zeien, sinestatzeko etzuela ilarazi arte gaixtos. Sandak logratu zue orazio: Eta bizturik ia Mutilo asi ze oiuz, Ezta berze Jangoikorik zeruan ta lurrean, baizik adoratzan dutena Kristioek. Guk adoratzentugunak dire Demonioak, engañatzen gaitutenak eramateko infernura. Pontifizeek ta Sazerdoteek aditurik gorarazi zute jendea klamatus, il bedi il bedi Ines sorgina, urdea, alkegabea, infamea, bere arte gaixtos trasformatzenuena personak. Oiu gebeki turbatu ze Jueza, eta konfuso nai zue alde bat utzi libre sanda alako miragarrien kasos, berze alde ze beldur jendearen furias. Ala lotsaturik erretiratu ze etxera, utziarik bere lekuan Astasio. Onek inarazi zue hogera andi bat sandaren inguruan: erdian sanda, eta sugarrak partitu zire bi aldetara erres an urbil zeudenak. Sanda, goraturik bere begi ederrak zerura zego ematen bere Esposo dibinoari esker milla milla. Jendea oraturik kontra sosegatzeko, manatu zue uezak pasatzea lepoa ezpata bateki: Berdugoa beldurrik ikar ikar: sanda beldurrik gabe animosa: orrek, Jauna, errezi bez ene arima: Errezibiturik golpea, egatu ze arima errezibitzera Birjin ta Martiren korona doble.

5. Gorputz sandua depositatu zute buratsoen heredaje batean, nora baizoezi fielak adoratzera errelikia sandu gaiek: Infielek etzute utzi nai arrika, eta ala iltzute S. Emerenziana S. Inesen aizpa esnekoa, bataiatzeko zegona, ta orduan bataiatu zena bere odolesko bataioas, zelebratzen dena il gonen ogei ta irurgarrenean. Eta Infielek estorba etzezaten debozio gura, lotsarritu zitue Jangoikoaren terremoto, ortots, ta oñaztureki. landaren buratsoak ezin atzendus beren alaba onaren memoria gozoa, zeude kontino orazio egiten arren obian. Gau batez agertu zekiote akonpañaturik anitz Birjin ederres, adornaturik gala urreskoes, joia ta perla preziosoes, bere aldakan zeukala axuritto iduri bat txuriago ezi elurra, ta baraturik erran ziote amoltsu, o ene Aita eta Ama, ez dezatela nigar egin nitas ilas



bekala: bizi naiz eben konpañian zeruan Jaunareki, zein maitatu bainue bizian debozio guziareki. Aparizio gau izan ze famatua, ta zelebratzen du Elizak ogeita zortzigarrenan. Andik zenbait urte Konstantino Enperadorearen alaba deitzen zena Konstanzia heri andia oñetaik bururaño, baña orañik ez bataiatua, oanze S. Inesen obiara sendatu naies. Orazioan zegolaik an lokumatu ze, ta aditu zue sanda erraten ziola, porta zaite konstanteki Konstanzia: Ar zazu fedea Jesu Kristo gure Jaunaren, zeñen birtutez sendatua zaren. Idatzarri ta aurkitu ze sana ta sendo guzis: eta gero fabrikatu zue an tenplo eder bat sandaren honratan. Nor ezta admiratzen sanda gonon santidadeas, karidadeas, koraje andias ain adin gutitan? Nork eztakusa Jesus onaren fineza miragarriak arren onetan? Ezpaitu egiten alakorik, diozu, gure denboretan. Eta nik diot, non da orai alako donzella edo arimarik? Biz lengo Kristiotasuna, eta ikusko da Kristoren ona, ezi beti da bat: ezta aldatzen. Biz bedekatua. amen.

Izotzillaren 22.an San Bizente Martir

1. S. Bizente, nai batu erran biktorioso garaitzen duena, jαιο ze Ara-guako Huescan, azi ze Zaragozan, eta egin ze Martir gloriosoa Valenzian. Zire Enperadore Diokeziano ta Maximiano, Jesu Kristoren etsai fieroak, ezin zeizkenak ase Kristioen odoles, naiz amar urtetan iloro ilarazten zuten amazpzi milla, diotenez. (Breviar. in fest. SS. Ciriaci et Paulae 18 Junii: Hispan.) Ebek biali zute Española beren gisako bat deitua Daziano Presidente. Onek ilarazirik Zaragozan anitz Kristio, Zaragozan, ta preso eginik S. Balerio, ta S. Bizente, ura Obispo, ta au Diakon Obispoaren partez predikatzen zuena, zeren etzuku ark aski zarregis ta motel izanes mia, eramanarazi zitue biok Valenziara. An asko denboras idukiarazi zitue kalabozo ilun batean beterik burriñas, goseak eta egarriak, baña Jangoikoaganik erregalatuak: Uste zue bai arrek, kobardeatu ta flakatuko zirela tratamentu gaixtoareki ainberze denboras: Baña kontra agitu ze: Atrarik andik sentenziatzeko, agertu zire sendoago ere len baño: akar in baizio karzelzaiari orgatik, ustez erregalatu zituen ongi, Au da nik manatu niana? Ain sendo ta kolore onean atra beaute karzeletik gure Inperioaren etsaiek? Eta ebengana itzulirik, erran zue, Zer dio, Balerio? Nai du obeditu Enperadoreei, ta adoratu aien Jangoikoak? Obispo sanduak errespondatzen zio manso emekiro miaren trabagatik, ezpaizeike ongi entenda. Orduan goratu ze S. Bizente Jangoikoaren espirituas errebestiturik, Zer da au, Aita? Nola mintzatzen da ain emekiro, nola balego beldurrak tzakur gonon? Gora bez boza gora: edo ezpadezake adinaren kasos, bida niri lizenzia, mintzatzeko. Emanik lizenzia, erran zue garboso, Zuen Jangoiko goiek, Daziano, zuendako biz, ezpaitire deustako protxal. Guk Kristioek dakigu eztela baizik Jangoiko bat bizi dena, ta guziak egintuena, guzien prinsipio ta fin bere seme Jaun Jesureki, zein eginik gizon bizitu eta il baize salbatzeagatik gizonak, nai baute berek. Guk nai dugu salbatu, ta beraren amores pasatu trabaju, tormentu, eriotze.

2. Kristio presente zeudenak, ta gero aditu zutenak animatu zire itz ebeki: Daziano koleratu alako ausardias. Desterrarazi zue Balerio, ta tormentarazi Bizente. Billusirik paratzen dute dilindan zur batetik, tiratzen zute oñetaik kuerdaeki, atratzen junturaetaik ezurrak, zatikatzen aragiak azotez. Erraten zio Dazianok bitarteo, eztakusazu, miserablea, nola dagon gorputzori zatikaturik? Bizentek sereno errespondatu zio, Sinesta



bez, Daziano, niork etzi dakela egin fabore andiago egiten didana baño orrek. Iago tormentu pasatzen du orrek ikusteas ez nazaketela garaitu ni orren tormentuek. Orgatik eskatzen diot eztaiera beraxtu, ezi zenbenas iago diren penak, iago izanen dire premioak, eta nik aseko dut deseoa dutena iltzeko Jaun onagatik iltzenagatik gurutzean gure amorez. Itz ebeki Daziano arras koleratu ze, ta begiak turbaturik, abuña zeriola agotik, ta sua begietaik, marroas leon bat bekala, kendu azoteak berdugo bati, ta asi ze artas ematen, sanduai ez, baizik berdugoei, floxoak zirela, inutilak, funda gabeak. Sanduak irrikos erraten dio, asko zor diot, Daziano, iten baitu nereki adiskidearen lana; kastigatzentu kastigatzen nautenak ni: herizentu heritzen nautenak ni: Esker milla. Guziau ze suari olio ematea, ta añaditzea Dazianoren rabia. Ekarririk burriñasko aztapar eta txarran txak, aieki arraskarazi zue gorputz guzia goititik beitraño furiosoki: Eta sandua; nola ezpaltz aragiskoa, burlatzen tormentues, ta tormentazalees: ebek akaiturik, ta bera alaiturik. O Jangoikoaren indarra komunikatzen diona gizonari, artu zuelarik berak gizonaren flakeza, beldurtu pasio alzinean! Paratu zute gero burriñasko goatze gisa batean, su eman alde guzietatik: odola zerio guzitik, aragiak konsumiturik, sollik ia ezurrak erre ta belzturik: arimoa ala ere bizkor biktorioso propioiki Binzente.

3. Manatu zue Dazianok eramateko berriz karzeler, barraturik tellapuskak, aien gañean etzateko ta arrastatzeko sandua, etzeien niolater errepausa. Baña Jesus onak argis inguraturik ta Aingerus egin zio an bisita konsolagarria. Turbatu zire guardak ustes iges egin zuen Bizentek. Onek oiue egin zue, ez eztut iges egin; emen nago, ta erran zozie Dazianori, prebeni dezakela tormentu berriak, ezi pasatuak pasatu direla. Gelditu ze Daziano arriturik, eta errabiatzen: bitarteo Aingiruek Bizenteri kantatzen zio te triunfoa, ea Martir triunfantea, ez lotsa, ezi zutas dire lotsa tormentuak ta tormentazaleak. Biramonean Daziano mintzatu zekio amoltsu-iduri malizias, nai zuela deskansarazi, ta kuratu. Etzinarazizue goatze beraz batean: baña Martir gloriosoak nai etzuela deskansurik emen, despeitu zue arima Jaunaren eskuetan. Dazianok gorputz sandua botarazi zue kanpoan, zatika ta jan zezaten tzakurrek ta baseziek: baña otsorrai andi bat paratu ze zentinelan: arrek pikoas, aztaparres, egales apartarazten zitue miragarriri. Aiturik on Dazianok iskiritus zio errabioso, Ah Bizente, ilik ere iten didazu gerra. Eramanara zizue itsasoan barna, ta an ondatu: baña bota zutenek itzuli zerelaik aurkitu zute itsasbaste- rrean: non urbagadek formaturik obia gisa bat estali zute areas orduan: gero sanduaren abisus andre on batek depositatu zue Valenziako mura- llen ondoan. Biz bedekatua Jangoikoa egin zuena alakoa &

Izotzillaren 23.an

San Ildefonso Toledoko Arzobispa

1. S. Ildefonso Toledoko Arzobispo ta Ama Birjinaren Kapellan glorioso jaio ze Toledon berean buratso ilustreetaik jenerazioz ta Kristiotasunes. Logratu zute seme on gau bere Ama Birjinaren medios, zeñi ofratu zion bere Ama Luziak. Orazioen humea bekala azi zute sanduki, eta gero S. Isidoro Sevillako Arzobispoareki estudiaturik amabi urtes, ta itzulirik sortuerrira beiratzen ta estimatzen zute guziek jakintsu ta sandu bekala. Baña bera ez kontent munduko nastekazioen ertean egin ze Monje ango Monasterio sandu batean. Falta aurkitu zuelarik Aitak joanik arma ta jendeeki arren billa, ezin aurkitu zue: gero seguratu ze semea, ta sosegatu ze Aita konformatus Jangoikoaren borondateareki. Amak laudatu zio egin zuena, ta konsejatu zio perseberanzia, ta Ama Birjinaren debozioa. Konbentuak izan ze guzien exenplu, ta argi bat bekala santidades. Eta denbora labur eskojitu zute Abade. Agitu ze gero iltzea S. Eujenio Arzobispo Toledokoa: eta bereala Erregek eta guziek obligatu zute izatera ondorengo S. Ildefonso. Berak negar, erresisti, erreklama, etzela gauza, eramateko pizu andi gura: baña etzekio baliatu: Bortxaz naiz bai konsagratu zute Arzobispo. Eta len zenak nola argi bat altxatua bere konbentuan, gero paraturik kandelero andi gartan argitzen zue mundu guziari. Ze agitz Jangoikoaren beldurdun, barnean deboto, agerrian modesto, beratx, afable, manso sufritua proximoeki. Bada karidadea zue prinzipala: eta gañarako limosnaes landara, egunoro paratzen zue mala ogeitamar pobreei; eta oraño ere irauten du kostunbre gonek Toledon, eta meza nausia erraten duenak joatea bedekatuzera pobreen bazkaria, ta Arzobispoak berak ere, falta gabe.

2. Baña arimen kuratzean, kuidatzean, ta kidatzean zue bere enplegu, afizione, ta habilidade prinzipalena: ortako eman zio Jangoikoak zelo diskreto amoltsua, nola Ama on batena, xakintasun abasto, ta mintzaera elegantea: Zertan geienik agertu zuen, izan ze Ama Birjinaren garbitasun birjinala defendatzean. Etorri zire Españara denbora gartan hereje batzuk, barratzen zutenak doktrina infamea, etzela Ama Santissima gura beti mantenitu Birjin. Aien kontra goratu ze S. Ildefonso, eta mias, eta plumas garaitu, konbenzitu, ta konfunditu zitue, eta desterrarazi Españatik, orgatik deitzen baizute sandua fedearen ankora. Kuadratu zekio birjin eder garbienari bere kapellanaren fineza, eta pagatu zio ederki: zeren



ezi S. Leokadia Toledoko Patronaren festa zelebratzean, presente zeudelarik Errege Rezesbinto, bere korte guzia, ta jendeketa andia, sanda gura ia irur eun urtes ortzirik zegona, goratu ze obiatik, eta eskua edatus sanduagana, erran zio, o Ildefonso, orrengatik bizi da ene señoraren gloria. Erran ta itzuli ze bere obiara. Ez kontent

gloriako Erregina orreki sollik, jautsi ze bera zerutik, eta erran zio amorosa, Zeren guardatu duzun zeure Birjinidadea, ta defendatu duzun nerea, nai zaitut erregalatu neure eskus. Tori ornamenta gau, usatzeko nere festibidadeetan. Utzi zio kasulla bat admiragarria. Pensa nola gelditu bide zen sandua fabore goneki: nola estimatu, ta agradezitubidezion: eta nola bizitu bide zen urrengoan, nola gizon bat zerukoa, emen beiti gorputza, ta gogoa goiti zeruan beti. Biziturik iruogei bat urte desterru gontan, ellegaturik plazioa ainberze deseatzan zuena, jaio ze bizi ohera, ta igan ze ikustera Jangoikoaren aurpegia bere glorian, Jesu Kristoren ta bere Ama Birjinaren konpañian, &.

Izotzillaren 26.an San Polikarpo Obispo ta Martir

1. S. Polikarpo antiguasko sandua, Esmirnako Obispo, ta S. Juan Ebanjelariaren Diszipulo izana, fede katolikoaren defendazale andia izan ze, ta herejeen kontrario fuertea, bere Maestru Apostoluak erakutsi bekalatzen. Roman aurkitu zue ustekabeen karrikan Marzion herejea, itzuli zue aurpegia berze aldera, ez ikusteagatik: Goartu zue arrek, eta galdegin zio, Ezauntzen nau ni? Errespondatu zio, Ezauntzen dut Deabruaren hume lenijaioa. S. Ignazio Martirak zue txoil adiskide maite, ta kontu ematen zio bere martiriorako bideas. Ala animatzen zire elkar lenbiziko Kristio buru gaiek, zein baño zein guapoago padezitu naies Kristorengatik. Enperadoreen persekuzioean egiten zitue Artzai onaren ofizio guziak bere ardieki: eta jakin zuelaik bera billatzen zutela arrapatzeko, Kristioen konsejus eta otoitzes erretiratu ze kanpoko etxe batean. Baña nola Jangoikoa bear baita izan zerbitzatu bere zerbitzuko es noiz ta nola duen plazer, preso in bear zuten bezperaren bezperan in zue amets, sugarretan zegola kuxina, zeintan zeukan burua erreklaturik. Eta entendaturik signifkazioa, deitu zitue bere adiskideak, ta erran ziote beterik aleganzias, Zierro erraten diziet, ni erreko nautela bizirik egun gutiren barnean. Bedeikatua biz ene Jesu Kristo ona, nai baitida egin grazia, emateas martirioaren korona. Atrarazi zute aiek berze leku batera, seguroagos beren ustes, baño etze ala izan, ezi an aurkitu zute Ministroek: sartu zire etxe gartan: bazeike oraño ere eskapa: etzue nai, baizik goratus begiak zerurat erranik, Jauna, kunpli bedi orran borondatea, atra ze ematera ongietorria agasajo andiareki: prestarazi zue bazkari on bat aiendako; Jarrarazi zitue maian jan zezaten ale re, ta berak eskatu zue ordu bat egoteko orazioan. Admiraturik aiek alako modu onas, ta kontentu mostratzen zuenas, ia zeude urrikitan etorrrias egitera preso, ta ziote elkarri, dela posible in daien ainberze dilijenzia galtzeko zar gizagaizo gau ain beneragarria? Baña gero ere kunplizteagatik erman zute abre batean. Opatu zute bidean Gobernariak ta bere Aitak; artu zute beren kotxean: konsejatzen ziote bien ermean utzi zezala Kristioen superstizioea obeditus Enperadoreei. Egiten ze sor guzietara, ta zego ixil: azkenean ainberzeko porfiaetara errespondatu zue, Jaunak, zertako galtzen dute denbora debalde? Nik sekulan eztut egiten oiek diotena. Orduan asarraturik aiek bota zute kotxetik moldegaizki, ta heritu ze eror zerakoan. Eraman zute Juezagana, eta bidean aitu zue zerutik itz gau,



arimo ona, Polikarpo, eta egin ongi Jangoikoaren itekoa. Juezak galdegi-nik, ia zen Polikarpo, manatu zio uka zezala Jesu Kristo. Sanduak sereno grabe erran zue, laur ogeitasei urte du zerbitzatzen diotela nik, eta beñere eztida egin gaizkirik, baizik ongi beti: nola nai du orrek, uka dezaten orai nik ene Jaun ona? Meatzatu zio Juezak erreko zuela bizirik. Sanduak zio, nik eztut beldurrik akabatzen den suas, baizik su eternoas. Ezdezala pensa lotsarazi ni deustas: nai duena egin bez: emen nago ni. Au zio aurregi alegre, ta mintzo ain tieso grabearaki, ezi jueza gelditu ze admiraturik. Pregonarazi zue Polikarpo zela Kristio. Eta jendea goratu ze, bear zutela erre bizirik. Bildu zute egur-abar franko: nai zute josi itzeeki, etzeien mogi. Sanduak erran zue, ezta zeren, ezi uste dut ez nai zela mogituko, naiz erre-pispildurik. Ala utzi zute, lotus eskuak sollik atzerat: eta bota zute sura. Ofratu ze gogotik Jaunari sakrifiziotan. Eta suak formatu zue ala nola arku bat inguruan, eta erdian sandua zego ala nola urrea istargitzen zuena; eta errespiratzen andik atxon bat gozoa. eta ikusirik, barkatzen ziola suak, ta ez akabatzen, ezpata bateki traspasatu zute. Oneki egatu ze arima gloriosa errezibitzera korona &.

Izotzillaren 27.an S. Juan Krisostomo pag. 272.

Izotzillaren 28.an San Julian Obispo Kuenkan

1. Karidadearen exenplutako jaijo ze S. Julian Burgosen orazioen hume gisa, txoil eder agraziatua, eta bereala jaijo orduko goraturik esku-ttoa formatus guruzearen señaleara eman zioze guziei bedeizioa Obispoen gisara. Guziak admiratu zire, ta iago, gero aitu zutelaik bataio-egunean Aingiruen musika bat zoragarria, kantatzen zutela, egun aurtto bat jaijo dela bere parerik grazian eztuena. Bataiatzerakoan ikusi ze bataiarriaren gañeko aldean mutiko-iduri bat Obispoen insigniaeki erran ziotena, para zezotela izena Julian. Prodigio gebeki entendatu ze klaro zela Jangoikoaren maite eskojitua, eta ala mostratzen ze aurzutuan, mutikozutuan, ta gaste-zutuan. Egin ze Maestru Teologiaren, ta erakutsi zue publikoki. Buratsok ak ilas geros, etzue nai izandu artu Matrimonioaren estadoa konsejaten ziotena, baizik zen guzia, ta zuen guzia eman Jangoikoai. Ordenaturik sazerdote goiz guzia enpleatzen zue orazioan, ta meza erratean ain deboto, ezi guziei apegatzen zioze debozioa. Geroago eman ze irabaztera arimak predikatus Jangoikoaren itza Españako leku anitzetan. Egin zute Toledoko Arzediano lenik, ta gero Kuenkako Obispo, nai etzuela berak. Sartu ze an oñez humil humila: eta laster agertu ze Jangoikoaren gizona zela, Jangoikoak bialia guzien onerako, ala arimen, nola gorputzen alde. Desegiten ze, ta desentrañatzen, erremediatu naies bear guziak. Eta Jangoikoak fabore andieki adiarazten zio kuadraten zekiola beararen karidade gura. Bein zerbitzatzerakoan pobreei maian usatu bekala, ikusi zue an bat beneragarriago iduri zuena, ta gogoraturik ote zen Jaun andiren bat erori zena bearrean, galdegin zio: Eta pobre gura agertu ze beterik argitasunes, erratan ziola, Julian, nik estimatzen dizut iten duzuna ene pobreeki, ene adiskide ona, eta premiotan ofrezitzen dizut gloria eternoa.

2. Asko milagroeki lagundu zio bere Majestadeak. Bein etorririk anitz pobre, manatu zio limosneroari eman zezotela zerbait gari. Ark zio, etzela pikorrik ere. Sanduak, beira zazu ongi, eztoazin utsik pobreok. oan ta aurkitu zue graneroa beterik garis. Berze bein etzelarik ogirik Kuenkan, ta ezin aurki nion, jarri ze bere orazioan sandua, eta bitarteo ellegatu zire atarian anitz abre karaturik, nork kidatu gabe, ta pagatu nai arik, etzire agertu. Manatu zio bere mutil bati, bere gisako liberal zenari, erreparti zezala: eta ark egin zue ain gogotik, ezi nekearen utses iltze, ta beneratzen da sandutako Burgosen. Peste denbora batez sanduak bere orazioaren



birtutez logratu zue erremedioa. Demonioak inbidias persegitzen zue tentatus gulas, kodizias, luxurias: baña sandu humilak Jangoikoaren graziaz garaitu zue beti. Ellegaturik laur ogei urtetara heritu ze, ta ezaundurik deitzen zuela Jangoikoak bere gana, errebestitu ze ornamenta sagra-tues errezibitzeko sakramentuak: gero urtiki ze lurrean bestiturik silizios: Azkenerat ikusi zue etorzen beragana donzella bat koronaturik lorees, akonpañaturik Aingirues, ta sandues ederrago ezi iruzkia, kantatzen zute-la, Ona sazerdote andia bere egunetan Jaunari plazer egin diona. Graziak ematen asi ze sandua bere Ama Santisimari, zeñek erran zio, tori palma gau zeure birjinidad guardatuaren señaletan. Señale gebeki despeitu ze mundugontaik milla, berreun, ta zorzigarren urtean. Andik irur eun ta amar urte aurkitu ze gorputza ain oso galdu gabe eta aldakan palma errama bat berde freskoa. Berze asko milagros honratu du Jangoikoak, eta Eliza Sandak zelebrazten du bi aldis urtean &.

Izotzillaren 29.an S. Franzisko Sales, pag. 275.

Izotzillaren 30.an Santa Martina Birjin ta Martir

1. Alexandro Enperadorearen denboran bizitu ze S. Martina Romana jendaki anditakoa, agitz aberats ta liberala sokorritzeko pobreak. Enperadoreak manatu zitue zenbait kaballero joateko kristioen billa, zetozin ofratzera sakrifizio. Aurkitu zute sanda gau erretiraturik orazioan, ta eraman zute Enperadoreagana. Ikusi zueneko arrek ain ederra, artu zio amore, ta erran zio, o donzella, jendaki anditakoa, nere intenzioa da egi-tea zu ene esposa, erreina, ta Enperadora: baña lenik Apolori ofratu bear diozu sakrifizio. Errespondatu zio S. Martinak, Jauna, ni ofratu naiz sakri-fiziotan Jangoiko akar biziari, zeñek baitu plazer arimaren ta gorputzaren garbitasunas, eta berari enkomendatzen naiz egunoro. Enperadoreak manatu ziote Apoloren sazerdoteei, prebenitzeko sakrifizio, ta eramanz-teko arara sanda: zein ellegaturik zeñatu, begiak zerura goratu, ta orazio eginik, ikaratu ze lurra, erori ze Apoloren estatua, ta putxikatu ze guzia. Sandak Enperadoreai orduan, Jauna, bidoeie, lagun bezo bere Jangoiko-garri, baitago erori ta deseginik. Agertu ze estatua gartan zegon Demonia errautsean iraulka oiuz ziola, o Jangoiko andiaren zerbitzari Birjina Martina, zergatik botatzen nau neure etxetik, ta ikusiarazten du ene itsus-tasuna jende guziari? Anitz Espiritu gaixto zeude nere eskupean, ekarritzen zizkidatenak egunoro arimak, eta orrek joanarazitu infernuko sura. Erran, ta desaparezitu ze aireak barna. Enperadoreak manatu zue herit-zeko sandaren aurpegia zaflozes, ta begi-azalak burrinasko garfioes: eta on egitean klamatzen zute berdugoek, ai gutas, ezi gu gara tormentatuak, ez au. Sandak egin zue orazio aiengatik, baizire zortzi, konberti zeitzen: eta aditu ze boza bat ziona, nik barkatzen diotet ene sierba Martinaren atenzios; eta zu zaude konfiaturik, ezi nik lagunduko dizut. Zorzi berdu-goak konbertiturik eskatu ziote sandari barkazio, ta Enperadoreai erran, Jauna, guk eztugu adoratuko ia orren idolorik, ezi S. Martinaren orazioes ezaundu dugu Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa. Suturik Enperado-reak erran ziote, o eroak, engañatuak zarate gurezifikatuaren arte gaixtos. Aiek berriz, on dago engañaturik, ez gu. Manatu zue martirizatzeko aiek, eta sufritu zute martirioa Jesu Kristoren amorez.

2. Berze egun batez manatu zue ekartzeko sanda: ikuskigun berriz, zio, arren sorginderiak. Larranziarazi zio gorputz guzia arma txorrotxes: eta Jangoikoak errebestitu zue argitasunes, eta llagetaiek zerio esne odo-



laren partes, eta atxon dibino bat gozoa. Azotarazi zue erruki; baña bera ez, berdugoak bai nekaporraturik zeude klamatzen atertzeko. Etzitue utzi nai arrek, alik eta erori ziren arteo lurean akaiturik arras. Konfuso zego Enperadorea etxakin zer egin: Bere aide batek Limineo deitzen zenak konsejatu zio itzularaztea karzelerara, eta an guzia untatzea urin irakiñes, orreki zikindu ta kenduko zela argitasun gura. Sartu ze sanda an alegre emanen eskerrak Jangoikoai: Bereala jautsi zire anitz Aingeru, ta sandareki kantatzen zuzte Jangoikoaren laudarioak miragarriri. Biramonean joan ze arara Limineo, eta ikusirik zeruko argitasun gura erori ze lotsarriturik, eta jaiki ondoan ikusi zue S. Martina jarririk katedra batean, ta inguruan asko persona txuris bestituak. Itzuli ze, kontatu zio Enperadoreai ikusi zuena; ta niork ez sinestatu nai egia zena: zeren ezi dirudi, Jangoikoak eta Enperadoreak artu zutela tema ta porfia, onek tormentatzeko, arrek honratzeko sanda. Ekarririk au manatu zue Enperadoreak ermateko adoratzera idolo bat Artxemida deitzen zen leku batean. Arara ellegatu zeneko, asi ze an zegon Demonioa klamatzen, ai nitas! Ezi sua dator ene atzetik laur aldeetaik. Eta sandak manatus zoeiela andik, asi ze ortots oñasturketan lotsagarriri, jautsirik suak zerutik erre zitue sazerdoteak, ta errautstu tenplo gura. Oraño ere itsuturik iras Enperadoreak manatu zue zatikatze-ko gorputza ta bularrak burriñasko aztaparres, guzia sufritus sandak pazienza admirableareki: Gero botatzeko baseizieri, ozka zatika ta jan zezaten. Atra zute leon bat temenariora, berarias iduki zutena jan gabe irur egunes: ikusi zueneko sanda, joan zekio axuri bat bekala manso lamikatzen zitiola oñak. Sandak lauda Jangoikoaren ona ta poderosoa. Ikusirik on Enperadoreak manatu zue itzultzeko bere jaulara leona. Onek arrapatu zue, Limineo gura, ta antxe zatikatu ta jan zue. Ortas asarreago Enperadoreak manatu zue erretzeko sanda: egin zute su andi bat arrigarri, bota zute artan: baña derepente jautsi ze erauntsi andi bat aize erru bateki, onek barraturik sua erre zire an zeudenak inguruan: eta sanda libre mellarrik gabe. Enperadoreak manatu zue sartzeko tenplo batean, ta uzteko an, ertxirik atariak. Egunoro kanpotik aditzen zire Aingeruen musikak eta kantuak. Gero idikirik atariak, ikusi zute sanda inguraturik erresplandorees, eta ango Jangoiko zeukaten gura eroririk, ta auts biurturik. Erran zio Enperadoreak, Non da ene Jangoikoa Zeo? Sandak errespondatu zio, Ene Jaun Jesu Kristok autxi ta auts biurtu du berze gaiek bekala. Ia etsiturik arrek manatu zue atratzeko kanpora, ta ebakitzeko burua. Jautsi ze boza bat zerutik ziona, Martina birjin ederra, peleatu duzu baliente bekala: or uda zatozin errezibitzera premioa ene glorian. Berdugoak aditzea- reki erori zire lurean ilak bekala. Ondorean joanik Aita Sandua, ta Eliza-

gizon guziak, arturik gorputz sandua eraman zute ortzitzera gozo ta esta andiareki. Egun berean heriturik Enperadorea biotzeko miñ erruareqi asi ze ozkatzen ta zatikatzen bere aragiak, ziola oiuis, o Kristioen Jangoikoa, izan bez miserikordia nitas, ezi agitz naiz tormentatua; zeren persegitu duten orren izen sandua: nola nik in duten, ala iten da nereki. Lurra ikaratu ze, ta kristiatu zire egun gartan bi milla ta irur eun Infietaik. Biz bedekatua Jesus ona guzienganik. amen.

Izotzillaren 31.an S. Pedro Nolasko pag. 278.



Otxallaren 1.an

Santa Brijida Birjin Eskoziakoa

1. Admiragarria da Jangoikoaren ona, baitaki gaizkitik atratzen on, eta ezpaitu nior galtzen buratsoen bekatuengatik, ezpadu berak kulparik. Au da klaro ageri S. Brijida Eskoziakoan, zein izan zuen ango Jaun batek esklabatenganik bekatuaren medios. Orgatik arren konsorteak botarazi zue etxetik esklabat gura. Jaiorik gero alaba gau, ta ezaumentura ellegaturik azi ze txoil ona, honesta, humila, obediencia, ixila, pobreen ongiegillea, ta Jangoikoai emana guzis. Ederra ze ariman, ta ederra gorputzean: orgatik guziek nai zutelarik ongi, anitzek pretenditzen zute bizikide. Aitak proponitu zio, zein nai zuen berak autta zezan. Baña orduko autaturik zeuka Esposo bere parerik ez zuena Jesus ona, zeni konsagratuzion birjinitadea botos. Eta ezaundurik eder izatea zela zebo, pretenditzeko mundukoek, jarririk orazioan eskatu zio biotz guzias, itsusi zezan de manera, ezi niork etzezoz kasorik egin, baizik bere Majestadeak. Logratu zue: ta ia niork etziolaik nai beiratu ere itsusian utses, eman zio Aitak lizenzia egiteko Errelijiosa, baize bere pretensio bakarra. Beloa paratzerakoan Obispoak, ikusi zue susko kolumna bat arren buruaren gañean, eta ukitzeareki sandak eskuas aldareko markoa, baize zureskoa, bereala berdatu ze, eta bera itzuli ze ain eder agraziatua nola len. Ala mostratzen zue Jaun dibinoak arimagarri zion amorea, baitare arren medios iten zituen prodijioeki. Konbidatu zue bein donzella batek sanda: joan ze, ta ikusi zue arren aldakan Deabrua. Galdegin zio zer ari zen an, ta zertara etorri zen. Deabruak errespondatu zio, ezi donzella garren lazo ajola guti izateak ekarri zuela, ta zegola ongi aurkiturik an. Aditu zue donzellak, ta zeñaturik istantean ikusi zue espiritu gaixtoa oaten sua zeriola. Lotsaturik ezaundu zue bere kulpaa, ta emendatu ze, ta libre gelditu ze arrotz gaixtoaganik sandaren medios. Berze emasteki gaixtoagoko batek izan zue hume bat; eta bere bekatua exkusatu naies, botatzen zio kulpaa Obispoari. Sandak deiturik galdegin zio, norenganik zuen aur gura? Errespondatu zio alkegabeak, ezi Obispoaganie. Orduan S. Brijidak formatu zue guruzearren señalear arren agoan; eta istante berean aunditu zekio mia ta burua enormeki Jangoikoaren permisios. Zeñatu zue alaber aurttoaren mia, ta galdegin zio, ia nor zuen bere Aita. Aurttoak errespondatu zue klaro, etzela Aita Obispoa, baizik gizatxar bat errikoa. Oneki jakinze egia, Obispoa gelditu ze bere horareki, ta miserablea kastigoareki egin arteo penitentzia.

2. Donzella batek egin zue kastidarearen boto, baña Aitak obligatu zue artzera matrimonioaren estadoa. Boda egunean konbita prestaturik zegolaik, eskapatu ze sekretoan sandagana. Segitu zio Aitak anitz zaldiskoeki, itzularazteko, nai bazue ezpazue. Ikusi zitue sandak, eta formatu zue guruzearren senalea lurrean, eta gerostik ia gelditu zire gizonak eta zaldiak tieso ezin mogi. Aitak ezaundurik Jangoikoaren eskua egin zue penitentzia, eta alabak guardatu zue bere propositoa. Ze sandaren konpañian bat iduri onekoa. Au deskuidatu ze bein beiratzean: andik segitu zire tentazioak. Zebila ezin kendus, ezbaie, ez erori bai erori tentazioan. Sandak Jangoikoan ikusi zue pasatzen zena arreki: Egin zue orazio, etzezan utzi eror zera tentazioan: eta berzeak Jangoikoaren inspirazio barraturik su lurrean ibili ze oiñ urtuxian arren gañean, eta ala itzali zue sua suareki. Biramonean sanda mintzatu zekio, badakit izan duzun peligroa zeure faltas, baña zeren gaur portatu zaren balienteki, ez akabatzeko erres su desonestoan, etzara erreko infernuko suan: eta bereala orazioas sendatu zitio oiñ llagatuak suas, ta desegin tentazio guziak. Ama batek ekarri zio alabatto bat amabi urtetakoa mutu, logra zezon mintzoa bere orazioeki sandak. Onek arturik eskutik neskattoa erraten zio, ea, nauzu Jesusen amores guardatu kastidate birjinala? Amak zio, zela mutu neskatto gura, ta etzezokela erresponda. Sandak, bada ez tut nik utziko, errespondatu arteo. Nauzu mantenitu birjin Jesusen amores? Mintzatu ze mutua klaro, ta erran zue, nai dut, eta inen dut manatzen didaña. Ala itzuli ze erremerdiaturik ongi.

3. Emasteki batek ekarri zitio sagar batzuk, noiz ta ellegatzen ziren leproso batzuk atarira limosna eske. Sandak erran zio, eman zezkiotela pobre gaiei. Ark edo delikadezas, edo txurrerias etziote nai eman, etziotela ekarri leprosoendako. Erreprehenditu zue sandak, ta erran zio, orren kasos arren baratzeko arbolek etzutela ekarriko ia sekulan fruiturik: eta ala izan ze. Berze bi leproso joan zekizkio, erremedio naies. Sandak bedekatu ur guti bat, ta eman ziote, batak berzea ur garreki garbi zeizela. Bereala bata garbiturik gelditu ze sano. Sandak oni erraten zio, garbi zezala berzea: baña kontent bere garbituas, etzue nai arrimatu eskuak, beldurak apega zekion lepra. Baña bereala Jangoikoaren permisios aurkitu ze beterik artas: eta berzea garbitu zue perfektoki sandak orazioas. Anitz bekatari konbertitu zitue onera. Bedratzi lagunek nai zute il bat: etzute aitu nai sandaren konseju ona. Eta joanik egitera eriotzea, opatu zute, gizona ez, baizik arren bulto-iduria: Onen kontra eutxi zire, ustes iltzen zuten persona. Sandak erran ziote agitua, ta emendatu zire. Ellegatzen ze ia garaia, joateko sanda mundugontak: abisaturik zerutik lendanik erran



zio bere lagun bati: eta egun seinalatuan despeitu zue arima ditzoso gura joateko goatzera Jesus onaren besarka eternoa glorian. Il omen ze Hibernian 518 urtean.

Otxallaren 3.an San Blas Obispo ta Martir

1. S. Blas gloriosoa, zeñi baita debozio leku ebetan, izan ze Obispo Sebasten an urruti Armenian. Jangoikoaren inspirazio bizitu ze erretiraturik Arjeo deitzen zen oian bateko kubilan, nora joaten zekizkion baseiziak ta animaleak honratzera sandua, ta errezibitzera beraren bedeizioa egunoro: eta baldin aurkitzen bazute zegola orazioan, uzten zute geldi, ta zeude etxideten bukatu arteo, ta etzire apartatzen, bedeizio eman arteo; entenda daien nola Jangoiko Jaunak honratzentuen bereak. Baña, baseiziek honratzen zutena persegitu zute gizonen. Diokleziano ta Maximiano Enperadoreen ordes ellegatu ze Sebasten Presidente deitu bat Agrikolao. Persegitzen zitue Kristioak kruelki bere Ministroen medios egines preso. Eben akabarazteko, nai izan zue ekarri zenbait baseizia, leon, artz, ta alakoak. Ortako joan zire eixtariak, ta ebek aurkitu zute saldo andi bat sanduaren kueba-azinean, nola zeuden manso geldi gaizkirik in gabe niori. Arriturik ortas sartu zire kubilan, ta aurkitu zute zar venerablea elebaturik bere orazioan. Kontu emanik Presidenteari, onek biali zitue soldadoak: Ebek erran ziote sanduari: betor gureki, deitzen du Presidenteak. Sanduak alegre arresti erran ziote, ongi etorriak zaratela, ene humeak; aspaldian nindego etxideten: orai joanen naiz gogotik ere zueki. Gaur agertu zaida irur aldiz ene Jauna, ta manatu dida ofra dezotela sakrifizio sazerdoteek ofratu bear dioguna. Orgatik goazen goazen Jangoikoaren ize-nean. Bidean bere itz sandueki, ta obratzen zituen prodijioeki konbertitzen zire fede Kristiora soldadoak.

2. Ellegaturik ziudadera sarrarazi zue

Presidenteak karzelean: eta biramonean deiturik beregana loxentxus erran zio, ongi etorri dela, Blas ene adiskidea ta Jangoiko inmortaleena. S. Blasek errespondatu zio, Jangoiko bakarrak guarda dezala berori, eta guardatzeko, ezdezkiela deitu Jangoiko direnak Demonio galtzentutenak bere adorazaleak. Gelditu ze suspenso guti bat Presidentea errespuesta goneki: gero kolera iganik, manatu zue golpa zezatela an makilukaldis: ala egin zute; sufritus konstante sanduak, arreki zegola Jangoikoa, ta etzuela beldurrik tormentues. Eraman zute gero berriz karzeler, non andre non batek eraman zion sustentu guti bat, ta errezibitu zue sanduak, konsejatus in zezala al guzia ongi beartsueri. Arara ekartzen zizkioe heri ta malder guziak, eta guziak sendatzen zitue sanduak. Aien eratean mutiko bat



zeukana trabeska ezur bat txintxurrian ezin atra ez gora ta ez bera, instantean libratu zue penarik gabe. Zenbait egunen buruan presentarazirik alzinean Presidenteak, ta ikusirik ain konstante ausart beti, paratu dilindan zur batetik, ta azotarazi zue fuerteki. Eramanara zizue gero berriz karzelerera. Joaterakoan zoezi atzetik zazpi andre debota bildus odol jariten zekiona llagetaiek. Ebek ere in zuzte presa, eta biziaren penan manaturik adoratzeko aien Jangoiko falsuak, errespondatu zute, erman zezkitela an urbil zen balsa edo butzanka batera berak, ta Jangoiko gaiek; an garbitu ondoan ofratuko zutela sakrifizio garbiago. Egin ze ala; eta emastekiek arrapatu Jangoiko gaiek ta bota zuzte butzankara. Eztaike sinesta nola sutu zen Presidentea orgatik. Inarazi zue su andi bat plomua urtus, erretzeko an zazpiak. Ebetaik at bi aur txipitto zituena bereki, zoeie lasterka sura; aurttoek klamatzen zute, etzezkiela utzi bizirik an, eraman zezkiela bereki. Arritu ze Jueza ontas, eta aiots bateki erran zue, emastekiek ere ta aurrek garaitzen gaitute. Asko tormentu emanik, sura gero botarik, guzie-taik libratu milagrosoki, azkenean buruak ebakirik il zire zazpiak martir.

3. Berriro nai izan zue tentatu S. Blas: baña etzuketelaik logra deus ere, manatu zue botatzeko butzanka edo balsa gartan. Sandua sosegu ederean zebila paseaketan oñak ur gañean: gero jarri erdian ta andik konbidatzen zitue Infielak zetozila ura zegoen lekura, ia libratuko zuzten beren Jangoikoek. Sartu zire iruogei eta zorzi, eta guziak ondatu ta ito zire istantean. Eta sanduari Aingiruak erran zio, o sazerdote Jangoikoaren onetsia, atra bedi ur gontaik, errezibitzeko korona. Atra ze, istargitzen ziola aurpegiak de manera, ezi kausatzen zioe lotsamentu infielei, ta kontentu fielei. Presidenteak konfuso manatu zue degollatzeko sandua. Sanduak orduan egin zue orazio Jangoikoai eskatus enkomendatzen ziren guzieri beraren merejimentus nai baziote egin grazia ta miserikordia. Jaun bera agertu zekio an, eta guziek aditzen zutela erran zue, aditu dut zure orazioa, ta agintzen dizut eskatu duzuna. Edatu zue orduan lepoa, ta ebaki zio berdugoak; eta bereala bi aur gaiei, Ama sanda garrek utzi zituenei enkomendaturik S. Blasi. Enkomenda gaitzen berari, atratzeko salbo. amen.

Otxallaren 5.an Santa Ageda Birjin ta Martir

1. Zelarik Dezio Enperadore, ta Kinziano Gobernari Sizilian, Fubli-katu ze an Katanan manamendu, Kristio ziren guziak arrapatzeko, ta ilarazteko. Aditu zue manamendu gau donzella batek deitzen zenak Agena, zituena laur prenda agitz estimatzen direnak munduan. Ze agitz noble jenerosa: ze agitz aberatsa: ze, agitz ederra bekala, agitz honesta. Guzien gañetik ze Kristio firmea sines, eta nai zuena ofratu Jesu Kristori bere birjinidadea ta bizia. Presentarazi zue Kinzianok bere alzinean: Ikusi zueneko, gelditu ze admiraturik ta amorosturik alako edertasuna: eta edozein gisas nai zue bereganatu arren borondatea: Ortako eramanara zizue etxe batera, non bizi baize emasteki bat deitua Afrodizia, zartua ia adinean, ta gaixtakerian, zituena bortz alaba bere gisarakoak. Aien erlean sanda zegolarik, asi zekio gaistakeriako Maestra gura predikatzen engañatu naies milla promesas, modus, eta maneras, al bazuke errendiarazi. Baña nork mogitu peña Jangoikoak firmatu duena? Sandak, despezitzeko beingoas, mintatzu zio grabe; Afrodizia, entendatzen dut orren pretensioa: alke dakiola: baña eztakiola iduritu, duela ainberze indar orren mintzaerak, eta mañak, ezi utziarazi dezadan nere Jesus ona, nere honestidadea ta honra. Eztut aditu nik orren mia nola andre honratuarena, baizik nola infernuko serpientearena. Eztadien galdu sekulakos emengoas landara, nik, Kristio bekala, bainago obligaturik onetsizera gaizkiegilleak ere, abisatzen dut ezdezala segi ofizio infame gortan, su emanen donzella onttoen biotzetan. Kalte iago ematen du, ezi laur kantonetaik ziudadegoni su itxeki balez. Naiz Kinzianok disimula dezan, bada bai, bada Jangoiko andi bat, kastigatzeko goiz edo berant. Eta Jangoikoaren errespetoz ezpada ere, bentzait ez galtzeagatik denbora ta itzak banoan, emendik alzina ez aipa niri alakorik sekulan: zeren ezi erraten diot, nagola ni ain firme fundaturik Jesus onaren, ta birjinidadearen amorean, ezi uste dut beraren graziareki, lenago iruzkiak galduko duela bere argia, suak berotasuna, ta elurrak txuritasuna, ezi nik neure proposito gau. Banazakete ilarazi, baña ez bekatu-rik inarazi: zeren Jaun guzis poderosoak guardatuko nau. Ori, Afrodizia, zarbaildu da ia: Erioa eztagoke agitz apart: Señaleak baitu buruan ta aurpegian: beira bere arimai; egin penitentzia, eska Jangoikoai miserikordia, eztadien galdu betekos.



2. Gelditu ze ura etsiturik pretensioas, ta iraturik erreprehensioas, kontatu zio Kinzianori zena zen bekala, ta etzekiokela ken Agedari amore zuen gura bere Jesu Kristori. Orduan Kinzianok ekarri sanda, ta galdetu zio bere jendakias. Errespondatu zue, Sizilia guzian da ezauna ene jendakiaren nobletasuna. Nola bada zuk, zio arrek, segitzentuzu Kristio jende txar goien kondizioak? Sandak, iago balio du kristiotasunak, naiz oiek despreziatu, ezi munduko Erregeen anditasunak: zeren ezi Jesu Kristori zerbitzatzea egiaz da erreinatzea. Beras ez gara noble gu, dio ark, ezpaitugu adoratzan guruzifikatua? Sandak, oiek adoratzan baituzte idoloak, ta aietan Demonioak, non da oien nobletasuna? Manatu zue emateko bofetada bat, etzeien izan alkegabe, ta ixil zeien. Gelditu ze sandaren aurpekia ubel gorriturik, baña ederrago Jangoikoaren begietan. Ikusirik Kinzianok, etziokela atrarazi itzik, ezpaze Kristoren honratan, sarrarazi zue karzelean, pensa zezan ongi an, zein zegokion obeki, edo ukatu Kristo edo akabatu tormentus. Sartu ze karzelean, nola paraiso batean; egon ze an eskatzen Jaunari beraren auxilioa, lobratzeko biktoria. Biramonean presentaturik berriro Kinzianok nai zio utziarazi porfia gura, ta Kristoren fedea, izateko aisa gloriosa, ta ditxosa: ezperen, miserable desditxatua. Sandak erran zio erresuelta, nik eztut nai berze ditxa ta gloriarik, baizik ene Jesus ona, zeñen amorez tormentuak zaizkida gozo. Garia ezta paratzen graneroan, alik eta eulzian lastoa berexiartaño: Espiritua ere ez zeruan, ilartaño gorputza lurrean. Egin ta desegin bez, nola nai duen; Jesu Kristok lagunduko dida, ta eztut beldurrik. Zer ai da? Zeren esperan dago? Itz ebeki erresumindurik arrek manatu zue, biurkatzeko bular bat, ta ebakitzeko zañetaik. Sandak sufritu zue geldi animosa: ta erran zio, eztu alkerik, ebakitzeas donzella bati bularra, azi zelaik bere Amaren bularretan? Itsuturik arrek etzue aditu nai, baizik sarrarazi zue karzelean berriz, manaturik ez emateko jatekorik, edatekorik, ta ez erremediorik. Baña an agertu zekio S. Pedro Mediki gisa eldu zela kuratzera. Sandak ezeikielaik oraño nor zen, erran zio, beñere etzela kuratu gizonen eskus, ta orai ere etzuela nai; ezi Jesu Kristok itz bateki zezakela kura, nai bazue. Ni naiz Kristoren Apostolua, erran zio S. Pedrok, berak biali nauena, eta ala zara sendatua beraren birtutez. Erran au, ta desaparezitu ze. Bereala berak beiraturik aurkitu zue sano guzis: eta asi ze graziak ematen, graziak ematen-tiot, ene Jesus ona, oroitzen baita nitas, biali baitu bere Apostolua, sendatzera ni. Argitu ze karzel guzia; guardiak eskapatu zire lotsaturik; presoek konsejatzan ziote atra zeila, idikirik zeudelaik atariak. Sandak, ez, ezdezala permiti Jangoikoak eskapa nadien batallatik, logratu arteo biktoria.

3. Laur egun geroago presentarazi zue Kinzianok, zeñek ikusirik ain sana eder, ta ziola, kuratu zela Jesu Kristoren graziaz, turditurik alde bat, rabioso berze alde, manatu zue barratzeko anitz tella puska sueloan, ta anitz brasa itxekirik, ta aien gañean arrastatzeko sanda. Lan goi egiterakoan arrigarri kruekiro, agitu ze terremoto andi bat ziudadean, erori zire parete zenbait, eta arrapatu zuzte pean Silbino ta Falkonio bi adiskideenak Presidentearen. Alborotatu ze jendea, ura zela Jangoikoaren kastigoa, ta laster Presidentearen etxe aldera. Altxatu ze au, manaturik itzultzeko Ageda karzelerera. An sandak egin zue orazio emanen Jaunari esker milla faboratuas, garaitzeko mundua, Demonioa, ta aragia, ta eskatus errezibi zezala beraren espiritua. Ala iltze sanda gloriosa bizitzeko glorian. Jendeak bildurik orzitzeko gorputz sandua, agertu zire an asko Aingeru zekartela marmolasko ol bat, artan eskribiturik letrero gau, *mentem sanctam, spontaneam, Deo honorem, et patriae liberationem*, adiarazteko, izan zuela arimo sandua, borondatez eman zuela Jangoikoai honra, baitare libratzeko bere sortuerria. Kinziano, luxurioso ta kruek bezain, kodizioso joan ze laster, arrap atzeagatik sandaren ondasunak: bidean zaldi batek ozka egin zio aurpegitik, berze batek ostikoka bota zue ugaldean, ezpaita agertu gorputza sekulan. Oneki aumentatu ze sandaren debozioa, eta agitu zena-reki urbilen urtean. Katanatik ez urruti dago Etna, edo Mongibel deitzen den oian bat, botatzentuen su botradak aldartes: orduan asi ze etorzen ala susko ugalde bat Katana aldera; Infielgaiek laster sandaren obiara joanik, ta arturik gañeko beloa desplegatu zute susko ugalde garren alzinean; eta istantean baratu ze; eta diote milagro gau berze asko aldiz errepetitu duela sandak an. Baita prodijio bat ikusgarria, ta Jangoiko andiarena proprioki, beiratzea nola doaien jautsis oian kaskotik bera erri alderat susko ugalde gura, plomu edo metala urtuaren gisara lodi lodia; baitoiaie erres ta erraustus opatzen duen guzia: eta atratzea prozesioan sazerdoteak eta jendeak peleara bekala sugarren kontra, ez armas, ez ures, ez berze instrumentus, baizik S. Agedaren anparoaren esperanzareki, ta arren beloareki: eta erakusteariki solamente suari, sua gelditzea bere karreran, pasatu gabe palmo bat alzina, nola ezaun balez Jangoikoaren manamendua sandaren medios. O zenbat maneras mostratzen duen Jangoiko onak begietara ere, zein gauza ona den bere Majestadeari zerbitzatzea, eta nola premiatzentuen bere zerbitzukoak; ta espezialki S. Ageda gloriosa ain ederra ta ain ederki zerbitzatu ziona zein maite duen bere Majestadeak, izateko guk ere, imitatus daiken gartan, ellegatzeko ikustera glorian.



Otxallaren 6.an Santa Dorotea Birjin ta Martir

1. S. Agedaren gisarakoa izan ze S. Dorotea zelebratzen dena urbilen egunean. Au bizi ze Kapadoziako Zesarean, donzella batean desea daizken graziak zituena, prinzipalki honestidade ta modestia humila azitzen zuena Jangoikoaren komunikazioareki orazioan. Guziek beiratzen ta estimatzen zute sanda bekala. Ellegatu ze proguaren denbora, ellegaturik arara Enperadorearen ordes Presidente bat Aprizio deitzen zena. Onek aiturik zuen fama, deitu zue bere tribunalera. Presentatu ze modesta humil begiak apal, baña serena ta animosa. Galdegin bere izenas, ta erran zio nola deitu zuen, adiarazteko Enperadoreen manamendua, adora zezkien aien Jangoikoak. Errespondatu zue Doroteak, zeruko Enperadoreak Jangoiko bakar egiasakoak manatu digu adoratzeko sollik bere Majestadea: Zeñi bear diogu obeditu, zeruko Enperadoreai, edo lurrekoai? Jangoikoak, edo gizonai? Presidenteak orduan, ea utzi platika alfer goiek, ta presta zaite adoratzera guk adoratzentugunak, ezperen, kario kostako zaizu, eta paratuko zaitut guzien eskarmentutako. Sandak emen, ni izanen naiz exenplu ez beldurrik izateko gizona, baizik Jangoikoai sollik, zeren oiek emamentuten penak akabatuko dire, Jangoikoak emanentuenak infernuan eztire akabatzen. Asarraturik Aprizioak manatu zue paratzeko tormentuen potroan. Paraturik artan ain serena seguro zego sanda erraten ziola, zertan detenitzen da? Zenbatenas iago prisa eman dezan akabarazteko ni, lasterrago joanen naiz ikustera ene Esposo dibinoa bere paraisoan, non baitire sagar ederrak denbora guzietan, azuzenak, arrosak, ta lore-mota miragarriak, beñere eztirenak deslustratzen, eta infinizio bat erregalo, gusto, ta preziosidade arima sanduendako. Arara naiz konbidatua, eta nago berantetsirik joan naiak: Eman bez prisa, auxteko gorputzaren lakio gau.

2. Presidenteak erran zio, obe zinduke utzi erakeria goiek, ta adortu gure Jangoikoak, eta artu senar, pasatzeko bizi ona. Sandak errespondatzen dio ausart, nik eztut adoratuko oien Jangoikoak, baitire Demonioak, zeren bainaiz Kristio; eztaere artuko senarrik, zeren bainaiz birjin konsagrata Jesu Kristori, zein baita nere Esposo dibinoa. Gogoratu zekio Juezari bialtzea sanda bi aizpa bazuengana, deituak Krista ta Kalista, izanik len Kristio, ukatu baizute fedea tormentuen beldurrez, agian ebek beraxtuko zutela sanda; pagu ona ofreziturik, logratzen bazute. Aiek eginala egin zute: baña sandak irabazi zue biktoria, zeren ezi aiei ezaunara ziote in zuten utsa ukatzean fedea, bizi labur emengoaren amorez gal-

dus bizitza sekulakoa. Mogitu zitue egitera penitentzia, eskatzera, ta esperatzera barkamendua, eta ematera Jangoikoai satisfakzio. Joan zire Presidenteagana; erran ziote, ezin erreduzitu zutela Dorotea ukatzera fedea, ta berak zeudela urrikiturik ukatuas, eta prest ematera biziak Jesu Kristogatik. Bereala Juezak manatu zue lotzeko biak, ta loturik botatzeko sura. Aiek boza goratus erran zute, o gure Jaun ona Jesu Kristo, admiti bez gure penitentzia, ta barka bezagu. Presente zego Dorotea, eta sura botatzekoan erran ziote, Zoazte, ene aizpa maiteak, zoazte ene alzinean zerura, seguraturik barkatu diziela Jangoikoak, ta errezibituko zaiztela besoak zabaldurik bere glorian. Aiek il zire Martir, ta sanda gelditu ze kontent irabazias bi arima.

3. Manatu zue Juezak paratzeko berrito tormentuaren potroan, non deskoiuntatzerakoan mienbroak ta ezurrak, mostratzen ze alegre sanda. Juezak arriturik galdegin zio, Zer alegria gisa da saltzen diguzun on itxuras? Sandak, beñere ene bizian ez naiz egon ain kontent, nola bainago orai, alde bat kenduas orri ta Demonioari bi arima gaiek, ta irabazias Jangoikoarendako, zeintas ia baitaude gozatzen; berze alde duten esperanza onas gozatzeko nik ere Jaun ona aieki. Ortik eman bez prisa: egin bez bere ofizioa. Eturik arrek manatu zue paratzeko saietsetan zuzi itxekiak, erretzeko entrañaetaraño. Egin ze on ere; baña sanda, zenbatenas iago tormentatzen zuten, alegreago mostratzen ze, desafiatus bekala, ta burla egines tormentues ta tormentazalees. Kenarazirik andik emanarazi zio anitz bofetada aurpegian Juezak alketurik arren mintzatzeas ain ausart libre. Azkenean ia etsiturik eman zue sententzia, ebakitzeko burua. Zeramatelarik ia ortako, badean Abogatu batek deitzen zenak Teofilo, ta su ematen zuenak Juezari Kristioen kontra, oi u egin zio pasatzean burla egines, ea donzela, biali bezada bere Esposoaren jardinetarik zenbait arrosa ta sagar laudatutiginak ainberze. Ongi da, erran zue sandak, bialikotiot. Berzea gelditu ze irris kontatzen lagunei nola egon zen sanda ponderatzen jardin eta lore gaiek. Belauriko ia sanda zegolarik esperatzen ezpataren golpea, agertu zekio an aur iduri bat, zekarrana saskitto bat irur sagar, ta irur arrosa miragarrieki, izanik otxallaren seigarrena. Sandak manatu zio eramateko Teofilori: ellegatu zekio aurto gura presentareki, ura zego laik burlatzen pasatuas. Ikusi zuelarik alako gauza, trukatu zekio biotza guzis: asi ze klamatzen Jesu Kristo Jangoiko egiasakoa: eta koraje admirableareki sufritu zue martirio errua ta glorioso. Nork entenda Jangoikoaren lan miragarriak? Sandari burua ebakirik, bolatu ze arima eder gura gozatzera bere Esposo dibinoaren besarka ongi merejitu zuena gloria eterno gartan.



Otxallaren 9.an Santa Apolonia Birjin ta Martir

1. S. Apolonia Alexandriakoa bizitu ze bizi luzean beti birjin, exenplu on emanen. Ze an sorgin gaixtofikatu bat Kristioen etsai kruela, bere Maestru Deabrua zen gisara. Arrek inzitutzen zue jendea, defenda zezaten beren antiguasko errelijione falsua, adoratus Jangoiko falsuak, baizire Deabru egiaskoak, persegitus botatu arteo mundutik Kristioak, zekartek errelijione berri bat, predikatus Jangoiko gizon bat guruzifikatua. Bere itz eta arte gaixtoeki irritarazi zue jendea alako maneran, ezi sartzen zire Kristioen etxeetan errobotus, erres, galdus aien gauzak, tormentatus ta akabarazis personak asko maneras. Bat ebetaik izan ze S. Apolonia, persona beneragarria, ta estimatua on guzien ganik. Nai zioze ukarazi Kristoren fedea, ta adorarazi aien Jangoiko gezurrekoak: Baña manteniturik au firme ta konstante Kristiotasunean, eman zioze asko golpe, autxi mate-lak, eta atra ortzak eta aginak furioso: eta meatxatzen zioze fuerteki erreko zutela bizirik, ezpazue errenegatzen Jesu Kristo. Ortako in zute su andi bat, ta zeukate sanda alzinean. Egon ze guti bat pensatzen ta enkomendatzen Jangoikoai, eta beraren espirituas inspiraturik, (ori gabe ezpailitzake zillegi) aien eskuetaik eskapaturik bota ze bera sura, non konsumiturik gorputza, egatu ze arima gora, errezibitzera zeruan birjinidadearen ta martirioaren koronak. Agitu ze ori berreun ta berrogeitamabigarren 58 urtean. Zelebratzen dute Kristioek Abogada bekala ortz ta aginetako minen, agian zeren ebetan pasarazi zioten tormentu ta oñaze errua. Dударик ezta dezakela logra eben erremedio Jangoikoaganik, zeñen gozatzzen baitago glorian.

Egun gortan berean San Nizeforo Martir

Antiokian zire bi Kristio agitz elkarren adiskide, bata sazerdote Saprizio deitua, berzea Nizeforo. Deabruaren artes agitu ze diskordia bat bien eratean, zeñen kasos ain etsai in zire elkarren, ezi ez mintza, ta ez ikusi ere nai etzire elkar asko denboras. Noiz ere bait ukiturik biotza Jangoikoak, Nizeforo itzuli ze bere baitan kentzeko odio gura kondenatzen zuena. Biali zitio Sapriziori mandatariak baketu naiez Jangoikoaren amarez. Saprizio, sazerdote bekala, egon bear zuenak alzinaturik baketzera, despeitu zue ordu gaixtoan. Berzeak berriz ta berriz biali zitue bitartekoak: ezin beraxtu zute biotz txar gogor gura. Bera azkenean arren etxera Joanik urteki zekio oñetan, barka zezola pasatu guzia. Baña sazerdote indignoa mantenitu ze bere seta gaixtoan, etziola barkatuko sekulan. Zer agitu ze? Ellegaturik bitarteko Antiokiara Presidente bat Kristioen persegitzera, preso inarazi zue Saprizio Kristio ta sazerdote bekala: pasarazi zio anitz tormentu fedeagatik: ta azkenean sentenziatu zue edekitzeko bizia. Zeramataleik ia ortako, ustez ura zen eskaidarik obena baketzeko, atra zekio bidera Nizeforo, ta oiuz erraten zio guzien alzinean, o Kristoren Martir zori onekoa, Kristoren amarez barka bezada. Ark itzik ere ez, ezeta beiratze bat ere. Berzeak errepeti bere petizioa: ark segi bere tenia. Irri iten zute berdugoek Nizeforos, ta barkazio eskatzeas ain gogotik gizon bati sarri il bear zenari; ia zer zekion artas? Ellegaturik iltzeko lekura, an berdugoen eratean bota zekio oñetara Nizeforo, bada Kristogatik ematen zuela bizia, beragatik eman zezola barkazioa il baño len. Baña o gizonen pasioneak, orduan ere tieso egon ze bere seta gaixtoan! Baña o Jangoikoaren juizioak! eta nola guzia den galdua, ezparin bada karidade biotzean! Ia dagolaik berdugoa deskargatzeko azken golpea, beiraturik arrek dio, zergatik nai didazie kendu bizia? Aiek, zergatik ezpaitu nai obeditu Enperadorei, ta ukatu Kristoren fedea. Orduan miserableak dio, bada ia nago prest obeditzera. Nizeforok presente lastimaturik erraten dio, Jauna, ezdezala gal korona ainberze tormentueki irabazi duena. Manteni bedi firme gutitto bat oraño: bereala bukatuko da trabajua. Etze izan protxurik: gelditu ze bere perdizioan, ukatus Kristo Nizeforo konfesatu zuena orduraño. Nizeforo errerik alako galmendeas eta Kristoren amarez goratu ze, bada ni Kristio naiz, ta konfesatzen dut Kristo ene Jangoiko ona, onek ukatu duena; onen partez ona ni il nazazen. Abisaturik Presidenteak



libre utzi zue Saprizio, ta onen partez ilarazi zue Nizeforo. Eta ala truka-tu zire suerteak, iganes Nizeforo martir triunfante zerura, eta Saprizio jautsis infernura, emengo penak pasaturik alfer, penatzera an eternidade guzian. Nor ezta lotsatzen gizonaren kondizioas, nola den uzten bada jabetzera pasioneas, ta uzten badu bere eskutik Jangoikoak? O guarda gai-zala berak &.

Otxallaren 10.an S. Gillermo Akitaniakoa p. 281.

Otxallaren 12.an **Santa Eulalia Barzelonakoa** **Birjin ta Martir**

1. Bi Eulalia Birjin ta Martir gloriosa Españolak zelebrazten dire, bata Meridan jaioa, berzea Barzelonan. Au da egungoa. Bizi ze erretiraturik bere buratso nobleen heredaje batean Barzelonara urbil, amalaur urtetako adinean ederra bezain garbia ta honesta, konsagratu-rik Jesu Kristori kastidatearen botos, ellegatu zelaik Barzelonara Daziano egitera Kristioen arakintza kruela berzeetan bekala. Adu zue Eulaliak pasatzen zena, eta alde bat triste, berze alde zego alegre: Triste, zeren beldur zen asko Kristio tormentuen kasos errendi zeizen: alegre, zeren antsiatzen zuen iltzea Martir, ta uste zuen orduan zela eskaida ona. Ain berri ta andia senti zue biotz barnean alegria, ezi etzezake altxa, ta ez disimula; eta goart eman ziote buratsoek, naiz ez jakin motiboa: eta nork pensa, zela il naia? Antsia goneki zebila okasio billa: eta gau batez eskapatu-rik buratsoen konpañiatik joan ze Barzelonara: presentatu ze Presidentearen ta guzien alzinean tiesa garbosa: eta boza goraturik erran zio koraje ta majestade andiareki, o Daziano, nola du atrebenzia, ixurtzeko ala malamente Kristioen odola, ta obligarazteko oien Jangoiko falsuak? Bat sollik da Jangoiko egiaskoa, guzis poderosoa, guzien Kriadore, Jaun, ta Jabea, zein ere bear baitute beneratu Enperadoreek, ta berorrek, eta gizon guzi guziek; Nola bada berori delarik gizon, ezta beldur ofenditzeas Jangoiko bakar poderosoa? Edo zergatik prezisatzentu Kristioak adoratzera Demonioen idolo goiek gizonen eskus eginak? Turditurik Dazianok erraten dio, nor zara zu, atrebitu zarena alako itzak emen publikoki Enperadoreen ta beren Ministroen erreberenziaren kontra? Sandak, Ni naiz Eulalia, eskla-ba Jesu Kristorena, zein baita Jangoiko Aitaren, ta Ama Birjinaren seme dibinoa, Jaun guzien Jauna, zeñi zor zaion erreberenzia, ta adorazio dibinoa, ez ordea oien idolo goiei.

2. Suturik Presidenteak bereala manatu zue azotatzeko donzella sanda: baña zenbatenas iago zatikatzen zuten, iago korajereki defendatzen zue Kristoren fedea. Baña iago furotzen ze Presidente; eta ala erresolbitu zue bear zela kastigatu Eulalia Kristioa tormentu-genero guzieki: eta nork konta eman zitioten guziak? Ezi lenik tormentuko potroan paratu, ta zatikatu zute: gero larranzi burriñasko aztaparres: gero erre saietsak



eta bularrak zuzi taugarreki: gero bota ziote olio irakiñ burutik bera: gero kalzina bizian sartu, ta ibili zute iraulka: eta gañetik ixuri plomu urturik: gero sudurretaik mostaza ta hozpiñ nasteka, eta begiak erre kandela itxekies. Zenbat eztuen diskurritzen gizon Deabruaren furiak amalaur urtetako donzellatto baten kontra, solamente zergatik den Kristioa! Baña Jangoikoa dagokio asistitzen fabore. Zer in dezake munduak ta infernuak Jangoikoaren kontra? Pelean Daziano ta Deabrua alde batetik: Eulalia ta Kristo berze aldetik: noren izan bear da biktoria? Nekatu ze Daziano: akaitu zire berdugoak: atertu zire tormentuak: Deabrua gelditu ze konfuso: eta sanda bizi ta bizkor alegre gloriosa burlatzen aien furia guzies: eta Jesu Kristo triunfatzen bere esklabattoaren medios.

3. Ote du iago itekorik Dazianok? Deshonre, alkaizun, ta infamia gogoratzen zaio: manatzen du eramateko sanda biluxirik karririk barna, ia ala ote dezaken triunfa. Baña ez alaere: zeren ezi Jangoiko onak estali zue sanda elurresko manto txuri eder bateki. Errabiatzen zego Daziano, etzukela niolaterre garaitu sandaren konstanzia. Guruzifikarazi zue azkenrat: baña guruzean Eulalia dago kantatzen biktoria, laudatzen Jangoikoa, eta blasfematzen aien Jangoiko banoak. Azkenean ia etsiturik arras manatu zue ebakitzeko burua. Egin ze ala, ta ikusi ze beraren arima usotto baten idurian egatzen zerura, non dagon gozatzen Jangoikoa betikos. Gorputz sandua beneratzen da Barzelonan aurkiturik milagros asko urteren buruan, adiarazis Jangoikoak nai duela honra dezaten lurrean ere perla garren kontxa &.

Otxallaren 13.an S. Martiniano. p. 284.

Otxallaren 16.an Santa Juliana Nikomediakoa Birjin ta Martir

1. Nikomedian ze Jaundi bat deitua Eleusio, Konsejukoa, ta Enperadoreen adiskide, ta Infel errelijionez. Ze alaber berze bat gisa berekoa, zenen alabareki nai zuen ezkondu. Aisa ta fite ajustatu zute biek ozkontza: baña alaba deitzen zena Juliana, ze Kristio fiña, ta etzego arrendako. Zoeie luzatus denbora atxekia oneki: eta exkusatu naies gastigatu zio, logra zezala lenik Prefektoaren dignidadea. Arrek ezkontzeko antsiareki, asko diru ta dilijenzia kostarik, gero ere logratu zue Prefekto izatea; eta gastigatu zio, bazeikela ezkondu Prefektoareki, baize Prefekto ia. Sanda aurkitu ze atajaturik ia berze atxekiarik gabe, ezpaze errelijionea. Eta ala gastigatu zio bera zela Kristioa, ta etzekela ezkondu arreki, ezpaze kristiatzen. Turbatu ze ura errespuesta goneki; adiarazi zio sandaren Aitari, baize ura bezain Infel ta kontrario Kristioen. Aitak lenik itzes eta kastigoes, ones eta gaitzes prokuratu zue errendiaraztea alaba: au beti firme, Kristioa zela Jangoikoaren graziaz, ta etzela ezkonduko Kristio etzenareki. Aitak etsiturik etziola inaraziko, entregatu zue Eleusioaren eskura, kastiga zezan nola nai zuen.

2. Eleusiok Prefekto bekala ekarrarazi zue bere justiziako salara, eta naiz zegon suturik koleras, ikusi zueneko ain ederra ta agraziatua, detenitu ze, ta asi ze amoltsuki exortatzen ar zezala senartako: utziko zuela guardatzera bere errelijionea: bera ere kristiatuko litzakela, ezpaliz beldur Enperadoreen, ta bizia ken zezoten. Eta ala in zezala erraten ziona adiskide bekala: ezperen, akabaraziko zuela tormentus. Guziau ta iago etze aski izan, beraxteko sandaren biotza, baizego ia Jangoikoas prebeniturik: eta ala errespondatu zio, bazezakela tormentarazi ta ilarazi, baña ez aldarazi. Ia oneki Prefektoak garaiturik iraren suas azotarazi zue kruelkiro erraten ziola, au etzela baizik prinsipio pasatu bear zituen tormentuen. Sandak zio, esperanza dut Jangoikoan, emanen didala grazia sufritzeko iago ta iago. Manatu zue Prefektoak paratzeko dilindan biloetaik; ta ala idukitzeko anitz denboras, de manera ezi begiak ilundu, ta betazalak igan zekizkio kopetan gora: gero errearazi zitio saietsak plantxa goritueki, ta azpiak traspasatu ezpatas, edo burriña gori batez: ta ala eraman karzelera. Emen sanda itzulirik Jangoikoagana zegokio eskatzen fabore. Agertu



zekio Jangoikoaren permisios Deabrua Aingiru eder baten idurian erran ziona, prestatzen zeudela arrendako tormentu andiagokoak ere, baña Jangoikoak etzuela nai pasa zezkien, baizik in zezan Prefektoaren borondatea. Nor zara zu? galdetu zio sandak. Arrek, zela Jangoikoaren Aingirua, berak bialia, libratzeko tormentuetaik. Sandak ezaundurik konsejua gura etzela ona, eskatu zue Jangoikoak eman zezon argi ezauntzeko beraren borondatea. Bereala aditu zue boza bat zerutik ziola, konfia, Juliana, ezi ni naiz zureki: arzazu si mintzatzen dizun goi; nik esku ematen dizut; eta jakinen duzu nor den. Bereala sanda aurkitu ze libre, ta sana. Jaikirik ikusi zue loturik Deabrua, ta galdegin zio nor zen, ta zertara etorri zen. Ark errenditurik Jangoikoaren birtutez errespondatu zio, zela Deabrua engañatu zituena len asko gizon, ta etorri zela arren engañatu naies. Sandak lotu zue berriro, ta golpatu zue an, lamentatzen zela ura iten zion tratamentuas.

3. Manatu zue Prefektoak, bizi barin baze orañio Juliana, ekar zezotela. Etorri ze katea bateki zekarrala Deabrua loturik, eta bera guzis sendaturik. Arritu ze ontas jueza, eta Jangoikoaren milagroa uste zue zela sorginderia. Manatu zue paratzeko labe bat sugarretan, botatzeko an sanda, zeñek orazio egin zue Jesus onari negarrez: eta bereala itzali ze sua: eta jendea asi ze klamatzen, eztela berze Jangoikorik, baizik Julianak adoratzen duena. Eta konbertitu zire federa iago ezi Sel eun gizonki eta emasteki, zein guziak ilarazi zitue bereala an. Sarrarazi zue sanda bertz andi zegon batean irakiten: baña an etzue penarik, bai erregalo. Azkenean eman zue sentenzia ebakitzeko burua. Zeramatelaiak ortako, zoeie atzetik Deabrua preso inzitatzen berdugoak il zezaten len baño len, libratzeagatik bera. Sandak egin zio beiratze bat serio asarre, zeñeki ura asi ze ikaritzen dal dal dal: ikusi daien Jesu Kristoren birtutea, zeñen kasos ala lotsarritzen duen donzellatto batek Espiritu andi nai suberbo gura, zein desapareziturik, sandak alegre orazio eginik Jangoikoai, ta ofraturik bere arima, inklinatu zue burua, ta ebaki ziote. Arima errezibitu zute zeruan, ta orputza honratu lurrean egin zekion tenplo batean. Eleusio gaixtofikatua kastigatu zue Jangoikoak ez solamente infernuan, baita munduan ere, ezi nabegatus itsasoan autxirik itsasonzia, ondaturik guziak, ura bota zue urak leku eremu batera, non zatikatu ta jan zuten basezieiek. Pasatu zue martirioa S. Julianak adinaren emezorzi urtetan, Kristoren berreun ta laurogei ta amarretan &.

Otxallaren 19.an San Konrado Plasenciakoa

1. Ikusteko ta admiratzeko gauza da, zenbat maneras Jangoiko onak atratzentuen sanduak: eta gaitzetaik onak, desfortunetaik fortunak. S. Konrado ze kaballero bat Italiako Plasencian jaioa, ta an bizi zena ezkonduarik estimazio ta kredita onean. Ze agitz afizionatua eiziara, ortan dibertitzen ze segitus arrapatu naies ez egasteak solamente, baita baseziak ere. Aldi batez altxatu zekizkio anitz oiianeko sasidi andi batean: nai atrarazi lekugartaik, non ezin zeiken pasa: ta zer egin zue? Su eman zio sasiari: baña goraturik sugarrak aize andi bateki edatu zire arrigarri, ta egin zute norktiki zenbat dañu oianean. Ikusirik etzeikela erremedia, eskapatu ta itzuli ze bere etxera niork jakin gabe. Justiziak bere dilijenziak eginik ikasteko nor zen itxeki zuena sua, ta ezin ikasis, arrapatu zute gizon pobre bat an urbil sospetxaz: ta tormentarazirik konfesatzeko egula, gizagaizoak ezin sufritus, naiago zuela il, erran zue gezurrez, bera zela itxeki zuena sua: eta orgatik bazemate kentzera bizia. S. Konrado, ikusirik ori, ta Jangoikoak biotza ukiturik agertu ze, ta publikoki deklaratu zue, berak sollik zuela kulpa, bateraz gizon pobre garrek: an zeudela bere etxe, hazienda, ta ondasun guziak, pagatzeko dañuak, naiz bera gelditu deus gabe. Ala egin ze: guzia saldurik, pagatu zire dañu guziak; eta bera gelditu ze uts.

2. Okasio goneki asi ze pensatzen munduko banidadea, ta emanik Jangoikoak graziak libratuas enbarazuetaik, andrea sartu ze konbentu batean, eta bera joan ze peregrino urruti ibilis santuarios santuario pobre gisa. Sizilian paratu ze hospitalean zerbitzatzen humil heriei. Gero erretiratu ze eremu batean, enpleatzeko Jangoikoareki sollik orazioan ta penitentzian. Iraundu zue ala berrogei urtes, etzines lurrean lo egiteko; janes ogi guti bat sollik, bialtzen ziotelaik limosnas; gañarakoan kanpoko belarrrak. Jangoikoa asi ze ia ezaunarazten bere sierbo gau milagroeki ere. Ortzilare oro joaten ze bisitatzera Kristo gurzifikatuaren imajina bat Netinan: Etzue beñere txastatzen aragigenderik; eta gizon gaixto batzuek konbidatu zute jatera arrai zerbait, baña paratu ziote aragi. Gero asi zire eskarnio egiten, engañatzen zuela mundua iduriarazis etzuela txastatzen aragirik, baña jan zuela gustoreki. Baña sanduak zio solamente jan zuela arraigende, ta progutako ikusiarazi ziote arraien ezurtoak platerean, gelditurik aiek arriturik milagroas. Bisitatzen zute asko jendeek bere etxolan, eta bein Zaragoza Siziliako Obispoak, zeñi atra zitio laur opiltto bero



beroa zeudenak bialiak Jangoikoaganik milagros. Joan ze sandua itzultze-
ra bisita Obispoari, eta ellegatzean inguratu zute infinizio bat egasteek
festejaten zutela bozkariundes bekala, mostratus zein sandu zen, ta Jan-
goikoaren biotzekoa. Segitu zue obratzen milagroak: eta milla irur eun ta
berrogeita amekagarren urtean eraman zue Jangoikoak bere gloriara.

Otxallaren 23.an **Santa Marta Astorgakoa** **Birjin ta Martir**

S. Marta Española jaio ze Astorgan Leongo erreinuan. Dezio Enpe-
radorearen denboran egin zue presa Prokonsul angoak deitzen zenak
Paterno. Eta milla modu amoltsus eta meatxus nai zue errendiarazi ado-
ratzera aien Jangoikoak. Sanda egon ze firme, etzuela adoratuko, baizik
Jangoiko bakar egiaskoa. Orgatik paratu tormentuko potroan, ta heritu, ta
golpatu zue kruelki manera lastimagarrian: gero sartu karzelean, non
kuratu zen Jangoikoaren milagros. Zenbait egunen buruan ekarrarazirik
bere alzinera Paternok, erran zio amoltsuki, badakusazu zenbat zor dio-
zuten gure Jangoikoeri, bada lastimaturik zutas sendatu zaitute miragarri-
ro: eta uste dut juizioa ere sendatu dizutela. Nik nai zaitut artu nere etxe-
ra ene semearen esposatako, ta duten guziaren etxokandre ta Jabe; izanen
duzu nauzun guzia, ta bizitza bat ditxosoa. Errespondatu zio serena ta
grave: Nik eztiotet zor deus orren Jangoikoeri, baitire Demonioak, baizik
ene Jaun Jesu Kristori, zein baita Jangoiko ta gizon egiaskoa, ene arima-
ren amore ta esposo dibinoa sendatu nauena graziaz: Orren semea izanen
da berze baten, Jangoiko falsuak adoratzentuenaren, ezi nik eztut adora-
tuko, baizik Jangoiko bakar egiaskoa. Beira ongi, zio Paternok, zertara
erresolbitzen zaren. Sandak, beiraturik daukat; erresolbiturik nago: erra-
na erran. Orduan Paternok furoso etsiturik etzuela atrako protxurik,
eman zue sententzia ebakitzeko burua, eta gero botatzeko arren gorputza
leku zikin indezente batean. Egin ze guzia, manatu bekala. Gero Matro-
na noble batek atrarik gorputz sandua leku gartaik orzi zue honratuki.
Agitu ze sanda gonon martirioa berreun ta berrogei ta amirugarren
urtean: exenplu anditako, despreziatus ez solamente eriotzea ta tormen-
tuak, baitare karizia amorosoak, akomodu ta ondasun andiak Jesus ona-
ren amorez, zein baita on guzia, grazia, ta gloria.



Otxallaren 24.an San Matias Apostolua

Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaokoak, guzien salbazaleak erakusteko guzieri Jangoikoaren bidea zerurako, berexi zitue amabi gizon pobre, deituak Apostolu, nai baitu erran, bialia, edo bialdua mundu guzia barna erakustera Kristoren doktrina. Ebetaik bat deitua judas Iskariote galdu ze, eginik traidore, ta kidari, egiteko preso Jaun dibinoa, eskarmenta daien mundu guzia, ta ez fia deustas, baizik Jangoikoaren grazias. Ilik Jesu Kristo, ta berriro bizturik iganas geros zeruetara, S. Pedrok Apostoluen Prinzipe bekala bildurik gañarakoak, ta Kristio lenbiziko gaiak, erran ziote nola judas galdu zen urkaturik bere burua, ta lerturik, ta entraña guziak ixuririk, eraman zuten Demonioek bere lekura: zela bada preziso autatzea berze bat arren partez izan zeiena testigo Kristo Jesus Jaunaren erresurrekzioaren ta gañarako egietafedeen Apostolueki bateo. Paratu zuzte alzinean bida, Josef Justo deitua, eta Matias. Eta orazioan paraturik guziek eskatzen zute Jangoikoai, guzien biotzak ikustentuen bekala, mostratzezan, bi gaietaik zein nai zuen egin zeien Apostolu. Gero botarik sortekak bien gain, atra ze sortez S. Matias, eta kontatu ze ameka Apostolueki amabigarren. Errebestiturik Espiritu Sanduas predikatu zue Kristoren ebanjelioa Judean pasatus Etiopiarano, diotenez, obratus prodijioak ta milagroak, konbertitus arimak, padezitus trabaju ta peligro andiak. Azkenik arrikaturik ebaki ziote burua Jesu Kristoren fede ta amoreagatik Kristoren irurogeigarren urtean guti gorabera. Gorputz sandua gero eraman omen ze Romara, non mostratzen den &.

Otxallaren 27.an San Leandro Sevillako Arzobispoa

1. Españan Godoek dominatu zuten denboran izan ze Kartajenatik familia agitz noble bat fede katolikoaren kolumna bekala hereje arrianoen eratean: Prinzipalena ze S. Leandro Sevillako Arzobispoa: onen anaia, ta ondorengoa dignidade gartan ze S. Isidoro Doktore famatua: berze bat S. Fuljenzio Eziako Obispoa: eben arreba S. Florentina Errelijiosa sandaen hispillua; eta diotenez zenbaitek, izan ze berze arreba Teodora Erregina Leobijildo Erregeren Andrea, ta S. Hermenejildo Martiraren Ama. Errege Aita ze Hereje, ta herejeen faborazale, ta Katolikoan kontrario. S. Leandrok defendatzen zue errelijione katolikoa, ta onen konsejus S. Hermenejildo Prinzipe gloriosoak. Orgatik Aitaren ta Semearen eratean ze oposizio, ta erreinu guzian ere bai, segitus katolikoek Prinzipe sandua, ta herejeek Aita herejea. Katolikoek naiz anitz izanik ta kausa ohea, etzute bear adiña indar. Orgatik S. Leandro joan ze Konstantinoplara eskatzera Tiberio Enperadoreari auxilio herejeen kontra. An aurkitu zue S. Gregorio andia, gero Aita Sandu Romakoa egin zena, zeñeki artu zue amistanza ain sendoa, ezi biak beti izan zire arima bat bekala. Baña Enperadoreaganik ezipidezue logratu auxilio bear adiña; ta orgatik, ta bereek utziagatik Prinzipe Sandua preso arrapatu zue Aitak, eta zeren nai etzuen komekatu bazkoan obispo Hereje baten eskutik, ilarazi zue karzelean Aitak, ta egin zue Martir. Eta ez on solamente, baita ere desterratu zitue obispo katolikoak, aien eratean S. Leandro ta S. Fuljenzio. Desterruan animoso defendatu zue plumareki errelijione katolikoa, eskribitus ederki egietafedearen fabore. Bitarteo asi ze Jangoikoa ematen ekaitz andi gura, agian S. Hermenejildo Martiraren odolaren klamoreagatik, zeren ezi bere Aita asi ze ezauntzen bere gaizki egina ilarazteas bere seme ta herederoa. Mogitu zute ortako zenbait milagro agitu zirenak sanduaren merejimentus; baitare eman zion heritasun batek: artan ia etsiturik bizias, bere egin zuen testamentuan manatu omen zue itzultzea erreinura obispo desterratuak, eta S. Leandrok kuida zezala bere seme Rekaredos, oneki in zezan in zuena bere anaia sanduareki.

2. Rekaredok sartu zeneko Errege artu zue bere arimaren Aita bekalala S. Leandro, ta ain gogotik artu zue defendatzea errelijione katolikoa, ezi logratu zue ikustea erreinua ere katoliko ta desterraturik herejia. Bilazaririk obispoen Konzilio irugarrena Toledon, S. Leandro zelarik prinzipale-



na, Erregeren ta Jaundien konsentimentu admirableareki proklamatu ze erreligione katolikoaren egietafedea, zein abrazatu zuten Godoek gogotik; eta sanduak orazio elegante batean eman zitue an graziak ta laudarioak Jangoikoai: eta beraren trabaju ta fruitu onengatik deitu zute Godoen Apostolu, ta S. Gregorio andiak eman zitio zori onak alegranzia andiareki orgatik. Ala Jangoiko onak kuidatzen du bere Elizas, eta naiz permititu trabaju zenbait aldarte purgatzeko, ezta permititu, ta ez permitituko beñere akaba daien, infernu guziak nai badu ere, baizik ekaitzaren atzetik bialtzen du eguraldia, eta purgatu ondoan betetzen du glorias. S. Leandro zelarik ia laurogei ta iago urtetako, berrogei urte izanik Arzobispo il ze alegre ta glorioso sei eun ta irugarren urtean, Martxoaren amirugarrenean &.

Martxoaren 1.an Aingeru Guardiako

Zelebratzen da Iruñeko obispado gontan Aingeru guardiakoaren festa Martxoaren lenbizikoan, ta Lastallaren bigarrenetan Eliza guzian: ta preziso da entendaraztea zer sinesten den ontan. Aingeruak dire Espiritu ditxosoak Jangoikoaren eskus kriatuak laudatzeko bere Majestadea, baitare guardatzeko gizagendea. Dire gu baño kriatura gora goragokoak, eta ala nola an gorako palazio ta korte errealeko Prinzipe ta guardia errealak: Guziareki guzien Jaun bedekatuak, miserikordiaen Aitak, eta konsolazio guziaren Jangoikoak bere karidade geiegiagatik, zeñeki onetsi gaituen gu gizonok, biali zuenak bere seme bakarra, berareki Jangoiko bat dena, egin zeien, ez Aingeru, bai gizon, erremedius ala, ta erregalatus, ta honratus gizagendea kriatura guzien gañetik, nai izan zue alaber biali bere Aingiruak, guardatzeko ta kuidatzeko bere gizonak; orreki, tugun bekala kontrario Aingeru gaixtoak, zein baitire Demonioak eta Deabruak, izan gindezkien guardiatako Aingeru onak. Gauza admiragarria da konsolagarri jakitea zierto, an gora Jangoikoa gozatzen dauden Prinzipe gaietaik bat dagola emen beiti guardatzen ta kuidatzen ni bekalako pobretto bat, ezi da zierto, aurra jaiotzen den istantetik bereala destinatzen diola Jangoikoak bere Aingeru guardiako, naiz ez ikusi begis. Errege andiek azitzeko, ta kuidatzeko beren seme lenbizikoa Prinzipe Jauna, billatzen dute persona bat alikako obena, deitzen dena Aio edo kuidazale, baña eztena Prinzipearren diña dignidadean: baña emen pobretto bati ematen dio Aio ta kuidazale Prinzipe andi eder bat, gu baño iago ta iago dena dignidades. O Jangoikoaren ona! Egietafede gau ageri da itzes ta exenplus Eskritura sagratuaren asko lekutan. Jesu Kristok berak erran zue, (Math. 18.) paraturik aurto bat alzinean, *Beira, ez dezazien desprezia txipitto ebetaik bat, ezi erraten diziet, ezi eben Aingiruak daudela beti ikusten zeruan ene Aita zerukoaren aurpegia*. Eta Satanasek berak, tenta zuelaik bere Majestadea desertuan, alegatu zio dagola eskribiturik, ezi bere *Aingiruei manatu diotela zutas, ta eskuetan artuko zaitutela, ez dezazun tropeza arriren batean*. Laurogeitamargarren psalmoan eskribitu zue Profeta errealak au, *bere Aingiruei manatu diotela guarda zaizaten zu zeure bide guzietan* &. Onen gain ederki S. Bernardok, konsideratzeko da, dio, ta idukitzeko memorian manamendu ain andi gau, ain egiaz karidadesko amore anditakoa. Nork, nork, noren gain, ta zer manatu dioten. Majestade goren gorenak manatu diote bere Aingiruei,



ain gora ta beragana urbil daudenei, ta propioiki bere etxekoei zure gain. Zu nor zara? Zer da gizona ala estimatzeko bere Majestadeak? nola ezpaltitz artto bat ustelkorra. Alaere manatu diote goarda zaizaten kuidaoreki. Zenbat erreberenzia, debozio, ta konfianza paratu bear digu itz gonek? Erreberenzia, zeren dagon presente Aingirua; debozioa, zeren onesten gaituen: eta konfianza, zeren baitago gure guardian. Beras segi, ta obedi biotzes: eta edocein tentazio edo trabajutan klama, Jauna, guarda benaza, ta salba: galdua naiz.

Nik, erran zio Jangoikoak Moisesi, (Exod. 23) nik bialiko dut nere Aingirua, doaien zure alzinean, ta guarda zaizan bidean, ta sartu zaizan nik pres-tatu duten lekuan. Goart in zozu, ta adi zazu beraren boza; ez pensa dela kazorik ez egiteko, ezi etzaitu utziko, bekatu iten baduzu, ta nere izena darama bereki. Baldin aditzen baduzu beraren boza, ta egiten nik erranak, zure etsaien etsai izanen naiz, ta allijitzen zaitutenak allijitukotut: ta nere Aingirua joain da zure alzinean. Nork kontu egintuen faboreak gizonei Jangoikoak Aingiruen medios? Komunikazio izan duenas landara gizoneki, sinesten baita dela komunki Aingiruen medios, ongi eginak berex nork explika? eta nork entenga ere? Aipazkigun zenbait baktok jendamendes jendamende. Sodomako sugarreraik libratu zute Aingiruek Lot, eta bere familia. (Gen. 19.) Isaak zegolarik ezpataren pean ia ia iltzeko, Aingiruek libratu zue. (ib. 22.) Nork aberastu, ta fortunatu zue Jakob, baizik Aingiruek? (ibid. 31.) Moises ta Israeldarrak nork libratu zitue Ejipzioen eskuetaik, baizik Aingiruek? (Ex. 14.) Nork deteniarazi zue bidean Balaam zoeielaik, etzezan bota maldizioa Israeldarren kontra, baizik Aingiruek? Nork animatu, lagundu, ta triunfarazi zue Jedeon Madianitaen kontra, baizik Aingiruek? (Judic. 6.) Nork egin zue Sanson azkar gura Filisteoen kontra, baizik Aingiruek? Nork libratu zue Jerusalem, ta Errege Ezekias azken peligrotik, iles eun ta laur ogei ta borz milla asirio, baizik Aingiruek? (4. Reg. 19.) Eliasi nork janarazi zio bidean, zegolaik akaiturik, libratzeko Jezabelenganik, baizik Aingiruek? (3 Reg. 19) Nork libratu zue ta fortunatu Tobias eta Sara, baizik Aingiru S. Rafaelek? Judith, kasta bezain ederra, nork libratu zue Holofernesen eskuetaik, baizik Aingiruek? Berak erran zue juramentureki, *Guardatu nau beraren Aingiruek joatean, egotean, ta itzulzean, ta eztu permititu agrabiatzeara ni bere eskalaba.* (Judith 13.) Nork libratu zitue irur mutiko gaiek Babiloniako labetik, eta Daniel leonen agoetaik, baizik Aingiruek? Makabeoeri nork eman zioten ainberze koraje, ta biktoria, baizik Aingiruek? On guzia dator Jangoikoaganik, baña geienak Aingiruen eskus.

Bada testamentu berrian Aingiruek in tuzten ofizio onak ezin daizke kontu. Jesu Kristori Aingiruek zerbitzatzen zioten; eta bere agonian

pasio alzinean agertu zekio bat, konfortatzen. Jaio zelarik, Aingiruek abisatu zuzte Arzaiaik, ta kantatu zute gloria: Il ta orzi zutelarik, obiaren guardian zeude Aingiruek; eta aiek S. Magdalenari eman zioten berri ona, nola biztu zen berrero. Maria Santisimari anunziatu ziola Jangoikoaren amatasuna S. Gabriel Aingiruek, guziek dakite; eta nork daki nola guardatzen ta zerbitzatzen zuten? S. Josef Aingiruek seguratu zue, bere esposaren sabeleko fruitua zela Espiritu sanduaganik; ta noiz joan bear zuen Ejiptora aieki, ta noiz itzuli, guzia Aingiruen medios. S. Pedro Apostoluen burua zeukalarik Herodesek preso, lazatu, kidatu, ta atra zue libre Aingiruek. Berze Apostolu, ta Diszipulo sandu gaiek nork dezake duda, kidatzen zuztela, eta akonpañatzen, eta laguntzen Aingiruek? ala nola S. Felipe bataiatzeko eunuko gura, nola Kornelio zenturiona, nola berze milla. Bada arima garbiki Aingiruek duten komunikazio amoroso, nork erranen digu? Batzuek kasi kontino tratatzen ta ikusten zutela beren Aingiru guardiakoa, berze batzuek bear orduetan berla puntual. S. Julian Kuenkako Obispo izanari Aingiru batek pararazi zio izen goi, ta bear zela izan Obispo, ta gero abisatzen zue peligroetan. S. Ines sartu zutelaik etxe infame gartan Aingiruek agerri defendatu zue, ilarazis agrabiatu nai zuena. S. Tomas de Akino Aingiruek zeñituzute mutilzutuan, ematen ziotela kastidadearen donoa. S. Juan de Dios laguntzen zute hospitalean egiten heriendako bear ziren itekoak. S. Franziska Romana akonpañatzen zue Aingiruek bedratzi urtetako aur baten idurian agitz eder, zerura beira, besottoak gurutzaturik bulargañean, txuris bestiturik & S. Lidbbina ogeitamabi ta iago urtes heri egon zena bisitatzen zue kontino bere Aingiruek agerri, eta zio berak ikusteareki solamente konsolatzen zuela nai adiaña. S. Maria Magdalena egunoro igaten zute Aingiruek aditzera zerukoan laudarioak ta musikak. S. Benzeslao akonpañatzen ta defendatzen zue gerran Aingiruek, ta debekatzen, niork in etzezon gaizkirik, ta errespetarazten. S. Teresa heritu zue biotzean Jangoikoaren amoresko dardo bateki Serafin batek. S. Zeziliak Baleriano bere Esposotako ofrezitua desengañatu zue lenbiziko aldiaren betikos. Zuela bere amazale Aingiru bat guardatzen zuena zelo andiareki: guarda zeila egitetik bear eztenik. Ura ta bere anaia konbertiturik ellegatu zire ikustera Aingiru gura, ta gero izatera Martir glorioso. Bada Aingiruek asistitza berei iltzerakoan, ta ondorean artzea beren eskuetan, eta eramatea arimak da ofizio usatzen dutena maiz Aingiru guardiakoez gozo andiareki: zeren ezi egietafedea delarik Jesu Kristok diona, zelebratzen dela gozos eta alegranzias noiznai konberti daien bekatari bat onera, zenbat obeki alegratuko dire, atratzen dela ongi arima seguraturik betikos amatzeko ta laudatzeko Jangoikoa eternida-



dean? Kontrako aldera daike pensa, ematen zaiotela motibo tristatzeko, posible balitz, galtzen direlaik arimak, eta erortzen direlaik Jangoikoaren desgrazian; eta bekatuen okasioetan, asarre, ordikeria, urdakeria, ladronkeria, ta edozein gaixtakeriaetan, naiz alegre bekatariitsuak, aien Aingiruak egoten direla erretiraturik bekala ilun deskontent orgatik. Jangoikoak digula argi, ezaunitzeko fabore gau ere gañarakoen gañetik, amatzeko ta estimatzeko bere Majestadea bear bekala, ellegatzeko ikustera bere Aurpegia glorian. &

Martxoaren 3.an Santa Kunegunda Enperadora Birjin

Izateko Elizan birtute gisa guzietan exenplu, izan ze S. Kunegunda Enperadora ezkondua ta birjina, bere esposo S. Enrike enperadorearen konpañian, zeñeki ajustatu ze bizitzea biak elkarren konsentimentuareki elkar ukitu gabe, nola balire, ez senarremaste, bai anai arreba: eta ala kunplitu zute perfektoki ofratus Jangoikoai mortifikazioaren sakrifizio gisa gau; baita exenplu on bat mostratzeko Jangoikoaren graziak dezakena inarazi beraren amorez. Enpleatzen zire deboziosko gauzetan sandu bekala, fabrikatus asko tenplu ta monasterio, adornatus alhaja, ornamenta, ta gauza preziosoes, ta prinzipalki prokuratus jendearen ona, ta izan zeien anitz sandu. Ala bizi zirelaik, infernuko etsaiak tentatu zue Enperadorearen gogoa zerbait sospetxaz bere Esposa sandaren honestidadeas, ote zuen afizione gizonkiren bati. Sandak probatu zue bere arima ta gorputzaren sandua, ibilis milagrosoki oiñ urtuxian burriñasko barra goritu baten gañean, ez erre, ez bero, ta ez mellarik gabe, eskatus lenik Jangoikoai manifesta zezan bere inozentzia, ta aiturik boza bat zerutik, O birjina garbia, ez lotsa, Ama Birjinak libratuko zaitu: ala libratu zue sanda, ta desengañatu Enperadorea: zein gero il ondoan, gelditu ze ura birjin ta alargun; ta obeki emateko Jangoikoai zen guzia, sartu ze erreljiosa berak inikako konbentu batean guzien admirazio andiareki despreziatzeas ala munduko grandeza-iduriak.

An tratatzen ze guzien meneena bekala, ta Jangoikoak goratzen zue orreatatik berorreatatik. Zue konbentuan elleba bat sandattoa; baña gasettoa oraño egin zute Abadesa. Goizegi iganik goregi, liluratu zekio burua, naut erran, banatu zela zerbaitto, ta erori zenbait faltaetan. Izeba sandak korrejitu zue mias ta eskuas, erranes ta emanen zaflon bat. Eta Jangoikoak mostratzeko ongi emana zela, egin zue geldi zekion erien marka matelean bizi guzian memoriatako. Urbildus plazoa, ezaundurik deitzen zuela Jangoikoak beregana, prestatzen ze sanda bekala: eta aborrezitus munduko ponpak bizian bekala iltzean ere, goart eginik prebenitzen zeudela ilariko tela urresko prezioso bat, ken ken ori, erran zue, on ezta neretako on. Mortaxa nazazie pobreki: ala nai dut nik. Ala despeitu zue arima sanda: eta gorputza ezin ortzi zute irur egunes jendetzearen utses, obratus Jangoikoak asko milagro, honratzeko bere sanda, zein ikus dezagun glorian. Amen.



Martxoaren 4.an San Kasimiro Prinzipe Poloniakoa

S. Kasimiro Poloniako Erregeren semea gaste ilik joan ze merejimentus beterik: guti urte, ta anitz birtute: Aurzututik bazitue señaleak izan bear zenaren. Agitz ze galanta, one gia, arresti amablea, guziek maitatzen zutela. Etzue galarik nai, ta ala iduri zue obeki. Kastigatzen zue gorpuzta, mantentzeko garbi sano, ala nola gatzareki aragia. Ze agitz deboto Ama Birjinaren, ta bere Seme Jesus onaren. Nion baño iago denbora gastatzen zue tenploan zebaturik orazio mentalean, ondaturik Jangoikoan, atzendurik munduas, ta emengo gauzes. Gauas jaikirik ixil ixila joaten ze, nola txita olloaren egalpera, Jesus Sakramentatuaren billa, ta egoten ze Elizako atarian askotan gau guzian ia belauriko, ia auspeska adoratzen Jaun dibinoa negar amorosoeki. Eta nola Jaunaren amorea progatzen baita proximoen onestean, zebila beti nondik ongi egin guziei, beartsuei espezialki. Arimen erremediatzeas zue iago kuido, desterratu naies bekatuak, ta herejiak. Aitaganik logratu zue mana zezan herejeek ez egiteko elizarik: ta arren denboran egon zire humil. Ain sandua ikusirik nai zute señalatu Errege, naiz zuen anaia zarragokoa: baño bera zego erreinu obeagokoaren pretensioan, erreinu zerukoaren. Aitak nai zue ezkonarazi ondorekoaren amorez: eta iago dena, Medikuek ordenatu zioten ori beroi osasunaren amorez: baño Prinzipe gaste sandua mantentzu ze firme bere teman, naiago zuela il lenago ezi deslustratu birjinidarearen lore ederra: eta nork ere nai duen luzatu emengo bizia galdus gloria goitikogartaik zerbait, eztuela ezauntzen ango onaren ona. Eta ala zego ansiatzen arara naiak; ta kunplitu zio Jangoikoak deseoa, ta abisatu zio eguna. Eta errezibiturik Elizako ordenamentu guziak, besarkatus Kristo guruzifikatua entregatu zio bere arima Martxoaren 4.an 1484 urtean ta adinaren 24.an.

Martxoaren 7.an Santo Tomas Doktore Aingirua

1. S. Tomas Doktore Aingirua, jaintsu ta sandu agitz señalatu jaio ze Akinoko Kondeetaik Jangoikoaren ta bere zaren gloriatako. Esnean zego larrik, nai zuelaik unideak maiolatu, aurkitu zue zeukala eskuan ertxiturik aurttoak papertto bat; nai zio kendu; baño ark negar ta negar etzue utzi nai; gero Amak edeki ta idikirik leitu zute ziola Abe Maria: baño gabe etzuelaik ixildu nai, eman zioten, ta bereala eramanik agora iretsi zue, mostratus ala Ama Birjinaren debozioa esneareki entrañaturik zeukala. Borz urtetako adinean entregatu zute S. Benitoren Monjeei azitzeko sanduki. Ia ordutik afizionatu ze tratatza Jangoikoareki orazioan enpleatus ortan bi ordu egunean: ta eskatzen zio kuidatzen zuen Monjeari, deklaratu zezola zer den Jangoikoa: eta ark erraten zion inprimitzen zue bere biotzean. Amar urtetan asi ze estudiantzen gramatika ta alzinako estudioak egines guziei abantalla ikastean ongi ta aisa. Amalaur urtetan artu zue S. Domingoren habitu sandua Napolesen Jangoikoaren inspirazioz. Murmuratzen zute Frailees, engañatu zutela mutiko gastea zena: eta zeramatelaik Franzia erreljiosoek, bere anaia soldado zirenak, bidera atrarik arrapatu ta itzuli zute Amagana. Zenbat in zioten usteko habitu ta determinazio gura, debalde izan ze: ezin errendiarazi zute ez aideek, ez anaiek, ez Amak, ez arrebaek ere; antes bien ebetaik bata berak konbertitu zue izateko erreljiosa. Ones on etzuketelaik, nai zute bortxaz anaiek, erranes asko itz gaixto, ta emanen golpe ta tratamentu gaixtoak: Enzerratu zute kastelu batean: an zegolaik bein sarrarazi zute emasteki arin bat tenta zezan. Egin zue onek eginala ortako: baño sanduak, naiz gaste zen, errebestiturik Jangoikoaren Espirituas erreprehenditu zue sinki, eta on aski etzela, artu zue sutillate bat sutik, ta arrek joanarazi zue andik. Gelditu ze mutil sandua ikar ikar pelgroas, eta sutillate beras formaturik guruzearen señalea paretean, paratu ze belauriko negarrez Jaunari eskatus guarda zezan, ofratu bere arima ta gorpuzta nai ziola konserbatu garbi ilartaño: Inbokatzen zue Ama Santissima otoi ta otoi, fabora zezan bere humea bekala. Jangoikoaren borondatez artu zue an loiduri batek: artan dagolaik, bi Aingiruek paratu zioten kastidarearen zintoa, ertxitus gerriko bat ain ertxi, ezi oñazearen kasos idatzarri, ta oius asi ze. Galdeginik zer izan zuen, etzio niari nai izan deklaratu bizi guzian, baizik konfesoareai sollik: baño dono andi gura mantentitu zue beti, ta il omen ze ain garbi nola irur urtetako aur bat,



mellarik gabe. Baña etze orgatik deskuidatzen bere aldetik egines eginala guardatzeko dono gura, baizio humilki, bazezokela kendu Jangoikoak, deskuidatzen baze bera: eta ala al guzian beti apart igeska zebila emastekietatik; ta on erreparaturik señora batek erran zio, zergatik iten zuen iges emastekietatik, jaioa zelarik batenganik: errespondatu zio agudoki, orgatik iges iten dut guzietaik, zeren batenganik jaio nitzan.

2. Pasaturik bi urte prisione gisa gartan, bi arrebeak atra zute leio batetik, zeudeaik beiti etxideten fraileak, zeñek eraman zute, ta eman ziote profesioa amazazpi urtetan. Estudiatu zue Parisen ta Kolonian. Bere iteko guzia ze orazioan ta estudioan, azitzeko bateo sandu ta xakinsu. Humiltasuna, baita zimendu on guziaren, plantatu zue biotz-barnean, ta ala ze agitz ixila, orgatik deitzen baizute lagunek idi mutua. Baña bear orduan asi ze mintzatzen alako maneran, ezi admiraturik beren Maestruak Alberto Magnok erran zio, au deitzen didaze idi mutua? Bada bizi bada, alako marroak inen tu, adituko baitire mundu guzian. Asi zire ia guziak admiratzen sanduaren xakintasun soberano gura, zerutik emana iago ezi estudios logratua. Parisen Maestru gisa erakutsi zue ain miragarriro, ezi ez len ta ez gero ezta ikusi alakorik eskola andi gartan: eta guziek beirutzen dute nola iruzki eder bat argitzen duena mundu guzian; solamente ez tute herejeek ikusi nai, zeren agertzen ta konfunditzentuen aien erroreak. Beñere etze paratzen eskribitzen, leitzen, disputatzen, predikatzen, egon gabe orazioan, non argitzen baizio Jangoikoak. Aldareko sakramentuaren gain eskribitu zue Aingiru batek bekala, ta konpondu zue beraren festan kantatzen den ofizioa; eta bere ariora berze egia fedeskoen gain, de manera ezi Jesus onak bein baño iagotan erran zio klaro, *ongi eskribitu duzu nitas, Tomas. Zer nauzu eman dezazuten premiotan?* Errespondatu zue, *Jauna, ez tut nai berzerik, berori baizik.* Ain zego suspenso diskurritzen atratzeko egia, ezi askotan etzue erreparatzen noreki zegon, ta zertan. Bein bazkaltzerakoan S. Luis Franziaiko Erregeren maian, erreparatu gabe noreki zegon, eskua goraturik eman zue palmada bat mai gañean ziola, arrazio goni ezpaitu errespondatzekorik herejeak. Tiratu zio habitua Prioreak, zegola ixilik, nola zegon Erregereki; zeñek xakinik pasatzen zena, ekarrarazi zue paper ta pluma, etzekion atzen gogoratu zekion arrazio gura. Ain zego elebaturik!

3. Baña ez solamente entendatu zitue lurreko gauzak, baita berze mundukoak ere, zerukoak ta purgatoriokoak ere: ezi ondatzen ze Jangoikoan arima guzia noiznai; eta bein zegolaik barbera emateko sualeak zango batean, paratu ze sandua orazioan, ta ala elebatu ze, ezi etzue ikusi barbera, ez sentitu deus, ta ez mogitu ere ematerakoan. Ain xakintsu iza-

nik Jangoikoaren argis, ta bere propios, ze alaere ain humil, ezi sekula bere bizian etzue izan banagloriarik, ezta ere nai admititu Arzobispado, eta dignidade andiak ofrezitu zizkietenak, sufritu bai desprezio, ta agrabio in zizkietenak. Etzekie tratatzen gaizki asarre ta itz samifeki bere kontrarioak ezeta herejeak ere, baizik manso amoltsu bai konbenzitzen arrazio klaroeki: eta inportatzen etzen gauzan, naiz zeukan arrazio, zeditzen ze ixil utzirik porfiak. Etzue niores juizio gaixtorik egiten, ez murmuratzen, ta ez aitu nai ere. Gezurra etzekie pensatzen ere egiaren ain amante zenak. Bein fraile batek erran zio txanzaz, ara ara nola doaien idi bat boladan. Atra ze sandua leiora ikusteko: berzeak irri, bada zer? Sinestatu bear zue idia bolatzen zela? Sanduak errespondatu zio, lenago sinesta nezake bola zeikela idia, ezi ez erreljiosoak erran gezurra. Ain onegia ze ta humila, ezi kontatzen ze guzien zerbitzuko, ta beti zego guziei ongi egin naiak. Ellegatu ze sanduaren konbentura fraile arrotz bat, ezauntzen etzuen, baizik famas: eskatu zue lagun bat atratzeko ziudadea barna bere itekos: Prioreak erran zio ar zezala lenbiziko aurkitzen zuena: aurkitu zue ain txosto S. Tomas klaustroan: ark erran zio nola Prioreak manatzen zuen akonpañña zezala: istantean atra ze arrekí, ta segitzen zue: eta iago dena, berzea, zango onak izanes, zebila zalui, ta sandua zango batetik malder zoeie segitus neketan: berzeak zio, igi zeila: sanduak nai ta ezin segi atsanditurik: Norbaitek goart eginik erran zio berzeari, nor zen lagun zeramana. Ark orduan arriturik belauriko eskatu zio, barka zezola, ezipizekie nor zen. Sanduak irrikos, etzuela arkatzekorik, ezipaze berak, zeren etzen gauza akonpañatzeko ere bear bekala.

4. Urbildus plazoa, egun batez elebatu ze orazioan, ta iraundu zue irur egun urbil ala elebaturik, eta itzuli zelaik berebaitan suspiroka zio, ainberze erakutsi ziola Jaunak egun gaietan, ezi orduraño ikasi zuena deus guti zela arren aldean, baña etzekiola ematen denborarik eskribitzeko; eta lagunari erran zio sekretoan, fite ilen zela: ta ala izan ze. Aita Sanduaren manamendus zoeilaik Leongo Konziliora, bidean heritu ze, ta indarrusturik ezin artus alimentu angi zegokionik, Medikua galdegín zio ia etzion gogoak eskatzen zerbait: izatekos, zio sanduak, arenke batzuk, baitire arraitto batzuk, baña etzirenak agertzen leku gartan. Joan ze Medikua plazarat, ta Jangoikoaren permisios lenbiziko aurkitu zuena izan zire arenkeak, ala erakutxis bere Majestadeak nola zuen maite sandua. Akorriturik zerbaitto segitu zue bere bideas; baña ellegaturik Fosanobako Bernardoen konbentura, ezin pasatu ze alzinago. An emanik exenplu santidade guziaren, ta konfesaturik eskatu zue komekadura: ekarri ziotelaik errezi bitu zue eroririk lurrean humiltasun ta erreberenzia guziareki: eskatu zio



admiti zezala kontu onean eskribitu zuena, ongi iduri bazekio; ta utsin barin bazue, barka zezola ignoranzia, ta ar zezala ontzat bere intenzioa, baize beti Eliza Ama Sandaren konforme izatea. An il ze sanduki 1274 urtean adinaren 50.an. Asko milagroeki adiarazi zue Jangoikoak sandu gonon gloria. Egun berean errebelatu zekio Alberto Magno bere Maestru izanari urruti, zein derepente asko fraileen alzinean asi ze negar ta negar ziola, egun il da nere hume maitea fr. Tomas de Akino, baize Elizaren argia. Gero fr. Alberto de Bresa gizon sanduari agertu zekio bere habituareki guzia ederturik perla preziosoes, lepotik urresko katea prezioso bat dilindan petxora, andik diamante gisa bat argitzen zuena Eliza guziari nola iruzki batek. Kanonizatu zue Aita Sanduak Juan XXII.ak urte 1323.an

Dire sandu gonon zenbait sententzia famatuak. Biz lenbizikoa erraten zuena (izanik ain jakintsu admiragarria) etzekiela nola daiken alegra beñere nior dakienik dagola bekatu mortalean. Berze bat, oraziorik gabe arima eztaikela azi, ta ez irabazi, eta dela nola soldado bat armarik gabe. Berze bat, alferkeria dela hamua, zeñeki Deabruak egiten duen bere arranzua, eta arreki edozein zebo dela on. Berze bat, ezteua nai sufritu, dagola urbil erortzeko: eta pazienziarik gabe eztela perfekziorik, eta kostu irabazirik gabe. Berze bat, galdeginik zein gauza den geienik deseatu bear dena bizian, errespondatu zue ezi ongi litzea. Galdeginik arrebak, *nola zeiken salba? Nai izan es*, errespondatu zio: entenda, biotzez gogotik.

S. Perpetua ta Felizitas p. 286.

Martxoaren 8.an San Juan de Dios

1. Jangoikoarendako oroat dela pobre nola abrats, andi nola txipi, ageri da sanduen diferenzian. Orra sandu bat pobre ta abrats, txipi ta andi S. Juan de Dios jaio zena Portugalen, eta azi Españan; eta bere jendakiarren berri guti ematen da. Aurzurutik apegatu zegio Ama Birjinaren debozio fiñ bat, nola on guziaren prinzipio. Enpleatu ze arzaingoan lenik; gero sarturik soldado etorri ze Ondarrabia alderat Franzesen kontra. Bein jatekorik etzutelaik, ofrezitu ze joatera billa iganik bior franzes batean: onek sentiturik bere lekuko airea, eman zue karrera bat laurazka, ta bota zue peña batzuen kontra, non gelditu baize sentidorik gabe erdi ilik, agotik eta sudurretaik odola zeriola. Bi orduren buruan akorritzen asirik paratu ze belauriko, enkomendatu ze Ama Birjinai guarda zezan etsaien eskuetaik. Agertu zekio Artzaiesa baten idurian, eman zio ur trago bat: eta animatu zue. Galdeginik nor zen, erran zio, ni naiz ura, nori enkomendatu zaren. Beira ezi ainberze peligroen ertean etzaude seguro oraziorik gabe. Erran ta desagertu ze: ta Juan itzuli ze lagunengana. Andik egun guti aurkitu ze peligro iagokoan. Nola baize ona ta fiela, fiatu zio Kapitan batek diruketa andi bat guarda zezan. Ebatsi ziote lagunek: eta Kapitanak asarre manatu zue urka zezatela an arbole batetik. Akuditu zue bere Ama Santisimagan; eta ia ia urkatzeko zegolaik, pasatzen ze andik, bidea utsinik, kaballero bat: onek logratu zue barka zekion bizia, desterratus solamente kanpotik. Izan ze Jangoikoaren probidenzia, utziarazteko bide gura. Itzuli ze Kastela alderat. Bidean guruze bat aurkiturik, belaurikatu ze an eskatus miserikordia, ta ofrezitus emendatzea. Eta akaiturik jan gabe egones bi egun aietan erori ze desganaturik lurrean: Akorritzen asi zelaik, ikusi zitue aldakan irur ogi ta baso bat ardo. Etze atrebitu ukitzera, alik eta goraturik begiak ta eskuak zerura, asi zen erraten Aita gurea: ta erratean petizio ura, eman zaguzu gure egunorosko ogia, aitu zue boza bat ziola, jan ta edan zazu, ezi zuretako biali da ogi ta ardo goi. Oneki konfortaturik itzuli ze Oropesara. Jarri ze berriz Artzai laur urtes: berriz gero soldado: gero peregrino Santiagora, gero zenbait egun hospitalean; gero berriz ere Artzai Sevilla aldean: baña deustan ezin sosega. Berriz soldado pasatu ze Moroen kontra. Zeutan kaballero desterratu batek artu zue bere konpañian. Oni heriturik bere familia, ta akabaturik guzia, etzue zer agora eman. Deklaratu zio mutilai bearra, nai bazue atra zerbait diru peontzan



sustentatzeko bizia. Bereala paratu ze peon; eta neke andiareki irabazten zuen alokairua, gusto andiareki ekartzen zio arratsoro. Baña akabatutik obra, faltaturik alokairua, itzuli ze bearra: ta berzearen tristura. Sanduak animoso animatzen du konfiatzera Jangoikoa: saldu zue bere gañeko tresena, ta eman zio balioa. Itzuli ze lengo obra gura, ta sandua peonzara: ta kaballeroak agradezitunik erran zio, o Juan, egiaz gal baledi miserikordia, zurebaitan aurki leike. Ikusi ze gero egia gau. An galdu zekio bere lagun bat itzulis Moro. Ainberze pena ta eskrupulo artu zue sanduak, naiz kulparik gabe, ezi fuerteki ertxituzue Deabruak: Eta konfesatu ondoan konfesoaren konsejus enbarkatu ze itzultzeko Española. Itsasoan tenpesta de erru bat agiturik, guziak galtzeko peligroan zeudelaik, sanduak humil klamatzen zue, ene bekatuengatik da au: bota nazaze ni itsasora, ta libratuko zarate. Ainberze aldis, ta ain gogotik zio, ezi bazoezi botatzera. Sanduak, uz nazaze lenik erreztazera Aita gurea. Asi ze erreztatzen, ta bukatu baño len serenatu ze itsasoa, zerua, ta guzia. Orreki ezaundu zute arren ona.

2. Ellegaturik portura egin zue konfesio jenerale bat: eta gero egin ze mertxante, zenbait librutto, kartilla, estanpa, ta alakoak erosis ta saldus. Guzietan ze ageri bere inklinazio ona, ta Jangoikoarenganako amorea, ezi libru onak ematen zitue merke, estanpak debalde, ta bidanabar erostunei erakusten ziote doktrina, Jangoikoaren bidea, ta exemplu onak. Azkenik joan ze Granadara okasio goneki. Zebilalaik Gibraltar aldean Mertxante gisa, opatu zue bidean aurtto bat agitz ederra erdi biluxirik ta oñetakorik gabe: lastimaturik bereala paratu zitio espartin batzuk: baño aurrak iduriarazis etzeikela ibili aieki, sanduak amoltsu erran zio, ene aurttoa, zato, eramanen zaitut soñean. Ala artu zue, ta bazema. Prinzipioan arin iduri zekio, baño geroago ta pizuago, ia izerditan sanduak iturri batera ellegaturik erran zio, ene maite, uz nazazu edatera trago bat ur, ezi pizu ona duzu, ta izerdiarazi nauzu. An utzirik aurra, joaterakoan ur eske biendako, aditu zue atzetik boza bat erraten ziona, Juan de Dios Juan Jangoikoarena, Granada izanen da zure guruzea. Beiratu zue atzerat, ta ikusi zue aurra zeukala eskuan granada bat, ta artan gurutze bat. Bisione goneki joan ze Granadara prest egin zezan Jangoikoak artas zer nai zuen. Bizi ze orduan Granadan Benerable Juan de Avila Andaluziako Apostolu fama-tua: eta S. Sebastianen festa egun batez predikatu zue de manera ezi arren itzak izan zire susko saetak heritu zutenak Juan de Diosen biotza. Elizatik atra zeneko asi ze Jangoikoaren amarez zoraturik bekala zatikatzen bere tresenak, golpatzen bere burua, botatus lurrera, ta beiratus zerura konfesatzen publikoki bere bekatuak, ta egiten alako erakeria sanduak.

Segitzen ziote mutikoe, ta persegitzen eroa bekala. Joanik bere etxettora eman zitue libru ta estanpa zituen guziak, diru ta tresenak; eta geldittu ze atorra ta galzazpi solleki. Anzik joan ze Eliza Nausira; an oiuz klamatzen zue, Jauna, miserikordia. Maestru Avila Benerableak deiturik, ta aiturik ero gisa berri gura, utzi zue segi zezan inspiratzen ziona Jangoikoaren espirituak. Ura joanik plazara an loies betetzen ze agoa ta guzia emanen bere kontra zela bekatari andia: Ia sinetsirik ero zela, ero gisa tratatzen zute; ta ala flakurraturik eraman zute hospitalera, non berriro maltratzen zuten kuratzeko. Joan zekio Juan de Avila ikustera an, eta onen konsejus asi ze gutibana iduriarazten kuratu zela.

3. Denbora puska baten buruan andik atrarik joan ze bere Predikari sanduaren billa: konfesatu ze jeneralki: andik joan ze Guadalupeko Ama Birjinaren bisitatzera. Estimatu zio bisita Ama dibinak, zeren ezi ark Sal-bea erreztazterakoan, erratean itz gaiek, ea bada gure Abogada, itzulizkizu zeure begi miserikordiasko goiek gure gana: goratu ze erez kortina, ta beiratu zio bere pobrettoari Amak amorosa. Kortinaren arroitura atra ze sakristaua lasterka, ta ustez tiratu zuen peregrinoak intenzio gaixtos, akar eginik goratu zue oña, emateko ostiko bat; baño gelditu zekio tieso ezin mogi: bereala ordea sanduaren petizios sendatu zekio. Berze asko fabore egin zio Ama Santisimak, ta ala zego an sandua guzis gozoso: baño nola bere guruzea bear baize Granadan, arara itzuli ze. Arratsalde batez Ama Birjina sagrariokoaren alzinean, ta Kristo guruzifikatuari eskatzean, erakutsi zezon, zertan nai zuen zerbitza zezan; iduri zekio paratzen ziotela buruan korona bat aranzekoa, eta Ama Birjinak erraten ziola, aranze ta nekeen medios nai du nere Semeak logra dezazun anitz merejimentu. Sanduak naiz senti aranzeen oñazeak beterik gozos erregaloas erran zue, oien eskuetaik aranzeak eta nekeak dire enetako arrosak eta klabelak. Andik atra ta fite karrika bat pasatzean, ikusi zue etxe baten atarian letre-ro gau, etxe gau alokatzen da pobreen. Berla entendatu zue bere korona aranzekoa zela pobreei zerbitzatzea. Alokaturik etxea, limosna eskatus, prestatu zitue berrogei ta sei goatze gisa: bereala atra ze pobre billa, ta eramaten zitue soñean bere hospitalettora; garbitzen ta apatzen oñak, len lenik konsejatzen ziote konfesatzea, orreki garbiturik arima, sendatuko zela gorputza. Kuratzeko ta sustentatzeko bere pobreak, egunoro atratzen ze kapatxa edo esporta bateki soñean, ta bi elze aindieki dilindan lepotik karrikas karrika boza lastimagarri batez klamatzen zuela, *ene anaia maiteak, Jangoikoaren amarez emazie zeurendaka*. Lastimatzen zire aditzeas ere pregoa gisa goi, espezialki gauaz, ta atrarik atarietara ematen ziote ogi, zuku, aragi, ta gauza bear zirenak.



4. Nork pinta sandu gonen humila, pazienza, karidadea, ta afizione gura ongi egiteko pobreei? Ontan agertu ze Jangoikoaren ona, ta ongi egin naia gizagenderen alde. Bakarrik lenbuzian iten zitue hospitaleko lan guziak amar lagunendako ere sobra zirenak. Gauas gutitto bat etzaten ze bere pobreen ertean: gañarakoan beti lan ta lan kontino. Ia asi zekizkio Aingiruak laguntzen Jangoikoaren ordes. Bein atrarik limosna billa, itzuli zeneko aurkitu zue guzia extrematurik, ta lan guziak eginik. Galdegin ziotu pobreei, ia nork egin zituen. Aiek ziotu, ia zertako galdegiten zuen, egin zituelarik berak? Nola dateke, zio, egon banaiz ni kanpoan orai arteo? Aiek porfia, bera, ta ez berzerik zela egin zituena. Ezaundurik Jangoikoaren faborea erran zue, agitz maite zaizte Jangoikoak, bialtzentue-laik bere Aingiruak zerbitzatera zuei. Famatu ze prodijioa, ta asi zire zenbait gizon etortzen laguntako: baña beti bera len trabajuan. Joanik bein Tuyko obispoagana limosna eske, galdegin zio onek, nola deitzen zen. Errespondatu zio, ezi Juan. Apellidoa, edo izengañekoa nola du? Sanduak humil erran zio: nola aurtto batek biali zuenak Granadara deitu zuen Joan Jangoikoarena: baña bera etzela atrebitu artzera izengañekoi, indigno baize. Obispoak ezaundurik Jangoikoaganik zela ori, manatu zio deit zeie-la ala andik alzina: eta egin ziotu habitu gisa bat berai, ta bere lagunei. Aumentatus fama, aumentatu zire limosnak, ta bear ziren etxe, Mediku, erremedio, ta gañarako guziak: eta Jangoikoaren faboreak ere bai. Gau eurizu ilun batez aurkitu zue pobre gisa bat, etzuela non alojitu. Konbidatu zue sanduak bere hospitalera: arrek zio etzeikela joan oñes. Sanduak naiz kargaturik zoeien limosnaeki, artu zue soñera: baña ezin jasis, Me guti emanik, erori ze lurrean. Eman zue bere kontra, o asto gaixtoa, nola erori aiz? Jaiki, ta berriz artzera doaielaik, ikusten du mutil eder bat laguntzen diola ortako, ta eskua arturik erraten diola, ene anaia Juan, Jangoikoak biali nau laguntzera zuri ofizio gontan, ta jakin dezazun zein kuadrable den bere Majestadeai, nik dut kargu asentatzeko libru batean. Sanduak humil humila erraten dio, ni ez naiz baizik bekatari pobre bat; eta Jangoikaganik da on guzia. Baña eztida erranen, nor den berori? Ni naiz, erran zio, Rafael Aingirua, dutena kuido zutas ta zure anaies. Andik egun guti atera ematerakoan pobreei, faltatu ze ogi zenbaitendako: Agertu zekio arren habitu gisan zare bat ogireki eskuan erraten ziola, ene anaia Juan, guziok gara errelijione batekoak: Tori orai ogi gebek pobreen. Baña on ezta ainberze: Jesu Kristo bera heri gisa utzi ze eramatera sanduaren soñetan, eta paratzera goatzean: eta oñen garbitzera zoeielaik aitu zue erraten ziola, Niri egiten zaida pobrei egiten zaion guzia. Erran ta desaparezitu ze: baña gelditu ze an alako erresplandore gisa, ezi heriak lotsatu zire

ustez erretzen zen etxea. Ikusi bazute sanduaren biotza, ura bai, ura erretzen baize sines.

5. Etze kontent sandua erremediatzeas solamente heriak, nai zitue erremediatu bear genero guziak: espezialkiro arimarenak libratu bekatuetatik, ta bekaturoko bideetatik. Zenbat emasteki galdu atra zitue galmentetik? Zenbat dotatu zitue, ta akomodatu? Zeren ezi ze pobre bat abratsa, deus etzuen, ta ezin konta ala billatzen, aurkitzen, ta gastatzen zuena. Beraren itza estimatzen zute nola eskritura ta fianza seguroa, emateko nai zuen guzia, eta Janpikoa bera mostratzen ze fiadore. Joan ze bein eskatzera Merkatarari bati ogeitamar dukat fiara bazkal orduan. Enfadaturik garaiagatik erran zio arrek, eta nor atrako da fiadore diru gorren, emateko nik? Sanduak atra zue niño Jesus txipitto bat; ona, Jaunau atrako da fiadore. Ainberze argi-errañu atra zire imajinatik, ezi arriturik eman zio bear zuen diru guzia, eta zetorrela bear zuen aldioro emanen ziola. Karidadea geienik ageri da padezitzean ta padezitza exponitzean onetsiengatik. Itxeki ze bein sua hospitale errealean. Nior ez trebe sartza, egonez atariak arrapaturik keas eta suas. Lasterka etorririk sandua sartu ze: joan ze idikis barneko anitz atari ta leio, etzeizen ito keas heriak: gero artus heriak besotan banaka ta biranaka ere libratu zitue: gero bota zitue leioetaik goatze ta gauza franko: baña nai zuelaik autxi sua leku batean, aurkitu ze arrapaturik sugarres alde guzietaik. Ordu erdi batez etze agertu: galdutako ematen zute: gero ere noizbait atra ze libre Jangoikoaren milagros. Ala ia len ero deitzen zutena, beiratzen ta beneratzen zute sandu. Pasatzean bein karrikan bere kapatxareki ustegabeen ukiturik kapa kendu zio soñetik kaballero bati ezauntzen etzuenai: koleraturik onek eman zio errefflon bat. Sanduak itzuli zio berze matela, eman zezon berze bat. Iago asarraturik arrek manatu ziotu mutilei, akaba zezatela an. Puntu gartan ellegatu ze berze kaballero ezaun bat: Onek erran zio, zer da au, Juan de Dios? Berzeak aitu zuelarik izena, belauriko eskatu zio barkazio, ta eman zio limosna on bat. Sanduak besarkatu zue alegre. Berze bati zeren konsejatzon apartatzea emastekien konbersaziotik, eman zio arrek ere bofetada bat. Sandua paratu ze belauriko, ta erran zio humil, Jauna, eman bezkida naituen bofetada guziak, non ta ez dezan ofendi Jangoikoa. Obligatzen bazute gelditzera bazkaris bere ongi-egilleek, etze jartzen maian, baizik alde batean belauriko: ta zoeie berexis eta bildus obenttoak ziola, ebek goxoago zaizkida, jaten baitute nere pobreek: zeren ezi maiteago zitue pobreak, ezi humerik maiteena baitu Amak. Karidade gau apegatzen zio Kristok orazioan, zeintan pasatzen zituen gauak: eta garaitzeko loa, loturik zangoan kaskaribil batzuk, aien soñuareki saltatus noi-



zean noiz arintzen zue loa. Karidadeak kausatu zio eriotzea ere: Ur egur atratzean erori ze mutiko bat ugaldean: sartu ze sandua atra naies; asko denboras ibilirik ezin atra zue, baizik pena, ozidura, ta azken heritasuna. Artu zue libru txuri bat, ta ibili ze al zuken gisan etxez etxe asentatzen nori zer zor zion. Itzuli ze bere goatzetora iltzeko. Bitarteo Arzobispoak etzekielai heri zegon, deitu zue bere palaziora. Humil obediente joan ze erdi arrastaka. Erran zue Arzobispoak, nola kontatu zioten zeudela hospitalean zenbait jende gaixto desatento gaizki tratatzen zutenak: bear zela kendu alako jende-mota. Sanduak humil humila, o ene Artzai ona, nitas solamente dezokete erran nai zela gaixtoa, botatzeko etxetik: baña nere pobreak onak dire ene ustez. Balitz norbait emendatu bearra, prokuraturuko dugu emendatzea, ezi Jangoikoak onen ta gaixtoendako atrarazten du iruzkia &. Admiraturik Arzobispoak erran zio, Bidoeie, o Jangoikoaren bedeikatua: in bez nola nai duen. Oneki itzuli ze bere goatze pobrera, ezindurik ibiltzeko. Solamente karidadeak eman zio indar jaikitzeko. Gizon bat desesperaturik joan ze kanpora urkatzera bere burua. Jangoikoaren errebelazio izanik, jaiki ze sandua goiztar, paratu habitua, ta artu zue bere paloa. Deteniarazinaiz zutenei zio, uz nazaze; prezisio dut: itzuliko naiz. Joan ze bada prisaka, ta ellegatu ze gizonagana ia arbolaren pean urkatzeko: altxatu zue soka ikusteareki sandua: onek agerrarazi, ta kendu zio: animatu, ta itzularazi zue konfiaturik penitentzia egitera. Eta sandua kontent irabazias arima gura itzuli ze goatzera iltzeko. Señora debota batek nai zue eraman bere etxera kuidatzeko obeki: sanduak ez aitu nai ere alakorik, pobreen eratean nai zuela il. Baña Arzobispoaren manamenduari errenditu ze: arturik katedra batean eramana zio ze herien eratean despeitzeko: berak negar, aiek negar: eman zio desmaio batek: ta itzulirik eman ziote despeida ta bedeizioa. Etxe gartan bisitatu zue Arzobispoak, ta meza erranik an eman zio komekadura. Gero galdegin zio, ia bazuen zerbait ematen zionik pena? Errespondatu zio humil, o ene Aita ta Artzai ona, irur gauzek ematen didate pena ordu gontan: Lenbizikoa ez ongi zerbitzatuak ene Jaunari, ainberze faboratu nauenari: Bigarrena heri pobre gaiek uztentutenak desanparaturik. Irugarrena zor gebek in tutenak aien amarez: atra zue librua, non zeuzkien asentaturik. Arzobispoak errespondatu zio; pobrees ta zorres etzazula izan penarik; beude ene kontura: Jangoikoaren zerbitzuan faltatu duzunak konfia beraren miserikordian, ta Jesu Kristoren merejimentuetan suplitukotuela gure faltak. Gelditu ze agitz konsolaturik, ta apatus eskua ta emanek esker milla despeitu ze.

6. Gero ezaundu zuelarik eriotzea urbil, eskatu zue utzi zezatela baka-
rrik. Ala zegolaik, paraturik bere habitua jarri ze orazioan belauriko: sen-

titu zute kanpotik nola zion, Jesus Jesus: utzi zute ikusirik belauriko: baña gero sentiturik nola jende atratzearen arrotua, sartu zire, ta aurkitu zute ilik postura gartan guruzeareki eskuan, eta alako fragranzia ganbaran, ageri baize zela zeruko gauza. Gelditu ze Aingiru baten gisara eder glorioso iduri zuela bizi, ta belauriko gorputza sei ordus, ta ala egonen ze orai arteo, ezpalute edatu mortaxatzeko. Diote soñatu zirela ezkila guziak milagros, ta iten zutela soñu bat diferente triste lastimagarri, ematen zutela negargale. Egin ziote ilaria triunfo gisara konkurritus Arzobispoak, Apez ta fraile guziak, Konseju, Korte, Kaballero, ta jende genero guziek: predikaturik sanduaren laudarioak: eta andik alzina ez omen ze predikaturik egiten Granadan, ezpaize aipatzen sandu gonon laudario. Nork ikusi zuen len karrika gaietan bera konfesatzen oiuz bere bekatuak, tratatzen ero gisa mutikoelek segitus irri-abarres tiratzen kozkor eta farraskeries: gero berriz honratzen zeruak ta lurak, ta guziek zeletzen. Au da ero gura? O Jangoikoaren miragarriak! O nola engañatzen garen segitus munduko ponpak eta gauzak! O banidadeen banidadea, ta guzia banidade, ezpada amatzea Jangoikoa, ta berari sollik zerbitzatzea! Eternidaderako pausu gartan nork ez luke nai izan alako gizon bat iago ezi erregerik andiena? Dudarik gabe izan ze au sandu bat letrarik ta zeremomaik gabe sendoa seguroa humilago ezi autsa, karidades ta birtute guzies bete Jangoikoaren biotzaren konforme, beraren kortean Jaundia orai &.



Martxoaren 9.an **Santa Franziska Ponziani,** **edo Romana**

1. S. Franziska Romana izan ze andreen exenplu adin guzietan. Esnean zegolaik, agertzen bazue unideak norbaiten alzinean, desegiten ze negarres, ta etzeike ixilarazi, estali arteo: eta etzue konsentitzen apa eman zezon niork, ezeta bere Aitak ere. Ezaumentura ellegaturik ze guzis humila, obediencia, ixil, modesta amablea. Bere gogoaren bortxa ezkondurik heritu ze bi aldiz penas: eta S. Alexosek jautsi zerutik, ta eman zio osasuna. Oneki iago eman ze onera; eta utzirik gala iduri guziak bestitu ze, txukun bai, baña agitz llana pobre gisa, izanik señora prinzipala, iduri baize ez etxokandre, bai zerbitzuko. Beñere etzue niork ikusi festa, boda, ta alako jende-aurkintzeetan: bai joaten bere ardantze batera, ta ekartzen pobreendako egur ta gauza buruan, edo astoko batean. Sarzen ze zenbait etxeetan ez jatera, ta erregalatzera, baizik eskatzera limosna beartsuendako, errepartzeko bereareki hospitaleetan, zein bisitatzen baizitue maiz. Bere exenplu ta conseju oneki prokuratzen zue utziaraztea berze andreei gala ta itxurapenen banidadea. Oraziora ze guzis afizionatua, ta penitentiara, ta maiz konfesa komekatzera: baña ain obediencia, ezi deitu orduko senarrak an zeuka bereala utzirik errezu ta guziak: Eta bein obediencia kunplitu ondoan aurkitu zue errezu asirik utzi zuena eskribiturik urresko letraeki Aingiruaren eskus, adiarazis ala zenbat kuadratzen zekion Jangoikoai obedienciaen puntualidade gura. Orzilarre Sandu batez manatu zio konfesoareak joaterakoan guruzearen estaziora bere koñatareki pensatzea Kristoren pasioan, itzik egin gabe nioreki. Ala egin zute: ta naiz aurkiturik bidean bi zezen brabo eldu zirenak, zeñetaik guziak eskapatzen ziren lasterka, aiek geldi segitu zute orazioan, ta zezenak aldakatik ain manso nola axuriak.

2. Sanda gonon pazienza izan ze admiragarria. Heritu ziote senarra grabekiro bein, berze bein desterratu, enbargaturik haziendak, ta guzia nastekaturik: Alaere bera biotz andiareki sosegaturik ziola, Jangoikoak eman, Jangoikoak edeki, biz bedeikatua bere izena. Jendees landara Deabrukek ere iten ziote asko Deabrukeria; baña sanda eutxi Jangoikoai firme. Konsolu ta laguntako ikusiarazten zio bere Aingiru guardiako bedratzi urtetako aur baten idurian argi eder zerura beira besoak gurutzaturik

petxoan, zeñeki baizitue bere konbersazio sanduak. Komekatzerakoan espezialki zitue bere deliziak, espirituaren indarres gorputza ere goratus airean gora. Amoresko su gau itxeki zue anitz matronaen biotzetan, zein konsagratu baizire Jangoikoai errelijionearen botos. Ama Birjinak egin zitio fabore ta erregalo espezialak. Milagro in zituenak Jangoikoak sandaren amorez eta medios nork konta? Ogia aumentatus, matsak neguan arboletik dilindan logratu bear orduan, urak ez bustitus, sendatus heriak Bere alaba espirituale bat iltzeko zegolaik mintzorik gabe, ta bere konfesoarea urrun, sandak orazioas logratu zue bizi zeien borz sei egun etorri arteo, zeñek konfesatu, komekatu, ta oliatu zuelaik, ellegatu zekio sanda, eta erran zio, zoaz orai bakean, ta otoitz egizu enegatik. Istantean iltze. Bere adiskide bat libratu ze ongi, aurra ere zego ongi ustez: sanda joan ze prisaka, bataia zezatela berla etxean: detenitzen zire elizara eraman naiez: baña sandaren porfiaz bataiatu zute, ta istante berean gelditu ze ilik. Sanda gero bere denboran heriturik, ta sakramentu guziak erreziaturik, errezatus Ama Birjinaren ofizioa iltze sosegu andiareki 1440 urtean, 56 adines. Il ondoan ere irabazi zue moro baten arima kristiarazis &.

10.an Berrogei MM. Sebasten. p. 287.



Martxoaren 11.an San Euljio Sazerdote ta Martir

Moroek Españan dominatzen zutelarik, ta Erregea zegolaik Cordoban, jaio ze an S. Euljio buratso Kristioetaik, ezi uzten zuzte bizirik zenbait, naiz aborreziturik. Azi ze bere inklinazio onaren konforme birtuteen ta letraen estudioetan txoil ongi, ta atra ze gizon sandu ta jakintsu fama-tua. Ordenaturik sazerdote guzia ze tratatzea Jangoikoareki orazioan, ta proximoen konbersioan, ondus gaixtoak, ta onak obetus. Mogitu ze aldar-te gartan persekuzione Kristioen kontra Cordoban: eta ango obispoak, dela Errege Moroaren beldurrez, dela plazer in naiez, egin zitue anitz sazerdote Preso, ta aien er-tean S. Euljio. Karzelean eskribitu zue libru bat deitua Mart ren dokumentua, edo doktrina, animatus fielak iltzera Martir fedeagatik, nola il baizire denbora berean Flora ta Maria bi donzella sanda. Andik fite libratu zire karzeletik S. Euljio ta bere lagunak. Baña ikusirik obispoa oraño Moroaren gustora zebilala, etzue nai izan du erran mezarik, ez komunikatzeagatik obispoareki, zeñek exkomekazioaren pean manatu zio erran zezala. Sanduak eskojitu zue eskapatzea Cordobatik Franzia alderat. Ellegatu ze Iruñean, non errezibitu ta estimatu baizue emengo obispoak Gillesindo deitzen zenak. Bisitatu zitue Nafarroan ziren Monasterio zenbait, espezialki bat zelebratzen duena S. Zakariasena Eugi alde gartan, edo Zilbetira urbil: non aurkitu zuen asko erreljioso sandu, nola baitio obispo garri gero eskribitu zion kartan (ap. Sandoval.) Bitarteo Toledon elejitu zute beren Arzobisopotako, zegolaik ausente: baña etze kunplitu angoen deseoa, zeren Jangoikoak ia zeukan prebeniturik arrendako martirioaren korona Cordoban. Arara ellegaturik aurkitu zue guzia turbaturik, zeren Mahomad Errege Moroak persegitzen zue Kristiogendea lotsagarriro: eta Kristio gaixoak, batzuk zebiltza igeska, berze batzuk errenditzen zire beldurrez: berze batzuk mantenitzen zire erreljionean konstante ilar-taño Martir. Ekaitz-aldi erru gontan bializue Jangoikoak S. Euljio, gobernatzeko Eliza gura, etzeien galdu. Eztaike pondera zenbat probetxu eman zuen, konfortatus zeudenak erortzeko, eroriak jaikiarazis, erakutsis, ta animatus guziak: eta gero eskribitus Martir iltzen zirenen triunfoak. On aski ze, ta sobra ere, aborrezitzeko Moroek, ta prokuratzeko ilaraztea sandua: baña izan ze berze kausa bat ere. Infiel noble batzuen alaba bat deitua Leokrizia bataiatu ze, nai etzutela buratsoek. Ebek ones eta gaitzes nai ziote utziarazi erreljione Kristioa.

Donzella gura sanduaren arrebaren medios eskapatu ze buratsoen etxetik, eta sanduak Artzai onak bekala artu ta altxatu zue ardi Kristorena, etzezaten galdu otsoek: ta aldatzen zue lekutik lekura, etzezaten aurkitu. Baña Jangoikoaren permisios aurkitu zute noizbait, eta sanduareki bateo erman zute presa: au akusatzen zute, zeren eskapatu zen; ura, zeren altxatu zuen. Sanduak galdeturik Juezaganik errespondatu zue ausarki, sazerdote bekala zegola obligaturik beragana eldu ziren guziei erakustera, ta kidatzera zerurako bideas: ta ala egin zuela Leokriziareki. Eta manaturik Juezak ekartzeko barak, azotatzeko sandua, onek erran zio, bara gaiek etzutela ilen, ta berak etzuela ukatuko Kristoren fedea niolater bere bizian, ta ala obe zuela ilarazi. Oneki asi ze despreziatzen Moro-en Profeta falsua Mahoma: eta laudatzen Jesu Kristo Jangoko ta gizon guzien salbazalea. Eraman zute Konseju errealera, ta konsejuko batek adiskide gisa lastimas erraten zio, mintza zeuela an Mahomaren fabore, naiz gero segi zezan bere Kristoren erreljionea. Baña sazerdote egiaskoa orduan fuer-teago mintzatzen ze Mahomaren kontra, izan zela gizon gaixto bat, urde bat, enbustero engañazale galdu galgarri bat. Eman zute sententzia dego-latzeko sandua, ta zeramatelaik ortarako, Erregeren mutil batek aditu zuenak gaizki erraten Mahomaren kontra, eman zio bofetada bat aurpe-gian. Sanduak sereno presentatu zio berze matela eman zezon artan ere, ta eman zio madarikatuak. Ellegaturik lekura Moro-en jendetze ta oiuke-taren er-tean, goraturik begiak zerurat, ta zeñaturik gurutzeas edatu zue lepoa, zein ebaki zion berdugoak 859 urtean. Il ondoan ikusi ze asko den-boras ilaren gañean uso bat, zein etzuketean apartarazi. Laur egun geroa-go martirizatu zute S. Leokrizia, zenen arima honratu zuten Aingiruek zeruan, ta Kristioek gorputza lurrean. Biz bedeikatua Jesus itentuen-a sandu bereak. amen.

Martxoaren 12.an S. Gregorio andia. p. 289.



Martxoaren 13.an

Santa Eufrasia, edo Eufrosina Birjin

1. Konstantinoplan jaio ze buratso noble ta birtuosoetaik S. Eufrasia, edo Eufrosina, zein izan ondoan buratso on gaiek, bazutela ia here-dera, nai izan zute elkarren konformidades bizitu kastidade perfektuan usatu gabe Matrimonioaren lizenzia. Urte baten buruan il ze Aita sanduki: Enperadoreak, baize Teodosio, konsolatu zue Ama alarguna; eta onek enkomentatu zio bere alabatto gura fabora zezan; eta bortz urtetakoa zelarik, ofrezitu zue Enperadoreak Jaun prinzipale bati, senaleak emanik. Onek ez etxideteagatik alabaren adineraño, nai izan zue artu esposatako Ama alarguna, baize gastea, ta irur urtes solamente egon zena ezkondurik. Baña etzego ura artako, eta desengañatzeko joan ze andik Ejiptora bere alabatto garreki. An, eta Tebalan bisitatus monasterioak aurkitu zute bat, non bizi ziren eun ta amar Monja erretiro, ta santidade guziareki. Sartu zire bein an Ama ta alaba, zelarik au zazpi urtetakoa. Despeitzean etxera itzultzeko, aurra firme ura an bear zela gelditu. Abadesak erraten zio, etzeikela nior gelditu an, ezpaze konsagratuik Jesu Kristori boto perpetuos. Aurrak ikusirik Kristoren imajina bat an, besarka arturik erran zue, orgatik eztaielu utzi: ni konsagratzen naiz Jesu Kristori orai berean betikos. Ainberze erresoluzioreki erran zue, ezi niork ezin kendu zio burutik: guziak admiraturik kontent gelditu zire perlatto garreki, ta Amak sanda bekala konformatuik Jangoikoaren borondateareki utzi zue an, ta bera biziturik agitz sanduki iltze urte zenbaiten buruan, utzirik alabari zuen guzia.

2. Enperadoreak guzien berri izanik, gastigatu zio alabari, adinean zegonas geros, zetorrela artzera esoso gura, nori zen ofrezitua. Irri egin zue sandak karta leitzeareki, ta errespondatu zio Enperadoreari, etzela arrazio uztea bere esoso dibinoa Jesus ona Jangoiko eternoa dena, artzeagatik gizon bat dena lur puska bat, ta sarri izanen dena ar lurrekoen janari. Eskatzen ziola etzezola aipatu sekulan alakorik, ezi artu zuen estadoan zegola txoil kontent, ta determinaturik milla aldis iltzera lenago ezi atzerat itzuli. Mertxede eskatzen ziona zela, arren ondasunak saldu ta eman zezkien Elizeti, pobreei, eta nekazari zor ziotenei, gelditzeko bera libre zerbitzaten Jesu Kristori. Guzia in zue Enperadore piadosoak sandaren gustora. Nork emen orai explika, nola alzinatu zen birtuteetan sanda gau? Orazioan ze bere okupazio prinzipalena, ta artas landara peni-

tenzia, ta guziei zerbitzatea neskato bekala. Jesu Kristok amatzen ta erregalaten zue: baña orgatik iago etsai infernukoak aborrezitzen ta persegitzen zue milla tentazio gisaeki barnetik eta kanpotik. Garaitzen zitue sandak orazios, humildades, penitenzias, ta deklaratus Superioreari tentazioak, baita erremedio propia aien garaitzeko, nola estaltzea baita azitzeko ta aumentatzeko, ala nola arri pean dauden mormotak akabatzeke modua baita arria goraturik agertzea; kontra geldi uztea altxaturik. Superioreak trabajarazten zue sendoki oroat arri karraio, ogi egiten, ta gañarako lane-tan. Sanda bizkorki aplikatzen ze. Etsai gaixtoa naiz garaiturik etze ater-tzen: lotan ere amets ta imajinazio itsusieki persegitzen zue: ta ez kontent orreki inzitatu zue Monja txar bat artzeko inbidia ta oposizio sandari. Sandak itzultzen zio ordaña ones, ta ongi egines arri. Deabruak ikusirik etzukela eroriarazi tentazio batean ere, nai izan zue al bazuke akabatu edo ezindu. Ala egun batez ur atratzean bulkatu ta bota zue butzura: eror zerakoan klamatu zue, O Jesus, asisti bezada. Oiura joanik lagunek ikusi zute ur gañean, ta atra zute irris ziola, bizi da ene Jesus Jauna: ez nauk garaituko ik, Satanas gaixtoa. Berze anitz Deabrukeria egin zio onek Jangoikoaren permisios, baña guzietaik atratzen ze sanda irabaziareki, gure exenplutako.

3. Exenplu bat notagarria kontatzen da sanda gontas, ta S. Teresak ere aipatzen du. Zeukate konbentuan emasteki bat endemoniatua, edo eroa, ain furoso fuerte lotsagarria, ezi loturik katees idukirik ere, etzire trebe urbiltzera, ta urrundani pertika baten mokoan ematen ziote jan bear zuena. Manatu zio Abadesak S. Eufraziari, kuida zezala artas. Sandak humil artu zue kargua; prinzipioan progatu zue ura suber furiosa; baña sandak koraje andiareki erresistitzen zio, ta azotatzen ere zuela, dio S. Teresak: ta azkeneko humillarazi zue ainberze, ezi beldurra zegokio geldi obediente ardi bat bekala; ta ezpazego presente sanda, furotzen ze oroat, baña aski zute mansatzeko erratea, beira ezi eldu da Eufrasia: gelditzen ze ikar ikar. Aixtean aipatu dugun Monja inbidiosa garrek erran zue burla egines berzeen beldurra, zer? eztela nior trebe denik sujetatzera ari, baizik Eufrasia? Nik sujetatuko dut ark bezain ongi. Joan ze bazkariareki; baña berze gura eutxi zekio leon bat bekala, zatikatu zitio habituak, urti-ki zue lurrean, ta aztaparka ta ozka akabatzen zue an, alik eta abisaturik S. Eufrasia etorri, ta kendu zion aztaparretaik erdi ilik. Gelditu ze inbidiosa bana eskarmentaturik, gañarakoak admiraturik sandaren birtuteas, eta sanda ain humil nola len, konfiaturik sollik Jaunaren grazian, zeñeki guzien petizios gero ere libratu zue osoki. Abadesak izan zue errebelazio S. Eufraziaren merejimentuen andias, ta gloria prestaturik zegokionas, eta



fite bear zela igan zerura. Tristatu ze, ta negar iten zue, niori erran gabe: gero erranik berri izan zuena, guziak zeude negarrez faltatzeas alako laguna. Jakin zuelaik sandak, nola deus in ezpalu orduraño, berritu zitue penitenziak, ta eskatzen zue urte bateko epea suplitzeko faltak. Baña Abadesak animatu zue seguratus gloria izanen zuenas. Berla heriturik biramoneko bukatu ze. Il zerakoan bere Maestra izanak ta Abadesak eskatu ziote logra zezan Jangoikoaganik, aiek ere joatea mundugontai. Logratu zue: bata borzgarren egunean, berzea ogeitamargarrenean joan zire alegre zerura &. Sandaren adina 30 urte.

Martxoaren 15.an San Lonjinos Soldadoa

1. Jende-mota guzietaik biltzentuela Jangoikoak bere eskojituak, ezauntzeko ta amatzeko bere Majestadea munduan, ta gozatzeko zeruan, fedeas landara badio experienziak ere. Orra Saulo persegitu zuena Kristo nola in zen S. Pablo. Orra ladron gura Kristoren aldean guruzifikatua egun artan berean paraisora. S. Lonjinos idiki ziona lanzas bularra, batzuek diotenez, ta berze batzuen ustez soldadoen Kapitan edo Zenturiona guardian egon zena Kristoren guruzifikatzean, orai dauka zeruan. Ikusirik garai gartan ilundurik zerua, lutos estalirik iruzkia, ikaratzen lurra, zatitzen arriak elkarren kontra, eta Jesus oiu andi bateki entregatzen bere arima, ezaundu zue gizon gura zela Jangoiko, ta erran zue Kalbarioan berean, *egiaz Jangoikoaren semea ze au*. Orzirik gorputz dibinoa, ta arren guardian zeudelaik, nola agitu baize terremoto andi gura biztu zelaik Jesu Kristo, lotsarriturik guardiak gelditu zirelaik ilak bekala, naiz gero asko diru emanik, erran zezaten ebatsi zutela Diszipuloe, aiek lo zeudelarik, Lonjinos etze makurtu egitera alako falsedadea ta gezurra, bide ze gizon prestua, baizik konfesatu ta predikatu zue testigo onak bekala, biztu zela Jesu Kristo Jangoiko bekala. Orgatik nai zute bera ilarazi Judio gaixotifikatuek eta utzirik soldadeska joan ze Kapadoziara bere bi laguneki: eta an asi ze predikatzen ikusi zuena Jerusalem, ta konbertitzen jendeak. Andia ze atratzen zuen fruitua bere testimonioareki; andia ere Judioen deshonrea guruzifikatuas gizon dibinoa, baña ez gutiago artu zuten ira Lonjinosen kontra. Erreduzitu zute Pilatos bialtzera Soladoak Kapadoziara arrapatzera ta iltzera Lonjinos. Jangoikoak nai ta opatu zute ustekabean ta ezaundu gabe: ta erran ziote sekretoan zertara eldu ziren. Sanduak alegre ain nola berri andi bat aiturik errezibitu zitue bere etxean, erregalatu ta festejatu zitue; beude emen errepausatzen, zio, nik paratuko diotet beren eskuetan Lonjinos: eta deitu zitue bitarteo bere bi lagun gaiek, logra zezaten parte koronan. Ellegatu ondoan aiek, ta kontaturik agitzen zena, mintzatu ze soldadoeki bozkariundes erraten ziotela, ona emen daukate Lonjinos: ni naiz: paga bezate ostatua emanis niri eriotzea, baita in dakidaken mertxederik obena, ta medioa, logratzeko nik korona eternoa. Arritu zire aiek aditzeas, ta etzutenai sinetsi bera zela ain alegre ain bizarro tratatu zituena. Sinestarazi ziotelaik bera zela billatzen zutena, etzeude kentzeko bizia alako gizonai niolater, naiz berek galdu. Baña berak erranes, ta



errogatus in zezotela mertxede gura, gero ere, manaturik ekar zezotela festetako gala, ta non bear zuten ortzi, erdetxi zue ken zezoten burua berai ta bere bi lagun gaiei. Admira gaitzen Jesu Kristoren amorearen indarras, ta orduko ta oraiko Kristioen diferenzias. Gorputza an utzirik, burua erman zute soldadoek Pilatosengana, zeñek botarazi zue ziudadeko atarietan: andik gero estrabille batean: baña Jangoikoak honratu zue milagroeki. Bat kontatzen da, ezi joanik andre alargun pobre itsu bat Jerusalem, bere seme bakar kidatzen zuena il zekiola an sartzean. Gelditu ze guzis desanparaturik pobrettoa. Lotan agertu zekio S. Lonjinos konsolatus, ta manatus billa zezala arren burua, orreki lorratuko zuela bista, ta ikusiko bere semea. Bilatuzue, ta aurkiturik itzuli zekio bista, ta agertu bere semea glorioso erraten ziola, ez negarrik egiteko arren joanas emendik, baizego ditzoso gozatzen Jangoikoa. Andreak arturik bien errelikiak depositatu zitue Lonjinosen sortuerrian, Sandial deituan.

Martxoaren 16.an

San Abraham sazerdotea eremutarra

1. Buratso nobleen seme izan ze S. Abraham ongi onetsia ta ongi azia. Tratatu zute akomodatzeas matrimonioko estadoan: baña berak naiz ez erran mias, biotza zeuka gorago, ta gorago pensamentuak. Bodetako prebenzio ta festaen ermean iges joanik altxatu ze kanpoko etxetto batean. Aurkiturik gero ere nai zute itzularazi: baña desengañatu zitue etzela atrakoa andik; an bear zuela bizi Jangoikoareki bakarrik. Ertxirik paretas atarria, leiotto batetik eman es ogi ta ur guti bat, egon ze amar urtez Aingiru bat bekala. Pasaturik urte goiek, ta ilik buratsoak, aurkitu ze ondasun andien heredero. Baña kontent zegonak Jangoikoareki sollik, etztue ukitu ere nai: enkargatu zue bere adiskide bat, sal zezkiela, ta erremediatu pobreak prezioareki. Ala egin ze, ta bera gelditu ze ain pobre nola len, solamente zuela manto edo silizio bat, estaltzeko gorputza, estera bat etzateko, ta onzi bat ur edateko. Baña zenbatenas gabetu zen iago emengoetaik, iago betetzen zue Jangoikoak an gorako ondasunes: eta orgatik ala nola eztaiken altxa iruzkia, ezin altxatu ze arren santidadea. Tenia deitzen zen erri batean bizi zire Jentilak ain itsuturik beren errean, ezi nio- ren erranik etzute aditu nai, ta maltratzen zute Predikari oben bialiak aien onnaiez. Obispoak ta bere sazerdoteek pensatu zute bialtzea Abraham: Ordenatu zue gogoaren bortxaz: baña entendaturik on zela Jangoikoaren borondatea apaldu zue bere burua: armatu ze orazio luzeas gau ta egun: oanze errira: inarazi zue eliza kurioso bat bere ondasun gelditu zireneki: An ze bere bizia, andik atratzen ze konbertitzera Infielak: eta nola baize animosoa, Jangoikoaren zelos beterik urratu zitue aien idolo guziak. Aiek ikusi zutelaik beren Jangoiko gaiek ala deseginik, eman zute arren kontra, arrika ta makilukaldis golpaturik tenturik gabe utzi zute iltzat. Ura asirik akorritzen gau erdirat joan ze erdi arrastaka bere elizara. Goizean Infielak joan zire eliza gartara kuriosidadez: Ila uste zutena ikusi zutelaik bizirik, arrapatu zute berriro errabia andiareki, eta loturik soka batzueki atra elizatik ta arrastaka erabili zute karrikak barna tiratus arrukaldiak andik eta emendik: ta ala utzi zute bigarren aldian il gabe agitz porraturik. Alaere itzuli ze bere elizara, non zegon otoi ta otoi jende gaien onagatik: zeñek irugarren aldian golpatu, arrastatu, ta erriatik bota zute. Sandua firme porfiatus onez, niori gaizkirik ez egin ta ez erran, tratatus bai guziak Aitaren eta Amaren amore fiñareki. Iru urtez iraundu zue tema sandu



gontan: Ia asi zire admiratzen alako pazienziar ta karidadeas Infielak berak: eta egun batez batzarrean bildurik, ta an aipaturik Abrahamen ona, ellegatu zire ezauntzera, egiazko bide zela Jangoikoa ta errelijioea kristioena Abrahamek predikatzen zuena, erakusten ziona ala sufritzen, ta onesten gaizkiegilleak. Joan zire montonkan andik elizara, ta paraturik belauriko klamatzen zute Jangoiko Jesu Kristo, ta esker milla ziote, bialias aien onerako sandua. Eztaike pondera gozo ta kontentu artu zuena sanduak, ta nolako amore ta moduareki erakutsi zioten Jangoikoaren doktrina Kristioa. Bataiatu milla bat bekala, gero urte bat pasaturik seguratzten, ia uste zuelaik etzela preziso bera an, bazuketela berzeek mantenitu, botarik bedeizioa errira, eskapatu ze sekretoan bere erretirora. Biramonean errikoek etzute laik aurkitu elizan, an zire aien penak, ta negarrak, ta dilijenziak billatzeko alde guzietan. Ezin aurkitu zute laik joan zire Obispoagana. Ark ere billatu, ta ezin aurkitu zute laik, Joan ze bera konsolatzera Kristio berri gaiek; utzi zizkiote sazerdote, ta Ministro al zuzken obena, mantenitzeko, ta amentatzeko fruitu egin zuena sanduak, zein alegratu ze anitz on jakin zute laik, eta segitu zue bere lenbiziko bizimoduan gogotik.

2. Baña an izan zitue pelea fuertek Deabruareki, eta biktoriak alaber. Agerturik bein Aingeru eder baten idurian asi ze laudatzen sandua, ditxoso zela, ta bere parerik etzuen. Ezaundu zue ark nor zen, ta zer nai zuen: eta apegaturik lurrai zego humil konfesatzen etzuela deus onik bereganik; ta orreki desaparezitu ze espiritu suberboa. Berze asko gisatan progatu ze sanduaren sendoa. Baña lanze bat agitu ze agitz notagarria. Iltze bere anaia bat utzirik alabatto bat emazurtz Aitarik ta Amarik gabe zazpi urtetako adinean. Au eraman ziote Abrahami, kuida zezan osaba zen bekala; etzela berze nior kuidatu nai zuenik. Lastimaturik aurttoas utzi zue aldakako etxolan, arara ematen ziola sustentua leiotta batetik, ta andik erakusten ziola doktrina Kristioa, orazio egiteko modua. Ikasi zue ongi, ta zego sanda bat eginik ogei urtetaraño. Deabruak orduan armatu zio lakio bat, zeintan erori zen pobrettoa. Monje iduri bat ikusteareki zenbait aldis, artu zire afizione elkarri, ta segitu ze erortzea bekatuan. Andik gero tristura, konfusioea, ta desesperazioa: o nere desdixatua, zio negarrez, zori gaixtoan jaioa, nola galdu duten ainberze urtetako irabazia! nola goratu begiak zerura ia itsustu nai zelaik ala Jangoikoaren begietan? Nola agertuko naiz osabaren alzinean ere? O ene osaba ona, ta ene arimaren Aita, zer kontu gaixtoa eman duten nik orrek ongi erakutsias? Ah! il banitza sikiera lenago! Ah ene sekulako galdua! Ez naiz digna, ta ez naiz trebe mintzatzera ene osaba onari ia sekulan. Ala Deabruak amentatus alkea

len kendu ziona, oanze desesperaturik urrun, alas galdu, olas galdu. Egin ze bekatarik publika ziudade batean. Falta aurkiturik jarri ze orazioan S. Abraham: entendatu zue agitua, eta negar ta negar egines galduagatik, entendatu zue alaber bazeikela oraño erremedia. Eta informaturik non zegon, determinatu zue joatea billa; billaturik diru, ta zaldi bat, bestiturik soldado gisa ellegatu ze ostatura, non baizego Maria: ala deitzen ze. Aurkitu zire laik bakarrik ganbaran, ta atariak ertxirik, mintzatu zekio sandua piadoso ezauntzera emanik nor zen. Gelditu ze lira arriturik, ta alke gorriturik, begiak apal, itzik ezin atra: geroxago aflikzioak arturik eman zio negarrai. Sanduak konsolatzten ta animatzen zue amorosoki, Maria, etzula deskonfiatu: zergatik etzidazu errespondatzen? Zure ongi naiez etorri naiz: ain maite zaitut, nola len. Ezta gaitzik erremedia eztaikenik Jesus onaren odol preziosoas. Itzultzen bazara nereki, nik ermako dut zure bekaturen karga, ta emanen dut kontu aietas. Seguro nago barkatukotuela gure Jesus onak, non ta itzuli zaiten eneki. Bereala konsolaturik erresolbitu ze: ta utzirik gala ta gauza irabaziak bekatus, iganik zaldian itzuli ze, alzinean oñez zar sandua bozkariunde betetik, logratu baizue atratzera infernuko otsoaren agotik arima gura. Ellegaturik bere lengo etxolara, ertxirik an, garbitu zitue negarrez ta Ze ta orazioz bere kulpak, lagundus bere osaba sanduak: ta izan zute errebelazio, barkatua zela, eta mostratzen ze milagro iten zitueneki arren medios Jangoikoak, gozatzen zelaik ortas S. Abraham, zein ia zarturik adinean, baña gaste aurpegiaren alegrean ta kolorean iltze eriotze preziosoareki, honratus zeruak ta lurak beraren ilaria. Elleba Maria ere iltze andik borz urte sanda bekala, mostratus ilaren edertasun miragarriak arimaren edertasuna. Zenbat balio duen gizon sandu batek! Eta nola diren gizon sanduak Jangoikoaren gizonak, beren pretensio, irabazi, ta gusto guzia dutenak egitean plazer Jangoikoai, prinsipalki irabaztean arimak: ala nola sandu gau. Zer afizioea! zer antsia! zer zela! zer konstanzia! Naiz arrikatu, naiz golpatu, naiz arrastatu, segi alae-re, saldurik bekala bizia Jangoikoaren obsekioan: atzendurik errentas, konbenienziar & oh! alke dakigula! &.



Martxoaren 17.an San Patrizio Irlandako Apostolua

1. Kristioen errelijionea dela Jangoikoaren biotzeko errelijione bakar egia skoa ikusiarazi du berak asko maneras; bat da ageri S. Patrizion Irlandako Apostolu eskojituan, zeñetan dugu asko miragarri admiratzeko, baitare zenbait imitatzeko. Jaio ze Hibernian, ta jaio zeneko asi ze agertzen, Jangoikoaren eskojitua zela, ezi itsu batek aditu zue boza bat zerutik, bataiatuas geros Patrizio, ar zezala arran eskuieko eskuttoa, ta arreki formatu guruzearen seña lea lurrean, bereala atrako zela iturri bat, ta ur garreki ukitus begiak, logratuko zuela bista. Ala egin, ta ala agitu ze. Geroxago anditurik ugaldeak uraldi andi bateki, peligro zelarik ondatzeko bere erria, ta espezialki bere etxea, aurttoak bustis irur kri urean, ta irur guruze seña latus geldiarazi zue uraldia, ta aldarazi berze leku batera. Mutiko zelarik izotz puskak itzulu zitue susko brasatan: Bere arreba ta osabari eman ziate bizia ta osasuna. Artxaiko zebilalaik egun batez, eraman zio ardi bat otsoak: arratsean akar eginik etxekoek, egon ze ixil ixila sufritzen, ta eskatzen Jangoikoai. Gauza admiragarria! Biramonean agertu ze otsoa zekarrala agoan ardia, ta utzirik mutikoaren oñetan itzuli ze basora. Bere unidea heri zegolaik zego deseatzan ezti guti bat, sendatzeko: etze an ezirik: eta aur sanduak artu baso bat ur, ta eman zio heriari: txastaturik aurkitu zue guzia ezti gozoa, ta sendatu ze istantean. Ain goixtar iten zitue milagroak, baitare baruak, orazioak, ta gauza onak. Urte guti zue, baña anitz birtute. Amasei urtetan Jangoikoaren permisios arrapatu, ta eraman zute kautibo Irlandara: an paratu zute guardatzen hazienda beltzak: bakarririk oian gaietan guzia zego sarturik Jangoikoan: eun aldiz egunas, ta eun aldiz gauas lelauriko urtikirik lurrean adoratzen zue Jangoikoaren Majestadea.

2. Sei urtes kautibo egonik ikasi zue Irlandako mintzo gisa, ta ezaundu zue Predikarien bear zutena an, ikasteko Jangoikoaren bidea; ta bera zegola Jangoikoas destinaturik ortako. Prestatzeko bear ziren estudio, ta gañarakoeki, libratu zue kautiberio gartaik miragarriro. Errebelatu zio, goart egin zezala non in zuten hazienda gaiiek muzurka zulo andi bat: an aurkituko zuela bear zuen diru guzia erreskatatzeko. Ala agitu ze: ta ala erreskataturik itzuli ze bere sortuerrira obratus bidean miragarriak nolainai. Etxean zegolaik, amets-iduri batean ikusi zue persona eder bat zekarrana Irlandatik anitz karta: bat eman ziola berari; eta leitzerakoan iduri

zekio infinizio bat aur, beren Amaen sabeletan zeudenak oraño, zegozkiola klamatzen, o Patrizio mutil sandua, betor, otoi, gure lekuetara, ta libra gaitza. Bisione goneki iago seguratu ze, bera zegola Jangoikoas Irlandako Misionari destinatua. Ortako joan ze Franzara, non baizire gizon sanduak, ikasteko aienganik. Emezorzi urtes egon ze S. Jerman Obispo sanduaren eskupean: lukro S. Martin bere aide zenareki ere bai: atra ze ongi erakutsirik guzietan. Aien konsejus artu zue biajea Romara Aita Sanduagana: bidean bisitatu zue gizon sandu bat, zeñek eman zion bakulo bat, Jesus berak manatu ziona emateko Patriziori pasatzen zenean andik. Bakulo gura izan ze famatua, Jesusen bakulo deitua, zeñeki obratu zuen gero infinizio bat prodijio. Aita Sanduak, baize S. Zelestino I. (sedit ab ann. 423 ad ann. 432.) agitz ongi arturik, bere Legado Irlandako eginik, ta obispo konsagratu rik biali zue kontent. Bidean berriro animatu zue Jesus onak.

3. Ellegaturik Irlandara ikusi zue infinizio bat Demonio kontra estorbatu naiez. Sanduak guruzearen seña leareki desterratu zitue guziak. Ango sorginek erranik zeukate lendanik, ellegatuko zela kanpoko bat urratuko zituena aien Jangoikoak. Ala zego manaturik ez uzteko sartzera, edo sartzen baze, atrarazteko, edo ilarazteko. Baña non da podoreik Jangoikoaren kontra, naiz bateraturik mundua ta infernua? Paratu zueneko lurrean oña, atra zekizkio estorbatzera jendeak tzakur, arma, ta gauzaeki. Baña sanduak Jesusen bakuloareki geldiarazi zitue arriturik guziak. Asi ze predikatzen inarazirik eliza bat: sorginak ta Magoak erresistitzen asko maneras: baña Jangoikoa eskarmentarazten. Bein meza erraterakoan, leiotik batek pertika batez urtiki zio kaliza. Istantean idiki ze lurra, ta iretsi zue bizirik sakrilego gura: ta odol sagratua itzuli ze kalizara, utzi gabe errestorik ixuri zen lekuan. Ori ikusirik, konbertitu zire anitz. Berze sorgin bat Erregek estimatzen zuena, ta Jangoikotako zeukatena igaten ze arte gaixtos zerurat: Gora eder igan zelaik, sanduak orazio egiteareki, erori zekio oñetan, zapartatu ta zatikaturik gelditu ze. Idolo famatu bat adoratzen zutena urres ta zillarres adornatua, Jesusen paloa goratzeareki bota zuen lurrera, ta utzi zue guzia auts biurturik. Bi emasteki il ta ortzirik zeudenak biztu eta atrarazi zitue obiatik, zeñek oiuz publikatzen zute Jesu Kristo dela Jangoiko, ta aien Jangoikoak Demonio. Eskatu ziate S. Patriziori bataiatzea, ta bataiatu zitue aiek, ta berze asko jende. Nork konta milagroketa obratu zuena? Sinestarazteko Kredoaren artikulo fedesko azkena, baita bizitza sekulakoa, au da, grazian iltzen direnak biziko direla glorian betiko, nola desgrazian iltzen direnak kontra infernua betikos: jende gaien petizios orazio eginik logratu zue ager zein an kubi-



la bat, non sartzen zirenek ikusten zuzte gauza arrigarriak, tormentu ta penaskoak, zein deitu zuten S. Patrizioren purgatorioa. Alako prodijio ta fabore andien medios kristiatu zire anitz jende; fabrikatu zire anitz Eliza, ta itzulirik Romara eraman zue emendik Irlandara anitz errelikia, ornamenta, sazerdote, ta ogeitamar obispo konsagratu: ainberze aumentatu ze Kristiogendea S. Patrizioren medios Irlandan.

4. Desterraturik erroreak, sorgin eta Deabrukeriak, libratu ere zue anitz kalamidade, ta animale benenosoetaik. Bilarazirik aiek guziak Jesusen bakuloareki ondatu zite itsasoan barna. Gerostik onat ez omen da jαιο Irlandan animale benenosorik; eta ez an, ta ez nion Irlandatar katoliko denari ez omen dio gaizkirik egin batek ere beñere orai arteo. Eman ere zio sanduari profeziaren donoa, jakiteko agituko zena urrengo denboraetan. Konbertitu ondoan Irlanda, izan zue errepausa, enpleatzeko orazioan ta kontenplazioan. Egunoro errezatzen zite eun ta berrogei ta amar psalmoak anitz kantiko ta himnoeki: berreun orazio deboziosko belauriko adoratus auspeska lurrean Jangoikoa irur eun aldiz egunean: santiguatus eun aldiz ofizio dibinoaren parte bakotxean. Meza zelebratzen zue debozio admirableareki: predikatzen oroat. Gaua partitzen zue irur zatitan: batean errezatzen eun psalmo belaurikatus berreun aldiz: berzean sartu balsa izoztu batean ta an errezatus berrogeitamar psalmo, ta berze orazioak. Irugarren zatian etziten ze lurrean, bururdikotako arri bat, ta zeñituri gerria zilizio ur izoztuas bustiareki. Bere janaria beti guti ta gustorik gabe: tresenak agitz pobre. Alaere bizitu omen ze eun ta ogei ta amirur urtetaraño. Ondorean berak señalaturik bere eriotzearen denbora, lekua, ta obia, iltze sosegu andian Jangoikoaren besotan bekala. Ilondorean ere obratu zue Jangoikoaren beraren honratan anitz milagro. Il omen ze Kristoren 493 urtean; eta beñere ezta il beraren memoria munduan, nola bizi baita arima betiko glorian. Baña sandu gonon memoriarik obena da bere lan onaren irautea oraño, Kristiandade plantatu zuena Irlandan, sarturik alde guzietaik inguruan herejiak, Kristio katolikoak mantenitzen baitire beti Irlandan, ezaun baita Jangoikoaren gizona zela au, ta errelijio-ne plantatua Jangoikoarena.

Martxoaren 19.an San Josef Ama Birjinaren Esposoa

1. S. Josef zori onekoa, zenen debozioa alzinatu baizue S. Teresak arrazioreki, da sandu bat guziek estimatu bear dutena, nai baituzte ongi Jesus ta Maria. Ze Nazaretgo semea, zekarrana bere etorkia edo kasta erreala Belendik Dabid Erregeaganik. (Agred. Myst. Ciud. p. 1, n. 752.) Bizi ze Jerusalem enpleaturik zurgingoan pobre lurreko ondasunes, ongi egina ta kuadrablea gorputzaren aldetik, baña arimaren aldetik guziz ona, humila, modestoa, garbia, ta sandua. Guzia dio itz batez Ebanjelioak dio-laik *zela justoa*. Agredako Benerableak dio, amabi urtetaik ia zeukala eginik kastidadearen boto: eta zela Maria Santisimaren aide irugarrean gradoan, gizon bat Jangoikoaren ta gizonen begietan perfektoa bizi zena exenplu andiareki, ta zegona ogeitamirur urtetako adinean, noiz ta Maria Santisima tenploan azitzen zena disponitu zuten sazerdoteek paratzea Matrimoaren estadoan. Ortako bilarazi zuzte jendaki bereko mutil aurkitzen zirenak tenplora, ezauntzeko Jangoikoaganik, nori eman bear zen esposatako donzella soberana gura. Jangoiko beraren inspirazios sazerdote sumoak an bildu ziren guziei eman omen ziote bara bana eskura, eta sazerdoteeki bateo guziak paratu omen zire orazioan. Guziek nai bide zute logratzea konpañia garren suerte ditxosoa: sollik S. Josefek kontatzen zue bere burua indigno alako ondasunaren, ta oroiturik bere boto eginas, ta guardatu naiez zego fiaturik ta utzirik Jangoikoaren eskuan. Orazioaren oben obenean ikusi ze loraturik S. Josefena bara, ta jausten zerutik uso bat elurra bezain txuri, ta argi ederra jarri zena sanduaren buruan. Zeruko señale klaro gebeki sazerkoteek desposatu zuzte esposo ta esposa izan diren ta izanen diren oben obenak sekulan.

2. Desposaturik biak itzuli zire Nazareta, an deklaraturik elkarri bakotxak boto zuena, kontent bizi zire anai arrebak bekala santidade guzian, trabajatus S. Josefek zurgingoan, Maria Santisimak emasteki-lanetan. Andik zenbait ilabeteen buruan agitu ze Jesu Kristoren enkarnazioa, edo gizon egitea Ama Birjinaren entraña san Espiritu sanduaren birtutez, eta Jangoko andiaren milagros, jakin gabe S. Josefek. Andik berla akonpañatu zue bere esposa dibina S. Isabelen bisitatzer, zein baize S. Juan Bautistaren Ama zoeiena ia sei edo zazpi ilabeteetan. Gero bere denboran asi zelaik nabarmendus bere esposaren amatasuna, geroago ta iago ezaundus aurdun zegola S. Josefek, zekielaik beraganik etzela, eta etxakin



nondik edo nola zen; ezin pensa gaizkirik alako personas, baña ezin uka begis ikusten zena: etzekie zer pensatu, ta zer egin ere ez. Aflijiturik akuditu zue Jangoikoagana: baña Jangoikoak ere etzue konsolatu berla berla deklaratus egia zena; ta bere esposari etzegokio ongi deklaratzera bere fabore zena. Sandua bitartean bere pensamentuen errotan penas beterik, zer inen dut? zio. Utziko dut konpañia ain amablea? Nola naiko bizi ori gabe? Baña nola egon ere libratuartaño, ikusteko dakitena eztela nere humea? Azkeneko determinatu zue ausentatzea: ene esposa badakit sanda dela, baña badakit ere aurdun dagola, ta eztakit nola. Eznaik egon, argira eman arteo. Ni banoaie: Jangoikoak lagun dakiola. Determinaturik ala zegolaik gauas joateko bimon goizean, ara non Janjoikoaren Aingerua eldu zaion, ta erraten dion, Josef Dabiden semea, etzazula beldurrik izan idukitzeas zeure esposa Maria, zeren ezi berabaitan jaio dena Espiritu sanduaganik da. Emanen du argira seme bat deituko duzuna Jesus, salbatuko baitu berak bere jendea aien bekatuetatik. Ala seguraturik sandua gelditu ze kontent.

3. Gero atra zelarik Augusto Enperadoreaganik manamendua, litstatzeko guziak, nor bere etorkiaren lekuan, igan ze Josef Nazaretdik Betleña bere esposareki, zegolaik ia erditzeko egunetan. An izan zuen pena sanduak jendetzearen utses ezin aurkitus bear bekalako ostaturik bere esposaren, naiz izanik aideak an, nork pondera? Baña izan ze Jangoikoaren probidenzia. Gero erretiraturik etxola pobre gartan, ikusi zuelaik jaiorik aur dibinoa, nork explika sanduaren gozo gozoa? Eta ematen zioalaik bere besoetara Jesus ona, eta artzen zuelaik besarka ain amable amoroso Errege guzien Erregea eginik ain txipittoa, zer biotzaren saltoak, zer negar gozoak, zer antsiak ta anheloak sentitzen zituen, nork entenda? gero bisitatu zutelaik Artzai on gaiek, geroxago irur errege gaiek, ta gañarako misterioetan, zein ditxoso kontatzen bide ze Jangoikoaren graziaz? Berrogeigarren egunen an akonpañatu zitue presentatzera Jerusalemgo tenploan. An berritu zekio gozoa, aitu zuelarik Simeon zar beneragarria besotan arturik aur dibinoa bedeikatzen zuela Jangoikoa, ta konfesatzen Jesus guzien salbazale. Baña bereala segitu ze pena amorosoa, erran zioalaik Ama Birjinai, askok persegituko zutela aur gura, ta beraren arima herituko zuela dolozeko ezpatak. Gero aumentatu zekio pena, noiz ta udioen Errege Herodesek aiturik jaio zela Judioen Errege berri bat, nai zuelaik ilarazi aur dibinoa, manatu zion Aingiruak S. Josefi, artzeko aurra ta Ama, ta joateko iges Ejiptora, ta egoteko an, abisatu arteo berriz. Era man zitue bada, ta akonpañatu zitue bide luzegartako nekeetan, ta Ejipton egon ziren denboran, eginala egines gogotik ere mantenitzeko fami-

lia sagratua. Gero abisu berriareki itzuli zire Nazareta, non nola bizitu ziren elkarren konpañian Jesus, Maria, ta Josef, nola portatu zen gizon sandu gau bere esposa amableareki, ta seme admirableareki, ilarñaño, eztu deus aipatzen Ebanjelioak, baizik nola urteoro joaten ziren Jerusalemgo bazkoan, ta bein ia zelarik amabi urtetako mutikoa, gelditu zekiotela an ustekabean, ta egun bateko bidea pasaturik ustez eldu zen jendearen ertean, etzelarik ageri, itzuli zirela Maria eta Josef billa, ta irur egunen buruan aurkitu zutela tenploan Maestruen erdian aditzen ta galdegiten, guziak arriturik zeuzkiela bere prudenzia ta errespuestaeki, eta gero itzuli zela Nazareta bieki, ta aien eskupean zegola, ta aien manura obediente. Au sollik dio Ebanjelioak S. Josefes, eta gero ogeitamar urtetakoa zelarik ia Jesus, zeukatela Josefem semetako beren ustez. Luc. 3. Baña notagarri dire itz erran zitionak Amak aurkitu ondoan: Seme, nola egin duzu alai? Orra zure Aita ta ni penas beterik ibili gara zure billa. Aita deitzen du Josef, zekielaik etzela errealdadean, bai ordea afektoan, piedadean, ta jendeen opinionean. Egia da errespondatu ziotela Jesus onak, etzekite bear nai zela ni enpleatu ene Aitaren itekoetan? adiarazis ala munduari, bere Aita propio egiaskoa dela Jangoiko Aita guzis poderosoa. Ezta aipatzen Ebanjelioan, ta eztute Aita Sanduek ere segurutzen, noiz iltzen S. Josef, suponitzen bai iltzela Jesusen pasioa baño len, baita bere predikazioa asi baño len ere. Noiznai izan zen, ditxosoa izan ze sanduaren iltzea Jesus ta Mariaren presentzian, asistitus alde batetik batak, berzeak berzetik. Ditxosoa alde alde guzietaik izan ze sandu glorioso gau eskojitua Jangoikoaganik, izateko Jangoikoaren Amaren esposo propio egiaskoa, Jesusen Aita uste zena, bien konpañian bizi ta iltzera. Uste da zeruan dagola gorputz ta arimareki bizturik Jesusen erresurrekzio egunean berze askoreki, *multa corpora sanctorum surrexerunt*. Mat. 27.



Martxoaren 22.an

Santa Katalina Sueziakoa

Birjin Santa Brijidaren alaba

1. Ezta segurki zierto, izatea nola Ama, ala alaba, baño gaixtoan komunki agitzen da, eta onean ere askotan. S. Katalina Sueziakoa S. Brijidaren alaba izan ze bentzait Amaren gisara. Jangoikoaren maite eskojitu zela ze ageri kunan ere, ezi artzen zuelaik bere Amaren, eta edozein unide honestaren esnea, deshonestaganik etzue artu nai beñere. Esnetik kenduas geros Ama sandak entregatu zue errelijiosa bati azi zezan ongi. Gau batez ura koruan zegolaik maitinetan, Deabruak zezenaren idurian adarreki atra zue kumatik, bota zue lurrera, ta utzi zue an erdi-ilik. Aurkiturik ala errelijosak artu zuelaik besotan, agertu ze gaixtofikatua ziola, ah! zein gogotik ilen nuen, izan banu lizenzia! Zazpi urtetakoa zelarik, egon ze bein aur laguneki txostatzen figuratto batzueki: eta Jangoikoak nola nai baizue sandatako, utzi zue kastiga zezaten gaixtoek figura gaien idurian azotatus urbilen gauean. Ezkonarazi zue Aitak Eghardo deitzen zen kaballero on bateki: eta sandak enkomendatus Ama Birjinai, ta mintzatus esposoi erdetxi zue bizitzea biak kastidadearen boto eginik Jangoikoaren gustora, engañatus mundua, ustez ziren senarremaste gisa bizi zirenak bi Aingiru bekala. Bere anaia Karlos deituak banidadera emanak erreprehenditzen zitue biak ain erretiratu modesto izateas, espezialki bere arreba, zeren etzen bestitzen berze señorak bekala: baña sandak ajolarik gabe arren akar ta banakeries segitu zue bere bestitze humil llanoan, eta erreduzitu zue arren andrea bere goñata imitatzer bere bestitzemodua, utzurik banidadeak. Alargundurik bere Ama S. Brijida joan ze Romara Jangoikoaren inspirazios: nai izan zue sandak Amaren konpañia; etzue konsentitu nai senarrak prinzipioan joan zeien ain urrun, nola baize ain guziz ederra ta emezorzi urtetakoa, ez iago: baña Jangoikoak nai duena in bear-ko: beraren inspirazios biali zue akonpañaturik ongi.

2. Roman bere Amareki zebatzen ze deboziosko gauzetan a porfia: baña izan zitue trabajuak bitarteo. Alargundurik gaste eder, pretenditzen zute zenbait Jaun prinzipaleek: berak etzue nai, baizik bere Jesus oria betikos. Egun batez altxatu zire bide batean eramateko bortxaz: pasatzerakokan sanda laguneki andik, atra zirelaik aiek lekutik, derepente paratu zekio- te alzinean orein andi bat, zein segiturik beren armaeki arrapatu naiez,

bitarteo sanda pasatu ze libre. Berze aldi batez Amareki zoeielaik estazioetan, berze bat nai zuena errendiarazi, gelditu ze itsuturik berartan, alik eta ezaundurik Jangoikoaren eskua, ta barkazio eskaturik logratu zuen bista bi sandaen orazios: eta milagro gau kontatu ziote berak Aita sanduari ta kardenaleei. Alako milagroeki berze askotan guardatu zue bere esposa sanda gau Jesus onak. Eta nork erran nolako amoreas korresponditzen zion sandak? Gañarakoes landara egunoro egoten ze meditatzen beraren pasio ta eriotzea urtus pena ta negar amorosoetan. Beraren amorez pobreei eta heriei zerbitzatzen ziote hospitaleetan admirableki heritus herieki, pobretus pobreeki. Beraren amorez sufritu zue asko injuria indigno pazienza andiareki pagatus onkies gaizkiak, ta onetsis gaizkiegilleak: propioeki Jesusen gisara ze.

3. Ogeita borz urteren buruan, ortzias geros bere Ama sanda, itzuli ze Suezia: non sarturik konbentu batean gobernatu zitue Monjak ederki, obratus ere bai milagroak. Bat izan ze: señora andi bat gaizki bizitu zena heriturik eriotzeraño etze nai konfesatu, ta ez prestatu ongi iltzeko: etzue ajolarik sandaren konsejues; sanda jarri ze orazioan, ta derepente goratu ze ugaldetik kee ilun beltz bat, eta estali zue ta ilundu etxe gura de manera ezi heria lotsarriturik asi ze klamatzen sanda naiez: joan ze au, eta bereala logratu zue konfesa zeien ongi penaturik, eta biramonean iltze esperanza oneki. Atra ze ametaik Romako ugaldea Tiber, ta arrapatzen zue ia ziudadea. Eskatzen ziote sandari, atra zeien kontra, bere presentzia ta orazioeki deteni zezan. Eskusatzen ze humil humila. Arrapatu ta eraman zute: ukitu orduko urak ones itzuli zire atzerat, ta libratu zire guziak bedeika ta laudatus Jangoikoa eta sanda. Napolesen egon zelaik, deklaratu zio Ama batek, nola bere alaba gauoro Demonioak tratatzen zuen torpeki, eta naiz orduartaño ixildu zuen alkez, orduan erran ziola berari errateko, ta eskatzeko erremedio. Sandak len lenik konsejatu zio konfesatzea osoki, ezi asko aldiz altxatuagatik bekatuak konfesioan, Demonioak esku artzen duela maltratatzeko arimak eta gorputzak ere Janoikoaren permisos. Eman zitio berze zemait erremedio ere: eta zorzi egunen buruko libratu ze guziz. Berze asko milagro kontatzen dire sanda gononak, zein heritu ze iltzeko; zue kostunbre aspaldirik konfesatzeko egunoro; ta askotan bi irur aldiz egunean. Ala egiten zue lien zegolaik, naiz ezin errezi bi komekadura estomagoaren kasos, adoratzen ta deseaten zue biotzas. Azkenean goratus begiak zerura, etzukelaik mias, enkomendatu zue arima Jaunaren eskuetan. Konbentuaren gañean agertu ze izar berri bat gau ta egun orziartaño. Iltze birjina sanda gau milla irur eun ta laurogei ta bat garren urtean.



Martxoaren 27.an San Isazio Monjea

Bekatuengatik datozila Jangoikoaganik kastigoak, baitare abisuak landanik, nai badute emendatu, da egia progatua experiencias. Balente Enperadore herejak persegitzen zitue katolikoak, naiz izanik len asko abisu, ta eskarmentu, etze emendatzen. Agitu ze in zezoten gerra jende barbaroek. Prebenitu ze erresistitzeko tropa andieki: eta atra zelarik joateko, Jangoikoak inspiratu zio Monje sandu bati, atra zekion bidera. Deitzen ze Isazio. Atra zekio bada alzinera, ta erran zio koraje andiareki, Enperadore Jauna, mana bez idikitzeo katolikoan elizak, ta Jangoikoak emanen dio fortuna. Aditu zue arrek, ta etzio errespondatu ere; utzi zue erotako, ta segitu zue alzina. Berze egunean oroat erdetxi, ta erran zio, enperadorea, idiki katolikoan elizak, eta erdetxiko du biktoria. Detenitu ze biktoriaren amorez, nai iduri zue egin erraten ziona: baña konsejari gaixtoek kendu zioten burutik: eta ala segitu zue bere bideas. Andik zenbait egun Monjeak atrarik bidera berriz, ta arturik frenotik zaldia, erran zio, Jauna, egin bez diotena, ezpada nai galdu. Asarraturik Enperadoreak botarazi zue Monjeoi barranku, ta sasidi itsu batean, iltzeien an. Berak segitu zue alzina: eta Ain giruek atrarik libre Monjea plantatu zekio alzinan, zer? Uste zue ilen nitzala an? Emen nago Jangoikoaren graziaz, ta erraten diot errana, idiki dezkiela katolikoan elizak, logratzeko biktoria, ezperen, galduko dela. Etzego aditzeko, baizik ia iraturik arras manatu zioten bi Juezei, guarda zezatela preso, itzuli arteo bera. Ori itzultzen bada ongi, erran zue sanduak, ezta mintzatu ene agos Jangoikoa: baña ez itzuli, baizik ilen da. Joan ze Enperadorea, eman zue batalla, galdu zue, ta iges eginik altxatu ze etxe batean, arri su eman ta erre zute bizirik. Ala bukatu ze bere kulpas. Sandua honratu zute sandu bekala: ala iltze & &.

Aprilaren 1.an San Pedro Gonzalez Telmo

1. S. Pedro Gonzalez jaio ze Fromestan Palenciatik borz lekoa dagon billan, jendaki noblezik. Osaba zue Palenciako Obispa, zeñek egin zue kalonje an, naiz gastea zen orañ, ta ez ongi zoriturik. Logratu zue in zezaten ere Dean, baita kalonjeen buru, naiz zuen arinkara burua orañ. Posesio artu zuen egunean, baize eguerri, nai zue zelebratu festa munduko banidade ta ponpareki: bestiturik galas, iganik zaldi arrogante batean arrullo zebila bere gisako lagun zoroeki karreran karrikas karrika erakusten bere burua guapo. Alako batez irristaturik zaldia loi andi urrintzu batean erori ze, ta bota zue Dean Jauna balsa gartan: Guzia funditurik, ta inmunduzia bat eginik, an zire jendearen irriabarrak, txistuak, ta oiuketak. Gelditu ze alke-gorriturik arras: eta ezaundurik Jangoikoaren abisu grazioso, antxe berean in zue proposito, despreziatzeko ta despeitzeko mundua ala burlatu zuena iago gozatu uste zuen egunean. Sartu ze S. Domingoren erreljionean, ta deskritatu naiez galdu zena munduari emanen eman ze Jangoikoai ain osoki ta gogotik ezi ia ze guzien exenplu ta admirazio. Guzis Uil, obediente, penitente zebaten ze Jangoikoaren komunikazioan, baita orazio mentalan: an itxeiki zekio karidadearen su andi bat biotzean, anhelatzeko beraren gloria, ta arimen salbazioa. Estudiatu ederki sazerdoteari dagokiona asi ze predikatzen Jangoikoaren itza Aingiru bat bekala mintzaera onas, ta bizimodu obeas. Zelebratzen da berexki beraren beratx amoltsu afable bakeskoa zelo fiñareki bateo. Kontatzen da berze gauza onen erlean, ellegatuas geros nonnai, etzela atratzen konfesatu gabe etxeo guziak, ezi bereala aipatzen zue konfesioaren ona, ta bere grazia onareki beraxten zitue arriak ere, ta sutzen biotz izoztuak ere. Bere konbersazio ta predikuen asunto komuna ze, edo bekaturaren desgrazia, kalteak, eta desdixak, edo birtutearen on eta gozoa emengo bizian ere, ta gloria bizitza sekulakoan. Kontatzen ere da, ezi edozein garaiez jakin zezan norbait konfesatu bear zela, etzela baratzen in artañ errealki, eta orgatik istantean uzten zuela jana, loa, erredua, estudioa, ta edozein lan zena zela: Iduri baizekio, edozein arima irabaztea dela goratzea lurretik Jesus onaren odol prezioso bekala, oinpetan zebilatena. Zelo goneki inguratu zue España geiena predikatus; ta akonpañatu zue S. Fernando Erregea Moroan kontrako gerraetan. Non geienik egon zen, izan ze Galizian: an in zitue lan onak, konbersione anitz, ta milagro fran-



ko. Abisaturik zerutik noiz bear zen igan, alaere humil eskatzen zue predikuan, enkomenda zezatela Janpikoai egin zezon miserikordia, zeren ezi naiz iduri bizitu nai zela kuidaoreki zuen ertean, zio, ez naiz fiatzen ene bizitzas ainberze, ezi ez dezaten ezaun bear dutela zuen orazioak. Azkenekatzen zue ferbore iagoreki penitentzia ta konfesioaren nezesidadaea. Eman zio azken heritasunak erri batean: andik eramanarazi ze Tuy deitzen den ziudadera, ala nai zuela Jangoikoak. An konfesa-komekatu-rik, ta oliaturik konsolazio andiareki, deitu zue ostatuko Nausia, ta erran zio afable, ene adiskidea, geldi zaite Jangoikoareki, ta bera biz beti zure etxean. Ni banoaie berze bizitzara, eta dut Nausi bat ain ona, ta liberala, ezi naiz guti zerbitzatu dioten, nai dida pagatu anitz, ta honratu ni mereji baño iago. Nai du geldi naien emengo Patrono bekala, faboratzeko jendeari ene medios. Barka zadazu trabaju nik emana heritasunean; uste dut pagatuko dizula abasto ene Jaunak, ezi ni pobrea naiz, ta eztut zer eman. Arzazu ene korrea gau, ta guarda zazu ene atenzios, ezi emanen dizu probetxu noizbait. Ondorean paraturik orazioan eman zue bere espiritua Jangoikoaren eskuetan errepausa andian, 1246 urtean. Asko milagro egin zue len ta gero.

2. Bein zoeielaik bisitatzera erri bateko Apez bat heri zegona, atra baize bazkal orduan, berria aitu orduko, amenik artu gabe bi laguneki, aldapa andi bat iganik, ia lagunak naiz gaste izanik, zeude angabeturik; eta erran zio batak berzeari, fraile on gau nola baita zarra, ta guti jatera kostunbratua, eztu senti nekerik; baña guk ezta posible segitzea gisa gontan. Ezaundu zue sanduak Jangoikoaren argis murmurazioa, ta erran zio, ene humea, gose barin bauzu, zoaz peña gartara, erakutsi zio erias, ta an aurkituko duzu zer jan oraingoan. Joan zire bi lagunak, ta aurkitu zuzte bi ogi esnea bezain txuri serbilleta batean, ta botella bat ardo. Ekarri ziote sanduari, ta sanduak erran ziote jan ta edan zezatela nai zutena, ta gañarakoa utzi zezatela aurkitu zuten lekuan. Ala eginik, segitu zute biajea; egin zue bere lana: eta itzultzean joan zire aiek artzera utzi zutena leku gartan, baña etzute aurkitu deus. Predikatzean bein Baionan kanpo agerrian, agitu ze tenpestade erru bat al ze, ortots oñastur, ta erauntsi andieki; asi ze jendea eskapatzen: sanduak sereno, Zauzte geldi, ez beldur, Jangoikoak guardatuko gaitu: eta goraturik eskua lañu aldera, ta formatu-rik guruzearen seña-lea, partitu ze erauntsia bi aldetara, utzirik erdian jendea ukitu gabe. Baña itsasoko arrixkoetan iago miragarri mostratu da: libratus asko aldiz nabeganteak eriotzetik, ezi orgatik inbokatzan dute Patrono bekala deitzen dutela S. Telmo Portugalen, Bizkaian &.

Aprilaren 2.an San Hugon Obispo Granoblekoa

1. Sandu guzietaik daike atra bizitzaren exenplu, naiz berze estado-
tan bizitu ziren. Orra S. Hugon Granobleko obispoa exenplu on bat asko birtuteen. Bere Aita noblea, lenik soldado, gero bi aldiz ezkondua, azken-
nean kartujo iltze sanduki eun urtetan. Ama nai zelaik egin errelijiona
oroat, gelditu ze seme sanduaren konsejus gobernatzen etxea, ta an zer-
bitzaten Jangoikoa egines obra onak. Biei lagundu ziote ongi iltzen
semeak. Jaio baño len au, izan zue Ama onak zerutik señaie izanen zena-
ren: orgatik azi zue iago kuidaoreki. Azirik ongi, ta estudiaturik bear
zirenak, egin zute kalonje Franzia-ko Valenzian: eta etorririk Franzia-
ra Aita Sanduaren Legado batek artu zue bere konpañian laguntako. Bitar-
teo Granobleko kalonjeak joan zire Legadoagana eskatzera, eman zezo-
ten beren Obisopotako Hugon. Gusto andiareki nonbratu zue, naiz gaste
izanik oraño ogeitazazpi urtetakoa, berak nai etzuela niolaterere, zeren
Eaize txoil humila. Ordutik asi zekio Demonioa tentatzen Jangoikoaren
kontra gogoratu espezialki beraren probidenziaren gain, nola permitzen
duen gaixtoen goratzea, manatzea, ta kanpatzea munduan, ta onak ego-
tea zokoa atzendurik, edo persegiturik. Berrogei urtes iraundu omen zio
tentazio gonek inkietatus arima, baña garaitu ez beñere: entenda dezagun
eztela bekatu tentazioak sentitzea, baizik konsentitzea. Aita Sanduari
deklaratus au, ta bere deus gutia obisopotako eskatu zio libra zezan kargu
gartaik. Aita Sanduak konsolatu ta animatu zue eramatera Jangoikoareki
bateo, ta konsagratu zue obispo, ta bere bedeizioa emanik biali zue bere
Obispadora.

2. Aurkitu zue ura estado txarrean txoil, erosten ta saltzen zirela eli-
zetako Benefizioak, ezkontzen publikoki eliza-gizonak, usatzen usurak,
gizonkiak federik gabe, emastekiak alkerik gabe, obispoaren errentak gal-
durik, ta guzia perdizio ta konfusio-
ne, ala nola alor bat soro utzia, kardus,
larres, belar gaixtos betea. Aflijitu ze, baña ez etsitu: Itzuli ze Jangoikoa-
gana lenik eskatus orazioan; gero asi ze paratzen dilijenzia ta mediorik
obenak erremediatzeko, ia predikatus guziei, ia konsejatus bat banaka:
zenbat sufritu zuen, nork explika? Bi urteren buruan edo pensatus protxu
guti atratzen zuela, edo bere burua seguratu naiez egin ze Monje Klunia-
zense, ta egon ze Nobizio bekala urte batez, admiratus guziak humilda-
deas: alik eta manatu arteo Aita Sanduak itzuli zeie-
la bere elizara. Itzuli ze



trabajatzera berri berritan alor nekoso gartan. Irur urteren buruan etorri zekio S. Bruno bere laguneki desengañaturik munduas: ebei eman ziote eremu bat an deitzen zena Kartuja, non fundatu zuten bere erreljione deitua Kartujoena. Eta obispo sandua nola baize alakoen adiskide, joaten ze maiz aien konbentura, non egoten zen guzien meneena becala guziei zerbitzatzan kontent de manera ezi S. Brunok ze preziso erran zezon itzuli zeielá kuidatzera bere ardies. Berze trabajuen gañetik erregalatu zue Jangoikoak buruko ta estomago min andies, progatzeko ta errefiñatzeko santidadea. Orazioan ta lekzioan sentitzen zue negarren dono deitzen dena: baitare aditzerakoan konfesoak, de manera ezi bere negarreki negar inarazten ziote penitentei ere. Emastekien konfesoak ere aditzen zitue: baña ain ze honesto ta modesto aieki tratatzean, ezi berrogei ta amar urtes izanik obispo, iteko andiak maneaturik persona genero guzieki, ez omen zue ezaun zen bistas emastekirik, ezpaze pobre adinetako bat zerbitzatzan zuena etxeko lanetan. Murmurazioas zue alaber kuidado andia, ez aipatu, ta ez aditu nai berzeren kulpak, aski zituela bakotxak bereak konfesatzeko. Berririk kontatzea niork, etzeio kuadratzen. Gezurra aborrezitzen zue eabruaren alaba becala: eta bera ze ain egi-errallea, ezi bere kontrario andi batek, naiz asarre sanduareki, konfesatu zue beñere etzuela aitu gezurrik arren agotik. Ain biotz bera ze pobreeki, ezi emateagatik ebei, barutzen ze bera: eta jaten zuen miseria gura iduri zekio zela edekitzea pobreei: eta bear ertxietan etziote barkatzen ez eriko erastunai, ez kalizei, ez baso sagratuei.

3. Bakeak egitean zue ainberze kuidado ta zelo, ezi ezpaze aski erratea, paratzen ze belauriko, ta agian loiean paraturik asarre zeudenen erdian. Ala beraxten zitue biotz gogorrenak. Predikatzean bada, etzuelaik ajolarik mintzaeras, baizik probetxu egiteas, ze ain ferboroso, ezi askotan asten zire adizaleak klamatzen miserikordia kontrizioaren erruas, eta batzuk konfesatzen an oius beren bekatuak: nola agitu zekion il zuen bati bere senarra benenos. Birtute guziak izan zire admirableak obispo sandu gontan, baña prinzipalki humiltasuna, beti baizeuka bere burua deustako: beti porfiaz eskatzen Aita Sanduei, batai, ta berzeai, eta irugarrenai, joanik bera, paratus belauriko, alegatus atxekiak, adina, inutilidadea, ta indiginidadea, Jangoikoas admitti zezotela deskargatzea karga jasi etzuden gura. Baña firme beti egon zire ez kentzeko elizai alako gizona. Eta errealki egin zue probetxu andia ez solamente bere obispadoan, baitare Eliza Katoliko guzian, defendatus Inozenzio II. Konzilioan. Heritasunareki eskastu zekio memoria gañarako gauzaena, ez ordeá gauza sanduena: eta ala ze gauza miragarria ikustea etzituela ezauntzen asko len ezaunduak, ez

oroitzen ere asko gauza pasatues, baña memorian firme zeuzkiela psalmo ta orazio debozioskoak, zeñen erreztatzen nekarazten omen zitue asistentek: eta niork ez omen zio deus eskatzen manatus, baizik erro atus Jangoikoagatik, Jangoikoak pagatuko dizu, erraten zio: baña norbait desgustatzan baze egiteas, bereala kulpatzen zue bere burua, erraten zue ni bekatorea, golpatus bularra penitenziatan becala. Konde adiskide bati bisitatzera joan zenai konsejatu zio ez kargatzeko bere basalloak petxa ta tributueki, ezpazue nai kastiga zezan Jangoikoak. Arritu ze Konzea aditu zuelaik: zio errebela bide ziola Jangoikoak, ezi solamente bere gogoan pasatu zuela, niork aipatu gabe, etzuela egin ta ez eginen alakorik. Azkenean sufritus oñaze andiak pazienza andiareki eman zue bere espirituá Jaunaren eskuetan 1132 urtean: adinaren 80: ta Obispo izanik 52. Kanonizatu zue Inozenzio II.ak andik urte guti.



Aprilaren 5.an San Bizente Ferrer

1. Jangoikoaren Pregonari andietaik bat izan ze S. Bizente Ferrer Valenzian jaioa, ta S. Domingoren errelijioso. Artako zeukala predestinatirik Jangoikoak mostratu zue jaio baño len, ezi bere Amak sabelean zeramalaik, etzue senti pizu ta enbarazurik, bai ala nola txakurtto baten aukak aldartes an: Konsultaturik misterio goi entendatu ze hume gura izanen zela Predikari andia. Bataiatzera eramatean, etzire konformatzen paratu bear zioten izenean; eta sazerdoteak nai izan zue dei zeien Bizente, ta artu zute ontzat. Amak azizen zue bere esnes kuidado espezialareki, eta aurre ze guzis agraziatua, guziek maite zutena. Amar urtetako bazekie guziek baño iago eskolan; eta mostratako txostaketan bekala bildurik guziei erraten zioten, adi nazaze ta atendi ia nai zen Predikari ona: eta zeñaturik erraten zituen prediku adituak beren meneo ta modueki ain propiki, ezi admiratzen zire aditzen zutenak. Gañarako estudioetan alzinatu ta famatu ze guzien gañetik. Bere dibersio ta gusto guzia zue elizaetan, meza, debozio, ta predikuetan espezialkiro, ta aditzen zuelaik aipatzen Maria Santisima, gozatzen ze biotzean: Jesusen pasioa pensatzean urtzen ze negarretan. Barutzen ze bi egunez asteoro, ta orzilarean ogi ta ur solles. Emezorzi urtetara urbildurik, ezaundus munduko banidadeak, ta peligrak, determinatu zue sartzea errelijioso S. Domingoren konbentuan. Admititu zute kontent an Valenzian: eta kontentago bera asi ze imitatu bear zuela bere Aita S. Domingo. Gero ikusirik abantalla zeramana enpleatu zute erakusten berzei: eta graduatu zute Maestru Teologian. Beti estudioa akonpañatzen zue orazioas: ala argitu zio Jangoikoak.

2. Jangoikoaren ta superioeren borondatez asi ze predikatzen Jangoikoaren itza alako modu ta graziareki, ezi Valenzia guzian bera sollik proklamatzeko zute sandu ta jakintsu; baño laudatorik obenak zire iten zituen konbersione admiragarriak. Demonioak odios ta inbidias nai zue eroriarazi bekaturen batean galtzeko Jangoikoaren grazia, ta jendearen kredita ona zuena. Ortako bein agertu zekio Monje zar venerable baten idurian: erran zio nola izan zen gastezutan aragiaren gustoetara emana: baño gero in zuela penitentzia, ta Jangoikoak eman ziola grazia ta gloria abasto. Eztaikela gizona bizi beti biziorik gabe, erori gabe goiz edo berant; ta ala obe zuela gaste zelarik desahogatzeko, ezi ez gero deshonne iagoreki. Ezaundu zue sanduak infernuko serpientearen konsejua, ta errespondatu zio, uste duk ez autela nik ezauntzen? Eznauk ez engañatu-

ko, nagolarik Kristoreki, zeñi konsagratu baitiot gastezuta, zarzuta, ta bizi guzia. Joan ze ala ura iges futoska, utzirik infernuko usai bat. Askotan meatxatu zue eroriarazi bear zuela: bein espezialki leiturik Maria Santisimaren birjinitatearen defentsatan eskribitu zuena S. Jeronimok, afizionaturik S. Bizente birtute gonon ederrai, zego eskatzen Ama Santisimari grazia bizitzeko ta iltzeko birjin. Aditu zue erran zekiola, ezta Jangoikoak guziei ematen dono goi; ezeta zuri ere ezta emanen, baizik eroriko zara laster. Aflijitu ze orduan sandua, ta negarrez eskatzen zio Ama Birjinai, guarda zezan. Agertu zekio Ama dibina ta erakutsi zio nola zen etsaia erran zitiona itz gaiek. Nik anparatuko zaitut, baño zeurorek in zazu zeure aldetik ere. Konsolatu ze sandua miragarriri: baño etsaia etze desengañatu. Berez etzukea eroriarazi prokuratu zue emastekien medios. Nola baize sandua ain ederra ta agraziatua, artu zio batek afizione sobra Deabruaren inspirazios. Asi zekio bisitatzen konsultatzeko bekala. Baño sandua sandu modesto grabe mostrateareki, etze berzea trebe agertzera bere pasionearen sua. Zer egin zue? Deabruak erakutsirik, heri finjitu ze, ta bear zituela errebitu elizako ordenamentuak. Deitu zue sandua konfesoaren atxekias. Orduan alkea garaiturik asi ze tentatzen indenteki: baño sandua erreprehenditzen fuerteki: eta etzuelaik berze erremediorik, atra ze kanpora. Berzea oiuis sanduari botatus kulpas: baño bereala gelditu ze espiritu gaixtoak arturik tormentatzen zuela izigarriro. Konjuratzen zute sazerdoteek spiritu gaixtoa atra zeien. Ark zio, etzela atrako atrarazi arteo erretzen etzenak suan. Etzute entendatzen: baño gogoratus agian libratuko zuela sanduak, deitu zute. Sandua armaturik orazioas joan ze, disimulaturik agitua, etzen bekala. Ellegatu zeneko an, klamatu zue spiritu gaixtoak, au da gizona ezin erre dena suaren erdian: ia eznaike emen egon; ta atra ze utzirik libre, baño erdi ilik emastekia.

3. Ageri da enxplu gebetan zenbat dezaken malizian edozeñiek Sata-nasi errenditurik: eta zenbat dezaken onean onak Jangoikoaren spirituas armaturik. Ibili ze sandu gau Jangoikoaren Pregonari bekala España geie-nean, Franzian, Inglaterran, Eskozian, Irlandan, Lonbardian, Italian, obratus milagroak abasto aisa nolana, ta iago dena, konbertitus infinizio bat jende onera. Baño zein humil llano amoltsu zen guzieki, aur bat bekala? Zein baliente lotsagarri leon bat bekala, bear zuelaik sarrarazi beldurra? Lanze izan zituenak, trabaju pasatu zituenak, Jangoikoak faboratu zuen manerak gusto litzake kontatzea, baño luze. Honra egin ziona munduak eztaike pondera: baño bere humiltasuna ze iago. Ala fiatu zio Jangoikoak bere graziak. Iltze sanduki Bretañan 1419 urtean. Kanonizatu Kalisto III.ak.



Aprilaren 9.an Santa Kasilda Birjin Mora

1. Agitz maite du gizagendea Jangoikoak, gizonengatik bera gizon eginik amoresko exzesu egintuenes landara, manatzen baikaitu onesteko elkar geuren buruok bekalatzen, ta ongi egiten duguna proximoei ongi pagatzen baitu ain nola berari in balekio. Au ageri da S. Kasildan, zein izanik Mora, ta errege Moro baten alaba, argitu baizue Jesu Kristok, eta egin Kristio ta bere esposa onetsia karidade zuenagatik Kristioeki. Bere Aita Aldemon ze Toledon errepe, ta Kristioen kontrario gogorra: ebetaik asko in zitue prisionero, ta zeuzkie kalabozuan bere palaziora urbil loturik katees, maltrataturik goseak, ta modu gaixtoes. Bere Alaba Kasi la ze biotz-beratxa, lastimatzen ze preso gaietas, bisitatzen noizen noiz ixilkias, ta konsolatzen zitue, eta eramaten ziote jateko gauza, sustentatzeko gose-tiak. Naiz sekretoan eginik, nola iten baizue maiz, norbaitek ikusi, ta Aitari adiarazirik, asarratu ze au suturik alabaren kontra; baña kastigatu baño len, bere begis ikusi nai izan zue kontatu ziotena ote zen egia. Barronde zegolaik bein ikusi zue nola zeraman alzoan bulto bat: atra zekio, ta galdegain zio asarre, zer damazu or? Kasildak errespondatu zio, ezi arrosak eta loreak. Ikusagun: eta agerturik, Jangoikoaren prodijios agertu zire arrosak eta loreak: zein gero eramanik kalabozora ikusi ze zirela ogi ta janari pobre gaiendako. Agitu zena kontaturik, ikusirik Jangoiko onaren probidenzia amorosoa, eman ziote esker milla guziek, ta eskatu ziote beren ongiegillearen onagatik. Baña ez aiek ezi limosna bera ere zego klatmatzen piedade arima garren fabore, dionez Espiritu Sanduak, *conclude elemosy nam in sinu pauperis, et haec pro te exorabit ab omni malo*. ecclii 29. Altxa zazula pobreaken alzoan limosna, eta au egonen dela klatmatzen zure fabore, ta libratzea gaitz guzietatik logratuko duela. Libratu zue Kasilda Moroen erroreen ilunetaik, argitu zio ezaumentua, itxeki zio biotza, ezauntzeko, ta deseatzeko Jesu Kristoren errelijione bakar egiaskoa. Bereala nai ze bataiatu: Baña etxakin nola Moroen ertean: Injeniatu zue Jesus onak eskojitu zuenak nola aranzeetaik arrosa: eman zio gaiz bat onerako, baize odoljoate bat ain iraupetsu, ezi ango Medikuzien uestez ze erremedioik gabeko gaitza. Estado gortan izan zue abisu, dela Jangoikoaren errebelazios, dela berze modus, artzeko bañuak S. Bizenteren lakoan, baize Bribieska-aldean Kristio lekuan, ta orreki sendatuko zela. Erran zio Aitari, biali zezala leku gartara, nai bazue senda zeien, ta bizi.

Etzego artako ura lenbizian, nola Kristioen lekua baize: baña gero ere ikusirik etzela berze erremediorik, alabaren amorez, onen otoi ta otioen utses biali zue ongi akonpañaturik, ta anitz Kristio libre utzi zitueneki Kastelako erregegana, baize Fernando lenbizikoa: errezibitua izan ze honra guziareki: bañatu ze, sendatu ze, bataiatu ze: ta etze nai izandu itzuli palaziora, baizik an eginik ermita bat bere etxolareki, bizitu ze bere denbora guzian sanda bekalatzen, ta iltze gisa berean, mostratus, Jangoikoak beraren santidadea, ta zein kuadrable den beraren begietan anitz milagro miragarrieki, eta Elizak kontatus bere sanduen ertean, ta zelebratus Españaiko zenbait elizaetan. Izan ze bere iltzea Aprilaren 9.an 1047 urtean; erreinatzen zutela España moroetaik libre zen guzian Nafarroko Errege D. San-txo Maioren semeek &.



Aprilaren 11.an San Leon andia Papa

1. S. Leon andia jaiorik Toskanan, ta zegolarik ausente Elizaren itekos, elejitu zute Aita Sandu Elizaren trabaju andien denboran, Anitz herejeen zizañak zeudelarik barraturik Jangoikoaren alor gontan. Baña Jangoikoareki bateo, Enperadore Marziano, eta Pulkeria Enperadora sandaren medios bildurik Obispoen Konzilio andi bat Kalzedonian, deklaratu ze herejeen kontra, dela Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa persona batean. Konzilioa zelebratu ze gure S. Eufemiaren tenploan, eta konfirmatu ze milagro andi bateki, zeren ezi eskribiturik katolikoek ta herejeek beren fedearen konfesioa nork bere libruan, bi libruak paratu zuzte S. Eufemiaren obian edo urnan gorputz sanduaren gañean, ongi ertxirik eta sellaturik, niork uki etzezaken gisan; eta irur egunez orazio eginik, ondorean aurkitu zute katolikoena zeukala sandak eskuan petxoaren kontra, eta herejeena botarik oin pean: orgatik da pintatzea ala bi libruaki, nola ikusten den: eta diote iago, edatu zuela sandak eskua, ta katolikoena eman ziola Enperadoreari, ta Anatolio Konstantinoplako Patriarkari. Eskribitu ere zue S. Leonek ederki Enkarnazioko misterioaren gain, eta ez fiatus bere buruas paratu zue S. Pedro Apostoluaren obian, barutus ta orazio egines berrogei egunes, emenda zezan, barin baze emendatzekorik, bialtzeko Kristiandade guzia barna. Ondorean aurkitu zue bere eskritura emendaturik, ta apareziturik S. Pedrok seguratu zue ziola, *leitu dut ta emendatu dut*: eta sei eun ta ogei ta amar Obispo bildurik zeudenek Konzilioan aprobatu, beneratu, ta laudatu zute agitz: eta Jelasio Aita Sanduak gero exkomekatu zue etzuen errezibitzen osoki azken jota edo tildetaraño: entenda zagun nola kuidatzen duen Jangoikoak bere Elizas, azertatzeko egietafedeetan.

2. Elizako jendeen bizimoduas ere zue kuidado andia, beiratus espezialki nolakoak ziren ordenatzen zirenak sazerdote ta obispo. Eta ezta admiratzeko egin zezan ala, zeren ezi bein eskatus bere S. Pedrori berrogei egunetako barus ta orazios, erdetxi zezola bekatuen barkamendua, agerturik Apostolu sanduak erran zio, nik otoitz egin dut zuregatik, ta zure bekatuak dire barkatuak: baña beira ongi noren gañean paratzentuzun eskuak, eta nor ordenatzen duzun, ezi ortas eskatuko zaizu kontu ertxia. Sandu gonon denboran agitu zire anitz kalamidade munduko bekatuentzat: eta Jangoikoak nai izan zue bizi zeien orduan Pontifize sandu

gau guardatzeko Piloto gisa S. Pedroren barkoa, baita Eliza, etzeien ondatu ainberze ekaitzen erdian. Orduan izan ze, noiz Hunoen Errege Atila deitua, ta Jangoikoaren azotea sartu zen Italian iles, erres, ta urratus guzia, ta zego determinaturik sartzeko Roman. Mogiturik karidadeas S. Leon, armaturik orazios, konfianzas, ta Jangoikoaren espirituas atra ze bidera, ta ellegaturik arren presenzian mintzatu zio ain grabe, prudente, ta propiki, ezi beraxtu ze barbaro gura, itzultzeko atzerat gaizkirik in gabe. Arriturik guziak arren ala mansatuas, galdeturik bereek motiboa, errespondatu zue ikusi zuela Leonen aldean gizon benerable bat meatxatzen ziola ezpata biluxiareki, ura mintzatzekoan, ezpazio obeditzen. Pensatu zue bide zela S. Pedro. Oneki itzulirik S. Leon errezibitu zute Roman milla esker, aklamazio, ta aleganziaeki libratuagatik galmendetik guziak. Baña guti iraundu zio, zeren denbora labur Bandaloen Errege Jenseriko, zeñi oroat bidera atrarik mintzatu zion, sartu ze Roman, sakeatu ondasunketa infini-zio bat, ta atra ze erre gabe etxerik, ta kendu gabe bizirik sanduaren otoien kasos.

3. Ondorean Artzai ona ta Aita bekala asi ze biltzen bere saldoa, erreskatatzen kautiboak, konsolatzen aflijituak, erremediatzen guziak, sinetsiarazis zire la Jangoikoaren azote amorezkoak, purgatzeko, ta emendatzeko. Ortas landara fabrikatzen, konpontzen, ta adornatzen temploak: ordenatzen anitz gauza Kristiandazearen gobernuan, ta alzinamentuan: alako maneran, ezi zeukate, zen bekala, Jangoikoaren gizona, ta eman ziote andiaren izen-goitia. Iltze agitz adin anditakoa, manteniturik S. Pedroren katedra ogeita urte batez, txoil ez: Kristoren 471 urtean. Zelebratzen dute ez solamente sandu, ta agitz sandu, baitare Doktore jakintsu, sendo, ta elegantea bekala &.



Aprilaren 14.an Santa Lidbbina Birjin

1. Pazienziaren esenplu anitz Kristoren atzetik paratutu bere Elizan: bat admiragarria izan ze S. Lidbbina birjina Olandakoa. Zazpi urtetakoa zelarik konsagratu ze Jesu Kristori betikos. Amabi urtetan izanagatik guziz eder agraziatua nai zute anitzek esposatako; baña desengañatu zitue buratsoak ta guziak, etzuela nai berze esposorik, baizik Jesu Kristo: zeñek nai izan zue labratu, ta errefinatu beretako trabajuen ta pazienziaren po dorez. Amabortz urtetakoa zelarik, autxi zekio kostillezur bat; andik segitu zire ainberze ta ainberze gaitz, ezin konta ala, trabajatus Mediku ta Barber guziek banoan kuratzeko, baita admiragarri juntatzea gorputz batean ainberze, ta ainberze sufritzea, ta ez akabatzea alaere. Ogeitamar urtez ez omen zue jan ogi ainberze nola dezaken batek irur egunez. Ezin lorik egin; ezin ibili, ta ez mogi, ezpaze arrastaka: ta zenbatenas iago erremedio, gaizkiago. In zekio entrañetan apostema bat, nondik atratzen ziren montonka arrak ain andi lotsagarriak, ezpaizeike beiratu ere izitu gabe. S. Antonen su deitzen denak konsumitu zue ezurretaraño: beso ta sorbalda usteldurik, ta beren lekutik atrarik: burua josirik itzeeki bekala oñazeui: begiak, ortzak, txintxurria, kasi mienbro guziak beren miñ gisaeki: ago, sudur, ta bearrietaik alako ur gorri bat jariten zekiola kantidade arrigarrian. Nork erran llaga, ta oñaze zituenak barnetik eta kanpotik? Nork erran sukar kontinokoak? Bizi doloresko gontan, obeki dei baitaie erio-tze luze lastimagarria, bizitu omen ze ogeita emezorzi urte pobre desanparatua, niork etzuela erremedia, baizik Jangoikoak heritzen zuenak. Añaditzen ze, batzuek ez nai izatea sokorritu deustas, berze batzuek pensatzea gaizki ta persegitzea mies, nola emasteki gaixtoa, ta Jangoikoak berak ere bai aldartez uztea konsolaziorik gabe progutako.

2. Lenbiziko laur urteetan aflijitzen omen ze ezin aurkitzeas alibiorik penaetan, alik eta sazerdote batek desengañatu zuen etzuela aurkituko bizi guzian konsolurik niondik, ezpaze pensatzean Kristoren pasio doloreskoan: utzi emastekien jardukiak ta pensa zezala pasatu zuzten penaetan Kristok, ta Martirek. Ekarri zio komekadura, ta erran zio, orai arteo nik predikatu dizut idukitzea presente Jesu Kristo guruzifikatua, orai berbera etorri zaizu bisitatzer ta animatzer. Itz gebek aditurik sanda asi ze, eta egon ze negarres amaborz egunes, ta ala animaturik, ezi andik alzina guzia ze deseatzea trabaju iago ta iago. Eta peste agitu zen batean leku

gaietan, eskatzen zio Jangoikoai barka zezotela jende gaieti, ta kastiga zezala bera. Ta eman zitio Jangoikoak irur llaga penatzeko berzeen onagatik. Bera Amari iltzerakoan egin zio donazio bere irabazi guzies, ta orreki Ama iltze kontent. Amak utzi zitien gauzak, ta jende onek ematen zitiotenak errepatriarazten zitue beartsuei, bera naiz beartsuena izanik. Eta ze ikusgarri, bere zoko gartaik kuidatzea erremediatzeas asko ta asko nezesidade, ta heritasun ere berzeetan, gelditus bera beterik miserias. Bisitatzen zute asko jende gisaek bere purgatorio gartan; guziei ematen ziote abisu onak, ez esenpluas solamente, baita itzes ere, nori bere gisa.

3. Zue komunikazio kontinoa bere guardiako Aingiruareki, ta maiz ikusten ere zue. Errebelatzen zitio arrek asko gauza sekreto, urrunekoak, ta gerokoak: eramaten ere zue espirituhan Jerusalengo lekuetara, ikusteko Kristok pasatu zuena aietan: baitare infernura ta purgatoriora, ikusteko ango penak. Bere Aingiruas landara ikusten zitue berze asko Aingiru, zekizkie aien izenak, eta nor noren guardiako zen. Jesus berak agerturik inprimitu zizkio bere llagak: baña logratu zue etzeizen agertu señaiek. Bisitatzen zuten personek ezaundu zute zela erregalatua zerutik: sandak erran zue, egia da, ezi ezperen ezin lezake iraundu txakurto gonek, ezpa-lezote eman zenbait apur zeruko maietik. Il zekio anai bat: sentitu zue arrebak sobraxko, ta Jangoikoak txurtu zitio erregaloak: ta eremutar batek gastigatu zio zela, zeren etzuen izan konformidade perfektoa. Orgatik gero il zekiolaik Aita, egon ze akordu obean. Zein libre naituen lurreko afektoetaik bereak gure Jaunak! Beren biotzetako sekretoak deklaritzen zitiote askoei aien onerako: baitare peligro zirenak, guarzeizen. Erreljioso batek eskatu zio enkomenda zezala, ken zezon Jangoikoak zer ere kuadraten etzekion berabaitan, ta estorbu zen bere salbazioaren. Zue arrek boza on bat, ta ortas banidade. Zer agitu ze? Sandaren orazioareki ura gelditu ze marranko bozarik gabe. Jarri ze kuran; baña Medikuak jakin zuela agitua, despeitu zue etzuela kuratuko medizina heritu zuena Jangoikoak, ta etzekiola ere konbeni.

4. Baña sanda bera izanik ain maite uzien Jaunak nola ezta sendatzen? Zergatik duen maite, orgatik ezta sendatzen: nai du irabaz dezan gloria agitz gora gorputzaren kostus. Errebelatu zio denbora, noiz bear zuen eraman beregana. Eskatu ziote barkazio guziei despeidako. Bazkoaren gauean presentatu zire beraren ganbaran Jesus ta Maria Apostolueki. Konsolatu zue Jaun dibinoak, ta unjitu olio sanduareki betetzen zuela guzia zeruko atxon miragarrias. Ia gerostik nai zue utzi zezaten bakarrik aur txipitto bateki. Bitarteo aumentaturik gorputzaren oñazeak, ta arimaren antsiak, aurttoak abisatus sartu zire bere etxeoak, eta konfesoera, ta



aurkitu zute ilik. Asko lekutan izan zire errebelazioak bere gloriaren, ta zeruan in zekion errezebimentuaren: eta adiarazten ze lurrean ere, zeren ezi gorputza bizian egon zena itsusi llagatua lotsagarriri, il ondoan agertu ze sano eder glorioso, aurpegia espezialki ain grazia eder admirablean, ezpaizeike ase berra egones, ezeta pintoreek pintatu ain propiki. Milagroak segitu zire abasto sandaren gloriatan, honratus Jangoikoak bere eskla-ba fiela ainberze sufritu zuena beragatik. Bere iltzea agitu ze Aprilaren amalaugarrenean, milla, laur eun, eta ogeitamirugarren urtean. Diote bizitu zela berrogei ta amirur urtes, ebetaik ogeita emezorziak heri &.

Aprilaren 16.an Santa Engrazia Birjin ta Martir

1. España erregatzen zebilalaik Martiren odolas Daziano Presidentea Enperadoreen ordes, agitu ze Portugalgo Jaun andi batek tratatzea ezkontzeas bere alaba bat deitzen zena En grazia Rosellongo Duke, edo Komandante bateki, Franziapokalean. Biali zue Nobia akonpañaturik anitz jendeeki, aien ermean emezorzi kaballero aideeki, zein baizire Kristio, ta Engrazia ere bai, ta konsagratu naiak Kristori bere birjinidadea, ta bizia. Etzue intenziorik ezkontzeko; baña aiturik pasatu bear zuela Zaragozara urbil, non zen eskaida ona pasatzeko martirio Jesu Kristoren amorez, erresolbitu ze joatera Nobia gisa emateko bizia bidean. O Jangoikoreen miragarriak! O Teologia zerukoa, ez dezakena munduak entenda, ta agian ez sinetsi ere, nola donzella delikatu noble batek ez nai munduko boda andi aberatsa, ta nai duen iago martir iltzea, ta on kontatzen ta ansiatzen duen gogotik ere nola bodarik obena! Orgatik, eta zeren Jesu Kristok eman zition señaleak pasatu bear zuen martirioaren, igateko gloriara zelebratzera berareki boda eternoak, zoeie alegre gure Nobia, ta ellegatu naiak len baño len Zaragozara. Ellegaturik, bereala informatu ze an pasatzen zenas, eta utzirik munduko kunplimentu guziak, sollik Jesus bere esposo dibinoaren amorez amorosturik joan ze Presidenteagana, ta erranik nor zen, nondik, nora, ta nola zoeien, erreprehenditu zue arren itsutasun kruela iltzeas ainberze inozente, etzutenak kulparik, baizik adoratzeta Jangoiko bakar egiaskoa, utzirik aien Jangoiko falsuak. Arriturik gelditu ze Daziano, beiratus alde bat donzella garren ederra, korajea, ta nobleasuna, ta akonpañamentu zeramana, berze alde libertade ta ausardia gura, zeñeki mintzatzen zion. Baña gero erresumindurik bere iraren suas manatu zue lotu zezatela: ta bere lagunak ere bai: Azotarazi zitue guziak kruelkiro: eta zeren S. Engraziak goratus boza gaizki erraten zuen aien Jangoikoes, ta Emperadorees, eramanara zizue arrastaka ziudadea barna. Biramonean zegolarik sanda maltraturik tormentu gartas, orren gañetik eman zitio berze anitz kruelagokoak, dlskurritus Dazianok, ta inzitatus Demonioak, nola penarazi iago. Arraskatu, ta larranzi zioe gorputz guzia burriñasko aztaparreki ain erru, ezi atra omen zioe gibel puska bat, zein gero guardatu zen errelikia, ta ikusi zuela dio Prudenzi Poetak. Ebaki zioe ezkerreko bularra, agertuartaño biotza. Ain lastima bat eginik zego guzia, ezi kapa, zeñeki gero estali zuten, gelditu ze guzia odolestatu-



rik: zein ere guardatu omen ze, ta ikusi omen zue S. Eujenio III.ak Toledo Arzobispoak. Tormentu gebek guziok etzire askitu, kentzeko sandari Jesu Kristoren amorea biotzetik, eztare alegranzia, koraje, ta ausardia mostratzen zuena. Ori ikusirik Dazianok, ta alako tormentueki etzela akobardatzen, ta ez akabatzen berere, manatu zue utzi zezatela ala llagaturik, sentiarazteko iago denboras oñazeak ta erresumiñak luzatus bizia. Martirio errua, egon ta egon ala penatzen iltzeko doloreeki il gabe, ta zenbatenas luzeago, erruago! Azkenean frinkatu ziote kopetan golpeka itze andi bat: oneki bukatu ze martirioaren korona. Emezorzi lagun gaiek degollarazi zitue ziudadetik kanpoan. Agitu ze Kristoren 304 urtean. Sandaren ilaria zelebratu omen zue Obispo batek deituak Prudenzio, akonpañatus milagrosoki anitz Aingiruek ta sanduek jautsirik zerutik: eta beti errelikia gaiek izan dire agitz estimatuak. Rabioso Daziano ezin garaitu Kristioen konstanzia, nai izan zitue akabarazi beingoas: ortako pregonarazi zue atratzeko ziudadetik Kristio guziak alako egunean, joateko desterraturik berze lekuetara. Atra zire gizonki emasteki txipi andi guziak egun señalatu. Gero ertxirik portaleak, etzeizen arara derepente atrarik tropak, altxaturik zeudenak ortako, goratu zire aien kontra, ta il zuzte, axuriak bekala, guzi guziak ezin konta ala; orgatik deitzen baitire Zaragozako Martir innumerableak. Eta etzeizengatik izan honratuak gero aien errelikiak, ilarazirik alaber karzeletan zeuden gaizki egilleak, manatu zue aieki bateo erretzeko Kristioenak. Baña sanduen errautsak Jangoikoaren milagros berexi zire aienetaik, ta elkarreki uniturik egin zire ala nola pella txuri batzuk, deitzen direnak masa kandida: ta ikusten dire egungo egunean S. Engraziaren Elizan Martiren pella, edo bola gaiek txuriak odolaren kolore mostratzen dutenak in Breviar. Rom. 3. Novembr.

Aprilaren 16.an Santo Toribio Liebanakoa Obispo

1. S. Toribio Astorgako Obispoa izan ze Española, ta Palencian jaioa ustez, ta gizon sandu, jakintsu, ta fede katolikoaren defendazale gupoa. Debozios joan ze Romara, non ezaundu zuen S. Leon Aita Sandua: eta Jerusalemgo leku sanduetara, nondik ekarri zuen anitz errelikia beneratzen direnak Liebanan, non dagon bere gorputz sandua. Itzuli zelaik Españara, aurkitu zue anitz apestaturik Priszilianoren herejias. Au apegatu zio arri Marko deitzen zen jito batek; eta arrek izanes aberats ausardia ta mintzaera onekoa, barratu zue asko lekutan, gero iago berriz, egin zutelarik Obispo. Herejia gura zego sinestean bakotxak duela bere izarra, ze ñen suzejiora bizi den, ta zeñek inaraztention onkiak eta gaizkiak: ta berze alako gezur ta patraña. S. Toribiok bereala kuidatu zue atratzeas zañetaik herejia goi: predikatzen ta eskribitzen zue orren kontra: ta Jangoikoak ere konfirmatzen zue milagros sanduaren doktrina, ezi bein Palencian despreziatzen zutelarik Jangoikoaren itza, igan ze aldapa gora batera, nondik eskatu zuen eskarmentu on bat zerutik, desengañazeizen herejeak. Eta derepente ango ugaldea, deitzen dena Karrion, atra ze ametaik, sartu ze zitudadea barna, ta urratu zue zati on bat. Eskribitu ere zue anitz obispoei, gora zeizen kontra: eta azkenik Aita Sanduari, baize S. Leon andia, zeñek Artzai-buru bekala, eskritura luze batean laudaturik S. Toribioren zelo ona, erreprobatu, konfunditu, desegines herejeen erroreak Jangoikoaren argiareki, manatu zue biltzeko Obispoak, ta kondenatzeko errore gaiek. Ala egin ze, obeditu guziek Aita Sanduari, arrazio den bekala, espezialki S. Toribiok guzien gañetik trabajatu zuenak, zeñek al guzia egin zue kentzeko liburu gaixtoak, zeñetan edaten den benenoa ustekabean. Segitu zue obratus ta predikatus, ta konfirmatus fede katolikoaren ona bere bizimodu onareki, doktrina sandueki, bukatu arteo bere bizia eriotze prezioso bateki Kristoren laur eun ta irugeigarren urtearen inguruan: eginik Jangoikoak anitz milagro beraren medios.



Aprilaren 21.an San Anselmo Obispoa

1. Jaio ze S. Anselmo jendaki nobletik Augusta Pretorian. Amaborz urtetan nai izan zue sartu errelijionean: baña Aitaren beldurrez etzute admititu. Heritasun izan zuen batean berritu zue bere proposito gura: baña sendaturik joan ze atzendus, ta epeldus, ta lazatus, ez solamente bizi-moduan, baitare estudiorako aplikazioan. Jangoikoaren permisios artu zio Aitak alako oposizioa, ezi etzue ikusi nai begien alzinean. Au izan ze okasio, eskapatzeko etxetik Anselmo, ta joateko lagun bateki Franzia. Estudiatu zue an Lanfranko deitzen zen Maestru andi bateki, ta probetxatu ze anitz, ez letraetan sollik, baita birtuteetan ere. Berritu zekio lengo deseo gura, izateko errelijioso; konsultaturik gizon sandueki sartu ze bere Maestruaren konbentuan, ta irur urteren buruko ia egin ze guzien hispillu santidadean de manera ezi egin zute Priore nai etzuela bortxaz: estudiatus bidanabar okupatzen ze prinzipalki orazio mentalean. An Espiritu Sanduaren suak bateo argitzen zio entendamentua, ta bateo itxekitzen zio biotza. An erdetxi zue espirituen ezaumentu, ta prudenzia bat miragarria, kidatzeko ta gobernatzeko suabekiro. Ala onerutzen zitue gaixtoak, obetzen onak. Artu zio oposizio zar batek etzuenak ikusi ere nai sandua. Sanduak segi ongi egiten; ura firme bere seta gaixtoan. Heritu ze Jangoikoaren permisios, ta iltzeko arrixkoan gau batez asi ze klamatzen, ezi bi otso lotsagarriek nai zutela ito. Sandua sartu ze an; egin zue guruzearen señaleara, Aitaren ta Semearen, ta Espiritu Sanduaren izenean: Bereala heria sosegatu ze, ta konfesatu ze; ta erran zue, ezi Anselmok egiterakoan guruzearen señaleara, ikusi zuela beraren agotik atratzen susko lanza bat bekala, zeñeki lotsaturik otso gaiek joan ziren iges. Sanduak animatu zue izatera dolore bekatues, konfesatu ta absolbitu zue, ta abisatu ilen zela arratsaldean: ta ala agitu ze, gelditus guziak admiraturik bere karidadeas, ta Jangoikoaren argi zuenas. Heries zue kuido espeziala, ta konpasiene bearran ziren guzies. Eta ala guziak konfianza andiareki zoezi beragana, nola Ama amanteagana. Usatzen ze denbora gartan ermatea kaballeroen semeak azitzera konbentuetan. Abade batek kontatu zio nola etzeiken bizi aieki, beti enredatzen ta gaistakerian, naiz azotarazten zituen ederki. Galdegin zio Anselmok, nolakoak atratzen ziren azotatu gaiek gero azi ondoan? Erreondatu zio ezi geroago ta gaixtoago. Sanduak orduan erakutsi zio, bear direla azi amoltsuki sufritus, ta loxentxatus de manera ezi

segura daitzen maite tugula, ta aien onnaies ai garela. Gisa gontan daike espera fruitu, berze gisas ez.

2. Ikusirik munduak sanduaren ona, ta ongi eginak, famatu ze, ta egin zute lenik Abade, gero Kantuariako Arzobispo Inghaterran, berak agitz desplacer; plazer zutela guziek. Lenbizian Erregek nonbratu zuenak ongi tratatzen zue: baña gero, naiz sandua izanik gusto in naia guziei zeiken guzian, gero ezin eginez manatzen ziona Erregek, artu zio oposizio de manera, ezi sandua erresolbitu ze ausentatzer; ta ortako eskatu zio lizenzia, joateko Romara errezibitzeko pallioa Aita Sanduaganik. Erregek turbaturik errespondatu zio, bera zela Aita Sandu Inghaterran, ta etzuela ezaunzen ta eznaip aipa zeien berze Aita Sandurik. Aflijitu ze sandua ikusteas ukatzen obediencia Pontifize Sumoari, ta zenbait Obispo ere inklinatzen ortara. Berriz eskatu zio lizenzia joateko: ta erregek etzio eman nai, ezpaze joateko desterraturik ez itzultzekotan. Orduan sandua despeiturik bereenganik, bestiturik peregrino gisa joan ze Franzia: andik Romara; eta guzietan barratus bere santidade, jakintasan, ta prudenziaren errañoak. Franzia itzulirik jakin zue an Inghaterrako Errege iltzela eizian zebilalaik, biotza traspasaturik saeta batez. Zer pena artu zuen, zenbat negar egin zuen orgatik, eztaike pondera: naiago zuela il baze bera arren partez. Arren semeak itzularazi zue bere Obispadora: baña laster biali zue Romara; azkenean gero ere onetsi ta estimatu zue; ta orgatik faboratu zio Jangoikoak. Ala errepausaturik sandua, emanik guzia Jangoikoai ta arimen kuidoai, sakramentuak errezibiturik iltze sanduki Kristoren 1109 urtean. Egin zue asko milagro bizian ta il ondoan.



Aprilaren 23.an San Jorje Martir

1. S. Jorje M. gloriosoas anitz kontu kontatzen dire ain zierto eztiarenak; erranentugu sollik sinestagarriak. Jaio ze Kapadozian jende noble aberatsetaiek: azi ze Kristiotasunean ongi; eta gastea zelarik, izan ze gorputz ta indar anditakoa, soldado ta kargudun agitz estimatua Enperadore Dioklezianoganik, etxakinez Kristio zela Egun batez Enperadoreak ustez bere inperioa sustentatzen zuten bere Jangoiko falsu gaiek, ta galduko zela, ezpazire beneratzen, proponitu zue bere konsejuan konbeniente ta preziso bekala debekatzea Kristioen erreligiona, ta persegitzea ta akabatzea Kristioak nai etzuztenak beneratu. Bere Jaundiek aprobatu ta laudatu zute determinazio gura. Sollik S. Jorjek errepugnatu zue seguratus bat sollik dela Jangoiko egiaskoa beneratu bear dena, Kristioek iten duten bekala. Ezaundu zute Enperadoreak ta gañarakoek, Jorje zela Kristio; eta asi zire kendu naiez burutik opinione gura, beira zezala bere adinaren lorea, nobleza, honra, dignidade, ta konbenientzia zituenak, ta izanen zituenak obeditus Enperadoreari, ta ezperen, kalte andiak. Batere etze mogitu erran guziarki, baizik baliente ausart guzien alzinean erran zue, o Enperadore Jauna, obe ludue orrek ere ezaun batez ta adoratu Jangoiko bakar egiaskoa; obeki berak segura lezoke emengo inperioa, ta eman lezoke berze bat eternoa ondorean. Ezaumentu gau eman dida niri; ta ala banoan dire promesa ta meatxu in dakizkidanak, apartarazteko ene Jangoikoaganik.

2. Bereala koleraturik Enperadoreak inarazi zue preso, ta eramanik karzelerara iduki an kargaturik burriñas arri pizu baten pean. Biramonean prebeniturik errueda bat armatua punta tzorrotzes manatu zue tormen-tatzeko artan zatikatus aragiak. Bitarteo konsolatu zue boza batek zerutik ziola, Jorje, arimo ona, ta ez lotsa, ezi ni nago zureki. Eta ikusi zue gizon argi-eder bat ematen ziola eskua, besarkatzen, ta animatzen, pasatzera penak. Ikusirik sanduaren konstanzia ta balentia, konbertitu zire anitz, ta aietan bi Jenerale, zeñei bereala edekiarazi zue bizia. Baña sanduari zen-batenas iago tormentu ematen zioten, anbat iago mostratzen ze beraren konstanzia, ta aumentatzen Kristioen alegria, Infielen konfusioea, ta Enperadorearen errabia, ezpaizekie ia zer egin, garaitzeko biotz andi gura. Asi zekio loxentxus, ta laudarios mintzatus amoltsuki, etzeiela utzi galtze-ra alako gizona, in zezola plazer adoratzeara aien Jangoikoak, bera izanen

zuela fabore Aita bekala. Sanduak ezaunarazteko Jangoiko egiaskoaren podorea erran zio, Nai badu, Enperadore Jauna, Len tenplora, ta ikusagun zer Jangoiko diren adoratzentutenak oiek. Alegre arrek ustez aldatu zen Jorje, deiarazi zue Konsejuko ta Korteko jende guzia, ikustera sakrifizio Jorjek ofratu nai zuena. Bildurik guziak zeude Jorjeri beira, zer inen zuen: Au urbildu ze aien Jangoiko Apoloren estatua ta eskua goraturik erran zio, nai duk errezubitu Jangoiko bekala eneganik sakrifizio? Erran ta formatu zue guruzearen señalea; ta orduan Deabruak estatua gartaik errespondatu zue, ni ez naiz Jangoiko, ta ezta ere berze Jangoikorik, baizik orrek predikatzen duena. Sanduak orduan, nola bada atrebizten aiz i egotera ene presenzian, nai zelaik ni Kristio? Itzebetara aditu zire lamentuatik estatuen agoetaik bekala, eta guziak erori, ta putxikatu zire an. Aien sazerdoteek irratzen zute jendea, ta lotus ta golpatus sandua, klamatzen zute oiuz kenarazteko andik, ta ilarazteko sorgin gura. Enperadoreak tur-baturik oiuz gaieki, ta anitz kristiatzeareki milagroagatik, beldurrak, bizi baze iago, iago konbertituko zituela, manatu zue bizia edekitzeko. Leku-ra zirelaik, eskatu zue denbora apur bat, egiteko orazio. Egin zue orazio gau: O ene Jangoiko Jauna, denbora guziak baño lenago dena, ta berexi nauena ni beretako, Kristioen ta bere zerbitzukoan esperanza ta anparo bakar egiaskoa, orren baitan konfiatzen dutenen ondasun guzia, ta maitatzen dutenei itentiotena mertxedeak eskatubano lenago ere; adi benaza, otoi: bada eman dida graziaz indar ta pazientzia, sufritzeko ainberze tormentu, ta konfesatzeko berorren izena, orai errezi bez ene arima, ta para bez bere eskojituen erlean. Barka bezote jende ignorante gebei in dutena ene kontra, ta Kristioen kontra: eman bezote argitasun, ezauntzeko berorren Majestadea: bada nai du guziak salba daitzen, eman bezote eskua eskatzen diotenei, ta berorren beldur ta amore ona, on amatus imita dezkiten sanduak, zeñeki goza daitzen berorren glorian. Ondorean edatu zue lepoa, ebakitzeko: Iltze Aprilaren 23.an. Famatua izan ze S. Jorjeren martirioa. Justiniano Enperadoreak fabrikatu zio tenplo andi bat. Erre-geek, eta Militareek inbokatzen dute Patrono bekala gerraetan, & &.



Aprilaren 25.an San Markos Ebanjelaria

1. S. Markos Ebanjelaria, S. Pedroren agun, interprete, ta eskribizalea, deitzen duela bere hume maitea, izan zuena espiritu biziorra, injenio, ta mintzaera elegantea, izan ze alaber Predikari ederra. Predikatu zue Ejipton, Zirene, Pentapolis, ta berze asko ziudadeetan. Baratu ze Alexandrian, non argitzen zue iruzki berri baten gisara. An fabrikatu zue S. Pedroren nonbrean eliza bat: an konbertitu ze infinizio bat jende: an bizi-tze zire asko, ez gizon bekala, baizik nola Aingiru batzuk lurrekoak. An guziek zute nola biotz bat, ta arima bat, ta guzia komun, guziena guzien, proprioki nola Kristoren familia guziak elkarren anaiak erraten zutenak egiaz Aita gurea zeruetan zaudena. An lenbizikorik asi zire deitzen Kristioak edo Kristorenak. Etzuke aguanta Deabruak ainberze edatzea Kristoren erreinua; eta ala inzitatu zitue infiel itsutuak persegitzeko ta ilarazteko sandua eman nai ziotena bizia. Informaturik ortas S. Markos, prestatus agi zeikenera, etzei zen, bera faltaturik, gelditu ardiak Artzaiik gabe, ordenatu zue Obispo bere ondorengo Amano, ta berze batzuk sazerdote, Diakon, ta elizagizon: eta utzirik ebek Alexandrian, itzuli ze bera Pentapolisa, non seguraturik fedean fielak, ordenaturik obispo ta sazerdoteak, bi urteren buruan itzuli ze Alexandriara. Ori jakinik Jentilek igande batez billatu zute, ta gero ere aurkitu zute meza erraten: Preso egin, ta soka bat lepotik loturik ibili zute arrastaka sandua karririk barna larranzis ta golphatus guzia, ta odola zeriola. Etze akabatu iles, eta zego ematen Jaunari eskerrak padezituas beraren amorez.

2. Ala erdi-ilik utzi zute karzelean preso gau artan. Gauerdirat atariak ertxirik, ta guardiak zentinelan zeudelaik, asi ze ikaritzen lurra, eta Aingeru batek jautsirik zerutik ukitus sandua erran zio, Markos Jangoikoaren sierbo ona, zure izena dago asentaturik bizitzaren libruan, eta zu zara kontatua Apostoluen numeroan, ta zure memoria biziko da betikos: Aingeruek errezibituko zaitute zeruan, ta zure gorputzaren errelikiak honratuko dire munduan. Goratu zitue eskuak zerurat, ta eman zizio graziak alako faboreas, eskatus humilki, errezibi zezala beraren espiritua bakean. Mostratzeko aditu zuela orazioa, agertu zekio Jesu Kristo bera, munduan bizi zeneko figura berean, ta erran zio amoroso, bakea zuri, Markos ene Ebanjelaria. Sanduak errespondatu zio, bakea berorri, ene Jaun Jesu Kristo. Nola konsolatu, eta animatu zen oneki, nork erran? Biramon goizean

atra karzeletik, ta berriz arrastatu zute furia berareki leku arrizu ta latzak barna, eta ala akabarazi zute Martir. Nai zute erre gorputza, ta ortan asi orduko, Jangoikoaren permisios goratu ze derepente urakan erru bat ortots, oñastur, ta arrerauntsieki; ala ezin egin zute nai zutena; anitz bai gelditu zire ilik kanpoan, ta asko etxe erori zire. Gero Kristioek depositatu zute leku dezentean: andik gero pasatu zute Beneziara, non tenplo admirable batean beneratzen baitute debozio admirableareki Patrono andia bekala: eta Beneziako errepublikak darama armariaren insignia S. Markosen leona, Kristok erran zition itz gaieki, bakea zuri, Markos ene Ebanjelaria, *pax tibi, Marce, Evangelista meus*: ta S. Markosen izena dauka Errepublikak berea bekala; ta ala oroat da an erratea, S. Markosek ordenatzen, edo manatzen du, nola Republikak ordenatzen edo manatzen du. Agitu ze S. Markosen martirioa Aprilaren 25.an: Kristoren iruogeita laugarren urtean. Egun gontan egiten dire Eliza guzian litania maiorak deitzen direnak, eskatzeko Jangoiko Jaunari grazia beartugunak arimen ta gorputzendako, ta usatzen dire lengo ta lenbiziko denboretaik onat & &.

Aprilaren 27.an S. Pedro Armengol. p. 292.



Aprilaren 29.an San Pedro Martir

1. S. Pedro M. santidadearen hispillua, Predikarien modela, Italiaren honra ta gloria, Eliza guziaren muralla, fede katolikoaren egiaren proguru erreala, herejeen ta herejien mallua, Kristio onen alzindari ta exenplua, gaixtoen alkaizun, ta erremedioa, sazerdoteen perla preziosoa, Jangoikoaren gizona propioiki, ta Jesu Kristoren imajina bizia jaino ze Beronan, baita Lonbardian. Buratsoak zirela hereje Manikeoak, dakigu; zer jendaki, zer izen, zer apellido zuten, eztakigu, por konsigiente sanduarena ere ez: agian adiarazteko, Jangoikoarena zela zen guzia, ta zerutik zuela bere etorki prinzipalena. Martir apellidoa paratu dio, apellido noble gora, dionez S. Ambrosiok, aski baita deitzea Martir, honratzeko daiken guzia. *Appellabo martirem: praedicavi sans*, deitukokut Martir, orreki predika dut aski, ta laudatu. (de Virgin 1. 1.) *San Pedro Martir*, irur itz, irur laudario. San nai du erran *sandua*; Pedro *peña* edo arria: Martir *testigo*. San Pedro Martir, sandu señalatu: *peña* firmea: testigo egiaskoa. Herejeen aranzetaik bada atra zue Jangoikoak arrosa eder gau, etzena deus iduri aiei kondizioetan, baizik guzia kontra. Bada dionik, esnea artzen zuelaik unide katolikoaganik, etzuela artu nai herejeaganik.

2. Zazpigarren urtean zebilalrik eskolan, andik atratzean aurkiturik Osaba herejeak galdegin zio ia zer ikasi zuen: aurrak erraten dio, ikasi dut Kedoa: *Nik sinestutzen dut Jangoiko Aita guzis poderoso, zeruaren ta lurraren Kriadorea baitan*. Zaude zaude, dio Osabak; eztuzu erran bear *zeruaren ta lurraren Kriadore Jangoikoa*, ezi Deabrua da, ta ez Jangoikoa, kriatutuena ikusten diren gauza ebek. Aurrak porfia tieso, Jangoikoa dela kriatutuena. Ark porfia kontra, baña ezin kendu zio bere tenia sandua: kontatu bai buratsoei pasatu zekiona aurrareki: atra zezatela eskolatik, ezi beldur zela aien kontrario fuertea izanen zela. Baña ez arren konsejuek, ez buratsoen meatxuek eta kastigoek etzute mellarik egin txipittoaren biotz andian, uzteko egietafedea. Laster ikasirik eskolako dena, joan ze Boloniara estudiatzera goragokoak. Denbora labur alzinatu zue anitz ez solamente estudioetan, baitare birtuteetan, erretiroan, debozioan, modestian, honestidadean, ta on den guzian, demanera ezi gaixtoen artean ze ona, frinkaturik biotzean Jangoikoa, ta etzuela ofenditu bear sekulan grabekiro bentzait; eta errealki ala kunplitu zue, zeren ezi dionez Brebriarioan sandu gonon errezuana, *gorputza ta gogoa alako maneran guardatu zitue mantxa guzietatik, ezi*

sekula bere bizian etze sentitu mantxaturik bekatu mortalaren bateki. Zori onekoa gizona aurkitu dena mantxarrik gabe, dio Espiritu Sanduak (Eccli 31.) *Nor da au, lauda dezagun?* Auda S. Pedro M. Famatu ze ia estudiante ona ta bear bekalakoa Pedro Beronakoa. Baña seguratzeko, erretiratu ze erreljioearen portura. Bizi ze orduan Bolonian S. Domingo, ta bere eskus bestitu zio bere habitua, ezaundus naski nolako humea atrako zen ura. Sandu gaien artean sandutu ze iago ta iago Fr. Pedro Beronakoa: beti okupaturik zer edo zertan, edo orazioan, edo estudioan, edo heriei zerbitzatzean, ta gañarako lanetan. Penitziaria ze guzis emana, demanera ezi barutus sobra, sekatu eztarria, ta ertxi zekio agoa, nekez ta doi doia idiki baizite instrumentus pasarazteko zerbait sustentu, ez iltzekotan.

3. Alde bat birtuteen estudioan, berze alde teologia, ta gañarakoetan egin zue ainberze abantalla, ezi gasterik oraño ia jakintzu ze ta sandu. Ordenatu ze sazerdote: ta nork explika aldareko sakramentuan gustatzen zuen Jangoikoaren ona? Amorezko sugartaik itxeki zekizkion sugarrak? Ia su dibino garrek etzue uzten sosegatzera: zebila antsiatzen ta anhelatzen prokuratu naiez Jangoikoaren honra ta gloria, ta arimen salbazioa. Asi ze konfesatzen ta predikatzen zelo andiareki. Pulpitotik heritzen zitue biotzak, ta konfesionarioan aplikatzen erremedioak. Bere predikazioaren idea, ta zimendu prinzipalena komunkiro ze penitziaria. Baña predikatzen zuena mias kon firmatzen zue bizimoduas. Zeukate sandutako zen bekalak, ta ala aditzen zute nola Aingeru bat, edo berze mundutik etorritako gizon bat. Igaten ze pulpitora armaturik Jangoikoas: Beiratzen zute penitziaren erretrato bat bekalak: beraren itza baize propioiki Jangoikoaren itza, bizia, efikaza, penetratzen zena iago ezi ezpata tzorrotza. Asten ze komunkiro Jonas Profetaren itz gaieki, *Adhuc quadraginta dies, et Ninive subvertetur*: Ea bekatariak, beira ezi Jangoikoaren besoa dago goraturik, ia ia tiratzeko bere iraren ezpata: galduak zarate, ezpaduzie egiten penitziaria. Beira zer ai zaraten: etzaitzela deskuida. &. Eta nola biotza baizeuka itxekirik Jangoikoaren amoresko suan, eta biotzetik atratzen itzak, etzire itz otzak, gureak bekalak, baizik zoezi suturik, erretzeko edo berotzeko adizaleen biotzak. Ontan zuen donoa ze miragarria, ta propioiki Jangoikoarena: Fruitua ze ariora abasto: Bada jendearen debozioa aditzera, gose ta egarri gisa gura, nola pondera? Elizak etzire aski jendeketaren: Kanpoan bear ze paratu pulpito edo katedra: pasatzekos lekura, bear zute artu soñetan gizon azkarrek. Florentian, Romanian, Marka de Ankonan, Italia guzian beiratzen zute Apostolu bat bekalak, baña espezialki Milanen. Zekitelarik eldu zela, atratzen zire urrun errebizitzera festas ta aleganzias: eta ainberze antsia zute, ellegatu ta apatu naies beraren habitua edo eskua,



ezi paratzen zute biziaren peligran ertxitu sobra, de manera ezi preziso izan ze egitea litera edo anda gisa bat, artan eramateko soñen gañean. Bitarteo bera ondaturik bere Jangoikoan uzkur humil humila, nola ezpaltitz Ka, baizik berzeren bat, nori iten zioten honra gura. Ala dire Jangoikoaren gizonak.

4. Baña obratzeko alako gauza onak ta miragarriak, non, edo nola prestatzen ze, errebestitzen ta armatzen ze Jangoikoaren espirituas? Itz batez, erran al badaike, non ta nola Jangoikostatzen ze? Itz batez diot, orazioan. Au da sanduen sutegia, ta ofizina sandutzeko. Orazioan konbersatzen ta kornunikatzen da gizona Jangoikoareki, ta Jangoikoa gizonareki; ta ala apegatzen dio bere kondizioetaik. Orazioan Jangoikoareki zue bere errepaua S. Pedro Martirek al zuken guzian. An egoten ze sakramentuaren alzinean, al bazuke, espezialki gauas kontenplaten, amores erretzen, gozatzen, sandutzen; askotan sentidoetaik kanpoan, askotan elebaturik airean gora, askotan inguraturik argitasunes. Lenbiziko joan zelaik Rabenara, otz, ekaitz, ta elurketa aldi batez, ellegatu ze gauas bustirik ta otzak pasaturik: Eta sartu ze berotzera: non ote? S. Juan Bautistaren tenploan. Egon ze gau guzian an orazioan: eta bitarteo ango ezkildorrearen kaskoan agertu ze tortxa, edo zuzi andi miragarri bat itxekirik sugarretan argi eder, ta etzela batere turditzen elurketa guziareki. Ikusi zute askok, ta joanik tenplora aurkitu zute an belauriko sandua bere Jangoikoaren orazioan; ta entendatu zute Jangoikoaren argi ederra zela sandu gura eldu zekiotena argitzera zeruko bidean. Ala zegolaik sanduareki Jangoikoaren eskua, obratzen zitue prodijioak. Bazuke erran, ta bazio S. Pedro Martirek ziona S. Pablok, *pensamentu on bat ere izan ez dezaket neureganik; baña guzis poderoso naiz, ta guzia dezaket indar ematen didanareki bateo, au da, Jangoikoareki.* (Philip. 4.)

5. Baña petardo gisa bat grazioso eman zio bein Jaun onak bere sandu goni, probatzeko pazienza. Bere zeldan zegolaik orazioan, biali zizio zerutik ango irur donzella gloriosa, baitire S. Ines, S. Zezilia, ta S. Kata-ma, bisitatza sandua. Bazukete aiek ere mintzatu ixil ixila, baña Jangoikoaren permisios klaro mintzatus, aditzeareki norbaitek kanpotik emastekien mintzaera sanduaren zeldan, eman zio kontu Prioreai. Onek berze fraileen alzinean eman zio erreprehensio bat gogorra, ustez lurrekoak ziren bisitan egon zirenak. Sanduak ezna agertu Jangoikoaren faborea, ezeta ere diskulpatu bere burua, in zuena ze egotea auspeska lurrean, ta konfesatzea bekatari zela. Biali zute preso desterraturik konbentu soil batera. An penitenziaturik kulpante bekala zego, ta deshonoraturik, egon ta egon, esperan Jangoikoak atrako zuela egia: baña berantetsirik asi ze afli-

jitzen gizona bekala, ez ainberze bere deshonreas, nola ezin probetxatzeas arimen onerako nola len. Etzuelaik berze konsolurik, ta ezna ere, baizik Jesus guruzifikatua, urtiki ze beraren oñetan negarrez, Jauna, bada gisaontan naukate ni berorrek inikako faboreagatik; nola ainberze denboras permititzen du? Nola ezna libratzen, dakielarik eztutela kulparik? Jaun onak gurutzetik errespondatu zio amoltsu, *Eta nik, Pedro, zer kulpa paratzeko ala guruze gontan?* Aiturik itz gebek, konfuso alde bat, berze alde animoso gelditu ze pasatu naiak iago ta iago Jaunagatik: baña bere Majestadeak probatu ondoan sandua, ikusiarazi zue guziei beraren santidadea.

6. Berriro asi ze karriatzen arimak Jangoikoagana: eta bekatarien onetan dono andia izanik, txoil espeziala ta miragarria zue, konbertitzeko, edo konfunditzeko herejeak. Inozenzio Aita Sandu IV.a egin zue fedearen Inkisidore; ta kunplitu zue ofizio goi ezin obeki. Bein hereje platikari astuto batek argumentu enganatieki apretatu iduri zue. Sanduak erran zue, enkomenda gaitzen Jangoikoai, txuritzeko egia. Sartu ze eliza batean; egin zue orazio: atra ze gero, ta erran zio herejeari, proponi zezkiela bere argumentuak. Baña ura aurkitu ze mutu, loturik mia, ezin atras itz bat ere. Berze bat konbertitu ze, ez arrazios, bai orazios, ta manatus sendoki sinesta zezala. Bein Demonioak tentatu zue fedean: eta belaurikaturik Ama Birjinaren imajinaren alzinean, argi zezan, aditu zue erraten ziola, *Pedro, zuregatik eskatu dut nik, eztaien falta zure fedea.* Lanze on bat agitu zekio sanduari bere adiskide on bateki, zein engañatu zuten sanduaren kontrarioek sinestazaris, Ama Birjina agertzen zekiotela, ta erakusten sanduaren kontra. Eraman zute leku soil batera, non sorginen arte gaixtos agertzen zekioten Deabrua Ama Birjinaren idurian. Agerturik an guzien alzinean Ama Birjina finjituak Deabru egiazkoak erran zio erreprehensio bat, zergatik sinesten zituen Fr. Pedrok erranak, zelarik enbustero bat erakusten zituena falsedadeak: etzezola sinesta deus. Gelditu ze gizonoi arriturik: eta urbilen aldian joanik sanduak arren etxera berzeetan bekala, erreparatuzue etziola mostratzen ain begitarte ona, nola len. Zer motibo berri du, erran zio, baitirudi dagola ene kontra? Errespondatu zio, zer ezta izan bear, engañatu nauelaik orrek ni gezurres! Ama Birjinak berak desengañatu nau, ta erran dida zer bear duten sinestatu. Sanduak sospetxatu zue zerbait maraña Deabruaren; ta erran zio, baldin Ama Birjinak erakusten badu berzerik, sinestatuko diot nik ere. Arrek, betor alako egunean, eta ikusiko du. Ofrezitu zio baietz. Bitarteo abisatu zitue berze gaiek. Ellegatu zelaik egun gura, sandua arturik aldareko sakramentua zeramala bereki altxaturik, agertu zelarik ura, sanduak agertu zue sakramentua, ta erran zue grabe, emen dago egiaz Jesu Kristo; ori barin bada



Ama Birjina, adora bez bere seme dibinoa, baita on baño iago, Jangoiko den aldetik. Istantean furia andi bateki desagertu ze, utzirik an infernuko usai bat, eta gizonoi arriturik, ta desengañaturik.

7. Berze bein zegolaik sandua predikatzen kanpo agerrian, etorri ze karreraka Deabrua zaldi beltz itsusi furioso bat iduri zuela jendearen kontra. Sanduak ezaundurik formatu zue guruzearen señaleara, ta bereala desegin ze itzal gura guzia niori gaizkirik egin gabe. Berze bein examinatzerakoan Obispo hereje bat plaza batean jendetze andiaren presenzian, zego iruzki beroa sobra, eta hereje alkegabe batek guzien ertetik oiuegin zio, akaba bez ia, hipokrita engañazalea; edo ain sandu barin bada, nola sinpleek uste duten, mana bez estali daien iruzkia, ezkaitzan emen erre biziirik. Sanduak Jangoikoaren inspirazio erran zue, baldin hereje daudenek emen ofrezitzen baute sinestea egi eta fedea, estaltzen bada iruzkia, nik ofrezitzen dut au Jangoikoaren partetik. Aiek etzute nai: baña ala ere sanduak belauriko eginik orazio, momentuan paratu ze iruzkiaren alzinean lañu lodi andi bat in ziotena itzal freskoa guziei. Milango aldiritan bi nekazari, bata katoliko, berzea hereje; eraikitzean arrek enkomendatzen zue Jangoikoak, onek Deabruai, zein uste zuen dela ikusten diren gauzen Kriadore ta Jaun. Jakin zue ori S. Pedro Martirek, eta eskatu zio Jangoikoai, guzien Jaun ta Jabe zelako señaletan, eman zezola Nekazari katolikoari eraizio ona, ta herejeari pikorrik ez. Ala agitu ze; ta herejearen alorra gelditu ze soro bekala: oneki ezaundurik egi, konbertitu ze. Ikusine herejeek sanduaren prodijioak fede katolikoaren progutan, nai zute des-kreditatu engañazale bekala. Ortako injeniaturik zute finji zeien aietatik bat heri, zegolaik sano. Joan ze ura ezin joanes bekala, kolore gaitz, atsa ezin erdetxi, ta iltzen iduris. Zoezi atzetik gaixtoak intenzio gaixtos, baldin asten baze sendatu nai zuela, errateko etzela zeren, ezpaizue gaitzik, ta ala gezurrez zirela berze sendatu zituela ziotenak. Heri finjituak ederki lamentatzen zue itxurapenez. Sanduak Jangoikoaren argis malizia ezaundurik, erran zue, Jangoikoai eskatzen ziola, iduriarazten bazue heritasun etzuea, eman zezon heritasun egiaz. Ala izan ze: heritu ze sines; etsitu zute arren bizias, alik eta konfesatu zuen arteo oiue tranpa in nai zutena. Eskatu zue barkazio sanduari; eta sanduak urrikariturik eman zio arimaren ta gorputzaren sanotasuna. Il ondoan ere sandua ikusirik batek pintaturik kanibetareki buruan, ta ezpatareki bularrean, erran zue, o aurkitu banitza ni presente, il zutelarik traidore gau, zein gogotik sartuko nion ezpata gorputzean barna! Erran zueneko gelditu ze mutu Jangoikoaren permisos. Baña bereala konfesaturik biotzas, ta damaturik bere gaizki

eginas, bereala sandu onak ere barkatu ta logratu zio mintzoa, ta konbertitu ze.

8. Bazebiltza bazebiltza herejeak nondik ilarazi sandu glorioso. Aurkitu zute Asasino bat ofrezitu ziotena ilen zuela, pagatzen baziote ongi. Eman zioe aiek nai zuen diru guzia: ta ia zebila injeniatzen eskalda ona. Sanduak izan zue zerutik abisu, nola logratzen zuen grazia eskatu zuena bizi guzian, baize iltzea Martir: zeren ezi egunoro mezan sagra ondorean egiten zue petizio gau biotz guzias, *Jauna, ez permiti il nadien ni goatzean, biazik il nazaten berorren fede ta amoreagatik*. Bere gustoko berri on gau jakinik, pulp itoan iganik Erramu igandean erran zue publikoki, bazekiela zeukata saldurik, ta emanik dirua, edekitzeko bizi, zein bera zegoen prest ematera gogotik ere fede katolikoagatik: baña il ondorean inen ziotela iago gerra herejei. Bada Aprilaren borzgarrean, bazkoaren oktabezperan, naiz zeri kuartanaeki, atra ze Komotik Milanako bideas bere ofizioko itekos: bide erditsutan, Bardaxina deitzen den leku batean, atra zekizkio bi Asesinoak; eta bata eman zio alfannje batez buruan: erori ze lurrera sandua, ta asi ze erraten Kredoa: (eta bada dionik, bere odolean eria bustirik eskribitu zuela lurrean, Nik sinestatzen dut Jangoiko Aita guzis poderoso &) Gero begiak goratus zerurat erran zue, *orren eskuetan enkomendatzen dut ene arima*. Ikusirik orain bizi zela, sartu zio bularrean ezpata, oneki atra ze arima andi gura zerurat, izateko an koronatu irur koronas, Martir, Doktore, ta Birjin bekala. Biramonean errezi bitu zute gorputz sandua Milanen prozesio ta ponpa solemne bateki. Gerostik ia Jangoikoak honratu zue milagro berrieki: Herejeak asi zire humillatzen, ta franko itzultzen federa; gañarakoak konfuso despreziaturik. Sanduaren ilzalea deitzen zena Katino justiziaganik iges ia ia iltzeko peligran libratu ze, ta sartu ze sandu gonon errelijionean, non eginik penitentzia bizitu ze ta iltze sanduki. Eta au da S. Pedro Martiren berze biktoria bat, ain nobleki mendekatzea bere kontrarioas garaitu gaizkia onareki, emanen bizi eman zionai eriotzea. Sanduaren obiagañean ikusi zire zeruko argiak: lanparak itxekitzen bere kabo. Milanen bedekaitzen dire olibaen palmak eta erramuak, dutenak birtute ausnarrien ta arrerauntsien kontra. Il ta urbilen urtearen Martxoaren 24.an, urtea bete gabe, kanonizatu zue Inozentio IV.ak berak laudatus laudario andieki. Eta zierto da sandu bat au mereji duena guziek lauda dezaten leku guzietan &.



Aprilaren 30.an Santa Katalina Senakoa Birjin

1. S. Katalina de Sena edo Senan jaioa, ofiziale pobre batzuen alaba, izan ze Jesus onaren esposa espirituale agitz maite erregalatu. Sanda gonon bizitzan izan zire anitz gauza miragarri, ta ez imitagarri. Ogeitamirur urtes bizitu ze, baña infinizio bat on egin zue. Aurttoa zelarik ere, bazitue mostrak, zela Jangoikoaren eskojitua, ain eder agraziatu amablea, ezi guziek zute agitz maite, ta gutitan uzten zute bere etxean, guziek eramaten zutela beren etxeetara gozatu naiez aurtto gonon grazia, jenio ona, ta diskrezio admirablea. Borz urtetan errezatzen zue abe maria ain ongi, nola baizekie noreki mintzatzen zen. Eskaleak igatean askotan belaurikatuz grada bakotxean erraten zue abe maria. Sei urtetan eldu zelaik bere anaiatto bateki etxerat, ikusi zue S. Domingoren elizagañean Jesus ona agertu zekiona miragarriri. Sandattoak paratu zitue begiak Jesus ona baitan, ta Jesus onak amoroso beiratu zio sandattoari, ta eman zio bedeizioa: eta ain xoraturik geldi zego aurra, ezi bere anaiak etzuke oiuz itzularazi berebaitan, tiratu arteo fuerte; orduan nola idatzarri balitz lo andi batetik erran zue, o anaia, zuk ikus bazindez ikusten dutena nik, etzin duke nai apartatu beñere emendik. Itzuli zitue begiak berriz ikusteko, baña ia etze ageri, ta asi ze negar ta negar utzias ikuste gura. Ia ordutik etzue iduri aur, baizik adinetakoa, ta komunikatu zekio anitz argitasun ezauntzeko anitz gauza. Zazpi urtetan ia zego ain arturik Jesus onaren amorez, ezi konsagratu zio bere gorputz ta arima, eta bera zen guzia, egines boto perpetuo birjinidadearen, artus Ama birjina Patrona bekala, guardatzeko promesa.

2. Adinera zelaik, ezkonarazi nai zute buratsoek etxakinez boto egin zuena: baña urruti zego estado gortaik sanda, naiago zuela il. Zue aizpa bat ezkondua deitzen zena Buenabentura agitz maite zuena. Onek konsejatu zio, naiz etzeien ezkondu, adorna zeiea galas eder. Egin zue ori zenbait egunes: baña ortas gero negar egin zue bizi guzian: eta bere aizpa konsejatu ziona iltze andik guti, ta pensatu ze ezi Jangoikoaren kastigos orgatik: baña sandak enkomendatus arren arima izan zue errebelazio, salbatu zela, purgatu ondoan ederki purgatorioko suas. Oraño buratsoek porfiatzen ziotte ezkonarazteko; eta sandak desengañatzeko bein goas ebaki zue bere buruko bilo ederra. Tatatu zute orgatik aiek gogorki, ta manatu ziotte kuida zezala sukaldeas, ta etxeko lan nekoso ta apalenes. Guzia kunplitzen zue humil humila, ta ezin joanes elizara, nai luken beka-

la, bere petxoa kontatzen zue tenplo gisa, ta aldare biotza: an biltzen ze gogoas, ta mintzatzen ze afektoas bere Jesus onareki elzeen ertean ere, ta lanen ertean. Eta bere Aitak ikusi zue bein zoko batean zegola orazioan, ta burugañean uso txuri bat desaparezitu zena berla: eta ala ezaundurik Jangoikoaren gauza zela, manatu zue utzi zezatela bere alaba bere Jangoikoareki an konpon zeiea. Nork erran orai sanda gontan egin zituen lan onak Jangoikoak? Nork adiarazi beraren birtuteak, penitenziak, tentazioak, biktoriak, pazienza, humildadea, karidadea, ta gañarakoak? Nork entenda Jangoikoaren miragarriak, erregaloak, eta faboreak? Tratatzen zue bere maitea bekala kontino: agertzen zekio maiz: mintzatzen zio amoroso. Erran zio bein, *zuk pensa enebaitan, eta flik pensatu ta kuidatuko dut beti zutas*. Oneki sanda gelditu ze ala nola utzirik ta seguraturik Jangoikoaren besotan, zetorrena zetorrela. Ta eskribitu zue libru bat Jangoikoaren probidenziaren gain: an tio milla gauza on; bat da, Jesus onak erakutsi ziola fabrikatzen ariman ganbara ertxi bat bere probidenziaren bobeda fuertearreki, egoteko an segur atra gabe ez eskurik ez oñik, geldi errapausa betean. Erakutsi ere zio, eutxi zeiea guruzeari, ta goza zeiea trabaju ta penaetan. Ala bere bizia ze trabaju pasatzea; ta ori gabe etzue bizinal.

3. Jangoikoaren permisios infernuko etsaiak persegitzen ta tentatzen zue milla maneras, imajinazio ta amets torpeeki, arimaren begien alzinean ikusiarazis gizonki ta emastekiak erraten ta egiten itsuseriak. Sanda firme bere Jangoikoaren besotan aborrezitus kontra dena biotz guzias. Alako aldarte baten ondorean agertu zekio Jesus ona; o ene Jesus ona, erran zio, non egon da orai arteo? Nola utzi nau ainberze denboras? Errespondatu zio, zureki egon naiz beti ene esposa Katalina. Jauna, dio ark, nola zegoke nereki orren Majestadea nituelaik imajinazio ain itsusi gaiek? Jaunak, eta zindue plazer agian aietan? Ez Jauna, zio sandak; naiago nuke erre bizirik labe batean. Jaunak orduan, on da señale, nindegola ni zureki, ezperen, zer inen zindue? Eztuzu deus galdu, baizik irabazi, ezi sentitzea ezta kulpaa, baizik konsentitzea. Baña sanda denbora gartan al zuken guzian, egoten ze elizan, zeren an etzuen etsaiak ainberze indar tentatzenko. Ezin garaitu zukelaik berez, billatu zue berze medio bat. Andre zar bat zeukana bularra usteldurik, niork etzukea sufri usai gaixto botatzen zue nagatik sandak karidadez kuidatzen ta zerbitzatzen zue. Deabruak inzitatuzue andre eskergaitz gura, emateko sandaren kontra, graziak eman bearran. Berari gaizki erranka egotea guti zela, goratu zio zela emasteki txar deshonesto ere. Sandak sufritus serenidade admirableareki segitu zue ongi egiten, naies bateo kuratu ariman ere. Eskatzen zio Jesus onari arreatatik ta beregatik. Agertu zekio Jaun dibinoa bi koronaeki, bat urrekoa eskuie-



ko eskuan, berzea aranzeskoa ezkerrekoan, auta zezala zein nai zuen. Errespondatu zue sandak, nie bizi gontan nai dut konformatu orren doloresko pasio ta penaeki. Erran, ta artu zue korona aranzeskoa, ta frinkatu zue buruan fuerte sentitus oñaze erruak. Jaunak manatu zio segi zezala kuidatzen heri gura; beraren honras kuidatuko zuela bere Majestadeak. Ala izan ze: Ark ezaundurik bere kulpa, ta sandaren onegia, itzuli zio honra klamatus goratu ziola malamente gezurrez. Berze batek artu zio sandari oposizio fuerte bat, egin zio asko txarkeria botatus etxetik ere: kastigatu zue Jangoikoak: ala ere etze emendatzen: Paratu ze iltzen; ala ere segi bere tenia. Sandak negarrez eskatu zio Jaunari arima garren fabore: ta logratu zue: zeren ezi ura irur egunes egonik agonian ezin iles, Jangoikoak biotza ukiturik, akorritu ze, ezaundu zue bere kulpa, konfesatu, komekatu, ta oliaturik iltze. Bere Aita iltzeko zegolaik, sandak eskatu zio Jaunari, luza zezon bizia, konbeni baze, ta ezperen, libra zezan purgatorio-riko penaetaik, bera ofrezu zen zela pagatzera arren partez. Aditu zue Jaunak, zeren ezi Aita iltzen puntuan, asi ze sanda sentitzen oñaze bizi bat iraundu ziona beti. Ama berriz, deitzen zena Lanpa, ze ain eriotzearen beldurti, ezi aipatzea ere etzezake sufri, ez eta heri andi zegolaik ere. Alaba sanda penatzen ze ain konformidade gutias, ta zego otoi ta otoi Jaunari erremedia zezan: Jaunak errespondatu zio abisa zezala, ezi orduan ezipazue il nai, biziko zela ainberze trabajutan, ellegatuko baize deseatzera iltzea: ta bizitu ze laur ogei ta bedratzi urte, ongi beterik trabatus. Bere personas iten zituenak alako karidadeak, zer etzue emanen, izan bazue? Ematen zue arrapatu al zuken guzia, tresenak ere, atorra ere, lepoko gurutettoa ere, berzerik ez izanes.

4. Arimen onetan ze bere karidadearen fintasuna, gose ta egarri gura salbatu naies proximoak. Asko infernura zoezinak atra zitue atari-pokaletik. Bat ze Senan guzias gaixto ajolakabea, blasfematzen zuena Jangoikoas ta bere sandues. Iltzeko lanzean etzue nai ez konfesatu, ta ez aditu Jangoikoaren gauzarik. Sanda gonon orazioek ta negarrek baliatu ziote; eben atenzios Jangoikoak eman zio grazia, itzultzeko berebaitan &. Zeremazkite justiziatzera karro batean bi gaizkiegille famatuak, ta zemazkite tormentatzen bidanabar: aiek zoezi furoso egotzizen blasfemiak Demonio batzuk bekala. Sandak lastimaturik eskatu zue utzi zezaten joatera karroan aieki. Paraturik bien erdian, exortatzen zitue miragarriro. Portaletik atratzean agertu zekioe Jesus ona konbidaturik bere esposaren karidadeas: konbertitu zire, konfesatu, ta il zire oius ziotela, iago ta iago mereji zutela. Berze anitz kontatzen da sanda gonon karidade alako. Arimen amore gau inprimitu zio Jesus bere esposo dibinoak, nola bere borz lla-

gak ere bai, diotenez bere konfesoreek: zeren ezi eztaike pondera bien elkarrenganako amoreta, ta amorearen demostrazioak. Elebatzen ze nola nai: ta egoten ze sentidorik gabe anitz denboras. Aldareko sakramentuan zue bere gloria gisa mundu gontan. Komekatzen etzen egunean iduri zue il bear zela amoresko penaren erruas: eta komekatzeareki bizkortzen ze arima ta gorputza: auster egunetik Juande Salvatore eguneraño mantentitu ze bizkor, deus jan ta edan gabe, komunioneareki sollik: ta manatzen baziote artzeko zerbait, obeditzeagatik prokuratzen zue, baña ezin pasa: ta ala utzi zute ikusirik ala nai zuela Jangoikoak. Bada iten zition errega-loak eta faboreak nork konta? edo nork entenda? Eman zio argitasun, ezauntzeko biotzak, espezialki deshonestoak, ta ezin sufritus usai sentitzen zuena, itzulzen zue aurpegia. Jaunak berak bere eskus komekatu zue zenbait aldiz. Ama Birjinak lagundu zio oratzen irin galetsi bat, ta atra ze ogia, alako eskuetaik bekala, txuri eder gozo ezin iagos, eta emanik eman ala pobreei, beti gelditzen ze ogi saskian. Konfesoreak eskatu zio bein logra zezola Jangoikoaganik bere bekatuen induljenzia bat plenaria. Orazio eginik, deitu zue konfesoarea: asi zekio ponderatzen Jangoikoaren ona, ta gure esker gaixtoa: konfesoarea urtzen ze kontriziosko negarres. Sandak orduan, orra non duen induljenzia eskatu duena: bego seguro.

5. Bada xakintasun eman ziona Jangoikoak da guzias admiratzeko. Ageri da zerbaitto eskribiarazi zituen liburu, ta kartaetan Aita Sanduen, Kardenaleen, Obispoen, Erregeen, ta jende genero guziendako. Teologorik andienei explikatzen ziote asko gauza entendagaitz. Egin ze famatua mundu guzian, ta estimatua guzienganik. Gregorio XI.ak ta Urbano VI.a biali zue beren enbajadora bekala iteko andietako: eta Kardenaleen alzi-nean mintzatu ze alako humiltasun, modestia, prudenzia, grazia, ta mintzaera soberanoareki, ageri baize Jangoikoa mintzo zela arren agos, admirazios beterik zeuzkiela guziak. Florenziako jendeek biali zute ta akonpañatu enbajadora bekala Franziaara, Abiñon deitzen den zitudadera, Gregorio XI. Aita Sanduagana, zein bizi baize an, ta zeñi deklaratu baizio boto egin zuena bere santidadeak itzultzeko Romara, niork etzekiena, biazik Jangoikoak eta berak. Pensa emen orai Jangoiko andiaren miragarriak! neskatto bat pobrea, ofiziale pobreen alaba, flakurraturik larru ta ezur utsetan kasi, alaere ain estimatua ta honratua zeruaganik ta munduaganik, ta arrazio andiareki, zeren baize ona ta sanda, eta Jesus onaren biotzekoa! Adinaren ogei ta amirur urtetan deitu zue beregana. Azken orduetan ere peleatu zue animosa etsai gaixtoareki, ta triunfatu zue biktoriosa. Berze tentazioen eretan akusatzen zue banaglorias: sandak errespondatu zue alegre, banagloria? Ez, ezi beti prokuratu dut ene Jaun onaren gloria



egiaskoa. Errezibiturik debozio guziareki Elizako ordenamentuak, ta induljenzia Aita Sanduek emana, entregatu zue bere espiritua Jaunaren eskuetan 1380 urtean. Bereala agertu zekio gloriosa bere konfessore Fr. Raimundori urruti zegonari. Milagroeki deklaratu zue Jangoikoak sanda: ta Aita Sandu Pio II.ak kanonizatu zue 1461 urtean &.

Maiatzaren 1.an San Felipe, ta San Tiago

1. S. Felipe Apostolua Galileako Betsaidan jaioa, S. Pedro ta S. Andresen lekukidea, eskritura sagratuan estudiatu zuena, deitu zuelaik beregana Jesu Kristok, ellegatu zekio gogotik ere, ezaundurik bera zela Mesias Jangoikoak biala, erremediatzeko gizagendea: eta ekarri zue Nata-nael ere jakintsu gura, zeintas zion Jesus onak, *ona Israelita egaskoa mali-ziarik gabekoa. Naizuelaik Jaun dibinoak egin milagro gura, borz ogis alimentatzea borz milla ta iago persona, galdegin zio S. Feliperi amoltsu, Nondik erosiko dugu ogi, jateko ebek?* Eta urrutiko jende batzuk joan zirelaik ikusi naies Jesus ona, baliatu zire S. Phelipes, ta onek S. Andreseki eraman zitue beragana, alegratus ezaun zezaten jendeek bere Majestadea. Eta azken afariaren ondorean, despedidako in zioten platika andi gartan, era-kutsis zoeiela bere Aita Jangoikoagana, ta Aita dibinoak berak maite zitue-la, S. Felipek erran zio, *Jauna, erakusi bezagu bere Aita, orreki dugu aski.* Ona-raño dio Ebanjelioak: gañarakoa Autore sanduek, nola erpartiturik Apostoluak mundua barna, S. Felipek predikatu zuen Asian, ta bere bizi-modu, milagro, ta mintzaera sandueki konbertitu zuen ango jendea, lurre-ratu idolo banoak, fabrikatu tenploak, ordenatu sazerdoteak, ta plantatu zuen bizimodu Kristioa Kristoren fede ta legearen konforme. Andik Eszitiara pasaturik, ta emendik Frijiara, emen Hierapolis deitzen den ziu-dadean bere orazioareki ilarazi zuen serpiente bat adoratzen zutena Jan-goikotako, libratu ala aien arimak erroretik, ta eriotzetik gorputzak, gal-dus zemazkienak Deabruak arren medios. Baña arren sazerdote falsuek ikusirik beren Jangoiko gura ilik, ta beren irabazia galdurik, eman zute sanduaren kontra, azotatu, guruzifikatu, ta arrikatu zute: baña bitarteo biali zue Jangoikoak terremoto andi bat bota zituena etxeak, ta arrapatu pean etxetakoak; eta sandua guruzifikatu zutenak iretsi zitue bizirik lurrak. Oneki eskarmentatu zire gañarakoak, ta konfirmatu fielak. Eta nai zutelarik jautsi guruzetik, sanduak egin zue orazio beregatik, ta jendeaga-tik; eta Jangoikoak aditurik, jautsi baño len bukatu ze an, ta jendea libra-tu lotsamenturatik. Il ondoan jautsirik gorputza, Kristioek ortzi zute honra ta erreberenziareki: eta gero aldatu Romara, non dagon Santiago menor edo gasteagoarenareki.

2. Santiago gau deitzen dena menor edo gasteagoa, distingitzeko berze Santiago gure Patronoaganik, deitua berze izenez Justoa, eta Jauna-



ren anaia, edo zeren baize lengusu edo berzergusu, edo zeren baize txoil iduritua Kristori gorputzaren plantan, eta begitartean, de manera ezi Jesu Kristo iganas geros zerura, anitz Kristio ikusi etzutenak Jaun dibinoa bizi-rik, joaten omen zire Jerusalem ikustera Santiago, idurian ematen ziona guziz, ura ikusteariki iduri baizekiote ikusten zutela Jesusen iduri bat. Ze Galileatarra aioa Kanan, gizon sandua alde guzietatik, exenplu anditakoa: begiak txoil modesto, bearriak attento Jangoikoaren gauzetara; agoa edo ixil, edo mintzatzan ongi, ta egia beti: guzia penitentzia; sekulan ez jan aragirik, ez edan ardorik, ta alako edari bero dezaenik: ogi ta ur solles mantentzen zela. razioan gau ta egun, iduri baizue orazioas bizi zela. Belauriko egones egin zekizkio belaunetan kalloak ain gogor, nola kanelloaren larrua: eta S. Juan Krisostomok dio, in zekizkiola kopetan ere auspeska egones lurraian kontra kopeta. Sekulan etzue moztu biloa: etze bañatzen, ta ez unjitzen, orduan usatzen zen gisara. Ainberze erreberenzia zioe Judioek ere, naiz Kristioen kontrario ziren, ta ain opinione ona, ezi joaten zekizkio apatu naiez edo ukitu beraren bestimenta. Bera sollik uzten zute sartzera tenploan Sankta Sanktorum deitzen zen lekuan. Eta Josefo Autore grabeak, naiz Judio izanik, eskribitzen du Jerusalem galmendea gero agitua Bepasiano ta Tito enperadoreen denboran, izan zela Jangoikoaren kastigoa, zeren il baizute Judioek Santiago Kristoren anaia gizon justoa guziz. Egia dena da, izan zela, zeren il zuten Kristo bera.

3. Apostoluek errebiturik Espiritu Sandua joateko mundus mundu predikatzer, Santiago gau utizi zute konsagratu obispo Jerusalemgo. Eta S. Pedro preso zegolaik Herodesen manamendus, atra zelarik libre Aingiruaren medios, biali zioe berria Santiagori, ta berze anaiei, nonbratus lenean Santiago guzien prinzipalena bekala. Eta bildu zuten Konzilio lenbizikoan S. Pedoren atzetik eman zue Santiagok bere sententzia, segitu zutena guziek. S. Pablok konbertiturik joan zelaik Jerusalem ikustera S. Pedro, dio etzuela ikusi an berze nior Apostoluetatik, baizik Santiago Kristoren anaia. Eta berriz dio admititu zutela beren laguntako S. Pedrok, Santiagok, ta S. Juanek, baizire Elizaren kolumnak. Eta S. Judas Tadeo bere kartaren prinzipioan deitzen da Jesu Kristoren sierboa ta Santiagoren anaia: guziori baita señale, agitz estimatzen zutela guziek Santiago. Biziturik bada Jerusalem erran dugun autoridade, ta honrareki, egines Artzai onaren ofizioa guardatus ardi Kristioak, ta konbertitus anitz Judio egitera Kristio, etzuketete sufri on sazerdote gaixtofikatuak: eta etzirelaik trebe ilaraztera jendearen beldurrez, nai izan zute irabazi berendako. Eskatu zioe bada, nola baize ain Jangoikoaren zerbitzuko, ta ain deboto tenplo garren, egoten baize an gau ta egun orazioan, lastima zeien artas,

eta Jangoikoaren legeas aiei eman, etzezaten segi Jangoiko bekala gizon bat guruzifikatua: berak erraten zuen guzia sinetsiko zuela jendeak. Orta-ko bazkoa-egunean biltzen zelaik jendeketa andia, erran zezala senti zuena Kristos. Ofrezitu zue: ta egun señalatuan presente zeudelaik Judioak eta jendeak ezin konta ala, igan zute leku gora batera laudatus arren ona, ustez ala ekarriko zuten beren alde: galdegin zioe an zer iduri zekion Jesu Kristos? Errespondatu zue konstante, zer galdegiten didaze Jesu Kristos? Diot dela Jangoikoaren semea Jangoiko dena, ta dagola jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean, ta etorriko dela ilen eta bizien juzgatzera. Goratu ze marmarots bat fielen erlean alegre laudatus Jangoikoa ta sandua. Sazerdoteek furuturik artus arriak kontra, ta goratus bozak zioe, ikusten duze nola uts egin duen justoak? Eta errabias bota zute andik bera. Naiz estropeaturik gelditu zen, oroiturik Jesus onaren karidadeas, goratus eskuak eta biotza zerurat zio, o Jaun ona, barka bezote, ezi eztakite zer ai diren. Etzire orgatik aiek beraxten, baizik eman golpe andik eta emendik: eta batek baldurro edo pertika batek jo zio buruan, ta atra zizio muñak. Iltze Kristoren irur ogei ta irugarren urtean, gobernatu ondoan bere Eliza ogei ta amar urtes. Eskribitu zue karta bat katolikoa Kristio fiel guziendako, emanen konseju onak estado guzien, berexki eramateko ongi trabajuak. Eskribitu ere zue forma, zelebrazeko meza. S. Jeronimok dio, hebreoen ebanjelioan dagola eskribiturik, Kristo il ondoan, Santiago gonek in zuela juramentu, etzuela pasatu bear amenik ere, ikusi arteo bizturik berriro: eta biztu zelaik Kristo aparezitu zekiola, ta ogei ekarrarazirik, bedeikatu ta partiturik eman ziola, tori, ene anaia, jan zazu zeure ogia, ezi ia gizonaren semea biztu da. Eta diote zenbaitek, on adiarazi nai duela S. Pablok, diolaik gure Jauna erresuzitaturik agertu zegiote-la ameka Apostoluei ta S. Tiagori: bi aldiz oni, hein berex, berriz gero aieki bateo &.



Maiatzaren 3.an Gurutzearen Inbenziona

Urriaren 14.an Gurutzearen Exaltazioa

1. Ortzilare sanduas landara, noiz il baize Jesu Kristo gurutzean, ta orgatik deitzen baita gurutzearen eguna propioiki, berze bi egunes urtean zebratzen da: Maiatzaren irugarrenean gurutzearen Inbenziona edo aurkitzea: Urriaren amalaugarrenean gurutzearen Exaltazioa, edo gortzea: bietas emagun notizia. Il ondoan Jesu Kristo gurutzean, nola zur gura izan baize instrumentu artu zuena Jaun onak erreskatatzeko giza-gendea, ta garaitzeko infernua, nai zuelarik re Majestadeak, adora ta honra zezan mundu guziak, arrazio den bekala, infernuko serpienteak injeniatu zue nola estorbatu, kendu naiez mundutik memoria ere. Ortako Judioek eta Jentilek arren inspirazio ortzi zute gurutze gura bi ladronen guruzee-ki bateo eze andi baten barrenean, botatus gañetik arri ta lurra franko, etzezaten aurki, ta ez atra Kristioek sekulan ere. Pasaturik berreun ta laur ogei urte, guti gorabera, Enperadore Konstantino andiak gerra zuelarik Maxenzio Tiranoaren kontra, ikusirik eguerdian zeruan guruze bat ederra istargitzen zuela, ta inguruan letra gau ziona, *in hoc signo vinces*, señala goneki garaituko duzu, emanik batalla, garaiturik ta deseginik etsaia, artu zue debozio andia gurutzea ana; prokuratu zue izan zeien honratua ta adoratu bere Inperio guzian: pintarazi zue bere banderaetan insignia gisa: monedaetan ere pararazi zue bola baten gañean, adiarazteko, mundua irabazi zela gurutzearen medios. Debozio bera zue bere Ama Santa Helenak, zeñek errebelazio izanik zerutik, artu zue erresolu zio, joateko Jerusalem alderat bisitatzera leku sandu gaiek, ta billatzera gurutze propioa, zeintan iltzen Jesus gure Salbazalea. Ellegaturik arara, bisitaturik leku sagratuak, ta Kalbarioko aldapa gura, etze niondik ageri ez errestorik, ez notiziarik, ezeta memoriarik ere, non ote zegoen billatzen zuen tesoro gura: zeren ezi borrazteko memoria arras, zeukate Jentilek paraturik an Benus urdearen imajina. Au kendurik andik, oraño etze ageri gurutzea. Konfiatzen zue alaere Señora sandak bear zuela aurkitu. Ibilis ibilis ellegatu ze usmatzera non ortzi zuten. Batzuek diote, Judio zar batzuek kastigoaren beldurrez deklaratu zutela, non zen fama jenerazioz jenerazio

pasatu zena kontatus buratsoek humeeri, alako lekuan zegola ortzirik. Baronio Kardenaleak dio, zutela kostunbre Judioek, justiziatzen zutelaik norbait, arren obiaren aldean ortzitzea justiziaren instrumentuak: eta S. Helenak ikasirik non ortzi zuten Kristo, an aldakan billarazi zuela. Edozein gisas leku gartan idiki ondoan lurra barna, aurkitu zire irur gurutzeak: eta Kristoren guruzean paratu zuten titulo edo letereroaren oltoa aparte, ta ala etxakin zeñena zen, edo iruretaik zein ote zen Kristoren gurutzea. Duda gontaik atra zitue Jangoikoak milagro klaro bateki: zeren ezi orazio eginik Jangoikoai guziek, Jerusalemgo Patriarkak Makario deituak ekarrarazi zue arara heri bat desauziatua Medikueganik. Aplikatu zio arri guruze bata ta berzea: etze protxurik. Aplikatu zio irugarrena, ta istantean heria bizkor gelditu ze sano ta sendo, nola sekulan ezpaltiz heri egon. Au da, ziote, Salbadorearen gurutzea klaroki, ta adoratu zute kontent S. Helenak, ta gañarako guziek. Gozosa ezin iagos inarazi zue an tenplo eder bat, non utzi zuen guruzearren zati bat zillarresko urna batean; berze zatia itzeeki eraman zio bere seme Enperadoreari, zeñek depositatu zue Roman berak inarazi zuen tenplo batean. Andik alzina guruzearren erreberenziagatik manatu zue nior ez justiziatzeko guruzifikatus, zelarik on komun lenago. Ala lenago zena deshonne, gerostik onat da honra ta gloria, diot, gurutzea; ta daramate erregeek koronaetan sendagallas: eta Kristio den guziak bear luke iduki etxean falta gabe: ta seinalatu agoan, kopetan, bularretan, nola gure etorki noblearen insignia Kristoganik, eta arma guzis poderosoa infernuaren kontra, zeñeki, ur bedekatuareki, Jesus aipatzeareki iges &.

2. Urriaren zebratzen da guruzearren exaltazioa erreskatuas geros etsaien eskuetaik. Bekatuen kasos datozila komunkiro kalamidadeak da egia progatua experiencias. Fokas Enperadore gaixtoaren denboran permititu zue Jangoikoak, in zezoten gerra Persaek, ta garaitu, galdu, ta arrapaturik anitz ziudade ta jende, arrapatu ere zute Jerusalem, ta eraman presidario ango Patriarka Zakarias, eta iago dena, guruze sanduaren zur sandua S. Helenak utzi zuena depositaturik ango tenplo gartan: eraman zute Persiara bereki. Bukaturik Fokas eriotze infameareki, arren ondorean in ze enperadore Heraklio: eta aurkiturik Inp erio guzia usturik jendees eta gauzes, niolaterre etzezakela erresisti Persaen erregeri, baize Kosroas, eskatzen zio humil bakea, naiz kondizio ez anbatekoeki. Zego Kosroas ain bano suber biktoria irabazieki, ezi etzue aitu nai aipatzen ere bakerik, ezpaze kondizioareki errenegatu bear zuela enperadoreak Kristoren izenas ta erreljionas. Ori aiturik, Enperadore Kristioa itzuli ze Jangoikoagana, etzela berze erremediorik, inarazirik leku guzietan errogatibak, ta bilara-



zirik al zuzken jendeak, determinatu zue fiaturik Jangoikoan ta justizian erresistitzaa suberbo poderosogarri. Eta emanik irur batalla txoil andi erruak, atra ze biktorioso triunfante Jangoikoaren grazias, urratu zitio irur exerzito zein baño zein andiago beren Jeneraleeki. Ain suber zegona len Kosroas, ia uzkur uzkurra zoeie iges, bizia libratu naiez: eta bere kaltetan nonbratu zue bere lagun erregetasunean bere bigarren semea deitua Medarses, utzirik lenbizioa deitzen zena Siroes, zeñek sentiturik biotzez agrabio gura, andik guti il zitue bera Aita ta anaia: ta gelditu ze bera errege. Bereala eskatu zio Herakliori bakea, itzuli zitio len kendurikako lurrak, ondasunak, eta gauzak: entregatu zitio bere Aitaren etxeko tesoroak: kunplitu zitio ark paratu zition kondizio guziak, ta prinzipalena itzultzea Patriarka Jerusalengoa berze kautiboeki: eta len lenbizioa gurutze sandua. Heraklio enperadoreak, esker milla emanen Jangoikoai ainberze ta ainberzeko faborees, eraman zue Jerusalem guruze sandua amalaur urtes egon zena Persian etsaien eskupean, eta nai izan zue debozios berak bere soñean eraman Kalbarioko tenplora, nondik kendu zuten. Baña agitu ze gauza notagarri bat prozesio gontan: Ellegaturik portalera enperadorea guruzeareki, andik ia ezin eman zuke pausurik alzina: zenbatenas iago indar egiten zuen pasatzeko, iago iduri zekio detenitzen ta tiratzen zutela atzerat. Arriturik ortas bera ta guziak, etzekite zer erran, edo zer egin. Zego enperadorea guzia galas jaintsirik urre ta perlaes istargitzen zuela. Patriarkak erran zio, Eeira bez, Enperadore Jauna, ote den kausa, diferente joatea berori, Kristo ez bekala: ori galas, ure preso gisa: ori korona glori askoareki buruan, ura aranzees koronaturik & Arrazio zeukala konfesaturik, kendu zitue korona ta gala guziak; ta paraturik oin urtusian habitu pobre bateki, aisa gerostik segitu zue, ta ellegatu ze paratzera guruzea bere lekuan. Eta Jangoikoak nai izan zue zelebratu bekala festa, egines milagroak arrabutxan bekala: il bat biztu ze: laur perlatiko sendatu: amaborz itsu argitu: amar leproso garbitu: anitz ta anitz libratu espiritu gaixtoetaik ta gaitzetaik. Deitzen da festa gau guruzearen exaltazioa; zelebratzen ze lenago ere, baño aumentatu ze debozioa triunfo goneki, zein diote agitu zela 629 urtean. Eta aurkitzea S. Helenak len 326 urtean.

Maiatzaren 4.an Santa Monika

1. S. Monika S. Agustinen Ama bi maneraz, zeren jaiorazi zuen mundurako ta zerurako, izan ze Afrikan sortua jendaki honratu Kristioetaik, ta ongi azia, ta prinzipiotik onera emana. Aurra zelarik ze agitz afizionatua Elizara, ta an egoten ze orazio egiten zokoren batean geldi geldia. Gauas ere jaikitzen ze errezatzaera erakutsi zitionak Amak. Bere gus-toa ze ematea limosna, eta ematen zue jan bear zuenetik ere. Oposizio zue gorputzaren adornu ta itxurapenei, baño obediencias paratzen zue mantatzen ziotena. Nailuke mantenitu birjinidadearen estadoan: baño nola baize ain humil obediencia, artu zue senar eman ziotena deitua Patrizio. Au noblea ze, baño ez Kristio, orgatik baizue sandak asko pena, ez izateas beraren gisara. Berze alde ura ze suber asarrea: sanda humil mansa bakeskoa: Baña sufritus sufritus bere genio onareki, pazienza ta obediencia-reki, eta bateo Jangoikoai eskatus orazioeki, logratuzue gero ere Kristia zeien, ta molda zezan jenioa guzis. Modua nola aldatu zuen, kontatzen du S. Agustinek: zerbitzatus ixil buruari bekala, beñere ez asarratus, ta ez itz gaixtorik erranes, baizik ixildus, senti zuelaik koleran zegola: gero sosegatu ondoan ematen zitio bere arrazioak amoltsu. Ausenzian beñere etzue atratzen itzik ta ez kezarik bere senarras, naiz kekatzen ziren berze andre ezkonduak beren senarres, ta arritzen zirelaik aiek, beñerez asarratzeas sanda bere senarrareki, jakinik zela koleriko, sandak erakusten ziozte modua, humiltasuna, sosegua, pazienza, ta obediencia. Artzen zutenek beraren konsejua, dio S. Agustinek, senti zute probetxua, ta zute plazer: artzen etzutenek damu zute ta negar protxurik gabe.

2. Izan zue seme S. Agustin, zein kuidatu zue azitzeas ongi: baño larritus bekala lazotus, asi ze lagun gaixtoeki gaixtatzen: eta Ama ona aflijitzen negarres ezin erremedia, ta ezin sosega. Persona jakintsu ta on guziei eskatzen, korrejizezatela, ta konbertitu arren seme gura. Obispo bati bein eskaturik on beroi; arrek utzis oraño etzela zoritu: Amak porfia ta porfia Jangoikoas, negar ta negar: admiraturik Obispoak erran zio, bidoeie Jangoikoareki, Andrea, ezi ezta posible ga daien alako negarren humea. Konsolatu ze oneki zerbait, baño iago Jangoikoak eman zion amets bateki, non adiarazi zion seme gura Kristiatu ta oneratuko zela. Nai izan zue S. Agustinek joan Romara: gero andik Milana, erakustera Rhetorika. Ama ezin sosega: erresolbitu ze joatera billa: Aurkitu zue Milanen, ta



afizionaturik aditzera S. Anbrosioren predikuak. Oneki asi ze konzebitzen esperanza, konbertituko zela. Joaten ze S. Anbrosiogana, zein beize ango Obispo: eskatzen zio konberti zezan bere seme gura: S. Anbrosiok ematen zio esperanza Jangoikoan: Eta Jangoikoaren graziaz ikusi zute konbertiturik osoki, eta S. Anbrozio berak bataiatu zue S. Agustin zelarik ogeitamirur edo amalaur urtetakoa. Nolako gozoa izan zuen S. Monikak, nork explika? ta iago, ikusi zuelaik ez solamente Kristio, baitaere guzia ia emanik Jangoikoai, despeiturik mundua. Determinatu zute itzultzea Afrikarat; eta zoezilaik ia Ostiako portuan eman zio sandari azken heritasunak: ezaundu zue il bear zela an; erran zio bere semeari, etzuela ia zertako bizi iago, ikusi zuelaik bera Kristio ezaundurik Jangoikoaren bidea: orai zoeiela kontent mundugontaik. Emen ortzi zazie ene gorputza, ta oroi zaitze enkomendatzeas ene arima aldarean ofratzen den sakrifizioan. Eginik enkargu gebek, arima sanda gura utzirik guzia Jangoikoaren eskuan sosegu ta errepausa andiareki despeitu ze gorputzetik adinaren 56 urtean, ta Kristoren 389.an Laudatzen du dignoki bere seme sanduak: eta nork eztu laudatu bear alako sanda? Estado guzien exenplu izana, donzellan gastezutuan, ezkonduen matrimonioan, ta ondorean alargunen, ta prinzipalkiro buratso guzien, humeen azitzean exenplu ones, itzes, orazio, negarres &.

Maiatzaren 7.an San Estanislao Obispo ta Martir

1. S. Estanislao jaio ze Krakobian Poloniako ziudade Nagusian buratso nobleetaik, zeñek ogeitamar urtes ezkondu egonik humerik gabe, orazio ta obra onen podores logratu zute au Jangoikoak emana bekala. Aurzutatik eman zitue mostra onak izan bear zenaren, ala injenios, nola birtutes. Estudiaturik Polonian ta Parisen sazerdote bati dagozkion estudio guziak, bere sortuerrira itzuli zelaik, il zirela orduko buratsoak aurkiturik, utzi zioten ondasunketa errepartitu zue pobreeri. Nai zue sartu erreligioso, baña Jangoikoak nai izan zue in zezaten Kalonje ta Predikari, ta azkenean Obispo Krakobia bereko. Miragarria izan ze sanduaren zeloa ta prudenzia Elizaren gobernuan: Liberala pobreendako; humil ta beratx humilendako; manso, aguantatzeko bere injuria propioak, baña tieso ta fuerte, debekatzeko ta kastigatzeko Jangoikoarenak. Ze orduan Poloniako Errege Boleslao eman zena deshonestidadeetara, emanen guziei eskandalo ta galbide. Iduri zekio san duari, zuela obligazio Aita espirituale bekala, korrejitzeko. Enkomendaturik lenik Jangoikoai, joan zekio, ta humildade, ta karidade guziareki eskatu zio asko aldiz konsidera zezala Jangoiko andiaren ofensa, bere ta berzeen kalte segitzen zirenak, ta emenda zeuela &.

2. Luxuria ordea da bizio bat, animaletzen duena gizona, iluntzen entendamentua, ta furotzen biotza kuratu nautenen kontra. Estimatu bearean abisua erregek oposizio artu zio sanduari; nai luke desterratu, baña kausa-iduriarik ere ezin arrapatu. Enbusteroek injeniatu ziote bat. Erosi zue Obispoak Elizarendako heredaje bat Pedro deitzen zen batenganik, bere prezio justoa pagaturik, baña eskrituraik in gabe. Irur urte zue ia iltzela saldu ziona: onen herederok, erregeri plazer itea atik, eskatzen zute heredajea justiziaz: ikusi ze pleitua Konsejuan, eta eskrituraik ez izanez, eta testigoak ez atrebitus erratera egia erregeren beldurrez, kondentzen zute egitera errestitu zio heredajearen. Obispo sanduak lurtean etzuelaik defendazalerik, akuditu zue Jangoikoaren anparora orazio egines: eman zue itz, presentatuko zuela Konsejuan Pedro saldu zion gura irur egunen buruko: Agindu ziote plazo eskatua. Bitarteo sandua baru ta orazio kontinoan egon ze irur egun gaitan: ondorean ofraturik mezaren sakrifizioa, joan ze ilaren obiara, ta idikiarazirik, ukitus bere bakulo Pastoralareki, oiuegin zio, ea Pedro, Jesu-Kristoren izenean jaiki zaite, ta atoz



Konsejura deklaratzera egia. Istantean txituturik joan ze Obispoaren atzetik Konsejura, eta an guziak arriturik zeudelaik, eman zue testimonio, nola saldu zuen heredajea, nola pagatu zekion prezioa, ta bere herederoei meatxu in ziote Jangoikoaren justizias, ematen bazute Obispoaren kontra. Gelditu zire guziak konbenziturik: eta Obispoak ilbiztuari erran zio, nai bazue bizitu zenbait urte iago, logratuko ziola Jangoikoaganik. Ark naiago izan zue itzuli bere obiara gorputza, ta arima purgatoriora, non baizego guti falta zekiola akabatzeko purgatus: eskatzen ziona zela enkomendaze zan, atra zeien len baño len pena gaietaik. Akonpañiatu zue sanduak jende askoreki obiara berriz, ta an etzinik iltze berriro eskatus guziei, enkomenda zezatela.

3. Nor etze beldurtuko milagro ain patentearen medios? Nork etzue aditu bear bere onerako erraten ziona alako gizonak, zeñei obeditu zion ilak? Baña Boleslao zego ain lesiaturik aragiaren bizioan, ezi segitu zue oroat iraulka animalea bekala bere ongarrarian. Sanduak usaturik erremedio guziak banoan, lastimaturik jendearen galmendeas buruaren exenpluareki, exkomekatu zue azkeneko. Furotu ze iago ura, eta jakinik Migelen Obispoa meza erratera S. Migelen eliza batean, biali zitue bere soldadoak, atra zezaten, bear baze, arrastaka ere, iltzeko. Joan zire aiek, ta nai zuzte-laik bota eskuak sanduari meza erraten zegolaik aldarean, lotsarriturik derepente jautsi zen argi andi bateki erori zire an lurtean. Oroat agitu ze biali zitueneki bigarren aldian. Irugarrean joan ze bera soldadoeki, eta aiek itzulirik atzerat lasterka iziduraz, sartu ze ura itsuturik iras, eta bere eskus idiki zio burua ezpatas; berla bere guardiakoek akabatu zute iles, zatikatu mienbro sandu gaiek, ta bota zuzte kanpoan, jan zezkiten tzakurrek. Baña Jangoikoak bialirik laur arrano jarri zire an urbil, ta guardatu zute milagrosoki bi egunes: eta ikusi zire gauas mienbro sagratuen gañean argi zerukoak. Orreki zenbait sazerdote ta persona piadoso erregeren beldurrak zeudenak animatu zire, ta bildu zuzte zatiak, eta juntatus elkarreki unitu zire batean milagrosoki. Aita Sandu Gregorio VII.ak informaturik luzias exkomekatu zue errege, ta erreinu guzian paratu zue entreditxo, edo manamendu, ertxitzeko elizak. Errege, diote, ezi aborreziturik guzienganik, ta bere buruas aburriturik joan zela iges, ta iltzela bere eskus. Berze batzuek diote, eizian zaldiak botarik jan zutela tzakurrek. Sanduaren martirioa agi tzue 1079 urtean: Inozenzio IV.ak kanonizatu zue 1253 urtean.

Maiatzaren 10.an San Antonino Florenziako Arzobispoa

1. Florenzian jaiotako S. Antonio, deitu zutena Antonino, txipittoa izan nagatik gorputzez, andia naiz bai arimas. Aurra zelarik, etze dibertitzen aurkerietan, baizik gauza onetan grabe, ixil, juicio anditakoa bekala. Amirur urtetan eskatu zue S. Domingoren habitua antsiareki. Prioreak ikusirik ain txipitto mendre, galdegin zio ia zer estudiatzen zuen: errespondatu zio, ezi dretxo kanonikoa. Prioreak alde bat ez tristatunai, berze alde ez eman nai ain goizik, erran zio ezi noiz ikasten zuen memorias dretxo kanoniko guzia, (baita agitz luze) emanen ziola. Joan ze oneki, ta eman zue alako prisa estudiatzen, ezi urtearen barnean ikasirik guzia itzuli ze, kunplitu zuela manatua, eman zezola habitua. Admiratu ze Priorea ortas, eta iago, progatu zuelaik galdegines alde guzietaik, prinzipiotik, erditik, azkenetik, eta erraten zuela guzia dre dre utsin gabe. Gogotik errezi-bitu zute errelijionean, non naiz herikor izanik, egiten zue abantalla barueta, penitenziaetan, estudioan, orazioan, ta errelijione den guzian. Ordenaturik sazerdote zelebratzen zue meza egunoro: bere bizia ze erretiraturik egotea bere Jaunareki guzien eskupean. Baña etzute utzi nai geldirik, baizik nola baize ain exenplare, egin zute Priore borz sei lekutan, eta Bikario jenerale. Alakoa izanik ere, beti zebila oñez edo astoko batean, maiz sukaldean onzien egiten, eskobas jautzen, ta zerbitzatzen zerbitzukoiki.

2. Bitarteo Eujenio IV. Aita Sanduak nonbratu zue Florenziako Arzobispo. Dilijenzia egin zituenak, exkusatzeko, eztaizke pondera: baña Aita Sanduak bialirik bulak graziaz kosturik gabe, manatu zio ertxiki obedi zezala: ezperen, exkomekatu zuela. Ala ere bilarazirik konbentuko, ta kanpoko teologo ta jakinsuak, konsultatu zue ia zegon obligaturik obeditzera, ia etzeiken exkusa. Guziek erran ziote etzeikela exkusa. Orduan paraturik belauriko, goraturik eskuak eta begiak zerurat, negarra zeriola, erran zue, Jauna, berorrek daki ez nuela nai nik dignidade gau, ezpainaiz gauza: artzen dut, ez desobeditzeagatik: berorrek kida benaza, in dezaten nik beti berorren borondatea. Joan ze posesio artzera oñez humil humilttoa, begiak apal, eta negarrez. Jende guziak atrarik errezibitzera, admiraturik alako humiltasunas paratzen zire belauriko eskatzen beraren bedezioa. Zein ongi errana Kristok errana, ta egia beti bekala, *humillatzen dena izanen dela goratua!*



3. Jarririk bere ofizioan, errateko itz gutis, ze etxean erreljioso bekalá; familia guti ta ona, ongi ordenaturik nola erreljione batean: egunoro beren ordu xakinak oraziorako, ta Jangoikoaren gauzetako: bera beti gauerdiaño orazio mentalean: gauerdian maitinak: goizean meza egunoro, heri ezpazego. Gañarakoan egunas ofizioko itekoetan: eta nola guziek baizeukate sandutako, beren joanetorriak eta pleituak uzten zuzte beraren eskuan, ezi andia zue berze alde prudenzia ta konsejuaren donoa Jangoikoak eman ziona, orgatik deitzen baizute konsejuen Antonino: eta nekatzzen zirelaik bere ofizialeak sobra itekoes, bera sereno ziola, *ez garella gureuren, baizik berzeren*. Deustan alaere etzue paratzen ainberze kuidado, nola debekatzean Jangoikoaren ofensak. Limosna egitean zue biotza zabal, eskua liberal; baña bazue diskrezio, distingitzeko pobre alkedunak, ta izan zeien erremediatzeko nezesidatea, ta ez amentatzeko banidatea. Ori ikasi omen zue lanze baten kasos. Bein pasatzean karrikatik ikusi zitue Aingiruak etxe pobre baten gañean: informatu ze bizi zirela an beren Amareki irur donzella, oiñurtuxian, zarres ta zatarres jaintsirik, ain bertuosak, ezi beti ai zire lan ta lan, ala mantenitus Ama, ta beren buruak. Lastimaturik destinatu zioite limosna on bat, pasatzeko dezenteki bizitza. Ta zer agitu ze! Denborain buruan pasatus andik ikusi zitue tellatuan ez Aingiru onak, bai Deabruak. Arriturik ortas informatu ze, nola berak emanikako limosnareki egin ziren alferrak ta banak. Abisatu ta emendatu zitue: eta berak ikasi zue baliarazten limosnak onerako, ez gaizkirako.

4. Zitue gizon batek anitz alaba ezkongaiak, ta zereki ez. Sanduaren konsejus joaten ze enkomendatzera Ama Birjinai erremedio naies. Egun batez zegolaik bere debozioan, aditu zitue bi pobre itsu erraten zirela elkarrí atra zuena eskean bakotxak, batak berreun eskutu urreskoak, eta zeuzkiela altxaturik kaputxan; berzeak iru-eun sonbreluan. Eman zio kontu Arzobispoari, zeñek ekarrarazirik kendu zioite diru gura, erreprehenditus zeren finjitzen ziren pobre: eta batari utzirik ogeitaborz eskutu, berzeari ogeitamar, ganarakoas, ta beretik añaditu zionas erremediatu zue gizon gura. Batek elkarrí zio saski bat fruta present, ustez pagatuko zion ederki. Sanduak laudatus fruta erran zio, Jangoikoak paga dezazula. Oneki bazoeie ura, baña ez kontent. Ezaundurik sanduak itzularazi zue, ta eskribiturik itz gaiek papeltto batean, ta ekarririk balanza, alderdi batean paratu zue papeltto gura, berzean fruta ekarrí ziona, eta papelttoaren balanza-aldea jautsi ze lurreraño. Ikusten duzu, erran zio, nola balio duen iago nik erranak, ezi zuk emanak? Bein Romarako bidean pobre erdi biluxi bati eman zio bere kapa soñean zeramana: andik guti ikusi zute sandua estalirik kapa obeagoko bateki, xakin gabe niork nondik izan zuen.

Etze kontent emateas zuen guzia; eskean ibiltzen ze, emateko. Ala anitz Jaunenganik atratzen zue anitz eraikitzeo azaro gisaontan ematen baitu batendako eun, ta segur. Beratx zena pobreendako, fuertea ze guardatzeko bere dignidadearen dretxoak: eta etzue ajolarik nioren meatxues, zegolaik padezitu naiak: eta erraten ziotenei beira zezala kendu etzezoten Arzobispadoa, Jesus, zio, mertxede andia in lezakedate, ezi daukat ain gogaitz, nola artu nuen. Alaere etzue nai usatu exkomekazioaren sententzia; eta desengañatzeko inzitutzen zutenak, ekarrarazi zue ogi txuri bat, eta onen gañean erranik exkomekazioaren itzak, bereala itzuli ze beltz nola ikatza: baña absolutioarenak erran, ta txuritu ze len bekalá.

5. Aita Sanduak etzue nai admititu apelaziorik S. Antoninok emanikako sentenziaren kontra. Eta kanonizatu zuelarik S. Bernardino, erran zue, ain ongi zeikela kanonizatu S. Antonino bizirik. Au ze Nikolao V. Onen alzinekoak Eujenio IV.ak egin zuenak Arzobispo, joanarazi zue Romara, baliatzeko beraren konsejues Elizaren gobernuan. Eta azken heritasunean nai izan zue asisti zezon sandu gonek, ta errezipitu beronen eskuetaik sakramentuak. Ario berera estimatzen zute Kardenaleek, ta gizon on guziek. Baña Jangoiko Jaunak nola estimatzen eta amatzen zue? Nork, berak ezi, argitu zio entendamentu andi gura, azertatzeko ainberze gauza? Bada nork pondera beldur ziotena Demonioek? Zein bere itzas ta guruzearen señaleas botatzen zitue nolana? Barber baten etxea zeukate turbaturik, atras arren humeak goatzetik, sentitu gabe niork, eta botas an zokoak barna: Abisaturik S. Antoninok eskribitu zue orazio bat paper batean bere konjurioareki, ta manatu zue paratzeko kuarto gartan Ama Birjinaren imajinaren alzinean: eta ia gerostik libre bizitu zire trabaju gartaik. Entendatu zue ordea obispo sanduak, trabaju pasatu zutenaren kausa guzia zela idukitzea Aitak erremediatoko libru bat, zeintan baizire zenbait sorginderia ta arte gaixto. Botarazi zue sura: orreki ia etze beldurrik. Berze asko milagroeki honratu zue Jangoikoak bizian ta il ondoan: eta azkenik eriotze prezioso bateki. Errezibiturik sakramentuak debozio andiareki, azken atsetan ia kasi ezin zeikelaik mintza, erran zue alegre, *servire Deo regnare est*, nai du erran, zerbitzatzea Jangoikoak dela erreinatzea, dela errege izatea: seguraturik dudarik gabe, deitzen zuela Jangoikoak koronatzera glorian. Iltze 1459 urtean.

Orra gizon txipitto gura zein andi Jangoikoaren eta gizonen begietan! Humil uzkur uzkurra zebilana, ta deustako ez gauza bere ustez, orra zenbat gauza on eginik oanden! Baike, deus onik egitekos, bear da izan humil. Aundinai bano suberboa ezta protxal deustako. Zergatik? badio Espiritu Sanduak Deus superbes resistit, humilibus autem &.



Maiatzaren 12.an Santo Domingo Calzadako

Jaio ze S. Domingo de la Calzada deitzen dena Billorian Kantabrian jendaki ilustre batetik. Goiz eder agertu ze izan bear zela sandu: ain Jangoikoak emana ze. Obeki eman naies, pretenditu zue izatea Monje lenik Balbanerako Monasterioan, gero S. Millanenean; baña ez admititurik ez batean, ta ez berzean, segitu zue zerbitzatzan Jangoikoai bere bakantasan. Denbora gartan milla ta berrogei tamargarren urtean, noiz zen Nafarroko Errege D. Garzia, ta Kastellako D. Fernando bere anaia, galtzen zire aleak Nafarroan langostaren plagas. Jangoikoaren azotea zela sinetsirik, biali zute erremedio naies Aita Sanduagana; bide ze orduan S. Leon IX: Ark biali zue onat S. Gregorio Kardenale Ostiakoa: Onek bere predikueki emendatus jendea, ta prodijioeki desterratus plaga, libratu zue erreinua. Sandugoni arrimatu ze S. Domingo: ta biak bizitu zire sanduki elkarren konpañian, ilartaño S. Gregorio. Gero erretiratu ze S. Domingo leku gartara, non orai baita ziudade nonbratua beraren izenas. Orduan ze arboledi, edo sasidi itsu bat erreka edo balsa loizu bateki, leku propia ladronendako, errobotzen baizuzte pausu gaixto gaietan asko peregrino pasatzean Santiagora. An egin zue beretako etxola bat, ta hermita bat Ama Birjinaren. Gero arbolak ta sasiak erres, ta ebakis garbitu zue guzia: egin zue bide erreala ta kalzada: baitare zubi eder bat ta hospitale andi bat peregrinoendako: tenplo bat ere bai Salbadorearen, lagundus gure Jaunak asko milagroeki, ta jendeek lan ta gauzaeki, ellegatu arte izatera ziudade Obispoaren katedrareki. Gizon pobre batek ori guziori, zergatik zen sandu. Berze asko milagro egin zue, ta biziturik konstante Jangoikoaren zerbitzuan iago ezi laurogeitamar urte, iltze sanduki milla, eun, ta bedragarren urtean. Brebiar. Hisp.

12.an SS. Nereo, Akileo, Domitila &. p. 296.

Maiatzaren 15.an San Isidro Nekazaria

1. S. Isidro jaio ze Madrilen, zein baita Españako erregeen Korte erreala, eta baitu Jangoikoaren probidenzias Patrono Nekazari etxamater pobre izana, entenda daien Jangoikoai zerbitzatzea ori dela errealki errematzea, ta Jangoikoaren zerbitzukoak direla iago ezi errege mundukoak. Izan ze ezkondua bere gisako bizikide sanda bateki, deitzen dutena Maria de la Cabeza: eta ala bizitu zire bake onean. Kanpo lanean enpleatzen ze irabazis ogia bere kopetako izerdiareki, Adani Jangoikoak erran bekala: *eta zori onekoa zarela*, dio Dabidek, *ta ongi joanen zaizula, jateareki zeure eskuetako lanak*. Agitz ze deboto, ixil, ta humil, ez entremetitua berzeren joanetorrietan, baizik gogoa beti Jangoikoan. Agitz goiztarra ze, ta lanera baño len bisitatzen zitue Madrilgo elizak, orazio egines, enkomentatus Jangoikoai, ta enzunes mezak. Afizione on gonon kasos askotan berantkara joaten ze alorrera, baña gero aitzen ze lanean ain gogotik, ezi komunkiro arratseko arren lan egina atratzen ze iago berzeena baño, ia zeren aitzen zen ixil ixila segi ta segi, ia zeren Jangoikoak bedeikatzen, ta Aingiruek laguntzen zioten. Iban de Bargas ango kaballero batek zue kaseria bat bere heredajeareki Madrildik kanpoan: alokatu zue Isidro, kuidatzeko, ta lantzeko: Angoek inbidias kontu eman ziote Nagusiari, berant laneratzen zela Isidro. Sumindu ze ortas Nagusia, ta erreprehenditu zue ziola, obligazioa dela lenago ezi debozioa; ta etzela ongi bat lan egin ta egun guziko alokairua eramatea. Sanduak humil humila errespondatu zio, etzuela uste galdu Jangoikoak emanez: beira zezala ongi ia perjuiziorik zanzuen orgatik; inen ziola errestitu zio gogotik ere: ta kalterik etzuelaik, utzi zezala kunplitzera bere Jangoikoareki. Sosegatu ze Nagusia ikusirik bere maxterraren ona: baña ikusi naies zer garaiez asten zen lanean, zego altxaturik an urbil: ikusi zue joan zela berant idieki; bazoeie akar egi-tera, baña ellegatubano len, ikusi zitue berze bi idipare elurra bezain txuri alzinetik ta gibeletik, ta erdian Isidro bere idieki lana egiten: admiratu ze xakinik etzuela Isidrok posibilidaderik alokatzeko berzeren idiak: ellegatu ze, ta aurkitu zue sollik bera: iago admiratu ze, ta galdegin zio, nor ziren lentsago ai zirenak berareki lanean? Errespondatu zio sanduak, nior ezta egon emen, baizik ene Jangoiko ona, beti laguntzen baitida nik mereji baño iago, ta beñere ez faltatzen bere pobretto goni. Ezaundu zue Nau-siak Jangoikoa zela arreki, ta erran zio in zezala nai adiña orazio goizetan,



etziotela kasorik men enbusteroei, ta bera beñere etzuela despeituko. Ala segitu zue.

2. Jai-arratsalde batez joanik bisitatza S. Magdalenaren eliza Karantxela urbil zegona, utzirik kanpoan bere astokoa, bera elizan zegon bitartean, otso batek iltzio: mutiko batzuek lasterka joanik abisatu zute, orren astoa otso batek dauka arrapaturik. Sanduak sereno geldi errespondata zio, zoazte bakean, ene humeak, kunpli bedi Jangoikoaren borondatea. Bukatu ondoan orazioa, atra ze, ta aurkitu zue astoa sano, ta aldakan ilik otsoa. Berze aldi batez joanik gizon batzuk sanduaren billa alorrera, etzute aurkitu bera; idiak bai buztarturik lanean nior gabe: abisatu zute Nausia: joan ze ikustera, ta arriurik egin zue sospetxa, bide zegola bitarteo Isidro elizaren batean, ta ala ze: itzulirik Madrila aurkitu zue S. Andresen elizan. Berze egun batez ezin enzun duzue mezarik: pena izan zue: ta arratserat lanetik itzulirik joan ze S. Andresen elizara, baizego ia ertxirik: eta an atarian paraturik belauriko, elebaturik espiritua Jangoikoaren graziaz, ikusi zitue idikirik zeruko atariak, eta an zelebratzen meza solemnidade andiareki, zein enzun ondoan itzuli ze berebaitan konsolazioz beterik. Alako miragarriak iten zitue Jangoikoak sanduaren amarez, zeren sanduak amatzen zuen bera sinez.

3. Jangoikoaren amoreari darraio proximoen amorea; eztaike aurki bata berzea gabe. Entenda daien obeki persona pobrees zuen konpasionea, aipa zagun zuena animalettoes ere. Zoeie bein neguan errotara iotzera gari guti bat, kanpoak elurres zeudelaik estalirik: ikusi zitue arbole batzuetan uso batzuk, eta pensaturik bide zeudela goseak, garbitus lurra oñes eta eskues, an bota zioite gari zemanetik, jan zezaten. Gizon batek ikusi zuenak ori, akar iten zio, eta burla: baña errotara ellegaturik, ain oso aurkitu zire kostalak faltarik gabe. Zoeielaik eraikitza, ematen zioite aurkitzen zituen pobreei gari zeramanetik, baitare zenbait eskualdi egasteei ere, ziola, ar zazie, Jangoikoaren txorittoak, ezi Jangoikoak argitzen due-laik, guziendako argitzen du. Eta naiz bidean zakua erdi usturik, alorrean aurkitzen ze beterik; eta eraikitzerakoan erraten zue, Jangoikoaren ize-nean au Jangoikoaren: au gure: au txinurrien. Agitu ere zekio, emanen bidean anitz, ellegatzea errotara erdi-usturik kostalak: eta iorik guti gura, atratzea ainberze irin beteartaño mukuru. Goart eginik errotazaiak erran zio, nola ain gari guti ekarri, ta darama ainberze irin, ezpada ebatsis berzerena. Sanduak erran zio, ni ez naiz lapurra: baña iduri bazaio ebatsi dutela, ez dezoket eman berze satisfakziorik, baizik utzi irin gau, paratus orrek gari ekarri nuen adiña. Ala egin, ta iorik atra ze oroat irina bete arteo zakuak Jangoikoaren milagros. Pobreei ematen zioite bere agoko

amena ere: Bein bere otamen eskasa bukatu ondoan berak eta pobreek, ellegatu ze bat peregrino gisa, zela Aingiru, zela Kristo, limosna eske. Sanduak erran zio emasteai, ene arreba, ala deitzen zue, zeren arreba bekala zeuka ia, beira zazu gelditu den zerbait pobre gonendako. Ark, etzela deus gelditu. Sanduak dio, ezta Jangoikoak naiko doaien deus gabe gure etxetik bere pobre gau. Zoaz zoaz, ikusazu. Joan ze sukaldera, artu elzea, ta erakusteko nola zegon utsik. Baña Jangoikoaren probidenzias aurkitu zue beterik. Larunbatoro usatzen zue paratzea elze bat pobreen Ama Birjina-ren honratan. Ze sandua kofrakide kofradia batean, non zuten kostunbre bazkaltzea, ta bazkaltzera ematea pobreei zenbait egunez. Alako batez sandua bere debozioen kasos ellegatu ze berant, ta eraman zitue bereki pobre aurkitu zituenak. Kofrakide lagunek erran zioite, zertako zekarran ainberze pobre? bukatu zela guzia: berarendako utzi zutela bere partea doi doa. Sanduak arresti erran zue, guzien erlean partituko dugu ori, ta Jangoikoak ematen duena: betor dena. Joan ta elze guzia aurkitu zute beterik, mostratus Jangoikoak, zenbat kuadratzen zekion bere sanduaren karidadea.

4. Nagusia bein alorrean egarriturik zego ur naiak: S. Isidrok eskuas mostratu zio leku bat, an aurkituko zuela. Joan, ta etzue aurkitu. Deiturik erran zio asarre, non dago diozun ura? Nai nauzu burlatu? Sanduak pertikas jo zue peña bati ziola, emen Jangoikoak nai duelaik bada ur. Momentu berean sortu ze iturri bat ur garbis, dirauena orai arteo sanduaren hermita batean, sendatzentuen anitz heri. Beñere ez omen da agortu iturri gura, baizik solamente 1575 urtean, noiz Moriskoek saltzen zuten ango ura. Berze asko iturri ta butzu kontatzen dire asko lekutan atra zituenak ala milagros. Baña andiagokoak ere obratu zitue sandu bedeikatuak. Zue bere Nausiak alaba bat agitz maite, ta il zekio heritasunes. S. Isidrok lane-tik etorri zelaik aurkitu zitue negarres Aita ta Ama, prestaturik ia mortaxa, ta argizaria. Konpasionatu ze aien penas, ta orazio eginik Jangoikoak, joan ta ukitu zue aurpegis ila, ta bereala biztu zue Jangoikoak, emanen guziek alegre bere Majestadeari ta sanduari esker milla milla.

5. Berze Nausi bateki ere egon omen ze Karakiz deitzen den erri batean. Eulzi denboran berexirik agotza alde batera, garia berze alde, erran omen zio arrek, gari guti dugu. Bego, erran zio sanduak, ez penarik izan: aizeratuzue berriz agotza, ta atra zue asko gariketa, guziak zudelaik arriturik. Eskatu zio Nausiari lizenzia aizeratzeko berriz agotza, pobreen-dako gari atra zeiena. Badezagezu, erran zio, baña or ezta gelditu gari pikorrik ere. Aizeratu ta atra zue doble. Il zekio Nausiari zaldia alorrean; joan ze sandua, ta eman zalaparta bat, ta erran zio, jaiki adi; ta jaiki ze sano



ta sendo. Izan zute S. Isidro ta bere andreak seme bat, zein mutikoa zela-rik, erori butzu batean, ta ito ze. Paratu zire biak orazioan, ta butzuko ura joan ze iganes, ta gañean mutikoa bizirik, atra zutena besotik. Demonio-ak nai izan zue inkietarazi sandua eraikis diskordiaren zizaña: bizitzen ze sanda erri baten hermitako Ama Birjina kuidatzen eskatus limosnas, ta mantenitzeko lanpara itxekirik: pasatus egunoro ugaldeta, itxekitzeko lanpara, zubirik gabe, ta urak andi zoezilaik, ur gañean oñez. Gizon zenbait-tek Deabruaren inspirazio, ta Deabruak berak ere gizonaren idurian kontatu ziote sanduari, bere emastea zebilala gaizki pausu aixtoetan. Etzue sinetsi, baña nai zue inormatu egias: Altxatu ze leku soil batean; andik ikusi zue nola eldu zen sanda bakarrik, ta ellegatu zelaik ugaldeta, nola edaturik mantilla ur gañean pasatu zen oñez berze aldera hermitara. Oneki seguratu ze orduan. Baña berze aldi batez oroat akusatu zute: sanduak desengañatzeko jendeak, ta ixilarazteko mi gaixtoak, disponitu zue zoezin asko testigo ikustera milagroa. Ikusirik arritu zire, ta korrejitu iten zuten sospetxas.

6. Ellegaturik plazoa joateko mundutik, disponitu ze berri berritan errezibitus txoil ongi sakramentu guziak; ta ala Jaunaren besotan pasatu ze bizi ohera Azaroaren 20.an: 973 urtean. Ortzi zute S. Andresen elizako zemeterioan, non egon zen berrogei urtes atzendurik bekala, urak En pasatus, alik eta abisaturik zerutik bein ta bi aldiz joan ziren Madrildarrak zemeterio gartara, ta idikirik obia, aurkitu zute gorputz sandua oso, mortaja ere bai, atratzen zela fragranzia zeruko bat. Andia izan ze debozio artu ziotena orgatik, eta iago, soñatu zirelaik Madrillo ezkila guziak bere kabo, pasatzerakoan gorputz sandua elizara. Ori aiturik, asko itsu ta estropeatu zeudenak bide errealean, ukitus obiako lurras sendatu zire. Andik onat egintuen miragarriak nork kontatzen? mostratus ala Jangoiko andiak, eztela nioren bear bere Majestadea, eta berak maite duena dela ditxoso, dena dela gañarakoan. S. Isidro, zeren Jangoikoak duen maite, naiz izan Nekazari pobre bat, beira zein poderoso! nola erregeak ere paratzen zaizkion belauriko! nola diren beraren bear! Nola berek ez dezaketena logratzen duen sandu gonek! Alonso VIII.ak zio anitz debozio, zeren ezi joan zelaik peleara Moroan kontra Nabas de Tolosa deitzen den lekuan, non irabazi zuten Kristioek triunfo bat miragarria 1212 urtean, zelebratzen dena Garillaren 16.an iles berreun milla moro, ta kristioetaik galdurik ogeitaborz persona sollik, zeudelaik batalla-alzinean irur erregeak, Kaste-lakoa, Nafarrokoa, ta Araguakoa arrixko erruan, nai igan oian batera, ta ezin, ta etxakin nondik edo nola, Artzai iduri batek kidatu ta iganarazi zitue poliki; ta gero nai zutelaike premiari, mereji bekala, etze ageri nion.

Au pensatu zute izan zela S. Isidro zerutik jautsi zena. Bada erdexteko euriak, ta eguraldiak bearrorduetan, eztute izan Madrildarrek Patrono obeagorik. Anitz milagro klaro kontatzen da genero gortan. Alako idorte batez zeudelaik prestatzen atratzeko sandua, erran zue Moro batek, nik ofrezitzen dut bataiatzea, baldin S. Isidro ematen badu euri, ta ezpadut kunplitzen, il nadiela gaizki. Atra zuteneko sandua, autsi zire erauntsiak: ez ordea arrek kunplitu ofrezitua: bada Jangoikoaren permisios iltze puñaladaka.

7. S. Fernandoren denboran ellegatu ze Madrila Ministro erreale bat, zeñek aiturik S. Isidoren milagroak, zio etzuela sinesten Nekazari pobre maxter bat izan zela ain sandu. Gau gartan etzinik sentitu zitue biotzeko miñ ta aflikzio eriozkoak. Ezaundu zue Jangoikoaren eskua: Deitu zitue bere zerbitzukoak: konfesatu zue bere gaizki errana: eta eramanarazi ze goizean akonpañamentu andiareki sanduaren obiara: an eskatu zio barkazio, ta libratu ze bereala; ta izan ze gero sanduaren pregonari perpetuo. 1270 urtean Cordobako bezino bat deitua Juan Domingo Moroan kautibo zegolaik, zego otoi ta otoi libratu naiez. Agerturik an S. Isidro erran zio, ea, eman graziak Jangoikoai, zeñek biali nauen zure libratzera. Istante kateak erori, ta sanduak kidatus aurkitu ze libre leku seguroan. Inzue boto, joateko Madrila bisitatzera sanduaren obia: baña deskuidatu ze kumlitzeas; ta berriz in zute kautibo. Oroitu ze orduan bere deskuidos: berriz ofrezitu zue: berriz sandu onak libratu zue len bezain milagrosoki. Libraturik kontatu zitue sanduaren milagroak, kunplitu zue botoa; ikusirik imajina ezaundu zue gisa berekoa zela agertu zekiona. Berze bat Pedro Garzia deitzen zena preso zeukate akusaturik falsuki egin zuela moneda falsua: gizagaizoa kulparik gabe zego klamatzen S. Isidrori. Agertu ta erran zio, Pedro, ez lotsa, biar izanen zara libre. Ala izan ze. Lanpara bat zegona sanduaren obia-alzinean larunbatoro itxekitzen ze Aingiruen eskus. Senarremaste batzuek eraman zute beren seme il zekiotena sanduaren obia gañera eskatus biztu zezan; eta itzuli ziote bizirik sano, ta sendo. Gizon bat deitua Hernando Domingez itsutu ze arras: eramanik sanduaren obiara laster bi begiak argiturik itzuli ze gozoso: eta sanduaren gustora deitu zitue asko pobre, ta eman ziote jatera: eta montiatu milagro milagroain gain, ardo ta irin gastatu zuena etze ezaun gastatu zen, gelditu ze len adiña. Maxter bat obligatu ze lanpara lurrak kaballero bati urte guzian: ortako nai zue eman zezon alokairua berladanik: Jabeak eskatzen zio fiadore: ark ezin aurkiturik fiadorerik, eman zio itz sanduaren obia alzinean, inen zuela kanpo-lana urte guzian: orreki eman zio arrek soldata guzia fiara. Baña berze esker-gaitza kunplitu gabe zoeie iges. Pasatzen



ze gauas ustekabean S. Andresen zemeteriotik, ta an ibili ze gau guzian ingur ingur ustez bide luzea pasatu zuen. Biramonean kaballeroa, kontatu ziotelaik eskapatu zela maxterra, doae sanduagana kunpliaraztera fianza; ta ara non aurkitzen duen gizonoi inguraka, zeñek eskatu ziote barkazio sanduari ta kaballeroari, ta kunplitu ziote gero itza.

8. Arimen protxutan in tuenak dire asko: Bere deboto izan bat iltzerakoan inguraturik zeukate Demonioek, zeren baizego bekatu mortalean. Zego ura iziturik otoi ta otoi sanduari. Sanduak agerturik bota zitue andik Demonioak, ta bera konfesarazi zue. Berze bati amets-idurian agertu zekio Demonioa lotsagarri zeramala eskutik botatzera butzu batean. Sanduak agerturik orduan erran zio gaixtoari, eztuk eskurik onen gain, bainaz ni fiadore. Gaixtoak, nolas ez, dagolaik bekatu mortalean? Sanduak zio, Jesu Kristoren graziaz libratuko da: ta gizonari, zoaz bereala, ta konfesa bekatuak ongi. Argi-asteen joan ze prisaka; konfesatu ze sines ongi, ezaun baize goitiko abisua. Moro bat zego Jaun baten zerbitzuan: kostumbre zute atratzea sortez sanduak, enkomendatzeko bakotxa sortean atratzen zekionari: Moroai erran ziote ia nai zuen para zezaten arren izena ere: ark burlaz, in zezatela nai zutena. Atra zekio sortean S. Isidro: erraten ziote enkomenda zeila kristiatzeko. Nausiak ere erraten zio, utziko zuela libre, iten baze Kristio. Ark zio, naiago dut Moro izan, naiz esklabo, ezi Kristio, naiz libre. Zer agitu ze? Gau batez lo zegolaik, aditu zue bere izenas deitzen zutela, Amete. Jaiki ta ganbara guzia ikusi zue argiturik. Asi ze beira ia niork deitzen zuen: ta ez ikusteareki etzintze berriz. Berriz aitu zue boza, ea Amete, in zaite Kristio, ezi S. Isidrok manatzen dizu. Jaiki ze lotsaturik, ta aurkitu zue ganbara oroat argis. Baña atrarik kanpora ikusteareki etzela eguna, itzuli ze berriz. Baña irugarren aldian agitu zekio oroat. Ia ezaundu zue milagrosko gauza zela, ta goizean berla eskatu zio Nausiari, in zezatela Kristio, ta etzuela berzerik eskatzen. Ta kontatu zue agitu zekiona S. Isidroreki.

9. Milagro betirokoa da egotea gorputz sandua galetsi gabe barratzen atxon zerukoa, ta ain oso sudur, begi, ta aurpegi guzia. Erregina D.a Juanak D. Henriko bigarrenaren andreak nai izan zue trasladatu korputz sandutik beso bat: baña ezin atra ze kapillatik, gaitz andi batek emanik: oneki ezaundu zue, Jangoikoaren borondatea zela ez apartatzea beso gura bere gorputzetik; eta itzultzeareki gelditu ze sendaturik. Erregina D.a Isabel Katolika sendaturik sanduaren medios joan ze graziak ematera sanduari: eta beraren konpañazale batek apatzerakoan sanduaren oñak, kendu zio eri bat ozka, ermategatik errelikia: baña Dama gura ezin atra

ze kapillatik; eta Erreginak aditurik agitzen zena itzularazi zue eri gura bere ofiera: ta orreki libre berzea atra ze akonpañatuz &.

10. Kanonitzatzeko sandu gau egintu Jangoikoak milagroak. Juan Lopez Portugaleko batek manatu zue emateko amar dukat, egiteko dilijenziak, kanonitzatzeko sandua: eta konfesa-komekaturik, ta oliaturik zegolaik ia iltzeko etsirik, noiz uste zuten ilen zela, aurkitu zute sano ziola, etzuela Mediku-bearrik, ezi zeruko Mediku batek sendatu zuela. Zer Medikuk? galdetu ziote: ta ark zio, gau gartan egon zirela an aur batzuk, ta aieki gizon bat: ta berak ustez eldu ziren mezasari manatu zituenen eske, erran ziola gizon garrek, ezgara eldu eske, baizik ematera osasuna, ezi ni naiz S. Isidro: ta ordu gartaik gelditu zela sano. S. Maria de la Cabeza sanduaren bizikide izanak bisione batean obligatu zue meatxus D.a Maria Remesal pagatzera manda bat ofrezitu zuena S. Isidoren kanonizazioaren & ib. n. 25. Azkenean Aita Sandu Gregorio XV.ak deklaratu zue sandu, edo kanonizatu zue solemneki S. Isidro Nekazaria Martxoaren 12.an 1622 urtean, laur sandu andieki bateo, zein baitire S. Ignazio Loiola; S. Franzisko Xabier: S. Felipe Neri: eta S. Teresa de Jesus: baita laudatzeko ontas ere Jangoiko andia, honratu baitu nekazari pobre bat honra andien garreki alako sanduen konpañian. Biz bedeikatua bere Majestadea. amen.



Maiatzaren 18.an San Felix Kantalizio

1. Aipaturik S. Isidro Nekazari pobreaken bizitza, etxekizogun S. Felix Kantalizio kaputxino lego pobre berze Nekazari baten humearena. Onen jendakia dei daike sanduen jendakia. Bere Aitun edo Atxunak, sano zegolaik, erran zio bere elleba aurttoari iltzen zegonari, zoaz zerura nere sandattoa, Jangoikoaren ta nere bedeikatua, espera nazazu an, ezi larunbategan joanen naiz zure billa. Egunartan iltze. Eta S. Felix aurra beiratus ain ona, ziate jendeek, sandua jendakia; nola bear ze au izan, baizik sandua? Azi zute ongi, baña klaro ageri ze bazuela azitzen zuenik biotz barnean, norbait, au da, Jangoikoa: Ain afizionatua onera, ain etsai gaizkiaren! Ezi adinkideek jostaketan zeudenek ikusi orduko eldu zela, ziate, ola eldu da Felix, eldu da sandua. Amabi urtetan Jaun baten zerbitzuan paratu zute; arrek bialtzen zue bere hazienden guarda Artxaiko; geroxago kanpo-lanera Nekazari gisa. Bere lanen artean Jangoikoa beti zeuka biotzean. Bakarrik uzten zutelaik, paratus belauak lurrean, ta begiak zeruan egiten zitue bere debozioak. Kanpoan etzizentzirelaik, noiz ta erreparatzen zuen lo zeudela berzeak, jaiki ixil ixila, ta joaten ze bagoa baten pera, non zeukan señalaturik guruzea, ta an egoten ze pensatzen Kristoren pasio doloreskoan, negarra zeriola: bereala azotatzen zue bere gorputz inozentea. Mezako sakrifizioan zue bere erregalo erregalatua; baña nola ezpaizezake asisti presente nai adiña, kanpotik biotzas akonpañatzen zue sazerdotea, eta debozio gau konfirmatu zue Jangoikoak milagroeki, ezi askotan ikusi ze bateo meza enzuten elizan, ta bateo lan egiten kanpoan. Etxekie leitzen, baña zekitenei leiarazten ziate sanduen biziak. Ala mogitu ze izatera erreljioso kaputxino. Luzatuzue pixka bat, baña Jangoikoak emanarazi zio prisa, zeren ezi abeaturik idiak, ta goldea gañetik pasaturik, il uste zue an, baña etzio baizik zatikatu tresena, Jangoikoari graziak. Eskarmentu goneki bereala despeitu zue Nagusia, enkargatus erdexten zuena emateko pobreei.

2. Erreljioso eginik, bereala asi ze nekazalgo espiritualean, kastigatus erru gorputza, mortifikatus pasioneak, humillatus bere burua, garaitus tentazioak, obeditus guziei ta zerbitzatus, guzien meneena balitz bekal. Orazioan komunikatus Jangoikoareki zoeie indartus espirituan, ta sandutus egunetik egunera iago ta iago. Espezialki sakramentuaren presentzian zue bere erreparausa ta gloria gisa negarresko balle gontan, ala nola

txoriak kafian, edo txitak olloaren egalpean, baita Jesus berak paratu zuen konparanza. Heri zegonean ere, joaten ze erdi arrastaka Jesus onaren presentziara, ta egoten ze an egon ta egon amorez erretzen ta erregalatzen alik eta indar-usturik eramaten zuten arteo besotan. Kuidazaleei erratan ziate, Jangoikoas uz nazazie errektrea nadien ene Jaun ona dagon lekuan: eta akar iten ziotenei zergatik etzuen obeditzen Medikuei ta herizaiei, errespondatzen zue, deseaten diotet obeditzea, baña bateo nai nai nuke izan obediente ene Jaun onari tiratzen bainau suabeki elizara, gozatzera beraren konpañia. Jesusen amoreak itxekitzen zue beraren amore, nola suak sua. Bein egonik ordu batez orazioan elizako atari-ondoan, joan ze prisaka aldare nausira, ziola, o ene Jesus, o amore dulce gozoa! Eta artu zue besarka aur dibinoa, ertxitzen ta apatzen zue zoraturik amorez ixuris begietaik negar gozoak. Berze bein eguerri alzinean ikusi zue Benerable batek S. Felix zoeiela urbildus aldarera eskatus humil Ama Birjinal, in zezola mertxede emateas bere seme preziosoa: eta Ama Birjinak beiratus arresti amorosoki paratu zio besotan.

3. Ezpaitute egiten oraiko denboretan alako faboreik Ama Semeek, dioze agian. Zergatik ote da? Zer diogu ontara? Aldatu ote dute jenioa ta kondizioa? Ez, ezi lenekoak dire orai ere: ta orat in lezakete, aurki balezkite ain beren amazala fiñak, nola zen sandu gau. Amore dibino gonon progu bat da *beñerez gaizkirik egitea*. Berrogei urtes izan ze limosna bilzale Roman: beñere etziote goartu akzione edo itz bat kontatzeikena bekatu. Berze progu bat da *ongi egitea*, espezialki kontrarioei: egun guzian obligatuzko ta deboziosko gauzetan beti enpleatzeas landara, beti zebila zerbitzatu ta faboratu naiez proximoeri, eta zenbaitei despreziatzen zutenei ta deitzen hipokrita, limosnen ladrona, ta ala, sereno alegre irrikos ematen zitiote eskerrak korrejitzetas, ta erraten, arrazio daukate, eska bezote Jangoikoai, emenda nadien. Amorearen berze bi progu errealak dire *arimen irabazi naia*, ta *desprezio ta trabaju pasatu naia*. Prozesio andi bat in bear ze Roman egun batez: eta lego sandu gonek erran zio lagunari, goazen Romara, predikatu bear diotet egun: Joan ta pasaturik karririk oiñ urtuxian, begiak apal, humil, modesto, itzuli zire konbentura: Lagunak aldegin zio ia atzendu zen predikuas? Sanduak errespondatu zio, predikatu dugu exenpluareki. Baña itzes ere egiten zue eginala bere estadoaren ariora. Ikusten bazitue zenbait bekatari zebiltzanak gaizki, ezin sufritus aien galmendea, erratan ziate ixil ta humil, ah! pobrettoak, nola galtzen zaraten! Infernu urrin duzie. Ala disimulatuki anitz korrejitu zue maña onas. Bein eman zio limosna señora batek; erreparatuzue sandua ixil ta negarra zeriola. Zer du, fr. Felix? erran zio arrek. Orduan sanduak, barka bezada,



otoi, ta adi benaza, berorren lastimas negar iten dut, zeren ofenditzen baitu Jangoikoa eramanes ala bularrak agerrian. Bereala señorak estalis bularrak erran zio, bedekatua biz orren mia, o fr. Felix. Arrazio dauka.

4. Trabaju pasatzeas ta deseatzeeas exenplu anitz eman zue. Adiskide zue S. Felipe Neri, ta hein urrundarik ikusirik joan zekio prisaka, ta arraturik eskua apatu zio; Arrek arturik besarka erraten zio, Jangoikoak nai dezala ikusi zaizadan nik zu erretzen bizirik. Berzeak, eta nik zu zatikaturik. Arrek, ojala ikus banez nik zu azotaturik karrikas karrika. Onek, ojala ebaki balezazute burua &. Entendatzen zire karidadearen teologia. Berze hein aurkiturik karrikan galdegin zio Felizek ia egarri zen. Erranik ark baietz: atra zue alforjatik ardo eman ziotena limosnas, eta edanarazi zio; jendea irris zegola ta erraten, beira, nola sanduak sanduari ematen dion edatera. Bereala S. Felipek kendurik bere sonbrelua paratu zio S. Felizi, ta ala ibili ze, alik eta biali arteo eske: irri iten ziotela munduak, ta aiek munduas. Odio artu zuena bere gorputzai, zenbat trabajarazten ta penarazten zuen, eztaie explika. Heritasunak kontatzen zitue Jangoikoaren faboreak. Bein zegolaik oñazeeki, galdegin zio Medikuak, nola doakio? errespondatu zue irrikos, gorputz gonek nai zue eskapatu azotea: baña bearko du agoantatu. Medikuak oduan, eska bezo gure Jaunari, ta inboka bez Jesus onaren izena, eman dezon osasuna nola orrek berzeei ematen dioten aipatus Jesus. Errespondatu zio sanduak, entenda bez, Mediku Jauna, ezi baneki libra nindeikela oñazegontaik aipatus Jesus, eznezakela aipa; zeren ezi Jangoikoa barin bada bisitatzen nauena oñaze goneki, zergatik libratu bear naiz? Bentzait pixka gebeki nai diot mostratu ene agradezimentua dolore ta pena pasatu zituenei ene Redentoreak enegatik. Ta galdegiten ziotenei nola zoekion dolorees, zio, zer dioze dolore? Arrosak dire ta loreak paraisoan sortu ta errepartitzentuenak Jangoikoak bere onetsieri. Non dire orai alako gizonak? alako gustoa dutenak? nola baitioze eztuela Jangoikoak orai egiten lengo erre galo ta faboreak. Azkenean abisatu zutelarik iltzeko peligroas alegraturik agitz, konfesa komekaturik, ta guzies barkazio eskaturik, nola balitz munduko bekataririk andiena, ofrezitu ze Jangoikoai zen guzia: elebatu ze espirituas, ikusi zue gloriaren asko prenda, ta Maria Santisima etorri zekiona bisitatzera: eta iltze ditzoso Maiatzaren 18an: adinaren 74.an Sixto V.en denboran. Urbano VIII.ak beati-fikatu zue &.

Maiatzaren 19. S. Dunstano Kantuariakoa, p. 300.

Maiatzaren 20.an San Bernardino Senakoa

1. S. Bernardino jaio ze Senan jendaki nobletik. Irur urtetan il zekio Ama, ta seitan Aita, emazurz gelditurik ain aurra. Bere izeba bat bere Amaren Aizpa enkargatu ze kuidatzeas: baña Jangoikoaren fortunaz neke guti, gusto andia izan zue azitzean, zeren alde bat eldu ze agitz eder agraziatua, berze alde agitz humil, modesto, alkekor, ta debotoa, afizionatua ematera limosnak, bisitatzera elizak, laguntzera mezak, ta imitatzera Predikarien mintzaera; eta ala dibertitzen ze predikatus mutiko-lagunei aditu zuena elizan. Amirur urtetan asi ze estudiatzen filosofia; ta bere Maestruak zio, sekulan etzuela ikusi Diszipulo habilagorik ta onagorik. Ain ze garbi honestoa, ezi etzue aitu nai itz dezente etzenik: eta noribaiti eskapatzen bazekio, bera gelditzen ze alke gorriturik; ta bera etzegolaik presente, barin bazeude jardukitzen suelto, agertzen baze, erraten zute, ola, Bernardino eldu da, utzagun. Egun batez zelebratzen ze Senan festa andi bat, ta lekurik ez izanes elizabarnean, gelditu ze asko jende elizaatarian. Igan ze Bernardino an pulpito gisa batean, ta predikatu zioite ainberze debozio ta graziareki, ezi guziak utzi zitue admiraturik, zer izanen ote da mutiko gau? Senan zue berze izeba bat erreljiosa sanda, zein bisitatzu zuen maiz, ta aditzen konseju on ematen zitienak. Oni erraten zio Bernardino, izeba, ni nago guzies amorosturik donzella eder bates, errobatu baitida biotza; ta egun bat utzi banez bisitatu gabe, iduri zaida il neikela penas. Izeba paratu ze kuidadotan, nola baize mutil bat ain galanta, engañatu ote zuen norbaitek: Asi ze goart egiten norata joaten zen: ta ikusi zue joaten zela portale batera S,zeñen gañeko aldean zegon Ama Birjinaren imajina bat txoil ederra, ta au bide zela zion donzella eder gura: zeñen alzinean egoten zen orduak belauriko. Eta konfesarazi zio egia zela, ta eskatzen ziola guarda zezan kastidade perfektoan. Eta ala izan ze bizi guzian deboto Ama Birjinaren, ta bere jaietan predikatzen zue gana obean; ta bein erran zue, ni jaio nitza Ama Birjinaren jaitegunean; egun berean in nitza erreljioso, ta erran lenbiziko meza, ta lenbiziko predikua; ta uste dut izan salbo beraren medios. Segitu zue estudio goragokoetan ogei urtetaraño. Denbora gartan bide ze, noiz S. Bizente Ferrer predikatzen zegolaik, sartu zen Bernardino, ta baraturik predikuan erran zuen Predikari sanduak, berri on bat ematen dizet, fielak, dagola eliza gontan



mutil bat inen dena sandu, ta elizak deklaratu duena sandu, ni baño len. Ta ala izan ze.

2. Agiturik peste andi bat, ilik hospitalean ez solamente anitz heri, baitare ministro asistitzen ziotenak, ia etze nior trebe asistitzera an: Mutil sanduak ikusirik desanparo gura, erresolbitu zue il edo bizi asistitzea, eta bola ezpaize aski bera bakarrik, konbertitu zitue bere lagun on batzuk; eta laur ilabetes an trabajatus, norktiki zenbat bizi atra zuzten il bear zirenak? Eta norktiki zenbat kuadratu zekion Jangoikoak karidade gura. Guardatu zitue sano ta sendo. Gero ordea etxean libre zegolaik, heritu ze laur ilabetes: ondorean Jangoikoaren inspirazio sartu ze S. Franziskoren erreligionean, salduri, ta emanik obreei zuen guzia. Ordenaturik sazerdote, lenbiziko meza erran zuelaik, predikarazi ziote artan. Eta ainberze kuadratu zekiote, ezi señalatu zute Ordeneko Predikari. Bozan zue marrankotasun zerbait, eta Ama Birjinaren medios eman zio Jangoikoak boza klaro propia, deklaratus ala eskojitu zuela bere Pregonaritako. Ederki egin zue ofizio goi predikatus egunoro bein edo bi aldiz, barin baze adizalerik, amasei urtes. Ageri ze Jangoikoaren dono zuena, ezi atra zue fruitu admiragarria; baketu zitue aspaldiko gerra zirenak Italian elkarren kontra, ta iles elkar: konbertitu zitue anitz fundituak luxurian: desterratu zitue sorginderiak ta arte gaixtoak: oneratu zitue kostunbre gaixtoak: eta milla gauza on in zitue fraile ta Monja, ta genero guzietan. Zerama ol batean eskribiturik urresko letra larrieki Jesus onaren izena, zeñen deboto baize: eta bera ze Jesusen imajina bizi bat, humila, mansoa, sufritua, sandu eder ederra gorputz ta ariman. Zenbat persegitu zuten Deabruiek, eta jende gaixtoek? Sereno beti triunfarazi zue Jangoikoak. Admiragarria ze jendearen debozioa aditzera zeruko Aingiru gura, ta Jangoikoaren tronpeta proprioki, zeñen itza baize Jangoikoaren itza, zeñen erranak beirutzen zuzten nola an goratik bialirikako ordenanzak: eta ala predikatu bear zuen orduko atertzen zire elizetako ofizioak, ta berze ofizioetako lanak, erxten zire tribunaleak, lantegiak, ta botigak leku arapatu naiez aditzeko, etzeikelaik tenploan, plazan ta kanpo-agerrian. Nai izan zute aditu Napolesgo erreinuan ere; baña arara zoeielaik, biali zio bidean zeruko erregek heritasun bat, mandatari bekala, deitzeko bere Kortera. Errezibitu zue alegre abisua, baizego ia ikusi naiak Jangoikoaren aurpegia. Errezibiturik Elizako ordenamentuak, etzinarazi ze lurrean S. Franziskoren gisa; ta goraturik eskuak eta begiak zerurat, asi ze alegratzen irrikos gozoro, ta aleganzia goneki despeitu zue arima Agila deitzen den ziudadean 1444 urtean; ta andik sei urte kanonizatu zue Nikolao V.ak. Eta Jangoiko Jaunak honratu zue milagros.

Maiatzaren 25.an Santa Maria Magdalena Pazzi Birjin

1. Jaio ze Florenzian S. Maria Magdalena Pazzi Elizako lore ederra. Aur txipittoa zelarik oraño, alzinatu zio ezaumentua Jangoikoak beretako eskojitu zuenak, eta bateo afizione andi bat Jangoikoaren gauzetara, prinzipalki oraziora, non tratatzen baita Jangoikoareki. Erretiratzen ze bere garaietan, ta Espiritu sanduak erakusten ziola, egoten ze erregalatzen bere Jaunareki. Bedratzi urtetan erakutsi zio erreljioso batek nola meditatatu Jesus onaren pasio doloreskoan. Oneki itxeki zekio amore fiñ bat Jesusengana, ta nai zue errezibitu komunione sagratan: eta etziotelaik permititzen adinagatik, egoten ze inbidia sandu bateki beira komekatzen zirenei: eta bere Ama komekatzen zen egunean etzuke apartarazi bereganik, ziola, Jesus onaren atxon ona senti zuela. Lenbiziko komekatu zelaik, sentiarazi zio Jesus onak alako gozo ta gusto soberanoa, ezi nai luke egunoro: eta lizenzia emanik komekatzeko zorzitik zorzira, egoten ze kontatzen egunak, ta orduak, ellegatzeko. Nola ordea disponitzen ze? Nolako afektoak, amoreak, ta negar gozoak zitue? Entendaturik Jesus onaren amoresko exzesuak salbatzeagatik arimak, apegatu zekio zelo ta antsia andi bat lagundu naiez salbatzen: ta ala bere dibersioa ze erakustea aurlagunei Kredoa, Aita gurea, ta berze orazioak. Orgatik zue gusto Joateas bere buratsoek aldiritan zuten etxe-hazienda batera, erakusteagatik ango aurrei doktrina Kristioa: eta zue ortako grazia espeziala, afizione bekala, ta afizionarazteko aur gaiek. Amari eskatus zenbait gauzatto ematen zitioite premiotako. Eta pena andia zue itzultzeas aldiritatik ziudadera orgatik; eta Amak konsolatzeko bere alabattoa, eraman zue bereki nekazari pobre baten aurttoa, nori erakutsi zezoken.

2. Amar urtetan konsagratu zio Jangoikoai bere gorputz ta arimaren kastidade birjinala boto perpetuoareki. Amabi urtetan, joanik buratsoak berze ziudade batera, utzi zute Monja batzuen kargura. An eskaida on garreki eman ze oraziora ainberze, ezi gau ta egun zego artan, eta askotan aurkitzen zute elebaturik iduri zuela Aingiru bat. Penitenzian pasatzen zue neurria, ez izateareki Ama len kontenitzen zuena. Karidadean ze guzien enxemplu, ez itzik, ez deus admititus nioren kontra, baizik onetsis ta ongi egines al guzian. Bere denboran proponitu ziote ezkontza autara noreki nai zuen; baña zeukanak ia Jesus ona esposotako errespondatu zue erresuelta, lenago utziko zela ebakitza burua. Logratu gero ere utzi



zezaten, sartu ze Karmesko erreljionean. Nobizia zelarik zeukate Maestratako ta uzten zute orazioan zegola iago denboras, ikusirik ortara zuen afizioa. Profesioa egin zuen egunean ikusi zute elebaturik espirituan, prinzipio bekala gero izanen zituen elebazio anitzen. Ortzegun sandu batez asi ta ogeita sei ordus egon ze elebaturik sentidoik gabe, ta ikusi zue pasatu zuena Jesus onak denbora gartan guruzeraño, sentitus berebaitan arren penak, nola pasa balezki berak. Berze egun batez desposatu ze bereki espiritualki, ta koronatzue erregeren esposa bekala. Manatu zio bere Majestadeak asko penitentzia ta penalidade egiteko ta sufritzeko bekatuengatik, ta segitzeagatik Jesus guruzifikatua. Gero denbora luzean utzi zue desanparaturik bekala, nola leonen kubila batean, pasatzen tentazio ta trabaju arrigarriak etsaienganik, errefinatzeko ala bere arima, honratzeko Jangoikoa garaitus infernua, ta triumfatzeko gero gloriosa. Nork erran berex tentazio erruak, ta biktoria izanak? Nork erran zerutik izan zituen bisita, konsolazio, ta fabore erregalatuak? Iago iduri zue bizi zela zeruan, ezi ez lurrean, ezi emen zeukalaik gorputza, gogoa zeuka an. Nork erran Jesus onareki zuen komunikazio amorosoa kasi kontino? Nork erran argi ematen ziona, ikusteko biotzen sekretoak, urruneko ta geroko gauzak? Nork gañarako dono admiragarriak?

3. Ezaundurik klaro Jangoikoaren amore geiegia gizonen alde, admirazios ta amorez zoraturik bekala sandak klamatzen zue, o amorea, amorea, amorea! Agitz andia da bere kriaturei mostrarzen dioten amorea, o Jesus ona. Aurkitzen bazue Monjaren bat, eskua arturik ertxi ertxia, erraten zio, o arima, amatzen duzu amorea? Eta nola zaizke bizi? Etzara senti konsumitzen ta iltzen amorez? Berze batzuetan dorrera igan, soñatu ezki-lak, ta oiui egiten zue, o arimak, atozte, ama zaze amorea ainberze amaten zaiztena. Egin zue errenunzia zeruko erre galoes, imitatzeagatik Jesus guruzifikatua padezitzean. Eta jakinik, zeruan eztaikela padezi, ezutu il nai ain fite, zio, baizik padezitu emen. Pena padezitzen zuen erruena ze jakitea Jangoiko Jauna ofenditzen dela; eta amaborz egun il baño len erran zue, banoaie mundugontaik ikasi gabe nola niork dezaken admiti bekatu mortalerik bere Jaunaren kontra. Andik itxeki zekio zelo andi gura salbatu naiez arimak, naiz kosta anitz neke-pena. Baña edozein generotan sokorritu nai ziote beartsueri bere kostus: ta ala deitzen zute karidadearen Ama. Bada kastidadean Aingeru iduri zue; baña alaere beldurrak bizi ze beti kuidatzen ez mantxatzeko; ta apatzen zitue konbentuko pareteak, zeren guardatzen zuten mundu miserablearen komunika ziotik. Birtute guziek adornatzen zute arima eder gura: guzien gañetik alaere humiltasun bat ain sines sendoa eztaidue aski admira: nola zeukan bere burua ain

gaixtotako, ziola, ezpalez Jangoikoak iduki bere eskutik, galduko zela, ta beti bere kulpak andiago kontatzen zitue, berzeenak baño. Eta konfesorai galdegiten zio, Aita, iduri zaio salbatuko ote nai zen? Ia zergatik galdegiten zion, erranik, errespondatzen zue, zergatik gauza lotsagarria baita ni bekalako bat, gauza onik in eztuena bizi guzian, agertzea Jangoikoaren tribunalean.

4. Azkenerat gloria gora eman nazionak zeruan, eman zio emen penasko purgatorio gisa luze bat, bi urte ta erdi baño iagos, ez gaitz bat, baizik anitz gaitz batean. Gorputz guzian zitue ainberze oñaze, nola baleukate martirizatzen pena errueki; arriturik Medikuak nola zeiken iraun bizirik pasatus ainberze. Alaere iago pena senti zue ariman, utzirik Jangoikoaeskonsolu andian, imita zezan Jesus ona guruzean klamatzen, ene Jangoikoa, ene Jangoikoa, zergatik utzi nau desanparaturik? Alaere zego ain konforme, ala egoteko, nai bazue Jangoikoak, juizioko eguneraño. Geroago, ta iago martirio pasatzen zue, ta niondik ez alibiorik; ala erraten zue, nere Jesus onak guruzean etzuela izan konsolurik: etzagula amatu berzerik, baizik Jesus ona, ta padezi dezagula beraren amorez. Ofratzen diot datorren guzia, nola in dezadan grazia salbatzeas ene arima. Iltze adinaren 41 urtean: Kristoren 1607.an. Gelditu ze ain eder miragarri, manifestatzen baize arimaren gloria, ta dirau oso fragrante. Ilik orzitzeko zegolaik apartatu zue aurpegia, zeren deshonesto bat zegokion berra. Beatifikatu 1626.an

Maiatzaren 26.an S. Felipe Neri pag. 297.



Maiatzaren 30.an

San Fernando III. Errege Españakoa

1. Jangoiko Jaunak nai duelaik egin miserikordia Erreinu batu bateki, ematen dio errege bere biotzekoa. Españako erreinua zego Moroen esku ean afljiturik ia laur eun urte gaietan; alibiatzeko biali zue mundura S. Fernando. Da gauza notagarria, bi aizpaek logratzea bi seme errege ta sandu: D.a Berengelak Kastelako erreginak S. Fernando, ta D.a Blankak arren aizpak S. Luis Franziaiko errege. Denbora gartan alaber erreinatu zute errege guapoek, D.n Santxo Fuerteak Nafarroan, ta D.n Jaime Konkistazaleak Aragoan. Azi zue D.a Berengelak S. Fernando bere bularretan, ta azi zue bere kondizio onetan ere juizioso, ta birtuoso: Amak on ikusirik zeditu zio bere korona Kastelakoa: andik zenbait urte il zelaik bere Aita Leongo erregea, gelditu ze Fernando bi erreinu goien errege fortunoso, zeren Jangoikoak ala nai zuen: beti ordea mantenitu ze obediente Amari, eta murmuratzen zutelaik ain errege andia ain obediente egotea Amari aur bat bekala, zio, noizta uzten duten hume izatea, utziko dut obediente izatea. Lenbiziko kuidatzen zuena ze, gloriako errege Jesu Kristo izan zeien obeditu, estimatua, ta honratua bere erreinuetan beraren Ama Santisimareki: eta ala persegitu zitue herejeak, espezialki Albijenseak denbora gaietan goratu zirenak Ama Birjinaren deshooretan ukatus bere birjinidade perpetuoa: eta diote ezi aien erretzeko, errege sanduak bere soñean ermaten zituela egurrak: eta aietaik bakotzik ere etzue utzi baratzera bere erreinuan.

2. Gero itzuli zitue bere pensamentuak, arma ta indar guziak Moro-en kontra. Zenbat gerra ta batalla, zenbat biktoria, ta alzinamentu izan zuen, luze litzake kontatzea: Aski da erratea, ogeitamaborz urte erreinatu zuenetan, kontino pelean aieki, beñere etzuela galdu akzionerik; batalla adiña biktoria kontatu zuela; kastelu, ziudade, erreinu akometitu zituen guziak guziak iragazi zituela; eta ala Moro-en errege batzuk garaiturik kendu zitue; berze batzuk artu zitue tributario bere eskupean, iduri baitu zeukala bereki beti fortuna, zeren baizeuka Jangoikoa. Galdegini, zein ote zen kausa, izateko bera bere alzinekoak baño fortunosoago; errespondatu zue, agian naiago bide zute aumentatu beren erreinua, ezi erreligjione katolikoa: nik eztut nai baizik Jangoikoaren gloria; orgatik agian faboratzen nau. Intenzio on goneki juntatzen zitue bere otoiak, penitentziak, sakrifizioak, errogatibak, botoak. Prinzipalkiro artu zue bere Patro-

na Maria Santisima, zeñen imajina bat Aingiruek egina, diotenez, zeuka bere palazioan, ta gerrako kanpoan, zeñen oñetan pasatzen zituen orduak orazioan: berze bat zerama bereki zaldi-gañean, orazio egiteko bear orduetan. Alako lagunareki gogoa zeuka animoso, ta biktoria seguro.

3. Erragun zenbait fabore in zitionak, entenda daien ere sanduaren sandua. Nai zuelaik irabazi Sevilla, biali zue alde batetik D. Pelai Korrea, zeñek opaturik infinizio bat Moroeki peleatu zue fuerte denbora luzean, alik eta aiek iges eginik, gaua urbildus sentiturik arrek falta zekiola denbora, goraturik begiak zerura oiusekatzu zio, S. Maria, deten tu dia; eta baratu ze iruzkia zeruan geldi, logratu arteo biktoria beta. Amasei ilabetez ikuki zue inguraturik Sevilla; bitarteo eginik kanpoan irur tenplo, aietan paraturik Ama Birjinaren irur imajina bereki beti zeramazkienak: an zelebrarazten ta enzunarazten zitue mezak, ta egiten orazioak. Arratsalde batez egon ze orazioan zenbait ordus, eskatzen barkazio, ta fabore Ama Santisimari: aditu zue klaro erraten ziola, ene imajina Sevillan dagon artan, Antiguaskoa deituan, duzu em peñu ona kontino: segi zazu ezi garaituko duzu. Errege atra ze gauas etzekiela zer ari zen, joan ze Sevillara; portalean aurkitu zue gaste iduri bat ederra, bide ze bere Aingiru guardiakoa, zeñek kidatus eraman zue karrikas karrika Antiguaskoaren denbora, zein idikirik milagros, ikusi zue ta adoratu zue Ama Birjinaren imajina gura, eta orazio eginik antsia andiareki, atra ze itzultzeko bere kanpora: eta grazioso da sarzerakoan portalean, erori baizekio ezpata ustekabea, ta ez erreparatu aurkitu zuen arteo itzultzerakoan, adiarazteko agian etzuela arma bearririk, defendatzen zutelaik Jangoikoak ta bere Ama Santisimak. Azkeneko errendiarazirik ziudade andi gura sartu ze triunfante an, ordenaturik prozesio solemne bat, ta paraturik Ama Birjinaren imajina karroza triumfalean, eskuieko aldetik errege, ezkerrekotik bere seme Jauna, paratu zute eliza Nausian festa solemne bateki.

4. Gisa ontan berak merejitus birtute ta orazioeki, ta zeruak faboratus prodijioeki, sujetaturik Españako Moroak, nai zue pasatu Afrikara, sujetatzeko angoak ere. Baña Jangoikoak nai zue deskansarazi. Ezaundu zue, eta ia guziak utzirik, kuidatzen zue sollik arimas. Medikuek manatu baño len konfesatu ze, ta eskatu zue komekadura. Ekarki ziotelaik akonpañatus bere seme Infanteak, obispoek, ta sazerdoteek, sarzerakoan heri zegon ganbaran, urtiki ze lurrean, ta soka bat paraturik lepotik, errepasatus Jesus onaren pasio doloreskoaren pausuak, ponderatus beraren miserikordia, ta bere kulpak, golpatus bularra eskatu zio barkamendua. Bereala egin zue fede Kristioaren protestazioa: andik atrarazi zitue insignia erreale guziak, adiarazis nior Kristoren aldean eztela errege, ta guziok



ilzean garela bardin. Errezibiturik amen prezioso gura, ta emanik esker milla milla, deitu bere Andrea, humeak, ta propioak, egin zio te platika sandu bat, enkargatus Kristiotasuna ta kunplitzea beren obligazioak. Ondorean izan zue espirituaren elebazio sobrenaturale bat, zeintan ikusi zuen Aingiruen tropa eldu zena arimaren eske. Itzulirik berebaitan bozkariundes beterik eman zio Jangoikoai eskerrak in zition faborees, ta ofrezitu zio bere arima. Eta manaturik sazerdoteei kantatzeko litaniak, apaldus begiak sosegu andiareki, eman zue bere espiritua 1252 urtean. Jende guziak ikusten zire negarres penas: Aingiruak aditzen zire kantatzen alegranzias, jαιο zela bizi obero.

5. Emen notatzen dute Autoreek, nola Jangoikoak daramazkien beregana bereak nai duen bidetik. Sandu egin zio kasi denbora batean bi lengusuak S. Fernando ta S. Luis; baña zein bide diferenteas! ura emengo fortuna ta ditxaen bideas: au desfortuna ta desditxaenas mundurako. S. Fernando batalla ta gerra guzietan atra ze biktorioso. S. Luis lenbizian fortuna zerbait izanik ellegatu ze izatera kautibo, ta pestes iltzera erreinutik kanpoan. Eta biok Jangoikoaren zerbitzutan; eta biok Jangoikoaren biotzeko, biok salbo ta sandu: entenda dezagun, munduko on eta gaitz deitzen direnak datozila Jangoikoaren eskutik; eztingutela estorburik egiten, geurok nor bagara: eman dezkingun onak, edo eman dezkingun gaitzak, guzietas eman beartiogula eskerrak, zeren bera baita ona, ta onez ematen baitigu dena dela: ezi egia da diona S. Pablok Rom. 8: *Jangoikoa maite dute-nei gauza guziek laguntzen diotela onerako*. Gaixtoek kontra guzia itzultzen dute gaitzerako, nola armiamak guzia pozio. Autore batek dio daikela dudatu, zer izan zen iago S. Fernando, edo soldado balienteago, edo sandu perfektoago. Oroat galdegin zeike, izan ote zen fortunosoago, edo prudenteago. Baña erran bear da, bere santidadeak daramala abantalla gañarako prenda guziei. Orai santidadea konpontzen delaik birtute guzies, ezta aisa determinatzea, zein birtute izan zen andiena sandu gontan, zeren ezi guziak zio te apostus becala zein baño zein iago. Ze Kristio firme relijioso: Ze humila penitentea: Ze mansoa ta justoa: Ze ongiegillea ta justiziaegillea: Ze debotoa, ta gerreroa: Ze animosoa, ta guzis Jangoikoaren beldurduna & Jangoikoak nai dezala ellega gaitzen ikustera zeruan. &.

Maiatzaren 31. an Santa Petronila Birjin San Pedroren alaba

S. Pedro, Apostolu izan baño len, bizitu ze Matrimonioaren estadoan; eta ebanjelioan dio, Kristoren Majestadeak sendatu zuela beraren Amiarreba: bere bizikidea deitzen omen ze Perpetua, ta izan zela Martir, dio Klemente Alexandriakoak, eta zeramatelai iltzera, animatu zuela S. Pedrok erraten ziola, ea Perpetua, oroitu gure Jaunas. Matrimonio gartaik izan omen zue alaba bat deitu zena Petronila. Au omen ze miragarriri eder agraziata; eta etzeien banatu ortas, eman omen zio Jangoikoak heritasun luze trabajusko bat: eta erraten ziotelaik S. Pedrori, nola sendatus berzeak ain aisa, etzuen sendatzen bere alaba perlesiaturik eukana? Errespondatzen zue Aita onak, etzaio ori konbeni, bai dagon heri gorputzean arimaren onerako, ezi askotan gorputzaren kostus arima sendatzen, ta obetzen da. Eta xakin dezazen heri uztea eztela podore-faltas, ta ez amore-faltas, ea Petronila, erran zio, jaiki zaite, ta zerbitza zaguzu maian. Jaiki ze istante sana, ta zerbitzatu zio te maian: eta on egin ta itzuli ze bere goatzera heri, zeren ala manatu zion Aitak. Pasaturik zenbait urte purgatorio gisa gartan, sendatu ze ta sandutu ainberze, ezi egin zue gero berak asko milagro. Izan zue notizia kaballero poderoso batek, Flako deitzen zenak, arren edertasunas ta grazias, eta nai zuelai artu esposatako, joan ze arren etxera akonpañaturik jendes eta armes; deklaratu zio motiboa. Donzella sandak turditu gabe erran zio, Jauna, zertako ainberze arma ta burrunba donzella pobre bakar batendako? Eztire emastekiak irabazten armas, baizik erregalos ta faborees. Nai badu izan nadien orren es?osa, uz benaza prestatzera irur egunes: ondorean biali bezkida zenbait señora akonpañia nazaten orren etxera orren estadoari dagokion gisan. Errespuesta goneki ura kontent despeitu ze ofreziturik inen zela erran becala. Bitarteo S. Petronilak zeukanak aspaldian ofreziturik Jesu Kristori mantentzea birjin, irur egun gaietan egin zuena ze barutu ta eskatu kontino otoies ta negarres etzezala permiti agi zekion boto eginaren kontra: libra zezala peligro gartaik. Irugarren egunean deiturik etorri zekio etxera sazerdote bat deitzen zena Nikomedes: zelebratu zue meza, eman zio komunioea, ta oneki erretiraturik bere kuartoan entregatu zue bere arima Jaunaren eskuetan. Etorri zire señora gaiek Flakok biali zituenak, ta



aurkitu zutelaik ilik, bodaren partez zelebratu zute ilaria. Orzi zute Bia Ardeatinan: gero aldatu solemneki S. Pedroren Basilikara Paulo I Aita Sanduaren denboran. Biz Jangoikoa bedekatua, alako lanak itentuen, zeñendako ilak bizi baitire.

Garagarzaroaren 2.an San Pedro ta Marzelino Martirak

1. Kristio-gendea dela Jangoikoaren familia dire progua errealak Kristio Martiren miragarriak, baitirudi dabilala aien fabore Jangoikoa pelean bekala porfiaz. Ageri da egia gau S. Pedro, ta S. Marzelino Martiretan. Ze ura exorzista, baita grado bat Ordenetan, botatzen zitue Demonioak gorputzetaik Kristoren birtutez. Inzute preso, ta utzi zute Artemioren kargura, zeñek baizue alaba bat agitz maitea, baña espiritu gaixtoes tormenatua. Zegolaik Pedro karzelean, ikusirik Artemio karzelzaia deskonsolaturik bere alabaren gaitzas, erran zio, o Artemio, ezaun balez ta adoratu Jesu Kristo Jangoiko bekala, zein laster senda leiduen orren alaba? Artemiok errespondatu zio, ortan ezauntzen dut zaudela eraturik. Zure Kristo gorrek Jangoikotako daukazunak etzaizke libra zu presondegitik, eta diozu libratuko duela ene alaba espiritu gaixtooganik! ta sendatuko duela! Pedrok erran zio, gure Jangoikoak eztitu libratu nai beti bere zerbitzukoak neke-penaetaik, erreñatzeagatik aien birtutea trabajuan, nola urrea suan: baña badezazke libra, nai badu, ta libratzentu bear orduan. Berzela in zagun progua, ta ofrezu bez inen dela Kristio, baldin gaur Jesu Kristok libratzen banau ni karzeletik. Artemiok burla egines ofrezitu zio, baña sartu zue barnago, ertxirik atari guziak, ta doblaturik guardiak. Joanik etxera kontatu zio andreari pasatu zena burlatus Pedroren erranas. Andre juizioskoak erran zio, etzazula desprezia ark errana; ikusagun gaur zer agitzen den. Ontan daudelaik, ara non presentatzen den Pedro aien alzinean txuris jaintsirik guruze bateki eskuan, zein ikusi orduko atra ze alabaganik espiritu gaixtoa erraten zuela lamentatus, o Pedro, Kristoren birtuteak zureki dagonak lotu nau ta botatu emendik, ta uzten dut Paulina libre. Arritu zire Artemio ta bere Andrea alako miragarries, eta urtikirik Pedroren oñetan konfesatu zute Jesu Kristo dela Jangoiko, eskatus bataiatzea. Oroat in zute etxeko guziek, ta kanpotik ogeitamar persona etorri zirenak aiturik milagroa: baitare preso guziek Artemiok utzi zituenak libre. Ta deiturik sazerdote bat deitzen zena Marzelino, onek erakutsirik fedearen prinzipalenak bataiatu zitue guziak. Juezak biali zio erratera Artemiori, presenta zezkiola Kristio zeuzkienak preso. Onek apatus eskuak erran ziot, nai zutenak pasatu martirio, presta zeizela, ta nai zutenak joan libre, bazoazkela arreatatik. Bera presentatu ze Juezari, ta kontatu zio agitu zekiona, eta S. Pedrok ta S. Marzelinok etzutela nai izan du joan libre, naiz



berak emanik lizenzia. Asarratu ze Jueza deitzen zena Sereno, ta len lenik manatu zue lotzeko Artemio karzelzaia, golpatzeko fuerteki, ta sarzeko karzelean: eta zetočila arren presenziara Pedro ta Marzelino.

2. Asi ze loxentxus beraxtu naiez, baña ikusirik banoan arizela, ta errespondatzen ziola Marzelinok tieso grabe, soldadoei manatu ziotte emateko arri bofetadak aurpegian, ta eman ziotte nekatu arteo emanek: eramanara zizue karzelera, ta utzi an lurrean bidro ta tella puskes eraiki-rik, eman gabe amenik. Orduan itzulis Pedrogana aurpegi asarre turbio ilunareki erran zio, ez pensa, kontentatuko nai zela kastigatus zu: biar lotuarazikozaitut solibo bati, zatika zaizaten ta jan baseiziek. Errespondatu zio Pedrok, eztakit zergatik ori deitzen den Sereno, dagolaik ain turbioturik ilun itsuturik, golparazi baitu ta sarrarazi karzelean Marzelino gizon sandu gura, ta Jangoikoaren adiskidea, zeñi orrek bear lioken eskatu, logra dezon Jangoikoaganik libratzea pena eternoetaik. Oneki iago asarratu ze, ta pararazi zepo batean kargaturik burriñas. Baña Jesus ona etze atzendu bere sierboas: biali zio Marzelinori Aingiru bat, zeñek jaintsiarazirik bere tresenak eraman zue Pedro zegon kalabozora: ta libratu-rik au ere, biak eraman zitue bereki Kristio berri gaiek zeuden etxera, zeuden an zazpi egunes animatzen presentatzeko Juezaren alzinean. Biramonean Juezak bialirik karzelera Pedroken ta Marzelinoren eske, etzirelaik aurkitu an, itzuli zue bere errabia Artemioren, bere Andre, ta alabaren kontra: ta manatu zue ortzitzeko bizirik. Zeramazkitelaik ortako, atra zire bidera Pedro ta Marzelino animatzeko iltzera gogotik premio eternoagatik. Ezaundu zuzte Ministroek, ta arrapatu zuzte: ta burua ebaki Artemiori, ta arren Andrea ta alaba botarik leze batean, ta gañetik arri-montioak, presentatu zuzte Juezari bi gaiek, zein degollarazi zitue oian batean; ta berdugoak berak ikusi zitue arimak eder igaten zerura; ta konbertitu ze orgatik &.

Garagarzaroaren 6.an San Norberto Arzobispoa

1. S. Norberto jaiotze jendaki anditik Kolonia aldean; ari ze Arzobispoaren ta Enperadorearen palazioetan, amable bere kondizio onengatik, eta estimatua guzienganik: orgatik asi ze banidadean zebatzen, ta aizezko dorreak fabrikatzen bere imajinazioan. Baña nola mundua baita engañazale, ta ezin dezakena ase biotz humanoa, joan ze ezaundus, biotzaren satisfakzioa, ta arimaren errepausa Jangoikoan sollik daikela logra: eta ala len munduari baño iago asi ze ematen Jangoikoari. Ordenatu ze mezas, bestitu ze habitu pobreas, despeitu ze dibersio banoetaik, erretiratu ze egitera penitentzia ta orazio: Gero ia arturik Jangoikoaren suas asi ze predikatzen zelo andiareki. Asko irabazi zitue Jangoikoaren: baña izan ere zitue inbidiosoak ta kontrarioak, zeñen agrabioak sufritu zitue humil, barkatus gogotik, barka zezon berari Jangoikoak: zeñeki gozatzen ze orazioan zebaturik. Joaten ze berarias kanpoko elizetara errateagatik meza iago espazio ta debozioreki: ta egun batez konsagratuas geros goart eman zue kalizan armiarma (edo armirmau) beltz andi mota gaixtotako bat: egon ze dudan etxakin zer egin, edo artu biziaren peligrareki, edo utzi mezaren perfekzioa gabe. Azkeneko erresolbitu zue artzea, il edo bizi: ta meza bukatu-rik jarri ze orazioan etxidetan eriotzea. Baña Jangoikoak naita eman zio estornudo edo atija batek, oneki egotzi zue sudurretaik animale benenatua, gaitzik egin gabe: ikus daien alde bat sakrifizioari zuen erreberentzia, berze alde izan daiken konfianza Jangoikoan. Irur urteren buruan utzirik errenta zituen guziak, pobre gisa oiñ-urtuxian joan ze Romara, apatu zio oña Aita Sanduari, zeñen lizenzia ta bedeizioa izan zue predikatzeke Jangoikoaren itza mundu guzian. Oneki asi ze barratzen erris erri, ta zitudades zitudade doktrina zerukoa, ta logratu fruitu abasto Jangoikoaren graziaz.

2. Dono espeziala zue baketzeko diskordia zutenak, eta Jangoikoak milagros ere inarazten ziotte sanduaren erranak. Lagun asko arrimatzeareki fundatu zue erreligione Premostrazense deitua, S. Agustinen erreglari-ki Jangoikoaren gloriatan. Milagro anitz egiten zue, espezialki botatus espiritu gaixtoak gorputzetaik. Bat ze agitz errebel turioso, erraten zituena guzien alzinean guzien bekatu sekretoenak ere, baña ez ongi konfesatuak. Orgatik alkearen beldurrez utzi zute kasi bakarrik S. Norbertoreki; baña sanduak sujetatu ta atrarazi zue baru ta orazioen podores. Anitz



pelea izan zue gaixto gaieki, baña sanduak izateareki lagun guzis poderosoa garaitu zitue beti. Egin zute nai etzuela Obispo Magdeburgoko: an izan zue berriz pelea gizon gaixtoeki, Elizako errentak usurpaturik zeuzkiteneki, obligarazis egitera errestitu zio. Orgatik artu zioite sanduari odio erru bat, ta zebiltza mendekatu naies. Ortzegun sandu batez zegolaik aditzen konfesioak, ellegatu ze bat penitente iduri konfesatu nai zuelako atxekian. Baña nork dezoke gaizkirik egin defendatzen duenai Jangoikoak? Sanduak manatu zio zegola geldi: eta errejstrarazirik aurkitu zioite zekarrala puñale bat, iltzeko sandua, deklaratu zuen bekala, ta noren orde. Sandu gonek alaber on andia egin zio Elizari faboratus Aita Sandu Inozentio II. zismatikoen kontra. Azkenean ellegaturik plazoa, joateko mundugontaik, sufriturik laur ilabetez heritasun trabajoso pazienza andiareki, beterik obra ones ta merejimentus iltze soseju ta bake onean 1134 urtean. Agertu ze glorioso bere errelijioso zenbaitei, eta Jangoikoak manifestatu zue milagroeki. Honra andia du fundatu zuen errelijioneas.

Garagarzaroaren 12.an Santa Margarita Erregina Eskoziakoa

1. Estado guzietan egitentu Jangoikoak bere sanduak, direla erregeak, direla probeak direla erreginak, direla ikazkinak, zeren ezi santidadea baitago arimaren on izatean, eta arima ona guzietas baliatzen da, plazer emateko Jangoiko onari. Orra S. Margarita izanik Aita Inglaterrako errege, ta Ama enperadorearen alaba, ellegaturik bera izatera Eskoziako erregina, sanda estado ta adin guzietan. Inglaterratik atrarik Amareki fortunaz Jangoikoaren probidenzias ellegatu ze Eskoziako portuan. An ezaundurik beraren prenda exzelenteak ango errege Malkolmok eskatu zue bere esposatako, ta Amaren manamendus ezkondu ze. Dignidade berriareki etzitue aldatu, bai aumentatu lengo kostunbre onak, elizarako afizionea, orazioak, baruak, limosnak, ta gauza on obligaziosko ta debozioskoak. Grabe ta afable amatzen zute guziek ta errespetatzen, de manera ezi nior etze trebe egitera edo erratera bear etzenik beraren presenzian, ta bear zutena bai eskatzera konfiaturik Ama on bati bekala. Hume izan zituenak azitzen zitue kuidado guziareki exenplu ones, doktrinas, zeloas, korrekziones, ta orazioas prinzipalki, egunoro enkomendatus Jangoikoak negarres, edo il zekzien gaixtatu baño len, edo in zekzien onak ta sanduak. Bere esposo erregeari ze ain amablea, ezi laster itzuli zue bere kondizioetara ta bere gisarakoa, de manera ezi errege beti zego beira nondik inen zion plazer, eta ikusirik ematen zituela limosnas palazioko diru, dirusari, alhaja, ta gauza arrapatzen zuen guzia, ontzat artzen zue erregek, ta beti konformatzen ze beraren konseju ta borondateareki, aditus, obeditus, ta atenditus guzietan sanda bekala. Bein solamente etzio egin plazer, ta kostatu zekio bizia, joanik gerra batera, arrek nai etzuela, il baize an bere seme bateki.

2. Karidadean obreeki, debozioan Jangoikoareki, ta zeloan menekokeki ze bere biziaren iteko ta enplegua. Soldakoak manatzen zitue ez egiteko niori kalterik pasatzean errietaik: ortako berak pagatzen zioite ederki ta laudatzen. Ziudade ta errietan zeuzkie bere espia genero onekoak, zelaizeko ta abisatzeko gaizgurak, eta bearrak, emateko erremedio. Andialdeei berak modu andiareki ematen ziotie konseju ta korrekziones bear zirenak. Erregereki bateo ta persona sanduen medios kendu zitue asko usanza gaixto len zirenak, ta paratu onak; ala ogeitamar urte erreinatu zuenetan berritu bekala zue erreinu guzia, ta egin zue ona ta ditxosoa: Ainberze



balio du arima on batek gobernuan. Karidadea zenbat! Goizoro sei pobreei garbitzen zitiote oñak bere eskus: bedratzi aurttoei belauriko ematen ziote jatera janari delikatuak agora emanek amenak bere eskus. Gero egunoro bazkaria irur eun pobreei erkadan; eta ikusgarri ze, alde batetik errege, berze aldetik erregina zerbitzatzeko makan. Zer iago? Bear guziak ta leku guzietan kuidatzen zue erremediatzeas: Heriei ez solamente zerbitzatzeko ziote, baitare apatzen llagak bere ezipaiñ errealeki. Berak barutus anitz, agitz guti sustentatus bere burua, estudio guzia paratzen zue erremediatzean ta erregalatzeko berzeak, ustus askotan tesoro errealak.

3. Gañarakoan bere bizia ze elizan egotea errezatzen, mezak enzuten, ta orazio mentalean zebaten gau ta egun. Konfesa-komekatzea egiten zue agitz usu ta debozio andiareki. Zeuka beti memoria ta beldur kontu eman bear zuenas Jangoikoaren juizioan. Eskatzen zio konfessoreari kontino, adberti zezkiela, ta erreprehenditu bere faltak: eta etzuelaik erreprehenditzen ez izanes zeren, sandak erraten zio, Aita, nola kunplitzen du obligazioa? nola eznau erreprehenditzen, nai zelaik gaixtoa? Ez izan errespetorik niri, baizik beira sollik Jangoikoai, ta kuida bez ene arimas. Ezaundu zuelaik eriotzea urbildus eldu zekiola, egin zue bizi guziaren konfessio bat jenerala ainberze aiots, negar, ta pena amorosoeki, ezi iduri baizu ito bear zela. O Jauna, zer den au, bekaturik apenas dutenek guti edo baterez, ainberze pena, eta bekatus beterik daudenek ezin senti penarik! Ondorean erran zio konfessoreai, ea geldi bedi Jangoikoareki bakean: ni banoaie ia: denbora guti biziko naiz emen: eta orrek ere segituko nau emendik guti: bi gauza eskatzeniot bitarteo, lenbizikoa oroi daien ene arimas bere sakrifizio ta orazioetan: bigarrena espezialki kuida dezan ene humees, izan daitzen Jangoikoaren beldurdunak: eta ellegatzen denai errege izatera izan bekio on Aita. Heritasun luzean konformidade, pazienza, ta arimo andiareki errefinatu ze arima sanda gura: azken egunetan mostratu ze triste, ta erran zue, egun agitu da desgaziarik andiena Eskoziako erreinuaren. Andik guti ellegatu ze berria nola iltziren errege ta bere semea. Laugarren eguneko uste zute iltzen zela erregina, baña espirituak indar emanik joan ze Oratoriora, non enzun meza ta errezibiturik komekadura iltzeko, itzulirik bere goatzera artu zue Kristo guruzifikatua, ofrezitu zitiore bere angustiak ainberze trabajueki garai gartan, eskatu zio, ene Jaun Jesu Kristo bere Aita Eternoaren borondatez Espiritu sanduak konkurritus eman zuena munduari bizia bere eriotzeareki, libra benaza ni. Erran, ta despeitu zue arima. Gelditu ze gorputza eder miragarri. Iltze 1097 urtean &.

Garagarzaroaren 13.an San Antonio Padua

1. S. Antonio deitzen dena Paduakoa, zeren Paduan bizitu ta obraturik prodijioak iltzen, ta duten Patrono, jαιο ze Lisboan Portugalen. Aurretutik seinalatu ze izan bear zela sandu. Amaborz urtetan berzeak asten direlaik zebaten banidadeetan, ura erretiratu ze errelijionearen portura S. Agustinen Kalonje relijiosoen konbentu batean. Andik pasatu ze urrunagoko batera Koinbran, bizitzeko sollik Jangoikoaren orazioan ta estudioan. An zegolaik, asatu zire andik S. Franziskoren borz fraile predikatzer Moroan errietan, non pasaturik martirio gloriosoa, ekarririk aien gorputz sanduak izan zire errezibituak Koinbran anitz festaeki arren konbentuan. Itxeki zekio biotzean martirioaren antsia, ta imitatu naiez aien birtutea, artu zue S. Franziskoren habitua. Sentitu zute uztea bere lagunek, eta batek erran zio mendekus bekala, zoaz zoaz, agian sandu inen zara laster. Errespondatu zio, ene anaia, aditzen duzulaik in nai zela sandu, gloria izanen da Jangoikoaren. Ajustaturik fraileeki biali bear zutela Moro-errira, zegolaik geroago ta iago naiak il martir, biali zute Afrikara. An heritu ze, ta ezin konbalezitus an, enbarkatu ze nabegatzeko Españarat: baña aizeek eraman zute Siziliara. An jakinik zegola S. Franzisko Asisen, naiz ez sendaturik ongi, nai izan zue joan bisitatzera bere Aita on gura. Andik orañio herikor eraman zue Fraile sandu batek desertuan zen konbentu batera. Emen eman ze oraziora ta penitenziara flakurraturik, ta enpleatzen ze onzien egiten, extrematzen, ta ganarako legoen ofizioetan, niori adiarazi gabe bazeien letrarik. Ain humila ze ain sandu izan bear zena! Biali zute ordenetara zoezinek: eta zeudelaik bateo konbentu batean asko errelijioso ta Predikari, ango superioreak kolazio ondorean erran zue, aietaik norbaitek explika zezala Jangoikoaren itza. Guziak exkusatzen zire. S. Antoniori bere Guardianak manatu zio, erran zezala zerbait. Obedienziak mintzatu ze, ta mintzatu ze ain gora eder miragarriro, ezi guziak gelditu zire mutu arriturik: eta iago beraren humiltasunas, nola altxatu zuen ainberze denboras ainberzeko jakindearen argi gura.

2. Manatu zio S. Franziskok erakusteko teologia; erakutsi zue obedienziak Franzian, Bolonian, eta Paduan: eta predikatu ere zue Jangoikoaren itza Jangoikoaren Aingiru, eta serafin batek bekala, konfirmatus Jangoikoak itza anitz milagroeki, eta ala konbertitus infinizio bat arima. Nola baizeuka biotza itxekirik Jangoikoaren amoresko suan, suturik atratzen



zire itzak penetratzen zuztela ta erretzen arimak. Andik zeto z jendearen kontriziosko negarrak, konfesio jeneralak, bizimoduaren ontzea. Ogeitabi ladron famatuak konbertitu zitue: ta herejeak numeroik gabe: orgatik deitzen baizute herejeen mallua. Bein hereje bat deitzen zena Bonibillo, ukatzen zuena Jesu Kristoren presentzia erreala aldareko sakramentuan konbenzitu, ta utzi zue mutu itzik abe etxakin zer errespondatu. Herejeek dutena, eskatzen zue milagroren bat fedearen. S. Antoniok erran zio, nai du apostatu, berorren mulak guardatzen diola erreberenzia Kristori sakramentuan? Ezetz, baietz: Apostu in zute, progatzeko andik bizpirur egun. Herejeak egun goietan berarias iduki zue mula eman gabe jatera amenik. Irugarren egunean arturik S. Antoniok sakramentua, meza erran ondoan, akonpañaturik infinizio bat jendes, ta ekarririk mula gosetia ere, erran zio oni, ene eskuetan daukaten Jaunaren atenzios manatzen dizut zatozila egitera erreberenzia Jaunoni, desengañadaitzen herejeak, ta sinetsi dezaten sakramentu andi gonon egietafedea. Bitarteo herejeak arrimatzen zio oloa mulari jan zezan: baña mulak oloa utzirik ta belaurikaturik adoratzen zue sakramentua. Ze ikusgarri, herejeak inzitutzen jatera, ta mulak juizio obea zuenak adoratzen sakramentua in gabe kasorik jatekoas. Alegatu zire katolikoak milagro goneki, ta herejeak konfunditu batzuk, konbertitu berze batzuk, mularen Jabea ere bai. Berze aldi batez anitz hereje ziren erri batean sanduak aien konpasionen ta onnaiez nai zio te predikatu; aiek tapatus bearriak etzio te nai aditu. Joan ze itsasbasterrera, ta Jangoikoaren ize nean deitu zitue arraiak, adi nazaze zuek, ezi hereje gebek eznaute aditu nai. Gauza miragarria, manamendu gontara etorri zire infinizio bat arrai andiak xipi, erdikal; ta paraturik erkadan, buruak atrarik ur gañera zeude gelditi attento aditzen erraten ziotena sanduak Jangoikoai zioten obligazioas &. Eta ondorean apaldus buruak, nola bedeizioa eskatus, bedeizioa emanik joan zire urak barna, gelditurik jende guzia admiraturik, ta herejeak beraxturik aditzeko. Berze aldi batez konbidatu zute bazkaris herejeek on kolorez: admititu zue konbita sanduak irabazi naiez aien arimak: baña arima gaixto gaiek paratu zute pozio janarian: Jangoikoak ordea errebelatu zio sanduari: sanduak amoltsu erreprehenditu zitue, ia zergatik nai zuten ilarazi bera, aien onnaiez zebilana? Atxekia atra zio te, in zutela progatzeko ia zen Predikari Apostolikoa, ta ia kunplituko zen berebaitan Kristok errana, berarenek naiz pozio edanik, etzutela kalterik: Itz eman zio te, ezi arturik pozio gura, ezpazue senti dañurik, konbertituko zirela. Egin zue sanduak guruzearen señaleara janari benenatuaren gañean; jan zue, ta gelditu ze ain sano ta sendo nola len. Ala konbertitu zire anitz.

3. Berze anitz prodijios konfirmatzen zue Jangoikoak bere sandu gonon itza. Mintzo gisa batez predikatus entendatzen zute nazione ta mintzo diferentetakoek beren mintzo gisan: Agitz urrundani ere aditzen zute klaro: kanpo agerrian predikatzerakoan erauntsi andiek uzten zute jendea ukitu gabe. Fraileei predikatzean agitz urrundani etorri ze Jangoikoaren milagos S. Franzisko bizi zena, ta guzien erdian ikusi ze besoak zabaldurik aprobaten bekala bere hume onak erraten ziotena. Sandu gau askotan Jangoikoaren birtutez agertzen zekiote Jangoikoak nai ziotenei lotan ere, ta erraten zio te, ea, jaiki, eta konfesa zazu urliareki bekatu in duzuna, zelarik ain sekreto etzekiena baizik Jangoikoak eta berak. Abrats kodizioso baten ilarian predikatzean erran zue, Kristok errana da, non ere baitago zure tesoroa, an dago zure biotza: Ala abrats gorrek beti iduki zue biotza bere tesoroan, ta an utzi du. Zoazte, ta an aurkituko duze. Joan zire ta aurkitu zute arren arkan diruen er tean biotz gogor gura. Etorri zekio bein penitente bat konfesatzera ain kontriziosko pena erruareki, ezi kongoja ta negarren utses etzuke explika. Sanduak erran zio, bada ez dezake mias, joan ta eskribiturik paper batean bekatuak ekar bezkida. Joan ta ekarri zitue eskribiturik, eta aurkitu zire arras borrraturik. Orgatik Demonioak aborrezitzen zue sandua; injeniatzen zue milla tranpa apartarazteko jendea beraganik; ito ere nai zue bera; baña enkomendatus Ama Birjinai garaitu zue beti. Agitz maite zute Ama Birjinak eta bere seme Jesus onak, eta in zio te abore uzteas bere besotan aur dibinoa artzen zuela amoroso besarka.

4. Alako adiskideeki zer milagro da egitea miragarriak? Bere Nobizio bat bein tentatzen zue Satanasek uzteko habitua, ta itzultzeko Ejiptoko elze ta farraskerietara. Zego ia errenditurik: eta sanduak lastimas egin orazio, ta deitu zue: idiki zio agoa, ta ats emanen erran zio, arzazu Espiritu sandua. Gerostik ura gelditu ze libre ta alegre. Berze batek senti zue luxuriaren sua de manera, ezi ez orazios, ez penitenzias ez sakramentuen erre medioes etzuke ematu. Konfesatu ze sandu goneki, eta onek kendu zue bere tunika, ta eman zio para zezala: eta paratu zueneko gelditu ze libre tentazio gartaik betikos. Bein manatu zio te ofizio bat koruan egiteko: atzendu ze ta joan ze predikatzer a, ta artan dagolaik oroiturik erreklinatu ze pulpitoan burua estalirik, ta ordu berean ikusi zute koruan egiten ofizio gura. Ematen zio Jangoikoak su eta argi, ez deustas lotsatzeko, ta ezauntzeko biotz barneko, urrutiko, ta geroko gauzak. Fr. Helias Jeneralari, nai zuelarik lazatu fraileen bizimodua, erresistitu zio fuerte, ta ixilarazi zue Aita Sanduaren presentzian. Enzelino Paduako ta berze ziudadetako tirano kruelari eman zio erreprehensio fuerte bat arrigarri: eta arren soldadoak



zeudelaik beira noiz manatuko zioten iltzeko sandua, berzeak bekala, arrek arturik sanduaren korrea edo kordona paratu zue bere lepoan, ta urtikio zekio oñetara itz eman es emendatuko zela, naiz gero etzuen kunplitu. Diote ikusi zuela S. Antonio mintzatzean inguratutik zeruko argis, ta orgatik egin zuela demostrazio gura zoraturik bekala zer ari zen etzekiela. Geroago Tirano garrek bialio zio present andi bat: sanduak etzue nai izan errezebitu, bai akar egin ekarri zutenei, ta atrarazi andik bereala. Ta baliatu zekio bizia, ezi manatuak zire, errezebitzen bazue, iltzeko bereala: iduri baitu bazekiela sanduak intenzioa. Eskribau gaixto bat ze agitz galdu urratua konzienzias: alaere aurkitzen zuen aldioro sanduak belauriko iten zio erreberenzia. Eskribauak goart eginik uste zue egiten zuela burlas, ta asarratu zekio. Sankuak amoltsu erran zio, sines egiten ziola, zeren baizekie ilen zela Martir, baita grazia bat berak agitz deseatu, ta ezin logratu zuena. Eta ala izan ze: ezi joanik Moro-errira Obispoareki, ta ikusirik hein Obispoa predikatzen epelkara, ta beldurti, arrek goraturik boza erran zue milla gauza on fede Kristioas, ta Mahomaren kontra: orgatik tormentatu ta ilarazi baizute, ta eramaterakoan oroitu ze S. Antonios.

5. Zegolaik S. Antonio Italian, ta bere Aita Lisboan kontuak emanik erregeren kargu izan zuen batez, ta pagaturik erdetxi ziona erregek, arrek gizon prestu malizia gabe bekala etzue kuidatu artzeas paguaren firma: eskatzen ziote berriz pagatua: ziatu zute erregeren tribunalera: An zeudelaik, agertu ze derepente S. Antonio salan, ta erran ziote ofizialei, ar zazie kontuan zeuren kargura ene Aitak entregatu ziziena alako egunean, alako garaiean, alako ta alako monedaetan: ezperen, ofendituko duze Jangoikoa ta progatuko bere ira. Gelditu zire arriturik: eman ziote fin de pagua: desaparezitu ze sandua, libratutik Aita. Gizagaizoa gero berriz akusatatu zute falsuki berze baten eriotzeas: eman ze sententzia iltzeko bera, ta bere zenbait nirabe. S. Antoniok Paduan jakin zue Jangoikoaren errebelazios: arratsalde batez Guardianoai eskatu zio lizenzia joateko bide pixka bat: eta gau artan eramane Aingiruren batek, aurkitu ze Lisboan. Mintzatu zio Juezari, etzekiela ilarazi gizon gaiek etzutenak kulparik. Etzuelaik zeditunai Juezak, sanduak biztuarazi zue ilara, ta galdegin zio justiziaren presenzian ia il zuten bera gizon gaiek: errespondatu zue klaro ezetz. Eta etzio nai izan du galdegin, nor ziren il zutenak, zeren bera etorri zen solamente libratzera inozenteak, ta ez kastigatzera kulpadunak. Ala guziak gelditu zire admiraturik, ta bereeki Aita lire: ilara itzuli ze obiarra, ta sandua Paduara, segitzera bere Jangoikoaren lanak.

5. Konsumiturik lan eta penitentzia geiegias asi ze ia erortzen gorpuzta: ta despeidarako prestatzeko iago, erretiratu ze leku soil batera bi

laguneki: an errezebiturik Elizako ordenamentuak, enkomendatus Jesus onari, ta bere Ama Santisimari iltze sanduki 1231 urtean, eta adinarean 36.an. Ala denbora gutis bizitu ze anitz. Iltzen egun berean nai zutelarik fraileek altxatu ixilik eriotzea, orzitzeagatik beren elizan, Paduatarren beldurrez, Jangoikoaren probidenzias asi zire aurrak eta mutikoak Padua guzia barna klamatzen, il da sandua, sandua il da. Boza gaieki arritu ze ziudade guzia entendatus iltzela S. Antonio. Guziak laster ikustera ilara: eta segitu zire montonka milagroak ainberze ta ain klaroak, ezi gaizki zeuden guziak edozein gaitzes, eskatu ziotenak ongi konfesaturik, guziak sendatu zire, ta berze milla prodijio: orren kasos bereala urbilen urtean kanonizatu zue Aita Sanduak Gregorio IX.ak. Eta egun gartan Lisboan etzekiteilaik oraño kanonizatu zen, agitu ze gauza bat raroa ta grazioso, baituridi Jangoikoak nai zuela, zeruak ta lurak festeja zezaten sandu gau, zeren ezi ango ezkiela guziak soñatzen zire bere kabo: gizonkiak ta emastekiak atrarik etxeetaik zebiltza saltoka bozkariundeze ta kontentuz, etzekielaik niork ere motiboa, solamente Jangoikoak ala nai zuela manifestatu bere sandu glorioso, nola baize jaioa ziudade gartan. Notatu ze eguna, ta aurkitu ze egun gura zela, zeintan kanonizatu zuen Aita Sanduak. Famatu ze laster mundu Kristio guzia barna anitz fabore logratuengatik sanduaren medios. Ogeitamabi urteen buruan aurkitu ze oso gorri ta fresko beraren mia, zein arturik eskuetan S. Buenabenturak erran zue negar gozoeki, o mi bedekiatua, beti laudatu zinduen, ta laudarazi Jangoikoa, ongi ageri da orai, zenbat merejitu duzun Jangoikoaren alzinean, zeñek formatu zinduzan ain ofizio gorarako.

6. Ezta dudarik dela S. Antonio Paduakoa Patrono ona guzietako, baña kontatzen dute espezialki gauza galduen aurkitzeko, zeren agian progatu den ori esperienzias. Kontatzen da sandu berari ebatsirik salterio bat usatzen zuena erakusteko fraileei, eskapatu zela Nobizio bat: eta sanduak egiteareki orazio, ugalde bat pasatzean paratu zekiela Jangoikoaren ordes alzinean Nobizioari Demomoa ezpata bateki, ta manatu ziola itzultzeko salterioa ta bera. Aita Benerable Bernardo Kolnagok Jesusen Konpañiakoak zue bere Patrono S. Antonio Paduakoa, ta tratatzen zue adiskideak adiskidea bekala. Bein etorri zekio mutil bat galdu zuena perla agitz prezioso bat, enkomenda zezan S. Antoniori, aurkitzeko. Arrek goraturik begiak zerura erran zio, zoaz S. Antonioren kapillara, ta erran zozu ene partez in dezala aurki daien &. Joan ta aurkitu zue fraile-iduri bat, zeñek aiturik mandatu, irri egin, ta erran zio, alako zokoan dago &. ap. Claus Cath. 2. conc. 60. n. 7.

Garagarzaroearen 14.an S. Basilio Magno pag. 302.



Garagarzaroaren 15.an Sanduak Bito, Modesto ta Kreszenzia Martirak

1. Inbidias erretzen zeudelaik Eskriba ta Fariseo hipokritak, zeren aurrek ere laudatzen zuten Jesu Kristo, erran zioite bere Majestadeak, *eztuzie leitu eskribiturik dagona Jangoikoas, aurren agbetaik atrakutuela bere laudario-rik obenak?* Zierto errelijione Kristioaren egiaren progu on bat da aurrek ere konfesatzea au, ta firmatzea beren odol inozenteas. Ebetaik bat da S. Bito Mazara Siziliakoan jaioa, Jentil baten semea, bataiatu zena bere borondatez aurttoa zelarik Aitaren borondatearen kontra: eta Jangoiko onak estimatu zuelako señaletan, eman zio grazia, egiteko milagroak, sendatus heriak, ta libratu endemoniatuak. Amabi urtetakoa zelarik, deitu zitue bera ta bere Aita Balerianok Siziliako Prefektoak, eta mutiko sandua nai zutelaik bien eratean apartarazi Kristoren fede ta amoretik, ta ezin logratu zutelaik, juez gaixtoak asarraturik azotarazi zue kruelkiro: baña on etzela aski, manatu zue atormentatzeko berze instrumentu burriñasko izugarrieki. Ortako zoezilaik arrapatzera mutiko sandua, eartu zekizkiote berdugoei besoak, eta Juezari eskua: baña sandutuoak pagatus onareki gaizkia sendatu zio milagros. Oneki utzi zue Juezak Aitaren eskura, onek errendiarazi zezan semea. Injeniatu zue gaixtofikatuak Deabruaren medio gaixto bat ortako. Prestarazi zue ganbara bat ederki alhajatu, ta an goatze bat beratxa, ta asko musika, ta emasteki arin deshonestatzen, engañazezaten. Ikusi zelaik mutiko sandua serpiente gaien eratean, enkomendatu ze Jangoikoai biotz guzias. Bereala bete ze guzia erresplandore zerukoas, ta aditu zire Aingiruen kantzak, zeñeki lotsarritu ziren guziak: eta Aita sarturik ganbaran itsutu ze argi garreki, ta asi ze klamatzen begietako miñes ta onazees. Joan ze bere Jangoikoen tenplora erremedio eske: baña etziokete eman aiek: eman zio ordea bere semeak Jesu Kristoren birtutez. Baña alaere itsuturik gelditu ze ariman: ta ala segitu zue aflijitzen bere hume ona ta ongi egin ziona. Baña Jangoikoak libratu zue bialis Aingiru bat arren kuidazale Modesto ta Kreszenziari, ar zezaten Bito, ta eraman zezaten itsasos nora kidatuko zituen; eta ala kidatu zitue Napolesko erreinura: an utzi zitue. An egon zire irurak leku soil batean alimentatus ekartzen ziotenareki arrano batek, obratus bitarteo Bitok anitz milagro, argitus jendeak, botatus Demonioak.

2. Agitu ze Diokleziano enperadorearen hume bates jabetzea espiritu gaixtoa, zeñek zio etzela atrako, ezpazue atratzen Bitok Kristoren sierboak. Enperadoreak billarazi, ta ermanarazi zue, ta paratu zueneko gañean eskua mutiko sanduak, atra ze iges Deabrua, maltratatus zenbait Jentil burlatzen zirenak sanduas. Enperadoreak ofrezitu zio milla gauza, baña uzten bazue Kristoren fede: baña etzuelaik admititu nai tratu gisa goi, manatu zue sartzeko preso kalabozo ilun batean, ta ez emateko amenik ere. Nork ezta erreatzen nola sanduak pagatzenuen gaizkiak ongieki, ta aiek kontra gaizkiegi ongiegillea? Ala da: Deabruaren direnak itzultzen dire beren ongiegilleen kontra: Jangoikoaren direnek berriz onesten ta ongiegiten gaixtoei ere, gaizkiegilleei ere. An jarri ze orazioan: argitu ze presondegia, ta aditu ze boza gau, *zaude fuerte, Bito, ezi ni nago prest laguntzeka*. Presentarazirik irurak tribunalean, Bitok animatzen zitue lagunak, nola zegon prebeniturik korona koronatzeko pasatu ondoan uti bat. Ezin errendiarazi zuelaik mutiko sandua enperadoreak, manatu zue labe bat bete plomus, resinas, ta pikes paratzeko sugarretan, ta sarrarazteko an irurak, eta Bitori erran zio, orai ikusiko diagu ire Jangoikoak libratuko auen ene eskuetaik. Bitok formaturik gurutzearen señaletan, sarturik labean kantatzen zitue Jangoikoaren laudarioak sentitu gabe mellarik ere, ta atra ze luzituago len baño. Gero plazan botarazi zue leon andi bati, an zatika zezan. Bildu ze infinizio bat jende ikustera: ta ikusgarri ze, mutiko bat amabi urtetakoa, ta animale-tzar gura aurkez aurke. Baña axurritto bat bekala bota zekio oñetara lamikatus ta festa egines. Ori ikusirik konbertitu ze mila bat persona Kristoren federa. Eta Bitok erraten zio Enperadoreari, eztakusa nola animaleek ere ezauntzen duten Kristoren birtutea; ta orrek ezna ezaundu? Baña guziareki arek itsuturik manatu zue edatzeko irurak katastan, edo tormentuko potroan; tormentatu zuzte ikaragarri, zatikatu aragiak, ta deskoiuntatu ezurak. Orazio eginik Bitok, asi ze lurra ikaratzen, asarratzen zerua, eror zen ausnarriak, ta enperadorea joan ze iges garaitzen zuela mutiko batek. Au ta bere lagunak erman zitue Aingiru batek lengo lekura: an Jangoikoai eskerrak emanik, ta eskaturik iltzea, logratu zute Jangoikoaren eskuetan 303 urtean. Alke dagigun adinetakoei, aurrek ainberze egiteas ta padezitzeas Kristoren amorez, eta guk deus guti &.



Garagarzaroaren 21.an San Luis Gonzaga

1. S. Luis Gonzaga Inperioko Prinzipe, Kastellongo Markes azi zena palazio konbenienzias, erragalos, ta grandezas betean da asteen hispillu ta Patrono. Jaiobaño len ofratu zue bere Amak Ama Birjinari, ta jaiotzera-koan beldurrak iltzeien, bataiatu zute peligroan de manera ezi dirudi jai zela zerurako lenago ezi mundurako ain goizik errezibitu zuena bataioko grazia ez galtzeko sekula bere bizian. Azi zute kuido guziareki, ta bere Ama onak lenbiziko itzak erakutsi zio erraten Jesus Maria: geroxago zeñatzen, ta errezatzen Aita gurea, Abemaria, ta berze orazioak. Laur borz urtetan afizionarazi naiez Aitak soldadeskara eraman zue soldadoen erre-bista iten zen lekura; an enredatzen polboras tiratus kañon txipi bat erre-rik aurpegia egon ze biziaren peligroan: baña Jangoiok etzue nai iltzeien oraño. An ere aditus soldadoen zenbait itz asi ze erraten entendatu gabe zer nai zuten erran, alik eta Maestruak abisaturik itz gaixtoak zirela, ainberze penatu ze, ezi bizi guzien au bekatu anditako kontatzen ta konfesa-tzen zue. Zazpi urtetan ia argiturik ezaumentua eman ze deboziora mira-garriro Aingiru bat bekala. Zorzi urtetaik alzina asi ze estudiantzen estudio bear zirenak akonpañatus santidadeareki. An Florenzian ezaundurik inporta dena orazioa, ta Ama Birjinaren debozioa, ortan zebatu ze bio-tzez: eta entendaturik, in zezaken zerbitzu ta gustorik obena zela imita-tzea garbitasunean, egin zue boto mantenitzeko birjin bizi guzian: eta kunplitu zue ain perfekto, ezi ageri ze izan zela Jangoiokaren dono espe-ziala Ama Santisimaren medios. Baña laguntzen ze bere aldetik ere, apar-tatus okasioetaik, bizitus erretiraturik, etxetik kanpoan begiak apal beti, ta beti iges emastekietaik, beñere ez beiratus aurpegira niori, ezeta enpera-trizai ere, zenen zerbitzuan egon zen asko denboras.

2. Egin zue konfesio bat jenerala ainberze kontriziosko negarreki, nola izan baliz munduko gaixtoen gaixtoena, etzuelaik izan kulpa grabe-rik sekulan. Segitu zue konfesa-komekatzen maiz, meza enzuten eguno-ro, ta bezperak jaioro, ta guardatzen dieta ertxia kontino. Asirle orazio mentalean pensatzen Jesu Kristoren misterioak egoten ze bere kuartoan belauriko geldi anitz denboras. Komekatzean sentitzen zue ainberze debozio, ezi urturik biotza su amoreskoan guzia ze negar egitea gozoro. Amirur urtetan ia erresolbitu ze despeitzera mundua, sartus erreligioneren batean, ta zeditus anaiari estado tokatzen zekiona. Ama Birjinaren erre-

belazios sartu ze Jesusen Konpañian ongi kostarik Aitaren garaitzea, eta bere jendeak nai etzutenak utzi beren konpañiatik ain mutil ona. Atzen-du ze betikos bere etxeko grandezas, ta guzien meneena balitz bekala asi ze kunplitzen errelijoneko ofizioak humiltasun andiareki. Penitenziara eman ze geiegi, flakatus: bere gorputza sobra. Guzien gañetik bere bizia ze orazio mentala: an ondaturik Jangoiokaren barnean egoten ze glorian bekala mogitu gabe asko ordus, nola ezpalu sentidorik, deustas etzuela kasorik baizik bere Jangoiokas, barratu gabe pensamentua berzetara, ta ixuris abasto negar gozoak. Eta erran daike egiaz egun guzian zegola ora-zioan; ezi ordenaturik, buruko miñain arintzeko, etzeiela egon ainberze pensatzen Jangoiokan nai baluke ere, etzeike atzen ere Majestadeas. Ta ala edozein lanetan okupaturik eskuak, oñak, edo gorputza, arima erregala-tzen ze Jangoiokareki kontino. Eta beti zego aditu naiak edo mintzatu naiak zerbait Jangoiokaren laudariotan; ta mintzatzetas solamente, ta adi-tzeas ere, paratzen zekio sutan aurpegia ere, ez solamente biotza. Orgatik sazerdoteek ellegatu naiez aldarera debozio iagoreki, nai zute aitu S. Luis mintzatzen sakramentuaren gañean.

3. Jangoiokaren amoreari darraio beti proximoen amorea. Zego antsiatzen Indietara joan naiak konbertitzera Infielak. Gorputzen herita-sun, bear, ta gañarako miseria direnetan, etze kontent emateas limosna bere eskus, bera nai ze eman personan, ta bere bizia ere bai, zerbitzatzeko beartsuei. Aiturik urte batez izanen zela peste Roman, naiz heri zegon, egin zue boto, kuratzen baze, zerbitzatzeko heri apestatuei. Eta errealki eskaturik gogotik lizenzia zerbitzatu ziote karidade andienareki, eta bea-rrago zirenei gogotikago. Ordik apegatu zekio azken heritasuna: eta pen-satus ilentzela artaik, alegre joateas mundutik adin gartan, prebenitu ze guapoki despeidak; egin zue konfesio jenerala; errezibitu zue komeka-dura debozio berriareki, ta geroxago oliadura: Jangoiok naita ematu zekio gaitzaren errua zazpigarren eguneko, baña gelditu zekio sukar bat lento kontinokoa, eraman zuena konsumitus. Irur ilabetez iraundu zue: bitarteo etzue na berzerik aipa zezoten, baizik Jangoiokaren gauzak: Gero ere Jaun onak deklaratu zio eguna, noiz bear zuen joan: Alegreatu ze guziz sinetsi daiken baño iago: kantatu zue Te Deum laudamus &. eta erran zue ilen zela Korpus Kristiren oktaba egunean. Goiz gartan ta egunaren geie-nean dela alegranzias, dela berze gisas obeki zegola iduriturik erraten ziote kuidoazaleek, nola zion il bear zela egun artan, zegolaik obeki? Erres-pondatzen zue, ezta bukatu oraño eguna: gaur ilen naiz. Sarturik gaua, galdegin zio Probinzialeak, nola zoezion: errespondatu zue, Aita, bagoaz joanes. Nora? zio ark: Luisek, zerura. Nola zerura? Errespondatu zue,



zerura uste dut joan Jangoikoaren miseriak, baldin ene bekatuek ezpadute estorbatzen. Aita Sanduak bialio bere bedeizia eta indulgentzia plenaria. Sandua alegratu ze indulgentzia, baña bere humilaren utses alketu ze ikustean oroitu zela artas Aita Sandua. Eskatu zue azota zezaten il baño len, edo para zezaten lurrean iltzeko. Azkenean inbokatus kontino Jesus, ta beiratus bera guruzean iltze 1591 urtean adinaren 23 urte ta 3 ilabete beterik.

4. Berze asko milagroen artean da bat, ilta bigarren urtean agertu baizekio glorioso bere Ama onari oliaturik zegolaik, ta eman baizio osasuna, ta alibio etzeko traba uetan ere. Belarmino Kardenaleak eman zue testimonio juramentureki, lenik beraren ustez S. Luis Gonzagak beñere etzuela admititu bekatu graberik: Bigarrena zazpi urtetako adinetik bizitu zuela bizi perfektoa. Irugarrena beñere etzuela sentitu aragiaren desordenaziorik. Laugarrena orazioan etzuela komunki distrakzioerik. Borzgarrena izan zela exenplu obediendiaren, humildadearen, mortifikazioaren & baitire gauzak balio dutenak iago ezi milagroak. Jangoikoak digula imitaztea, ikusteko glorian.

Garagarzaroaren 22.an San Paulino Obispo Nolakoa

1. S. Paulino karidade anditako gizona, por konsigiente Jangoikoaren biotzekoa, jaio ze Bureos Franzikoan. Buratsoak izan zire Romako Jaundi aberatsak, zeñen heredero gelditu zen. Estudiatu ekerki egin ze jakintsu famatua: ta Roman Konsul ta Prefekto honratua. Bizituri Matrimonioan humerik gabe denbora zati batez, ondorean elkarren konformidades ia bizi zire berex anai arreba bekala. Etorririk Española, guziek ezaundurik beraren santidadea, Barzelonako Obispoak Lanpio deituak ordenatu zue sazerdote, naiz berak nai zuen zerbitzatu elizan sakristau. S. Felix Nolako Martir gloriosoaren debozios gelditu ze Nolara urbil erretiraturik, ta pobre eginik bere borondatez emateareki pobreei zuen guzia. Ala bizi zelaik kontent atzendurik munduaganik, gero noizbait jakin zelaik nor zen, batzuek eroa ziote zela, berze batzuek sandua, despreziatuagatik munduko ondasunak: baña Jangoikoak itzuli zio ordaña baten-dako eun, ala arimaren birtute, grazia, dono, ta erregaloetan, nola lurreko estimazio ta honratan. Aita Sanduak honratu zue berex, ta manatu ziote Kanpaniako Obispoei estima zezaten. Estimatu zute angoek, ta Italiakoek, ta Afrikakoek ere, naiz urrun egonik, eta S. Agustinek agitz adiskide eginik eskribitu zitio anitz karta, eskatus ellega zeien Afrikara guzien konsolutako. Ala zebilalaik honratik iges, segitzen zue atzetik honrak, nola itzalak gorputza.

2. Iltzelaik Nolako Obispoa, obligatu zute enkargatzera saldo gartas. Asi ze Artzai ona bekala kuidatzen ardies, gaixtoak ontzen, onak obetzen, konsolatzen aflijituak, eroriak goratzen, ta erremediatzen zuzken guziak limosnas, konsejus, orazios, modu guzies. Bi lanze señalatuak kontatzen dire sandu gontas: bata, ezi etorririk arat Alariko Godoen erregeren soldadoek guzia errobatus in zutela preso Obispo sandua, zeñek orduko emanik guzia beartsuei, egiten zue Jangoikoai orazio gau, *Jauna, ez permiti atormenta nazaten ni urte ta zilarragatik, ezi berorrek daki nora diren ene ondasunak*. Berzea da ezi gero berriz joanik Bandaloeke ta errobaturik al zutena, ta eramanik asko kautibo Afrikara, etorri zekiola Ama alargun bat limosna eske erreskatatzeko bere semea eraman ziotena. Obispo sanduak errespondatu zio, etzekiola deus ere gelditu, baizik bere persona, baña joanen zela bera, ta geldituko zela arren semearen truk. Etzue arrek sine-tsi nai; baña sinetsiarazi zio sanduak, ta obligatu zue eramatera bereki.



Ellegaturik Afrikara, aurkitu ze erregeren suiak zeukala kautibo seme gura: Amak eskatu zio nai bazio utzi artus trukadan gizon gura. Beiratu zio ark, eta galdegin zio ia bezekien zerbait lanetan. Sand uak zio bazekiela kuidatzen baratzeren bat. Ongi da, erran zue, ta utzirik alargunari bere semea, S. Paulino gelditu zue kuidatzeko baratze bat. Sanduak kuidatzen zue ongi, ta egunoro bialtzen zio Nausiari zerbait lore, fruita, edo gauza. Nausia bera joaten ze baratzeren maiz kuadraturik bere kautibo garren juizio, atenzio, ta mintzaera onas. Satisfakzio osoa artu zuelarik, egun batez erran zio sanduak Nausiari sekretoan, beira zezala bere buruas, ta bere gauzes, ezi errege bere suia ilen zela denbora labor. Sekretu gau agertu zio arrek erregeri; eta onek nai zuelaik ikusi kautiboa, disponitu zute zetorren zeudelaik biak bazkaltzen. Ikusi zueneko gelditu ze errege arriturik: gero erran zio suiari, egia bide zela kautibo garrek errana, ezi alzineko gauean ikusi zituela zenbait juez ametsetan, ta aien erlean ura, zenen manamendus kendu zioten berari azotea eskuan zeukana. Galdegin zozu nor den, ezi ezta posibe ez izatea iduri duen baño iago. Nausiak arturik apart galdegin zio, ta erranarazi zio egia, nola zen obispo. Turbatu ze Nausia ori aditzeareki, ta erran zio eska zezala nai zuen guzia, ezi biali nai zuela bere lekura beterik ondasunes. Sanduak orduan, nik eztut nai berze ondasunik, baizik libre uztea ene Kristio kautibo daudenak: Guziak libre utzirik, ta onzi bat garis beterik honra andiareki despeiturik Obispo sandua itzuli ze Nolara triunfante bekala.

3. Segitu zue Artzai onak bere ofizio propioan bere lengo kondizio oneki, ta erori ze heritasun batean, zeintan bisitatu ta konsolatu zute ez solamente obispo lurrekoek, baita zerukoek ere S. Januariok ta S. Martinek. Zegolaik bere limosneroa afljiturik, zeren etzuen uzten zereki pagatu zor egin zituenak beraren ordes limosnatako, sanduak irrikos erran zio, etzaitela afliji, ezi Jangoikoaren gustotan in tugun zorrak izain da nork pagatu. Ala izan ze: andik guti biali zue norbaitek ura ta iago. Pasatu zue oñaze anitz konformidade osoareki imitatus Jesus ona. Despeidako garaiean sentitu ze arroitua ta ikaradura andi bat zegon kuartoan; guziak erori zire lotsarriturik, ta jaiki zirelaik ikusi zute ilik ta elurra bezain txuri mostratus arimaren gloria aurpegian ere. Agitu ze Kristoren 431 urtean. Alegre Aingiruak, triste gelditu zire feligresak.

Garagarzaroaren 24.an San Juan Bautistaren jaiotzea, ta iltzea

1. S. Juan, Bautista deitzen dena, zeren bataiatu zuen Jesu Kristo, beraren alzindari, ta berzergusu zena, ta Kristo bera zela uste zutena Judutarrek, sandu bat andia Jangoikoaren alzinean, zeintas erran zuen, *emastekietaik jaio direnetan ezta jaio andiagorik S. Juan Bautista baño*: ezauntzeko zerbait, erragun zerbait arturik ebanjeliotik ta Autore grabeetaik. Izan ze Zatzariasen ta S. Isabelen seme izana beren zarzutuan. Bere Aita ze sazerdote lengo legearen: eta zegolaik ofratzen inzensua Jangoikoaren ohoretan, agertu zekio Aingeru bat Aldarearen eskuieko aldean, erraten ziola, etzaitela lotsa, Zakarias, ezi aditua da zure orazioa; eta zure bizikide Isabellek emanen dizu seme bat deitu bear duzuna Juan, eta arren jaiotzeas askok izanen dute gozo ta aleganzia, zeren ezi andia izanen da Jaunaren alzinean; ardorik ta sidrarik ezta edanen, eta bere Amaren sabeletik ia atrako da beterik Espiritu sandus: eta Israeldar anitz konbertitukotu beren Jangoiko Jaunagana, eta bera beraren alzinean joanen da Eliasen espirtu ta birtuteareki, konbertitzeko buratsoen ta humeen biotzak, ta sinestagaitzak ezaumentura, prestatzeko pueblo bat perfektoa Jaunaren. Errespondatu zio Aingiruari Zakariasek, nondik xakinen dut ori? ezi ni zarra naiz, ta nere bizikidea adinetakoa. Erran zio Aingiruak. Ni naiz Gabriel nagona Jangoikoaren prezenzian, ta biali nau, ematera zuri berri gebek. Eta orra geldituko zara mutu ezin mintzatus kunpli daitzen eguneraño, zeren eztuzun sinetsi nik erranak kunplituko direnak bere denboran. Atra ze ura tenplotik mutu ezin mintzatus, keñus ezi. Andik sei ilabete izan ze Jesu Kristoren enkarnazioa edo gizon egitea Ama Birjinaren entrañetan Espiritu sanduaren birtutez, anunziatu ziolarik Aingiru berak S. Gabrielek Maria Santisimari, nola izanen zuen seme bat deitu bear zuena Jesus andia eta Jangoiko andiaren semea: eta galdeginik donzella soberanak, nola eginen zen ori, ezaundu gabe gizonkirik, Aingiruak seguratu zue eginen zela Espiritu sanduaren obras, Jangoiko andiaren birtutez: ta sinestazteko obeki, añaditu zue, orra zure aidea Isabel ere, naiz zar izanik ta antzu, dago humeareki sabelean, ta seigarren ilabetean ia: zeren ezi Jangoikoarendako ezta deus inposiblerik. Konzebiturik bada Ama Birjinak milagrosoki bere seme Jangoikoa gizon Martxoaren ogeitabortzga-



rreanean, andik egun guti joan ze prisaka bisitatzera Isabel gura, zeñen etxean egon zen irur ilabete guti gorabera, jaio zen arteo S. Juan: eta ala orgatik agian zelebratzen da Ama Birjinaren bisitazioa Garillaren bigarrean, baña agitu ze arara ellegatzea Martxoaren azkenean, edo Aprilaren astean. Sarturik an Maria Santisima mintzatu zeneko diosalea eman, saltatu ze kontentus Juan bere Amaren sabel-barnean, ta bere Ama ere bete ze Espiritu sandus: eta orduan uste da santifikatu zela lenik Juanen arima. Jaio ze bere denboran, eta bildu zire aideak eta ezaunak ematera zori onak Jangoikoak in zioten miserikordia andiagatik. Zorzigarren egunean nai ziote paratu Aitaren izena Zakarias; Amak ezetz, baizik deitu bear zela Juan. Erranten ziote, aiko guzian etzela nior ala deitzen zenik. Aitari adiarazi ziote ia nola nai zuen deitu zeien. Eta arrek eskribitu zue, bere izena da Juan. Eta guziak admiratu zire. Eta bereala mia lazaturik libre asi ze mintzatzan bedeika ta laudatus Jangoikoa. Eta famaturik ori guziori admiratzen zire jendeak, ziotela, zerik izanen ote da aur gau? ezi Jaunaren eskua da oneki.

2. Azi zela S. Juan eremuan Jangoikoaren gizona bekala kubilaren batean, zierto, noiz joan zen ezta segurutzen, bai bizitu zela an penitentzia andian, estalis gorputza kamelloen biloes inikako tresena bateki, ta gerriko bat animale-larrus, mantenitus kanpoko langostaegi, ta erlaxtanen ezti amargoareki. Beterik ogeita amar urte, Jangoikoaren manamendus atra ze desertutik berze munduko gizon bat bekala, Jesu Kristoren alzindari ta pregonari, prestatzeko bidea Jaunaren, predikatus penitentiaren bataioa bekaturen barkaziotako. Eta erraten zue, nork erakutsi dizie libratzen geroko iratik? Eginzkizie penitentiako fruitu dignoak, ta ez erran, Aita dugu Abraham, ezi erraten diziet, poderoso dela Jangoikoa egiteko arri gebetaik Abrahamen humeak. Bada ia aizkora paraturik dago prest arbolearen ondoan. Fruitu onik eztakarran arbolea ebakiko da, ta sura botako da. Nik bataiatzen zaiztet ures penitentiarako: baña ene atzetik etorriko denak, ni baño fuerteago baita, zeñen oñetakoak lazatzeko ere ezpainaiz gauza ni, ark bataiatuko zaizte Espiritu sanduas ta suas; bere eskuan dauka sardea, ta aizeratuko du bere eulkia; eta garia bilduko du bere granerora, ta lastoak eta agotzak errekotu itzali eztaiken suan. Honratzeko S. Juanen bataioa, joan zekio Jesu Kristo bera bataia zezan. S. Juanek etzue utzi nai, erraten ziola, ni orrenganik bear naiz izan bataiatua: eta berori eldu da enegana? Jesus onak erran zio, utzazu orai, konbeni da kumpli dezagun on den guzia. Orduan utzi zue, ta bataiatu zue.

3. Ainberzekoa ze opinionea Judutarrek zutena S. uan Bautistas, ezi pensatu zute ote zen Jesu Kristo bera. Orgatik biali ziozte sazerdoteak ta

Lebitak galdegitera, ia nor zen. Eta konfesatu zue, ta etzue ukatu, ta konfesatu zue ez nai zela ni Kristo; ala kontatzen du berze S. Juanek. (c. 1.) Galdegin ziote iago, bada zer? Elias da berori? Ez naiz Elias ere. Profeta da berori? ark, eztare. Aiek, nor da bada? eramateko errespuesta biali gaitutenei. Zer dio bere buruas? S. Juanek, ni naiz boza klamatzen duenarena desertuan. Aiek orduan, nola bada bataiatzen du, ezpada ori Kristo, eztare Elias, eztare Profeta? Errespondatu zue S. Juanek, nik bataiatzen dut urean: baña zuen erdian egon da zuek ezauntzen eztuzena: bera da ene atzetik etorriko dena, ni baño iago dena, zeñen oñetakoan lotzakia lazatzeko ezpainaiz digno ni. Berze egun batez ikusi zue Jesus eldu zela beragana, ta erran zue, *ona Jangoikoaren axuria: ona kentzentuena munduko bekatuak. Au da, zeñetas nion, ene atzetik eldu dela ni baño iago dena.* Eta testimonio ematen zue S. Juanek ikusi zuela Espiritu sandua jausten zerutik, ta jarri zen beraren gañean. Berze egun batez ere zegolaik bi Diszipuloe ki ikusirik Jesus ibiltzen, erran zue, *ara Jangoikoaren axuria.* Orgatik agian pintatzen dute axuri bat San Juanen aldean, ta sandua mostratzen erias. S. Juan Bautistas erran zue S. Juan Ebanjelistak, c. 1. *izan zela gizon bat Jangoikoaganik bialia deitzen zena Juan: au etorri zela testimoniotako, argi egiaskoas emateko testimonio,* au da Jesu Kristos. Baña Jesu Kristo berak testimonio obea eman zue S. Juan Bautistas, erran ziotelaik Judatarrei, (Math. 11.) *Zer ikustera joan zarate desertura? Kanaren bat aizeak dabilana? Baña zer ikustera joan zarate? agian gizonen bat galas bestitua? Alakoak erregeen etxeetan dire. Baña zer ikustera joan zarate? Profeta bat? Baietz diot, eta iago ezi Profeta. Au da zeinttas dagon eskribiturik, orra nik bialtzen dut ene Aingerua ene alzinean prestatuko duena zure bidea zure alzinetik. Egiaz erraten dizet, emastekietaik jaioen ertean ezta jaiki andiagorik Juan Bautista baño.*

4. Gizon andi gau preso zeukatelarik, aiturik bere presondegian Kristoren obrak, bialirik bere Diszipuloetaik bida Kristogana, ezaunarazteagatik guziei nor zen berak ongi ezauntzen zuena, galdegin zio, Berori da etorri bear dena, edo berzerik esperatzen dugu? Jesus onak errespondatu zue, zoazte, konta zoze Juani aditu, ta ikusi du ziena, itsu zirenek ikusten dute, estropeatuak ibiltzen, sorrek aditzen, leprosoak garbitzen, ilak biziten dire, ta pobreek predikatzen dute ebanjelioa. Eta zori onekoa da eztuena artzen eskandalorik enebaitan. Guziau da erran ziotena Judioei, ezpadidazie sinestatu nai niri, sinesta ene obraei, ezi ebek ematen dute testimonio nitas. S. Juanek ematen zue testimonio bera, baizekie egia zela Jangoikoaren errebelazios. Jangoikoaren gizon gura preso zeukatela aipatu dugu; baita il ere zutela aipatuko dugu. Nor ezta admiratzen? baña nor admira daike ikusias geros egin zena Jesus onareki, Jangoiko gizonareki?



eta beraren adiskide onetsia zela S. Juan Bautista: beras munduaren, Demonioaren, ta aragjaren kontrarioa, ta ebenganik aborrezitua? Nola, ta zergatik izan ote ze? adi zagun. Herodes Galileako errege, tratatu zuena hero gisa Jesus estalis eroen manta txuri bateki, eskarnio egines, ta txu-featus bere soldadoeki, Herodes gura izan ze in zuena preso ta ilarazi S. Juan: eta zergatik? Zergatik zeukan arturik beretako bere anaia Filiporen Andrea deitua Herodias eskandalo urrintzu publikoareki, murmuratus guziek alako gauza itsusi indignoas. S. Juan Bautistak erraten zio Herodesi, Jauna, konzienzias ez dezake iduki bere anaiazen bizikidea. Baña emakume urde gaixtofikatuak aborrezitzen zue S. Juan, ta nai zue ilarazi, ta etzuke logra: zeren erregek errespetatzen zue Juan, xakinik zela gizon justoa ta sandua; eta beraren konsejus iten zue anitz gauza, ta aditzen zue gustoreki. Eskalda ona izan ze, noiz ta Herodesek zelebratu zuen bere jai-teguna, konbidaturik erreinuko Jaundiak ta prinzipalak. Ondorean forjatu ze danza, ta danzatu ze arin eder Herodiasen alaba: baiki diona S. Ambrosiok, (1. 3, de virginibus) *saltem adulterae filiae*, urdearen alaba danzari: ongi iduriturik erregeri, ta gañarakoei, ark erran zio xoroturik, eska zazu nauzuna premiotako, ta emanen dizut, naiz dela erreinuaren erdia: eta juramentu egin zio. Neskak galdegin zio Amari, zer eskatuko diot? Amak errespondatu zio, eska zozu Juan Bautistaren burua. Prisaka joanik neska arinak erran zio, nai dutena da eman dezadan bereala Juan Bautistaren burua plater batean. Tristatu ze errege, baña juramentuagatik, ta presente zeudenengatik ebakiarazi zio burua, ta ekarrarazi plater batean; eman zio au neskari, ta neskak Amari. On aditurik Diszipuloek artu sanduaren gorputza, ta paratu zute monumentuan. Onaraño dio ebanjelioak. (Marc 6.) Eta gero aditurik Herodesek Jesu Kristoren prodijioak, erraten zuela, Juan biztu da ilen ertetik, eta arren birtutez agitzen dire prodijio goiek. Batzuek ziotelaik Kristos zela Elias, berze batzuek zela Profeta, ark zio, *nik degollarazi nuen Juan, au da bizturik den ertetik*. (Ibid. superiüs.) De manera ezi len uste zute S. Juan Bautista zela Kristo, ta gero berriz Kristo zela S. Juan Bautista. Ain elkarri idurituak zire biak!

5. Nor ezta lastimatzen iltzeas ala Kristo, nola S. Juan? Eta nola mundua beti ibili den ta dabilan bere kontra bere kaltetan? Alako gizon sanduak, arimen ta gorputzen sendazaleak, on guzia guzieren iten dutenak, ez luzke munduak ibili bear andaetan bere onagatik ere, ta biziarazi bear betikos, al balezake? Baña jende gaixtoa itsutzen du bere maliziak, espezialki deshonestoa. Kastidadearen defenza ta faboretan utzi ze iltzera Martir S. Juan Bautista: Ilarazi zute deshonesto urdeek: Zein estimagarria da beras honestidade ederra! Zein abominable berriz deshonestidade

itsusia! Onen kontra dago klamatzen oraño ere odol garbi garren boza. Pintatzen du S. Ambrosiok buru sandu gura plater gartan urde garren eskuetan, Beira, dio, urresko ago sandu goi, zeñen errana etzin duketen soporta: orai ixil dago, baña oraño ere badioze beldur. Beira begi goiek, ilik ere, testigo zuen maldadearen. Ertxirik dauzki, ez ainberze eriotzearen kasos, nola zuen luxuriaren odios ez ikusi naies. Beira gizon sanduena ilik ordien ta urdeen sentenzias, nolakoas ez lukenai libratu ere. Baña Juez sumoaren sentenzias orai zein aldaturik dauden gauzak! Nola dagon orai S. Juan Bautista, ta nola Herodes ta Herodias! Baña emen ere pagatu omen zute miserien monedas: ta danzari gura ugalde izoztu bat pasatzean izotza autxirik, leporaño ondaturik inguraka &. &.



Garagarzaroaren 26.an San Juan ta San Paulo Martirak

1. S. Juan ta S. Paulo bi anaien martirioa eskribitu zue Terenzianok martirizatu zituenak berak. Konstantino M. Enperadore Kristioaren denboran in ziote Romanoei gerra Eszitaek sartus Trazia barna. Kontra joateko autatu zue Kapitan Jenerale bat deitua Galikano. Etze au trebe prinzipioan, baña gero ere ofrezitu ze, non ta enperadoreak ofrezti zezon egitea Konsul, ta ematea bere alaba Konstanzia esposatako, itzulias geros biktorioso. Konstanzia deitu gau ze S. Inesek sendatu zuena milagros. Kuidadotan paratu ze enperadorea petizio goneki, baizekie zeukala bere alaba garrek eginik kastidade perpetuoaren boto, ta ezkondu baño lenago iltzera utziko zela. Kuidado zuena xakinik joan zekio alaba Konstanzia Jangoikoaren inspirazio, ta mintzatu zio ala, ene Aita Jauna, ezpaneki zierto, eznauela desanparatuko Jangoikoak, beldur nitzake lanze gontan berori becala: baña konfiaturik Jangoikoan erraten diot eman dezokela Galikanori bere itza eskatzen duen guziaren, non ta eraman dezkie bereki Juan eta Paulo ene mutil fielak, ta utzi dezkie nereki bere bi alabak Atika ta Artemia. Guzia egin ze: Galikano joan ze bi gaieki gerrara, ta Konstanzia gelditu ze arren bi alaba gaieki: zenen, eta bere onetan egin zue orazio gau bere sekretoan: O ene Jesus Jangoiko ta gizon egiaskoa, S. Ines birjinaren medios sendatu ninduena ni ta erakutsi bizitzaren bidea, ta inspiratu bizitzea kastidadean, ta admititu ninduena bere esposa garbien konpañian. Orrek, Jauna Maria Santisimaren seme ta Aita dena, beraren esneas azi zena. Orrek, Jaun andia, guzis poderoso dena infinito eterno, bere denboran jaio zena Amaganik, delarik *ab aeterno* enjendratua Aita eternoaganik, Jangoiko Jangoikoaganik, argi argiaganik. Orrek, Jauna, bere eriotzeareki erremediatu zuena mundua, ta dena ilen ta bizien Juez unibersala, otoi eman bezkida berorren zerbitzuko bi arima gebek, ta eben Aitarena, in daitzen Kristoo. Ene mia goberna bez, errateko nik konbeni zaiotena, ta eben adimentua adi nazaten, bizitzeko guziok kastidadean, ez dezagun izan, ta ez nai ere berze esposorik, baizik berori, o Jesus, zeñeki eternidadean goza gaitzen berorren erreinuan. amen.

2. Orazio gonon, ta itz erran zitiotenen medios konbertitu zire Jangoikoaren graziaz bi donzellak, bataiatu ta konsagratu zire Kristori botos. Beren Aita Galikano gaizki atrarik prinzipioan, gero S. Juan ta S. Pauloren konsejus boto eginik Jangoiko bakar egiaskoari kristiatuko zela,

erdexten bazue biktoria Unze desesperatu gartan, faboratu zue Jaun dibi-noak milagrosoki: joanarazi zue bereki etsaien erregearen dendarano, zein bota zekio oñetara eskatus bizia libre. Manaturik ez iltzeko nior, atra ze nai zuen guziareki, ta itzuli ze beterik honras ta ondasunes triunfante Romara, non len lenik joan ze bisitatzera S. Pedroren tenploa. Ortas admiraturik enperadoreak erran zio, joan zinalaik gerrara, ikusi zinduzada sartzen Demonioen tenploan; eta orai ikusten zaitut ematen Kristori graziak, ta bere Apostoluari: zer motibo da? Orduan Galikanok kontatu zio, gerran agitu zekion guzia, ta nola gal-etsirik zegolaik, libratu zuen Jesu Kristok, ta argitu zuen ezauntzeko egietafedea; orgatik kristiatu naiz, Jauna, ta dut intenzio pasatzeko ene egunak Kristoren obsekioan erretiroan: dignidade ofrezitu zidana eman bezo berze bati, ta bere alaba Konstanzia libre dago enegatik, segitzeko nai duen estadoa, ezi nik ez tut tratatzen ia ezkontzeas, baizik despeitzeas munduko gustoak ta banidadeak. Ori aiturik besarkatu zue gozoro enperadoreak erraten ziola, zori onean dela, ta zure bi alabak ere in dire Kristio, ta ene alaba Konstanziareki daude konsagratu Kristori botos bizitzeko birjinidadean. Plazer andia izan zue ortas Galikanok: ta palaziora joanik enperadoreareki, atra zekizkio atarira enperadorearen Ama S. Helena, beraren alaba Konstanzia, ta arren bi alabak negarra zeriotela bozkariundez. Bereala nai luke Galikanok erretiratu; baña enperadoreak etzio permititu, baizik dignidade andi gartan barra zezan exenplu onaren argia desengañatzeko franko erreoren ilunbean engañaturik zeudenak. Gero denborain buruan libertadea emanik borz milla esklabo zituenei, utzirik bere bi alabaei bear zutena, gañarakoia saldu ta limosnatan errepartiturik, erretiratu ze Ostiara, non eginik hospitale bat peregrinoen enpleatzen ze Jangoikoaren ta proximoen amorezko lanetan, egines Jangoikoaren graziaz anitz milagro, ta bera ze Jangoikoaren milagrorik andiena, zenen ikustera zoezi jendeak urrundarik, beiratus ta admiratus ain poderoso bano len, ta ain amoroso humil orai, ta orgatik estimatus len baño iago orai. Bizimodu sandu gontan iraundu zue anitz urtez, ta bukatu zue gloriosoki gero martir, ezi Juliano Apostatak ilarazi zue, zeren etzitzen adoratu nai onen Jangoiko falsuak ta Demonio egiaskoak. Eta on guziaren prinzipio eman zute S. Juan eta S. Paulo konbertitu zutenak.

3. Eben kontra itzuli ze Juliano madarikatua, jabetu naiez beren hazienda ta ondasunes. Lenik on kolores konbidatu zitue bere zerbitzura: gero uztera Kristoren zerbitzua ta errelijionea arrek utzi zuena. Bi anaiak errespondatu zute, zeruetako enperadorea zerbitzatu naiez etzutelanai arren palazio, zerbitzu, ta grazia, zeren utzi zuen Jesu Kristoren fedea.



Arren mandatarari zen Terenzianok eman zioite amar egunen epea, determinatzeko ez edo bai. Errespondatu zioite, kontu in zezala pasatuak zirela amar egunak; etzirela aldatuko sekulan inik zeukaten determinaziotik; in zezakela nai zuena berldanik. Sanduek seguraturik ilen zuztela Martir, estimatus Jangoikoaren fabore gau, eman zute prisa amar egun gaietan errepartitzen pobreei gau ta egun beren zuten guzia. Ondorean joanik Terenzianok aurkitu zitue orazioan: mostratu zioite Jupiter Jangoiko falsuaren imajina bat, adora zezaten, manatzen zuen bekala enperadoreak, ezperen, edekitzeko biziak. Errespondatu zioite aiek animoso, orren Jaun barin bada Juliano, or konpon bedi arreki, ezi guk eztugu berze Jaunik ta Nausirik, baizik gure aun Jesu Kristo, zein ere arrek ukatu duen, bataiatuas geros, alke dakiola. Terenzianok beldurrak gora zeien jendea, jakiten baze, ilarazi zitue sekretoan, ta ortziarazi an etxe barnean: ta publikarazi gero izan zirela desterratuak. Baña nork dezake engañatu Jangoikoa? Urbilen urtean egun gartan berean iltze miserableki Juliano, ta sanduen birtutea asi zire publikatzen Demonioak atratzen zirenak gorputzetaik aien kasos. Eta Terenziano beraren seme bakarra libratu ze sanduen birtutez: Aitak ezaundu zue erreljione Kristioaren egia, ta bere gaizki egina iltzeas sandu gaiek: eskatu zioite barkazio, konbertitu ze, ta egin zue penitentzia: eta eskribitu zue eben martirioa, agitu zena 362.an urtean Jesu Kristoren gloriatan. amen.

Garagarzaroaren 29.an San Pedro Apostolua

1. S. Pedro Jesu Kristoren Bikario beraren lekuan Elizako giltzaeki gelditu zena, Apostoluen Prinzipe, Kristio guzien Artzai buru, nor zen, nola bizitu zen ta iltzen, xakitea zerbait berere Kristioek, konbeni da. Geiena atrako dugu ebanjeliotik, ta Apostoloen eginak deitzen den libru sagatutik. Izan ze Galileatarra, Betsaidan jaioa, S. Andresen anaia, biak arranzuan okupatzen zirela. S. Andresek aditurik bere Maestru zena S. Juan Bautista ematen berri andiak esu Kristos, billatu zue, aditu zue, ta ezaun duzue guzien salbazale bekala. Joan ze gero bere anaia S. Pedroren billa: kontatu zio fortuna opatu zuena, ta berareki itzuli ze Kristogana. Bere Majestadeak ikusi zuelaik erran zio, *Zu zara Simon Joanen semea; zu deituko zara Zefas, baita Pedro*, ta Pedro oroat nola peña, edo arria. Ia Jaun dibinoak nola baizeuka destinaturik fabrikatzea bere Eliza, zeñen zimendu baita bera, señalatu zue S. Pedro nola arri prinzipala. Etzue gelditu orduan bereki Diszipulotako, baizik zenbait egunen buruan zebilalaik itsasbasterrean ikusirik biak zeudela arranzuan, erran zioite, *atozte ene atzetik, inen zaiztet arimaen arranzuari*. Bereala guzia utzirik segitu zute gogotik ere. Baña S. Pedrori zion afektoa Jesu Kristok, ta egiten zion fabore berex distingitua ze ainberze, ezi Apostolu guziek ezauntzen ta kontaktzen zute anaia andiena bekala, ta Ebanjelarietako guziek errekontatzean Apostoluak, beti len lena paratzen dute S. Pedro: eta Kristo berak beti zerama bereki lan sekreto andienetan ere, nola trasfiguratu zelaik Taborko oianean, biztu zuelaik Prinzipe garren alaba ila bere ganbaran, ta erretiratu zelaik orazio egitera Jetsemaniko baratzean pasio alzinean. Jaunaren borondatez, Apostolu inik ere, segitu zue lengo ofizioan, arranzuan, honesto bekala; eta bere Majestadea arren barkoan enbarkaturik, ta leorretik apartarazirik gutitto bat, andik predikatzen zioite leorrean zeuden jendeei, mostratus bere Eliza dela S. Pedroren barkoa, egietafedearen, ta zeruko doktrinaren kolumna ta firmamentua, ta Pedro utzi bear zuela Eliza guziaren kargudun, Maestru, ta Gobernari. Zenbat, ta nolako donoes, graziez, ta birtutez adornatu zuen, nork explika? Senzill llano kontatus zenbait gauza agitu zirenak, entendetuko dugu zerbait: errespetatzeko S. Pedro, ta bere ondorengoak.

2. Oraietan arren barkotik predikatu zuela erran dugun predikuaren on dorean manatu zio, tiratzeko itsas-barnerat, ta botatzeko sareak.



Pedrok erran zio, *Jauna, gau guzian nekaturik ibili gara, ta deus eztugu arrapatu. Baña berorren itz, ta manamendura botako dut sare.* Ori egin, eta arrapatu zute arraiketa abasto, sareak ezin iduki ala. Deiturik berze onzian ziren lagunak, elkar lagundus atra zuzte, ta bete zuzte bi onziak, kasi ondutzen baizire pizugatit. Ori dakusalaik, botatzen da Pedro Jesus onaren belau-netara, erraten diola, *Jauna, aparta bedi eneganik, bainaz gizon bekataria.* Ori zio humillaren utses arriturik; baña etzue apartatu nai sekulan ere. Jaun onak erraten dio, *zaude, ez lotsa: emendik alzina arimaen arrapatzea izanen da zure ofizioa.* Aldi batez enbarkaturik Jesus ona gabe, kontrako aizeak zebila onzia arat onat gorabera, (Math. 14.) Gauerdia pasaturik, ikusi zute Jesus ona eldu zela aiengana oñez urgañean: turbatu zire ustez fantasmaren bat ote zen. Bereala mintzatu zekiote, *konfia, etzaitzela lotsa: ni naiz.* Pedrok zion amorearen suareki erran zio, *Jauna, on barin bada, mana bez natorren ni orrengana uren gañean.* Atoz, erran zio: asi ze ibiltzen ur gañean, baña al ze erru bateki lotsatu ze: ta ondutzen asi zelaik klamatu zue, *Jauna, libra benaza.* Istantean esus onak eskua edatus arrapatu zue ziola, *Jede gutitakoa, zergatik dudatu duzu?* Berze aldi batez (ib. 8.) Jesus onareki enbarkaturik Apostoluak, agitu ze nastekazio andi bat itsasoan demanera ezi uren bagadek estaltzen zute barkoa: baña bera zego lo. Joan ta idatzarri zute erraten ziotela, *Jauna, salba gaiza; galduak gara.* Erraten diote Jesus onak, *zergatik zarate beldur fede gutitakoak?* Orduan jaiki ta manatu ziote aizeei ta itsasoai: eta guzia gelditu ze trankil. Nork duda du, anitz alako pasatuak S. Pedrorreki ta bere barkareki direla misterio, signifikatzeko pasatzen direnak Elizan?

3. Famatua da S. Pedroren konfesioa deitzen dena. Galdegin ziote Diszipuloei Jesus onak, *Nor diote jendeek nai zela ni?* Errespondatu zute, *Jauna, batzuek diote dela Juan Bautista: berze batzuek dela Elias, berze batzuek ezi Jeremias, edo Profetaren bat.* Jesus onak orduan, *eta zuek nor dioze nai zela?* Errespondatus Pedrok guzien partez erran zue, *berori da Kristo Jangoiko biziaren senea.* Jesus onak orduan, *zori onekoa zara Simon Pedro, zeren eztizu errebelatu aragisko ta odolesko gizonak, baizik ene Aitak zeruetan dagonak Bada nik ere erraten dizut zuri, zu zarela Pedro, arria; ta arri gonon gañean fabrikatuko dut nere Eliza; eta infernuek eztute indarrrik onen garaitzeko diña. Eta zuri emanentizut zeruetako erreinuaren giltzak: eta zuk lotzen duzun guzia lurrean, lotua izanen da zeruetan ere: eta zuk lazatzen duzun guzia emen, lazatua izanen da an ere.* Judioek ziote murmuratus, nork dezake barkatu bekatuak, baizik sollik Jangoikoak? Orra nork dezaken Jangoiko denaren komisios. Potes-tade andiak eman zitio S. Pedrorri: anitz amatu, estimatu, ta honratu du. Guziareki andik guti asi zekiotelaik aipatzen pasio asatu bear zuena, nola

joan bear zuen Jerusalem, ta an padezitu, ta il, ta gero biztu berriro: S. Pedrok lastimas zion kariño garreki erran zio, *ez alakorik, Jauna, ez permiti alakorik in dezoten.* Itzulirik Jaunak erran zio Pedrorri, *zoaz ene atzetik, Satanas, tropezu paratzen didazu, ezpaituzu pensatzen Jangoikoaren gustoaren konforme, baizik gizonen gustora.* Ontan erreprehensio eman zio, ez maitatzeko sobra gorputzaren bizia ere, baizik Jangoikoaren amorez artzeko traba-juak ere, ta eriotzea ere, bear barin bada.

4. Kafarnaunen kontribuzioeen kobrazaleak ellegaturik S. Pedrorri erran ziote, *zuen* (ib. c. 17.) *Maestruak eztu pagatzen trebutua? Bai,* erran zue S. Pedrok: eta sartu zeneko etxean, alzinatu ze Jesus ona galdegitera, *zer iduri zaizu, Pedro? Norenganik kobratzen dute trebutua erregek? Beren humeen, edo berzerenganik? Ark, berzerenganik. Libre dire humeak beras,* erran zue Jesus onak. *Baña etzoguten eman eskandalorik, zoaz itsasora, bota zazu hamua, ta lenbiziko arrapatukouzun arraiaren agnan aurkituko duzu moneda bat; ura enozute nere ta zure partez.* Bada zer notatu lanze gontan, baña prinzipalki pagatze gura Jesus onaren ta S. Pedroren bardin batean... Predikatu zuelarik Jesus onak, *zein neke den aberatsen salbatzea* (ib. 19.) erran zio Pedrok, *orra guk guzia utzirik segitu dugu berori: Bada zer izanen da guretako?* Errespondatu ziote Jesus onak, *egjaz erraten dazaet, ezi jarritzen nai zelaik nere tronoan erre-surrekzioaren denboran, zuek ere segitu nauzenak ni jarriko zaratela amabi trono-etan juzgatzen Israelgo jendeak.* Alaber bekatuen barkatzearen gain (c. 18.) galdegin zio S. Pedrok, *zenbat aldiz ene anaiak bekatu eginik, barkatuko diot? Zazpi alditaraño?* Errespondatu zio Jesus onak, *eztiot nik, solamente zazpi aldiz, baita ere amar zazpis zazpitararaño: adiarazteko, ezi beti.* Alaber predikatu zuelaik Jaun dibinoak bere sakramentuko alimentu milagroso amoro-soas, zenbait Diszipulok murmuratus ziotela, gogorra da prediku gau; nork dezake aditu? utzi zutelaik beraren konpañia, gelditu zirenei galdegin ziote amoltsu, *Nauzie zuek ere joan?* (Joan. 6) Errespondatu zio guzien partez S. Pedrok, *Jauna, norengana joanen gara? Berorren itzak dire betiroko bizi-tzaren. Eta guk sinetsi dugu, ta ezaundu dugu berori dela Kristo Jangoikoaren senea.*

5. Baña pasiora urbildus bekal, zoeie iago agertus Jesus onaren ta S. Pedroren elkarrenganako amore fiñ gura. Prebenitzeko bazkoa deitzen zen azken afaria, biali zitue alzina S. Pedro ta S. Juan bere maiteenak bekal. Zeudelaik artan, aipaturik bere Majestadeak, Apostoluetatik batek trai-ziatuko zuela, zeudelaik guziak ikar ikar, S. Pedrok S. Juani keñu egin zio, galdegiteko, nor zen traidorea: ezi baleki, zatikatuko zue ozka an, dion bekal S. Krisostomok. Bada oñen garbitzen asi zekiotelaik Jesus ona, an ze S. Pedroren azorazioa, *Jauna, orrek niri garbitu oñak?* Erres ondatu zio Jesus onak, *zaude, nik egiten dutena zuk eztakizu orai: baña jakinen duzu gero*



Erraten dio Pedrok, *Eztiot utziko garbitzera nere oñak sekulan ere*. Errespondatu zio Jesus onak, *ezpazaitut garbitzen, eztuzu izanen parterik eneki*. Orduan Pedrok, *Jauna, ez oñok solamente, baita eskuok ere ta buru au*. Erraten dio Jesus onak, *garbi dagonak eztu bear, baizik oñak garbitzea: eta zuek garbi zauzte, baña ez guziok*. Au zio Judas traidoreagatik. Joan. 13. Gero maian erranik nola zeukan disponiturik erreinua aiendako firme irauten zutenendako berareki, (Luc 22.) erran zio, *ah Simon Simon Pedro, orra Satanas dagu naiak baiatzatu zuek, garia bekala: baña nik eskatu dut zuregatik, eztaien falta zure fedea: eta zuk noizbait konbertiturik konfirmazkizu zeure anaiok*. Pedrok erran zio, *Jauna, orreki nago prest joatera preso ta iltzera*. Jaun dibinoak erran zio, *zuri erraten dizut, Pedro, eztu ollarrak kantatuko gaur, ukatu arteo irur aldiz zuk ni ezauntzen nauzula*. Afalondoan erran ziote Jesus onak, *zuek guziek pasatukouze eskandalo enebaitan gau gontan: ezi eskribiturik dago, Arzaia golpatu, ta ardiak barratu*. Errespondatu zio Pedrok, *naiz guziak eskandaliza daitzen, ni ez beñere*. Jaun dibinoak erraten dio, *sines erraten dizut ezi gau ontan berean, ollarrak bi aldiz kantatu banoien, zuk ukatu nauzula ni irur aldiz*. (Marc 14.) Pedrok porfia, *bearbada ere il orreki ni, eztut ukatuko ori*. Biotz onareki zio, baña agertu ze gero, zer den gizona berez.

6. Ellegaturik Jetsemaniko baratzeraz, utzirik berzeak saiets batean, erretiratu ze Jesus ona S. Pedro, S. Tiago, ta S. Juaneki aratxago, ta ebei enkargaturik orazioan egotea, bera zego berex otoitz egiten ta odol-izerditzen kongojas. Gero itzulirik aurkitu zitue lo, ta erran zio Pedrori, *Simon, lo zaude? Ezin irau duzu idatzaririk ordu batez orazioan eneki? Zauzte erne, ta orazio egize, etzaizten erori tentazioan*. Ellegatu zirelaik Judaseki armatuak egitera preso Jesus ona, Malko deitzen zen mutil bat alzinaturik botatzera eskuak, S. Pedrok Jaunari zion amorearen suareki tiratu zio ezpatas atrebitugarri, ta ebaki zio bearri bat, zein ukitus istantean sendatu zion Jesus onak, ta S. Pedrori erran zio, *itzulazu ezpata goi bere magira. Ene Aitak brindatu didan tragoa, eztuzu nai pasa dezaten?* Orduan Jaunaren gain botatzeareki aiek, Apostoluek lotsarriturik, ta bera utzirik, Joan zire iges. Baña S. Pedro geldiarazi zue badean Jesus onaren amoreak. Ikusi naiez zertan baratzen zen, segitu zue urrundarik, ta gero ere sartu ze Kaifasen etxean, non zeukaten axuri dibinoa inguraturik otso gaiek. Ojala ezpaze sartu, zeren ezaundurik, ta galdeturik batak eta berzeak ia Jesusen Diszipulo zen, ukatu zue irur aldiz, etzuela ezauntzen ere. Ain zoraturik konfuso zego beldurrez! Kantatu zue ollarrak, ta inporta dena, beiratu zio Jaun onak. Akorriturik ezaundu zue bere gaizki egina, ta atrarik andik asi ze egiten negar amargoki, segitzeko bizi guzian, ezi diote, ollarrain kantua aditzen zuen egunoro, negargalea eldu zekiola, ta negarren podores zeuz-

kiela eginik bi erreka, edo arraia gisa begien pean. Guziareki etze deskonfiatu Jesus onaren onas, ta ezpidez deskuidatu akuditzeas Ama Birjina-gana, logratzeko piedadea: eta Jaun onegia bizturik ilen ertetik irugarren egunean agertu zekio S. Pedrori berez berzeeri baño len: ala ziote berek, *biztu dela egjaz Jauna, ta agertu dela Simoni*. (Luc. 24. v. 34.) Zer pasatu zen bien artean bisita gartan, bataren ta berzearena, nork entenda?

7. Preziosoa izan ze aparizio in ziona S. Pedrori bere laguneki Tiberiasko itsasoan, non beraren manamendus botarik sarea, ta arrapaturik arraiketa andia, ezaundu zuten Jesus zela, ta gero berak bere eskus eman zioten jatera: Ondorean galdegin zio S. Pedrori amoltsu, *Pedro, maite nauzu ebek baño iago?* Errespondatu zio, *bai Jauna, orrek daki maite dudala*. Erraten dio, *bada kuida nere axuriak*. Erraten dio berriz, *Pedro, maite nauzu ni?* Errespondatu zio, *bai Jauna, orrek daki maite dudala*. Erraten dio, *bada kuida ene axuriak*. Irugarren aldian galdegiten dio, *Pedro, amatzen nauzu ni?* Errespondatu zio negarti galdegiteas ainberze aldiz, *Jauna, berorrek guzia daki: berorrek daki amatzen dudala*. Erraten dio, *bada kuida nere ardiak. Sines erraten dizut, gastea zinalaik, zeuroi zeñitu, ta poatenzina noranai: baña zartzen zarelaik, berze batek zeñitu ta eramakozaitu nora nai etzin duken*. Au erran omen zio mostratus nolako eriotzeareki honratu bear zuen Jangoikoa. Erraten dio azkenik, *segi nazazu ni*. Orra S. Pedro eskojiturik ta eginik Kristok berak Artzaiburu bere axuri ta ardi onetsien. Igan ondoan Jesus ona zerura, S. Pedrok bildurik Kristio berri gaiek, mintzatu ziote bear zela Judas galduren lekuan autatu berze bat Apostolutako, ta Jangoikoaren borondatez eskojitu zute S. Matias. Gero errebestiturik guziak Espiritu sanduas asi zirelaik predikatzen miragarriri, eta jendea zegolaik arriturik, S. Pedrok egin zue prediku andi bat, ta kristiatu zitue irur milla arima, guti gorabera, bizi zirenak sanduki. Zoezi bein S. Pedrota S. Juan tenplora: atarian zego estropeatu bat jaiotzetik, paratzen zutena egunoro an eskatzeko limosna: eskatu ziote bieie ere. Eta S. Pedrok erran zio, beira guri. Ura zegokiote beira ustez zerbait atra. Baña S. Pedrok erran zio, *zillar ta urrerik eztut nik. Baña dutena ematen dizut: Jesu Kristoren izenean jaiki ta ibili zaitte*. Artu zue eskutik, eta istantean aurkitu ze sano ta sendo, ta sartu ze aieki tenploan ibilis tieso ta saltoka, ta oiuz laudatzen Jangoikoa. Bildurik jendea ta arriturik zegolaik, S. Pedrok anioso erran ziote klaro, nola Jesus Jangoikoaren seme sandu salbazale, berek ilarazi zutenaren izenean obratu zen prodijio gura: konberti zeizela, ta egin penitentzia. Konbertitu zire borz milla ia. Baña tenploko sazerdote ta manazaleek eraman zuzte preso biak. Biramonean batzarre andi bat bildurik, ta biak erdian paraturik, ta galdeginik agituas, S. Pedrok beterik Espiritu sanduas, erran zue, *Jesu Kris-*



to, zuek guruzifikarazi duzena, bera da eman diona sanidadea oni. Eta ezta berze nioren baitan salbaziorik ta ez gauza onik. Aiek manatu ziote etzetazela predikatu Jesusen izenean niolater. Baña biek firme errespondatu ziote, *beira zeurek Jangoikoaren presenzian, ia arrazio den obeditzea zuei lenago ezi Jangoikoai: ezi gik ez dezakegi utzi errateko ikusi duguna ta aditu*. Segitu zute ausarki predikatzen nola len.

8. Eta ainberzekoa ze Kristio lenbiziko gaien karidadea elkarrengana, ezi guziek zute biotz bat, ta arima bat, ta ondasun guziak komun guziendako, ta ala etze nior etzuenik bear zuena, ezi zutenek paratzen zute Apostoluen oñetan errepartitzeko bearraren ariora. Senar-emaste batzuek, Ananias ta Safira deituek, saldurik alor bat, presentatu zute prezioaren parte bat, guzia zelako itxuran, ustez engañatu sandua: baña onek senarrai lenik erran zio, Ananias zergatik Satanasek tentatu dizu biotza, gezur egiteko Espiritu sanduari? Etzego zure eskuan ematea edo ez? Zergatik nai izan duzu engañatu? Eztuzu gizonei gezur egin, baizik Espiritu sanduari? Aditzeareki solamente, ilik gelditu ze an gizonoi. Eta ortzi zute. Irur ordu bekala pasaturik, ellegatu ze Safira etzekiela zer agitu zen. S. Pedrok erran zio, errazu egia, emastekia, onenberzean saldu duze alorra? Ark, bai Jauna. Sanduak, zertako da konbeni tentatzea Jangoikoaren espiritua? Orra ortzi dutenak zure senarra atarian dire, ta ortziko zaitute zu ere. Istantean erori ze ilik an, ta eraman zute ortzitzeko. Segitu ze beldur ta errespeto andia gerostik guzietan S. Pedrori. Aumentatus Kristio-gendea, ta añaditus sazerdote gaien inbidia, in zuzte preso Apostoluak: baña Jangoikoaren Aingiruak idikirik presondegia, manatu ziote joateko predikatzer. Berriz eramanik in ziote aiek kargu desobediencias: S. Pedrok laguneki errespondatu zue, *bear da obeditu Jangoikoai obeki ezi ez gizonoi. Zuek guruzifikatu zinduten Jesus da guzien salbazale barkazio emateko penitentzia iten dutenei: eta gu garade testigo emateko fede egjaren*. Aditus errabiasten zire aiek, ta azotarazi zuzte, ta utzi manaturik ez aipatzeko ere Jesus. Apostoluak atra zire alegre padezituas Jesus onaren amarez: eta egunoro segitu zute erakusten Jesus tenploan ta etxeetan. S. Pedrok prinzipalki sendatus heriak, biztus ilak, obratus prodijio admiragarriak de manera ezi paratzen zuzte heriak pasatu bear zuen lekuan, *arren itzalak sollik ere uki zezkien; ta on sollik ere aski ze sendatzeko*. Jangoikoa zego arreki.

9. Baña asi zire gaixtoak persegitzen Kristio-gendea. Il zute arrikaturik S. Esteban lenbiziko Martir gloriosoa: baitare ezpataz San Tiago Apostolua Herodesek; eta Judioei gusto in naiak arrapatu zue preso S. Pedro ere, ta zeuka biziaren edekitzeko bazkoa-ondoan. Bitarteo Eliza guzia zego klamatzen kontino Jangoikoai arreatatik. Atra bear zuten bez-

peran iltzeko, zego S. Pedro lo bi guardien ertean, eta Aingiruak aien ta gañarako guardien ertetik atra zue suelto libre. Eta Herodes gero heriturik Aingiruaganik arrek konsumitu zute bizirik. (Act. 12.) Orduan gure Jaunak ala izan zue plazer, baña Roman gero ez ala: zeren ezi an preso zeukalaik Neronek, injeniatu zute Kristoook ixilkias atraraztea: Bazoei libre ia: bidean agertu zekio Jesus ona guruzeareki soñean. S. Pedrok galdegin zio, nora doaie, Jauna? Errespondatu zio, noaie izatera guruzifikatua berriz zuregatik. Entendatu zue S. Pedrok adiarazi nai ziona, ta itzuli bai itzuli bere presondegira. Bedratzi edo amar urtez enpleaturik Jerusalem, Judean, Ponton, Galazian, Asian, Bitinian, Antiokian barratzen doktrina dibinoa, iruzkiaren gisara, plantatzen ta azitzen, ta seguratzen Kristiandadea, pasatu ze Romara, non ta berze asko lekutan egin zue lan bera, lagundus poderosoki Jangoikoak. Famatua da egin zuena an Simon Mago edo sorginareki. Onek zeuka engañaturik jendea sinestazis zela Jangoiko, egines gauza miragarriak Deabruaren artez. Oponitu zekio S. Pedro; eta progatzeko, zein zebilan zuzen-bideas, ekarri ze il bat, biztu zezana izan zeien estimatua Jangoikoaren aldekoa. Simon sorginak arte gaixtos iduriarazi zue mogitzen zuela ilak burua, baña azkeneko ila il gelditu ze. S. Pedrok orazio eginik, ila biztu ze egiaz, mintzatu ze, ta seguratu zitue sanduaren egietafedeas, ta berzearen engañuas; zeñek mendekatzeko erran zue inen zuela eraman zezaten bera Aingiruek airean zerura, bialtzeko andik kastigo mereji zuztenak, ez berari sinestatuas. Señalatu ze urbilen igandea; eta S. Pedro barutu omen ze bezperan Kristioeki, logratzeko biktoria. Egun gartan infinizio bat jenderen alzinean Simon Mago gura asi ze Deabruen artez egatzen airean gora: jendea arriturik oiur zela Jangoiko. S. Pedrok egin zue orazio Jangoikoai, eta istantean Deabruak iges joanik, ta ura utzirik erori ze lurrean, ta abarrikaturik zangoak, etzeike ibili oñes ere, ta iltze biramonean.

10. Neron enperadore indignoa agitz asarratu ze galduas bere gisako sorgin gura, ta iago ere oraño, zeren izanik deshonestoa, ezi herejeen ta infielen gala da deshonestidadea, ala nola Kristio onena baita honestidadea, zenbait emasteki arren zebo zirenak kristiaturik S. Pedro ta S. Pabloren konsejus eman ziren onera, orgatik in zitue preso bi Apostoluak. Asko denboras egon zire presondegian; baña an ere konbertitu zute anitz guardiakoetaik, espezialki bi prinzipalenak Prozesu ta Martiniano; eta peña batetik saltazaririk an iturri bat, bataiatu zuzte. Sententzia eman ze, guruzifikatzeko S. Pedro, ta degollatzeko S. Pablo. Atra baño len artako azotatu zuzte krueki biak. Atra zuzte gero zitudetik kanpora; eta biak besarka despeiturik, S. Pablo alde batera eraman zute, ta S. Pedro oiantto



batera: emen guruze batean josi zute itzeeki agitz alegre zegolaik imitateas Jesus ona eriotze gisan: baña konfesaturik etzela digno iltzeko forma berean, eskatu ziote berdugoei nai bazute guruzifikatu burus bera, ta oñak gora. Egin ziote gusto goi: eta ala bukatu zue bizi prezioso gura, igateko guruzetik gloriara gozatzeko Jesus onaren besarka, ta Jangoikoaren premio eterno infinito inmensoa. Gorputz sandua depositatu zue Marzelo sazerdoteak: ta estimatzen ta honratzen du mundu Kristio guziak, eta bear ere bai, zeren Jangoiko Jaunak, eta Jesu Kristo Jangoikogizonak estimatu, ta honratu baitute gizon gau, egines bere urbilena dijnidadean, potestadean, ta grazian, bere familiaren Nagusi, bere saldoaren Artzaiburu, bere eskolaren Maestru lenbizikoa, bere troparen Kapitan jenerala, Eliza guziaren Gobernaria, bere tesoroen despensero, zeruko erreinuaren atelzai giltzaduna, bere pasioko odol preziosoaren ta merejimentuen Ministro prinzipalena, Prinzipe goren munduko errege ta enperadoreen gañetik, ala nai baitu Jangoikoak, naiz lenik izan zen arranzuari pobre bat humila.

Iltzela diote *Kristoren iruogitazazpi edo zorzigarren urtean*. Kristoren Bikario, Aita Sandu, ta Pontifize sumo ogeitabortz urte Roman: bedratzi edo amar Romara baño len Antiokian ta berze lekuetan: bere Pontifikadoko guziak ogeitamalaur, edo ogeitamabortz urte. Beraren milagroek eztute numerorik: Laudario ematentiotenak sanduek eta Doktoreek ezin konta ala dire: baña guzien gañetik da Jesu Kristo berak amatu, honratu, ta laudatu zuena &.

Garagarzaroaren 30.an San Pablo Apostolua

1. S. Pablo S. Pedroren laguna ofizioan, martirioan, eta festibidean izan ze Tarso Ziliziakoan jaioa, estudiatu zuena Jerusalemene, ta ain zelo-soa lengo legearen, ezi ustez kontrario ziren Kristioak, asi ze eben persegitzen gasterik: eta arrikatu zutelarik S. Esteban, arrek guardatzen zitue arrikazaleen tresenak. Gero arturik despatxuak eta letrak, arrapatzeko Kristio ziren gizonki, ta emasteki guziak preso: eta furias beterik zoeielaik Damaskora bidean, derepente inguratu zue argi batek zerutik: ta eroririk lurrean aditu zue boza bat erraten ziola *Saulo Saulo, zerratik persegitzen nauzu ni?* arrek galdegin zio, *nor da ori, Jauna?* Errespondatu zio, *Ni naiz Jesus, persegitzen nauzuna zuk. Gauza gogorra da zuretako ostiko tiratzea akulloaren kontra.* Eta ikar ikar arriturik erraten dio, *Jauna, zer nai du in dezaten nik?* Errespondatzen dio Jaunak, *jaiki ta sar zaite zitudadean: eta an erranen zaizu zer in bear duzun.* Akonpañatzen zutenak zeude arriturik, aditzen boza bai, baña nior ikusten etzutela. (act. 9.) Jaiki ze lurretik, ta idikirik begiak deusere etzue ikusten: eta arturik eskuetan sartu zute Damaskon. Egon ze an irur egunes ikusi gabe, ta jan ta edan gabe. Diszipulo bat bizi ze an deitzen zena Ananias: oni erran zio bisionean Jaunak, zoaz alako karrikan alako etxera, non aurkitukouzun Saulo Tarsokoa, baitago orazioan. (Bitarteo onek ikusi zue Ananias sartzen, ta paratzen zitiola eskuak, errekoartzeko bista.) Errespondatu zio Ananias, Jauna, aditu dut zenbat gaizki in dioten ark Kristioei Jerusalemene: eta du esku egiteko preso berorren izena inbokatzan duten guziak. Erraten dio Jaunak, *zoaz, ezi da baso nik eskojitua, eramateko ene izena jendeen ta erregeen alzinean: nik erakutsiko diot zenbat pasatu bear duen ene izenagatik.* Joan ze bada Ananias, ta paratus eskuak gañean erran zio, Saulo ene anaia, biali nau Jesus Jaunak agertu zaizunak bidean, kobra dezazun bista, ta bete zaitzen Espiritu sanduas. Istantean argiturik begiak, jaiki ta bataiatu ze: ta alimentu arturik konfortatu ze. An egon ze zenbait egunes an ziren Diszipuloeki. Eta kontino gerostik predikatzen zue Jesus, afirmatus au dela Jangoikoaren semea: admiratzen zirela guziak zekitenak etorri zela Kristioen kontra. Baña ia desengañaturik fuerteki konfunditzen zitue Judioak, zeñek tratatu zute ilarazteas, guardatus ertxirik portaleak etzeien eskapa. Diszipuloek ordea, paraturik bera esporta batean, jautsi zute murallatik soka bateki.



2. Joan zelaik gero Jerusalem, nai luke juntatu Diszipuloei: baña guziak zire arren beldur, ezpaizekite konbertitu zela. S. Bernabek eraman zue Apostoluengana: eta berak kontatu ziote nola agertu zekion Jesus, ta manatu zion in bear zuena. Ala egiten zue bizkorki disputatus kontrarioeki, zeñek nai zute ilarazi. Orgatik anaiak eraman zute Zesareara ta Tarsora. Baña nork kontu ibili zituen bideak, ta pasatu zituen lekuak, peligroak ta trabajuak Jesus onagatik? Nork explika biotz garren koraje admiragarria, despreziatzeko mundua, deskansua, osasuna, ta bizia bera? Nork adiarazi mi sandu garren mintzaera dibino gura, zeñeki edo konbertitzen, edo konbenzitzen zituen guziak? Bada lan andiak, milagro, ta gauza prodijioso in zituenak, ezta mirik kontu dezazkenik guziak. Solamente Jesus onagana itxeki zekion amore fiñ sendo gura eztaike utzi aipatu gabe. Jesus onak errana egia delaik, biotzaren abundaziatik itz egiten duela agoak, aipatze gura Apostol onek bere kartaetan Jesus, Kristo, Jesu Kristo ain usu ta kasi istanteoro, zer da baizik biotzean zuen amoresko su andiaren txindiketa? Nolako afektoak! nolako anhelok! nolako itzak! Korintotarrei eskribitu zioten karta lenbizikoa bukatzen du sententzia goneki, *barin bada nior amatzen eztenik Jesu Jauna, biz exkomekatu madarikatua*. Galaziatarrei dio. (c. 2.) *Bizi naiz ni, ez ia ni, baizik nibaitan bizi da Kristo*. Filipotarrei, (c. 1.) *enetako bizitzea Kristo da, ta iltzea arabaztea*. Ta berriz, (c. 3.) *Uste dut gauza guziak direla galduak ene Jaun Jesu Kristoren ezauntzearen aldean, zenen kasos guziak galdu naitut, ta eztitut estimatzen iago ezi ongarria, irabazteagatik Kristo*. Romatarrei dio, (c. 14) *Gutaik nior ezta bizi beretako, ta nior ezta iltzen beretako. Ezi bizi bagara, bizi gara Jaunaren; ta iltzen bagara, iltzen gara Jaunaren. Beras garen bizi edo il, gara Jaunaren*. Guziok baitire itzak adiarazten dutenak amore bat ezin iagokoa. Dio berriz, (c. 8.) *Beras nork apartaraziko gaitu Kristoren amoretik? Agian trabajuak, edo angustiak, edo goseak, edo gabeak, edo peligroak, edo persekuzioneak, edo ezpatak? Zierto nago ezi ez eriotzeak, ez bizitzek, ez Aingiruek, ez Prinzipadoek, ez Birtuteek, ez oraiko ta ez geroko gauzek, ez indarrak, ez gorak, ez berak, ez gauza kriatuek batek ere gaizkela apartarazi Kristoren baitan den Jangoikoaren karidadetik*. Korintotarrei dio, (1. c. 2.) *Nik ez nua pensatzen, banekiela deus zuen ertean, baizik Jesu Kristo, ta ori guruzifikaturik*. Galaziatarrei, (6.) *Jangoikoak guarda gloria nadien ni, ezpada gure Jaun Jesu Kristoren gurutzean, zeñen amarez mundua enetako guruzifikaturik dago, ta ni munduaren*. Filipotarrei, (c. 2.) *Kristo Jesus humillatu ze eriotzeraño, ta guruzeko eriotzeraño: orgatik Jangoikoak goratu du, Jesusen izenera belaurika daien zeruetan, hurrean, ta infernuetan den guzia, eta mi guziek konfesa dezaten Jaun Jesu Kristo dagola Jangoiko Aitaren glorian*. Timoteori dio, (1, c. 1.) *Ona itz bat fiela sine tsigarria, ta guziek admititu bear dutena, au da, Kristo Jesus etorri zela mundugon-*

tara salbatzera bekatariaik, zeñetaik lenbizikoa bainaiz ni. Hebreoei erraten diote, (13), *Jesu Kristo atzo, ta egun, ta beti sekula guzietan*: adiarazteko ezteula nai berzerik ez len ta ez gero. Kontatzen da Apostoloen aktoetan, (21) eskatzen ziotela ongi nai zutenek, etzeiela joan Jerusalem peligro andien-gatik: Apostoluak animoso erraten ziote, *zer ai zarate ala negarrez ta afflijitzen ere biotza? Ni nago prest ez solamente preso uztera, baita iltzera ere Jesu Jaunaren izenagatik*. Berriz Korintotarren kartan sendagalla egines Jesus onari zion amareas kontatzentu beraren gloriatan asatu zituenak: (2 Cor 11.) *Judioek borz aldis emantidate berrogei azote, bat guti. Irur aldis baraeki heritu naut: bein arrikatu: irur naufragio edo onzi-ondatze pasatutut: gau ta egun batez egon naiz itsas-ondarrean: bideetan askotan ugaldeen peligroak, ladronen peligroak, peligroak jendaki propioaganik, peligroak jentilenganik, peligroak zitudadean, peligroak leku sollean, peligroak itsasoan, peligroak anaia falsuetan: trabaju ta miseria, gabe, gose ta egarri, baru, otz, ta zereki estali ez. Kanpotik direnes landara, egunoroko antsia, ta Eliza guzien kuidaia. Nor flakeatzen da, ezpainaiz ni lastimatzen? Nori ematen zaio galbide, ezpainaiz erretzen ni?* Ala daiken obekienik pintatu ze bera S. Pablo: utziarik alde bat bere argi zeruko gura, bere birtute gañarakoak, milagro, ta gauza admiragarriak, zeñen kasos Listrisen nai zuten adoratu Jangoiko bekala, naiz gero tiratu zioten arrika. Bada zenbat erreinu ta lekutan pregonatu zuen Kristoren izena eta doktrina, nork kontu? Ezi orgatik deitzen da mundu guziaren Doktorea, ta jendeen Apostolua. Azkenean juntaturik S. Pedrroeki Roman, nola biekerakusten baizute doktrina bera, Kristoren doktrina sandua, garbia, zerukoa, biok sentenziatu zitue iltzera Neron urde kruelak. Biok despeiturik amorosoki elkarrenganik berla arteo, S. Pedro eramanik guruzifikatzera alde batera, S. Pablo berze alde batean il zute ezpatas; eta S. Krisostomok dio, zauritik atra zela esne odolaren partez, edo odola esne-kolores. Eta S. Ambrosiok dio, ezteula arritzeko, azitzen zuenak Kristio jendea Ama on batek bekala doktrinaren esneas, iltzerakoan jari zekion esne odolaren lekuan. Diote iago, ebakias geros buruak eman zituela irur salto, ta atra zirela irur iturri dirautenak oraño. Izan omen ze S. Pablo txipia gorputzes, baña espiritu bizi bizkorra, mostratzen zuena barneko grazia begitartean, kausatzen zuena bateo amore ta errespeto. Bizitu omen ze irur onuei ta zorzi urtes, diones S. Krisostomok, eta il *Kristoren iruogaita zorzi edo bedratzigarrenean*.



Garillaren 4.an

Santa Isabel Erregina Portugalekoa

1. S. Isabel Araguako errege D. Pedro irugarrenaren alaba, aurzutu-tik ageri ze sandatako jaio zela: ain debota, humil, mansa, limosnagillea, garbia; itz batez, Jangoikoai emana. Ameka urtetan eskatu zue bere espasatako D. Dionisiok Portugaleko erregek, zeñeki ezkondu zen bere denboran. Estado gortan etze goganditu, bai iago kuidaotan paratu, nola bizi bear zen bere ta berzeendako. Aumentatu zue debozioa, billatus Jangoikoa len baño iago, nola baize bearrago. Zeuzkie bere orduak erreparaturik Jangoikoaren gauzetako. Egunoro iten zitue bere errezuak, ta enzuten meza kantatua, ofratus bere eskus ofrenda, ta belauriko apatus sazerdotearen eskua, ta errezibitus bedeizioa. Orazio mentalean gozatzen ze luzaro, ta bisitatzen zue Jangoikoak an, ta erregalazten miragarriro. Barutzen ze kasi urtearen erdian ogi ta ur solles: ta giarakoan agiz moderata zue jatean, ta jaintsitzean. Bisitatzen zitue oñez elizak eta konbentuak. Maiz konfesa komekatzen ze debozio andiareki. Iago iduri zue erreljiosa bat debozioan, ezi ez erregina poderosa. Bere kapellanak, eta zerbitzukoak bear zire izan birtutezkoak irauteko: eta damak erretiratu honestak langinak, zeñeki enpleatzen ze erregina bera egiten ta bordatzen elizetako ornamentak, zeñeki ta berze asko limosnaeki suplitu baizue asko eliza. Baña iten ziren eliza, konbentu, hospitale, ta obra on guzietan bear zue lagundu bentzait. Bada pobre gañarakoei sokorritzean afizione bekala zue dilijenzia espeziala, sekretoan eta agerrian, berzeren eskus, ta bere esku propios, kuratus heriak, bendatus ta apatus llagak. Beretako ze gogor, berzeendako beratx abasto: ta Jangoiko Jaunak mostratzen zue milagroeki ere ori kuadratzen zekiola. Milagros bein ura ardo itzuli ze, heri zegolaik, ta Medikuek manaturik artzeko ardo guti bat, etzuelaik artu nai. Emasteki pobre baten lllaga lotsagarri bat apatus derepente sendatu zio. Neska itu bat jaiotzes argitu zue: berze asko heri gisa sendatu zitue guzuzearen señalearaki. Diru zemazkienak emateko pobreei neguan itzuli zire arrosa, ikusi nai zituelaik erregek: eta alako milla kontatzen da.

2. Baña zertan ageri zen sandaren birtutea geienik ze matrimonionaren, ta erreinuko gobernuaren itekoetan. Al guzian Jangoikoas geros erregeri prokuratzen zue egitea plazer, naiz bere pazienziaren kostus sufritus agrabio andiak, kuidatus azitzeas arren humeak ere, ez solamente bereak. Eta ala pazienza andi garreki oneratu zue errege, lagundus Jangoikoak

ortako. Bein paje batek berzeari zion inbidias adiarazi zio erregeri, erregeri-nak maiteegi zuela. Erregek sinetsirik joan ta manatu zio kalzina iten zegon bati ark bialiko zion paje bat bota zezala labe barnean sura. Biali zue bada erreginaren pajea atxekia bateki. Onek zue kostunbre ona, aditzen zuelaik sagrako txintxa soñatzen, sartu ta adoratzea Jaun sakramentatua. Pasatzean bada eliza batetik aditu zue txintxa, sartu ze, ta egon ze bukatu arteo meza gura, ta berze bida segi dan atra zirenak. Bitarteo erregek jakin naiak egin zen ark manatua, biali zue berze paje enbustero gura galdegitera: au ikusi orduko arrapatu ta erre zute kalzinalabean. Gero berzeak, bere mezak enzunik, joan ta galdegin ziote ia egin zuten manatua. Errespodaturik baietz, itzuli ze, ta erran zio erregeri. Au gelditu ze arriturik, nola trukatu ziren suerteak. Gero informaturik ongi ezaundu zue Jangoikoaren eskua. Baketzean bada erregeak elkarreki trabajatu ta pasatu zue anitz erregina sandak: baña logratu zue bere deseoa Jangoikoareki bateo. Azkenean errege heritu zelaik asistitu zio karidade ta kariño admirablearki, senda zeien, edo il zeien ongi. Zenbat meza, orazio, limosna inarazi zuen arren onagatik, il baño len ta il ondoan, ezta numerorik. Iltzen ordu berean, erretiraturik bere kuartoan erreginak ebaki zue bere biloa, ta bestitu zue S. Klararen habitua, ta akonpañatu zue ila ortziartaño. Gero joan ze oñez peregrinazioan Santiagora, ofratu zio asko gauza prezioso: ondorean nai ze enzerratu konbentu batean: baña zeren infinizio bat pobreei faltatzeareki beraren presentzia, faltako zekioten Ama ta anparo guzia, gizon sanduen konsejus gelditu ze kameotik, baña biotz barne-tik erreljiosa bat perfekta: guzia okupaturik Jangoikoaren ta proximoaren amorean.

3. Azkenean bukatzeko bizitu zen bekala beti ongi egiten, paratzeko bakean bi errege ia gerrara prestatzen zirenak, artu zue biaje luze bat. Ontaik segitu zekio heritasun bat, zeintan konfesaturik anitz aldis, ta errezibiturik komekadura, bisitatu zue gloriako erregina soberanak, zeñi enkomentatu zen afekto guziareki erraten ziola, Maria graziaren Ama, ta miserikordiaren Ama, etsaiaganik guarda benaza, ta iltzeko orduan errezibi benaza. Alako afektoen ermean despeitu zue arima sanda gura 1336 urtean, eta bere adinaren 65.an Estremozen. Beti Kristiandadean izan da zelebratua erregina sandaren izenas; ta Urbano VIII.ak kanonizatu zue urte sanduan 1625 &.

Garillaren 6.an S. Godoleba ezkondua. pag. 306.



Garillaren 7.an San Fermin Obispo ta Martir Patrono Nafarroko

1. S. Fermin, edo Firmio ta Firmino deitua, Nafarroko Patrono dena jaio ze Iruñean. Buratsoak Firmo ta Eujenia, jende nobleetaik: eta ura Senadore edo Konsejuko Jaun prinzipala. Bataiatu zitue S. Saturninok Tolosako Obispo zenak. Onen Diszipulo zen sazerdote batek Honesto deituak, edo honesto zenak azi zue, ta erakutsi S. Fermin errelijione Kristioaren doktrinan ain ongi, ezi egin zue Maestru, erakusteko berzeei doktrina bera: eta ala zebila Iruñi aldeko lekuetan argitzen jendeak Jangoikoren gizon sandu bat bekala. Eginik Iruñeko Obispo konsagratu zue S. Honoratok S. Saturninoren ondorengo Obispo Tolosakoak. Konsagratu rik ia ta utzirik bear zen gobernua emengo Elizan, pasatu ze Franzalara Apostolu gisa pregonatzera ziudades ziudade Kristoren errelijione bakar egiaskoa, eta ala konbertitu zue anitz jende Ajenense ta Ande gabenseetaik, konfirmatus beraren doktrina Jangoikoak asko milagroeki. Andik pasatu ze Belbako deitzen den ziudadera, non arizelaik trabajutzen fuerteki, atratzeagatik zañetaik Infielen superstizioea, Balerio Presidenteak preso inarazi, ta azotarazi zue kasi eriotzeraño. Gero presondegian utzi zue, zegola arren ondorengo izan bear zen Serjioren eskura, pasarazis bitarteo anitz gose, nezesidade, ta miseria leku gartan. Baña jendeak oraturik, ta indar eginik atra zue andik: ta Eerriro segitus bere predikuak, eta milagroak konbertitu zitue geienak, eta egin zitue zenbait eliza ziudade gartan.

2. Andik pasatu ze Anbiano deitzen den ziudadera, non berrogei egunes konbertitu zitue irur milla persona. Bi Presidente Lonjinos ta Sebastian deituak, jakinik ziertoki, anitz erri ta ziudadeetan despreziaturik idolo banoak, beneratzen zela Jesu Kristo Jangoiko-gizon egiaskoa, S. Ferminen predikatzearen medios, etorri zire arara prisaka, ta fuerteki erreprehenditurik, zeren plantatzen zuen errelijione berri bat enperadoreen manamenduen kontra, sarrarazi zute karzelean: eta beldurrak libra zezan jendeak len bekala, ilarazi zute ixilkias presondegian. Presidentetaik bata il zute jendeek orgatik: berzeas oroat inen zute, ezpaze eskapatu. Sanduaren gorputza orziarazi zue honratuki Faustiniario Sendadoreak, zeñen semea Firmio izan ze Amiensko Obispo, ta ala deitua, zeren S. Ferminek bataiatu zuen bere Aitareki bateo. Pasatus denborak, ia niork etzeke non zegon ortzirik sandua, ta guziek naiak: alik eta Teodoriko errege-

ren denboran S. Salbiok Amiensko Obispo zenak asko baru, ta orazioen kostus logratu zuen, errebela zezan Jangoikoak non zeuden altxaturik sandu gonon errelikiak. Denborain buruan goraturik begiak zerura, ikusi zue andik jautsi zen argi-errañu edo zinta-iduri bat ederra ellegatzen zena sanduaren obiarano, adiarazis bekala, ona emen dago billatzen duzen tesoro prezioso. Obispo sanduak bildurik jendea, arturik aizur bat, gozo ta errespeto andiareki asi ze zulatzen leku gura zeruak mostratzen zuena: eta zulatuz bekala, atratzen ze andik fragranzia bat miragarria zerukoa bekala, geroago ta iago, lenik bete zuena eliza guzia, gero barratu zena urrun ziudade, ta erriak barna, konbidatzen zituela guziak joateko ikustera milagroaren kausa. Agertu ze gorputz sandua, zein eramateko prozesio solemne bateki, bildurik infinizio bat jende, zeruak ere nai izan zue zelebratu festa, nolakoa apenas egin den nioreki: zeren ezi, zelarik neguaren erruan izotzillaren amirurgarrenean, asi ze denbora bat ain bero guzis iduri baizue erre bear zuela mundua, irur ordus iraundu zuena. Prozesioa asirik, jendeak zoraturik bekala kontentus botatzen zitue kapak, ta gauzak lurrean, nondik pasatu bear zen sandua, klamatus guziek nola erramu igandean hosanna in excelsis biba biba. Eta derepente arbola ta planta guziak ikusi zire bestiturik lorees, ostos, eta fruitas, eta pasatzerakoan gorputz sandua, inklinatzen, edo kurtzen zuzte buruak beren arrama guzieki erreberenzia egines. Kanpoak eta sotoak agertu zire beterik belarres eta lorees, nola balitz primabera ta udaren erdia, klavelak, azuzenak, arrosak, ta gañarako lore-mota guziak abasto nonnai. Eta mostratzeko iago ere egun gartan zerua zegola graziaz ezti ta esne destilatzen, heri ta malder ziren guziak guziak gelditu zire sano ta sendo S. Fermin gloriosoaren merejimentuz: baita au progua andi bat, zein maite berex, ta estimatua espezialki duen sandu gau bere Majestadeak. Zer denboratan, ta zein urtetan iltzen, ezin daike seguratu ziertoki. Moretek uste du egiara urbil dabilala diona il zela Trajanoren, edo Adrianoren, edo Antonino Pioren denboretan (100 urtetik 150 urteraño) Flos Sanktorum deitzen den libruan, urriaren 25.an dio ezi 303 urtean il zela: baña etzeike izan ain berant, zeren ezi an berean dio etzela agertu edo aurkitu gorputza lias geros *kasi borz eun urtes*: ta Brebiarioek diote aurkitu zela Teodoriko erregeren denboran. Onek erreinatu zuela Amiens bere emezozigarren ta azken urtean, baita Kristoren *sei eun ta amalaugarrenean*: dio Moretek. (Beira t. 1, 1. 1, c. 3. § IX.) Ontaik, ta 500 urtes kasi egonetik altxaturik, kontua atra daike il bide zela goraxago errantugun urteetaik batean: baña ez 303 urtean ain gero.



Garillaren 10.an

Santa Rufina, ta Santa Sekunda Birjin ta Martirak

1. S. Rufina ta S. Sekunda Romakoak elkarren aizpak jendaki illustretik. Buratsoek desposatu edo ofrezitu zuzte bi kaballeroei, zein deitzen baizire Armentario ta Berino. Ebek biek martirioaren beldurrez ukatu zute fede Kristioa, ta nai zute oroat in zezaten beren esposa ofrezituek: Baña Gizonkiak baño fuerteago izan zire emastekiak: zeñek ez ukatzeagatik fedea, utzi zute guzia, ta joan zire Romatik. Beren esposoen eman zioite kontu Presidenteari: onek segiturik atzetik armatueki erdetxi bidean, arrapatu, ta entregatu zitue Prefektoari: zeñek paratu zitue 112 karzelean berez apart elkarrenganik. Andik irur egunen buruan presentarazirik alzinean Rufina lenik nai izan zue itz ones errendiarazi uztera Kristoren fedea, ta adoratzera aien Jangoikoak: baño ez ones, ta ez gaitzes etzuke-laik atra nai zuenik, deiarazi zue beraren aizpa Sekunda, onen alzinean azotatzeko ura, ta kastigo beraren beldurrez au errendi zeien. Baña onek ikusirik nola azotatzen zuten aizpa, ta bera ez, inbidia sandu bateki erran zio Juezari oiuz, zer ai da ala, gizon gaixtofikatua? Zergatik ala honratzen du ene aizpa, ta ni ez gisa berean? Errespondatu zio Juezak, iduri zaida, eroago zarela zu, aizpa baño. Erran zio sandak, ezgara eroak ez ene aizpa, ta ez ni, baizik biek sinesten ta konfesatzen dugu Jesu Kristo: eta bada biek dugu kausa bera, biek bear dugu pasatu pena bera, ezperen ene desonre da. Juezak porfia, ezkon zeizela beren esposo ofrezituegi. *Aiek* porfia, naiago zutela galdu bizia, ezi ez birjinidadea. Juezak, eta zer izanen da, iten bazaize bortxa? Erresp ondatu zio Sekundak, borondateaz iten da kulpante; bortxa da tormentu, aumentatzeko premioa. Sarrarazi zitue karzel itsu batean, ta an eman kee, ongarri, ta gauza urrintzueki, penarazteko usai gaiztoas: baño Jangoikoaren graziaz guzia itzuli ze atxon fragran-te gozotan; eta ilunbe gura argitu ze argi zerukoas. Andik atrarik paratu zuzte baño olio irakineskoan; ta bi ordus egonik an penarik gabe atra zire libre ta garbi. Gero loturik lepotik arri andi bana bota zuzte ugaldera: baño an ere faboratu zioite Jangoikoak, etzeizen ondatu, ta ez busti ere. Azkenik Romatik kanpoan ebaki zitiote buruak, bukatzeko martirio glorioso: eta bota zuzte gorputzak an barna otsoen janaritako. Baña sandak apareziturik gloriosa Romako Matrona bati deitzen baize Plautila, ta baize

Infiela, abisatu zute in zeila Kristio, ta ortzi zezkiela aien gorputzak: ala logratuko zuela sekulako gloria aien konpañian. Guzia egin ze. Agitu omen ze 260 urtean Baleriano ta Galieno enperadoreen persekuzioean.



Garillaren 14.an

San Buenabentura Doktore Serafikoa

1. Jaio ze S. Buenabentura zori onekoa Bañarean Toskanan. Aurttoa zelarik iletsirik ofrezitu zue Amak S. Franziskori, sendatzen barin bazue. Sendatu zue, ta adinera ellegaturik nai izan zue kunplitu Amaren botoa. Bereala bere humiltasun, modestia, obediencia, orazio kontino, ta gañarako birtuteeki egin ze guzien exenplu, ta guzien maite. Berabaitan guziek aurkitzen zute bear orduetan erremedio, konsolazio, ta arimo ona onerako. Estudiatu zue aplikazio andiareki Teologia Alexandro de Ales Maestruareki, zeñek ikusirik Diszipulo garren on onegia erraten zue, ona Israelita egiaskoa, ezpaitu iduri kutsatu zela Adanen bekatuan. Zazpi urteen buruko egin zue ainberze abantalla santidatean ta jakindean, ezi egin zute Maestru, ta erakutsi zue Parisen Santo Tomas Doktore Aingiruareki bateo: eta izan zire elkarren adiskide andiak elkarri iduri zirenak, ta biak bat bekala. Joan zekio S. Tomas hein, berze asko aldis bekala, bisitatzera bere zeldan, galdegin zio zein librutan estudiatzen zituen ain gauza onak: S. Buenabenturak erakutsi zizkio guti batzuk an zeuzkienak. S. Tomasek zio, baduzu zuk berze zenbait libru sekreto, uste dut nik. Orduan S. Buenabenturak erakutsi zio Jesu Kristoren imajina bat, erraten ziola, tori, Tomas, auxe da ene libru bakar dibinoa, bere parerik ezteuena, non ikasten baitut guzia, ta mezak laguntzen obeki ezi munduko libru ta estudio guzietan. Agitz kuadratu zekio S. Tomasi, baña etzekio berri iduritu, ezi berak ere libru gartan berean estudiatzen zue. Berze bein aurkitu zue eskribitzen S. Franziskoren bizia: etzio nai izan du estorbatu, baizik utzi geldi, ziola, utzagun lan in dezan sandu batak berze sandu batendako.

2. Admirablea da zierto sandu gonon doktrina, ta manera duena, zeren ezi erakusten du bateo klaroki, ta bateo mogitzen du deboziora bizkorki Jangoikoaren su biziaren gisara argitus ta berotus arima. Guziau ze, zeren orazioan bere biotza itxekitzen ta erretzen zen Jangoikoaren amoreko suan. Ala etzue lekurik biotz gartan deusek ere, baizik Jangoikoak, ta berari plazer ta gloria emateak al guzian. Nai zue Aita Sanduak egin Arzobispo Eborazense Inglaterran: baña bera humil-utses kontatzen ze indigno, eta otoi ta otoi logratu zue utzi zezan bere zeldan. Baña bere errelijioneak etzue utzi ala, baizik egin zue Ministro Jenerale, etzuelaik oraño baizik ogeitamaborz urte adinez. Zenbat probetxu egin zuen, eztaie aski pondera. Ama Birjina eskojitu zue bere Patrona ta Amatako: eta

anparatzen ta faboratzen zue Ama onak hume ona bekala. Bada sakramentu aldarekoari zuen debozioa eztaie explika zen adia. Debozioaren kasos, naiz izanik sazerdote, ta superiore, enpleatzen ze laguntzen mezak gusto andiareki: eta naiz zegon amorez naiak errebitu, baña fede bizias beiratus presente an Jaunaren Majestadea, ta bere indignidatea bere ustez, nai ta etze trebe ellegatzera: zego ala sazerdotearen atzetik humil beldurti: baña Jesus onak erregalatu naiez bere amazalea, partitzerakoan aldarean hostia, saltatu zatitio bat, ta sartu zekio agoan barna, utzirik biotza beterik gozos eta amores, baitare konfianzas Jaunaren onean.

3. Gobernaturik asko urtez bere errelijionea ederki, ezaundurik munduan beraren xamurtasun, humildade, santidade, ta prudenzia, Gregorio X.ak Aita Sanduak bilarazirik Konzilio jenerale Leon Franzikoan, manatu zue S. Buenabentura akuditzeko arara, ta ortako egin zue Kardemale ta Obispo Albanense. An trabajatu zue, ta logratu zue anitz fruitu Jangoikoaren gloriatan, ta Elizaren onetan. An Jangoikoak nai izan zue eraman deskantsatzera zeruan 1274 urtean, ta adinarean 53.an. Konzilio guziak izan zue pena andia faltatzes mundutik alako gizona. Beraren ilaria zebratu ze daiken solemnidade guziareki, predikatus bere laudariotan Pedro Terantasiok, izan zenak gero Aita Sandu Inozentio V. Berze gauzen artean erran zue, beiratzen zioten guziek arzen ziotela amore, ta errebitzen ongi beraren konsejuak, zergatik baize beratx, benigno, afable, humil, prudente, guzis Jangoikoaren ta on guzien gustora. Eta orai berean dirudi duela grazia goi afizionarazteas leitzen duten guziak, baña iago apegatzeas debozioaren sua suabekiro. Zelebratzen dute Kerubim bat bekala xakintasunaren andiatatik, eta serafin bat bekala karidadearen suagatik: ala sandu gontan juntatu ze Espiritu sanduaren suareki argia, erretzeko ta argitzeko arima. Ala deitzen du Elizak Doktore serafiko. Kanonizatu zue Sixto IV.ak: eta Sixto V.ak zebrarazi Elizako Doktore bekala.

Garillaren 17.an S. Alexos Romanoa pag. 307.



Garillaren 18.an Santa Sinforosa, ta zazpi seme Martirak

1. Erakusteko Jangoikoak, nola Amak amatu beartuen bere humeak, ez mundu gontako, baizik zerurako, ta Jangoikoarendako, paratutu enxenplu zenbait Ama, ala nola Makabeoen Ama antiguasko legean, eta lege berrian S. Felizitas, ta S. Sinforosa, irurek ain txusto zazpi semeen Ama bakotxa. Egungoak S. Sinforosak izan zue senarra Martir deitua S. Jetulio: zazpi seme izanak ere Martir, eta bera ere Martir, izateko familia guzia Jesu Kristoren jendakia, zeintas erran daiken ziona Dabizek ps. 23. *Au da jenerazioa billatzen dutenena Jangoikoa*, jaio zena igateko zerura. Il ondoan Aita, Adriano enperadorearen denboran, zazpi semeak Amareki egon zire altxaturik Romatik kanpoan: zeren ezi ezta debekatzen iges egitea persekuziotik nola egin zuen Jesus berak Herodesenganik: eta on da ongi egina espezialki eztelaik senti indar askoreki emateko bizia. Orai Jangoikoak nai duelaik, ematen du indar, ta grazia ortako: ta orduan Jangoikoaren amorez ofratu bear da bizia. Ellegatu ze ordua ortako, ta arrapaturik guziak eramane zuzte enperadoreagana. Onek Ama obligatu nai zue uztera berak, ta bere humeei utziaztera Kristoren fedea: baña ezin deus logratu zuke-laik, emanarazi zio anitz golpe aurpegian, ta paratu dilindaka biloetaik airean: andik oius Ama animosak animatzen zitue semeak pasatzera martirio Jesus onaren amorez. Asarraturik ortas tiranoak botarazi zue ugaldetan arri bateki an ito zeien: ala egin ze. Biramonean zazpi humeak loturik zazpi zuretan ilarazi zitue asko maneras: bata pasatus leptok ezpata: berzea bularretik: berzea zatikatus mienbros mienbro: berzea erditik partitus & Ala zorzi erres preziosoak sakrifikatu zire Jesu Kristoren honratan: arimak igan zerura gozatzeko berareki: gorputzak botarik gaixtoek, billatu ta bildu zuzte onek &.

Garillaren 22.an Santa Maria Magdalena

1. S. Maria Magdalena, penitziaren enxenplu izana, S. Lazaroren ta S. Martaren aizpa pintatzen digu ebanjelioak: Emendik atra bear dugu prinzipalena, gañarakoa Autore grabeetaik. Diote izan zela noblea, aberatsa, gastea, galanta, munduari ongi iduritu naia: orgatik, eta buratsorik gabe geldituagatik zebatu ze banidadean dibertitus ta zoratus itsu itsua bide zabal infernurako bidean. Dudarik gabe errateko ematen zue bere galbide ta galmendeas. Ebanjelioak diona da zela ziudadean emasteki bat bekataria. Orai bada zoeielarik zabarturik infernurako burusbera barna ardi galdua; edo dela egin zion oiuren bat Artzai onak, edo dela fixturen bat, naut erran, edo zeren aditu zuen Jesus onaren predikuren bat, edo zeren sentitu zuen biotzean Espiritu sanduaren inspirazioren bat, baratu ze burusberan; beiratu ze; ezaundu ze galtzera zoeiela, segitzen bazue alzina; eta aditurik, konbit zegola Jesus ona bazkaris Simon leprosoaren etxean, arturik ungerdu preziososko onzi bat, erreparatu gabe garaiean, konbitan, deustan ere, ara non eldu den, sartu kuartoan, ta guzien alzi- nean paraturik Jesusen oiñetan atzeko aldetik, negarra zeriola bi begietaik abasto, asi ze erregatzen oiñ sandu gaiek, ta igorzitzen buruko biloareki, ta apatzen, ta unjitzen ungerduas. Jesus ona zego geldi beira, nola sendatzen zen kontrizioareki arima, nola garbitzen zen loietik perla bere negar- rreki: onek segi bere penitenzian; Jesus onak utzi segi zezan: Fariseoa konbidatu zuena zego bere baitan mar mar erraten, balitz au Profeta, jakin lezake nor ta nolakoa den emasteki goi, bekatari baita. Jesus onak ikusirik arren biotza, erran zio, Simon, erran bear dizut gauza bat. Errespon- datu zio ark, erran bez, Maestru Jauna. Erraten dio, Bidek zor ziote bati, batak borz eun diru, berzeak berrogei tamar: etzutelaik nondik paga- tu, barkatu ziote arrek bie. Nork edo zeñek du maiteago? Errespondatu zue, uste dut ezi arrek, zeñi iago barkatu dion. Ongi juzgatu duzu, dio Jesus onak; eta itzulis emastekiaren alde, erraten dio, ikusteunzu emaste- ki gau? Ni zure etxera etorri, ta estidazu ur eman oiñetara: baña onek erre- gatutida negarres, ta txukatu biloes. Eztidazu apa eman: baña au ezta ater- tu apatzen ene oiñak. Eztidazu unjitu burua olios: baña onek ungitutu ene oiñak ungerdus. Orgatik erraten dizut, barkatzen zaizkiola anitz bekatu, zergatik amatu duen anitz. Ezi guti barkatzen zaionak guti amatzen du. Erraten dio emastekiari, barkatzen zaizkizu bekatuak. Maiean zeudenak



asi zire erraten beren barnean, nor da au, barkatzen baititu bekatuak ere? Baña Jaun onak despeitu zue Magdalena erraten ziola, zeure fedea salbatu zaitu: zoaz bakean.

2. Lanze gontan da ageri eztirela ain beratx bekataria bekatienda-ko, nola Jesus ona, bekaturik in etzuen ta etzuen. Ezta ikusi nior ain etsai bekatuaren, ta ain adiskide bekatarien! Joan baze Fariseo garrengana, erranen zio ark, aparta aparta eneganik, bainaiz garbi. Joan ze Jesu-sengana, ta logratu zue barkazioa. Baña zergatik? Zeggatik ia zegon txoil penaturik bekatues. Jesus onaren Ministroa oroat eztute lotsatzen bekatu anitz ta andiek ainberze, nola pena gutiak, urrikimentu-faltak. Bekatari ongi penatuek dute exenplu ona Magdalenan, konfiatzeko: baña ez bekatari ongi aurkituek bekatueki utzi nai eztuztenek. Jaun dibinoa aski benigno barkatu naia da, baña ezta nior barkatu nai penatu gabe. Orra askok bekatu iago ta andiago iten dute arrek baño: baña zein gutik alako pena ta penitentsia! Ordu gartaik gelditu ze S. Magdalena aldaturik guziz pensamentu, afekto, memoria, ta guziak: Etze ia lenagokoa; berze bat ze. Biotz gura len okupatzen zena banidadean, ia guzia zeuka enpleaturik bere Jangoikoan, segitus bere Mediku soberanoa noranai, enpleatus bere ondasunak Apostoluen ta pobreen sustentuan, ta bera sustentatus Jaun dibinoaren itz bizitzaskoeki.

3. Bere aizpa Martak errebitu zue aldi batez Jesus ona bere etxean: an zego Maria Magdalena ere: baña au beti oiñ sandu gaietan, non ain ongi joan zekion lenbiziko aldian. Marta zebila afanaturik prebenitzen bear zirenak: zeñek erran zio Jesus onari, *Jauna, ezta kuidadorik, utzi bainau ene aizpa gorrek ni bakarrik lanean emen?* Erres ondatu zio, *Marta Marta, afanaturik zabiltza anitz itekoetan. Zierto bat bakarrik da bear dena. Mariak eskojitu du parterik obena, zein etzaikon kenduko.* Nola erran balio, on da zuk iten duzuna; baña ohea iten duena Mariak. Oneki gelditu ze au kontent. Berze aldi batez heri zegolaik beren anaia Lazaro, ta Jesus ona ausente, bi aizpek biali zio errekaite gau, *Jauna, orrek maite duena heri dago.* Jaunak utzi zue il zeien: ta gero joanik arat, ala batak, nola berzeak erran zioite itz gau, *Jauna, on egon baze emen, sure anaia etze ilen.* Eta ala batai nola berzeai errespondatu zioite biztuko zela: eta biztu zue, ta obiatik atrarazi zue sano ta sendo. Baña notagarri da, ezi beiratus, negarrez zeudela aiek, negar in baizue Jesus onak ere, baita señale andia zioten amorearen. Pasiara urbil zegolaik, konbidatu zute bi aizpek, eta jarririk maian ia, Mariak unjitu zitio onak unghendu prezioso bateki, barratu baize atxona etxe guzia barna. Judas traidoreak murmuratu zue galtzeas ainberze balio zuena: obe zela eman pobreei arren balioa. Etzio au pobreen amorez, ez, baizik kodizias

lapurra bekala izateko zer sisatu. Jesus onak orduan ere defendatu zue sanda ziola, *zergatik zauzte onen kontra? ezi ongi egina da egin duena eneki, zergatik pobreak beti izanen tuzie emateko limosna, baña ni ez: alzinatu da au unjitzera ene korputza ortzi baño len.* Zierto diot, *ezi nonnai predika daien ebanjelio gau mundu guzian, erranen ere dela onek egin duena beronen memoriatan.* Eta zierto ikusten da kunpliturik profetia gura.

4. Baña noiz geienik agertu zen S. Magdalenaren amorearen fintasuna Jesus onagana, izan ze pasio-denboran ta ondorean. Akonpañatu zue Ama Birjina penas beterik kalbariora bidean: egon ze an ikusten, aditzen, sentitzen arimaraño tragedia lamentable gura. Zer kongojak, zer agonía, zer pena errua zuen beiratzean Jesus onegia ta ongiegillea ilaraztean manera gartan, nola pondera? nola entenda? Ilik ia Jaun dibinoa jautsi zutelaik gurutzetik paraturik Ama Santisimaren besoetan nola adoratzan zuen! nola apatzen zituen esku oiñetako llagak! nola erregatzen zituen bere negarres berriro! pensa bakotxak bere baitan. Ortzí ondoan ere etzeike atzen, etzeike sosega; erosirik unghendu ta aroma preziosoak joan ze igande goiz goizean obiarat argitu gabe, izitzen etzutela ez ilunak, ez bide luzeak, ez soldadoen guardiak, ez Judioen irak ta errabiak. Amore andiak kentzen du beldurra. Ellegaturik ikusi zue gañeko ar-laua kendurik apart: Itzuli ze laster berria ematera S. Pedrori ta S. Juani: (Joan 20) Ebek joan zire lasterka ikustera: Ikusi zute monumentua utsik, gorputza ez an, baizik mortaxa: ta itzuli zire admirazioz beterik. Baña Magdalena geldi an negar ta negar. Beira monumenturat, ta ez ikusteareki itzuli atzerat, ta segi lamentazioan: Berriz ta berriz beiratus ikusi zitue bi Aingiru eder zeudela obiaren goitiko ta beitiko aldean, zeñek erran zioite, *emastekia, zergatik dago negarrez?* Errespondatu zue, *zergatik eraman baitute ene Jauna, ta ezpaitakit non paratu duten.* Aingiruek seguratu zioite, erresuzitatu zela, eta biztu. Alaere ezin andik aparta: ezin sosega, naiz ikusirik ta aiturik Aingiruak, ikusi arteo Jauna bera. Itzulirik atzeko alderat ikusi zue txutirik Jesus ona, baña etzue ezaundu; baratzezaia uste zue zela. Erraten dio, *emastekia, zergatik zaude negarrez? Zer billatzen duzu?* errespondatu zio, *Jauna, orrek eraman badu, erran bezada non paratu duen, eta nik eramanen dut.* Erraten dio Jesus onak, *Maria.* Ezaundurik orduan arrek dio, *o ene Mastru ona:* ta bazoeie apatzera oñak, lengo gisan: baña Jaunak detenituzue, ta manatu zue joateko abisatzera Apostoluak, nola ikusi zuen, ta igan bear zela Jangoiko Aitagana. S. Mateok dio, (c. 28.) zoezilaik Magkalena ta bere lagunak badean laster kontatzera, agertu zekiotela Jesus bera, ta erran, *agur, Jangoikoak guarda zaiztela.* Eta aiek ellegaturik, ta oñak besarkaturik adora-tu zutela. Orduan berak erran ziotela, *etzazela izan beldurrik: joan ta konta-*



zoze ene anaiei, doazila Galileara, an ikusiko nautela. Onaraño da diona ebanjelioak S. Maria Magdalenas.

5. Baña naiz eztion iago, ezta dudarik, sanda gau egon zela presente beira, igan zelaik Jauna zerura, baitare jautsi zelaik Espiritu sandua betezera bere suas, grazias, ta dono soberanoes, enpleatu zela Jerusalemen egon zen denboran akonpañatzen ta zerbitzatzen Ama Birjina, baitare bisitatzen leku sanduak berritus Jesus onaren memoria pena ta negar amorosoeki. Gero Judio gaixtoek persegitus Kristoren amazale guziak, arrapatu Lazaro, ta bi aizpak, S. Maximino Diszipuloetaik bat, Zelidomo itsu argitu zuena Kristok, Josef Arimatea, Marzela aien neskatoa, ta berze asko Kristio, ta paratu zuzte itsasonzi batean, remorik, belarik, instrumenturik, ta deus gabe, onda zeizen an itsasoan: baña onzia Jangoikoaren probidenzias ellegatu ze Franziaiko Marsellara; eta an beren exenplu ta itz sandueki, eta milagro andieki konbertitu zute jendea Kristoren federa. S. Lazaro gelditu omen ze Marsellako Obispo: S. Marta konbentu batean anitz donzellaeki: baña S. Magdalena erretiratu omen ze eremu batera, an bakarrik Jangoikoareki bizitzeko orazioan. Ogeita amar urtez diote iraundu zuela an, sustentatus kanpoko belarres, ta zeruko erregaloos. Egunoro diote igaten zutela Aingiruek aditzera zeruko laudarioak, musikak, eta kantuak. Ondorean gastigatu zio S. Maximinori, aurki zeuela elizan bakarrik urbilen igandean. Ala egin zue, ta eman zio sandari komekadura, ta errezibiturik debozio sumoareki amoresko desmaio gozoso batean despeitu zue bere arima Jaunaren eskuetan. Honratzen dute zeruan zerukoek, ta lurrean Kristio on guziek alako sanda, zeñiek logra dezaken Jesu Kristoganik edozein grazia. amen.

Garillaren 25.an San Tiago Apostolu andiena

1. San Tiago andiena, Jakobo, ta Diego ere deitzen dena, Española Patronoa, Zebedeoaren ta Maria Salomeren semea, S. Juan Ebanjelariaren anaia zarragokoa, oneki bateo deitu zue Jesu Kristok bere Apostolutako; eta biek istantean guzia utzirik segitu zute gogotik, biak aldatus izenes deitu zitue Boanerges, au da, ortotsaren humeak, eta biak izan zitue maite espezialki estimatuak. Biak S. Pedroreki eraman zitue testigo trasfiguratu zelaik, ta Prinzipe garren alaba ila biztu zelaik, ta pasio-alzinean odolos izerditu zelaik. Amore espeziale gau ezaundurik beren mak, aieki bateo loanik eskatu zio Jesus onari, mana zezan jarri zeizen bi seme gaiek beraren eskuieko aldetik bata, berzea ezkerreko aldetik, bere erreinuan. Jaun dibinoak errespondatu zue, eztakizie zer eskatzen duzen. Badezakeze pasa nik pasatu bear duten tragoa? Aiek animoso erran zute baietz: eta ala kunplitu zute bere denboran. Onaraño dugu ebanjeliotik: gañarakoa Autore grabeetaik.

2. Errezibiturik Espiritu sandua barratu zirelaik Apostoluak mundu ori barna, gure Santiago etorri omen ze Española, predikatu omen zue emen, konbertitu jendeak, ta aietaik egin ta berexi omen zitue zazpi, edo bedratzi Diszipulo. Ellegaturik Zaragozara, zegolaik gau batez orazioan bere Diszipuloeki Ebro ugaldearen alde batean, agertu zekio an Maria Santisima Jesurralenen bizi zena oraño, ekarririk Aingiruen eskus, honratzen ta festejatzentutela zeruko Prinzipe gaiek paraturik inguruan, ta bera arturik erdian, argitzen zela leku guzia zeruko erresplandorees. Ezaundu zue Apostolu sanduak, eta admiraturik faboreas, pensa nola konsolatu ta alegatu bide zen egiaz! Paratu ze auspeska lurrean egiteko erreberenzia. Ama Santisimak amorosa erran omen zio, ene humea Jakobo, leku gau destinatu du zeruetako Jaun guzis poderosoak, konsagra dezozun emen tenplo bat, non ene izenaren tituloaren pean nai du berea izan daien estimatua, emateko liberalkil bere antiguasko miserikordiak, ene interzesioa dela medio, eskatzen baitute fede ta debozio biziareki. Nik guzis poderosoaren nonbrean ofrezitzen diotet ene anparoa, ta fabore anitz, zeren ezi au izan bear da ene tenploa, ta etxea, ene herenzia ta posesio propria. Egia ta promesa gonon señaletan kolumna gau geldituko da emen, ta ontan paraturik ene imajina: inen duzun tenploan iraunen du fedeariki munduaren akaanzaraño. Erran orduko Aingiruek kolokatu zute an



kolumna edo pilare ekarri zutena, ta gañean imajina sagratua. Esker milla milla emanik Jakobok, itzuli zute Aingiruek Maria Santissima Jerusalem: eta sanduak gero fabrikatu zue tenplo edo kapilla manatua. Gero denboreki Kristioek añaditu dute tenplo inguratzen duena, ta ganarakoak. Agitu ze Ama Birjinaren agertze gau Zaragozaan Kristoren *berrogeigarren urtea sartzean*, izotzillaren bigarren gauean: eta Apostoluak atrarik Jusaendik predikaziora zuela laur urte, laur ilabete, ta amar egun: eta Ama Birjinaren bisitas geros bizitu ze Españan ta Jerusalemen urte bat, bi ilabete, ta ogeita irur egun: eta il ze Martxoaren 25.an, Kristoren 41 urtean. Agredens. myst. ciud. p. 3. 1. 7. c. 17. n. 358. Ama Birjinak zitue agertu zelaik Zaragozaan 54 urte: 3 ilabete: ta 24 egun. Eta ala tenplo gau konsagratu zekio anitz urte il baño len: eta onen exenplura egin zekizkio Españan berze anitz tenplo, ta beneratzen zute il baño len. Guzia S. Tiagori zor.

3. Itzuli ze S. Tiago Españatic Jerusalem; andik Efesora bisitatzera bere izeba santissima, ta bere anaia S. Juan: andik itzuli ze berriz Jerusalem martirioaren billa. Konbertitu zitue an Kristoren federa Hermogenes ta Fileto sorgin zirenak Maestru ta Diszipulo. Biok konbenzitu ta argitu zitue S. Tiagok. Demonioek nai zuzte maltratatu, zeren utzi zuten aien tratua; baño Apostoluak ematearequi errelikia bat, ta bere paloa, orreki aisa libratu zire. Alaere diote, ebek biok gero makurtu zirela zuzen-bidetik, nola baizeude ain usatuak gaizkian, eztaien nior ere fia. (Agred. ib. 1. 8. n. 394. ta 395.) Judioek tratatu zute ilarazteas S. Tiago, injeniatus arrapatzeko predikatzen zegon batean. Josias deitu batek lenbizikoak bota zio soka bat lepora; lagundu zio soldadoek, ta eraman zute preso Herodesengana. Onek bereala manatu zue ebakitzeko burua sanduari. Ortako eramaterakoan, konfirmatzen zue oiuz errelijione kristioaren egia, eta egin zue anitz milagro bidean. Eta Josias gura len bota zikziona eskuak, konbertiturik atra omen zekio bidera, ta eskatu zio barkazio: eta Apostoluak gozoso ta amoroso artu zue besoen eratean, ta apatu zue. Ortas asarraturik Judioek arrapatu zute ura ere, ta ilarazi zute sanduareki. Sanduaren gorputza arturik bere Diszipuloek eraman zute Jope deitzen den portura, orai Jafa; an paraturik onzi batean ekarri zute Españara, ta desenbarkatu zute Galizian. Eta egon ze altxaturik anitz urtez: Gero Jangoikoaren inspirazio agerturik pasatu ze Konpostela deitzen den lekura, non den beneratua &.

Orgatik, eta zeren Apostolu andiak argitzuen España len lenik fede Kristioaren argias, eta honratu Ama Birjinak egin zion bisitas Zaragozaan, eta goratu ebetan asko tenplo, obispo, ta sazerdote Kristio anitz in zituenendako, dirudi enpeñatu dela faboratzera Españai berex, eta Españak

eskojitu du bere Patrono, eta sendagalla du gozatzear alako sandu Jesu Kristoren berzergusu, ta Ama Birjinaren elleba denaren patrosinio poderoso: zein manifestatu du asko aldis agertus gerraetan, libratu bere Españolak, garaitu ta urratu Moroak milagrosoki. Famatua da egin zuena D. Ramiro lenbizikoaren denboran, 834 urtean. (Bear da adbertitu, ezi onen Aita Alfonso II Kasto deituaren denboran agertu zela sanduaren Korputza, zeruko argiek argitus an zegon lekuaren gañean, zenen señalearo Obispoak aurkitu zue, ta Erregek honratu zue fabrikatu tenplo gura, nora konkurritzen duten anitz lekuetaik peregrinoak: eta diote, ezi agertu ziren izarren kases deiturik Campus stellae, orai Konpostela gelditu dela.) Abderraman Moroan errege poderosoak eskatzen ez, bai manatzen zue presenta zekizkiola eun donzella kostunbratuak ia presentatzera zenbait urtes trebutu gisa. D. Ramirok etzue nai izan du konsentitu ematean donzella Kristioak Moroai, nola axuriak otsoei, presentatu bai batalla Albeldan Riojan: Pelean egonik egun guzian, nola baizire ainberze Moroak, ta ain guti Kristioak, ebek nekaturik, ta gutiturik arratseko iago, erretiratu zire Klabijo deitzen den oianera. Gauartan lotan agerturik erregeri S. Tiaok erran zio, ni naiz Españako Patrono: ez otsa: biar ene asistenziareki logratuko duzu biktoria. Erregek idatzarririk seguratu zitue guziak sanduaren promesareki: eta austerakoan Moroan kontra ikusi zute alzinean zaldun zaldi eder batean, ta ezpatareki eskuan, ortotsaren seme ausnarria bekala, urratzen moroak montonka, nola balire txinurriak: atzetik segitzen zio Kristioek atzetik degollatu moroak aisa nola erres turdituak, inutilduak, ezinduak: gelditu zire ilik kanpoan iruogitamar milla Moro, infinizio bat despojo, abratsturik soldado Kristioak, ta kendurik betikos petxa infame gura, ta España obligaturik bere Patronoari gogotik ere: ta ezpagindez desobligatu geuren bizimodu in ignoeki, gure fabore litzake beti Apostolu glorioso. Biz bedekatu Jangoikoa eman diguna.

Garillaren 25.an S. Kristobal M. pag. 309.

Garillaren 27.an S. Pantaleon M. pag. 309.



Garillaren 31.an San Ignazio Loiola

1. S. Ignazio jaio ze Gipuzkoako Probinzian jendaki nobletik 1491 urtean. Azi ze Errege Katolikoan Kortean. Kapitan eginik utzi zute Iruñeko Kastelua defentsan: baña jende-faltaz, aisa Franzesek artu zute Kastelua, ta prisionero Ignazio heriturik ezkerreko zangoan Kañoneko bala bateki 1521 urtean. Utzi zute kura zeien bere errian ta bere etxean. Esperanzarik kuratzeko ia guti edo batere etzelaik, aparezitu zekio S. Pedro Apostolua, zeñen bisitareki oberatu ze. Konbaleszenzian eskaturik libru bat dibertitzeko, ekarri ziote sanduen bizien libru bat. Onen leitzean erresolbitu ze sanduen gisara bizitzera. Gau batez jaikirik egitera orazio ofrezitu ze Ama Birjinaren medios bere Semeari soldadotako, segitzeko beraren bandera, ta pasatzeko edozein trabaju beraren amorez. Garai berean aditu ze arroitutik ikaragarri bat, ta ikaratu ze kuartoan, non baizego, adiarazis etsai infernukoak zuen beldurra ark inen zion gerras. Arimaren etsai gaixtoena delaik aragia, alde gontaik ze Sandua beldur: baña apareziturik Ama Birjinak bere semeareki eman zio Kastidadearen donoa. Sendaturik joan ze Monserratera: an egin zue konfesio jenerala: bere tresena preziosoak eman pobre bati, ta bera bestitu ze zakuiduri batez. Andik pasaturik Manresara an kubila batean urte batez orazio ta penitentzia admiragarri kontinokoan bisitatzen zue Jaun dibinoak sobrenaturalki. Aste batez ososoa egon ze elebaturik ikasten Jangoikoaganik gero inen zuena. An konpondu zue exerzizioen libru admirable gura, inspiratus Espiritu Sanduak, erakutsis Maria Santisimak, itzultzeko bekatariak sandu. Andik joan ze peregrinazios biaje luzean bisitatzen Jerusalemgo leku sanduak trabaju ta debozio andiareki. Andik itzulirik asi ze estudiantzen Barzelonan, Alcalan, Salamancan, azkenik Parisen, non irabazi zituen Jangoikoarendako ango estudiante eskojituak, aien erdean S. Franzisko Xabier, inarazis exerzizio espiritualeak. Andik, heri egonez pasatu ze bere errira, ta konbalezitu ondoan Benezia, non ordenatu zen Sazerdote. Presentatu zire bera ta bere lagunak Aita Sanduaren oñetan, zeñek konfirmatu zue Jesusen konpañia fundatu zuena S. Ignaziok 1540 urtean: elejitu zute guziek bera Preposito Jenerale.

2. Ortako Jangoiko Jaunak komunikatu zio santidade ta argitasun admirablea infinizio bat fabore ta erregaloeki. Guziak kontatzea da inposible. ta solamente zenbait bakotx erranentugu eginak irabaziatatik ari-

mak, baita gauza txoil ematen diona plazer Jangoikoai. Zeren korrejitzen zituen nabeganteak itsasonzian tratatu zute gaixtoek uztea desanparaturik Sandua an isla desertu batean: baña urbiltzean arara, biali zue Janoikoak al ze erru bat eraman zuena onzia anik urrun. Gizon baten semea admittitu zue Konpañian ezaundurik Bokazioaren fiña: Gizonarrek orgatik koleran nai zue il Sandua pasatzean karrika batetik; goratu zue besoa puñalareki; ala gelditu zekio gogorturik; alik eta Sanduak barkatu ta orazio egin arteo. S. Franzisko Xabier Parisen konbertitu zuelarik uzteko mundua, español batek nai zue orgatik il Ignazio. Joan ze onen ostatura armaturik, ta eskaleak igaterakoan aditu zue boza ikaragarri bat Zerutik erraten ziola, nora goaie desdixatua? Oneki arriturik gibelatu ze. Ez iltzea Sandu gau asko urtes lenago kontatzen zute Jangoikoaren milagro Doktoreek, eta ongi ezauntzen zutenek.

3. Sanduak bere aldetik itzultzen zio ordaña zezaken guzian. Erretzen zego kontino Jaunaren amorean de manera, ezi beti beraren billa zebila deseatzin, anhelatzen, ansiatzen: eta ala bere dibisa, ta erran komuna, *Jangoikoaren gloria iagotako*. Preso zeukatelaik karzeletan, etzue ajolarik bera libratzeas,

bai berzeren arimak libratzeas galmendeetaik. Jangoikoaren amoreak desterratu zue bere amore propioa. Erran zue bein, ezi eman balekio autara, naiago lukela bizitu galtzeko peligroan zerbitzatus Jangoikoai, ezi ez joan berla gloriara seguro: Baita daiken geiena Jangoikoaren ikusteko zuen antsia gartan. Doktrinak, ta platikak iten zituelaik Roman, usatzen zue bukatzea itz ebeki, *Ama zaze Jangoikoa biotz guzias, arima guzias, entraña guzies*: baña erraten zue sua zeriola aurpegitik ere berotzeko biotzak. Jangoikoaren ofensa bat sollik kentzeagatik artuko zue, ta artzen zue edozein trabaju. Informaturik bein pasatu bear zela gizon bat bide batetik egitera bekatu, an urbil zen balsa izoztu batean sarturik Sanduak neguko gauean esperatu zue, ta ikusi zuelaik asatzen, asi zekio oiuz, nora zoaz miserablea? Jangoikoaren ez ata zure gañean dago ia ia: ni emen nago palaka daien, ta etzai zan kastiga & Arriturik ura alako karidadeas itzuli ze gibela, ta emendatu ze. Emendatu naiez berze batzuk, golpatu zute palokaldis fuerteki utzi arteo iletsirik: goatzean egon ze kuratzen asko egunes, non bisitatu ta sendatu zuen milagrosoki gure Jaunak. Itzuli ze bere porfiara emendatu naiez: erraten ziote adiskideek goar zeila etzekion agi gaizkiago. Errespondatu zue, eta zer gauza nai dut iago ezi iltzea Jangoikoaren ta proximoen amoreagatik? Konbeni baze, emendatzeko norbait, kontatzea bere bekatuak, etze erreparatzen. Zego bein zelos beterik emendatu naiez fraile bat lazoa zena ta Konfesore, baña etze trebe errespetos. Injeniatu zue;



joan ze konfesatzera berareki: eta konfesatzen zitue bere bekatu lebe presentekoak eta lenagokoak ainberze kontriziosko pena ta negarreki, ezi Konfesoarea zego konfuso arriturik ziola berebaitan, onek kulpa gutiago duelarik, pena iago dik nik baño: Bukaturik konfesioa, asi ze ura pizatzan bere estadoa, ta penatzen: Segitu zio erraten ziola, ah Ignazio, konfesio gura etze bere bekatuen, baizik nereen. Enkomenda benaza, emendana dien. Ala zio, ezi arima baten ontzeagatik, pasatuko zituela munduko irri ta eskarnioak.

4. Karidade gau da oraño fiñago, iten delaik kontrarioeki. Beti zego nondik in ongi in ziotenei gaizki berari. Batek agrabiatu zue itsuskiro Parisen, gero heriturik ta anparoik gabe zegolaik, bere bearrez eskribitu zio S. Ignaziori bere estadoa. Leitu zueneko jarri ze bidean oñez amenik artu gabe, ta irur egunez ala barurik pasatu zitue ogeita zorzi lekua ellegatu arteo bere kontrario garren lekura, zeñi zerbitzatu zio ain gogotik nola Kristo berari, eman arteo osasuna. Errelijioso batek gastigatu zio desatento, errearazi bear zituela Konpañiako guziak Perpiñandik Sevillaraño. Errespondatu zue manso humil, bada nik deseaten dut Padre goi ta bereak ikusi guziak erretzen Jangoikoaren amoresko suan. Ala humillatzen zenak kontrarioen fabore, zer etzue eginen nori zion zerbait obligazio? Exenplu andi bat eman zue bere sortuerrian Azeptian. Lenbiziko predikua egin zuelaik infinizio bat jenderen alzinean erran zue, Ni gastea nitzalaik sartu nitzane gisakoeki heredaje batean, ta artugin due fruita kantidaden bat. Jabeak sospetxas berze bati pagarazi zio dañua. Bada jakin bezate guziek, ez ura, baizik ni nitzala gaixtofikatu egin nuena gaixtakeria, ta ez berzea; zein baizego presente an. Pulpitotik eskatu zio barkazio negarrez, eta kaltearen errekonpensatan egin zio guzien alzinean donazio bi heredajeen.

5. Jangoikoaren amoresko su gau zebatzen zue Jangoikoaren komunikazioareki orazioan. Prinzipiotik ia egoten ze artan zazpi ordus. Ordenatuas geros, meza erran ondoan bi ordu komunkiro guziak ematen, bat bentzait, naiz munduko okupazio guzien erlean. Eta bein zeren Aita Sanduak manatu zion joateko beraren palaziora biramonean goizeko seieta, asi ze bi orontakoan prebenitzen mezarako bi ordus; ordu bat meza erratean; berze bat, erran ondoan. Eta ainberzekoa ze debozioaren sua, ezi urzen ze negarretan, itsutzeko peligrareki: eta konsumitzen ze, ta askotan gelditzen ze pausurik ezin emanez. Ala egin ze gizon bat, ez lurrekoa ia, bai zerukoa bekala, guzia Jangoikoan ondaturik, Jangoikostatu. Eta ala epel senti zirenek, nai zutelaik berotu debozioan, aski zute urbiltzea, aski zute beiratzea Sanduari. Guziareki bere bizia ze desprezia-

tzea, ta kastigatzea bere burua, ta padezitu naia. Galdeginik bein zein den *bide lasterrena perfekzioarako*, errespondatu zue, ezi *padezitzea anitz Kristoren amorez; eta nori ere iten dion grazia goi Jaunak, ortan itentiola bateo anitz grazia*. Preso zeukatelarik Salamancan estudiante zutuan, galdeginik pena anitz zuen ala egoteas, errespondatu zue, ain gaitz andia iduri zaize kartzela? Ezta Salamancan ainberze grillo ta katea, nola nai nuken nik Jesu Kristoren amorez. Ama Birjinai Semeas landara zio debozio espeziala: beragana akuditzen zue nola hume onak Ama onagana bere gauza guzietan: ta logratzen zue guzia: Eta fundatu zuen Jesusen Konpañia izan ze Maria Santisimaren anparoareki, zeñeki konbertitu zuen infinizio bat jende fede Kristiora, obetu Kristioak, ta konfunditu herejeak, eta bere humeetan azi Sandu anitz ta andiak, ta S. Franzisko Xabier lenbizikoa.

6. Milagros bekala biziturik iruogei ta borz urte, deiturik beregana Jangoikoak, kontent alegre bake ta errepausa andiareki errezibiturik Elizako ordenamentuak entregatu zue bere espirituaren beraren eskuetan Garillaren azken egunean 1556 urtean. Il ondoan agertu ze glorioso bere deboto zenbaitei. Agertu da petxoia idikirik, eta an eskribiturik urresko letraeki Jesus, zein onetsi zuen biotz guzias. Zeruak publikatu zue beraren gloria milagro klaroes: Infernuak ere bai, zeren ezi il ta berla, konjuratzen zeudelaik Espiritu gaixtoa Trapana Siziliakoan, erran zue arrek, beren enemigoa Ignazio il zela, ta zegola Zeruan errelijioenen fundadore S. Domingo ta S. Franziskoren erlean. Kanoniza tuzue Gregorio XV.ak berze laur Sandu andieki bateo 1622 urtean.



Agustuaren 4.an Santo Domingo Guzman

1. S. Domingo jaio ze Kaleruegan 1170 urtean jendaki nobletik. Jaio baño len izan zire señaileak izanen zenaren. S. Domingo de Silos agertu zekio Amari; abisu eman zio seme izan bear zuenaren sanduas: eta gero idurituko zekio zeramala sabelean txakur bat agoan zeukana tortxa bat itxekirik, argitzeko, ta su emateko mundu guziari. Eta Amabitxiak ikusi zue bataiatu berriaren kopetan izar bat istargitzen zuena. Señale gebeki adiarazten zue Jangoikoak, zertako zeukan destinaturik aur zori onekoa: Bere kondizioak zire ariora adin gartan juizioskoak, humilak, sanduak. Estudiatu zue Palencian, juntatus letraeki birtuteak. Osmako Obispoak egin zue Arzediano bere Elizako; eta ogeitamar urtetan asi ze predikatzen misionek bi urtes. Agitu ze orduan, ezi Errege D.º Alonso VIII.ak ezkondu zuenak lentsago Franziaiko Errege Luis VIIIgarrenareki bere alaba D.a Blanka izan zena S. Luisen Ama, biali zue arara beraren Obispoa, zeñek nai izan zue eraman bereki Sandua. Aurkitu zute Erregina deskonsolaturik, ez izanez humerik erreinuaren herederotako; Sanduak konsejatu zio erreztatzea berak, ta berzei errepartitzea errosarioak, orreki izanen zuela sabeleko fruitu; nola izan baizue ongi ona S. Luis, ta bere anaiak: ezi orduko ia Maria Santisimak artu zue, ta tratatzen zue S. Domingo bere hume maitea ta Benjamina bekala, ta manatu zio predikatze errosarioaren debozioa bere biotzekoa bekala: ta Sanduak predikatu zue.

2. Andik Romara joanik, ta errezibiturik Aita Sanduaren bedeizioa, itzuli ta gelditu ze Franziaiko Tolosa aldean, non goratu ziren Albi deitzen zen erri batetik hereje Albijense deituak, zeñek berze erroreen gañetik publikatzen zuten etzela Ama Birjina gelditu birjin erdi baño len ta erdias geros. Lastimaturik Sandua ikusteas ala deshonoratzen Ama Santisimaren gloria ta sendagalla, trabajatzan zue bere indar guzies desengañatu naies engañaturik zeudenak. Ortako egiten zue anitz penitentzia, orazio, prediku ta dilijenzia, baitare milagro abasto. Bat izan ze, ezi eskribiturik Sanduak Ama Birjinaren fabore, ta herejeek kontra, su andi bat eginik, bota zuzte suan beraren ta herejeen paperak: eta ebenak istantean errautsturik, sanduarenak atra zire oso mellarik gabe, ta paratu zire an urbil zegon pilare baten gañean. Irur aldis bota omen zuzte sura, baño beti atra zire ezin erre zeizkela, mostratus ala Jangoikoak egietafedea. Amar urtes iraundu

zue pasatus trabaju ta peligro andiak arimo andiareki. Kobertitu zitue kasi eun milla hereje fede Katolikora; baño berze anitz gelditurik beren errorean armatu zire Katolikoek kontra, iago ezi eun milla. Konde batek Simon de Monfort deituak, Sanduaren konsejus milla bat ofnesko, ta zorzitan eun zaldiskoeki emanik batalla, urratu, garaitu, ta desegin zitue, iles armas iago ezi ogei milla, berze asko itorik urean. Katolikoek aldetik etzire faltatu, baizik sei edo zazpi, klaro ageri zela Jangoikoaren eskua fabore, ta sanduaren orazioaren indarra, zein bitartean beti egon ze orazioan, ta baliatu zekiote.

3. Baña Sanduak ikusirik arimen galmendea determinatu zue biltzea berze tropa gisa bat, diot, fundatzea Predikarien erreljionea. Ortako eskaida ona izan zue joan bearra Romara bere adiskidea Tolosako Obispoa zelebratzaera Konzilio Lateranense IV. Jenerale andi gura, non bildu ziren iago ezi milla ta berreun Obispo ta Prelado: eta Sanduak konpañiatu zue. Aita Sandua Inozentio III.a zego deteniturik admititzeko erreljione berrikeri Elizan: Baña Jangoikoak ikusiarazis bisione batean ala S. Domingo, nola S. Franzisko sustentatzen soñen gañean Eliza eror zera zegona, inklinatu ze aprobatzaera. Gero ura il ondoan aprobatu zue Honorio III.ak Konsolazio andia sentitu zue oneki Sanduak, izan zuen bisione baten kasos. S. Pedroren Elizan ikusi zue Jesu Kristo Majestade andiareki, ta eskuan irur lanza munduaren kontra; ta nior ez trebe paratzera alzinean. Sollik Ama Birjina belauriko paraturik zegokiola eskatzen miserikordia, ortako presentatzen zitiola bi Sandu, baizire S. Domingo ta S. Franzisko predikatu zutenak penitentzia munduaren erremediotako. Ongi palakatu zela bere Majestadea. Konsolazios beterik atra ze Elizatik S. Domingo, ta bereala aurkiturik karrikan S. Franzisko, sekulan ikusi gabe, ezaundu zire elkar, ta besarkatu zire ziotela, elkarren lagun gara biok, ta Nausi beroren mutil, biek dugu intenzio bera, goazen uniturik batean, ta infernuak ez gaitzala deteni Jaunaren zerbitzuan. Ala izan zire beti, ta bear dute izan Jangoikoaren zerbitzukoek ongi uniturik infernuaren kontra: ezi desunioneak galtzen du Eliza.

4. Jangoikoak berak lagundu zio fundatzean, ta aumentatzean Erreljionea, ezi on guzia eldu da Jangoikoaganik. Bialtzen zitiu lagun gizon Sanduak, nola Fr. Rejinaldo, S. Jazinto, S. Raimundo de Peñafort, S. Pedro M., S. Tomas de Akino, S. Gonzalo Amarante; geroxago S. Bizente Ferrer, S. Antonino Florenziakoa, S. Katalina Sena, ta berze anitz Eskojituak. Joan ze errepartitus mundua barna bere Jangoikoaren langinak; zenbat lan, zenbat fruitu egin zuen munduan, ezta mirik erran dezakinik: Jangoikoak dauka eskribiturik guzia bere libruan. Gerostik alzina guti iraundu



zue munduan mereji zuelaik eterno Bizitzea: baña zeruak ere prisa zue eramateko arat: eta Jaunak erran zio, atoz ene onetsia, atoz gozatzera gozo egiaskoak. Bialirik heritasun bat alzindari bekala, etzezake altxatu kontentu senti zuena joateas. Egin zue Konfesio jenerale bat, despeitu zitue bere humeak, exortatus amatzera ta zerbitzatzera Jangoikoa, errezi-bitu zitue Sakramentuak eskaturik berak anhelu andiareki, ta errespon-datus Elizako orazioetara; eta negarrez zeudelaik berzeak beraren joateas, berak konsolatzen zitue erranez ezi il ondoan iago protxatuko ziotela: eta ala iltze, edo obeki errateko, lokartu ze Jaunaren besotan jaiotzeko bizi obero, zituela berrogei ta ameka urte, Kristoren 1221 urtean eta andik amalaur urte kanonizatu zue Gregorio IX.an, eta Jangoikoak beti konfir-matu milagros. Nork pintatu arima garren ederra, birtute guziak ain per-fekto, nola berze ainberze perla prezioso, humiltasuna ain sines sendo, penitenzia ain lotsagarri kontino, kastidatea ain seguro nola zeruan bale-go, fedea ain bizi, esperanza ain sano zierto, karidatea ain amoroso, pazienza ain fuerte, zeloa, prudenzia, ta gañarakoak ain gorakoak? ezi an goratik eman zekio guzia abasto: Espezialki Ama Birjinak azi zue bere hume bat maite bekala. Sanduak ere honratu zue Ama ona bekala, defen-datu zue beraren Birjinidade perpetua, pregonatu zue Errosarioaren debozioa, eta ala mundu guzian laudarazi zue, ta laudarazten du Ama San-tisima: baña merejitu zio bere Majestadeak, zeren ezi, dionez Aita Garzes benerableak, (carta de favor), milla ta eun aldiz agertu zekio Zerutik amo-rosa; asistitu zio meza erraterakoan, baitare heri zegonean; erregalatu zue bere bularreko esneas, ta alako itz amoroso zoragarries, ezi bein erran omen zio, ain biotzez maite zaitut, Domingo ene humea, ezi munduan banego, eznitzake egonen gustoreki zu gabe. (ib. Visit. 6.) Ikusi ere ze pulpitoan S. Domingoren aldakan erakusten predikatu bear zuena: eta nork daki nola Konsolatzen ta erregalazten zuen bear orduetan? Alako Ama ta unideareki ezta milagro azitzea ain Sandu, nola azi zen & . &

Agustuaren 6. edo 9.an San Justo ta Pastor Martirak

1. Aurren agotik, ta esnean daudenetaik atratzen tuela bere laudario-ak Jangoikoak, erraten zio Dabid erregeak: (ps. 8.) Ala Judioei murmura-tzen zutenei biktoreatzeas mutikoek Jesus ona ramu egunean, erran ziotere bere Majestadeak on beroi, ta añaditu zue, *naiz ebek itxildu, arriek klama-tuko dute*. Zierto da Kristoren errelijione egiaskoaren progu erreala aurrek ere konfesatzea ta firmatzea beren odolareki. Alcalan zire bi anaiatto dei-tzen zirenak justo ta Pastor, ura zazpi, au bedratzi urtetakoa, noiz ta elle-gatu zen arara Daziano Presidentea, erregatu ondoan anitz Ziudade Kris-tioen odoles. Pregonarazi zue manamendu bat sakrifikatzeo guziek Enperadoreen Jangoikoei, ezperen akabarazteko tormentuz. Lotsarriturik zebiltzalaik Kristio larriak altxatus beldurrez, atra zire Kanpora bi muti-kotto animosoak errebestiturik Jangoikoaren espirituas. Zebiltza eskolan, eta errerik Jesusen amoresko suas jaiki, ta botarik paleta ta kartilla, joan zire lasterka Presidentearen etxera oiuz ziotela, Kristio zirela, prest ema-teko bizia Kristoren amorez. Arritu ze Presidentea ikusteas ta aditzeas mutiko gaiek ain txipiak ain baliente arren manamenduaren kontra. Manatu zue azotatzeko aurrak bekala, ustez ori askiko zen lotsarazteko. Zeramazkitelaik ortara, bi axurrittoak elkar animatzen zire pasatzera mar-tirio, eta txipitioenak mintzatu zio lenik berzeari, ene anaia Pastor, etza-zula beldurrik izan eriotzeas ta tormentues, ezi Jangoikoak in nai digunak grazia gau, emanen digu indar bear dugun guzia, erdexteko palma ta korona. Pastorek gozoro errespondatu zio, O ene anaia justo, izenaren konforme mintzatu zara, animatus padezitzera Kristoren amorez, justo baita. Zureki bateo prest nago ematera bizia, igateko Zerura gozatzera gloria eterno gura. Ala zoezi elkarreki mintzatus; eta Ministroek admira-turik eman ziotere kontu Presidenteai pasatzen zenas. Ark pensaturik aien exenpluareki animatuko zirela Kristioak ikusten bazute, manatu zue bereala degolla zezkitela sekretoan. Atra zuzte ziuadetik kanpora, leku deitzen zenera laudagarri: an kendu zizkiote buruak arri baten gañean, zeñetan gelditu zire markaturik milagros oñen ta eskuen kuntzeak, ikus-ten direnak egungo egunean. Kristioek orzi zuzte gorputzto gaiek leku berean; eta bada dionik Kristo bera Zerutik jautsirik aurkitu zela presen-te honratzen ilaria. Agitu omen ze Kristoren 307 urtean. Gero Españaoko gerra, persekuzio, ta turbazio andieki galdu ze aien ta berze askoen



memoria, alik eta Toledoko Arzobispo Asturio deituak Jangoikoaren inspirazioz billatu, ta aurkitu zituen gorputzto Sanduak, eta ainberze debozio artu zioten, ezi utzirik Toledoko Katedra, pasatu zue falta zekion denbora ilartaño beneratzen aur Sandu gaiak. Gero berriz Moroan sartzeareki, pasatu omen zuzte Huescara: gero berriz S. Pio Ven, ta Felipe Men denboran errelikia sandaen zati andi bat itzuli zute Alcalara, ta paratu beren elizan, non mostratzen den arri gura, zeñen gañean degollatu zuzten. Biz laudatua Jangoikoa. amen.

Agustuaren 10.an San Lorenzo Martir

1. Izan ze S. Lorenzo Española Araguako Huescan jaioa. Bere Aita Orenzio, Ama Paziencia deitzen zire, eta Sandu zelebratzen dire. Nola joan zen Romara, eztakigu, bai izan zela an Arzediano; ta Elizako tesoroen Depositario. Ze Baleriano Enperadorearen denbora, zeñen manamendus preso eginik zeramatelaik Aita Sandua Xixto II, S. Lorenzo bidera atrarik asi zekio erraten inbidia sandu bateki, *Nora doaie semea gabe Aita? Nora du prisa bere Ministroa gabe Sazerdote Sandua? Etzue orrek ofratzen beñere Sakrifizioa Ministrorik gabe. Bada zertan egin diot desplazzer nik? Agian progatu nau bear ez bekalakoa? Progu in bez ia Eskojitu ninduen Ministro gauza dena, nori enkomendatu zidan administratzea Jaunaren odol prezioso. Eta orai ez nau naz lagun bere odolaren Sakrifizioan? Fiatu dida geiago dena, ta ezta nitas fiatzen gutiagoo denean?* Pontifize Sanduak errespondatu zio, *Etzaitut uzten nik, ene humea, ta ez errehusatzen zu, baizik ni zarra becala martirio labur senzilloareki bear naiz bukatu: zuk gastea becala izanen duzu pelea erruago, ta triumfoa gloriosoago. Irur egumen buruan segituko nauzu Sazerdotea ni zuk Diakonak. Bitarteo Elizako tesoroan barin bada deus, erreparti zazu pobreei den guzia.*

2. Oneki despeiturik Lorenzo, bereala asi ze ematen Kristio beartsuei zen guzia, nezesiddeen ariora. Sartu ze alargun baten etxean, zein deitzen baize Ziriaka padezitzen zuena burukomiñ fuerte bat, non zeuden altxaturik anitz eliza-gizon ta Kristio. Lenbiziko egin zuena ze urtikitzea aien oñetan, ta garbitzea bere eskus. Bereala esku gaiek paraturik Ziriakaren buruan zeñatus kendu zio buruko miña, ta eman guziei abasto limosna. Andik pasatu ze Narziso deitu baten etxera, non alaber zeuden berze anitz Kristio aflijiturik ikar ikar: Animatu; ta konsolatu zitue, ta guziei oroat garbiturik oñak, eman zio Bista itsu bati Kreszenzio deituari, zeñatus begietan guruzea, ta guziei limosna. Andik joan ze Nepozianoren kubila batera non zeuden altxaturik iruogei ta irur Kristio, ebeki oroat egin zue, ta Sazerdote bat Justino deitua aurkiturik an, errespeto ziola sazerdozioaren gradoari gorago baize berea baño, ezpaize baizik Diakon, bota zekio oñetara apatzeko. Justino ere bota ze apatzeko Lorenzori: ala biak egon zire belauriko porfian nork non apatu oñak. Azkeneko garaitu zue Lorenzok: eta alako obra onetan pasatu zue gaua prebenitus martiriora. Biramonean sentenziaturik S. Sixto zeramatelarik ebakitzera burua, S. Lorenzok lasterka bidean erdetxirik oiuz erraten zio, *Ez nazala utzi ni,*



*o ene Aita Sandua, zeren ezi enpleatutut Elizako ondasunak, orrek manatu beka-
la.*

3. Aiturik Ministroek ondasunen aipakundea, bereala arrapatu zute preso Lorenzo, ta kontu emanik, Enperadore kodiziosoa alegratu ze, eta utzi zue Lorenzo enkargaturik Hipolito deitu bati, eta onek sartu zue karzelean, non berze presoen ertean baize bat deitua Luzilio itsutu zena bere desgraziagatik negar egines. Animatu zitue guziak S. Lorenzok, eta itsuari konsejatu zio, sinetsi zezala Jesu Kristobaitan. Sinetsi ta bataiatu rik errekojratu zue bista. Famaturik milagro gau, asko itsu joan zire karzele-
ra, eta guziak argitu zitue Lorenzok gurutzearen Señaleareki. Beraxturik Karzelzaia Hipolito prodijio gaieki asi ze mintzatzan amoltsu S. Lorenzori, ta eskatzan ager zezkiela tesoro altxatuak. Lorenzok arrezti, o Hipolito, erran zio, sinesten badu Jangoiko guzis poderoso, ta Jesu Kristo bere Seme bakarra baitan, nik ofrezitzen diot mostratzea tesoroak eta Bizitza Sekulakoa. Ala guti guti, errenditu zue sinestera, ta bataiatu ze, ta Jangoikoaren graziaz ikusten zitue bataiatzen zirenen arimak eder garbi alegre agraziatuak. Enperadoreak manatu zue ekartzeko bere prezentiara Lorenzo. Hipolitok eman zio berria: Sanduak alegre errespondatu zio, Goazen, ezi orren eta neretako prestaturik dago glorian korona. Presentatu ondoan galdegin zio Enperadoreak elizako tesoroas: Sanduak astuzia sandu bateki errespondatu zio, ainberze antsia barin bazue Tesoroen, eman zezola irur egunen epea biltzeko, ta ekarriko zitiola. Kontent Enperadoreak utzi zue Hipolitoren kuidadora, etzekielaik kristiatu zela au: eta ala aisa biak zeizke eskapa: baña naiago zute il. O Jesusen amore, zein fuertea zaren!

4. Sanduak irur egun gaietan bildu zitue munduko pobre, malder, estropeatu, maingi, itsu, ta alako al zuzken guziak, ta paratu zitue biali zitioten karroetan tesoroen eramateko; ellegaturik palaziora erran zio Enperadoreai, ona non tuen elizako tesoroak: eben eskus seguratutugu an goiti Zeruan. Atrarik ikustera arrek ikusi zuelaik malderketa, Jangoikoak daki zer kolera, zer errabia artu zuen Lorenzoren kontra, niri onek eman bear dida alako txaskoa, eta egin alako burla? Bereala bereala biluxi, ta zatika onen aragi guziak burriñazko aztaparreki, eta ekarri ona ura tormentatzeko diren instrumentu guziak, entenda dezan pasatu beartuela guziak, ezpadida obeditzen. Ain sereno zego alaere Lorenzo, eta ala erran zio, gizon desbenturatua, uste du sarrarazi niri beldurra bere tormentueki? Bada nai dut entenda dezan, orrendako direla tormentu, ta enetako erregalo: mai gontan deseatu dut beti bazkaltzea, ta asetzea manjare gisa ebetas. Erran zio Enperadoreak, Lorenzo, ea entregazkik tesoro altxa-

tuak, ta adora idoloak; ez pensa diru gaieki niork libratuko auela tormen-
tuetaik. Errespondatu zio sereno Sanduak, ene tesoro ta diru libratuko nautenak ni dire Jangoikoaren piedadea ta miserikordia. Paratu zute airean dilindan, azotatu zute bergaeki, erre zizkiote saietsak burriñazko plantxa goritueki: suturik Tiranoa, sereno Sandua zego alde bat irri egiten arren furias, berze alde Jangoikoai ematen graziak, o ene Jaun ona Jesu Kristo, miserikordia nitas, ezpaitut ukatu, baizik konfesatu orren Majestadea. Zenbatenas iago pazienza, koraje, ta gozo mostratzen zuen Sanduak, iago errabiatzen ze koleras Tiranoa, ustez Jangoikoaren grazia zena zen deabruen arte gaixtoa: I sorgina aiz, ta Sorginderiaz irri iten duk ene tormentues. Bada Jjuramentu iten diat, edo utzi bear dukela Kristoren fedea, edo pasatu ainberze tormentu nolakoak eztuen niork oraño pasatu. Errespondatu zio seguridade ta koraje andiareki, orren tormentuak akabatuko dire, ta nik eztiotet beldurrik Jesu Kristoren izenean. Egin bez nai duena, ta eztaiel neka. Furioso arrek azotarazi zue plomuzko azoteeki al guzia erru, iotzeko aragi guziak. Orazio egin zue bitartean S. Lorenzok Jangoikoai errezibi zezan bere arima. Aditu ze Boza bat Zerutik ziola, anitz iago ere pasatu bear zuela. Boza gau aditu zute Ministroek ta Juezak ere, ta erran zue oius, eztuzie ikusten, nola Demonioek faboratzen dioten Sakrilegogoni, ezpaitu ajolarik ez Jangoikoes, ez zuen Prinzipees, ezeta ere tormentu errues? Eta itsuturik iras edarazi zue katastan deskoiuntatzeko, ta txarrantxatzeko instrumentu tzorrotzes. Baña Martir gloriosoak aurpegi alegre ta biotz amoroso konfiatuareki zio, biz bedeikatua ene Jauna, ta ene Jesu Kristoren Aita, iten baitu ainberze miserikordia mereji eztuenareki. Bigu, Jauna, bere grazia, ezaun dezaten presente daudenek, eztiuela desanparatzen bereak, baizik konsolatzen bear orduan. Biali zue Jangoikoak Aingeru bat alibia zezan Sandua, ta txukatu oial bateki izerdia ta llagetaik zerion odola. An zegon soldado batek Roman deituak ikusi zue Aingeru gura, eta argiturik Zerutik eskatu zue bataiatzea; bataiatu ta iltze Martir.

5. Etze kontent Tiranoa tormentatuas ainberze aldiz; determinatu zue gau bat ososoa pasatzea tormentatzen berriro asko maneras. Ortako ekarrarazi zitue zegon lekura martirizatzeko instrumentu ikaragarri usatzen ziren guziak: Eta jarririk bere tribunalean galdegin zio, zer jendakitakoa zen. Ni naiz, errespondatu zio, Española, txipizututik Roman azia, bataiatua, ta erakutsia lege sanduan ta dibinoan. Dibinoa, dio ark, deitzen duk legea erakusten dikena burlatzen gure Jangoikoes ta tormentues? Sanduak, Ni Jesu Kristoren izenean ez naiz beldur tormentues. Tiranoak, bada ezpaduk sakrifikatu nai gure Jangoikoeri, gau guziau pasatu bear diat



ire atormentatzen. Errespondatu zio Lorenzok, beras gau gau enetako gau ona izanen da, gau argia ta alegrea ene Jangoikoareki bateo. Azkenik Tirano kruek prebeniarazi zue burriñasko goatze gisa bat, parrilla edo trilla bat jasi zezakena gorputza, eta pean garaturik brasak eta su lentoa, gañean Sankua erre pixpil zezaten Espazioreki gutibana. Berdugoek nzute guzia, manatu bekalak: Prestaturik sua, ta trillak: biluxirik Sandua, guzia llagas betea, etzin zute añean piedaderik gabe. Zego Tiranoa begiak armaturik beira, turbioturik iras, agotik abuña zeriola: Berdugoak dilijent tenaza, ta burriñaeki zirikatzen sua: Presente zeudenak arriturik beiratzas: Aingiruak Zeruko leioetaik beira alako ikusgarria: eta Sandua, pazienza admirableareki enkomendatzen Jangoikoai, errezibi zezan sakrifizio gura atxon onetan: eta Jangoikoa zegokio asistitzen, triunfatzeko infernuagatik. Bitarteo Sanduak bere trillatik beiratus Tiranoai, erran zio, errerik dago ia alderdi bat, itzuli, eta asi daike jaten; ezi elizako tesoro naituenak ezitu arrapatuko, ezi pobreen eskus seguratu dire Zeruan. O Lorenzo glorioso! O Kristoren Soldado Baliante garaitu eztaikena! Da agian ori arriskoa sentidorik gabekoa? ez, ezi urin ta izerdi darionak suaren erruas mostratzen du sentitzen duela; baña Jesusen ganako amoreak sufriarazten dio guzia: barneko suak garaitzen du kanpoko sua: eta gloriaren esperanza gozoareki suabetzen zaizkio sugarrak. Ordua ellegatu zelaik itzuli ze Jaunagana, graziak ematentiot, Jauna, zeren sartzen nauen bere gloriako atariak barna. Erran ta despeitu zue arima, koronatzeko glorias Zeruan. Biramonean Hipolito ta Justino garrek ortzi zute gorputz Sandua anitz Kristioen Konpañian, barutus irur egun, ta gauak orazioan; ta irur egunen buruan zebraturik Meza Justinok komekatu zitue ta despeitu guziak. Orai ez bekalako modua da au zebratzeko ilaria. Martirio famatu gau agitu ze Agustuairen 10.an: Kristoren 261 urtean 257.an: Baleriano Enperadorearen zazpigarrenean. Sanduek asi ta ezakite akabatzen S. Lorenzoren laudarioetan. S. Leonek dio ezi zenbat honratu zen Jerusalem S. Estebanen martirioareki, ainberze honratu dela Roma S. Lorenzo-reki. Eta zenbat España bere patria? Baña Ehza guzia honratu du anitz S. Lorenzok: eta Elizak ere honratzen du bera Bijilia, baru, oktobareki festa eginez &

Agustuaren 11.an Santa Susana Birjin ta Martir

1. Jangoikoaren Espirituak inspiratzen du non ere duen plazer, dio Kristok, dela gizonki, dela emasteki, abrats edo pobre, Sanduen edo gaixtoen alde. S. Susana izan ze alaba Gabinoren, eta au anaia Kaio Pontifize sumoaren; ta biok aide urbilak Diokleziano Enperadore gaixtofikatuaren. Onek artu zue humetako, Enperadore bere ondoreko ta laguntako Maximiano: au ezkondu zue bere alaba bateki, zein iltzeareki andik uti, nai zue ezkondu Susanareki, baize txoil eder noble, prudenta, bear bekalakoa alde guzietaik: ta guzien gañetik ze Kristioa ta Sanda: baña on etzekie Dioklezianok Kristioen kontrario madarikatuak. Enkargatu zue iteko gontas bere lengusu bat deitua hau dio: Onek mintzatu zio donzellaren Aitari, baize Gabino, ponderatus fortunaren andia: Onek berriz bere Anaiari, baize Pontifize sumoa: Eta biek Aitak eta Osabak mintzatu zio te Susanari, jakiteko onen borondatea. Donzella Sandak estimatus Kristoren fedea ta Birjin mantenitzea iago ezi munduko Enperak.ora izatea, errespondatu zue animosa, etzela nai ezkondu Maximianoreki, zeren baize infel ura, ezeta berze nioreki munduan, zeren bera zegon emanik Kristori bizitzeko Birjin iltartaño; eta uste zuela on izanen zela eskaida, iltzeko Martir. Biek laudatu zio te proposito artu zuena, ta konsejatu zio te perseberanzia, ta ortako baru, obra on, ta orazio anitz egitea prestatzeko martiriora, baita grazia Jangoikoak eman bear duena.

2. Irur egunen buruan joan ze hau dio Mandataria Gabinoren etxera, ta utzirik lagunak atarian, sartu ze bakarrik, ta ikusirik Susana, orduko usanzaren ariora nai zio eman apa: Erretiratu ze Sanda ziola, sekula bere bizian etzuela utzi niore aur egia, ta gutiago utziko ziola arri, baize Infie-la, ta zikindua Jangoiko falsuen Sakrifizioeki. Ta au ta berze asko gauza erran zio Jangoikoaren Espiritu ta graziareki alako maneran, ezi konbertitu ze hau dio fede Kristiora, bera, bere Andrea, ta bere humeak; eta egi-tera asko limosna ta obra on, espezialki Kristio preso zeudenei, eskatus barkazio. Andik zenbait egun biali zue Enperadoreak bere mutil prinzipale bat deitua Maximo Klaudiogana xakin naiez bodaren berri: Etorririk Sandaren, etxera oneki desengañatu ze, etzegola Susana ezkontzeko: eta ainberze erran zio Sandak, ezi ura ere konbertiturik bataiatu ze. Etze faltatu Enbustero bat Enperadoreari eman ziona Kontu pasatzen zenas. Asarratu ze txoil, eta preso inarazi guziak, Pontifizeas landara, utzirik Gabino ta bere alaba karzelean, gañarakoak eramanarazi zitue iltzeko, ta



il zuzte ta erre zuzte Martir gloriosoak: Guziau izan ze S. Susanaren orazio ta merejimentuen fruitu ona Jangoikoaren grazias landara.

3. Enperadoreak manatu zue ekartzeko bere palaziora Susana, ta entregatzeko bere Andre Enperatrizari, onek konberti zezan ezkontzera Maximianoreki. Enperatriza deitzen baize Serena, senarraren ixilkias ze Kristioa sekretoan, eta manifestatu ze Susanareki, agiz ongi errezibitu, konsolatu, ta aimatu zue segitzera bere propositoa, ta despreziatzera munduko Banidadeak eta gustoak, ez ajolarik egitera Enperadorearen meatxues, ez eriotzeas ere, logratzeagatik Jangoikoaren grazia ta gloria betikos. Idujizue asko egunes bereki, eta biak Jangoikoareki enpleatzen zire orazioan, ezi ura ere egin omen ze Sanda. Egunen buruan galdegin zio Enperadoreak Enperatrizari, ia erresolbitu zen Susana artzera senar Maximiano. Enperatrizak errespondatu zio, etzegola artako, baña etzela inport, izanen zirela ranko ura bezain nobleak bere semearen Esposatako: utzi zezala geld. Oneki manatu zue arrek bazoakela bere etxera. Baña Maximianok arturik agrabiotako ez nai izatea ezkondu berareki, nai izan zue bortxatu. Ezaundu zue Susanak bere peligroa; ta bere kuartoan paraturik belauriko zego negar ta negar Jangoikoai eskatzen guarda zezan libre gorputz ta ariman. Gau gartan etorri ze Maximiano intenzio gaixtos, ta sarturik kuartoan ikusi zue Sanda inguraturik Zeruko argitasunes; eta lotsarriturik itzuli ze atzerat, pensatus zela arte gaixtos. Kontu eman zio Enperadoreai agituas: onek biali zue Kurzio deitu bat, ikustera, egia zen kontatu ziona, edo imajinazioen bat. Joan ze Kurzio, ta itzuli ze iago ere lotsaturik berzea baño.

4. Azkenean Enperadoreak entendaturik ezi Susanak, Kristio izanez, etzuela nai ezkondu bere semeareki, lazatu zue freno bere irari, ta manatu zio bere gisako Mazedonio bati, obliga zezala Susana sakrifikatuzera aien Jangoikoei, ezperen, ilarazi. Joan ze ura, ta egin zio milla loxentxu, engañatzeko. Paratu zio alzinean aien Jangoiko-itxura bat adora zezan: baña Sandak egiteareki orazio Jangoiko egiaskoari, desaparezitu ze andik itxura gura: ta gero aurkitu ze plazan botarik loiean. Kontu emanik Enperadoreai guzietas, arren ordes ebaki ziote burua Sandari bere etxean: eta eriotze goneki iltze Birjin ta Martir gloriosa. Serena Enperatrizak xakin zuelaik joan ta bere esku propioes mortaxatu zue ta orzi zue honratuki berze asko Sanduen zemeterioan: eta oial bat enpaturik arren odolaz guardatu zue errelikia preziosoa zillarresko kaja batean. Eta bere Osaba Kaio Aita Sanduak zebratu zue aniz Meza iltzen etxe gartan Sandaren honratan. Agitu ze martirioa 295 urtean.

Agust.en 12.an S. Klara Asiskoa. pag. 311.

Agustuaren 14.an San Estanislao Kostka

1. Persona guzietan da on, ta ongi iduri duena Birtutea ta santidadea, baña eztakit nola, gorputz gaste ederrean ederrago dirudi dela, ala nola kontxa urreskoan perla preziosoa, zion bekala bere Eurialos Birjiliok, *gratior et pulcro veniens in corpore virtus*. Sandu gaste eder bat izan ze S. Estanislao Kostka Poloniakoa. Jaio ze 1550 urtean jendaki ilustretik. Azirik ongi biali zute amirur urtetan Austriako Bienara estudiatzera bere anaia Paulo zarragoaren konpañian. Laster eman ze ezauntzera bere injenio ta birtutearen medios, eta guziendako ze amablea. Goizoro estudiora baño len joaten ze oraziora tenploan, ta estudioas geros orroat arratsaldeoro. Iges beti lagun gaixtoetaik tratatzen zue humil onttoeki: baña itz guti zue, modestia bat alegrea, ta alegria bat modestoa, ta konpasiione beartsues albiatus zezakenas. Len lena jaikitzen ze goizoro, ta meza enzun egunoro, jaietan zezakzen guziak. Etzue banidade errestorik bestitzean, baizik senzill llano. estudioko exerzizio in bear zituenak guziak bear zire izan Ama Birjinaren laudariotan, zeñi zion kariño ta debozio espeziala: ta etzekio pasatzen egunik errezatu gabe errosarioa. Injeniatzenzue nola egin penitencia barus, disziplinas, mortifikazio altxaketan. Anaiak akar iten zio ikustetas ain erretiratu geldi humil: baña ajola guti zue ortas, kuakratu naiez sollik Jangoikoai.

2. Jangoikoak inspiratu zio erretiratzea erreligionera, eta egin zue Boto sartzeko bere denboran. Bitarteo erori ze heritasun grabean: eta prinzipioan agertu zekio Demonioa tzakur beltz andi baten idurian; irur aldiz jokatu zekio lepora nola ito naiez: baña zeñatus, Jangoikoai ta Ama Birjinai enkomendatus libratu ze. Iltzentzela etsitu zute Medikuek: berak iltzeas etzue ainberze pena, nola komekatu nai ta etxakinez nola, zeren ostatuko Nausia baize hereje. Enkomendatu ze gogotik Jangoikoai, Ama Birjinai, ta S. Barbarai: eta Jangoikoaren graziaz gau batez idatzarrik zego-laik ikusi zue Sanda gau eldu zela akonpañaturik Aingerues, zeñen Eskue-taik errezibitu zue Sakramentua. Fabore gonon ondorean errezibitu zue berze bat ez gutiago miragarria, zeren ezi agertu zekio Ama Birjina bere Semeareki besotan: mintzatu zekio amorosa, orai sendatu ta sartzaita ene Jesusen Konpañian. Utzi zio aur dibinoa erregalo: ta sendaturik eman zue prisa kunplitzera Botoa. Baña entendaturik, etzutela admitituko Biena Aitaren lizenzia gabe, ta logratzeko au esperanzarik ez, ta ezna ere etxi-



den ainberze denboras, atxekia arturik tratatzen zuela gaizki anaiak, ta berai erranik obligatzen zue joatera arren konpañiatik, arrek errateareki, bazoakela noranai, Sanduttoa konfesa-komekaturik, Jangoikoai ta bere Ama Birjinai enkomentaturik oiz batez pobre gisa jaintsirik atra ze Bienatik oñez, ta joan ze. Anaiak billaturik tenplo ta konbentuetan etzuelarik aurkitu, sentitu zue laguneki artu zuen bide gartas. Erdetxi zute kanpo agerri batean, ta Jangoikoak nai ta etzute ezaundu: eta zaldiak naiz sendo izanik ezin igiarazi zuzte aratago, eta ala beren bearrez itzuli zire atzerat; eta Sanduttoak segitu zue bere bideas. Sartu ze goiz batez tenplo batean komekatzeko antsiareki, baña jakinik herejeena zela, gelditu ze afljiturik. Baña Jaun piadosoak Aita onak bekala konsolatu zue bialis Aingeru eder bat eman ziona komunionea miragarriri.

3. Anitz bide pasaturik, gero ere Roman admititu zue S. Franzisko Borjak, amazazpi urte beterik adines. Etzeike ase kontentus emanek graziak Jangoikoai. Ia iduri zekio zegola mundutik kanpoan, ia etzuela buratsorik emen, baizik Jangoikoa Aita, ta Ama Birjina Ama. Bere anai Nobizioak iduri zekizkio Aingiruak, eta bera indigno egoteko aien erlean. Ain humila ze! Baña orrengatik berorrengatik iago zue maite Jangoikoak, konsolatzen ta erregalatzen zue ariman: zeñetan itxeki ze ainberzeko amorearen sua Janjoikoagana, ezi desmaiatzen ze askotan langiadura amoroso suabe bateki, eta ze preziso oial busti otzeki freskatzea bularrak ez sofokatzekos. Bada zer errain dugu Ama Birjinai zion amore fiñ biotzekoas? Pensatzeas solamente, oroitzeas solamente gozatzen ze, ta erregalatzen gozoro. Salutatzan zue hume amanteak bekala maiz abemarias; eta erraten zio maiz, Ama nerea, o ene Ama dulzissima. Eta guziek jakinik zuen debozio gau, plazer egiteagatik ere, atratzen zute konbersazioa Ama Birjinaren laudarioen gain. Eta deseaten zue, ta logratu zue, ta erran zue ilentzela Ama Birjinaren Asunzioaren Bezperan. S. Lorenzoren Bezperan egin zue penitencia publikoa, konfesatus guzien alzinean bere faltak, guziei apatus oñak, artus bere sustentua maipean, gero zerbitzatus sukaldean: ango suareki pensatus Sanduaren martirioan berotu ze ainberze amoresko suan, ezi desmaiatu ze an berean. Orduko ia eskribiturik zeuka bere Ama Santisimari karta bat eskatus eraman zezala bere eguneko. Joan ze aumentatus heritasuna; errezibitu zitue elizako ordenamentuak: eta ellegaturik egun deseatu gura, eskatu zue para zezatela lurrean: paraturik koltxilla baten gañean egon ze berra Zerurat, itzik atra gabe. Galdegin zio Superioreak ia zegon konforme Jangoikoaren borondatean: Errespondatu zue alegre, *prest dago ene biotza, Jauna, prest dago ene biotza*. Anitz orazio ta afektoen ondorean agertu zekio Ama Santissima, zeñeki erregalatu zen

gozoro: ta andik guti entregatu zio bere arima, adinaren emezorzi urtetaik emeretzitara. Mostratu ze arimaren gloria gorputzaren eder admirablean: baitare milagro segitu zirenetan. Aita sandu Klemente VIII.ak deklaratu zue Beato 1602.an.



Agustuaren 16.an San Jazinto Dominikanoa

1. S. Jazinto Polakoa, edo Poloniakoa izan ze S. Domingoren erreligjoneko humea, ta honra. estudio andiaren kasos eginik Teologo famatua, ta Krakobiako eliza nausian Kalonje, bere Osaba Obispoak eraman zue bereki Romara, noiz ta S. Domingo zegon an admiratzen mundua bere bizimodu, prediku, ta milagroeki. Arren hume espirituale zenbait nai zue Obispoak eraman Poloniara argitzeko ango jendeei. Ezin eman zio S. Domingok, ez izanes aski oraño, alik eta Jangoikoak mogitu zuen S. Jazinto ta Sere lagun zenbait arzera habitu bera. Habituareki jaintsi ze S. Jazinto bere Aita garren Espirituas. Birjin garbi gorputz ta ariman, beratx, humil, amoltsu, benigno, betea Jangoikoaren ta proximoen amores. Agitz emana penitenziara, ta kontino orazioan. Okupatunk ongi denbora beti, ta egunas ezin nai adiña zebatu orazioan, ta gauaren geiena enpleatzen zue ortan, kendus loari, zein artzen zue labor ta bear utses erreklinaturik lurrean. Ederki ala Jangoikostaturik Jazinto biali zue S. Domingok Poloniara bere bedeizioareki. Ellegatus bekala zoei eraikis Jangoikoaren azia, erregatus zerutik bere graziareki Jangoikoak de manera, ezi urte baten barnean anitz konbertitu, ta berze anitz egin zire Relijioso. Bere errian ikusi zutelarik Kalonje izana ain Sandu eman ziote Eliza prinzipale bat Konbentutako, zein bete zue erreljiosoes Jangoikoaren gloriatan.

2. Zerk ere geienik fortunatu zuen Sandu gau ze Ama Birjinai zion debozioa, ta berari Ama Birjinak zion amorea, ta ematen zion faborea. Bein zegolaik Asunzione bezperan kontenplatzen beraren gloria, triunfoa, ta korona, agertu zekio Erregina gloriosa, ta erran zio amorosa, Goza zaite ene humea jazinto, ezi zure orazioek ematen digute plazer ene Semeari, ta niri; Zaude zierto erdetxiko duzula ene medios nauzun guzia. Gelditu ze oneki Sandua konsolaturik ta konfiaturik ezin iagos. Edatus bere erreljionea erreinu erreinu, bera sartu ze Rusian, non Txioabia deitzen zen Ziudadean fundatu zue konbentu andi bat, ta egin zue fruitu infinizio bat asko milagroen Birtutez: eta bateo pasatu zue anitz nekepena, ta persekuzione egietafedeagatik. An zegolaik, ellegatu zire Tartaroak leku gartara: eta meza bukaturik egun batez aditu zue urbildu zirela muralletara: ta errebestiturik zegon bekala, manaturik segi zezatela, artu zue Sosegu ta Erreberenziareki aldareko sakramentua joateko andik bere fraileeki: pasatzerakoan eliza barna, imajina bat Ama birjinarena agitz

eder andia ta pizua alabastros egina mintzatu zekio, ene humea jazinto, nola uzten nauzu ni emen? Erman nazazu zeureki, ta ez utzi ultraja nazaten emen ene etsaiek. Errespondatu zue, nola da posible eramatea nik imajina goi, ain pizu delarik? Arzazu, erran zio, ezi ene semeak itzuliko dizu arin, ermateko aisa. Orduan Sanduak artu zue, pizatzen etzuela iago ezi kana batek, ta arreki esku batean, ta berzean Sakramentuareki atra ze Ziudadetik, ta eraman zue Krakobiara, non itzuli zen ain pizu nola len. An pasatu zue bere bizi gañarakoa Sandukiro.

3. Beterik ia urtes ta birtutes, ta ongi egines, eta ikusi naiez Jangoikoa ta bere Ama Santisima bere glorian eskatu zue ta logratu zue eraman zezan Asunzione-egunean. Orzi zute dolamen andiareki; ta ortzi baño len ekarri zute kaballero bat lentxago bota zuena zaldiak eta il: ta ilak ila ukitzeareki biztu ze ura derepente, sano ta sendo. Il omen ze Sandu gau adinaren 74 urtean: eta Kristoren 1257 urtean. Milagroak dire ezin konta ala egintuenak, ez solamente personaeki, baitare gizonaren zerbitzuko diren animale andi ta txipieki. Bida kontatzen dire notagarriak: nola bein zoeielarik predikatzeria Bisogradora, ellegatu nai ta ezin ugalde andi baten kasos, ez izanes barkorik, kendu zen bere mantoa, ta onen gañean pasatu zuen ugaldea bere laguneki busti gabe. Berze bein zeramalaik Sakramentua ta Ama Birjinaren imajina, nola erran dugun, ellegaturik Boristenes deitzen den ugalde andi gartara, botarik bedeizioa ugaldeari, pasatu zuten oñez berak ta bere lagun guziek busti gabe ez zapeten zolak ere: eta milagroaren memoriatako gelditu omen zire ugalde gañean Sanduaren oiñkuntzeak estanpaturik, ta egungo egunean ikusten omen dire, ta baster batetik berzeraño ageri omen da ala nola bide senda iduri bat urean; baita gauza admiragarria, Jangoikoak sollik in dezakena, zeñek ainberze nai zuen Sandua.



Agustuaren 17.an Santa Kara de Monte Falko

1. Aurtto sandaetan, nola erakusten baitiote sollik Jangoikoak, da ageri klaro nola den Jangoikoaren gustoa. Buratso Birtuosoen alaba izan ze S. Klara de Monte Falko. Laur urtetako adinean Jesus onaren amorez egoten ze beraren Imajinaren alzinean belauriko orazio egiten: eta etzei-kelaik egon nai adiña etxean ortan, ikusi gabe etxekoek, eskapatzen ze elizara, non zegon espazioreki. Ori ze bere afizione ta dibersio guzia adin gartan. Zue aizpa bat adin iagotakoa erreljiosa, zeñeki nai luke bizi aurttoak erretiraturik: Demonioa agertzen zekio aizparen idurian meatxatus ilen zuela iten baze erreljiosa: baña Jangoikoaren argis ezaundurik etsaiaren malizia, sartu ze konbentu gartan zelarik sei urtetakoa. Laster ezaundu ze Jangoikoaren eskua kidatzen zuena. Gorputzaren sustentua ogi guti bat idor fruita zerbaiteki: arimarenas zue kuido guzia, beti egon naiak bere Jaunareki: Asi zekio agertzen bere Majestadea bere Ama Santisimaren besotan erregalatus aur ditzosa. Zazpi urtetaik alzina eman ze penitziara txoil maltratatus bere gorputzto inozentea: lo guti, ta on lur utsean, edo ezin berzeas, agotz batzuk paraturik pean. Egunas landara gau geiena orazio mentalean ia belauriko, ia txutirik ta edaturik besoak guruzearen forman, ia auspeska paraturik kopeta lurrean. Honestidadeas zue ainberze dilijenzia, ezi admiratzeko ze, ta zio, *guardatzeko*, preziso baliz, *pasa lezazkela infèrnuko penak bizi guzian gogotik ere*. Beñere etzitue goratzen begiak gizonkiaren aurpegira beiratzeko, eta preziso zelarik mintzatzea, egoten ze estalirik aurpegia, ta lurrera beira. Eta hein bere anaia erreljioso batek erran ziolaik, zergatik mintzatzen zion ala; errespondatu zio, mintzatzeko ezta beiratu bearrik, aski da mia.

2. Jesus ona ze bere amore guzia, ta agertzen zekio axuri eder baten idurian lastimarazis biotza beiratus axuri onegi gura nola sakrifikatu zen bere pasio doloreskoan, ta guruzeko eriotzean gure salbazioagatik. Kon-siderazio gonon gisoareki bere trabaju, neke-pena guziak dultzatzen zekizkio. Jaunaren ofensa-idurietaik ere ain ze beldur, ezi guardatzen ze iago ezi eriotzetik: eta kontino iten zue nigar ikustas ofenditurik bere Majestadea; eta zio, *ila zela arima etzuena sentitzen displazer Jangoikoai ematen dena*. Guziei konsejatzen zioite pensatzea esus onaren pasioan, ta beren trabajuetan besarkatzea guruzifikatuareki. Bein zegolaik bera kontenplaten Jesus onaren bularreko llagan, agertu zekio guruzearreki soñean, ta

erran zio, ene alaba Klara, ia aurkitu dut non frinkatu guruze gau, baita zure biotzean: bada il bear zara guruze gontan, nai bauzu izan ene alaba ta heredera. Ordu gartaik gelditu zekio oñaze erru bat petxoan, ta inprimiturik biotzean Jesus guruzifikatuaren insigniak, aurkitu zirenak an bera il ondoan. Permittitu zio Jaun dibinoak iago merejimentutako anitz denboras anitz trabaju ta lotsamentu Deabruenganik gau ta egun. Ellegatus plazoa, prebenitu ze sakramentueki, ta seguratu zio Jaunak gloria izan bear zuena. Exklamatzue, o ene Jesus ona, zein andia den premio ematen duena gure trabaju ain gutiengatik! Anitz da, anitz anitz premio paraisoa enetako. Uste zutelaik il zela eraman zute Elizara ortzitzeko: baña an itzulirik berebaitan despeitu zitue joateko gloriara. Iltze 33 urtetan, 1299 urtean: edo geroxago. Aurkitu ze ilas geros, biotzean Kristo guruzifikatua, itzeak, lanza, aranzeak, azoteak &. Aurkitu ere zire irur bolatto txoil berdinak figuran, kolorean, pizatus balanzan, oroat piztzen zue bata, nola biek & Trintateren misterioaren iduritako. Biz laudatua Jangoikoa, ala erregalaten duena &.



Agustuaren 19.an San Luis Tolosako Obispoa

1. S. Luis Tolosako Obispo egina bere gogoaren bortxaz, ta S. Franziskoren fraile Uila bere borondatez, izan ze Karlos II.en Siziliako erregeren seme lenbizikoa, ta koronaren heredero izan bear zena. Egon ze bere Aitaren fiadore bekala preso bere bi anaiaeki Barzelonan Araguako errege Pedro III.en eskupean. Azi ze an ongi birtutean, ta jakindean. Ze agitz galanta ariman bekala, gorputzean ere, baña bateo txoil garbi honestoa, ta erreparatua beiratzean, mintzatzean, erretiratzean. Goartzen ze tratatzetik emasteki-jendea, nola pikea, lekeda, ta izurria. Atra zelarik Barzelonako presondegitik, bere Amak Napolesko Erreginak nai zue besaratu: erretiratu ze Seme Sandua etzela utziko ukitzeraz: admiraturik Amak erran zio, bada ene semea, ez naiz ni zure Ama, baitezaket egin au seguriki? Errespondatu zio mutil honestoak, badakit nik dela on ene Ama, baña badaki berorrek dela emastekia, ta eztela konbeni besarkatzea Jangoikoaren sierboak. Ala ezta aurkitzen beiratu ere zuela sekula bere bizian aurgira emastekiari. Bere exenplu onareki apegatu ziote anitz Jaun gastei, ta bere zerbitzukoek kastidadearen amorea; zenen señaletan iltzerakoan diote atra zela bere agotik arrosa bat gorri ederra. Berari apegatu zekio zuen komunika ziotik Jangoikoareki orazioan, mezak enzutean, maiz konfesa-komekatzean. Bada karidadea zue biotzez sendoa, ez solamente egines limosna, baitare garbitus oñak pobreei, ta eman es jatera bere eskus. Prinzipalki admiragarri dena Sandu gontan da humildadea, izanik Erregeren seme, ta Errege izan bear zena dretxos, egin baizue Boto artzeko S. Franziskoren habitu pobrea, ta artu zue gero ere, garaiturik Aitaren ta aideen erresistenzia: Eta gero fraile senzillo batek erran ziolaik, o Jauna, zenbat honra ematen duen berorrek gure errelijionai: errespondatu zio alketurik ta negarres, gaizki diozu, ezi niri eman dida honra mereji ez nuena Errelijioneak. Eta ala quartu bear zute ez egiteas distinziorik berareki niolater.

2. Joanik Romara Aitaren bedeizioareki ordenatu ze an Epistolas, gero Napolesen Ebanjelios ta mezas. Gero Aita sanduaren manamendus bear izan zue permititu konsagratzea Tolosako Obispo, baña gelditurik len bezain humil. Ellegaturik Tolosan, ta errezibiturik Zeruko Ainguru bat bekala, etzute angoek alako predikurik ongi bizitzeko, nola beiratzea beren Artzai ona ain gaste ta ain Sandu, ain andi ta ain txipi humil. Baña

pobre ta humilttoeki beratx zenak, bazekie errebestitzen seberidades ta korajes suberboen errendiarazteko. Kastigatzen zitue Apez bizi zirenak estadoaren deskonforme, kenduartaño beren dignidadeak ta errentak. Ordenatzen zituenak bear zire izan onak ta honestoak, espezialki bere etxe ta zerbitzukoak. Etze an aditu bear itz gaixtorik, maldiziorik, juramenturik: deskuidatzen zena baruarazten zue arratsaldeko irurak arteo amenik ta urruparik artu gabe, ta orduan ogi ta ur sollik. Bere ardi guzien ona prokuratzen zue manera guzies etxean, Kanpoan, pulpitoan, konfesonarioan, ta nonnai. Pasatzerakoan bein karrikan aditu zue emasteki zar heri pobre baten boza eskatzen zuela Konfessio. Bereala jautsi ze, eta Sazerdote-lagunek erraten ziotelaik joanen zirela aiek, errespondatu zie, au da ene ardia; niri dagokida kuratzea Artzai bekala. Sartu ze, konfesatu zue, eman zio Sustentu, ta utzi zio limosna abasto: atrarik gero zorris beterik adbertitu ziote nirabeek; errespondatu zue irris, ebek dire pobreen perlak, ta Artzaiaren honra ta adornu.

3. Izanik ere ain Artzai ona, beti zego antsiatzen utzi naiez dignidade gura, iltzeko fraile pobre bekala. Determinatu zue joatea berriz Romara eskatzeko Aita Sanduai, libra zezan pizu gartaik: baña bidean Brinkola deitzen den errian, ta bere sortuetxean heritu ze, ta ezaundurik nai zuela Jangoikoak libratu deitus beregana, konfesatu ze iltzeko bekala, ta errezi-bitu zue paraturik lurrean gure Jaun Sakramentatua, gero olio sandua: ondorean arturik eskuetan Kristo guruzifikatuaren Imajina, besarkatus ta adoratus biotz guzias entregatu zio bere espiritua adinaren 33 urtetan batzuen ustez, ta 24.an berze batzuen ustes: Kristoren 1297 edo 99.an. Honratu zue Jangoikoak obratus beraren medios milagro anitz ta andiak. Bat izan ze, ezi D. Dionisio Portugaleko Erregek etzituelaik nai sinetsi, naiz akar iten zion orgatik bere esposak S. Isabelek, joanik eiziara aurkitu zue artz temenario bat, zeñek botarik lurrera zeuka pean. Oroiturik orduan bere esposa Sandak erranas enkomendatu ze S. Luisi: bereala agertu zekio aldakan, erraten ziola irrikos, zer aida ala? Atra puñale goi, ta tira bezo artzgorri. Tiratuzioneko gelditu ze ilik artza, ta Errege kontent jaiki ta joan ze kontatus sanduaren fabore milagroskoa. Kanonizatu zue Juan XXII.ak bere lenbiziko urtean, 1316.an



Agustuaren 20.an San Bernardo Abadea

1. S. Bernardo Elizako Aita sandu Doktore ezti gozoa jaio ze Fontana Borgoñako errian, baita Franzian. Bere Amak lendanik izan zue señaile izan bear zenaren hume gau, ta ala azi zue kuido igoreki. Mutikozutuan ze humil obediente ixil alkekor, ta amable bere naturale onagatik: eta bateo juizioso. Burukomiñ erru bateki zegolaik ekarri ziote kurandera sorgin bat: Jaiki ze bereala mutikoa goatzetik oiuz asarraturik, ta bota zue ordu gaixtoan andik: eta Jangoikoak sendatu zue istantean. Eguerri gauean zego deboto elizan jakin naiez ordua, zeñetan jaio zen aur dibino; eman zio lo-iduri bat, an agertu zekio Jesus jaio berria ezin iagos ederra konsolatu zuena miragarriro. Fabore goneki afizionatu ze orazio mentalera, zeñetan gero atra zen Maestru admirablea. Il zekio bere Ama ona: gelditu ze emazurtz gaste ederra munduko banidadeen lekeda ta lakioen ermean: Inzitatzen zute alde batetik Deabruak, berze aldetik lagun arinek ta espezialki emakume banaek: baña Jangoikoaren laguntzareki garaitu zitue guziak. Bein deskuidatu ze beiratzean: goartu zelaik, penitentiarian sartu ze biluxirik balsa izotztu batean leporaño, non egon ze, atra zuten arteo erdi ilik oziduraz. Libratu naiez asi ze pensatzen erretiratzean: eta Jangoikoaren grazia ta argiareki erresolbitu ze sartzera erreljioso: eta nai ziotelaik kendu burutik anaiek, aideek, eta adiskideek, kontra agitu ze, ezi berak konbertitu zitue aiek ta berze ogeitamar joatera berareki Zistelgo erreljionera.

2. Asi ze ematen perfekziora, segitzeko, ta bukatzeko atertu gabe. Ortako oroitzen ze, ta erraten ze maiz bere buruai, Bernardo, Bernardo, zertako etorri zara? Gorputza il ez, baña mortifikatzen zue de manera ezi ia deustan etzue gustorik, baizik Jangoikoaren gauzatan. Ain Jangoikoan sarturik, edo Jangoikostaturik bizi ze, ezi ez ikusi, ez aditu, ez sentitu bekala lurreko gauzarik etzuela iduri zue. Jangoikoaren argi gartan argitu zekio arima ainberze, baizekie argitzeko mundu guziari. Eta bere adiskideei erraten ziote zekien pixka ikasi zuela orazioan oianetan bago ta pinoen ermean. Jangoikoaren inspirazio egin ze Klarabalen Monasterio bat, non paraturik Abade S. Bernardo, bizi zire penitentzia, ta nezesidade extremoan, nola ezpalire aragiskoak, baizik espiritu utsak. Sei anaiak egirik erreljioso, etorri ze guzien Aita ere semearen eskupera, ta iltze Sandu. Arreba sollik gelditurik matrimonioaren estadoan joan ze bein ikustera sei

anaiak Aitareki. Joan ze bestiturik galas. Abisatu zute S. Bernardo: onek manatu zue ez atratzeko nior. Ikusi zelaik arreba atarian utzirik anaienganik, ta niork ikusi nai etzuela, aflijitu ze, ta eman ze negarrai: Gero ere noizbait atra ze Sandua, zeñen itz sandueki aldatu itzuli ze etxera, ta bi urteren buruko logratu zue senarraganik lizenzia egiteko erreljiosa. Zenbat on baten kasos!

3. Baña etze Bernardo, baizik Jangoikoaren espirtua ze mintzatzen zena beraren agos. Jangoikoaren espirtuak erakutsi zio nola maneatu arima azkar ta erikorak: eman zio jenioaren grazia suabe amoroso bat, akomodatzeko guziari bear bekala. Guardatzen zue tenore gau erreprehensioetan, baizire suabe amoltsuak, eta baldin erreprehendituak ezpazue ongi artzen, uzten zue gerorako, ezi erraten zue, daudelaik asarre bata ta berzea, ezteela orduan iduri erreprehensio, baizik mokoka ta pelea. Jangoikoaren amoretik eldu zekio proximoen amoreta ez Aitarena, baita Amarena ere, sentitus berzeren gaitzak ain nola bere propioak. Etzue zela amargo, asarre, gogor, edo utsala, baizik prudentea ta esneskoa bekala, injeniatus nola in probetxu, billatus medio ta erremediorik obena; eta ezpaze protxurik, etze konsolatzen, naiz erran in zuela bere in ala, kunplitu zuela bere obligazioa, libratu zuela bere arima, ta alako milla erran, nola ezpaita konsolatzen orreki Ama ona ikusten duelaik galtzen dela bere humea. Sufrirentua ta pazienza izan zue txoil admirablea, eramanes sereno anitz agrabio in zitiotenak, eman arteo burutik bera, itzuli gabe kontra, baizik fabore, garaitus gaizkiak onkiegi. Ze humila sin sinez, errehusatus indigno bekala anitz dignidade, honra, ta laudario eman nai zitiotenak, ta gozatus desprezioeki. Bisione batean ikusi zue bere burua Jangoikoaren tribunalearen alzinean, ta an etsaia akusatzen zuela fuerteki. Manaturik erresponda zezala, erran zue, ni konfesatzen naiz indigno gloria eternoaren: baña ene Jesus onak du dretxo bi titulos, bat, zeren baita Jangoiko: berzea, zeren erosi duen bere pasio doloreskoas: bera dago kontent lenbizikoas, eta niri iten dida donazio bigarrenas: onen kasos dut nik ere dretxo gloriara. Oneki joan ze konfuso etsaia.

4. Nailuke Sanduak beti egon bere zoko gartan, baña Jangoikoak atrarazi zue Eliza guziaren onerako. Goratu ze Aita Sandu Inozentzio II.aren kontra Pierleon, ta arren atzetik arren gisarakoak Zismatikoak; berze alde Hereje asko: Guzien kontra Monje sandua: Eta ikusteko ta admiratzeko gauza ze, Obispoak, Kardenaleak, Prinzipeak, Erregeak errenditza Sanduaren erranera, nola balitz Jangoikoaren itza, ala baize. Erresistitzen zio Gillermo Konde Akitaniakoak. Joan zekio Sandua, mintzatu zekio, ta errendiarazi zue Aita Sandu egiaskoaren obedienziara, baña



ez itzultzera Obispo desterratu zituenak. Baliatu ze Sandua Jangoikoaren besoas errendiarazteko. Zelebraturik meza, artu zue eskuan sakramentu aldarekoa patena baten gañean: Kondea exkomekaturik egones, ezpaizeike sar elizan, zego eliza-atarian: atra ze Sandua sua zeriola aurpegi ta begietaik, ta boza grabe lotsagarri bateki mintzatu zekio gisa gontan: Jangoikoaren Ministroek eskatu diogu orai arteo, ta eztingu kasorik egin: ona orai emen eldu da Jesu Kristo bera Elizaren buru dena orren presenzian. Au da berorren Juez, zeñen eskura etorri bear duen orren arimak. Ikusagun inen dion kaso Jaunoni, despreziatuko duen au ere, nola gu. Itzebetara ikar ikar Kondea erori ze lurrera; jaikitzen asirik berriz erori ze, itzik ezin atra, agotik abuña zeriola turditurik arras. Azkenean errenditu ze egitera Sanduak nai zuen guzia: egin zekio adiskide andia; eta beraren konsejus aldatu zue bizimodua; ta egin ze Sandu: au da S. Gillermo diotena S. Feliziaren anaia dela. Honratu zue Aita Sanduak S. Bernardo ta beraren konbentua bazkaldus an elzari, ta letxuga, ezpaize berzerik, ta egun gartako billatu ze arrope guti bat erregalo, ta Pontifizearendako arraitto bat. Beraren manamendus ibili ze Sandua erreinus erreinu, Ziudades Ziudade sosegatus ta paratus gauzak orden onean, ta jendeak Aita Sanduaren obediendiaren pean, beiratsen, ta aditzen zutela guziek Sandua nola Aingiru bat Zerutik etorria. Sanduaren orazios atajatu ze zisma gaixto gura, iltzeareki Pierleon Aita sandu falsa. Onen lekuan paratu zute zismatikoeek berze bat: Baña au joan ze gauaz S. Bernardogana, ta utzirik Pontifizearen insigniak Sanduareki joanik urtiki ze Aita Sandu egiasakoaren oñetara humil obediente. Oneki bukatu ze Zisma, Sanduaren medios, Jangoikoaren graziaz.

5. Itzulirik bere konbentura etzute utzi sosegatzera nai bekala; bear izan zue atra, konfunditzeko ta desegiteko hereje goratu zirenak. Bat Henrike deitua sakramentuen ta sazerdoteen kontra erakusten zuena engañatus jendeak: ebek ia desengañaturik Sanduaren itz ta milagroeki arrapatu zute preso. Onen kontra predikatu ondoan Sanduak, jendeek ekarri ziate anitz ogi bedeika zezkien: bedeikatu zitue ta erran zue, ontan ezaunduko duzie egia dela diotena nik, ta falsu diotena herejeek, sendatuko baitire jaten duten guziek ogi gebetaik. Obispo presente zegonak ustez sobra errana zen, añaditu zue, entenda, jaten badute fede onareki. Sanduak erreplikatu zue, ez, Jauna, ez tut nik on erran, baizik jaten duten guziak nolana sendatuko direla, guziak, entenda daien Jangoikoaren alde tik garela gu. Nola erran zuen, ala izan ze. Ala konfirmatu ze egietafedea.

Baña milagroketa iten zuenas Jangoikoak Sanduaren medios Sandua bera ere admiratzen ze, ta erraten zue, etzituela egiten bere merejimen-

tuengatik, baizik jendeen ontzeagatik. Bein Monje bati kulpa sekreto batengatik manatu zio ez komekatzeko: ura deshonrearen beldurrez joan ze berzeeki aldare alzina, eta Sanduak Sekretoagatik eman zio, nola Jesus onak Judasi, baña Jangoikoak eskatu zio kastiga zezan atrebenzia gura. Monjeak arturik agoan forma sagratua, zenbat egin zuen, ezin pasatu zue niolateko maneraz: alik eta ezaundurik bere kulpa konfesatu zion Sanduari erakutsis hostia agoan nola zeukan; eta Sanduaren absoluzioareki pasatu zue. Emasteki bat lastimosoki tormentatzen zuena Deabruak jabetu zenak artas, meza errateareki ta buru-gañean Sakramentua paratzeareki Sanduak utzi zue libre. Franziako Erreginari, humerik ez izanez afljiturik zegonari erran zio prokura zezala bake bat estorbatu zuena orduraño, orreki argituko zuela Jangoikoak. Erran bekala izan ze.

6. Bere milagro guzieki etzekio faltatu trabaju. Eujenio III.ak bere Diszipulo izanak publikarazi zio gurutzada infielen kontra joateko. Publikatu zue Sanduak exortatus jendeak joatera erreskatatzera Jerusalengo leku sanduak anitz arrazioeki, ta iago dena, infinizio bat milagroeki. Baña o Jangoikoaren juizio justoak! jendea joanik galdu ze geiena: ta gero ematen zute Sanduaren kontra, nola beraren kasos galdu balire. Humillatu ze Sandua Jangoikoaren eskupean, naiago zuela beraren kontra eman zuten, ezi Jaunaren kontra. Bizi ze aspaldian milagros bekala Elizaren onetan; baña flakurraturik, ta etziola admititzen estomagoak sustenturik, zoeie bukatu sereno kontent, nola nabegazio nekosoaren ondorean portura urbildus. Guziek negar, ta berak konsolatus guziak, ordu zela atratzea lurretik planta protxal etzena. Ala pensatzen zue bere buruas Jangoikoaren biotzeko gizon sandu garrek mundu bat balio zuenak, eta iago. Izan ze beraren iltze prezioso adinaren 64 urtean, eta Kristoren 1153.an. Agustuaen 20.an. Gorputzaren neurrian ze erdikal, ez gora ta ez apal: gorputza konsumiturik: biloa gorrikara; aurpegia txuri-eder arrosa kolore mostratzen serenidade, garbitasun, ta grazia miragarria, nola arimaren hispillu klaroa & &.



Agustuaren 24.an San Bartolome Apostolua

1. Amabi Apostoluetaik bat izan ze S. Bartolome Galileatarra, eskojitu zuena Jesus onak bere konpañiarako, ta azi zuena bere doktrina dibinoan, bialtzeko mundu ori barna. Igan ondoan Zerura bere Majestadea, joan ze sortez S. Bartolome Likaoniara, Indiara, ta Armeniara, non bukatu zen konbertitu ondoan anitz jende Jesu Kristoren federa. Bere martirioaren motiboa ta manera izan zela diote gisaontan. Omen ze Armeniako Ziudade prinzipale batean idolo edo Jangoiko falsu bat, Demonio Egiaskoa, adoratzen zutena jende engañatuek, ustez ematen zioten arrek osasuna, erremedio, ta ondasun etzuketena, onez bentzait. Batzuk sendatzen zitue erremedio naturales; berze batzuk, kendus aldartez berak emanikako gaitzak: berze batzuk uzten zitue itsu, maingi, heri ta malder, sinestarazis beren kulpak zirela kausa. Eta ala zeuzkie zoroturik, baitare errespondatus galdegiten ziotenei, ta erranes agituko ziren gauzak: Eta batzuetan azertatzen zue, berze batzuetan gezur iten ziote, beti engañatus itz ekiboko Maliziaskoeki. Deitzen ze Astarot. Sartuas geros tenplo gartan S. Bartolome, mututu ze Astarot, ta ezindu kuratzeko. Arren Sazerdoteek konsultatu zute berze idolo bat an urbil beneratzen zutena; onek errespondatu zue etzela mintzatzen Astarot, zeren S. Bartolome Jangoiko egiaskoaren Apostolua sartu zen arren tenploan, ta zeukan loturik katees. Eta eman zitue señaleak nolako gizona zen Apostolua, ta zertara etorri zen arara. Eun aldiz iten zuela orazio egunaz, ta eun aldiz gauaz. Zebilala akonpañaturik Aingerues: zuela boza nola tronpetarena: aurpegia alegre iduri beti: mintzatzen mintzo-mota guziak: eta jakiten pasatzen dena urrun ere: eta orai nik dardukatena emen, zio, badaki berak an: eta eztuzie aurkituko, nai bada altxatu bera. Informazio goneki itzulirik billa ibili zire irur egunez. Gero botatzeareki gorputz batetik Demoniao, famatu ze Apostolu sandua. Orgatik ango errege Polemon deituak zuenak alaba lunatika Espiritu gaixtoaganik maltratata, billarazirik ta ekarri beregana, ta eskatu zio senda zezon alaba. Sanduak momentuan utzi zue libre, sana, ta sendo: guziak gelditzen zirela arriturik. Erregek agradeziturik biali zio present andi bat: baña zeramatenak ezin aurkitus itzuli zire erregegana: zeñen kuartoan gero, idiki gabe ataririk, sartu ze S. Bartolome: deklaratu zio, etzela etorri arara urre zillar ta alakoen amorez, baizik salbatu naiez beraren arima ta jende guzia. Eman zio ezaumentu Jesu-Kristoren, ta

berze egietafedeen. Eta sinesta zezaten obeki, ofrezitu zue obligaraztea Astarot gura konfesatzera egia zen bekala. Bildurik bada tenplo artan errege, sazerdoteak, ta jendetze infinizio bat, Sanduaren manamendus konfesatu zue Astarotek enbusteria ta astuzia usatzen zuena aien engañatzeko: Etzela bera Jangoiko, baizik infernukoa loturik zegona katees Jangoiko egiaskoaren birtutez, zenen seme Jesu Kristo iltzen guruze batean salbatzeagatik gizonak, ta biali mundua barna bere Predikariak, zeñetaik bat zen S. Bartolome. Oneki desengañaturik guziak jaiki, ta sokas loturik idolo gura arrastatu zute lurrean: ta tenploaren pareteetan agertu zire gurutzearren señaleak. Eta progu iagotako ikusi zute atra zen idolo gartaik Deabrua figura txar itsusi batean, sua zeriola, ta kee, ta usai infernukoa. Manatu zio Apostoluak zoeiela nora etzeien ikusi: ta obeditu zue. Ala konbertiturik Errege, Erregina, ta jendeketa andia, Sazerdote falsuek inziatatu zute Astiajes erregeren anaia Sanduaren kontra: arrek golpatu ondolan fuerteki Sandua larrutu zue bizirik, eta gero edeki burua. Baña bera ta Sazerdote gaiek ogeitamar egunen buruko il miserableki, ta jautsi zire infernura. Erregek ortzi zue Apostolua honratuki: eta gero bera konsagratu ze Obispo, ta izan ze ogei urtez, ta aumentatu ze &



Agustuaren 28.an San Agustin Obispoa ta Doktorea

1. Jangoikoaren bidea utsinik len gero itzuli direnak zuzen-bidera dire bekatarien konsolu ta exenplutako: Ebetaik bat izan ze S. Agustin, zenen bizitza ezin guzia erranes, erranentugu gure protxutako obe iduri dutenak. Jaio ze Afrikan Tagaste deitzen zen Ziuadadean 355 urtean: Ama zue Kristioa S.Monika: Aita Patrizio Jentila. Onen bidea segitus mutiko zutuan, heriturik beldurrak il, nai izan ze bataiatu: baña obero emanik laster, utzi zue bataioa gerora. Entendamentu andi garreki zerama guziei abantalla estudioetan; baña bateo inklinazio gaixtoareki, lagun, okasio, ta zebo gaixtoeki irristatu, erori, ta funditu ze deshonestidadearen loiean. Amak negarrez konsejatzan, ta korrejitzan zue: baña sor egiten ze: ta bizioeki itsuturik erori ze Manikeoen erroretan ere. Joan ze Romara, andik Milana, erakustera Rhetorika: Ama Sandak segitu zue: ta bere orazio, ta negarreki, eta ango Obispo zen S. Anbrosiori errogatus konberti zezan seme gura, ta Sanduak mintzatus ta predikatus, zoeie Jangoikoa disponitus Agustinen Konbersioea. Asi ze ia erdi-ezauntzen fede Kristioaren zuzenbide bakar egiaskoa: baña detenitzen ta gibelatzen zue bizioen kostunbrearen lekedak, ta prisione gisa garrek. Kontatu zio S. Sinplizianok, nola Biktorino Maestru famatu bat kristiatu zen, admiratus guziak, ta onak gozatus aleganzias. Oneki mogitu ze iago imitatu naiez. Baña bere sortuerriko Kaballero Potiziano deituak kontatus S. Antonen bizitza ta gauza miragarriak, orduan bai fuerteki mogitu ze onerako, ta ia desengañaturik erran zio bere adiskide bati, *Zer ai gara gu, Alipio? Letra gabekoak gortzen dire, ta arrapatzen dute Zerua: eta gu geuren letraeki ona non gauden inbolkaturik loiean. Agian zeren joan diren alzinean, alketzen gara segitzeas atzetik? eta ezkara alketzen ez segitzeas berere?* Guziareki naiz oneranai, etzego guzis oraño errenditurik. Pintatzen du Sanduak bere pleitu gisa gura bi bideen artean: nola gogoratzen zekizkion Banidadeen banidadeak, ta erraten bekala zioten, zer? utzi nai gaituzu betikos? eta gerostik eztuzu gozatu bear au ta ura sekulan? nola berze aldetik beiratzan zuen prozesio eder luzitu bat, aur, andi, gizonki ta emasteki estado guzietakoen lore lorea honestidade ederraren atzetik, ta onek erraten ziola, *bada zuk ez dezakezu dezaketena ebek eta ebek? edo uste duzu dezaketena dela beren indar propioes, ta ez Jangoikoarenes? Zuri oroat emanentizu, ematen bazara berai? Bota zaitte beraren besotan: etzaitu utziko eror zera.* Ia ia zego kasi erresolbiturik: eta kostunbre

gaixtoak tiratus atzerat, ta bera segi aurrerat, pelea gontan negargale andi batek arturik erretiratu ze arbola baten pera: an negarra zeriola erraten zio Jangoikoai, *Eta berori, Jauna, noiz arteo? noiz arteo egonen da asarre ene kontra? Eta zu, ere anima, zertan zaude? Noiz bear da izan? biar, biar. Eta zergatik ez orai berean?* Zegolaik ontan, aditu zue boza bat aur batena bekala erraten ziola, *artu ta lei zazu.* Artu zue S. Pabloren librua, ta lenbiziko idiki zuen lekuan leitu zue, *ia ez jan edanetan, ez ordikeria ta urdakerietan, ez munduko gaixtakerietan, baizik errebesti zaizte Jests Kristos.* Leitu orduko sartu ze Jangoikoaren argitasuna arima gartan: eta emanik Jangoikoai graziak, zeren egin zuen berze gizon berri bat bekala, bataiatu ze S. Anbrosioren eskus ogeitamirur urtetako adinean: eta diote ezi orduan bi Sandu Doktoreek erran zutela lenik kantiko ura *Te Deum laudamus, Berori Jangoikoa laudatzen dugu: berori Jauna konfesatzen dugu:* batak erranes Berso bat, berzeak berze bat. Zenbat aleganzia izan zuten Kristioek? Zenbat S. Anbrosiok? Zenbat bere Amak?

2. Bigarren jaiotze gisa goneki ia etze mundurako batere, baizik guzia Zerurako. Guzia erretiro, penitentzia, orazio. Etze ia oroitzen munduas: baña mundua bai artas. Atrarazi zute bere zokotik, egiteko lenik Sazerdote, gero Obispo Hiponan, berrogei urtetako adinean; ta iraundu zue irue-tanogeitamaseiak arteo. Zenbat honratu zuen Eliza guzia, ta argitu zuen doktrina Kristioa iruzki berri gonek, eztaike aski pondera. Guziek diote estimazio ta atenzio prinzipala Sandugoni. Bada nola in zioten gerra herejeei, nola konbenzitu, konfunditu, garaitu, urratu, eta desegin zituen Kasta gaixto gaiek, Manikeoak, Donatistak, Arrianoak, Pelajianoak, ta gañarakoak, da gauza admiragarri propioa Jangoikoaren graziaren. Gusto da leitzea zein agudo, zein klaro eder ikusiarazten duen egia, agertzentuen erroreak, erxtentioten herejeei atari ta erreskizio guziak, eztaizkela niondik eskapa; nola uztentuen ain konbenziturik, eztutela zer errespondeatu! Zenbat probetxu eman duen, ez solamente bere denborako, baitaere betiroko, progatzen da denbora guzietan. Eztaizke konta laudario ematentiotenak Aita Sanluek ta Doktoreek S. Agustini. Alaere bera ain humil izatea; bere lengo bekatuak publikoki konfesatzea; iduri zekiona etzegola ain ongi bere libruetan erretratatea; ez fiatzea bere opinioes; berze Doktoreei ainberze atenzio ta errespeto guardatzea; au da gauza bat admiratzen duena gizona geienik: Au da jakintsu andia bateo, ta Sandu andiagokoa izatea! Zimendu gonon gañean fundatu zue Jangoikoak ainberzeke jakinde, ta santidadearen dorrea seguro.

3. Ellegaturik irurogei ta amabi urtetara prebenitzeko obeki ain ongi prebeniturik zegona joateko Jangoikoagana, guzien konsentimentuareki



nonbratu zue Obispo-lagun Eradio Sazerdotea. Laur urtez bizitu ze estado gartan komunikatus Jangoikoareki geiago orazioan; ondorean etorri rik Afrikara Barbaro Bandaloak, ta zeukatelaik inguraturik bere Ziudadea Bona ia irurgarren ilabetea, deskonsolaturik ta afljiturik bere ardi Kristioen trabajues ta kalamidadees, zego eskatzen Jangoikoak humil humila edo libra zezan desgrazia gartaik, edo eman zezon arimo ona sufritzeko, ta erakusteko sufritzen. Agindu zio bere Majestadeak lenbizikoa, erama teareki mundutik. Onen señale alzindari biali zio heritasun bat: Ezaundu zue Jangoikoaren abisua ta erregalao: Manatu zue ez usteko sartzera nior, baizik preziso zirenak kuidatzeko. Leitzen zitue maiz psalmo penitenzialak kontriziosko negar amorosoeki: errezi bitu zitue Sakramentuak debo zio berareki: ta erraten zue ezi Kristio zenak, naiz biziturik sanduki, etzue la joan bear mundutik egin gabe lenik penitenzia konbenientea. Ellegaturik ordua, zeudelaik presente bere hume Espiritualak beterik penas, entregatu zue Jangoikoaren eskuetan arima andi gura adinaren 76 urtean, ta Kristoren 430.an. Arrapaturik Bandaloek Ziudadea amalaur ilabeteen buruan, Kristioek arturik gorputz Sandua eraman zute Zerdeñara: au gero Moro Sarazenoek arrapatu ondoan, erreskatatu zue Luitprandok Longobardoen Erregeak prezio andi baten kostus, ta eraman zue Pabiera, non dagon bere erreljiosoen Konbentu batean honraturik ongi. Ltzen urtean manatu ze biltzeko Efeson Konzilio jenerala, zeintara konbidatzen zuen Teodosio gasteak Enperadoreak Doktore Sandua, argitzeko nola iruzki batek izarren eratean, nola egin zuen berze Konzilioetan: baña konbita ellegatu zeneko, zeruan zego &.

Agustuaren 30.an Santa Rosa de Santa Maria

1. Indietako urre, zillar, ta perla preziosoetaik preziosoena izan ze S. Rosa, jaio zena Liman Peruko Erreinuan 1586 urtean buratso humil honratuetaik. Bere Amak zio etzuela sentitu pizu edo enbarazurik sabelean zeukan bitartean. Bataioan deitu zute Isabel: Konfirmazioan aldatu ziote izena deitus Rosa, zeren irur ilabeteetan kunan zegolaik, ikusi zen aurpegia trasfiguraturik rosa eder batean. Gero ezaumentura zelaik, aiturik zergatik ala deitu zuten; beldurrak banidadearen, enkomendatu ze Ama Birjinai, zein bere Semeareki besotan agertu zekio, ta erran, bere Semearen gustoa zela deit zeien *arrosa*, ta apellidos, *Santa Mariarena*. Beñere etzue negarrik egiten: alik eta egun batez nai zuelaik Amak eraman berze etxe batera, zeren Señora batek nai zuen ikusi, atariratzean asi ze negar ta negar lastima arriro, ta ezin ixilarazi niolater: itzuli zue barnerat, ta bereala negarrak itzuli zire irri gozotan. Irur urtetan ia mostratzen zue juizio ona, ta birtute anitz: pazienziarena espezialki, zeren ezi maltrataturik eri bat, gero antojaturik pasatus oñaze bortitzak anitz ilabetez, guziei kausatus lastima ta lotsamentura, bera beñere etzute ikusi zinkarik egiten, ta ez koloreik aldatzen iago ezi balitz bronzeko. Buruan gero kuratzeko Amak ustekabea bota zitio solimanaren errautsak, zeñeki erres burua, pasatus oñaze biziak, ikaritzen ze guzia, ta ilkolore paratu ze: alaere galdegini ia senti zuen anitz oñaze, ezta kaso egiteko, zio, alik eta agerturik, ta ikusirik guzia llaga ta anpolla, arritu ziren aurraren pazienzias.

2. Laur urtetan Jangoikoaren inspirazios eman ze egitera penitenzia, ta despreziatzera munduko banidadea. Bere anaiatto txipi batek bein zikindu zio loiez bilo guzia. Sentiturik Rosak egin zio keja. Erran zio anaiattoak, zergatik kejatzen zara ortas? Eztakizu bilo goiek izaten direla Deabruen lakioak, arrapatzeko arimak, ta eramateko infernura? Ezaundu zue Rosak, Jangoikoa mintzatu zekiola aurraren agos: eta ala lotsarriturik asi ze erraten, Jesus, biz eneki Jesus. Borz urtetan ebaki zue biloa beldurrak eman niori okasiorik, ta egin zue Boto Birjinidade perpetuoaren. Sei urtetaik ia barutzen ze ogi ta ur solles asteazkenetan, orzilare, ta larunbatetan. Ze agitz humil obediente Amari bekatu etzen guzian, naiz kosta zekion berari oñaze. Konfesoreak xakinik lo gutiegi egiten zuela bere orazioagatik, ta orgatik zebilala herikor, manatu zio lo egiteko laur ordus berere. Obeditzeagatik prokuratu zue bein, bi, irur aldiz, baña ezin: afliji-



tzen ze ustez faltatzen zuen obediencian, alik eta Konfesoreak dispensatu zion manamendua. Aitetamei sokorritzeagatik, baizire pobreak, egoten ze trabajatzan gaur erdiraño: naiz bera zegoen heri, ta atsik ezin artus: Señora batek konsejatu zio beira zezala bere buruari, etzeien akaba: errespondatu zio nik ez dezaket falta buratsoei nezesidadean, naiz iltzen bane-go ere.

3. Tratatzan zue Amak ezkontzeas Rosa, ta asko nai zutenen erlean autatu ze alargun abrats baten seme bakarra, ta ajustatu zue deus erran gabe alabari: erran ziolaik gero, Rosa gelditu ze alketurik, eta desengañatu zue Ama, eskojitu zuela ia berak Esposotako Jesus ona, ta etzela ezkonduko lurrekoetaik nioreki, balitz ere errege, etzela arrazio uztea Jangoikoa gizonagatik. Amak aiturik, nola uste baizue guzien erremedioa ezkontza gartaik, tratatu zue gaizki alaba itzez ta akzioez, erabilis arrastaka lurrean. Arroitueta akuditu zute etxekoek, ta aiturik motiboa, guziek eman zute Sandaren kontra. Sanda orgatik ain serena: eta Jangoikoaren argis ezaundu zue segitu bear zituela S. Katalina Senakoaren exenpluak, eta ala artu zue au kidari bekala. Martirio gisa luze bat eman zioten Amak, anaiek, etxeko guziek, artzezan Matrimonioaren estadoa utzis bizimodu raro gura, deitzen zutela enbustera, hipokrita, engañatua: orren gañetik ostikoak, golpeak, tratamentu gaixtoak. Guzietara serena ixil sanda humil humila. Desengañatu ze azkeneko Ama, ta utzi zue segi zezan bere teman.

4. Ogei urtetan artu zue S. Domingoren Terzera deitzen direnen habitua, ta oneki errebestitu ze S. Katalina Senakoaren espirituas. Solamente zue eskrupulo ez izateas habituaen conforme, zerengatik kontatzen ze agitz indigna, ta mereji zuela infernua. Konfesatzen zelaik, naiz Konfesoreak zebiltzan ezin aurkitus kulparik absolbitzeko, ainberze pena ta negar zue, ezi etzekienak pensatuko zue izan zela bekadari andiren bat. Etzue gusto andiagorik, nola izatea despreziatua: eztare pena andiagorik, nola lauda zezaten. Orgatik altxatzen zitue iten zituen onak, ta Jangoikoaren faboreak. Etzue jaten aragigenderik; eta manatzen bazio Amak, txastatzen zue, baña gaiz iten zio, ta botatzen zue: de manera ezi medikuek ta guziek ezaundu zute arren erremedioa zela barua. Baña jaten zuen pixkan zer injenioak mortifikatzeko, billatus belar ta gauza samiñak? Berze generoetan iten zuen penitencia da arritzeko, ta neke sinestatzeko, ezpalitz Jangoikoaren inspirazio ta graziareki. Jangoikoareki zuen komunikazioa ze admirablea: amabi ordus egoten ze orazioan ta deboziosko gauzetan: baña beti edozein lan edo itekoetan gogoa zeuka Jangoikoan, ta etzeike atzen. Paratu orduko belauriko ondutzen ze bere Majestadean de manera

ezi edozein arrotu agi zeien, etzue dibertiarazten. Orgatik ere ze agitz afizionatua egotera erretiroan sollik: eta nai zuelaik Amak erman bisitarean batera, heritzen ze manera admiragarrian, ez joateagatik. Guzis erretiratu naies, lizenzia eskatu zio Amari egiteko zuten baratzettoaeren zoko batean hermita edo zeldatto bat, laur oin zabal, luze bortz ta gora sei: eta obia gisa gontan desahogutzen ze bere Espiritua: Ikusink konfesoreak, ta txanzaz erranik, zabalegi zela, bearko zela ertxitu iago, errespondatu zio, iduri bazaio ere mear zelda gau, bada leku ene Esposo Jaunaren ta enetako abasto. Emen testigorik gabe gozatzen ze Jesus onareki egotez; eta erreparaturik etzela joaten len bekala egunoro mezara, zio etzuela joan bearrrik, ezi andik ikusten zituela konbentuan erraten ziren meza guziak. Eltxos betetzen ze, gauaz espezialki zelda gura, baña etziote pikatzen, ta ez estorburi egiten bere orazioan, ta goiz arrats konbidatzen zitue laudatzera Jangoikoa, ta ala iten zute musika-iduri admirable bateki. Baita egasteek ere obeditzen zioten manatzen ziotelaik kantatus Jangoikoaren gloriatan.

5. Proximoen karidadean ze extrematua guzis sanda gau, izanik pobre, emanen zuen baño iago ere: barutzen ze jan gabe sustentatzeagatik aiek: Heriak ekartzen zitue bere etxera kuratzeko: eta erraten ziotelaik, beira zezala, gaitza pegatuko zekiola, errespondatzen zue, ez naiz ain ditzosa, il nadien karidadeagatik, ezi ebei iten zaioten ona iten zaio Jesus onari. Arimes orde lastimatzen ze geienik, ta iten zue nigar ta orazio; ta erraten zue pasa lezazkela infernuko penak, balitz kulparik gabe, etzeien-gatik kondena nior. Eta bere Konfessore bati misione egitera joateko zegoñai beldurrak pelgroengatik, erraten zio, ze, Aita nerea, bidoeie beldurrik gabe, ta jakin bez, Jangoikoai gizonak in dezoken zerbitzurik andiena dela irabaztea arimak, eta au dela Apostoluen lan propioa. Zer fortuna iago nai dezake, nola sartzea arima bat Zeruan? Ala exortatzen zioten errelijosoei enpleatzea mogitzen jendeak onera. Eta Sanda berak oneratzen zitue bere grazia andiareki tratatzen zuten guziak. Bein Kaba-llo bat afizionaturik beragana pasione gaixto itsuareki joan zekio etxera: Sandak Jangoikoaren argiz ezaundurik arren intenzioa deklaratu zio, ta konsejatu zio egitea penitencia, ta itzuli ze aldurik arras, ta bizitu ze andik alzina ematen exenplu ona. Bada Jesus berari zuen karidadea nork explika? ta Jesus onak berari ziona? Seguratzeko hein zegolaik Sanda Ama Birjinaren imajinaren alzinean, besotan zegoñ aur dibinoak beiratu zio agitz arrezti amoroso, ta erran zio, o ene biotzeko arrosa, zu bear zara izan ene esposa. Pensa nola gelditu bide zen biotz gura zoraturik amorez! Konfirmaziotako erran zio Ama Birjinak, beira, ene arrosa, nolako fabo-



rea iten dizun ene Semeak. Memoriatako Sandak nai izan zue inarazi eras-tun bat desposorio garren señaile: eta artan ere agertu ze prodijio egiaren progutan. Andik alzina bizi ze ia ez mundu gontakoa bekala, eta Jaun onak ere tratatzen zue berea bekala.

6. Guziareki nork sinesta zebilala sanda gau bere salbazioaren bel-durrak ikar ikar? Bada bai ala da, ta ala bear da: zenbatenas iago ezaun-tzen duen arimak, ta maiteago duen Jaun ona, geiago beldur da galtzeas: alik eta seguratu zuen arteo bere Majestadeak bere itz errealareki, *ene alaba, zaude arimo onareki, ezi nik ez tut kondenatzen nior, baizik nai dena kon-denatu bera*. Ordu gartaik gelditu ze ain konfiaturik, nola segur balitz. Eta Konfesoreak erranik etzeiela seguratu, baizik obratu beldurrak, bazeikela erori ta galdtu: Errespondatu zio, Ongi dio, ene Aita, al banezake nik obe-ditu: baña naiz nai zen ni bekatari andia, ene Jesus onaren onean dut ain-berze konfianza, ezi ez dezaket duda eznauela utziko apartatzera. Errega-latzen zen bekala amatzean Jaun dibinoa, erretzen ze ikusteaz dela ofen-ditua: ta orgatik sollik zire bere penak eta negarrak. Eta Amari negarrez zegonai hein trabaju batengatik, erran zio, zer ai da, ene Ama? Eztaki negarrak direla solamente bekatuengatik? eta on Jangoikoaren amorez? Izan zitue Sandak Zeruko erregaloen ariora trabajuak ere andi erru lotsa-garriak Jangoikoaganik, Deabruenganik eta gizonenganik. Pasatu zitue guziak animosa: Azkenik biali zio Jangoikoak heritasun bat ta artan anitz gaitz, oñaze, neke pena arrigarriak, baizio Sandak zegola gurutze batean bekala, etzekiela nola zeiken

izan gorputz batean ainberze oñaze genero: eta Medikuek etzuketete entenda, zeren goratik eldu ze purgatorio gura. Ala ere Sandak zio, iago, Jauna, *iago trabaju ta dolore, non ta eman dezadan pazienza*. Jakin zue lendanik noiz bear zen il, eta kantatu zue bere despedida gozoro. Errezibitu zitue Sakramentuak debozio andiareki: eta komekatuas geros gelditu zekio aur-pegia ain eder agraziatu alegre, ezi guziak admiratzen baizire. Eskatu zue guziei barkazio, eta barkatu zio te berak biotzez bere kontrario izanei. Eskatu zue Aitaren ta Amaren bedeizioa, despeidako. Nai zue para zeza-ten lurrean iltzeko; bentzait kendu bururdikoa, paratzeko burua zuraren kontra, imitatzeagatik zerbaitto Jesus iltzena gurutzean. Kontesorea gauasko zorrietakoan zego itzultzeko bere etxera, etzela prisarik ustez. Sandak erran zio, Jakin bez ene Aita, gaur joan bear dutela Zerura ze-le-bratzera S. Bartolomeen festa: ia andik konbidatu naute: Gelditu ze ura ta asistitu zue, entregatu arteo arima sanda gura Jangoikoaren eskuetan. Agitu ze adinaren 33 urtean, ez bete: Kristoren 1618 urtean. Bereala mos-tratu zue Jangoikoak bere Sandaren gloria: ta ageri ze ilaren galant agra-

ziatuan ere, ematen zuela guziei gozo ta benerazio. Ama ere orduraño ezin konsola zeikena bete ze alegranzias, Jangoikoak ala naita, zeren eska-tu zion Sandak konsola zezan bere Ama. Konfesoreak exklamatu zue, zori onekoak zure buratsoak: Zori onekoa ordu gura, noiz jaio zinan: Zaude gozatzen Jangoikoa. Bizi bekala il zara sanda: bataioko graziareki igan zara Zerura; segi axuri dibinoa &

S. Ramon Nonnat. Agust.en 31.an pag. 313.



Urriaren 1.an

San Jil, edo Ejidio Abadea

1. S. Jil, edo Ejidio ezauna dena famas lekuebetan ere, jαιο ze Atenas Greziakoan. Aurzututik eman ze letraen ta birtuteen estudiora, espezialki egitera karidade. Bein elizara joatean aurkitu zue pobre bat heri karrikan: Kendurik bere tunika eman zio, ta bereala gelditu ze ura sano. Ezaundu zue zein kuadrable Jangoikoai bideden limosna: eta ala iltzirelaik bere buratsoak, gelditu zekizkion ondasun guziak errepartitu zitue pobreei. Andik alzina eman zekio milagro egiteko donoa. Eztela orai egiten milagrorik, diote: ezeta ere alako karidaderik. Elizatik itzulzerakoan aurkitu zue iltzen gizon bat animale benenatuak heritua: egin zue orazio, ta sendatu zue. Igande batez espiritatu bat elizan zegolaik iskiritus estorbatzen debozioa: manatu zio espiritu gaixtoari atra zeila: atra ze, ta utzi zue libre gizona. Milagro gebeki asi ze famatzen Jil, eta nola baize humila, iges iteatatik banidadearen aizeaganik, joan ze itsasos nora zeraman Jangoikoak. Itagiturik tenpestade andi bat ematu zue bere orazios, guziek graziak ematen zitiotela orren kasos. Franzia ellegaturik, Arles deitzen den Ziudadean S. Zesarlo ango Obispoaren konpañian egon ze bi urtez. Emen sendatu zue heri bat irur urtez gaizki egona. Munduko honraren beldurrez emendik ere joan ze aratago, non aurkiturik eremutarrat, oneki gelditu ze: ta egunen buruan sendatu zue milagrosoki berze heri bat, eta lur gaiek len utsal zirenak bere orazios itzuli zitue lur on fruitu emalleak. Orgatik zelarik honratua ta estimatua, iges joan ze andik ere; ta eremu soil apart zegon batean, sasi, txoilitsu ertxi batzuk barna aurkitu zue kubila on bat, iturri garbi bateki: Ongi iduritu zekio leku gura, bizitzeko jendeenganik apart, eta iago, aurkitzeareki orein bat Jangoikoak bialia bekala sustenta zezan bere esneareki. An bada bizi ze sollik Jangoikoareki. Agitu ze egun batez joatea eizian arat Errege Franzia: eta tzakurrek usmatzea ta segitzea orein gura, zein laster sartu ze Sanduaren kubilan, ta bota ze beraren oñetan, ala nola eskatzen anparo. Etzue desanparatu Sanduak bere unidea. Inzue orazio, ta tzakurrak ezin pasatu zire alzina, baizik aunkas ta ainkurias itzuli zire Nausiengana laster. Berze egun batez joan ze errege iago laguneki leku berara: orduan oroat etzire trebe tzakurrak pasatzera alzinago: Balletero batek tiratu zue saeta bat, ta fortunatu ze ematera sanduari. Armas idikirik bide ellegatu zire, ta aurkitu zute Sandua bere orazioan gelditurbatu gabe, odola zeriola zauritik; eta oreña oñetan. Arritu

zire guziak, eta ezaundurik Jangoikoaren gizon sandua zela, erregek eskatu zio barkazio, ta kurarazi zue bereala, naiz Sanduak ez nai, baizik egon ala heriturik sufritzeko iago. Asi ze andik alzina errege bisitatzen maiz, ta ofrezitzen anitz ondasun ta gauza: baña Sanduak etzue deus artu nai: ta konsejatu zio in zezan eremu gartan monasterio bat, non Errelijiosoen enkomenda zezaten bere Majestadea ta bere Erreinua. Egin ze, ta obligatu zue Erregek S. Jil gobernatzera Abade bekala, nai etzuela bortxa. Artan bizitu ze, ordenaturik Sazerdote, Aingiruen bizi bat, guziei ongi egiten, ta anitz bekatari konbertitzen onera, aien ermean Errege bera, zeñek Sanduaren kasos egin zue penitentzia bere bekatus, bear bekala. Zenbait urteen buruan ellegatu zekio plazoa pasatzeko Zerura, ta andik abisaturik lendanik, ta prestatuak berriro entregatu zue bere espiritua Jangoikoaren eskuetan, urriaren lenbiziko egunean: Urteaz eztute seguratzin zierto: S. Zesario bizitu zenetik atratzen da izan bide zela Kristoren bortz eun urteren inguruan guti gorabera: Ezi S. Zesario bizitu omen ze, zelarik Aita Sandu Simako; Enperadore Anastasio: Italiako Errege Teodoriko, ta Franzia Klodobeo &.

Urriaren 3.an S. Serapia V. ta M. ta S. Sabina. p. 315.



Urriaren 4.an Santa Rosa de Viterbo

1. Admirablea da Jangoikoa bere Sanduetan, eta seguratzean munduari, zein den bere Eliza edo familia lurrean. Federiko II.a Enperadore zen denboran, ta zoeielaik herejeeki Aita Sanduaren ta Elizaren kontra, 1240 urtean jaio ze Viterbon Jangoikoaren milagros buratso pobrettoetaik Rosa. Bereala eman ze ezauntzera zela Jangoikoaren maite eskojitua: Etzue beñere nigarrrik, naiz utzi egun guzian esnerik gabe, aurkitzen zute ixi ixila beti Zerurat beira. Ia bigarren urtean asi ze aipatzen Jesus ta Maria, ta paratzen belauriko aien imajinen alzinean: Jangoikoaren gain konbersazioa paratzen zelaik, egoten ze atenta gogo ta gusto guziareki mostratus zegola ia amorosturik bere Majestadeas, eta guzia ze pensatzea artan, eta orazio egitea, suspiratzea, ta aflijitzea herejeen gaixtakeriengatik. Desengañatzeko aiek, nai balukete, agertu zue Jangoikoak bere birtutea K ristico txipitto gontan: Bi urte bete ondoan aurttoak, il zelaik bere izeba bat, mortaxaturik ia kajan, eramateko ortzitzera, ikusteariki aideen dolamena, joan ta ukitu zue eskuttoas, ta deitu zue bere izenas: Eta istantean ila biztu ze, ta jaiki ze sana, ta bizitu ze gero asko urtez. Admiraturik guziak señaie goneki goratu zire herejeen kontra, libratu zire berak, ta libratu zuzte anitz Kardenale ta Katoliko preso zeudenak. Irur urteetaik ia joaten ze maiz elizara, egoten ze Sakramentuaren presenzian ain debota, ezi beiratzeas sollik betetzen zire guziak admirazios, ta debozios. Jangoikoaren itza aditzen zue ain atenta, ezi errepetitzen zue prediku guzia itzik galdu gabe ferbore ta grazia geiagoreki. Predikatzen zue publikoki Elizetan, plazaetan, karrikaetan, paratzen ziotela oñen pean katedra edo alkiren bat, ikusi zeiken gisan: Exhortatzenzue guardatzera Kristoren fedea, ta legea, ta Aita Sanduari obediencia: Konfunditzen zitue herejeak arrazios, ta Eskritura sagratu, Profeta, Doktore, ta Ebanjelarien textoeki de manera, ezi zekitelaiak oraño etzekiela leitzen ere, ikusten zute klaro Jangoikoa mintzatzen zela aurtto garren agos.

2. Bizimodua ze berze milagro bat: guzia penitentzia, Bijilia, ta baru kontinokoa, iduri zela imposible irautea. Bada karidadea nork pondera? Konsolatus aflijituak, sendatus heriak, argitus itsuak, biztus ilak, erremediatus beartsuak, iduri baize aurtto gonon eskura utzi zituela Jangoikoak Zeruko giltzak, errepartitzeko ango ondasunak. Nornai aurki zeien edozein naigabetan, Rosagana bereala joaten ze. Agitz pobre izanik ere, baze-

kie erremediatzen anitz nezesidade, ta bazudue Jangoikoareki bateo. Aitak ustez bere izerdia gastatzen zion, kargu iten zio: errespondatzen zio Sandartoak miragarriri humil: baña debekaturik ematea etxekotik, bere ogi pixka ahorratzen zue barutus, ura eman, ta askitzen ze guziendako aumentaturik Jangoikoaren milagros. Egun batez prisaka zoeielaik ogi puskaeki delantalean, aurkitu zue Aitak karrikan: Zer damazu or? erran zio. Rosak errespondatu zio, ikus bez, Aita. O Jangoikoaren miragarria! guziak ikusi zire arrosak iduris, zelarik neguaren erruan. Oneki admiraturik Aitak utzi zue eman zezan nai zuen guzia, ala faboratzen zuelaik Jangoikoak. Ebatsi ziote bere Amari ollo bat luma nabar ederretakoa, orgatik baizue iago pena: Sandaftoak Jangoikoaren argis jakinik nor zen artu zuena, joan zekio, ta humil humilttoa eskatu zio Amaren olloa. Zer ollo ta olloalde? Emastekiak, gezurra andiago, ta boza gorago, tratatus gaizki bota zue karrikara aurtto, ta karrikan segi gaizki erranka; bildurik jendea arroituetara, alako batez agertu ze emakumearen aurpegia guzia beterik lumas txuris ta urdines Jangoikoaren permisios; guziak irris ta arriturik ortas. Azkeneko bere bearrez atra zue olloa, konfesatus bere kulp, ta barkazio eskatus. Rosak in zue orazio, ta gelditu ze ura libre.

3. Zazpi urtetan ia joaten ze ur eske onzi bateki Amaren manamenduz. Berze bati an autxi zekio berea: negarrez asi ta zio, Rosak autxi ziola. Arren Ama itzuli ze leona bat bekala Sandaren ta bere Amaren kontra erranes milla gaixtakeria, zirela hipokrita enbustera batzuk. Sufritzen zue guzia Rosak, baña etzukei palakatu, goratu zitue begiak Zerura, ta bildurik zati guziak unitu zire istantean, ta itzuli zio bere onzia oso. Ura damaturik erranas, ta guziak admiraturik milagroas. Nai ze sartu errelijosan an zen konbentu batean: Etzute admititu angoek, edo sobra aur, edo pobre izanez. Sandak erran ziote admitituko zutela gogotik ere il ondoan: ta kunplitu ze, ta an daukate gorputz sandua oso ta fresko. Baña bere etxettoan egin zue zelda mear ertxi bat kabitzen zuena sollik Sanda, ta ol bat guatzetako iago arropa ta deus gabe. An egoten ze orazioan ta penitentzian ain erru, ezi gorritzen zire pareteak odol inozenteas, ta askotan geiegis erortzen ze desmaiatu bere odolaren gañean. An heri egon ze denbora asko, ta alaere etzitue beraxtu nai bere rigoreak, solamente utzi ze atratzera andik berze kuarto batera. Urte batez iraundu zue heritasunean: azkenean irur egunez mintzorik ta deus gabe, uste zutela guziak zegola ila: baña ez, ezi orduan ze, noiz Espirituan eramani Jangoikoak erakutsi zition gloria ta infernua, emengo penak, ta ango kontentuak. Itzulirik berebaitan asi ze kontatzen ikusi zuena, ta exhortatzen egitera penitentzia. Gau gartan bisitatu zue Maria Santisimak, ta manatu zio joa-



teko biramonean elizara, ta an ebaki biloa ta bestitzeko San Franziskoren habitua, zein aurkituko zuen bururdikoaren pean. Guzia egin ze manatu bekala, arriturik mundua alako meioria ustegabekoas. Jaintsirik habitu gura, oin urtuxian, Kristo guruzifikatuareki eskuetan atra ze karririk barna predikatus penitentsia, beraxtus biotz gogorak, lotsarritus herejeak. Gañarako denbora pasatzen zue bere zelda gartan kastigatus gorputzto inozente gura arrigarrero, ta arima sustentatus orazioan Jangoikoaren komunikazioareki. An izan zituen bisione ta erregalo soberanoak nork entenda? Andik beterik Jangoikoaren espirituaren suas Apostola berri bat bekala zebila karririk ta elizak barna predikatzen ebanjelioa, ia sarturik adinaren bedratzigarren urtean, konfirmatus Jangoikoak bere itza infini-zio bat milagroeki, zelarik bat, nola baize ain txipittoa, goratzea airean gora oñen peko arri edo alkiareki bateo, ta ala egotea airean, bukatu arteo predikua. Konfunditzen ta garaitzen zitue herejeak, zeñek akusatu zute sorgin ta eroa bekala, ta bilotik arrastaka eraman zute karzelerara, ziola bitarteo Biba Kristoren fedea, biba ene Jangoikoa. Sententzia emanik iltze-ko aur inozentea, beldurrak gora zeien jendea, kontentatu zire atrarazteas Ziadadetik bere burasoeki. Atra zute agitz maltratatus, ta utzi zuzte kanpoan, Abenduaren erditsutan elurra zreunsala. Gauak artu zitue oian batean: pasatu Jangoikoaren graziaz bizirik, ta biramonean ellegatu zire Soriano deitzen den ziadadean. Konbertitu zue guzia bere predikueki, ta errateareki fite ilen zela Federiko enperadorea, nola baize: orreki bakean Eliza, ta Aita Sandua iges Franzian zegona itzuli ze Italiara. Sandattoak an ta inguruko errietan konbertitu zue infinizio bat arima. Bitorkianon espezialki Jangoikoaren Birtutea obratzen zuena Sandan. Ze an emasteki sorgin hereje gaixtofikatu bat, Deabruaren arte gaixtos engañatu zuena jendea, ta Sanda artarazi Aita Sanduaren obediensiatik. Sanda egietafedearen progutako, inarazirik hogera andi bat, sartu ze artan, eta egon ze asko denboras sugarretan, mellarik sentitu gabe: oneki konbertitu zue ura, ta jende guzia fede katolikora.

4. Aita Sandu Inozenzio IV.ak Franziatik itzuli ta aiturik Rosaren miragarriak 1252 urtean eman zio autoridade apostolikoa, predikatzeke ebanjelioa: eta enkargatu zitue gizon señalatuak eskribitzeko Sanda gonon bizitza ta milagroak, zelarik orduan amabi urtetakoa. Itzulirik Viterbora enpleatu ze Apostola bekala bizpirur urtez orañio predikatzen, ta obratzen prodijioak prodijioen gain. Amabortz urtetan erretiratu ze bere zeldatto gartara, prebenitzeko bijsa eternidadera. Bi urtez egon ze an borondatezko martirio, edo purgatorio bat lotsa dezakena leitzeas ere. Berak etzue bekatuareki ala pagatzeko, baña pagatzen zue munduko bekatuengatik Jesu

Kristoren pasioaren unionean. Bi urteak beterik, ikusi zutelaik Amak ta donzella akonpañatzen zutenek guzia flakurraturik ta angabeturik, ustez iltzen zen, Sandak erran ziote, ez egin negar, ezi barin bada zeren iltzen nai zen, orañio ezta ordua. Eta arri bat arturik eskuan, arreki ematen ze golpe temenarioak bularretan ziola, ni naiz in bear dutena nigar: atra beitez ene begietatik negarrak ain abasto, ezi logra dezaten, Jauna, ainberze ofensa iten zaizkionen barkamendua. Eta segitus ala golpatzen, erori ze desmaiatuareki lurrean. Denborain buruan itzulirik berebaitan, ta zelda beterik argitasunes, asi ze ematen graziak Jesus onari bisita egiten zionas. Bereala eskatu zitue Elizako Sakramentuak; ta errejibitu ondoan guziak ezin iagoko debozioareki, arturik eskuetan Kristo guruzifikatua, ta besarkatus amorosoki, mintzatus afekto guziareki, baitare exhortatus presente zeudenak desegiten zirela negarrez, azkenean erreklinatuarik ol gartan bere guruzeareki entregatu zio bere arima zori onekoa, zein uso argi eder baten idurian ikusi ze igaten Zerura, adinaren amazapi urte, ta amar ilabetee-tan. Ongi enpleatuak: denbora gutis bizitu ze anitz Jangoikoaren. Gorputz sandua dago Viterbon Santa Maria arrosakoen konbentuan ain oso eder, ezi Monjaek aldatzen dute bestimentas, nola balego bizirik & &.



Urriaren 8.an

San Adriano, ta Santa Natalia

1. Nikomedian biziturik zenbait denboraz Diokleziano ta Maximiano Enperadoreak, bein bata, bein berzea enpleatu zire beti egiten Martirak beren krueltasun inhumanoas, akabatu naiez Jesus onaren adiskideak, nola balire aien inperioaren kontrarioak. Aiek manatu, ta Ministroek tormentatu iten zute: Martirek sufritus triunfatu, ta Jangoikoak glorias koronatu. Ikusirik Martiren korajea, ta alegranzia martirioan, kombertitzen zire zenbait infieletaik federa: eta ala len Ministro bekala enpleatzen zirenak tormentatzen, gero Kristio bekala uzten zire berak tormenta zezkiten. Ebetaik bat izan ze S. Adrian, ogeitazorzi urtetako adinean Enperadorearen Ministro ta Kaballero prinzipala, zeñek ikusirik Martiren alegranzia martirioetan, juizio ona izateareki, ezaundurik etzela on lurreko gauza, baizik Zerukoa, itxeki ze Jangoikoaren amorean, ta konfesaturik ura ere zela Kristio, asentarazi ze Martiren listan bera ere. Aiturik Enperadoreak bereala preso egin ta sarrazi zue karzelean, non zeuden berze ogei ta irur Kristio. Nola egin zen preso Adriano, eman zio kontu mirabe batek arren Andre Nataliari, zein baize Kristio ixilkiaz. Eztaike sinesta zenbat alegratu zen mezu goneki Andre ona: eta ezkondurik etzue baizik amirur ilabete. Joan ze boladan karzelera, ta botarik senarraren oñetan apatzen zitue grilloak, ta erraten zio, Zori onekoa zara, ene Jaun Adriano, baituzu fortuna aurkituas ondasunak utzi eztizutenak buratsoek. Ia zoaz seguro Jesu Kristogana, noren eskuan utzituzun tesoro guziak. Zuk zeureki daukazu Jesu Kristo: etzaitela lotsa. Ez ajolarik lurreko ondasunes, eztare infielen meatxues ta tormentues. Beira emen zureki dauden Sandu Martir geben konstanzia: eta konfia Jangoikoaren grazian lagunduko baitizu bear orduan. Eta belaurikatus berze Martiren oñetan Andre Sandak apatzen zitue aien grilloak, ta eskatzen ziote anima zezatela beraren senarra, logratzeko gloriako korona betirokoa.

2. Au egin ta despeitu ze Natalia guzienganik, seguraturik Adrianok abisatuko zuela noiz bear zen izan martirizatu, zetorren egotera presenten arren martirioan. Orren kasos zenbait egunen buruan ia uste zuelaik zoezila sentenziatzera Adriano, karzelzaiaren lizenzia logratu dirus ta itz emateareki itzuliko zela, atra ze karzeletik oateko despeitzera Natalia, ta abisatzera nola ia zen arren martirioaren ordua. Ellegatu baño len etxera, jakin zue Andreak eldu zela Adriano libre: ta gogoraturik ori bide zela

ukatugatik Kristoren fedea martiriotik iges, tristatu ze agitz: eta ikusi zuelaik etortzen, bota eskuetan zeukan lana, joan laster, ta ertxi zue etxeko ataria, eztaiea agertu ene begien alzinean eskapatu dena Sanduen konpaniatik, ta gezur in diona bere Jaun ta Jangoikoai. Eta urbildu zelarik iago, erraten zio etxe barnetik, o gizon desbenturatu, ta desleala Jangoikoai, zergatik asizina, ez bukatzekos? Zergatik itzuli zara atzerat, pelean asi baño len? Ah: ene desdixatua, zori gaixtoan jaioa! Ez nue mereji nik izatea Martir baten bizikide: emendik alzina deituko naute errenegatu baten Konsorte. Momentu batez gozo izan nue, ta betikos izanen dut alkaizun ta deshonne. Atarian zego Adriano aditzen, ta gozaten aditzeas, ta indartzen biotza geiago korajes ta arimo ones, ikusteariki koraje alakoa bere Andreabaitan: zeñi azkeneko sinetsiarazirik etzela eldu iges arimofaltas, baizik arren konbidatzera egoteko presente martirioan, ofrezitu bekala, idirikik ataria, errezibitu zue gozosa, ta animatzen zire elkar. Eta Adrianok beldurak bera iltzeareki enbargatuko zuztela ondasun guziak, ta etziotela Andreari utziko zereki bizi, galdegin zio ia erreserbatu zuen beretako bear adiña. Andre jenerosak errespondatu zio, etzazula memoriak ere, ta ez ajolarik egin munduko ondasun-itxures. Oroitu sollik Zeruko eternoes, zein emanentizun sarri gozatzeko Jangoikoak betikos. Konbersazio geben eratean ellegatu zire biak karzelera, eta Andre onak belauriko Martir Sandu gaiei apatzen zizkiote beren kateak: eta ikusirik asko llagaturik odola ta apostema zeriotea, oial garbies txukatzen ta kuratzen aitu ze zazpi egunes. Alako debozioa zue!

3. Manatu zue Enperadoreak presentatzeko ogeitairur preso gaiek, eta Adriano loturik eskuak atzerat: berexirik au apart progatzeko, berze Martirek animatzen zute, ea Adriano, orai da ordua artzeko bere gurutzea, ta segitzeko Jesu Kristo guruzifikatua. Ez lotsa tormentuengatik; berra Zerura, ta korona zuretako prestaturik an. Nataliak erraten zio, para zazu biotza Jangoikoan; arimo, ea: trabajua labur, ta premia betirokoa duzu. Oro zaite zenbat pasatu duzun lurreko erregeri zerbitzatus sari eskas txar batengatik: orai gloriako errege andiaren amorez pasa gogotik bear dena. Tiranoak examinatu, ta ikusi zuelaik ain konstante konfesatzen Kristoren fedea, azotarazi, ta golparazi zue fuerteki laur berdugoen eskus. Eta Natalia presente egon zena joan ze bereala, ta abisatu zitue berze Martirak, nola Adriano asi zen bere pelean, enkomenda zezatela Jangoikoai. Oroat egin zue berze eman zizkioten tormentuetan, sustentatzeko Sanduen orazioeki. Gero ala maltrataturik itzularazi zue karzelera Adriano: Natalia zoeie aldakan eskuas alhagatus erraten ziola, o ene begien argia, ta ene biotzaren alegria, zein dioxosoa zaren! Bada iltzen zara iltzenagatik zure



amorez. Ellegatu zelaik karzelerera, berze Martirek ellegatus nola zeizken arrastaka, ta ematen ziote zori ona, besarkatzen, ta animatzen zute bukatzera falta zekiona ilartaño. Berak errespondatu zue aien orazioei zor ziola izan zuen arimo ona. Baña Natalia zegokio garbitzen odola, ta oneki unjizten bere burua, nola unghendu prezioso bateki: eta arren exenplus joan zire berze señora zenbait karzelerera zerbitzatzeko Martir Sanduei. Ori xakinik manatu zue ez uzteko emastekirik an: baña injeniosoa da karidadea: Nataliak bereala ebakirik bere buruko biloa, ta jauntsirik gizonki gisara segitu zue ongi egiten. Tiranoak manatu zue abarrikatzeko zangoak ta eskuak Martirei. Nataliak erdetxi zue, berdugoe in zezaten lan goi Adrianoreki len lenik: eta o Andreamen balorea! ebakitzerakoan, ez solamente zego an, baizik berak iduki zitio oñak, ta eskuak ebaki bitartean: eta martirio goneki akabatu ze S. Adriano, ta berzeak. Gero erretzeko gorputzak botarazi zitue labe andi batean sugarretan: baña derepente forjaturik tenpestade erru bat ortots oñastur ausnarrieki Jentilak batzuk il, ta guziak iges joanik, S. Nataliak ta berze Andre on gaiek atrarazi zuzte gorputz sanduak, aurkitu baizire oso mellarik gabe, ta bilo bat erre gabe. Gero ixilkias Kristioek eraman zuzte itsasos Konstantinoplara. S. Nataliak artu zue Adrianoren eskua, ta enbalsamaturik guardatu zue nola errelikia prezioso.

4. Gelditurik alargun, gaste, noble, abrats, ta ederra, Jaun andi batek eskatu zio Enperadoreai, mana zezon ezkontzeiela arreki. Enperadoreak biali zio mezua: Sandak artu zue irur eguntako epea: ta bitarteo eskatzen zego Jangoikoai kontino S. Adrianoren merejimentus, etzezan permiti berze nioreki ezkontzea. Izan zue errebelazio, eskapa zeuela bereala itsasos Konstantinoplara, non zeuden Sandu gaien errelikiak, andik nai zuela Jangoikoak eraman beregana aien konpañian. Ala egin zue, guzia utzirik, sollik S. Adrianoren eskua arturik: itsasoan Sandua agerturik ta libratuturik peligro andi batetik, ellegatu ze, ta sartu ze Sandu gaiek zeuden etxean, adoratu zitue belauriko, paratus S. Adrianoren eskua arren gorputzgañean. Gero erretiratu ze ganbara batean deskansatzera biajearen nekea. An agertu zekio S. Adriano erraten ziola, ongi etorria zarela ene arreba Natalia, Jesu Kristoren esklaba, ta Martiren alaba, atoz deskansatzera gureki, ta artzera premio mereji duzuna. Akorduratu ze, ta kontaturik fielei ikusi zuena, lokartu ze berriro, ta iltze.

Orai zeintas admiratuko gara geiago, edo S. Adrianoren konstanzias tormentuetan, edo S. Nataliaren ferboreas iltzen laguntzean ain maite zuenari? Zer Jangoikoaren amoresko sua ura, aditu orduko preso zela bere senarra, joateko laster, libratzera ez, bai animatzera il zeien gogotik

Jesu Kristogatik? Ertxi ziolaik etxeko ataria, ez usteko sartzera, ustez eskapatu zen? Iduki zitiolaik eskuak ta oñak, ebakitzerakoan? Apatzen zituelaik kateak, txukatzen odola, gizonki gisa bestitzen, ta iteko guzia karzelean? Nork eztakusa emen Jangoikoaren eskua, ta au dela errelijione egiaskoa, zenen amorez ala iltzea ain on, ain gozo deseagarri zaiote?



Urriaren 11.an

San Proto ta San Jazinto Martirak

1. S. Proto ta S. Jazinto izan zire mutil zerbitzukoak Eujenia Romanaren, zein baize Senadore Feliperen alaba, jendaki agitz noble honratuarena. Aita nonbraturik Prefekto Ejiptoko Alexandriaren joan ze bere familiareki arara. An alaba Eujenia, baize entendamentu anditakoa bere bi nirabe gaikei enpleatzen ze estudioan, eta leitzeareki libru onak, eta argitzeareki Jangoikoak ezaundu zute Jentilen itsutasuna ta engañua adortzean Jangoikotako gizon bekatari izanak, ta Deabru gaixtoak: eta eztaikela izan baizik Jangoiko bat, ta au ona, garbia, ta Sandua ezin iagos. Ezaumentu goneki ez solamente egin zire Kristio, baitare obeki zerbitzateagatik Jangoikoai, sartu zire Monasterio batean irurak, bestiturik ura gizonki gisara: Ezaundu zue Jangoikoaren argis Heleno Abadeak, baña Jangoikoak ala nai zuela, admititu zue bieki Eujenia deitzen zela gerostik Eujenio. Amn sanduki bizi zire guzien eratean espezialki Eujenio, ezi Heleno ilas geros ura egin zute Abade famaturik santidatea konbentutik kanpora ere... Agitu ze Alexandrian heri erortzea señora bat deitua Melanzia, eta deiturik Eujenio Abadea, onen orazioen birtutez ura sendatzea: baña agitu ere ze sendatu ondoan ura afizionatzea ta amorostea Eujenios, ustez gizonkia zen, ain itsukiro, ezi tentatzen zue bekatara: Erreprehenditu zue serioki, ta despeiturik ordu gaixtoan joan ze bere Konbentura. Señorak errabiaren utses goratu zio testimonio falsu indignoa publikatus arimaik ta alkerik gabe, nai izan zuela deshonoratu bortxaz Eujenio Abadeak. Kontu eman ziote Prefektoari, baize Felipe, deus etzekiena bere alaba gartas; ezi ura in ze Kristio ta Monje, Aitaren ixilkiaz. Presentarazirik bere alzinean Abade akusatua ellegatu ze akonpañaturik Proto ta Jazintoreki. Prefektoak asarre grabe galdegin zio, ia Kristok beren Jangoikoak erakusten zioten deshonoratzea bortxaz señora honratuak? Orduan Eujenio deituak errespondatu zio, bada denbora ixiltzeko, ta denbora mintzatzeiko. Orai agertuko da egia den Melanziak diona, ta orrek erreprehenditzen didana. Eta idikirik eskues habitua alzinaldetik, erakutsi zitio bularrak, ona non duen bere alaba Eujenia. Arriturik gelditu zire guziak, ta Melanzia alketurik, eta Prefektoa admiraturik ta seguraturik bere alaba zela, errateareki ere bi zerbitzuko izanek. Eta Jangoikoak argiturik bera ere egin ze Kristio, ta gero Martir. Itzulirik Romara Eujenia Proto ta Jazintoreki, aien exenplu ta konseju ones anitz konbertitu zire. Jakin zue Galie-

no Enperadoreak, eta Eujenia tormentaturik degollarazi zue Kristoren fedeagatik. Martirio bera pasatu zute Protok ta Jazintok Kristoren 263 urtean, egungo egunean. Eujeniarena zelebratzen da Abenduaren 25.an &.



Urriaren 13.an

San Maurilio Obispo Auxerren

1. S. Maurilio Milango seme jendaki anditakoa azi ze S. Martinen doktrinaren esneas. Gero hereje Arrianoen errabias botarik andik S. Martin, ta etorririk S. Anbrosiok ordenatu zue S. Maurilio, zein, bere Aita faltaturik, Jangoikoaren amarez guzia utzirik, joan ze bere S. Martinen billa, baize ia Obispo Franzian Turona edo Turs deitzen den Ziudadean. Beraren konpañian egonik, sanduago eginik, ta beraren eskus ordenaturik Sazerdote, iago zerbitzu in naiez Jangoikoai joan ze Auxierre deitzen denera. An aurkiturik tenplo bat konsagratua Jangoiko falsuei Demonio egiascoe, biotzeko miñez orgatik naiak desegin ura, ta etxakin nola, jarri ze

orazioan: eta istantean Zerutik jautsirik suak erre ta errautstu zue guzia an zen guziareki. Leku gartan fundatu zue Sanduak Jesu Kristoren honratan eliza bat debozio anditakoa, gobernatu zuena berak amabi urtez: obratus Jangoikoaren birtutez milagro anitz ta andiak. Ala famaturik Sanduak artu zue iago arimo, egiteko Demonioei gerra iago. An urbil ze idolo famatu bat agitz zelebratzen zuena jendeak. Joan ze arat, ta formatu guruzearen señaleara, lurreratu ze idolo gura, ta atra zire andik Demonioak, utzirik infernu-urrin bat. Gero leku gartan egin zue monasterio bat, eta anitz obra on. Pasatzen zire bein Sanduaren etxe aldetik Merkatarik batzuk zemazkitenak Italiatik erosiak anitz esklabo saltzeko Españan. Ebetaik bat eliza ikusteareki sartu ze lasterka an eskatus Sanduari anpara zezan Jangoikoas. Urrikaturik Sanduak eskatzen zio Jabeari; onek etzio ajolarik, ta manatzen zue atrazteko andik. Sandua paratu ze belauriko Jangoikoai negarres kautiboagatik: derepente heriturik Jabea an gelditu ze ilik. Arriturik gañarakoak, Sazerdote Sandua berriro lastimaturik jarri ze orazioan ilagatik, eta ila biztu ze, ta esklaboa libre gelditu ze. Zein onak diren Jangoikoaren gizonak guziendako! Bai, baitakite on dela Jangoikoaren gustoa ona ta ongiegillea infinito.

2. Joan ze S. Martin Auxiererra, ta inarazi zue ta konsagrarazi Obispo ango S. Maurilio: eta Jangoikoaren gustora zelako señaletan, jautsirik Zerutik uso bat jarri ze arren buruaren gañean. Etze goganditu dignidade berriareki, baizik bete bai kuidados, eta len Sandu zena gero Sanduago. Agitu zekio bere ofizioan lanze bat ederki adiarazten duena Artzai espiritualeei dilijenzia bear dutena Sakramentuen administrazioan. Meza

erraten zegon batez, etorri ze Ama bat bere humeareki (zein logratu zuen Sanduaren orazio) iltzen baizego, eman zezon Konfirmazioko Sakramentua: berze batzuek diote ezi bataiokoa. Egon ze deteniturik mezan luze Sandua egun gartan debozioaren erregaloareki: eta bitarteo iltze aurra Amaren besotan. Bukatu ondoan meza, ikusirik agitu zena, eztaike sinesta biotzeko miñ artu zuena desgrazia gartas, ote zen beraren kulpas iltzea Sakramentua gabe. Niolaterre konsolatu etzeike, naiz eman zen egitera iago baru, penitenzia, ta orazio satisfakziotako. Determinatu zue, bere eliza utzirik, joatea ordik orrat; eraman zitue bereki errelikarioen giltzak: eta itsasonzian zoeielaik, erori zekizkio ustekabez giltza gaiek urean. Emen pena berriturik erran zue, giltza goiek ikusi arteo neure eskuetan, ez naiz ni itzuliko neure elizara. Joan ze agitz urrun, eta leorreatan baraturik, ajustatu ze Jaun bateki baratzelai, edo hortelantotako, ala bizia atratzeko, ta pagatzeko ala bere kulpa uste zuena. Bitarteo bere ardiak afljiturik etxakinez zer egin zen beren Artzai ona, eta abisaturik Zerutik, bear zutela joan billa, autaturik ortako laur gizon señaletuak atra zire billa. Zazpi urte pasaturik etzela ageri, ia itzultzerakoan Bretañako portu batean leitu zute arrian letrero gau, Emendik pasatu ze Maurilio Auxierreko Obispoa. Animaturik orreki asi zire pasatzen itsasalde gura. Doazelaik, ara non saltatzen zaioten onzira arrai bat, zein idikirik, aurkitu zire barnean giltza batzuk, eta beiraturik ongi ziote, ebek dire gure errelikarioko giltzak. Ea ots, emendik joan da gure Obispoa, baldin ezparinbada ito emen. Pensamentuan zeudelaik, Jangoikoak inspiratu ziote segitzea alzina: Ellegaturik leorreatan, ta Jaun garren etxean, ara non ikusteunten Maurilio eldu dela berduraeki Nausiaren. Ezaundu zute, arritu zire, ta belauriko paraturik oñetan, erranez nor ziren ta zertara etorri ziren, eskatzen ziote gogotik itzuli zeila aieki, guziek nai zutela, bear bekala. Turditu ze guti bat ikusteas aiek ta aien negarrak, ta inklinatzen ze itzultzera: baña ez, Jaunak, erran zue, ez naiz itzuliko, zeren daukat Boto eginik ez itzultzeko, itzuli arteo ene eskura giltza erori zekizkidanak itsasoan. Ona non dauzkien, erran zio zeuzkien atrarik: eta kontatu ziote zer gisas. Famatu ze lanze gau leku gaitan, eta admiraturik guziek beneratzen zute Obispo ta Sandu bekala uste zutena zela baratzelai pobrea. Alaere etze itzultzen, alik eta enkomendatu arteo Jangoikoai gau batez osoa orazioan. Lokumatu zelaik goizerat, Aingiru batek erran zio, Jaiki zaite, Maurilio, ta zoaz zeure Elizara zeure ardiengana, zein zure orazioengatik guardatutu Jangoikoak, eta emanen dizu bizirik mutiko gura, zeñengatik in duzun ainberze nigar ta gauza. Oneki itzuli ze, ta izan ze errezi bitua aleganzia ta festa andieki: baña niora baño len, joan ze aur garren obrara:



an etzinze auspeska otoiez eta negarrez: eta bera jaiki oraziotik, ta muti-koa atra ze obiatik bizi sano ta sendo, zazpi urte baño iago egon zena ilik. Eman zio Konfirmazioko Sakramentua; paratu zio izena Renato, au da berriz jaioa: eta Jangoikoak au ere egin zue Sandu, eta ango Obispo S. Maurilioren ondorean. Segitu zue Artzai onaren ofizioan, iago ta iago sandutus bere arima ta berzerenak, beti beiratus sollik Jangoikoai plazer in naiez. Azkeneko ogeitamar urte Era Obispo, beterik grazias, birtutez, obra ones, ta milagros, errezipiturik ederki Elizako Sakramentuak, entregatu zue bere espiritua Jangoikoaren eskuetan. Aleganzia andia izan ze egun artan Zeruan, tristura lurean, arara joateas, ta emen faltatzeas Sandu bat ain admiragarria &.

Urriaren 16.an Santa Eufemia Birjin ta Martir Kalzedoniakoa

1. S. Eufemia, zeñi diogun debozio leku gebetan arrazioreki, ze buratso ilustreen alaba Kalzedoniako Ziudadean jaioa, zuena Aita Senadore, edo Konejuko Jauna an, eta bera agitz birtutetakoa, juiziosa, galanta, garbi ederra. Eginten zelaik an festa andi bat Marte deitzen zuten Jangoiko falsuari, guziak manaturik biziaren penan akuditzeko, Sandak etzue nai izan du joan festa urde gartara, ez mantxatzeagatik bere arima. Eta nola baize persona ain prinzipala, bereala notatu zute falta arren sazerdote falsuek, eta akusatu zute Sanda Prisko Prokonsularen presenzian. Onek preso ekarrazirik nai zue obligarazi adoratzera aien Jangoikoak, ezperen pasaraziko zitiola tormentu arrigarriak. Sandak etzuelaik ajolarik arren meatxues, iduki ondoan karzelean zenbait egunes, atra zute audiencia publikora, non ikusirik ain konstante konfesatzen ausarki Jesu Kristo Jangoiko ta gizon gure Salbazalea, manatu zue atormentatzeko Sanda errukiro: azotatu zute burriñasko zaroeki: deskoiuntatu, ta atra zizkiote ezurrrak beren juntetaik: Lotu zute errueda bati auxteko ezurrrak zatika. Sanda armaturik guruzearen señalear, eta Jesus bere Esposoa baitan zuen konfianzas zegokio eskatzen anpara zezan: Anparatu zue bereala libratu erruedatik, ta paratus bera sana guzis, ta argi-ederrago len baño, lotsatus berdugoak eta saionak. Itxeki zute sugarretan labe bat beterik zarmendus, istupas, azufres, ta pikes: botatzeko an arrimatu zirelaik bi Ministro, ikusi zute Sandaren bi aldetaik bi Aingiru prest defendatzeko: eta etzire aiek atrebitu ukitzera. Manatu zitue Tiranoak berze bida egiteko lan gura: baño biak errepispildu zire an; eta Sanka atra ze libre bilo bat ere erre gabe. Nor etze desengañatuko prodijio gebeki? Baña guzia uste zute zela sorginderia Deabruaren arte gaixtos.

2. Manatu zue paratzeko Sanda dilindan, loturik oñetaik arri pizu batzuk, ala deskoiuntatzeko: baño etzue atra protxurik. Berriz oraño butzu bat beterik ures, arrai, ta zapore-genero anitzes, botarazi zue an barnean, jan ta konsumi zezaten: baño etzekio baliatu. Aiek izan ziote Sandari errespeto, erakutsis berai, zer in bear zuen, nai baluke ikasi. Prebeniarazi zitue zerra ta zartegi andi batzuk; zerratus bekala mienbro sanduak fritatzeko suan. Baña zerrak beratxturik argizariaren gisara itzuli



zire, eta itzali ze sua, ta Sanda triunfante gloriosa, garaiturik ura, sua, burriña, animaleak, berdugoak, Tiranoa, ta Demonioa. Eztela baratzen oraño? Manatu zue botatzeko Eufemia laur leonei, ta irur artzei. Zertako ainberze donzellatto baten kontra? Baña defendatzen duelaik guzis poderosoak, oroat da paratzea laur milla. Sandak ia joan naiez bere Esposo dibinoagana Zerura, eskatu zio, iaketa mostratu zuen ain ongi bere podorea libratu ainberze tormentuetaik, etzezala mana barka zezoten animale gaiek, baizik eraman zezala arren espiritua. Aditu zue Jaun onak, ta egin zio gustoa: ta ellegaturik artz batek, ozka bat egin ta utzi zue ilik an, bate-re iago ukitu gabe: ta berze leonak ta artzak zeude inguruan erreberente lamikatzen oñak Sandari. Iltzerakoan agitu ze terremoto andi bat, eta jendea lotsaturik joan ze iges. Orreki S. Eufemiaren buratsoek izan zute leku artzeko gorpuz sagratua ta ortzitzeko an urbil, negarra zeriotela, tristoraz ez, bai kontentuz. Asko milagro egin du Jangoikoak Sanda gau dela medio, ta ala da sanda famatua. Kontatzeko da milagro agitua bere tenploan zelebratu zelarik Konzilio Kalzedonense jenerale andi gura sei eun ta ogeita amar Obispoena S. Leon Aita Sanduaren, ta Marziano Enperadorearen denboran, kondenatu zuztelai Dioskoro ta Eutikesen herejiak. Alegatzen zute herejeek, etzela ongi eman sententzia egiaren amorez, baizik Enperadorearen errespetos. Katolikoek proponitu ziote para zeizela Sandaren obian ala aien, nola eben fedearen konfesioko librua berez: eta zein ere Sandak aprobatzen zuela mostra zezan, ura admiti zeuela, egieta-fedeskoa bekala. Egin zute ala; idikirik Sandaren obia edo urna: paratu zuzte arren gañean bi libruak. Ertxi ze gero urna: eta orazio eginik mostra zezan zein zen egia: irur egunen buruan idikirik, aurkitu zute Katoligen librua zeukala Sandak eskuan, ta herejeena botarik oñen pean. Eta edatu zuela Sandak eskua, ta eman Enperadoreari Katolikoena: baita gauza admiragarria, konfirmatzeko Kristioak, ta konfunditzeko herejeak. Pasatu zue martirioa Dioklezianoren denboran.

Urriaren 20.an San Eustakio ta bereak Martirak

1. Admiragarria dela Jangoikoaren probidenzia labratzean bere San-kuen bizitzaren tela txuris eta beltzes, ones eta gaitzes, naiz guk ezin entenda, ageri da S. Eustakioaren ta bereen bizitzan. Omen ze ura Kabilero ta Kapitan izana Judioen kontrako gerran, Bepasiano ta Tito Enperadoreen denboran, noiz ere izan zuen lagun Trajano, ellegatu zena gero izatera Enperadore. Omen ze ura ezkondua, eta naiz soldado ta Jentil, gizon prestua, modestoa, benignoa, ta ongi egin naia. Dibertitzen ze eizian: eta bein bakarrik segitus orkatz edo orein bat andia arrapatu naiez, bera gelditu ze arrapaturik Jesu Kristoren: zeren ezi baraturik oreña derente, ikusi zue arren adarren ermean guruzifikatua anitz argi errañu barratzen zuela, ta aditu zue erraten ziola, Zergatik persegitzen nauzu ni? Ni naiz Jesu-Kristo, il nitzana zure amorez, eta nai zaitutena salbatu. Arritu ze ura, ta urtiki ze lurrean, ta akorritu zelaik galdegin zio Sauloren gisara, Jauna, zer nai du in dezaten nik? Jaunak, zoaz Ziudadera zeure andre ta humeeki, bataia zaitzen Kristioen Sazerdoteak: gero atoz onara, eta erranen dizut nautena in dezazun. Bataiatu zire guziak; bera deitu ze Eustakio: andrea Teopiste: bi semeak Agapio ta Teopiste. Gero leku gartara joan ta orazioan zegolaik Eustakio, agerturik berriro Jesu Kristok abisatu zue pasatu bear zuela asko trabaju: Deabruak tentatu ta progatuko zuela nola Job Sandua; baña manten zezala arimo ona, bere Majestadeak lagunduko ziola ta eginen zuela glorioso lurrean ta Zeruan.

2. Desagerturik bisione gura, itzuli ze Eustakio etxera: Kontatu zio andreari agitu zekiona, prebeni zeien trabajuetarako. Andik guti pestes il zekizkio nirabe guziak, baitare hazienda zituenak; ta aurkitu ze pobre, guzienganik desanparaturik ta despreziaturik. An ezin bisis, nai izan zue aldatu Ejiptorat; eta arturik bere bizikidea ta bi semeak, enbarkatu ze itsasonzi batean. Onziaren Jabeak amorosturik andreas, baize agitz ederra, azkeneko edeki zio erremediorik gabe: naiz libratu zuen Jangoikoak gero. Zeren ezi nai zuelaik bortxatu gizon brutoak, Jangoikoak edeki zio bizia, ta libre guardatu zue Sanda. Atra ze onzitik Eustakio triste bi seme gaieki: eta ellegaturik ugalde batera, zein etzuketan pasa mutikoek, berak nola baize arimo ta indar anditakoa, utzirik bata basterrean, berzea soñean arturik pasatu zue berze aldera; an utzirik au, itzultzen ze Aita bigarren semearen artzera: baña ellegatu baño len, beira zegolaik, arrapatu leon



batek, eta eraman zue. Penas beterik biotza, ta ezin zukelaik erremedia, goraturik Jangoikoai ta konformatus, bazoeie lenbiziko atra zuenagana: bitarteo ikusi zue otso bat ellegatu zela, ta arturik agoan zeramala; ezin erremedia Aita gaizoak. Nor ezta admiratzen Jangoikoaren juizioes, ta on bere maite eskojitueki? Orra len Jaun andi abrats honratua zena, ia uts bakar desanparatua! Goseak ez iltzekos, jarri ze Nekazari zerbitzuan Badilo deitu baten etxean: egon ze an trabajatzan amaborz urtez humil humila, niork etzekiela nor zen, etxideten noiz Jangoiko onak beiratuko zion, ta konsolatukozuen: zeñek berantzen duela iduri badu ere, beñere eztu desanparatzen bere eskojitua, beti dagokio beira.

3. Agitu ze Trajano Enperadoreak izatea gerra bat peligraskoa, eta nola ezauna baizue Eustakio esperienziak, nai zue egin Jenerale buru: baña xakinik bere desgrazietatik ausentatu zela, billarazi zue alde guzietatik. Mandatariek azkeneko aurkitu zute, ta ezaundurik gero ere eman zioze Enperadorearen ordena: eta kendurik tresena zar zatar gaiek, paratu zizkiote gala ta insignia zemazkitenak Jeneralaren. Presentaturik non-bratu zue guzien Kargudun buru Enperadoreak kontent konfiaturik atrako zela ongi. Ala agitu ze. Garaiturik, urraturik, deseginik etsai guziak, itzultzen ze biktorioso triunfante. Baraturik erri batean bidean errepausatzeko tropa, agitu ze, soldadoen ermean usatzen den bekala, kontatzea nork bere kontuak eta goraberak. Batek erran zue, nik nue Aita Kapitan famatua abratsa, eta Ama agitz galanta, anaia bat ere bai gasteagokoa ni baño. Etxetik atra gina guziok, eta enbarkatu gina itsasonzi batean, nondik Aitareki atra gina negarrez; eta gerostik onat sekulan eztut ikusi Ama. Ugalde bat pasatzeko artu zue Aitak soñean ene anaia, ta pasatu zue, utzurik an basterrean; bitarteo leon batek arrapatu ta erman nindue, eta Jangoikoai eskerrak, etzi da gaizkirik egin, eta Artzai batzuek libratu nindute arren atzaparretaik, ta azi naute mutilzuturano: baña pena asko dut, ezpaitakit deus Aitas, Amas, ta anaias. Zego au ain txusto presente an, eta beterik kontentuz joan zekio besarkatzera, ni naiz zure anaia gura. Ni eraman nindue otso batek, eta libratu nindute Nekazari batzuek, eta mantenatu, in arteo soldado. Jangoiko onaren probidenzias erri gartan zego Ama ere zerbitzuan pobre gisa: eta aiturik kontatu zutena, ta ezaundurik bere bi semeak zirela, ala nola il ta biztu balitz berriro, zoraturik kontentuz arrapatu zitue biak besarka, ni naiz zuen Ama pobrea, ene biotzeko humeak: ni ere libratu nindue Jangoikoak. Ea goazen goazen, eska zogun Jeneralai lizenzia joateko geuren etxera. Joan zire Jeneralagana lizenziaren eske. Galdetus nongo ta nola ziren, klaro ezaundu zue aiek zirela bere esposa

ta semeak. Kontatus nola libratu ziren peligroetaik, gozatzen zire bedekatzan ta laudatzen Jangoikoaren ona.

4. Andik joan ze Eustakio bere familiareki, ta tropareki; eta sartu ze Roman triunfante. Orduko ia iltze Trajano, ta arren lekuan egin ze Adriano Enperadore, zeñek naiz egin zion anitz mertxede, baña graziak ematen zitue biktoriagatik bere Jangoiko falsuei, zeñen tenploetan etzelaik sartu nai Eustakio, ezaundu zue zela Kristio, eta etziokelaik utziarazi Kristoren fedea, kendu zio dignidadea ta insigniak, sarrarazi zue preso bere Andre ta semeeki, ta botarazi laurak leonei zatika zezkiten. Leonek barkatu zioze, ta manso ellegatus aien oñetara iten zioze agur, eta lamikatzen eskuak ta oñak. Ori ikusirik furosoago Adrianok manatu zue egiteko metalesko idi andi bat, zeñen barrendegian sarturik laurak, su emanarazi zio petik ta ingurutik, an errepispil zeizen. Martir Sanduak zeñaturik guruzeas sartu zire eskatus Jangoikoai, errezi bi zezkien sakrifiziotan: eta egin zezoten ongi enkomendatzen zirenei aien orazioetan. Aditu ze boza bat Zerutik ziola, aditu zuela Jangoikoak aien orazioa, ta zeukatela seguror korona. Irur egunez egon zire bronzeko idi suareki goritu gartan ertxirik: Ondorean idikirik, aurkitu zuzte gorputzak ilik, baña argi eder oso mellarik gabe, nola bizirik baleude. Milagro goneki anitz Jentil konbertitu zire Kristoren federa: gañarakoak ta Enperadorea gelditu zire konfuso arriturik. Agitu omen ze Sandu geben martirioa Enperadore Adrianoren lenbiziko urtean, eta Kristoren eun ta emezorzi, edo ogeigarrean. Nizeforok deitzen du S. Eustakio bigarren Job bere pazienziagatik: eta zierto den bekala fede Kristioaren progu andi bat, da ere exenplu ona pazienziaren ta konformidadearen emengo goraberaetan probidenzias &



Urriaren 21.an

San Mateo Apostolua ta Ebanjelaria

1. S. Mateo Apostolu ta Ebanjelaria, deitzen ere dena Lebi, ze Kana Galileakoan aioa, non Jesus onak egin zuen lenbiziko milagroa boda batzuetan itzulis tira ardo. Zue ofizios kobratzea trebutu ta errenta inperialak, ofizio aborrezitua Judioen erlean, ta alakoak deitzen zuzte Publikano ta bekatari. Zegolaik bere ofizio gortan Kafarnaunen jarririk alkian, pasatzean andik Jesus onak beiratu zio, ta erran zio, Segi nazazu ni. Bereala guzia utzirik joan ze Jaunaren atzetik, eginik instantean Apostolu zena bekatari: konfia dezagun Jangoikoaren piedadean, baña imitatus arren obediencia, uztean bekaturoko zeboak, ta segitzean Jesus ona. Gero presatu zio Jaunari konbita bat, zeintara deitu zituen asko publikano, ta bekatari, goza zezaten aiek ere Jaunaren ona: eta Jaun onak etzue errehusatzen: orgatik murmuratzen baizute Eskriba ta Fariseoek, sandu beren opinionean, baña errealdadean hipokrita gaixtoak zirenek ziotela, (Luc. 15.) *onek admititzentu bekatariak, ta aieki bazkaltzen du:* eta beraren Diszipuloei, (Math. 9.) *Zergatik zuen Maestruak bazkaltzen du Publikano ta bekatariaki?* Aiturik au Jesus onak etzue ukatu, bai erran itz konsolagarriak bekatarien onerako, *Eztute bear Medikuri ongi daudenek, baizik gaizki daudenek. Ikasazie zer nai duen erran diolaik, miserikordia nai dut iago ezi sakrifizio. Ezi ez naiz etorri deitzera justoak, baizik bekatariak.*

2. Jesus ona Zerura iganas geros, errezibiturik Espiritu Sandua, S. Mateok eraikitzen zue beraren doktrina dibinoa Judean: gero errepartiturik Probinziak, sortatu zekio Etio ia urrun agitz ta nekosoa. Joan baño len diote eskribitu zuela berze Ebanjelariak baño len bere Ebanjelioa Hebreoen itzkuntza edo linguaje usatuan: eta Ebanjelio gau aurkitu zela S. Bernaberen petxoan obian diote. Elleturik Etiopiara, bere itzareki, bizimodu penitente sanduareki, eta milagro anitz ta andieki argitu zue jende itsu gura, ta kristiatu zue. Kandazes Erreginaren eunuko garren errian ta etxean errezibiturik atra ze peleara bi sorgin zirenen kontra, zeñek Deabruen arte gaixtos kausatu zute anitz gaitz, ta zeukate lotsaturik jendea. Aiek ekarrarazi zuzte bi dragon lotsagarri Sanduari egiteko gaizki: Sanduak guruzearen señalearaki manso itzularazi zitue beren desertura. Jendeak admiraturik sinesten zue ia Sanduaren doktrina, ta etzue beldurrik sorgin gaies. Konfirmatu ze iago ikusteareki biztu zuela S. Mateok Erregeren alaba ila ezin biztu zutena gaixto gaiek. Kristiatu zire oneki Errege,

ta Erregina, beren familia, ta jendeketa andia. Eta Erregeren alaba batek Eujenja deituak aditurik Apostolu Sandua laudatzen birjinidaderean ederra ta abantallak, determinatu zue botos mantenitzea Birjin bizi guzian, eta erretiratu ze konbentu batean berze anitz donzellaeki Sanduaren konsejus.

3. Iraundu omen zue Sanduak Etiopian ogeita irur urtez plantatzen ta azitzen Kristiandadea, konsagratu tenploak, Obispoak, ta Sazerdotiak, salbatus arimak. Bitartean iltze Errege gura; ta arren lekuan sartu ze bere anaia Hirtako deitzen zena. Onek nai zue ezkondu Ifijeniareki: ortako mintzatu zio Apostoluari konseja zezon. Baña Apostoluak prediku batean, presente zeudelak Ifjenia ta bere errelijosak, baita ere Erregea bere Jaundieki, explikatuko ondoan nola Jangoikoak paratu zuen Matrimonioaren Estadoa, azitzeko gizagendea, explikatuko ere zue, zenbat abantalla daraman Estado Birjinalak, eta au profesatzen dutenak konsagratzen direla Esposa gloriako Erregeren, eta kendu nai liokena erori leikela beraren indignazioan. Agitz asarratu ze Errege berria prediku goneki, eta joan ze meatxu egines kontra. Gelditu ze Apostolua meza erraten: eta bukatu zueneko, an bukatu zute lanzaeki bera, utzirik aldea odolestaturik, ta alzinean gorputz ila. Orgatik diote belatzea ta konsagratzea birjinak erakutsi zuena lenik dela S. Mateo, eta Hipolitok deitzen du birjinidaderean biktima, zeren martirizatu zuten defendatzeagatik birjina konsagratua. Gero nai izan zue Hirtakok errendiarazi Ifjenia ezkontzera, baña etzuke-laik, manatu zue su emateko Konbentuari, an il zeizen guziak ererrik. Baña ikusi omen ze airean Apostolu Sandua itzaltzen sua. Hirtako heritu zue Jangoikoak lepra bat ain itsusi doloreskoareki, ezi errabias bera bere eskus il omen ze. Diote ere S. Mateok ordenatu zituela primiziak ta amarrenak, mantenitzeko Elizak, Ministroak, eta pobreak. Martirioa agitu omen ze Kristoren 90 urtean. Bere gorputza omen dago Salerno deitzen den Ziudadean Napolesen.



Urriaren 23.an Santa Tekla Birjin ta Martir lena emastekietan

1. S. Tekla, Aita Sanduek anitz laudarios laudatzen dutena, S. Pablo Apostoluaren diszipula eskojitua, eta lenbizikoa emastekietatik pasatu zuena tormentu ta martirio Kristoren fedeagatik, jaio ze Ikonio Likao-niakoan: ze donzella noblea, ta ederra alde guzietatik. Bere Amak ofrezitu zue Tamirides edo Tamiro deitu bati ezkontzeko. Denbora gartan ellegatu ze S. Pablo Ikoniora: ostatu eman zio Onesiforo gizon prestu batek: an biltzen zire aditzera Apostolua zenbait persona salbatu naiez beren ari-mak. Aietaik bat ze S. Tekla donzella gastea, zein aditzeareki itz sanduak Espiritu Sanduaren suas suturik atratzen zirenak, konbertitu ze alako maneran, ezi egin ze Kristio, ta konsagratu ze Kristori egines boto birjinitate perpetuoaren. Amak ori xakinik ta etzela ezkondu nai, ez solamente abisatu zue Tamiro esposo señalatua, baitare Jueza, nola trukatu zen bere alaba, ta mana zezala erretzeko bizirik berzeren eskarmentutako. O Ama indigna! Presentarazi zue Juezak, eta ikusirik konstante bere tema sanduan, inarazi zue hogera bat andia sugarretan, ta botarazi an Sanda. Sandak formatu zue guruzearen señalea, ta esperatu gabe bota zezaten, bera sartu ze animosa alegre suaren erdira, ta zego an mellarik gabe. Goratu ze derepente aize erru bat, ta erauntsi bat ain golpez, ezi jendea eskapatu ze, sua itzali ze, ta Sanda libratu ze, Jangoikoai eman esker milla milla.

2. Andik alzina enpleatzen ze baru, penitencia, ta orazioetan. Berri-ro akusaturik kondenatu zute botatzeko baseiziei, zatika ta jan zezaten. Eraman zute plazara, zegolaik ia bildurik jendetze andia oius Sandaren kontra, nola balitz guzien etsai gaixtoa, zergatik zen Kristio ona. Atra zire leonak ta artzak; eta uste zelaik putxikatuko zutela istantean, joan zekiz-kio manso mansoa kurtus buruak, festa egines, ta lamikatus poliki atento erreberente. Guziau etze askitu, desengañatzeko Jueza, ta ezauntzeko Jan-piko andiaren eskua: Bilarazirik anitz serpiente, suge, bibora, ta animale benenatu, ta guziak sarturik zulo edo leze batean, manatu zue botatzeko barnera Sanda: ia ia botatzera doazilaik, jausten da Zerutik su-flamada bat il zituena guziak. Oraño ere etze desengañatu; prebeniarazi zitue berze baseizia batzuk: ta loturik Sanda bi zezen furoei, agarrotxatzen zuzte pun-

zika goritueki, zatika zezaten: baña berzeetaik libratu zuenak libratu zue ontaik ere, izanez animaleak juizio ta humanidade iagotakoak, ezi gizonak. Noiz ere bait jendea, ta espezialki andre bat deitua Trifena, zeñen kontura egon zen Sanda, goratu zire oius, andia dela ta poderosoa Jangoikoa Teklak adoratzen duena: ta ala jendearen beldurrez utzi zue libre Tekla; zeñiek itzulirik Trifenaren etxera konbertitu zue bera, ta beraren familia guzia. Ondorean joan ze andik Seleuziara, non bizitu zen anitz urtez eman esenplu santidade guziaren, ta erakutsis ango jendeei zerurako bidea: azkenean gloriosa ainberze biktoriaeki adin andian igan ze Zerura gozatzerá Birjin ta Martiren korona. An dago gloriataturik, eta lurrean beraren memoria agitz zebraturik antiguasko Doktore geienenganik, S. Gregorio Nazianzeno, S. Epifanio, S. Ambrosio, S. Jeronimo, S. Krisostomo, S. Gregorio Niseno, S. Zipriano, Sebero Sulpizio, eta berze anitzenganik. Adoratzerá gorputz sandua Seleuzian joan ze urrutitik S. Gregorio Nazianzeno, ta anitz jende milagro agitzen zirenengatik bere obian. Martirek beren martirioetan eskatzen ziote Jangoikoai libra zezkien, nola libratu zuen S. Tekla. Eta S. Ziprianok bere martirioko egunean egin zue orazio gau, Asisti bezada, Jauna, eta bego nereki, nola egon zen S. Pablareki prisioneetan, ta S. Teklareki suan. Eliza guziak, norbait iltzerakoan, arimaren errekomendazioan eskatzen du, libra dezala arima gura, nola libratu zuen S. Tekla gloriosa irur tormentu agitz erru gaietaik. Orai bere gorputz sagratua omen dago Tarragonan, non kontaktzen duten Patrona, logratzeko Jangoikoaren miserikordia & &



Urriaren 26.an

Sanduak Zipriano ta Justina Martirak

1. Admiragarriak dire Jangoikoaren miserikordia ta manera usatzen-tuenak salbatzeko arimak, gure gaizkietatik atras onak, benenotik triaka, ta eriotik bizia. Egia gau ageri da S. Ziprianoren bizitzan, zein lenago izanik sorgin, tratu zuena Deabruareki gaizkirako, Jangoikoak aldatu ta egin zue bere du Martir manera gontan. Bizi ze Antiokian S. Justina infielen alaba, ta bera ere infiel lenbizian: baña gero Diakon sandu baten medios kristiatu ze bera, ta beraren medios Aita ta Ama. Ze donzella agitz prudente, agitz eder agraziatua guzien begietan, baña geiago Jangoikoaren begietan, zeñi plazer egiteagatik ofratu zio bere birjinidadeta betikos: Inbidias Deabruak nai zue apartarazi Jaunaganik: ortako mutil gaste abrats baten biotzean itxeki zue amorearen sua de manera, ezi onek prokuratu zue milla maneraz bereganatzeko Sandaren borondeta: baña protxurik gabe, zeren Sanda baizego amorosturik Jangoikoas, ta erresolbiturik galtzera guzia lenago ezi beraren grazia. Nola berzeari ezpaizekio baliatu bere egin zuen dilijenzia guzia, nai izan zue baliatu Deabruaren arte gaixtos. Ze Antio-kian berean sorgin famatu andi bat deitua Zipriano: oni deklaratu zio bere pretensioa, ta eskatu zio logra zezon errendiaraztea Justina edozein artez edo medios; pagatuko ziola ederki bere lana. Zipriano Deabruari emana bekala ofrezitu ze logratzera pretensioa. Inbokatuzue Deabrua, manatu zio egin bear zuena: Deabruak egin zue bere eginala bein bi irur aldiz: baña Sandak armaturik Jangoikoaren grazias, ta bere birtute propioas garaitu zue, ta bota zue bereganik ordu gaixtoan. Arritu ze Zipriano ez logratzeas donzella baten errendiaraztea infernuko podoreareki: eta Deabruak desengañatu zue, arren arte ta indar guzia etzela aski, garaitzeko Kristio ona, zeren zegon armaturik Kristo guruzifikatuaren birtuteaz.

2. Oneki asi ze Zipriano idikitzen arimaren begiak, eta ezauntzen Jesu Kristo dela Jangoiko eta poderosoago ezi Deabrua, zeñi zerbitzatu zion arrek orduraño: eta biotzera emanik Jangoikoak argiareki sua, igitu ze atratzeko bizimodugartaik, ta egiteko Kristio. Billatu zue Antimo Obispoa, zeñen manamendus su emanik bere libru ta arte gaixto guziei, bataiatu ze: ta gero exenplu ona emanik ordenatu ze Diakon, eta Jangoiko onak arren eskus egin zue asko milagro, lauda dezagun Jangoikoaren miserikordia noraño. Eta nola ere on guzia asi baize S. Justinaren kasos, beti

zegokio agradeziturik, eta guardatzen zio errespeto ta atenzio guzia: eta laguntzen zio zerbitzatzan Jangoikoai iago ta iago.

3. Ala bizi zirelaik sanduki, biak inarazi zitue preso konde batek deitua Eutolmio, eta Zipriano lenik tormentarazi, ta saietsak txarrantxarazi alzairuzko aztapar batzueki; gero Justinai anitz bofetada eman ondoan azotarazi berga zimalles. Gero paratu zute Zipriano karzelean, eta Justina andre honratu baten etxean. Andik egun guti aien konstanzia ikusirik botarazi zitue bertz aundi batean beterik pikez, urines, ta erresinas irakiten. Sartu zire, ta egon zire bertzan denbora asko, ta atra zire sano eder mellarik gabe; ta Jentilen sazerdote bat Atanasio deitua erre zue suak sanduei barkatu ziotenak. Andik eraman zuzte Nikomediara, eta an pasatu ondoan berze asko tormentu koraje ta alegria andiareki, ebaki zitiote buruak; eta gorputzak utzi zuzte ortzi gabe, jan zezkiten baseiziek, baña guardatu zitue Jangoikoak. Kristio batzuek arturik gauas, ta paraturik itsasonzian pasatu zuzte Romara, non baitaude orai S. Juan de Letranen tenploan. Martirioa agitu ze Dioklezianoren denboran &.



Urriaren 28.an San Wenzeslao Errege ta Martir

1. S. Wenzeslao Bohemiako Duke lenik, gero Errege izan zenak zue Aita Bradislao Kristio agitz ona, Ama Drahomira emakume gaixtofikatu; anaia berriz Boleslao Amaren gisara gaixtoa: amiña Aitaren arreba Ludmilla agitz sanda. Onek aurreragaitz Aitarik gabe artu zue bere kontura azitzeko, beldurrak galarazi zezan Ama gaixtoak, nola galarazi zuen Boleslao anaia. Sandak azi zue sanduki: ta ala atra ze Sandua. Ama Drahomira jabetu ze Estadoas, asi ze milla gaizki egiten, ertxis elizak, debekatus predikatzea sazerdoteek, ta erakustea Maestruerk, karzel, desterru, ta biziaren penan, kendus Konsejuko Jaun Kristio zirenak, paratus infielak, ta maltratatus Kristio onak. Ala ze guzia konfusio, turbazio, ta lamentu. Ludmila ta jende on guziak konformatu zire paratzeko Benzeslao Gobernari Estadoaren, nola zegogion hume lenbizikoari bekala: eta ala egin ze, kendurik Amari gobernu, kentzeko ainberze gaitz, nola karraiatu baizue. Baña emakume gaixtoak ainberze inbidia, odio, ta ira artu zue Amaiarreba Sandari, beiratzetas bere semeareki zuen eskua gobernuan, ta Elizaren faboretan, ezi zegolarik kapilla batean itoarazi zue bere tokareki an. Furia infernuko bat iduri ze guziaki, ta espezialki Kristioen kontra, ta orgatik ere etzue ikusi nai bere seme ona Wenzeslao, bai Boleslao gaixtoa bera bekala: baña etzuke nai zuen guzia.

2. Ze Wenzeslao eder agraziatua, modesto, amablea, birjin bizi guzian, agitz deboto asistitzen Elizako ofizioetan gau ta egun, ain penitziara afizionatua, ezi anitz baru ta kontinoko tenplazas landara zenbait aldiz gauas joaten ze oiñ urtuxian izotz ta elurak barna, ta egoten ze eliza-atarian orazioan geld. Gobernuan beratx mostratzen ze Aita bekala iago ezi Jaun poderosoa. Orgatik zenbait Jaunek etzute estimatzen Prinziipe bekala; eta bat deitzen zena Radislao sartu zekio Bohemian armaturik jendeeki. Sanduak ezin bakera ekarri zukelaik, exkusatzegatik jendeen haziendak eta biziak, desafiatu zue eskus esku. Admititurik ta presentaturik kanpoan, ikusi zue berzeak Sandua akonpañaturik bi Aingirues, erraten ziotela, guarda zaitte ukitzeas. Ala ura arriturik bota zekio oñetara barkazio eske: ta barkatu ta besarkatu zue Sanduak. Berze bein juntarazirik Oton Enperadoreak Inperioko Prinziipe guziak Bormaziara, gelditurik meza enzuten ellegatu ze berant: orduko tratatu zute ez nior jaikitzeke ellegatzean Benzeslao: Baña sarzerakoan salan au, ikusi zitue Enperado-

reak bi Aingiru akonpañatzen zutela: jaiki ze istantean bera, egin zio agur andia, ta jarrarazi zue bere aldean: gero erran ziote Jaunaiei ikusi zuena, ta artu ziote amore ta estimazio mereji zuena.

3. Espezialki enperadoreak ainberze, ezi manatu zio, eska zezala nai zuen guzia. Eskatu zio solamente S. Bitoren beso bat: eta eman zio berze asko erregaloeiki, eta nonbra zeien Errege. Ala Jangoikoak egin zue honra zezaten munduan ere bere amazale maitea. Ala famatu ze agitz, ta estimatzen zute guziek: sollik bere Ama ta anaiak ez. Geien aborrezitzen zutena artan ze elizara zuen debozioa, joate gura gauas oiñ urtuxian tenplora, enzutea maitinak, egotea orazioan, laguntzea mezak, bisitatzea sazerdoteak, suplitzea gauza bear zuztenak, ta prinzipalki Sakramentuari zion afektoa, baize ainberze, ezi berak bere esku errealees eraiki, landu, igitatu, ta eulzitu bear zue garia bear zena egiteko hostiak. Gauza eben, ta berze alakoengatik oposizio errua ziote Drahomirak, ta Boleslaok, baizire infiel gaixtofikatuak: orgatik len baño len nai zute bulkatu mundutik. Exekutatzeko maldade ideatu zutena, izan zute eskaida gau: Jaio zekio Boleslaori seme bat bi anaien heredero izan bear zena: zelebrazteko festa, disponi zute konbita andi bat, zeintara konbidatu zuten Benzeslao ere. Sanduak ez emateko jardukibiderik, admititu zue konbita: baña errezelaturik agi zeikena konfesatu ta komekatu ze espazioreki, joan baño len. Joan ze gero; errezi bitu zute gozoso-iduri: Jarririk maian afaltzen, nola baizirau luze afariak, Sandua bere garai gartan jaiki, ta Joan ze tenplora kunplitzera Jangoikoareki. Ama inhumana sutu ze iago oneki, eta inzizatu zue Boleslao joateko bereala, ta iltzeko anaia zegon lekuan. Joan ze armaturik iras, jendes, armes; sartu ze tenploan, ta aurkiturik Sandua belauriko, antxe akabatu zue, ta utzi zue eginik Martir.

4. Jangoikoak oraingoan etzio nai izan du guardatu emengo bizia, bai eman bizitza sekulakoa: Gau berean errebelatu zio Dinamarkako Erregeri, nola iltzen Martir S. Benzeslao bere anaiaren eskus, honra zezan sandu bekala. Eta ala egin zue arrek fabrikatus tenplo andi bat Sanduaren honoratan: obratus Jangoikoak anitz milagro beragatik. Bere Ama Drahomira bizirik iretsi zue lurak idiki zenak ortzitzeko infernuko lezean. Boleslao akonpañatu zutenak eriotzea egitean, batzuk eratu zire, berze batzuk il zire beren eskus, guziak zori gaixtoan desgraziaturik. Sanduaren odola ezin borratu da sekulan parete ta losaetaik niolateko maneran. Boleslao utzi zue Jangoikoak denbora zati batez erreinatza aborreziturik jendeaganik, ta errabiaturik inbidias, nola bere anaia Sanduaren obian heriak sendatzen baizire, itsuak argitzen, malder-genero guziak erremediatzen: Orgatik manatu zue arren gorputza eramateko gauas sekretoan Pragan



zegen S. Bitoren obiara; orreki milagroak pensa zeien iten zirela S. Bitoren, ta ez S. Benzeslaoren bitutez. Baña zer dezake gizonaren maliziak Jangoikoaren ta egiaren kontra? Zaldiak zeramatenak kotxea, zeintan paratu zen Sandua, baratu zire bidean leku batean, ezin mogitus, ta ez mogjarazis niolateko maneran. Ala argiturik eguna, ikusi ze gaixtoaren maraña; zein konsumiturik biotza errabias ta tristuras, eta gorputza gaitzes eta oñazees iltze miserableki. Agitu ze S. Benzeslaoren martirioa amargarren jendamendearen azkenerat.

Lastallaren 1.an San Remijio Remsko Obispoa

1. Zegolarik estado txarrean Franzian ala errelijjionea, nola gañarako guzia, jaioarazi zue Jangoikoak buratso zar alzinatuetaik S. Remijio. Jangoikoaren eskojitu bekala ze aurzutuan ere agitz ona, geldia, humila, ixil obedientea, on guzietara afizionatua, ta gaizkien beldurtia. Orgatik erretiratu ze leku soil batera, non azi zen birtute ta estudioetan agitz ongi ogei ta bi urteak bete arteo, de manera ezi orduan ilik Remijio Arzobispoa, jende guziak batean eskojitu zue bera: baña errepugnatzen zuelaik porfiaz, Jangoikoak inguraturik argitasun zerukoas era adiarazi zue bere borondatea. Oneki utzi ze konsagratzera Arzobispo: eta bereala asi ze iruzki berri baten gisara argitzen mundua bere santidadearen argi-errañueki, karidade, zelo, bijilanzia, prudenzia, ta gañarako birtuteeki: begitarte sereno, grabe, agraziatua: beiratzeas ere artzen baizute amore, erreberenzia, debozio: mintzatzea ain ona, ezi bere itz sanduak frinkatzen zire biotzetan: suberboeki fuerte, humileki beratx, guziaki amoltsu, guzien oneratzeko, de manera ezi ez gizon lurrekoa, baizik iduri zue Aingiru bat Zerutik etorria, erremediatako.

2. Nai zue Jangoikoak disponitu lan andietarako, ta ala asi zue famarazten asko milagro iten zitueneki, bizimodu sanduas landara. Gizon espiritatu batenganik bota zue espiritu gaixtoa, eta itzuli zio bista edeki ziona. Donzella bat oroat endemoniatua eraman zutena S. Benitorenagana, onek bere karta bateki biali zue S. Remijiojana: au alketurik indigno zela etze jarri nai ere konjuratzen: baña jendeak otoies, ta buratsoek negarres obligatu zute: orduan manatu zue Jesu Kristoren izenean atra zeila Demonioa, ta atra ze istantean: andik guti iltze donzella, baña Sanduak biztu zue. Ardoa aumentarazi zue milagrosoki, sua deteniarazi, ta erretirarazi; Sandua segitus, sua erretiratus iges bekala, alik eta bildurik bola baten gisara atra zen portale batetik, admiratus guziek beira, ta graziak eman. Jangoikoaren errebelazios jakin zue, agituko zela goseketa erru bat: pobreen amorez bildu zue granero batean gari kantidade bat bear orduko. Gaixtoek ustes on egin zuen kodizias, su eman ziote. Abisaturik Sandua joan ze bereala, al bazeike erremedia: ikusirik etzeikela, jarri ze berotzen sosegu andian; eta erran zue sereno, Jangoikoak izain du kuida-kastigatzeas in dutenak lan gau pobreen perjuiziotan: Ala izan ze: aiek, ta aien ondoreko guziak izan zire kebratuak. Alako infinizio bat milagro



egin zue: baña obena konbertitzea Franziaiko Errege ta Erreinua Kristoren federa.

3. Ze denbora gartan Klodobeo, zegona ezkondurik Klotildeseki, zein baize Kristio agitz ona, ta orgatik deseatzzen zuena konbertitzea: baña ezin logratu zue, alik eta bearrak obligatu zuen arteo. Alemanen ta Sueboen kontra gerra zuelarik aurkitu ze galtzeko peligroan ertxiturik alde guzietaik: Konsejatu zio Orleansko Dukeak ofrezu zezola Jesu Kristori egitea Kristio, atratzen bazue ongi. Ofrezitu orduko, bereala, nola etzekiela, itzuli zire Alemanak atzerat iges, eta aien Erregea ilik, errenditu zire Klodobeori. Au admiraturik determinatu ze, ta Jaundi anitz determinarazi zue bataiatzera. Erreginak alegre abisatu zue S. Remijio: zein etorririk, ta erakusten zegolarik Erregeri ta Andialde guziari Kristoren doktrina, agertu ze an derepente argitasun Zeruko bat iago ezi iruzkiarena, ta aditu ze boza bat, ziona, pax vobis, nolite &. Bakea zueki; ni naiz: etzaiztela lotsa: manteni zaizte ene amorean: Oneki guziak arriturik bota zire Sanduaren oñetan. Konsolatu, ta animatu zitue Sanduak, ta Jaunaren inspirazioz erran ziote agituko zekiote felizidade guzia, irauten zuten bitarteo Jangoikoaren beldurtasunean, ezi erreinuak konserbatzen direla errelijione ta zuzenbideareki, eta galzen inpiedade ta injustiziareki. Gero bataiatu zue Errege, ta faltaturik bear zen krisma, ezin pasatus zekarrana jendeztearen utses, Sanduak goratzeareki eskuak eta begiak Zerurat, agertu ze an usotto txuri eder bat zekarrala pikoan erredoma bat krismas betea, zein utzirik Sanduaren eskuetan, egatu ze gora, beterik tenploa atxon Zeruko batez. Oneki Errege seguratu ze iago: ta S. Remijio batiaiatu zue, ta eman zizio conseju onak erreinatzeko Jangoikoaren gustora. Sandu gau izan ze Franzian agitz protxu egin zuena.

4. Zarzutuan galdurik begietako bista, bizitu ze ain konforme kontent, enpleatus arimaren bista kontenplaten Jangoikoaren gauzak. Gero berriz itzuli zio, plazer izan zuelaik. Azkenean zituelaik ia lauretan ogei ta amasei urte, ta Obispo izanik iruogei ta amalaur, itzuli zio Jangoikoai bere arima Kristoren 545.an.

Lastallaren 4.an San Franzisko Asis Serafikoa

1. Zein egia andia den Kristok errana, humillatzen dena izanen dela goratua! Guzietan da ageri, baña berexki S. Franzisko Asiskoan. Ona gizon bat agitz txipittoa bere begietan, baña andia egiaz Jangoikoaren, Zeruairen, ta munduaren begietan, Jangoikoak zerbitzu andiak in zitiona, bete zuena mundua errelijiosoes, eta Zerua Sandues. Inposible da kontatzea berari Jangoikoak in zition grazia ta fabore guziak, eta erak Jangoikoagatik in zituen gauza onak. Kontentatuko gara aipatzeas berex zenbait gure protxurako izan daizkenak. Aita deitzen ze Pedro Bernardo Merkatarari ofizios: Ama Pitxa andre ona ta honratua: Aitaren ofizioa segitu zue semeak zerbait denboras, beñerez kodizias, beti liberal beratx ongi in naia. Egun batez ellegaturik pobre bat limosna eske, itekoso zegolaik, despeitu zue gabe: akordaturik bereala, atra ze lasterka atzetik, ta erdetxirik eman zio limosna on bat, ta egin zue boto Jangoikoai, beñere ez ukatzeko limosnarik pobreeri bere bizian; eta kunplitu zue. Aitak ustez gastatzen zion sobra emanes, kastigatu zue, ta eraman zue Obispoaren alzinean egin zezan errenunzia bere lejitima zegokionas: Sanduak biotz andiareki utzi zio guzia, ta bere tresenak ere kendurikan, ziola, emendik alzina erranen diot Jangoikoak seguroago, Aita gurea Zeruetan zaudena. Obispoak admiraturik estali zue nekazari baten kapoteareki: eta Sandua joan ze oian bat barna alegre kantatus Jangoikoaren laudarioak: Aurkiturik ladronek galdegin ziote ia nor zen. Errespondatu zue animoso, ni naiz errege andiaren pregonari. Golpatu zute, ta botarik elur leze batean joan zire: eta Sandua kontent padezituas atra ze, ta segitu zue kantus.

2. Ala ibilirik pobre gisa denboraldi batez, nai zue Jangoikoak adiarazi zein estimatua zuen, emanes grazia sendatzeko heriak, ta egiteko gauza miragarriak. Irur Eliza berritu zitue, deus etzuelarik, trabajatus bere eskus, billatus trabajariak, ta limosnak, bear adiña. S. Maria Aingiruena deitzen ze azken berritu zuen Eliza: Emen eman ze oraziora egotez eskatus Maria Santisimaren medios grazia egiteko bere errelijionea: eta jaintsirik habitu pobre bat, asi ze bizitzen, ta predikatzen Apostolu gisa, ta Jangoikoak bialtzen zizio lagunak bere gisarakoak, erremediatzeko Kristiogendea. Joanik Romara aproba zezan bere errelijionea Aita Sanduak, naiz lenbizian paratu zuen dudan, bereala izan zue bisione bat, zeñetan mostratu zion Jangoikoak eror zera bekala zoeiela Eliza, ta erori etzeien,



soña paraturik pean zeukala fuerte ta firme gizon pobretto batek, zein baize Franzisko, eta ala aprobatu zue gogotik ere, nola S. Domingorena ere bai: eta bi Sanduak aurkitu zire karrikan, ta len ikusi gabe sekulan elkar, ezaundu zire, ta besarkatu zire, ta animatu zire, ea, Errege beraren soldado gara; gauden ongi uniturik, emateko infernuaren kontra gure Jaunaren gloriatan. Inozenzio III.a izan ze konfirmatu ta aprobatu zuena ithez 1209 urtean, ta Jangoikoak milagros.

3. Ainberze aumentatu ze denbora gutiren barnean Jangoikoaren ta S. Franziskoren familia gura, ezi lenbiziko celebratu zen Kapitulu edo batzarre jeneralean S. Maria Porziunkulakoan bildu zire iago ezi borz milla errelijioso: eta nork kontu sandu atra zirenak? Nork laudatu dignoki errelijiosa in zirenen santidadea, zeñen buru señalatu zuen S. Klara bere lekukidea ta bere espiritu berekoa? Guzia utzirik, S. Franziskoren ona ta Sandua nork explika? nork pinta? Jesu Kristok sollik dezake adiarazi, ta adiarazi du, markatus bere borz llaen markaeki bularrean, ta esku oñetan, izan zeien beraren imajina edo traslado gisa bat. Imitatzea Jesu Kristo guruzifikatua al guzian artu zue sanduak lenbiziko egunetik. Pensatus ta errepensatus kontino beraren pasio doloreskoan, artu zio ainberze amore ta konpasione, ezi bere bi begiak zire nola bi iturri negarrenak, ellegatu baize galtzera bista. Askotan kanpoan egoten ze lamentatzen konpasionez, eta galdeginik zer zuen, erres ondatzen zue zer ez tut izan bear, ta egin ear, ikusirik, nola tratatu duten ene Jesus ona ta onegia? Ardiak eta axuriak zitue agitz maite, zeren baitire Jesus onaren figura ta oroigarriak: eta bat eramaten zue bereki tenplora, ta Korura; eta egoten ze an geldi erreberente belauriko adoratzen Jesus Sakramentua. Humiltasuna ta mansotasuna zue sinetsi daiken baño iagokoa. Onen kasos gelditu ze Diakon solamente, nai etzela ordenatu Sazerdote, indigno zela. Eta honratzen, ta beneratzen zitue sazerdoteak belauriko paraturik apatus eskuak; eta erraten zue, ezi opabalez batean Zerutik jautsi leien Sandu bat, ta lureko Sazerdote bat, lenik apal ezokela oni eskua, ta gero egin Sanduari erreberenzia, zeren iago zor diogun arri, zeñen eskuetaik errebitzen dugun sakramentu aldarekoa. Bere gustoa ta bere bizia ze desprezia zezaten: laudatzen zutelarik, desgustatzen ze, ta zio, ez lauda eztakiena zertan baratuko den. Predikatzen zuelaik usatzen zue maiz pregonatzea ta ponderatzea bere falta-iduriak. Errelijioso batek bein ikusi zue Zeruan gora katedra bat agitz eder prezioso miragarriri; galdegin zue norendako zen: ta erran zekio ezi Franzisko humilarendako. Ark gero galdegin zio Sanduari, zer iduri zekion bere buruas? Errespondatu zue, nai zela munduan den bekatariarik andiena. Ark dio, eta nola dezake on erran egiareki? Errespondatu

zio, zergatik ladron bati, ta munduko bekatari andienari in balio Jangoikoak ainberze mertxede, nola niri, litzake lira agradezitua obeki ezi ni: eta utzi banindue ni bere eskutik, iago maldade inen nue nik aiek baño. Eta Jangoikoai erraten zio, beira, Jauna, nori itention mertxedeak, beira ez nakion itzuli traidore ta ladron.

4. Penitentzian ze extrematua, penaturik arima Jaunaren ofensaseltzeraño, ta gorputza tratatus kruelkiro sobra de manera ezi iltzerakoan, il baize goizik, konfesatu zue kulpa sobra gaizki tratatuas. Noiznai gelditzen ze tresenaik eta deus gabe eman es pobreei otzak zeudenei, naiz zegon otzak; bada urte geiena barutzen zue, ta beti alimentua eskas, ta txar, gañarako mortifikazioes landara. Gorputz ta arimaren garbitasun ta kastidadea zue Aingiruea bekala; baño bere aldetik egin zue logratzeko dono goi gastezututik: noiz ere sentitzen zuen nai zuela Deabruak tentatu, batzutan azotatzen ze gogorki; berze batzutan botatzen ze oroat elurrean, oroat larretan, garaitzeko tentazioak: ala erregalatzen du Jangoikoak. Baña karidadea, baita birtute guzien zaña, ta bizitza, Serafin batena zue Sandu gonek. Zenbat eta zenbat egin eta pasatu zuen Jaunaren amorez, guzia iduri zekio deuserez, eman arteo bizia ta odola. Ortako pasatu ze Siriara: moroek golpatu zute fuerteki, ta eraman zute loturik Babiloniara, on ze nai zuena. An koraje andiareki predikatu zue Ebanjelioa, ta ofrezitu ze sartzera su andi batean egiaren progutan, baldin aien sazerdoteek nai bazute egin oroat. Aiek etzire atrebitu: baño alaere Sandua zego firme sartuko zela bera, baldin konbertitzen bazire, atratzen baze libre. Erregek beldurrak jendea alborota zeien, etzue permititu: baño admiraturik Sanduaren konstanzias, ta erregalo eman nai zitionen errehusatzeas, estimatzen zue agitz. Sanduak ikusirik martirioaren lekuan ematen ziote la honra, Zerutik abisu izanik, itzuli ze Kristio-errietara. Eta ala martirioa faltatu zekio berari, bera ez martirioari. Martir izan ze biotzas, naiz ez eriotzas. Etzue pausurik ematen, ez mogitzen, ez mintzatzen, ez pensatzen, ez errespiratzen, ezpaze bere Jaunaren amorez.

5. Amore gontaik dator proximoen amorea, zein mostratu zue bizi guzian, onetsis ta ongi egines, ala arimen, nola gorputzen bear guzietan. Zenbat arima salbatu bide zituen, ta salbatzen bidetuen kontino bere humeen medios, kontu bezki dezazkenak kontu Zeruko izarrak. Itz batez, Jangoikoaren gizona beraren biotzaren konforme izan ze S. Franzisko. Mereji zue bizitza milla urtes, baño Zeruak ere zue prisa, eramateko arara. Iltze adinaren 45 urtean, Kristoren 1226.an. Istante beratan agertu zekio glorioso Asisko Obispoari erraten ziola, ia utzirik mundua, banoaie Zerura. Arimaren gloria istargitzen ze gorputzean ere, zein bizian izanik



beltzkara, il ondoan paratu ze txuri eder argi. Milagroak ain admirable usu abasto egin zitue, ezi urte bat ta bizpirur ilabete pasatu orduko kanonizatu zue Aita Sandu Gregorio IX.ak joanik personan Asisa. Eta gero Aita Sandu Nikolao IV.ak, zuelaik ia ilik 62 urte, nai zuelaik ikusi Sanduaren gorputz ila, ikusi omen zue aldare nausiaren pean bobeda batean nola zegon txutirik tieso berez, idikirik begiak Zerurat beira, oso, txuri ta gorri, bizirik bekala. Adoratu omen zitio esku, oiñ, ta bularreko llagak, iduri zekiotela Zeruan zeudela &. &.

Lastallaren 6.an San Bruno Kartujoen Fundadorea

1. Asko maneras biltzentu Jangoikoak beregana bereak, ia amarez ia beldurrez. S. Bruno Alemana Koloniakoa, estudiaturik ederki Parisen, zegolaik an ia Maestru eginik erakusten, agitu ze iltzea bere adiskide ta Maestrulagun bat famatu letraz eta birtutez. Eramanik orzitzera akonpañamentu andiareki Jaun gura, ilaria egiterakoan, nokturnoan ellegatu zelaik kantatzera lekzio gura asten dena, responde mihi cuantas habeo iniquitates & Jangoikoaren probidencias ilak andaetaik goraturik burua erran zue boza triste bateki, Jangoikoaren juizio justos naiz akusatua. Guziak lotsarriturik, aterturik kantua, utzi zute biramoneko. Biramonean ia famaturik agitua, bildu ze jende geiago; eta zeudelaik guziak beira, gisa berean goraturik boza lotsagarriagoareki erran zue, Jangoikoaren juizio justos naiz juzgatua. Iago lotsaturik, ta etxakin zer egin, disponitu zute segitzea biramonean xakin naiez zertan baratzen zen tragedia gura. Mundu bat Iende bildu ze ikustera, eta beira beira daudelaik garai berartan, ara non jaikitzen den ila berriro, eta oi u ikaragarri desesperatuareki erraten du, Jangoikoaren juizio justos naiz kondenatua. Guziak ikar ikar koloregaizturik atra zire Jesusketan, buruak apaldurik: eta bada bere agos deklaratu du bere kondenazioa, eztaike ortzi lur sagratuan: atra zute, ta ortzi kanpoan astoen obran. Bruno presente egon zenak, ezin kendu burutik lanzearen memoria, ezin ertxi begirik, deitu bere adiskide andienak sei, ta negarra zeriola erraten diote, Zer inen dugu, ene adiskideak, ikusia ikusirik, ta aditurik aditu duguna? Nor ezta beldurtuko Jangoikoaren juizio justoes? Eta gauza bakar inporta dena da betikos salbatzea edo kondenatzea. Orra gure adiskide gura guk jakintsu ta birtuosotako gindeukana dago ia betikos erretzen ta errabiatzen infernuan erremediorik gabe. Zer izanen da gutas? Ezta ori agitu kasualidades: Jangoikoak disponitu du gure onnaies. Ezta mintzatu ila beretako, ezta uelaik erremediorik: mintzatu da Jangoikoaren manamendus abisatzeko gu, ez gaitzen deskuida. Iduri bazaize, trata zagun seguratzeas betiroko salbazioa. Ez gaitu nai kondenatu, ala abisatzen gaituelaik Jangoiko onak: baña deskuidatzen bagara, agi dakiguke guri ere arri agitu zaiona, ezi ezta nioren bear bere Majestadea egoteko etxideten: eta barkazioa ofrezitzen digunak penitentiagatik, eztigu ofrezitzen egun bat ere seguro. Ni bereala, nai nauenak segitu. *Linguae coax ranis, cras corvis, vanaque vanis: Ad logicam pergo, quae mortis non timet ergo.*



2. Segitu zute seiek gogotik ere, eta zuten guzia saldurik, ta pobreei emanik, joan zire Granoble alderat, nongo Obispoa, baizekite zela Hugon Sandua. Onek izan zue amets-iduri bat, non ikusi becala zuen zazpi izar eldu zirela beraren alzinean eremu alderat bere Obispadoan deitzen zena Kartuxa, eta an fabrikatzen zuela Jangoikoak etxe bat beretako. Presentatu zekizkiolaik zazpi gizon gaiek bere oñetan, entendatu zue bisionea: eta joanik guziak eremu gartara, eginik eliza batean, ta zeldatto batzuk etxola gisa, asi zute plantatzen errelijione Kartujoena, apartaturik munduko joanetorrietaik, enpleatzen sollik Jangoikoaren gauzetan, orazioan, ta penitentzian, txastatu gabe aragigenderik beñere bere bizian, ezeta heritasunean ere, bizitus Aingiruak iduri dutela iago ezi lurreko gizonak: Guzien ganetik S. Bruno, zein Jangoikoak ere faboratzen zue bere eskojitua becala, plantatzeko bizimodu gura: eta Obispo Sandua afizionaturik ezin zeike aparta, obligarazi arteo joatera bere ardien kuidatzera. Mundukoei iduri zaiote aien bizia bizi tristea emengo dibersiorik ta aleganziarik gabe: baña alegreago ta gustosoago daramate, gustatus ta beiratus zein suabe den Jangoikoa, ta mana zerukoa, okatus Ejiptoko elze, tipula, ta farraskeries: zeñetan zebatzen diren Adanen hume miserableak.

3. Obenean zegolaik an, Aita Sanduak Urbano II.ak, beraren Diszipulo izanak Parisen, deitu zue bere palaziora, baliatzeko artas Elizaren gobernuan. Gelditu ze Sandua Roman triste alde bat ala nola portutik atrea itsasoko ur bagaden erdian, berze alde konforme obedienziagatik sakrifikatus bere gustoa Jangoikoaren gustora. Eta bear zuelaik joan Franzia Aita Sanduak, nai zuelaik egin Arzobispo S. Bruno, onek otoioren podorez logratu zue utzi zezan libre erretiratzera Kalagriako deserturen batean. Emen bizi ze azkenerat, gorputza lurrean, gogoa Zeruan: eta egun batez Kalabriako Dukeak Rojeriok eizian zebilalaik aurkiturik Sandua bere laguneki belauriko orazioan, artu zioite amore, ta eman zioite eliza bat ta asko gauza bear zuztenak, ta enkomendatzen ze aien orazioetan. Baliatu zekio: zeren ezi bere Kapitan batek nai ziolaik traizio egin gerran, S. Bruno bere eremuan zegona agertu zekio Jangoikoaren milagros Kondeari, ta agertu zio armatu zioten traizioa, ta ala libratu ze ura. Ala biziturik Sandua, ta azirik bere familia sagratua bizimodu admiragarrian ellegatu ze plazo señalatura deskansatzeko Zeruan. Iltze 1101 urtean. Monstratudu Jangoikoak beraren gloria asko milagro klaro andieki: alaere etze tratatu Kanonizatzetas, alik eta 1514 urtean manatu zuen Leon X.ak zelebratzeko beraren festibidadea bere konbentuetan, gero azkenik Eliza guzian.

Lastallaren 9.an San Dionisio Areopajita Obispo ta Martir

1. S. Dionisio Areopajita jaiotze Atenas Ziudade famatuan Grezian. Bere jendaki, ta injenio ilustrearen kasos zelarik persona prinzipalena an, pasatu ze Ejiptora estudiantzera astrologia, au da zeruen ta izarren jakindea. Emen zegolaik, Heliopolis deitzen den Ziudadean, iltze Jesus ona gurutifikaturik Jerusalemene, noiz agitu zen iruzkiaren eklipse admirable gura, ilundurik eguerdian mundu guzian. Ori ikusirik, exklamatu omen zue S. Dionisiok, *edo naturalezaren Jangoikoa dago padezitzen, edo munduaren makina doaze urratzera*. Berze batzuek diote erran zuela, *Jangoikoa ezauntzen eztena dago padezitzen gorputz humanoan, ta orgatik guzia ilundu da ta ikaratu*. Edozein gisas etzue oraño notiziarik Jesu Kristos. Egin zute Juez ta Presidente Areopago deitzen zen Konseiu famatu gartan, Atenasen. Ellegatu ze an S. Pablo, ta beiratus ango Jangoikoen iduriak ikusi zue aldare bat, non zegoen eskribiturik, *ignoto Deo, ezauntzen ezten Jangoikoaren*. Emendik artu zue eskaida predikatzeko, an zion Jangoiko ezauntzen eztena, ori dela Jesu Kristo &. Eraman zute Apostolua Konseju gartara: an inguraturik alde guzietatik Juezes, jakintsues, filosofoes, mintzatu ze admirableki Jangoiko bakar egiaskoaren gain, bere Majestade, podore, justizia, ta gañarakoen gain, azkenik guziok bear garela erresuzitatu, ta daukala Jangoikoak señalaturik azken eguna, juzgatzeko mundua, ta emateko guziei beren obraen ariora. Batzuek burlatzen zute, berze batzuek zioite nai zutela aditu berriz ere: Zenbait bakotx konbertitu zire berladanik federa, eben ertean Dionisio, ta bere Andrea Damaris, zein etxera deiturik Apostolua konfirmatu zire fedean ta bataiatu. Admiratu zire guziak ikusteas Kristio gizon jakintsuena, ta Presidentea, izan ze okasio, konbertitzeko berze anitz. Erakutsirik ederki doktrina zerukoa S. Pablok konsagratu zue ango Obispo irur urteen buruan.

2. Bi gauza kontatzen dire agituak Sandugoni Ama Birjinareki: lenbizikoa, joan zelarik ikustera, ikusi zueneko gelditu zela arriturik alako Majestade ta erresplendoreas de manera, ezi sinetsiko omen zue zela Jangoiko, ta adoratuko omen zue Jangoiko becala, ezpalez jakin fedetas ezte-la baizik Jangoiko bat: bigarrena, igan bear zelaik mundugontaik Andre Soberana, ekarrarazirik Apostoluak beren lekuetaik urrundantik Aingi-



ruen medios, aurkitzeko presente despedidan, aurkitu zela an S. Dionisio ere. Gero S. Juanen konsejus joan omen ze Romara bisitatzera S. Pedroren ondorengoa, baize S. Klemente. Onen ordes pasatu omen ze Franzia zenbait laguneki; ebetaik bat S. Eujenio biali omen zue Española, non izanik lenbiziko Arzobispoa Toledon, itzuli ze Franzia gero izateko Martir. Sarturik Franzian S. Dionisio gelditu ze Parisen, nongo Obispo lenbizikoa kontatzen den. Ordenatus Sazerdoteak, bialis Predikariak, erakutxis doktrina Kristioa inguruan anitz lekutan, barratu ze ta azi ederki Kristiandadea. Etzudue soporta Demonioak ainberze on: ta ala inzitatu zitue Jangoiko falsuen Sazerdoteak, iltzezaten Dionisio len baño len. Joan zire ortako askotan armaturik; baña ikustearerki aurpegia istargitzen ziola miragarriro, itzultzen zire lotsarriturik: ezpaize oraño bete denbora.

3. Azkenean Prefekto batek inarazi zue preso bere laguneki: erreprehenditu zue errelijione berria paratzes; konsejatzzen zue segi zezala aien Jangoikoen errelijione antiguaskoa. Errespondatu zio koraje andiareki emanen proguak ta arrazioak predikatzen zuen fedearen: Juezak azotarazi zue, ta errearazi su lentora parrilla edo trilla batean. Gero atrarik libre, bota omen zute baseizi gosetiei, ta aiek guruzearen señalearerki mansoturik etziote gaizkirik egin, baizik erreberenzia. Gero bota omen zute labe sugarretan zegon batean: libre atrarik andik ere josi omen zute gurutzan, ta andik predikatzen omen zue Kristo guruzifikatua. Eta ikusirik etzela iltzen, kendu guruzetik, ta paratu zute karzelean, non zebratu zuen meza, animatzeko preso Kristioak Komunione sagratuareki: eta hostia partitzerakoan agertu ze Jesus ona argitasun andiareki animatus martiriora. Presentaturik berriro Juezaren presentzian S. Dionisio ta bere lagunak, berriro azotarazi zitue kruelkiro; eta ikusirik etzirela iltzen, baizik guzia sufritzen ain konstante alegre, jaiki bere katedratik ta erran zue suturik, Gure Jangoikoak dire despreziatuak, Enperadoreak desobedituak, jendeak engañatuak zeuren falsu goieki; delitoak dire ebek mereji dutenak kastigo errua: Orgatik manatzen dut nik bereala edeki dezazien bizia. Atrazute ortako oian batera; an paraturik belaunak lurrean, eskuak ta begiak goraturik Zerurat, S. Dionisiok erran zue, o Jangoiko Jauna, Aita guzis poderoso; eta Jesu Kristo Jangoiko biziaren Semea: eta Espiritu Santi Jauna, baitire Jangoiko bat sustanzian, errezi bi bezkite gure arimak bakean, bada oien amarez ematentugu biziak: Lagunek errespondatu zute, amen. Bereala il zuzte aiek, eta berze anitz Kristio. Baña ondorean agitu ze milagro bat txoil admirablea. S. Dionisioren gorputza goratu ze oñen gañean, eta arturik burua eskuetan zebila triumfoan bekal, kantatus Aingiruek bi aldetaik Zeruko kantuak admiragarriro, akabatus aldioro,

gloria tibi Domine, alleluia. Eta jende anitz aditu zutenak kantua, ta Ministroak berak konbertitu zire. Ibili ze Sandua bere buruareki eskuetan bi milla bekal, alik eta aurkiturik andre bat deitua Katula bere etxetik atratzen zena, paratu zio eskuan burua. Bi lagunen gorputz ilak gelditu zire il zutzen lekuan, eta Ministroek tratatzen zutelarik botatzea ugaldere, Katula on garrek astuzia onareki konbidatu zitue bazkaris, eta bitarteo injeniatu zue berze Kristioek altxa zezkiten gorputz sanduak. Denborain buruan fabrikatu ziate sepulkro ta tenplo famatu bat honratu dutena gloriosoki Franzia Erregeek.

4. Il omen ze S. Dionisio bere adinaren eun ta amar urtetan, Kristoren eun ta emezorzi edo emeretzitan, Adriano Enperadorearen prinzipioetan. Eskribitu zitue libru, ta karta admirableak, Jangoikoen Espiritus beteak. Ebetaik batean erreprehenditzen du bere Diszipulo bat berak ordenatua deitua Demofilo, zeren bota zuen elizatik bekatari andi bat paratu zena penitente Sazerdotearen oñetan, ta Sazerdotea admititu zuena penitziaria; erreprehenditzen du bada S. Dionisiok gogorra bekal, ta kontatzen dio S. Karporen exenplua, nola au bi bekatarien kontra asarraturik, zeren elkar galdu ziren, bisione batean ikusirik infernua idikirik, ta bi gaiek pokalean ez erori bai erori zeudela, zegon berantetsirik naiak erori zeizen; eta Jesu Kristok jaikirik bere tronotik edatzen ziotela eskua konpasiones, ta korrejitu zion arri bere zelo inprudentea, ziola, heri nazazu ni, bainago prest iltzera berriz ere bear balitz bekatariengatik &



Lastallaren 9.an

San Luis Bertran Dominikanoa

1. Valenziako seme izan ze S. Luis Bertran, zeñen Aita alargundurik, ta heritasun andi batetik libraturik S. Brunoren ta S. Bizente Ferreren medios, zoeielaik sartzera Kartuxo itzuliarazi zute, etzuela nai Jangoikoak erreljioso; eta ala itzulirik ezkontzera izan zue seme sandu gau gañarako-es landara. Etze au berze aurren gisara enredazale, desobediente, gaizki erralle, bizioso, baizik erretiratu, geldia, ixila, debotoa, afizionatua egitera limosna ta penitencia adin gartan ere. Etze etzin nai goatzean, baizik ol batzuen gañean, edo lur utsean: gutitan jaten zue almorzua; anitz aldiz ematen zio pobreren bati. Bere dibersioa zue mezak laguntzea Aingirutto baten gisara. Beñere etzitue inkietarazi buratsoak, bai palakatu humilki, zeudelaik asarre zerbaitengatik. Ze agitz alkekorra, ta modestoa; begiak apal beti pensamentuan bekala Jangoikoaren presenzian. Ama Birjinaren deboto ze miragarriro: konfesatzen ta komekatzen ze maizago usatzen zen baño denbora gartan. Nai izan zue erretiratu erreljionera; baño debekatu zio Aitak asko denboraz. Gero ere ark nai etzuela bortxa sartu ze S. Domingoren Konbentuan. Artu zue gogoan imitatu bear zuela S. Bizente, izan baize erri, erreljione, ta Konbentu berekoa. Orazio mentalean ze bere estudio ta aplikazioa: ta asi zekio Jangoikoa bisitatzen artan. Pasaturik estudioak, ordenaturik Sazerdote bere iteko, ta erregalo lenbizikoa zue aldareko sakrifizioa. Eraman zue erreljioso sandu batek laguntako urrun Konbentu berri batera perfekzioaren zimendutako: baño ezin egon ze an denbora anitez, zeren ezi errepresentatu zekio Jangoikoaren aldetik bere Aita iltzen, edo ilik bekala; konsultatu zue Konfesoreareki: eta bereala ellegatu ze mandataria prisaka, iltzen zela bere Aita, nai bazue ikusi bizirik, zoeiela bereala. Bereala joan ze, eta ikusi zueneko sartzen kuartoan Aitak erran zio, o ene seme ona, ene pena andienetatik bat izan ze ikustea zu fraile; baño orai duten konsolurik andiena da ikusten baizaitut erreljioso: enkomendatzen dizut ene arima: oroiz zaite nitas. Asistitu zio hume onak bekala ilaratño; eta ondorean Jangoikoaren errebelazios ikasirik pasatzen zuen purgatorioa arima garrek, ofratzen zitue arren faboretan mezak, orazioak, baruak, penitenziak zorzi urtez. Ondorean ikusi zue libre alegre igaten Zerura purgaturik ederki.

2. Ogeitaborz urtetakoa zelarik egin zute Nobizioen Maestru, ikusirik zela alzinatua birtutean. Guziei erakusten zioten len lena Zimendu

bekala orazioa, prinzipalki pensatus Kristoren pasio doloreskoan: eta nai zue uziek iduki zezaten beren kuartoan Jesu Kristo guruzifikatuaren imajina bat, nola gaitz guzien erremedio, ta on guzien kausa. Eta apegatu naiez guziei bere biotzeko sua erraten zioten, *maita zagun, ene anaiattoak, maita zagun gure Jangoiko Jauna, ezi maitagarria da*. Sei aldiz eskojitu zute Nobizioen Maestrutako, zeren kunplitzen zuen ederki ofizio goi, baita erreljione guziaren zimendu ta zain. Eta nai zuelaik enpleatu erakusten letrak, desengañatu zute, Jangoikoaren borondatea zela enplea zeien erakusten birtuteak. Ortako errebestitu zue Jangoikoak arimen zelo fiñ batez, zein berritzen zuen kontinoko orazioan. Asteko predikatzen, konfesatzen, ta edozein ofizio egiten, lenbiziko pausua zue orazioa. Atratzen ze aldirita eta montañatara arimen eizian: an predikatzen, an konfesatzen, an in ala egiten egoten ze, guzia eginik guziendako. Bein itzultzerakoan opatu zue Artzai bat ardieki: paratu ze belauriko Sandua orazioan: gero deklaratu zio beraren konzienziaren estadoa, ta zenbat urtez etzen konfesatu: konfesa zeila, ezi ilen zela fite. Ala egin zue Arzaiak, ta egun gutiren barnetan iltze. Ezin konfesatus erreljiosoek jendeketa eldu zena Konbentura, etzeizen joan garbitu gabe, Sanduak geldiarazten zitue, ematen zioten sustentu, alik eta in arteo beren konfesoak. Niork etzue billatzen Sandua, ezpaizue aurkitzen amoroso noiznai.

3. Zelo gonon suareki airaturik joan ze Indietara salbatzera asko arima desanparatuak an. Zazpi urte in zitue trabajutzen antsioso, erakusten, konsejatzeten, konbertitzen arimak. Lenbiziko ellegatu zelaik erri batera, ekarri zio Indio batek bere aur bat, bataia zezan. Sanduak galdegin zio, nola, zelarik bera infiel, nai zuen bere aurra Kristio? Errespondatu zue zeren aur gau iltzen da, ta erran dida espiritu onak oianean, berori etorri dela onara, ta bataiatzen badu, salbatuko dela. Bataiatu zue, ta iltze bereala, gelditurik alegre Sandua, zeren lenbiziko bataiatu zuena joan zen Zerura. Demonioak ain jabeturik zeudenak aietan, lotsatzen ta botatzen zitue guruzeariki aisa. Nai zute ilarazi Sandua, eman zioten beneno bein baño iagotan: baño Jangoikoak guardatu zue salbo. Berze trabaju pasatu zituenak an, goseak, egarriak, bearrak, otzak, beroak, nekeak, baitare desprezioak, kalumniak, persekuzioeak ezin konta ala dire, nola prodijio agituak ere bai. Bat kontagarri da. Erreprehenditus gizon poderoso maltratzen zutenak Indio gaien jende pobrettoa, arturik bein aien maieko ogiak, eta kalkatus atrarazi zue aietak odola, ta erran zioten, orra nola jaten duzien pobre goien odola. Ikusirik español gaixtoen inpiedadea Indioeki, ta nola ziren estorbu ez konbertitzeko iago, itzuli ze onat Jangoikoaren inspirazios: eta berri berritan asi ze sandutzen iago ta iago bere arima ta



berzerenak. Etzeike sosega ibili gabe arat onat erris erri salbatzen arimak. Nai etzuela bortxa egin zute Valenziako Prigore: pasatu zue asko trabaju, baña konsolatzen zue bear orduan Zeruak. S. Bizente Ferreren imajinaren alzinean enkomentatu zio bere Prioretasuna; ta oñak apatzerakoan, apaldu ze S. Bizente ta besarkatu zue bera. Berze bein agertu zekizkio S. Domingo ta S. Franzisko klaustroan. Apatu zio S. Franziskori oñeko lllaga ta bularrekoa: eta Sanduak burua arturik pasatzen zio eskua suabekiro amore andiareki ematen ziola salbazioaren esperanza. S. Domingok etzio utzi apatzera oñak, eskua bai eman zio apatzeko. Kristo bera agertu zekio zenbait aldiz, seguratus barkatuak zirela arren bekatuak: zeren ezi aldartez ain beldur ze bere suerteas, ezi bein berzeak zeudelaik errekreutzen, erretiratu ze negar ta negar, eta galdeginik motiboa, zio, nik pobre gonek eztaikit salbatuko edo kondenatuko nai zen: etzaize iduri au dela motibo asko tristatzeko? Bere adiskide on batek nai zio erranarazi zenbait fabore soberano Jangoikoak iten zitionak: Errespondatu zio Sanduak, Luziferek iago argi zue nik baño, ta bota zute Zerutik. Judas izan ze Apostolu, ta egin zitue milagroak; gero traidore itzuli ze, urkatu bere burua, ta kondenatu ze. Zuk eneganik jakin naituzun miragarriek guti didate balio, ezta kitelarik ote nagon Jangoikoaren grazian edo desgrazian.

4. Bere humiltasunak ematen zio beldur bere aldetik, ezi Jangoikoaren aldetik zitue amorearen señale andiak. Birtutees landara, karidade, pazienza, zelo, kastidade, penitenzia, ta gañarako abantallaes landara, guziok baitire Jangoikoaren amorearen donoak, grazia grazioso gaiek sendatzeko heriak, obratzeko prodijioak, jakiteko gauza gerokoak, ikusteko biotzen sekretoak, Jangoikoak zion amorearen mostrak dire. S. Teresak eskribitu zio, ta konsultatu zue bere Fundazioen prinzipioetan: Sandu gonek seguratu zio, Jangoikoaren Espiritua zela kidatzen zuena; anima zeiea, berrogeitamar urte baño len bere errelijionea izanen zela famatua obenetaik bat. Bada bere penitenteen bekatuak bazekizkie askotan erran baño len. Konfesatzen zegokio errelijioso bat, eta asi ze turbatzen pausu batean: Sanduak erraten dio, agian da ori Judas? Zergatik eztu konfesatzen bekatu gura? señalatus in zuena. Berze bat konfesatzean atzendu ze bates: Sanduak aipatu zio berbera: gerostik beti galdegiten zio azkenean, gelditu ote zaida zerbait? Sanduak erraten zio, ez, edo bai. Baña Jangoikoak zion amorearen progurik obena ze Jangoikoai Sanduak zion amorea, beti eman naiak bere bizia ta odola beraren amorez: beti martirioaren billa, ta martirioa iges beraganik. Berze lanzeen ertean agitu zekio au: Predikatu zue bekatu publikoen kontra bein, baña berexi gabe personarik. Kaballero batek artu zue bere gain; eta suturik biali zio erratera, ezipazue

gezurtatzen erran zuena predikuan, pagatuko zuela biziareki. Sanduak errespondatu zio, prest zegola emateko bizia defendatzeagatik egia erran zuena: on zeukala ditzatako, iltzea orgatik. Iago sutu ze kaballeroa errespuesta gorreki; eta biramonean bere zaldian iganik ikusi zute Sanduak ta bere lagunak, eldu zela aiengana pistola bateki eskuan. Laguna joan ze iges ziola Sanuai in zezala oroat. Sandua sereno manso bere bideas: Ellegaturik Kaballeroak erraten dio furoso, fraile gaixtoa, nola atrebitu da erreprehenditzera ni bekalako gizona? eta paratu zio bularretan pistola: Sanduak solamente guruzearen señalea egin zue: istantean pistola agertu ze guruzifixoaren figuran. Arriturik ura, jautsi zalditik, ta paratu zekio belauriko. Barkatu zio Sanduak gogotik ere. Asko exenplu on eman zue Sandu gonek: azkenean konsumiturik trabajues, ta penitenziaes adinaren 55 urtean, ta Kristoren 1581.an il ze eriotze preziosoareki, mostratus len ta gero Jangoikoak bere sierbo humil onetsiaren gloria asko maneras ta milagros. Arima despeitzean ikusi ze gi andi bat atratzen agotik ta bete zuena ganbara guzia: Aingiruek zelebratu zute Zeruko musika admirableeki: gorputzak errespiratzen zue fragranzia & obratzen milagroak &



Lastallaren 10.an San Franzisko Borja

1. Estado guzietaik egintu Sanduak gure Jangoikoak. Ona S. Franzisko Borja munduko andietaik, Gandiako Duke, Lonbaiko Markes, Errege Katolikoen elleba, ta Españaiko Jaundia, orai Sandu glorioso. S. Franzisko Asiskoaren debozios logratu Amak ongi libratzea peligroan, pararazi zio arren izena Franzisko, eta gero berak imitatu zue bere izen-kidea birtutean ere. Zelarik amar urtetakoa, eraman zio Jangoikoak Ama, ta Aitaren manamendus estudiatu zitue gramatika, logika, ta filosofia: gero Karlos V Enperadorearen Kortean biziturik honestidade ta exemplan andiareki, bere Majestadearen ordes paraturik Matrimonioaren estadoan izan ze Prinzipe Jaunen exemplan ta admirazio bere bizimodu onas emanen Jangoikoai berea, ta estadoai ere berea prestu honratuki, kunplitu len lenik obligazioak, segitus debozioak, debekatus bekatuak ta bekatuak bideak, dibersioetaik artus sollik dezenteak bere neurri txustoan. Etzue fiak jokatu, ta ez ikusi jokatzek, baizio komunki jokuan galtzen direla laur gauza preziosoak, baitire *denbora*, *dirua*, *debozioa*, ta anitz aldiz *konziencia* ere. Enperadorearen ordes eraman zuelaik Enperatrizaren gorputz ila ortzi zera Granadan: kaja idirikik egiteko entrega, ikusi zuelaik ain itsuski aldaturik, lotsa baitezake, ta ezpaizeike ezaun lenekoa zen, Jangoikoaren ordes berari aldatu zekio biotza, despeitzeko munduko ponpa ta banidade guzia; ez iago, zio, ez iago zerbitzatu ildakidaken Jaunari. Determinatu ze bizitzera erretiraturik bere etxean Jangoikoareki bateo, eta baldin alargun gelditzen barin baze, boto egin zue sartzeko erreligioneren batean. Baña bereala Enperadoreak egin zue Kataluñaiko Bisorrai, ta obeditu bearko. Ofizio gau ere kunplitu zue perfektoki, libratus lekuak ladrone-taik, zuzendus justiziak, aditus, ta erremedius jendeak, espezialki pobreak, paratus gobernu bat Kristioa ta Sandua: baña lenean sandutus bere burua, izateko guzien hispillu, ta erregla. Erresolbitu ze despreziatza mundukoien erranak zirelaik arrazioaren kontra, ta egitera plazer Jangoikoai sollik.

2. Ia ordutik eman ze Jangoikoai osoki: asi ze komunikatzen bere Majestadeareki orazio mentalean luzaro: konfesa-komekatzen ze igandeoro bere Oratorioan, eta jai andietan eliza nausian, emateko exemplan. Mortifikatzen zue gorputza arrigarri barus, bijilias, disziplinas, zilizios: Ariora Jangoikoak erregalatzen zio espiritua Zeruko argitasunes, debozios, konsolazios, ta amoresko demostrazios: de manera ezi ze guzien admirazio Bisorrai errelijosoa. Heritu ze bere bizikidea iltzeko: Sanduak

eskatzen zio Jangoikoai arren sendatzea, konbeni barin baze. Orazioan egun batez aditu zue boza bat erraten ziola, zuk nai bauzu geldi daien zure bizikidea iago denboraz, zure eskura uzten dut: baña erraten dizut, etzai zula konbeni. Nor esta arritzen Jangoikoaren onas ta amoltsuas bere amazaleeki? Gelditu ze Sandua fabore goneki ain zoraturik amores, ezi biotza urtzen zekiola negarres erran zio, ne Jaun ta ene Jangoiko ona ta onegia, nondik niri alako faborea, orren uztea ene eskuan berorren eskuan dagona, ta egon bear duena? Bada nik diot, Jauna, ezi nola nerau ezpainaiz nerea, baizik orrena, ala ez tutelata nai in daien ene borondatea, baizik orrena: orrek nai duena nai dut nik; orrek nai ez tuenana nik ere nai ez tut. Berorren eskura uzten dut arren bizia, ta neurea, ta berorrek emana duten guzi guzia. Mana bez, egin ta desegin bez, nola duen plazer. Asistitu zio iltzeko sanduki, ta gelditurik alargun, tratatu zue sartzekas Jesusen Konpañian, lentsago fundatu baizue S. Ignaziok, zeñek abisaturik Zerutik izanen zenas admititu zue gogotik: eta profesio eginik 1547 urtean, eman ze Jangoikoai berri berritan guzis: erredoblatu zitue bere penitentsiak ta orazioa: jaikitzen ze gauero bi orontakoan, eta ia belauriko, ia kopeta lurrean paraturik egoten ze orazioan zorziak arteo ain zebaturik ortan, iduri baizekio kuarto bat ordu. Bereala konfesatzen ta komekatzen ze. Gero segitzen zitue bere estudioak gaste batek becala. Gauero bere debozioak, eta Errosarioa faltarik gabe. Azkenean bere konzienziaren examina, ta penitentzia erruak. Eta ala denbora guzia ze nola sakrifizio kontino bat Jangoikoaren gloriatan.

3. Joanik gero Romara, besarkaturik S. Ignazioreki, beldurrak an in zezaten Kardenale, beraren konseju etorri ze Oñateko Billara, non egin zuen bere estado ta gauza guzien errenunzia solemnea. Ordenatu ze mezas, ta erran zue lenbizikoa Loiolan S. Ignaziori zion debozios: Bigarrena Bergaran kanpo agerrian etorri zen jende andiaren kasos, eta predikatu zue artan, aditzen zutela guziek Sandu bat becala, ta naiz askok ezin entenda erdaraz, ta ezin adi urrunez, guziek alaere negar debozios, beiratzekas Jaundi gura ain humil ta sandu. Oñaten egin zue bizileku bat pobre labur ertxia. An berak karriatus ura ta egurra, egines sua, garbitus sukaldia, ta onziak zerbitzaten ziote guziei kontent eder, paratus belauriko, apatus oñak, eskatus barkazio ta orazio, izateko egiaz Jangoikoaren. Zegolaik an bisitatzen zute Jaun andiek, ta Iruñeko Bisorrai D. Bernardino Kardenas Makedako Dukeak, zeñen petizios etorri ze Iruñera, ta predikatu zue Katedralean zenbait aldiz: baña laster itzuli bere Oñateko hermitara. Zegolaik bere zoko deseatu gartan, Enperadoreak ta Aita Sanduak nai zute egin Erromako Kardenale, berak deus etzekiela. Jakin zue ordea S. Ignaziok, zeñek eskatu zio Aita Sanduari, etzezala obligatu, baizik ofre-



zitu, nai bazue. Ala egin ze: eta S. Franzisko aditzeas ere aflijitu ze; ta bere eskuan zegola ikusirik konsolatu ze, ta eman zitio graziak Jangoikoai ta Aita Sanduai. Berze zenbait aldiz egon ze peligro berean, nai zutela goratu Elizako dignidadeetara; ta aflijitzen ze ain nola nai balezate botatu itsas-barnean; eta orazioz ta negarrez logratu zue utzi zezaten bere estadoan. Baña S. Ignaziok bere denboran atrarazi zue zoko gartaik probetxatzeko arimei anitz lekutan: egin zue bere Bikario Jenerale. Nolako antsiareki zebilan España barna, nolako lanak egin, ta zenbat fruitu atra zuen, luze litzake kontatzea. Bada Jenerale proprio egin zutelaik, nork kontatzen obra andiak, probetxuak, ta miragarriak Elizan? Gorputzak etzuke seki arimaren ferborea ta ala naiz bizi, naiz il, etzue errehusatzen nekerik ongi egin naiez. Azkenean Aita Sandu S. Pio V.a manamendus artu zue biaje luze nekosoia Italia, Portugale, España, Franzia, ta Saboia barna: ondorean ellegaturik Romara, bi egunen buruko akabatu ze iles Urriaren 30.an 1572 urtean: eta bere andinaren 62 urte, ogeitazorzi egun guti.

4. Guri erakusteko admirableak dire Sandu gonon birtuteak: eta len lenik humiltasun ain sines sendo gura munduko grandezaen erdian ta ondorean: eskean ibiltze gura karrikas karrika alforjareki soñean: txintxa bateki bilaraztea aurrak, ta egotea aien erdean erakusten doktrina: sukaldetan ta maian zerbitzatzea: apatzea oñak ain maiz lagunei ta bere monekoei. Dirudi bere estudio prinzipala egin zuela humiltasunean: onen gain orazioak, platikak, exercizioak. Zoeie bein karrika barna uzkuriturik soñak, alkes eta beldurres, iduri zekiola goratzen zirela zapetain, txastre, ta ofiziale guziak beren ofizioko instrumentueki arren kontra oiuz ziotela, infernukoari infernukoari. Berze bein ortzegun sandu batez pensatus nola Jesus onak garbitu zition oñak Judasi, ponderatzen zue negarrez ia etzuela lekuri munduan, zeren Jesus onak kendu zion lekua berari zegokiona, baize Judasen oñetan. Berze bein Komisario Jenerale zelarik, ta zeuzkielarik porteriako giltzak, norbaitek bialirik limosnas hazienda beltz bat ilik, artu zue berak soñean, ta eraman zue eskaleak gora, eta admiratzen zirenei ortas erraten zioten, zer milagro da eramatea hazienda beltz batek berzea? Berze bein lanoan bustarturik zebiltzan bi idietarik bat iltzelaik an kanpoan, idiskileari erraten zio ain sinez bustar zezala bera, inen zuela il zenaren partez lana. Berze bein ostatu batean gauaz erreklinaturik zoko batean, laguna baize asmatiko, beti egon ze estulka tiratzen flemak eta gargajuak beraren gañera goartu gabe, ta bera geldi ixil: alik eta argiareki gero ikusirik, gelditu zen ura penas beterik: eta Sanduak alegre irris erraten zio, etzezala izan penarik, ezi kuartoan etzela ain leku propiari gargajuendako, nola bere aurpegia. Zer iago erran daike? Beti zebila

iges honraetaik; etzue nai aipa zezan niork ere izan zena len; eta norbait deskuidatzen baze honratzean edo laudatzean bera, aflijitzen ze lazki: eta galdeginik zergatik ala aflijitzen zen, errespondatzen zue, beldur zela kontu eskatuko zionas Jangoikoak orgatik, honratzeas bera deshonoratu bearrean. Bere gustoa ze ezauntzen etzutenen erdean, iten baize guzien meneena, guzien zerbitzuko. Bi gauzaetako zio baliatu zekiola izana len: bata, admititzeko Konpañian, ezperen, nola bear nindute errezipitu ni deustako ez nai zena? Berzea ze, biajes zebilalaik, meza erran naiez, erriren batean barin bazute erreparo emateas elizako giltzak edo ornamentak, orduan zue lizenzia lagunak errateko nor zen, logratzeko meza erratea.

5. Obedientzia deitzen zue barka seguroa... non beti nabegatzen den Zerurat, naiz lo, naiz geldi. Errezibitzen zuelarik Aita S. Ignazioren kartaren bat, paratzen ze belauriko, S. Franzisko Xabieren gisara, eskatzen grazia, obeditzeko ongi, eta ala obeditzen zue, nola manatu balio Jangoikoak berak. Manatu zio, bere osasunari zegozkionetan obedi zezola Markos deitzen zen lego bati. Eta ze miragarri nola zegokion obediente aur bat bekala. Oroat kozinariari, an zegonean laguntzen. Alako batez etorri ze D.a Juana Prinzesa Sanduari mintzatu naiez: Erran zioten berari, baña etze atra eskatu arteo kozinariari lizenzia. Onen erran zio, bazeikela joan, baña itzultzeko len baño len, ezi iteko anitz zela. Atra ze, mintzatu ze bere Altezareki: eta andik guti erran zio bear zuela itzuli, nola manatu zion Kozinariak. Admiratu ze Señora, ta nor ez?

6. Orazio mentalean labratu ze Sandu gau Jangoikoaren gustora. Beti zegola orazioan, daike erran, ezaizeike beñere atzen Jangoikoaren Majestadeas. Konbersazioan ezipazute tratatzen Jangoikoaren gauzak, egoten ze elebaturik bekala, etzuela kasorik jardukias.

Naiz kontino zegon orazioan gogoas, bere bizia ze orazioa luzaro geldia egotes, gau erdias geros egon ta egon zebaturik artan, ondaturik Jangoikoan nola burriña sutegian, atratzen baize suturik begitarrea ere, de manera ezi Markos lego garrek beldurrak gaitz egin zezon, ematen zue golpe, ta abisatzen zue, aski zela: errespondatzen zio humil, guti bat gexago, hermano Markos, gexago gutitto bat uz nazazu. Sakramentu aldarekoaren presenzian, zue bere gusto erregalatu: arara eskapatzen ze egunaz laster eskalda arrapatzen zuen guzietan bere itekoen erdean: eta biajeetan lenbiziko bisita zue elizara; eta Jangoikoaren dono espeziales ezauntzen zue non zen Sakramentu, non ez. Errelijioneko etxeetan aposentua paratu bear zioten urbil elizara, joateko bere Jaunaren bisitatzerara, nai zuelaik, eta nai zue maiz, ezi ezta nior ain erregaloen goloso ta gose, nola Sandu gau zen Zeruko erregalo gonon, zein etzue utzi egunik errezipitu gabe, al bazuke, zela sano, zela heri. Eboran lien zegolaik letargo gisa bateki, doi



doia nekez idatzararazi baitezakete, etzue abisatu bearrik komekatzeko garaierat; ain erne puntual zego. Andik, Jesus onaren komunikaziotik, apegatu zekio karidade andi gura proximoengana salbatu naiez, zela orazioz, zela dilijenzias, eta edozein manieraz. Exenplu anitz da, baña bat Kaballero inpenitente batena, zein konbertitu naiez paratu ze orazioan Kristo guruzifikatuaren oñetan: eta Jaun dibinoak erran zio, Zoaz heriorrengana, ezi nik asistituko diot Mediku gisa, zuk konsejatzen diozuen bitarteo konfesa daiela. Joan ze Sandua boladan; aurkitu zue heriaren kuartoan Jaun dibinoa Medikuaren idurian. Asi ze erraten heriari bere antsia guziareki konberti zeieia; ta penaturik gaizki eginas konfesatu &. Heriak etzue aditu nai ere; zoeieia andik, zio, utzi zezala. Mediku dibinok despeitus becala erran zue, egin bez Sazerdoteak bere ofizioa, ezi nik egin dut neurea, eta damu dut ez dezan aditu ain ongi dagokiona. Sanduak sentitu zue Jaunaren joatea andik; nai zue geldiarazi, baña etzuke. Itzuli ze bere Oratoriora: an berriro urtikirik lurrean besarkatus Kristoren oñak zego eske ta eske, negar ta negar. Mintzatu zio guruzetik, aditutut zure otoiak, Franzisko, ikustentut zure negarrak eta deseok, baitire prezioso ene begietan: ta entenda zazun zenbat nauten nik bekatari gorren salbazioa, ta ezutela nik uzten bera, baizik berak uzten nauela ni, eramanazazu beragana, ezi zureki egonen naiz. Itz gebek aditurik, artu zue guruzifixoaren imajina: joan ze berriro, ta apartarazirik guziak kuartotik, gelditu ze bakarrik heriareki. Emen izan ze arren predikatzea, exhortatzea, animatzea: baña protxurik ezin atra. Itzuli ze Jaunagana, Jauna, orren eskuan daude gizonen biotzak: Jauna eman zuena bizia guruzean bekatariengatik, mogi bez onen biotza, ta ez permiti kondena daien. Orduan asi ze jariten odola guruzifikatuaren lлагаetaik. S. Franziskok erraten zio heriari, beira bez nola mostratzen dion Jaunonek nai duela salbatu: eska bezo penaturik &. Etzue mellarik egiten. Orduan mintzatu ze imajinatik Jesu Kristo, Bein ixuri nue ene odola munduagatik, orai zuregatik sollik: beira zazu nola nauten nik zure ona. Adi zazu ene sierbo gonek erraten dizuna: Konberti zaite, ta barkatuko dizut. Oneki guziareki etze beraztu. Orduan Jaun dibinoak eskuareki artus bere odola tiratu zio aurpegira, bada eztku nai baliatu ene odolas, au biz ire kondenazioaren señaie. Orduan zori gaixtoan jaio gura blasfemien ertean akabatu ze emengo, ta arima eraman zute Demonioek. & Andrad. Itin. gr. 7 l. 12. S. Franzisko Borja kanonizatu zue Klemente X.ak 1730 urtetik 1740 urtetako bitartean.

Lastallaren 15.an

Santa Teresa de Jesus Karmelokoa

1. S. Teresa de Jesus Karmeloko lore ederrena, Españako gloria, ta Eliza guziaren Doktora, argia, ta lustre gloriosoa Jaio ze jendaki nobletik Avila deitzen den Ziudadean 1515 urtean. Bere biziaren tela da, tela prezioso bat guzia bordatua birtuteen lorees. Guzia da imposible explikatzea: zenbait aipatzea inen dugu. Eman zio Jangoikoak gorputz ederrean ederrago arima onera emana aurzututik, ta entendamentu ona. Sei zazpi urte-tako adinean bere anaiatto bat eta bera egoten zire leitzen libru sanduak, eta leiturik eternoa dela emengoas geros ala premia, nola pena, zeude elkarreki errepetitzen *betiroko betiroko betiroko*. Eta Martiren historiak leitus itxekitzen zire martirioaren deseon, iduri zekiotela merke erosten zutela aiek gloria eternoa eriotzearen kostus; eta ala biak eskapatu zire etxetik joateko Moro-errietara iltzeagatik an Martir Jesu Kristoren amorez. Baña osaba batek aurkiturik bidean itzularazi zitue. Segitu zue sandattoak Amaren eskupean azis Jaunaren amorea, egines bere debozioak, errosarioak, mezak, limosnak, zuken gisan. Amabi urtetan iltzekio bere Ama ona: eta bera gelditurik emazurz triste sollik becala, joan ze Ama Birjinenaren imajinaren alzinera negar ta negar eskatus mostra zeien beraren Ama betikos andik alzina. Senzillki egin nue au, dio Sandak, baña alaere iduri zaida baliatu zekidala, zeren ezi beti Señora gau frogatu dut Ama izan dela enetako. Asi ze goizik ikasten orazio mentalaren doktrina, zenen erakustun admirablea izan bear zuen gero. Txastaturik zein suabe gustosoa arimarendako den Jangoikoa, geroago ta iago zebatzen ze orazioan. Sartu ze Karmesen erreljiosa: ta probatzeko ta erreññatzeko Jesus onak bere Esposa Eskojitua erregalatu zue bere prenda ta arhaeki, baitire neke penak ta trabajuak, emanen gaitza gaitzaren gañetik, etsiurartano bere bizias. Laur egunes ila becala egon ze oliaturik, ta obia ere idikirik, eta konbentu batean ilaria zelebaturik, ta etzute ortzi bere Aitaren amorez, zeñek baizio etzegola ilik oraño: laur egunen buruan asi ze akorritzen, aurkitu zue argizari paratu ziotena begietan, eta jakintzue pasatu zena bitartean. Baña nolako pazienza ta arimo andiareki eraman zuen guzia, eztaike aski pondera: eta gero nola irur urte kosta zekion itzultzea osoki, lenbizian ibilis laur atzetan; gero ere azkenean S. Josef gloriosoaren medios, zeñen debozioa baizue, ta konsejatzen baitu miragarriro, konba-



lezitu ze, baña gelditurik asko gaitz-genero progutako; ezi dion bekala berak, *Jangoikoari gloria, beñere etzai da falta gaitz bat edo berze*.

2. Nai zue Jangoikoak Sanda, ez nolana Sanda, baizik Sanda perfekta: orgatik nai zue apartarazi konbersazio onetan ere zuen errekreazioetaik. Eta noiz deskuidatzen zen zerbaitto ontan, pagarazten zio orazioaren denboran. Orazio gau guziei konsejatzan ziote kontino, ta konsejatzan du bere libruetan agitz gogotik on guzien iturri bat bekala: baña berak denbora aldi batez txurtu zue ta utzi bekala kasi, humildade falsu baten kasos ziola berebaitan etzela digna komunikatzeko Jangoikoareki orazioan tratatzen zuena jendeeki konbersazioan; eta au dio izan zela tentaziorik gaixtoena, uztea biderik obena ontzeko, baita orazioa. Baña konfessoreen konsejus, ta bere experientzia propios itzuli ze laster oraziora, naiz ez ain laster ustu arras imperfekzio guzietaik. Konfessoreak ikusirik arima gura nai zuela Jangoikoak beretako sollik berex, erran zio ezi plazer egiteko Jaunari guzis, etzuela utzi bear egiteko deus nai zuenik bere Majestadeak: eta ala erretira zeila konbersazio guzietaik. Sandak erreplikatu ziola dio, ia zergatik utzi bear zituen, ezpaze bekatuak? Konfessoreak manatu zio enkomendatzeko Jangoikoai Espiritu Sanduaren himnoareki. Ala egin zue: eta aditu zue Jangoikoa erraten ziola, *ia ez tui nai nik izan dezazun konbersaziorik jendeeki, baizik Aingrueki*. Momentu berean aurkitu ze libre inklinazio gartaik, eta andik alzina bere bizi ta gusto guzia ze Jangoikoareki orazioan: eta *beiratzea Jangoikoa gizon eginik gure amarez, au da Jesus ona, eta penas heterik pasio doloreskoan, ilik gurutzean, ta presente oraño ere beti bere Sakramentuan, on da zorutzen zuena Sanda amarez eta dolerez*. Eta aumentatus bekala Sandaren amorea, zoezi aumentatus Jaunaren amoresko demostrazioak, erregaloak, ta faboreak beragana. Noblea ze Sanda Jaunareki: nobleago Jauna berriz Sandareki porfiaz bekala.

3. Nork erran? nork entenda? nork pensa ere egin zition fabore admiragarriak? Bein erakutsi zitio sollik eskuak: gero aurpegi dibino gura, ta beiratzan ziola amoroso: gero bere humanidade Sandu guzia glorioso, nola erresuzitatu zenean. Asko denboras sentitzen zue bere eskuietako aldean bere Majestadea iten ziola konpañia, mintzatzan, erakusten, konsolatzen zuela bear orduetan. Berze bein mostratzen zio esku bateko llaga, ta andik atratzen bekala itze andi bat aragiareki bateo, erraten ziola, ura pasatu zuenak beragatik, aisago inen ziola eskatzen ziona. Komekatzean bada erregalatzen zuena, nork erdetxi? komunkiro komekatu ondolan gelditzen ze elebaturik, eta ala nola kristalesko urna bat errebestiturik iruzkias istargitzen argi eder ederra. Bein sentitu ze ala nola odolesko bañu batean guzia bañaturik gozoro heterik gustos ezin iagos. Berze bein

errepresentatu zekio bere barnean amoroso ematen ziola eskuieko esku, ta itze bat señale bekala, izan bear zela beraren Esposa, ta beiratu bear zuela beraren honragatik Esposa bekala. Askotan erraten zio bere Majestadeak, *ene alaba, ia guziori zara nerea, ta ni zurea. Sandak, Jauna, niri zer zaidanitas, baizik orren Majestadeas? In bez duena plazer. Alako milla nekez sinetsikotuenak gizon lurrekoak, baña egiak!*

4. Baña etze guzia erregalo ta gusto: guruzifikatuaren Esposa bekala eramane zue ederki beraren guruzea, au da trabaju neke-pena. Denbora luzean dudatu zute beraren espirituas ote zen Jangoikoaren edo Deabruaren aldetik: eta bazire uste zutenak burlatzen zuela gaixtoak. Zenbat pasatu zuen orgatik, kontatzen du Sandak. Bada erreformatzean Karmesko erreljioea, Jangoikoai ta Elizari egin zio zerbitzu andia: baña nork kontu pasatu zituen trabajuak? Zenbat oposizio ta persekuzio mundukoenganik? Bada infernukoek nola maltratatu zute, ainberze arima atratzen zuenagatik aien atzaparretaik? Bi aldis autxi ziote besoa, gelditu baize mainku batetik Jangoikoaren permisios berze milla tratamentu gaixtoes landara. Alaere ain koraje ta arimo balientea, ezpaizioten batere beldurrik iago ezi balire uliak neguan. Iago beldur zue Jangoikoaren ofensa den txipienas; ta on dela dio beldur izateko iago ezi infernu guzias. *Eta zierto nekez aurkituko da Sandu edo Sanda ain baliente animoso denik eramateko trabajuak, gaizak, eritzeak: eta bateo ain beldurti lotsakor denik bekatuaren idurias ere, itzalas ere*. Ala eskribitzen ziote bere Monja batzuei, Jangoikoak indida mertxede emateas biotz, sufritzeko heritasun, pobreza, ta alako plagak bekatuak gabe direnak: baña soportatzeko faltak eta kulpak, ez tui biotzik. Ain sendo zuzen seguroa izan ze Sanda gonon espiritua, eta doktrina, Zerukoa bekala, ezi ala deitzen du Elizak. Ain baliente animosa izan ze, ezi bere bizi ze trabaju pasatzea, deseatzan zitue gogotik, sufritzen zitue ez solamente pazienza ta arimo andiareki, baitare alegreki ere; ta ala bere estribillo, edo egunoroko petizioa ze, *Jauna, edo padezitu, edo il: nola erran balez, ez lukela nai bizi ez padezitezko*. Teologia gau ez tui entendatzen baizik dagonak Jangoikoaren amorearen ardoas arturik.

5. Ote zebila Sanda gau gorputzaren gaitzen bildurrak? Aborrezitzen zue etsaiik andiena bekala: etzue iltzen, on ezpaita zillegi, baña gañarakoan tratatzen zue gogorki, nola balitz sendo azkar, zelarik herikor; eta sentitzen zue egotea obligaturik beiratzer osasunas, eta ezin tormentatzea nai luken adiña: ta erreprehenditzen zitue zutenak sobra kuido osasunas, *nola etorri balire, zio, solamente kuidatzera ez iltzeas. Iretsi nuen arteo erioa beingas, ez nua deus balio; ez tui tenas geros ajolarik gorputzas, il edo ez il, ez nago ain heri: ezi gorputz gebek dute kondizio bat, ezi iten bazaiote kaso deus guti bates, berla*



atratzen dute berze atxekia bat, kaso inarazteko. Zer inporta da il gaitzen? Eta errealki Sanda gloriosak bizitzea zerama pazientzian, ta iltzea zeuka deseon: ala kantatzen zue, *Bizi naiz, ta ez enebaitan: ta alako biziain beira nago, ezi ez iltzeas iltzen nago.* Eta berriz usu aski bere buruai zio, *Deusek etzaitela turba: Deusek etzaitela lotsa: Guzia pasatzen da: Jangoikoa aldatzen ezta: Jangoikoa duenari deus etzaio falta: Jangoikoa sollik aski da. Pazientziareki guzia erdeten da.* Galtzeko beldurra trabajuei ta erioai, baliatu zekiola, dio, infernuan egona espirituas, ta txastatua zerbait ango penaetaik. Kontatzen du Sanda berak, nola eraman zuten espirituan infernura, ikustera leku prestatu ziotena an Demonioek, ango erretzen egotea, ango neke-pena betirokoa, ango desesperazia &. Kontatzen du ezin aurkitus bear bekalako itzak adiarazteko: eta sei urteren buruan ere pulsoak ikaritzen zaizkiola oroitzeas ere, arriturik nola leiturik len, ta pensaturik anitz aldiz infernuaren gain, nola etzuen gogoratu denaren erdia ere, ezta milla zatitaik bat ere. Bukatzendu erranes, *Jangoikoaren amoreagatik otoi otoi ez gaitzela kontenta gutireki, bai egin ta pasa al guzia, libratzeagatik miseriaen miseria extremo gartatik.* Ala egin zue berak: eta guk dezakegu atra kontua, ezi alako arimarendako prebenitu barin bazuzte Deabruek alako penak, zer ez tuten eginen gure arimes? Oh! Jangoikoak guarda, bere Seme Jaun Jesu Kristoren atenzios.

6. Explikatzea arima eder garren gañarako birtuteak sollik dezake serafinen miak: guk aipatu zerbait, zerbait ikasteko. Humiltasuna da zimendu gisa bat: Ain barnetik eta sendoki ze humila, ezi infernua ere uste zue guti zela berak mereji zuenarendako; ta penatzen ze, erraten, edo pensatzen zutelarik ongi beras: eta manaturik Konfesoreek eskribi zezkielela Jangoikoaren mertxede in zitionak, naiago zue publikatu ta ponderatu bekatuak, eta etze deskuidatzen ontan, beti emanen bere kontra. Jangoikoai eskatzen zio etzezola egin ainberze fabore atzendus ain fite berak inikako ofenses. Alketzen ze beiratzeas fabore iten ziola Jangoikoak age-rrian, eta nai luke joan urrun, ta altxatu, niork ezaundu etzezan lekuan, auta lezakela ortzitzea ere bizirik orgatik. Agitzen zelaik despreziatzea norbaitek, edo murmuratzea, on ze musikarik gozoena berarendako: eta ala murmuratzen edo kontra egiten ziotenei artzen zioite amore ta kariño espeziala, bere ongiegille obenei bekala. Goratu zioite Sevillan testimonio falsu txoil itsusi bat de manera ezi Inkisizioko Jaunak sartu zire konbentuan atratzera barin baze alako deliktorik. Guziak turbaturik, ongi nai zutenak triste beldurrak: baña Sanda aurkitu zute ain alegre, ain zoraturik bekala kontentus, ezi dio karta batean, ematen ziola gana egiteko egin zuena Dabidek testamentuko arkaren alzinean. Bada preso geldiarazi zutelarik konbentu batean, fr. Juan de Jesus Rocari andik eskribitu zion

kartan animatzeko, zer kontentua mostratzen du? zer korajea? zer ansia pasatu naiez gurutze ta pena iago ta iago? Ederki ikasi zue Jesus onaganik izatea manso eta humil biotzez, iago ezpaita posible alako santidadean.

7. Zimendu sobrenatural propioa da fedea, au da sinestea ikusi gabe, zeren Jangoikoak dion ta Elizak erakusten duen. Meatxu iten ziotelaik erranes zebilala tentureki, denbora gaixtoetan bizi zela, bazeikela agitu kontu ematea Inkisizioari, ta kastigatzea. Irri egiten zue ziola, sospetxabalez bazela berabaitan puntu bat ere Elizaren kontra, bera presentatelaikela tribunalean bereala. Eta ezauntzeko Jangoikoaganik edo Deabrueganik zen espirituan sentitzen zena, baldin balitz deus Elizako zere monia txipienaren kontra, zio etzuela berzerik bear, sinesteko zela Deabrueganik. Zer iago? erraten zue, ezi Zeruko Aingiruek mana balezote gauza bat, ta berze bat kontra Konfesoreak, edo Superioreak, ez lezakela egin, baizik ebek manatua. Zer iago? Denborain buruan seguratu zirelaik, Jangoikoaren espirituak gobernatzen zuela arima gura, manatzen ziolaik Jangoikoak gauzaren bat egiteko, aipatu gabe errebelazio izana Zerutik, konsultatzen zue Konfesorea gauza gartas, zer iduri zekion: eta baldin Konfesoreak consejatzen bazio kontra, egiten zue onek errana, ta ez Jangoikoak errana; eta Jangoikoak berak manatu zio ala egiteko, eta au dela bide seguroa, ta Jangoikoak Elizan paratu duen gobernuaren konforme, ta ala segitus eztaikela uts egin, kontra bai: Gero Jangoikoak berak nai bazue in zeien berak errana, aldatzen zuela Konfesorearen borondatea. Sinesteko Sandak, etzue bear berzerik, baizik Jangoikoak errebelatu ta Elizak diola: eta erraten zue, zenbatenas nekesago den gauza entendatzeko, aisago sinesten zuela, baize on señale, Jangoikoaren gauza zela. Fedea- ren misterio barna sekretoena bide da aldareko Sakramentua, non sinesten dugun presente Jesu Kristoren Majestadea uzten dela artzera, jatera, ta sartzera gure barnean, naiz etxakin guk nola, ta ezin entenda. Sandak ontan zuen sineste bizi gerorat ezta ain admiragarri, ikusten ere zuelaik askotan; baña prinzipioetan ere len ta len dio, errezibitzen zuela Jauna Komunionean ain nola ikus balez, nola Magdalenak: eta erraten zutelarik zenbaitek, nai luketela bizitu balire Kristoren denboran ikusteko ta mintzatzeko, irri egiten zuela berebaitan Sandak ziola, zer geiago duten, daukatelaik ain errealki presente orai? Eta ala obe guretako, ezi begis ikus baledi, nola leike ni bekalako bat trebe ellegatzera? Orai dago disfrazaturik, atrebi gaitzen: eta dirudi obligatu dela sufritzera gu, naiz ez bear adiña erreberenzia, zeren ala disimulatzen duen Majestadea. Baña eztago, dio, eztago ain altxaturik, ezpaita ezauntzera ematen asko maneras ongi nai



duenari. Agertzen, ta ezaunzera ematen zekio maiz Jesus ona Sakramentuan Sandari, ain ongi nai zuenari. An bein kontatzen du Sandak ikusi zuela bere edertasun ta Majestade propioareki Sazerdotearen eskuetan, zein baize bekatari, eta bi Demonioek zeukatela arren lepoa inguratirik beren adarreki, ta zeudela beldurrak bekala Jaunaren Majestadeas. Asi nitza, dio, dudatzen ote zen Jangoikoaganik bisione gau, ezpide zuela naiko ikus nezan arima gartan zegon gaizkia. Erran zida permititu zuela ori, entenda nezangatik konsagrazioko itzen birtutea, eta nola paratzen den presente an, naiz gaixtoa den sazerdotea. Enkomenda nezala. An anparatzen, konsolatzen, bizkortzen, animatzen, ta gloriastatzen zue arima gura. An gorputza ere berritzen bekala ze, ezi naiz joanik koloregaitz ain herikor penitente bekala, komekatu orduko, ala nola urrea suan, gelditzen ze arrosakolore agitz eder ederra ta alako majestade admirabileareki, ezaun baize nolako arrotza zeukan bereki: eta komunkiro elebaturik arima sentidoetaik.

8. Fedearen neurrira zue esperanza ere firmaturik ainberze faboreeki. Gloria Jangoikoari, zio, ezpaitut beñere deskonfiatu beraren onas eta miserikordia infinitoas. Andik egin zekio biotz gura zabal andiago ezi mundua. Andik arimo ta koraje gura, fundatzeko erreforma bat ain admirablea, izanik emasteki bat mediorik gabekoa, naiz oponenturik infernua ta mundua, ta aldartez gizon Sanduak ere bai. Baña gusto da leitzea nolako oposizioak, nekeak, ta goraberak pasatu zituen andik eta emendik milla maneras, nolako arimoa bitarteo eta konfianza, nola en fin laboratu zion Jangoikoaren esku poderosoak atratzeko biktoriosa: Bere fabore zue esku poderoso gura, ta ala guzia garaitzen zue: deustas etzue beldurrik. Ez solamente berak zue arimo ta konfianza andia, baita berzeei ere ematen zue. Salamancan zego bere Monja bat heri iltzen ia, baña beldurrak ikar ikar kasi etsiturik kondenatzeas. Sanda zego Segobian ikusten Jangoikoan pasatzen zena. Momentuan Jangoikoaren birtutez paratu ze Monjaren bururdikoan konsolatzen, ta animatzen amorosoki pasatus eskua aurpegitik erraten ziola, ene alaba, etzaitela izan boba, utzi beldur goiek, ta egon guzis konfiaturik pasatu zuen artan zuregatik zure esposo dibinoak, ezi andia da gloria prestaturik daukana zuretako, eta sinesta ezi gaur berean joan bear duzula gozatzer. Ala joan ze alegre Sandaren besotan. Bere konfeseora Aita Gaspar Salazar zego trabaju andi batean urrun; eta oroat Jangoikoaren birtutez Sanda jenerosa plantatu zekio derepente bere aposentuan, ta utzi zue beterik konsolazios ta arimo ones. Bada nezesidade lurrekoetan nolako arimoa zue? Sinesta, erraten ziote bere Monjaei, zuek ezpadioze faltatzen Jaunari, eztizie faltatuko berak. Ala milagrosoki

ere suplitzen zitue bear orduan Sandaren kasos. Urte batez etzutelaik ogirik konbentuan ilabete bateko doi doia, ta nion ezin aurki, sustentatu zire guziak sei ilabetez, eta asko pobre ere bai aien limosnas. Urte berean katarroaren epidemia bateki jende geiena heriturik, ta Monjak ere bai, ezin niondik supli, ezin saldu ere esku-lan eginak, ala ere mantenitu zitue heriak ta sanoak Jaun onak: nola? zute baratzean udare planta bat, ez andia; baña aintz udare ekarri zuena urte gartan; egunoro biltzen, ta beti beterik, jaten zuzte ia egosirik, ia errerik, saltzen ere bai kargaka suplitze-ko gañarako bear zirenak; alaere udares beterik beti, nola ezpalezate kendu batere. Gauza txipi idurietan asko aldiz agertzen da Jaunaren piedade andia. Nola baizute habitua estameñas, trabaju zute zorri ta bartz deitzen direneki, eta inkietatzen zuztela orazioko denboren, eskatzen ziote sandari logra zezoten libratzea molestia gartaik. Zegolaik bein sanda bere orazioan koruan, disponitu zute berze Monjaek joatea Korura prozesioan kantatus koplá gisa batzuk konpondu zuztenak plaga garren gain. Ikusi zituelaik eta aditu sandak jaiki garbosa bere lekutik, ta asi ze kantatzen derepente koplá in zituenak Jesusen amorez. Bada gerostik onat sekulan ez omen dute izan bakotxik ere ez zorri ta ez bartzik Monja profesatu direnek: eta milagro gonek omen dirau egungo egunean ere. Baña zer milagro, ofrezitu ziolaik Jaun dibinoak sandari emanen diola eska dezan guzia?

9. Zertan izan zen S. Teresa Zeruko Serafin bat bekala propioiki, da karidadean, au da maitatzean Jangoikoa guzien gañetik, eta proximoak Jangoikoagatik. Ze petxo noble gura ala nola brasero bat sus bete, non biotz jenerosoa zegon kontino erretzen amorez, ta inzenu gisan errespiratzen kontino afekto amorosoen fragranzia gora gora. Etzue lekurik an lurreko afekto batek ere: Guzia bete zio Jangoikoaren amoreak, ezaizekie ez pausurik ematen, ez mintzatzen, ez gogoratzen, ez memoriaik ere egiten gauza bates ere, ezpaze emateas plazer bere onetsiari. Orgatik egin zue boto egiteko betiro zer ere uste zuen zela perfektoago, ta Jangoikoaren iago gustotan. Jem urruti zegon egitetik desplazer! Kunplitu zue diona itz gonek partiturik bortzetan *amore, more, ore, re, e* au da, biotzeko *alifioneareki, kostunbre oneki, itzez, obraz, ta eriotzeaz*. Amaten zue *afektoas, efektoas, eta perfektoas*. *Afektoas* da enpleatus arima guzia Jangoikoan, memoria oroitzen, entendamentua pensatzen, borondatea konformatzen Jangoikoarenareki, eta biotza amorosturik guzia bere Majestadeas. *Efektoas* da, obratus, trabajatus, egines, ta desegines al guzia beraren plazer, eta gloriatan. *Perfektoas* da padezitus, bizia, ta odola ofrezitus sakrifiziotan. Azkenean zio amore sendo sineskoa; *insuperablea*, au da garaitu eztaikena:



inseparablea, au da aparta eztaikena: *insoziabilea*: au da berzeeki parti eztaikena: *insaziabile*, au da ase eztaikena: ta ala guzia guti iduri zekio Jaunari zor zion ta pagatu nai zionaren aldean. Amorearen señale izan ze Serafin batek susko saeta garreki traspasaturik biotza utzi zuelaik erretzen amoreko dolores, zelebrazten baitu Elizak Agustuaren 27.an. Egin ze amorearen medios espiritu bat Jangoikoarenareki, eta ala nola biak balire bat, erraten zio, Jauna, au ona da gure adiskidetako, nai zuelaik sanduarazi zezan bat beretako.

10. Jangoikoai zion amoretik ze proximoei zioten amorea, arren ari-
ra, arren konforme. Gorputzai dagokionez onesten zitue proximoak iago ezi Bere burua, artus berak nekeak eta penak alibiatzeagatik berzeak, berak barutus sustentatzeagatik berzeak, berak gaizki pasatu ongi ikusteagatik berzeak. Arimaren aldetik guziak nai zitue salbo ain ongi nola bere arima: eta herejeen ta bekatarien uts, errore, ta galmendeas afljiturik bizi ze kontino negar ta negar, nola baizekie infernuko berri esperientzias ere, aien onagatik artzen ta ofratzen zue asko penitentzia, tormentu, eta martirio: Bere alaba sandaei ere enkargatzen ziote eskatzea Jangoikoai beren orazioetan, ez lurreko gauzarik, baizik gaixtoen konbersioea. Eta ezin soportatus biotzeko miñ errua beiratzas alde bat ainberze ofenditzen dela Jangoikoa, berze alde ainberze arima galtzen dela, erremedio ta errekonpensa zerbait eman naiez, egin zue bere Karmesko Erreljioearen erreforma milagroskoa, eta izanik donzella pobre bat, fundatu zitue ogeitaamabi konbentu ala nola Jangoikoaren usadorre preziosoak, zeñetan biltzen ziren arima garbi eder sandaeki errekreutzen ta erregalatzzen Jesus ona, berak errebelatu zuen bekala noiz ta botatzen zuten ainberze lekutaik herejeek urratus tenploak, kendus sazerdoteak. Zenbat nekepene, biaje, otz, bero, trabaju, ta molestia-genero pasatu zuen ortako guruzifikatuaren Esposa propiak, ezta posible kontatzea. Bizia eman naiak beti, ta guti iduri zekio zuen bat gura ematea, milla bizi eman lezazke gogotik ere karidadearen Martir. Bere bizitze estimatzen zuena ze Kristo Jesus Jangoikogizona; zeñeki zuen bere errepausa bakarra orazioan; baña noiznai pribatzen ze gozo gartaik ere, bear baze irabazteko arimak, utzis ala Jangoikoa Jangoikoagatik. Baña nork explika Sanda gonon grazia, modu, ta dono admiragarria, tiratzeko arimak Jangoikoagana? Bere konfesoreak itzultzen zitue sandu: berareki tratatzen zuten guziak oneratzen zitue bere mintzaera graziosoas, eta Espirituaren indarras. Etze Sanda gau triste serio mostratzen zena, eskrupuloso ertxi, akar inzale, aizkor, ta ala, ez, baizik afaire, llana, pasta onekoa, jenerosa, amoltsua guzieki, guziei ongi naia ta amablea: S. Pablaren gisara guzia guziendako: ala

oneratzen zitue guziak. Inbidia zuela zio Predikariei, baizeizke enplea konbertitzen arimak: eta au zio zela sakrifizioerik obena Jangoikoai. Baña etze deskuidatzen bera zezaken guzian, ta anitz maneras bere ta berzeen medios. Bere Konfessore bati eskribitzen zio, Aita, predika bez konfesio gaixtoen kontra, ezi orgatik galtzen da anitz arima. Nai zue predikatzean mintzaera baño iago izan zezaten espiritu ta ferbore Apostoluen gisara. Bada konfessoreen manamendus eskribitu zituen librueki zenbat eta zenbat arima eraman, ta eramaten du Zerura? Nork daki?

11. Ala sandutzentuen berzeak, zein sanda bide da berebaitan? Persona gura, zeintan bizi zen ta mintzatzzen zen Jesu Kristo, zein garbi eder perfekta ze prezio izatea? Gorputz ta ariman birjin izan ze bizi guzian: eta sinesten da ezi azkenerat ia etsaia etzela trebe egitera gerrarik, ta egitera tentaziorik ere genero gontan: eta oraño iago iduri duena, ta kasi ezin daikena sinesta, joaten zekizkiolaik bereak konsultatzaera genero gontako tentazioetan, aurkitzen baize ignorante bekala etzeikiela zer egin, edo zer erran; eta ala bialtzen zitue komunikatzaera zekiteneki: baita arritzeko gauza, izanik Elizako Doktora Jangoikoak argitu zuena argitzeko munduari gañarakoan. Gorputz ta arimaren garbia ze ageri ez solamente itz, ta akzioe guzietan, baita ere aurpegian ta begitardean ere, kausatus tratatzen zutenetan kastidadearen afizioe, de manera ezi beiratzza Sandari ze predikurik obena kastidadearen. Zer iago erran daik? erranen dut iago ere kontatzen duena Sandak berak, ezi Demonioek bat eroriaratzen omen zute bekatu itsusi aditu zuen itsusienean. Konsultatu bide zue bere trabaju Sandareki. Sandak enkomendatu zue Jangoikoak ta enkomendarazi, eta biali zio karta bat eskribiturik bere eskus. Arrek errespondatu omen zio graziak emanen senti zuen mejorias, ta ziola ezi ertxitzen zuelaik sobra tentazioak, karta idiki ta leitzeareki libratzen zela. Pensa orai, Santaren letra sollik ere aski barin baze, libratzeko bekatutik berzea, zer eztuen eginen beraren debozio biotzezkoak? Guzietako eman zio grazia Jangoikoak: baña berak dion bekala, nola baizue iago ansia sendatzeko arimak gorputzak baño, Ja in diola Jangoikoak grazia libratzeas bekatuetatik arimak arren medios iagotan. Ene ustez Sanda gonon debozioa da medio ona salbatzeko arima. Eta nik bentzait esperanza dut salbazioaren, Jesus onas ta Ama Birjinas landare, Sanda gau dela medio, zein kontatzen dut Amabixti, Maestra, Patrona, ta Abogada bear bekalakoa. Amen.

12. Mereji zue bizitzea urte milla ta milla, eta on luke on munduak, baña etzue mereji: Zeruak ere nai zue bereganatu, ta mereji zue Sandak: berak nai luke egon trabajatzzen ta padezitzen juizioko egunerano Jaunen amorez: baña Jaunak kontent pasatu zuenas nai zue deskansarazi, ta



koronatu glorias. Beterik irur ogei ta zazpi urte terdi, ongi enpleatuak, konsumiturik gorputza gaitzes ta trabajus, naiz espiritua geroago ta azkarrago grazias ta birtutees, bukatu rik Burgosko fundazioa nola bere trabaju en azken korona lorees ta aranzees, ellegaturik Alban ongi akaiturik, izanik Zerutik abisu noizko zen konbidatua: Zorzi urtez lenago ere bazekie zein urtez il bear zen, baña eguna puntualki notifikatu zekio orduan, alegre arima, heritu ze gorputza. Errezibitu zitue sakramentu guziak txoil debozio guziareki: eta ellegatu zelarik Eukaristia, naiz orduraño zegon eroririk ta erdi ilik, goratu ze amorearen indarras, eta jarri ze bere tariman niork lagundu gabe: Paratu zekio aurpegia ain grabe eder istargitzen zuela, ezpaizokete beiratu. Komekaturik ia zego ain benerablea ta galanta, ezpaizue iduri adinetakoa: eskuak guruzaturik, espiritua amorez suturik, begitarte baterik aleganzias asi ze nioiz baño suabeago azkenerat mintzatzen ta erregalazten bere Esposo dibinoareki. Il zen egunean erreklaturik alde batera guruzifixoareki besarka egon ze amalur ordus geldi geldia ondaturik Jangoikoa, asten bekala gozaten gloriaren prinzipioak. Denbora gortan ikusi zue bere lagun izanak Jesus ona inguraturik argis ta Aingirus presente asistitzen anitz milla Sandueki. Aldespeitu ze arima sanda gura, ta ikusi ze atratzen uso txuri eder baten idurian. Bereala arbolara bat zeldaren aurkasean zegona bete ze lore ederres: eta izar brillante bat baratu ze ezkildorrearen kaskoan, adiarazis ala Jangoikoak bere Sanda loriosaren gloria. Etzela il gaitzaren erruas, baizik Jangoikoaren amorearen indarres, errebelatu zio berak zenbaitei. Agitu ze Lastallaren *4.an. 1582* urtean, urte gartan, noiz emendatu zen Kalendarioa kendus amar egun zirenak sobra: eta ala biramona kontatu ze Lastallaren *15.a* zelarik Aita Sandu Greg. XIII.a Felipe II.a Errege.

Il ondoan etzue kausatzen lotsamenturik, berze ilek bekala, baizik konsolazio ta admirazio. Ain arrosa-kolore, ta txuri eder aurpegia, eskuak eta oñak erreluziente miragarriri, ezpaizeizke ase beiratus, eta bedeikatus Jangoikoa egin zuena Sanda bat alakoa, eta mostratzen zuena gloriosa gorputzean ere. Orren gañetik exhalatzen zue atxon ta fragranzia bat alakoa barratzen zena konbentu guzia barna, ezpaizekite zereki konpara, zeren baize proprioki Zerukoa, eta aldartez eldu zire ala nola olada batzuk berriri ain geiegi, ezi preziso izan ze idikitzea atariak eta leioak soportatzekos. Eta atxon gura ematen zue ez solamente gorputz sanduak, baitaere tresena ta gauza ukitu zuten guziek. Bereala gure Jauna Sandaren gloritako asi ze ongi egiten milagrosoki heri ta malder akuditzen zutenei eske. Anitz aldiz agertu da gloriosa bere deboto espezialki bere errelijio-nekoei, eman es konseju ta doktrina zerukoak, manteniarazteko bizimodu

sandua bizi zelaik erakutsi zuena. Errelijiosa sanda bati manatu zio Zerutik abisatzeko Superiorea, ez iteko anitz kaso errebelazioes, ezi zenbait izanik ere egiaskoak, anitz direla falsuak: ta fedea dela argi seguroena, ta bidea birtuteak ta obra onak zerura joateko, eta berari etzaiola eman duen gloria errebelazioengatik, baizik birtuteengatik. Berze bein erran zio, arturik eskuan doktrina Kristioaren katetxima, au da librua nautena nik lei dezaten ene alabaek gau ta egun. Berze bati konsejatu zio ala, ama zazu iago, ta ibili zuzenago, ezi bidea ertxia da. Berriz erran zue, zerukook ta lurrekook izan gaizen bat garbitasunean eta amorean: Zerukook gozatus: lurrekook padezitus: Guk adoratus Jangoikoaren Esenzia, eta zuek aldarreko Sakramentu Sandua. Berze hein erran zue, Demonioa dela ain suber, ezi nai duela sartu Jangoikoa sartzen den atarietaik, zein baitire konfesioak, komunioeak, ta orazioak, eta erremedioan nasi beneno. Berze bein, azi daitzela arimak desapegaturik lurreko gauzetaik biotzean ta agerrian, azitzen baitire gloriako Erregeren Esposatako. Azkenean S. Teresa izan da ta da Elizaren ala nola iruzki dibino bat, argitzeko Zerurako bidean; Segi zazu, salbo zara. Nola baize jaioa Avilan, eta an lenbiziko konbentu fundatu zuena, injeniatu zute eramatea arara gorputz sandua Albatik itxilikias ta sekretoan: Alban falta aurkiturik beren tesoro prezioso, logratu zute itzularaztea Aita Sandu Xisto V.en manamendus: Itzultzerakoan gorputz sandua, arren fragranzias betetzen zire kanpoak, baizoezi nekazariak atzetik, naiz etzekiten zer zen. Dago orai Alban exhalatzen duela atxon admirablea, ta oso, eze, miragarri honratua Zerueganik ta munduaganik. Kanonizatu zue Gregorio XV.ak Martxoaren *12.an. 1622* urtean, S. Isidro Nekazariareki bateo, S. Ignazio Loiolareki, S. Franzisko Xabiereki, ta S. Felipe Nerireki &.



Lastallaren 18.an San Lukas Ebanjelaria

1. S. Lukas Ebanjelaria, Antiokian jaioa jendaki nobletik, estudiaturik letrak eta birtuteak, izan ze Mediku honratua. Zekiela pintatzen ongi, da fama antiguaskoa, eta pintatu zuela Maria Santisimaren imajina, bizi zelaik oraño Andre soberana, zeñen deboto amante biotzezkoa izan zela eztaike duda. Jesu Kristoren iruetan ogei ta amabi Diszipuloetaik izan zela, diote zenbait Autoreek, eta Emausko bidean Kristo bizturik ikusi, mintzatu, ta konbidatu zuten bi gaietaik bat. Zierto dena da izan zela S. Pabloren lagun ta adiskide onetsia akonpañatu zuena bere bide, lan, trabaju, ta ongi eginetan, zeñetas Apostoluak iten du memoria bere kartaetan, ta aipatzen du honratus Jangoikoaren ta beraren onetsia bekala. Eskribitu zue ederki Ebanjelioa itzkuntza griegoan, erakutsis asko gauza S. Pablok, ta berze asko berze Apostoluek ta Diszipuloek, ikusi ta tratatu zutenek Jesu Kristo bere denboran. Prinzipalkiro Ama Birjinaganik ikasi bide zitue eskribitu zituen misterio sagratu sekretoak, sollik berak ta Jangoikoak jakin zuzkenak, bere Anunziazioaren gain, Jesusen Enkarnazio, S. Josef kabilazio, S. Isabelen Bisitazio, S. Juanen saltatzea bozkariundez sabelbarnean, Jesusen jaiotzea Belengo etxolan, Zirkunzisia zorzigarren egunean, presentazioa tenploan, eta alakoak S. Lukasek sollik kontatzentuenak, ta Ama Birjinak zekizkien bekala, erran bide zitionak kontatzeko bere Ebanjelioan. Eskribitu ere zue berze libru bat ederra, non kontatzentuen Espiritu Sanduaren etorria Apostoluen gain, aien predikatzea, milagro in zuztenak, Judioen ematea aien kontra, S. Estebanen martirioa, Sauloren konbersioea, Santiagoren Zgollatzea, S. Pedroren preso egoeta, ta libratzea: gero onen joanetorri ta ongi eginak; gero S. Pabloren peregrinazio, predikazio, trabaju, persekuzio, ta gauzak arren lagun bekala, preso in artaño Roman bi urtes egon baize.

2. Utzirik Roman S. Pablo, S. Lukas joan ze Afrikara, Ejiptora, Tebaidara, goitiko ta beitikora: emen izan ze Obispo, ta konbertitu zue infinizio bat jende Kristoren federa: ordenatu sazerdoteak, kontagratu Obispoak, eta bialdu zitue predikatzeraz berze anitz lekutan. Fabrikatu zue anitz tenplo Jangoiko egiaskoaren, eta bere bizimodu, mintzaera, ta milagroeki, leku gaiek len zirenak eremu ta Deabruen kubilak bekala itzuli zitue Jangoikoaren paraiso, ta Sanduen jardin amenoak bekala. Eta gastaturik bere bizitza ongi enpleatua alako lan onetan, ellegaturik lauretan

ogei ta laur urtetaraño, S. Jeronimok dionez, iltze Bitinian eriotze naturalaz; berze Autore batzuek diote il zela Martir glorioso. Berze anitz ongi eginen ertean kontatzen da, Sandu gonek pintatu zituela Jesu Kristoren, ta bere Ama Birjinaren imajinak memoriatako, ta utzirik elizan beti izan direla agitz estimatuak, ta beneratuak debozio andiareki. Ama Birjinaren bat S. Lukasek pintatua omen dago orai Roman S. Maria Maior deitzen den Basilikan: zeñen medis obratu diren asko milagro &. &.



Lastallaren 19.an San Pedro Alcantara

1. S. Pedro Alcantara penitenteen esenplu admiragarria, zein laudatzen duen ederki S. Teresak bere Biziazen libruan, ta zeñek aprobatu zuen Sandaren espiritua, jaio ze Alcantaran nobleetaik. Aurzutuan asi ze egiten bere debozioak, espezialki errosarioa Ama Birjinai, zeñen konzepzio garbiaren deboto andia baize. Leitzen ikasi zuelaik, erretiratzan ze leitzera libru sanduak, ta ondorean pensatus leitzen zuena. Etxean falta goartzen zutelaik, aski zute elizara joatea, an aurkitzen zute faltarik gabe. Zebatu ze konsideratzean adin gartaik ia Kristoren pasioan, eta bein aurkitu zute goraturik airean spirituaren indarrez. Egin zue pakto bere begieki ez beiratzeko sekulan emastekiaren aurpegira, eta kunplitzeko ongi, beti erabiltzen ze begiak apal apala lurrera beira. Estudianteen esenplu ta alkaizun ze Salamanca: guardatzen zire aipatzeas bear etzenik arren presenzian: eta barin bazeude alako jardukietan, agertu orduko ura, ixiltzen zire ziotela, Alcantarakoa eldu da: alda zagun itzketa. Berak bere aldetik egines Jangoikoa zue bere fabore: beraren inspirazio egin ze S. Franziskoren erreljioso, eta zoelelaik artzera habitua, agitu zekio milagro andi bat: ezin pasatus ugalde andi bat barkorik ez izanez, zegolaik triste, berantzen zekiola, bereala sentitu zue zeramatela ur ganean etxakin nork eta nola: ta aurkitu ze berze basterrean busti gabe Jangoikoai ziola esker milla. Laster ezaundu ze kidatzen zuela Janpikoak, guzien esenplu ta admirazio eginik penitenzian, orazioan, santidade guzian. Ogei urte sollik zituelaik, biali zute fundatzera Badajozen Superiore bekala. Urbilen urtetan obligatu zute errezibitzera ordena sagratuak. Ordenaturik sazerdote zelebratzen zue meza ainberze debozio ta negarreki, ezi adizaleei kausatzen ziote negargale, ta atratzen zire mezatik iago konbertiturik, ezi misione batetik. Nai zue Probinzialeak egin Predikari: zue erreparoa, ezpaizue estudiatu Teologia: Baña egun batez trataturik Teologiako puntu barna bat, gañarakoek erranik bere iduritu, manatu zio fr. Pedrori erran zezala berak ere. Exkusatzen ze: baña obligaturik obediencias, ala nola len S. Antonio Padua, mintzatu ze ain azertu, espiritu, ta graziareki, ezi bereala ezaundurik Jangoikoaren borondatea obligatu zue izatera Predikari.

2. Asi ze Jangoikoaren spirituas errebestiturik, ta segitu zue predikatzen ziudade, billa, ta errietan, konbertitus biotzak, ta irabazis infinizio bat arima: itzak atratzen zitue suturik biotzeko suan, baña bere obrak zire

iago mogitzen zituenak, ezi aski ze beiratzera Sandua penitentiaren erretrato bat eginik: eta Jangoikoak ere konfirmatzen zue señaileeki. Zue debozio predikatzen zuen errietan egitea zuresko gurutze andi batzuk, eta berak arturik soñean, prozesio gisan joanik paratzen zitue oian kaskoetan, adora zezaten Jesus guruzifikatua, ikustearaki señailea urrundani. Gatasiko sierran igan zue bakarrik bat jasi etzuketena amabi gizon azkarrek. Sierra Morenan berze bat bi pino andis egin ogei gizonek ogei pausu eraman etzuketena: bai ordea Sanduak Jangoikoaren birtutez. Egatu ze beraren fama, ta zoeie obratus konbersione prodijioskoak jendeetan, ta konbentuetan. Eginik Probinziale nai etzuela bortxa, nork explika nola erreformatu zuen erreljioa? Gauza bat ze guzien gain arrigarri, ezi zelarik beretako txoil gogor sebero ta kruela, baize berzeeki beratx amoltsu humanoa. Ezta guretako erabakitzea egin zuen on guzia; kontenta gaitzen aipatzeas zenbait birtute, ezpada imitatzeke, bentzait admiratzeke, eta geuren deus gutias alketzeke.

3. Fedea zue ain bizi ta firme sinetis ikusi gabe iago ezi entenda ta ikusi balez. Esperanza zue ezin seguroago fiaturik ta konfiaturik Jangoikoaren on ta podore infinitoan: oneki egin zitue gauza inposible iduri zutenak: eta Jangoikoa bere alde izateareki, deustas etzue beldurrik. Karidadea eztaike aski pondera. Au da su bat Jangoikoak itxeki zuena arren biotzean ain bizi erru, ezi erretzen zio gorputza ere. Beraren kanonizazioaren Prokuradoreak kontatzen du lanze bat, ezi bein ezin soportatus amoresko suaren indarra bota zela estanke izoztu batean, ta bere bero garreki ura berotu ta irakinarazi zuela. Dena zierto egia da diona S. Teresak, *ezi exzesu amorosoen birtutez atratzen zela kanpo agerrira, ta an oiuz egoten zela konbidatzen gauza guziak laudatzera Jangoikoaren ona, ta erotako zeukatela. Eta egiaz ala zego onez, dio Sandak, erotasun ta ordikeria Profetak zuenareki, zeneki konbidatzen zituen Zeruko ta lurreko kriaturak bedekatzera Jangoikoa. O zein erotasun ona! eman balezagu Jangoikoak guziei.* Jangoikoaren amarez amatzen zitue proximo on eta gaixto guziak deseatus ta prokuratus guzien ona iago ezi Ama on batek bere hume maiteena. Paziencia Sanduarena etzuketete garai trabaju guziek nondik nai eutxirik. Jangoikoak, gizonek, Demonioek, aragi propioak, munduak, infernuak penarazten ziote nork bere gisara: alaere etze errenditzen arimo andi gura: iago ta iago naiak zego, ta erraten zue, *padezitza Kristoren amarez dela bide seguroena, erdexteko perfekzioa, eta naiz ertxikara, daramala zeruko atarietaraño.* Prudenzia zue admirablea konstanzia bekala, segitzeke, ta bukatzeke Jangoikoaren alderako itekoak. Zeikena egin, etzeikena desea, ta eraman ongi. Oropesako Kondeak lamentatus munduaren galdua erran zio bein, ah fr. Pedro, nola-



ko estado txarrean dagon mundua ainberze kulpaeki! eztakit nola sufritzen gaituen Jangoikoak, ta ez erauntsizen ausnarriak gure gain! Errespondatu zio Sanduak, ortas afljitzen da? Badu erremedio. Admiraturik ark, eta zer erremedio? Sanduak, Jauna, nola berori eta ni izan gaizen bear bekalakoak, dezakegu logra Jangoikoareki, erremedia dezan: ezperen, ia gure aldetik guri dagokigunez erremediaturik egonen da, eta erremedia-tzeko gutiago izanen da.

4. Penitentzia egin zuena ezin daike sinesta. Parte kontatzen du S. Teresak aditu zuena. Sustentu artzea ze irur eguntaik irur eguntara bein komunkiro, ezi zenbait aldis pasatzen zekio sei, ta zorzi egun jan ta edan gabe deus. Jaten zuena ze ogi guti bat belar batzueki: Eta gustoa kentzeko, botatzen zue gañetik auts, ur otz, edo ajenzu. Ardorik sekula bere bizian etzue txastatu, naiz konsejatzin zioten estomagoko oñaze kontinokoengatik. Loa aborrezitzen zue iago ezi erioa. Berrogei urtez beñere etzue pasatu ordu bat eterdi baño iago gau ta egun guzian. Goatzerik etzue batere, baizi lur utsa, eta heri zegonean, larru bat, zeñen gañean zegon jarririk, edo erdi jarririk, ezi edaturik etzeike etzin, ezpaizue bere zeldak baizik laur oin terdi luzetasunean, ta bera izaki luze gora. Konbentutik kanpoan bear zelaik alojitu, naiz goatze paratzen zioten etxeetan, beñere etze etziten, baizik erreklinatu lurrean zokoren batean. Gauoro ematen ze bi disziplina odolesko, bat maitinen alziinttoan, berzea argias-terat. Buruan beñere etzue paratzen estalkirik, zela konbentuan, zela kanpoan, zela bero, zela otz, elur, ta erauntsi, beti buru utsean: ezi erraten zue, nola Erregeren alzinean Pajeak baitaude buru utsean estali gabe, ala zegola bera bere errege Jangoikoaren prezian, baitago leku guzietan. Onetakorik etzue usatzen, noranai zoeien, beti oiñ urtuxian, heritzen zela arri ta larretan, ebek zirela zio loreak ta arrosak berarendako. Zauri andiak iten zirelaik, kuratzen zitue lurrez. Nolako zilizioak zeramazkien kontino, lotsagarri da leitzea ere. Azkenean penitentzia ze bere bestimenta, zeñetas bizi zen inguraturik kontino. Erraten ziotenei on zela temeridade, ta sobrania, errespondatzen zue, tratu egin dugu ene gorputzak eta nik bizi garen bitarteo, eramateko nekepenak: gero Zerura joan ondoan, deskan-satzeko betikos.

5. Jangoikoak ematen zio ala bizitzeko, argi ta su orazioan berareki zuen komunikazioan, zein baize ainberze, ezi arte dibino gortan atra ze Maestru exzelentea. Ortan pasatzen zitue, ez orduak solamente, baita gauak ere ta egunak ososoa, oroitu gabe gorputzas, ez tenploan ta zeldan solamente, baita kanpoan ere: eta etzio estorburik egiten arroiutak, otzak, beroak, edozein gauzak: ain zego ondaturik Jangoikoan! Orazioan Jan-

goikoaren argis ezaundu zue arren bearrean zegola S. Teresa, naiz urruti bizi zen, etzutelaik entendatzen beraren espiritua. Joan ze bada Sandua, eta seguratu zue Sanda Jangoikoaganik zirela zituen erregalo ta errebelazio guziak, desegin zitio beldurtasun ta duda zituenak, desengañatu zitue dudatzen zutenak, ta ikusiarazi zioten Sandaren espiritua zela Jangoikoaganik ain zierto, ezi etzeikela izan gauza ziertoagorik fedeskoes landara. Ala defendatu zue, konsolatu zue, sosegatu zue, animatu zue ta lagundu egiteko bere Fundazioak, joanes ortako Avilara anitz aldis. Sandak ere ezaundu zue Sanduaren arimaren preziosoa Jangoikoaren begietan, Jangoikoak ere ezaunarazi zio. Konbidatu zue Sandak otronze bat ar zezan Sanduak: admititu zue karidadea, eta zeudelaik esperan Sanda ta bere gisako lagun bat, ellegatu ze; eta bere itz sandueki zego sustentatzen espiritualki arima gaiek: alako batez derepente ustekabean gelditu ze elebaturik airean gora, ta espazio andian aien konsolazio andiareki, ezpaizute ala ikusi len. Itzulirik bere baitan etzue nai izan artu berzerik, baizik elzari katuli bat, baize festa eguneko erregalo guzia. Baña Jesus ona agerturik an jarri zekio aldakan, eta partiturik bere esku dibinoeki janaria paratu zio alzinean manatus jan zezala: Jan zue zenbait amen alako eskuetaik: bereala arturik Jaun dibinoak baso bat ur paratu zio ezpañetan edan zezan, eta oial bateki txukatu zitio ezpañak: gero desaparezitu ze, gelditurik Sandua ondaturik gozoan, ta Sanda gaiek beterik admirazios. Berze bein Sandua ta Sanda zeudelaik Jangoikoaren konbersazio ebetaik batean, biak gelditu zire elebaturik Jangoikoan, baizio gero Sandak bere grazia on garreki, etzeikela asi konbersazioan arreki, zerengatik bereala elebatzen da, edo elebarazten du. Konbersazio alako guti da munduan.

6. Fabore anitz ta andiak egin zitio Jaun onak. Sua itxekirik Konbentuan, sartu ze Sandua erdian, eta beraren prezian ta manamendua askitu ze itzaltzeko instantean. Asko aldis pasatu ze uren gañean busti gabe. Zebilalaik bein karidadez, beti bekala, artu zue gauak arrasoan elurketa andi bateki: sartu ze parete urratu batzuen eratean; eskatu zio Jangoikoai, nai bazue guardatu gau artan: bereala lurrean zen elurra urtu ta sartu ze lurbarnean, utzirik idor lekua: goratik erortzen zena zoeie partitus bi aldetara, formatu ala nola bi parete, gañetik gero ala nola bobeda bat guzia elurreskoa, ta utsgune guzia nola sala bat, non gau guzian Sandua orazio egiten, ta Jangoikoa gañetik erauntsi zen biramoneraño. Agertu ze bizi zelaik S. Teresari ta berze zenbaitei urruti zeudenei konsolatzeko bear orduan. Beren baratze batean fraileek erran zioten falta zela biku planta bat: ezta faltako, erran zue Sanduak: ta bereala frinkaturik bere paloa lurrean bere bedeizioareki, ta etzelarik bikuarena, berdatu ze, ta itzuli ze



biku, ta une berartan eman zue anitz biku osasungarri. Predikatus gauza bat, adizaleek entendatzen zute, batak au, berzeak ura, nola bear zuen bakotzak. Bisitatu zue askotan Zerutik jautsirik Maria Santisimak, ta Aingiruek, eta Sanduek. Bein S. Teresari komekatzera emateko, erraterakoan meza, ikusi zue Sandak zerbitzatzen ziotela mezan S. Franziskok ta S. Antoniok Diakonak bekala. Nai zuelaik ia Jangoikoak deskansarazi sandu gau abisatu zue urte batez lenago S. Teresaren medios. Errebelatu zio Sankari, ain kuadrable bere begietan zela S. Pedro Alcantara, ezi *beraren izenean eska zezaten edozein gauza emanen zuela*: ta nai zuela eraman beregana urtearen buruko, ta bazezaduela abisatu. Sandak eskribitu zio berri on goi, eta alegratu ze ezin iagos, ta asi ze berriro disponitzen biajea: eta zio humil, ai nitas, bainaiz sierbo inutila. Azkenerat etorri zekio sukar edo kalentura bat, zein ezaundu zue zela eriotzearen alzindari. Egiten erremedioak, eta protxurik ez: galdegin zio Sanduak kuratzen zuenai, Doktore Jauna, noiz goaz emendik? Sarri, errespondatu zio, ezpaitut erremediorik orrendako. Sanduak orduan, *laetatus sum in his quae dicta sunt mihi & Alegratu* naiz erran didanas, Jaunaren etxera joanen gara. Ikusten zituelaik bereak negarres, konsolatzen zitue amoltsu. Errezibiturik sakramentuak, presente zegolaik Maria Santisima, S. Juan Ebanjelaria, berze anitz Sandu ta Aingiru, bolatu ze espiritu andi gura gloriarat 1562 urtean. Ordu berean aparezitu zekio S. Teresari urrun zegonari alegre: Sandak galdegin zio, zer da au, ene Aita? Erresponatu zio, banoaie deskansatzera. O penitentzia zori onekoa, ainberzeko premia irabazi didana! Sandak berak kontatzen du Biziazen 27 kapituloan, ta berze asko gauza Sanduaren laudariotan. Eta gorputz gura diona Sandak iduri zuela arbolen zañes egina gelditu ze miragarriri eder Aingiru bat iduri zuela. Ilarian jendea zoeie busti gabe, eraunsten zuelaik arrigarri alde guzietatik: argizariak ez itzali ta gastatu ere etzire batere: milagro franko &.

Lastallaren 20.an S. Irene B ta M. pag. 316.

Lastallaren 21.an Malko Monjea. p. 317.

Lastallaren 22.an Sandak Nunilo ta Alodia Birjinak ta Martirak

1. Sandak Nunilo ta Alodia Birjinak ta Martirak, zeñen gorputz edo errelikia preziosoak beneratzen diren Leireko Monasterioan, jαιο zire Araguan, ez urrun Huesca deitzen den Ziudadetik. Buratsoak zuzte nobleak; baña Aita Jentil, Ama Kristio fiela, zeñek azi zituen fede ta lege Kristioan txoil ongi, ta ala atra zire txoil onak eta sandak. Il ondoan Ama ona, segitzen zute aizpa biek bizimodu sanduan erretiratu, debota, honesta, humil, ta langin emanen exenplu ona. Bitarteo pregonatu ze Abderramen errege Moroaren manamendu bat, ezi nork ere zuen Aita edo Ama Jentil, ezpazue ukatzen Kristoren errelijionea, paga zezan biziareki. Manamendu gaixto gau obeditzen ta guardatzen ze Españaren geien lekutan, espazialki Araguako erreinuan. Bi aizpa geen Osaba batek konsejatzten ziote utzi zezatela errelijione Kristioa, ez galtzeko biziak. Baña Jangoikoas dagona ez tute apartaraziko beraganik infernuko ta munduko persekuzioonek, biziaren peligroek, nekeek, eta penaek, kontra bai apegarazten ertxiago Jangoikoareki, firmatzen, ta seguratzten fuerteago, nola neguko izotz eta ekaitzek planta lurbarnean. Ark ikusirik eben konstanzia, ta bere peligroa, ezpazue kontu ematen, akusatu zitue Juezaren alzinean, ezi Aita izanik Jentil, segitzen zutela Kristoren errelijionea. Zitatu zitue bere tribunalera. Eta donzella sandak prebenitus bekala martiriora beren borondatez oiñ urtxian joan zire arara. Galdegin ziote Juezak, ia beren Aita etzen izan Jentila, edo Kristio errenegatua? Nunilonak baizue adin gexago, errespondatu zio serena, ta animosa, gure Aitas ez dezakegu eman seguranzarik, zeren il baize goizik, gu aurak in alarik. Dakiguna da, gure Ama zela Kristio fiela, ta Jangoikoaren graziaz gu ere bai, adoratzten dugula Jesu Kristo gure salbadorea, zeñen amarez gaude prest ematera bizia. Juezak loxentxu ta meatxueki nasteka nai zitue ekarri bere opinio-nera: baña aiek firme bere gartan. Juezak orduan erran ziote, zoazte etxera, pensa ongi, etzaizten galdu. Itzuli zire: pensatu zute len bekala ongi, obeki zegokiotela iltzea, ezi uztea fede egiaskoa. Baña aide madarikatuak berriro akusatu zitue errege deitzen zenaren prezencian, zein diote deitzen zela Zimael, edo Zumail. Presentatu zire berriro onen prezencian animosa... Begitarte ta boza asarreareki akar in ziote, zergatik utzirik Aita-



ren erreljioea, ta beraren obediencia porfiatzen zuten beren buruen kaltetan. Baña nola baizarate gasteak oraño, konsejatzan diziet il baño len, akordura itzuli zaizten. Kristioak gara, erran zute biek, eta fede Kristioatik iltzea deseatzan dugu. Ark pararazi zitue biak apart bi etxeetan, etzeizen elkar animatu: enkargatus ostatukoak in zezatela in ala errendiarazteko. Inzute ori, ta iago ere, baize erratea bakotxai, nola bere aizpa errenditu zen Presidentearen borondatera, ta zegon tratatzen akomodu honratuas. Baña ez batak eta ez berzeak etzue sinetsi gezur goi bere aizpas: bai segitu enkomendatzan Kristori. Berrogei egun pasatu zire progugartan: eta bi egun pasiora baño len, ostatariaren alabak beiratus barronde ikusi zue Alodia orazioan inguraturik argitasunes, ta kontatu zio bere Aitari, zeñek itsuturik argiareki erran zio, utzazu, ezi Demonioak engañatzen duenak mintzatzen dio. Alodiak eskatu zue biramonean, ekar zezotela bere aizpa. Eta etsiturik etzela protxurik berex idukitzeas, ekarri zute. Besarkatu zire biak gozosa: elkar animatu zire iltzera Kristogatik. Erran zire, baru gaitzen egun, ezi biar il bear gara. Ala izan ze.

2. Biramonean Presidenteak presentarazirik nai zitue beraxtu milla promesa ta kariziaeki. Errespondatzen zute aiek, milla ta milla iago ta iago emanik ere, eztugu utziko guk Jesu Kristo. Ilarazikozaiztet, ezpadidaze obeditzen, zio Juezak. Aiek, nai duena egin bez, ezi guk bizia utzi nai dugu lenago ezi Jesu Kristo. Juezak naiz sentiturik, ez ajolarik egitea arren podoreas, alke zue enpleatzeas ori neska pobre batzuen kontra. Ze an gizon bat, ta sazerdote izana ukatu zuena fedea. Oni enkargatu zio konsejatzea bi aizpa gaiei in zezaten ark in zuena. Konsejatu ziote, baña banonan. Erran ziote azkenik, eztut nai uka dezazen fedea biotzez, baizik erran mias bi testigoen alzinean, akomodatzan zaratela Moroan legera zuek ere; orreki sollik libratuturik bizia bazoazkete nauzen lekura, ta an segitu erreljioea Kristioan. Tentazio fuertea izan ze au, ta malizias betea, zeren ezi mias ere eztaike uka fede Kristioa: ta ark nai zitue engañatu. Baña Jangoikoaren su argias suturik Nunilonak erran zio grabe, erran bezagu, Jauna, ezgara il bear gero ere egunen batez? Ark, ori eztaike exkusa goiz edo berant, garelaik mortalak. Beras, erran zue orduan donzella balientak, obe dugu orai il Kristoren fede ta amoreagatik, ta seguratu bizitza sekulakoa, ezi ez bizitu pixka bat iago ukatus fedea itsuski, ta gero il ta galdu sekulakos. Etsiturik ark ere abisatu zue Presidentea debalde zela aieki trabajatzea. Ala urbilarazirik Tribunalera aiek, eta berdugoa alfanjeareki, galdegin ziote irur aldis, ia nai zuten obeditu. Erresponda zute, guk nai diogu obeditu gure Jaun Jesu Kristori ilartaño. Zimaelek manatu zio berdugoa-ri, ea ebaki buruok. Berdugoak lastimas bekala oraño galdegin zio ia egi-

nen zuen: aiturik baietz, erran zio Nunilori, eda zazu lepooi: Orduan Nunilok erran zio Alodiari, beira, ene aizpa, egizu ikusten duzuna iten dudala nik. Alodiak errespondatu zio animosa, etzazula duda, ene aizpa: zoaz seguro, ezi segituko zaitut. Orduan Nunilonak inguraturik biloa buruan garbosa, ta edaturik lepoa, erran zio berdugoai, tira fite. Tiratu zio alfanjeas, baña ez ongi astatus, etzue berexi burua osoki: eta eroririk ildorka lurrean, agertu zekizkio guti bat oñak. Joan ze laster Alodia, ta estali zizkio arrapas bereala, uzten zituela arriturik guziak ikusteas ain kuidadosa honestidadearen, iago ezi bere biziaren. Juezak berak admiraturik oiuegin zio berdugoai, etxi, zaude geldi: eta donzellattoari, ea, zer protxu da iltzeas zu emen kruekiro? Inzazu manatzen dizuguna, ta biziko zara honra ta gustoreki. Ark zio eztutela inen: ilarazi benaza fite, eztoaien bakarrik ene aizpa. Eta goratus begiak Zerurat, oiuegin zue, espera nazazu guti bat, ene aizpa maitea: banoaie banoaie bereala. Eta lazaturik zinta bat, oneki lotu zitue arrapak oñetan honestidadearen amorez. Emen eldu da ongi exklamatzea: *O erreljioea Kristioaren garbi eder ederra! Non erakusten da alakorik munduan, ezpada Kristoren eskolan? Ainberze ajola, eztaizten agertu guti bat oñak ta ez ajolarik iltzeas! Ura ezin soporta, ta iltzea bai gogotik ere!* Paratu ze belauriko aizparen gorputz-gañean; edatu zue lepoa, ea ebaki zazu: ta ebaki zio burua, glorias koronatzeko arima. Agitu ze 840 urtean, Lastallan D. Inigo Ximenez Nafarroko erregeren prinzipioetan: Alfonso kastorean 50.an Asturiasen. (Moret 1. 6. ann. c. 3 § 3.)

3. Utzi zuzte gorputz birjinalak kanpoan jan zezkiten tzakurrek, ta baseiziek: baña erreparatu ze etzituela ukitu uli batek ere: loturik gero atra zuzte arrastaka zitudadetik aratago. Bildu zire asko miru ta otsorrai, baña arranoek ellegaturik, naiz diren ain zale gorputz ilen, ez solamente etzuzte ukitu aiek, baizik aizkatu zuzte andik otsorrai ta miru guziak. Gero Kristioek lizenzia logratuturik orzi zuzte dezenteki: baña Zeruak honratu zitue iago, ikusiarazis argiak gauaz an orzi zuzten lekuan. Ori Jakinik, paratu zuzte guardiak Moroek etzezazkiten eraman Kristioek beneratzeko. Alaere zenbait sazerdote asi zire gau batez artu bear zuztela: baña sentiturik guardiek, ta segiturik atzetik, doi doia eskapatu zire, baña billatu zuten tesoroa gabe. Gelditzen ze au erregiña on batendako, zeñek merejitu zuen orazioen podorez. Zimaelek etsiturik etzirela baratuko Kristioak atra arteo beneratzeko gorputz sanduak, atrarazi andik ta sarrarazi zitudadean, ta botarazi zitue leze edo butzu barna batean, ta gañetik arimontio andiak, orreki ortziko zuela memoria ere sekulakos. Baña non da indar edo injeniorik debekatzeko nai duena Jangoikoak? Zenbait bakotxei ikusiarazten ziote gauaz argi admiragarri bat leze garren gañean. Gutiba-



na edatus fama, ta deskuidatus Moroak denborareki, Nafarroako erregina D.a Oneka agitz ona zegolaik erretiraturik garizuman debozios Leireko monasterioan, leituz eta aditus sanda gaien martirioa, ta ondoreko miragarriak, itxeki ze debozioan billatu naiez, ta ekarri gorputz gaiek. Guzia ze orazio egitea ta eginaraztea, idiki zezan Jangoikoak ortako bide. Bizi ze an urbil Auriato deitu bat: onek gau batez aditu zue boza bat Zerutik erraten ziola, Auriato, zoaz laster Huescara, ezi an aurkitukotuzu Jangoikoaren graziaz S. Nunilo ta Alodiaren gorputzak, leze barnan altxatuak. Argitu orduko joan ze Leirera; kontatu zue errebelazio izana: Alegatu zire guziak, prinzialki erregina: Prebenitu zute gizonoi Merkataris gisa joateko Huescara, eta baldin an ezpazitue aurkitzen, informa zeuela billatzeko Aboska deitzen zen errian: zein bide zen sandaen sortuerria. Ellegaturik Auriato Huescan, saldus bidanabar merkaduriak, zoeie informatuz sekretoan Kristio oben zirenetatik tesoro billatzen zuenaren gain. Informaturik ongi, autaturik lagun ta gau propioenak, instrumentueki asi zire zulatzen lekuan: fite sentitzen atxon, edo fragranzia gozoa; oneki animaturik geiago lan egines gogotik kendus arri andi gaiek, ellegatu zire aurkitzera gorputz sanduak oso ta fresko eder. Oneki agitz kontent Auriato paraturik abre zalui prestatuetan eskapatu ze Nafarrora Leire-alderat. Berri on gau izanik erreginak, parte emanik erregeri, ta obispoari; guziak bildurik atra zire prozesioan errezibitzera errelikia sagratuak, zein adoraturik debozio andiareki depositatu zuzte Leireko tenploan, Aprilaren 18.an 842 urtean, D. Gillesindo obispo. Guziau ta iago dakar Moretek an cap. guzian. Azkenrat dio Araguesca, edo Adageska dela sanda geben sortuerria. Traskasa ere aipatzen da.

Lastallaren 25.an Sanduak Krisanto ta Daria Martirak

1. S. Krisanto izan ze senadore ilustre baten seme jaiou zena Alexandrian. Pasaturik bizitzas Romara, ta paraturik estudioetan, ustekabean aurkitu ta leitu zue ebanjelioen librua. Ezaundu zue utsinik zebilala Jentilen ilunbean, eta Jesu Kristo dela argi egiaskoa. Seguratzeko billatu zue Kristio bat deitua Karpoforo zegona altxaturik kubila batean. Onek gusto andiareki erakutsi, bataiatu, ta seguratu zue fedean, de manera ezi andik zazpi egun publikoki predikatzen zue Krisantok Roman, Kristo dela Jangoiko ta gizon egiaskoa. Bere Aitak orgatik asarraturik sartu zue preso leku ilun batean manaturik al guzia guti emateko sustentu. Baña ikusirik medio goi etzekiola balio, injeniatu zue Aita infielak berze medio bat Deabruaganik, baize galaraztea kastidatea, galarazteko fede Kristioa. Baña ortako sartu ziren emakume gaixtoak, sanduaren orazioen ta Jangoikoaren permisioen loak arturik ezin idatzarri zeizke, ezpaze atras kuartotik. Ori ere ez baliaturik, artu zue berze medio bat, baize ezkonaraztea donzella noble ongi zegokion bateki, zeñek itzuli zezan beren lege falsura. Baña kontra agitu ze. Deitzen ze donzella gura Daria, juicio ta naturale onekoa: zein paraturik Krisantoren alzinean, konbertitu naiez bere opinionera, Mutil sanduak bere arrazio ta mintzaera oneki konbertitu zue Kristoren federa, de manera, ezi ez solamente bataiatu ze, baitaere obligatu ze bizitzera birjin betiro: eta ala biak ajustatu zire bizitzeko Anai ta Arreba bekala Jangoikoaren alzineko elkarren konpañian, ta munduaren alzineko senarremaste. Orreki utzi zue Aitak libre Krisanto. Biek elkar lagundus konsejatzzen zuzte, ark gizonkiak, ta onek emastekiak, errezibitzera Kristoren fedea, ta guardatzera kastidatea. Jakin ze ori Roman, eta bereala preso eginik, Krisanto lenik azotarazi zue Juezak de manera, ezi ageri zire ezurak ta entrañak urratuaren utses. Gero inguratu zute idi edo nobillo baten larruan, ta iduki zute egun batez iruzkiara, pika zezaten uliek ta erleek, baña etzute logratu. Paraturik berriro karzelean, agertu zire an argi zerukoak, ta lazatu zire lotzaki guziak. Berriro loturik manatu zue azotatzeko burriñasko baraeki: baña ebek itzuli zire beratx de manera, ezi golperik etzezakete eman. Jueza deitzen zena hau dio desengañatu ze, on etzela baizik Jangoiko onaren birtutez, ta argiturik zerutik urtiki zekio oñetara sanduari eskatus barka zezola gaizki egin ziona, ta logra zezala Jangoikoaganik ere barkazioa. Oroat in zute soldado guziek, eta bataiatu



zire aieki berze anitz. Guziak ilarazi zitue enperadoreak jakinik pasatu zena.

2. Gero Krisanto sarrarazi zue kalabozo ilun batean: Daria berriz emasteki urdeen urdategian, non ikusi zelaik donzella sanda garbi ederra, paratu ze orazioan eskatus biotzez eta negarrez Jangoikoaren anparoa. Etze sor egin bere Majestadea: biali zio leon baliente bat guardiatako, ta jarri zekio aldakan. Sartu ze an gizon deshonesto bat: bereala leon garrek bota zue lurrera, ta zegokio sandari beira, zer nai zuen in zezon. Manatu zio sandak etzezola gaizkirik egin; eta mutilari mintzatu zio alako maneran, ezi konbertitu ze Kristoren federa ain sinki ezi atrarik libre andik asi ze oius ziudadea barna, Jesu Kristo dela Janjoiko egjaskoa. Leonen kuidazaleak joan zire leon garren eske: baña arrek bota zitue lurrean, ta zego etxideten zer manatzen zion sandak. Libre aiek ere atra zire Jangoikoaren podorearen pregonari. Prefektoak manatu zue su itxekitzeko Darla ta leona zeuden kuartoaren inguruan. Itxekirik sua, sandak emanik lizenzia, leona pasatu ze sugarretaik erre gabe, ta joan ze niori gaizkirik in gabe, nola axuri manso bat. Gero paratu zute Krisanto zur batetik dilindan: zura autxize, lotzakiak lazatu, ta itzali zire zuziak prestatu zuztenak arren erretzeko. Daria nai zute tormentatu; baña berdugoen eskuetako zañak bildu zire oñaze ain errueki, ezi utzi zute geldi. Azkenean eraman zuzte kanpora, non eginik lurrean zulo andi bat, an sartu biak, ta estali zuzte arris eta lurren. Martirio goneki egatu zire aien arimak Zerura. Honratu zitue Jangoikoak asko milagro aben kasos in zitueneki sendatus heri ta malderra franko. Bein anitz Kristio bildu zire zelebrazera aien festa kubi-la batean: on jakinik enperadoreak, baize Numeriano, ertxiarazi zue kubi-la de manera ezi an guziak iltzire Martir. Aieki zego sazerdote bat deitua Diodoro, zeñek meza erranik an komekatu zitue guziak, ta animatu zitue ofratzera beren biziak Kristoren amorez; eta ala kunplitu zute. S. Krisanto ta Dariaren martirioa izan ze Numeriano enperadore beraren denboran 284 urtean. Zelebrazentute anitz Autoreek, ta S. Damaso Aita sanduak bersotan &.

Lastallaren 27.an

Sanduak Bizente, Sabina, ta Kristeta

1. Daziano Presidente kruela zebilalaik Españan ziudades ziudade martirizatzen Kristiorik obenak, ellegaturik Elboran, zein batzuek diote dela Eborra, berze batzuek Talabeerreginarena, presentarazi zue bere alzinean mutil bat deitzen zena Bizente: zein ikusi zuelaik ain gallardo guapo galant, afizione ta konpasionen-itxuraz asi zekio mintzaten amoltsu, beira zezala bere buruai, ta etzezala galdu bizia Kristogatik, zein sentenziatu zuten publikoki iltzera guruzean. Bizentek ezin soporta itz alakoak bere Jaun maitearen kontra, ta errespondatu zio grabe garboso, nola mintzaten zen ala Jaun dibino garren kontra, zein bear luken adoratu Jangoiko bekala, ezpalego itsuturik Demonioen eskus. Erran zio Dazianok, zeren gastea zaren, eta juizioa ez ongi zoritua, disimulatzen dizut desatenzio goi: baña Aita bekala diot, ofra zazula sakrifizio gure Jangoikoei, ez bizia galtzeko. Gaste gloriosoak errespondatu zio, juiziorik ez tutenak dire adoratzen tutenok estatua arriskoak, zureskoak, ta metaleskoak, honratus aietan Demonioa, ta ez nai adoratu Jangoiko bakar bizi egjaskoa, kriatu zituena zeruak ta lurra. Presidenteak asarraturik manatu zue ken zezotela andik gizonori, eta edo adorarazi Jupiter, edo ilarazi zezatela tormentus.

2. Eraman zute Ministroek Bizente Jupiter Jangoiko falsuaren aldare batera, adora zezan. Aldare-alzinean zego arri andi bat, zein sanduak oñes ukitu zueneko beraxtu ze nola balitz loi oreaskoa, de manera ezi artan gelditu zire señalaturik oñen kuntzeak. Milagro goneki berze bat egin zue Jangoikoak, beraxteas Ministroen biotzak arria bezain gogor zirenak, ezi arriturik agituas ziote, sines egjaskoa bide zela Bizenteren Jangoikoa obratzen zituena prodijio alakoak. Eta elkarreki mintzatus etzute il sandua, baizik paratu karzelean, eta erran Dazianori, ezi mutil garrek eskatu zuela irur egunen epea pensatzeko ongi egin bear zuena: eta Dazianok ontzat artu zue. Karzelean sanduak bere espiritu ta itz sandueki konbertitu zitue anitz Kristoren federa. Bitarteo bere bi arreba zituena deituak Sabina ta Kristeta, emazurz buratsorik gabe anaia garren menean bizi zirenak, joan zekizkio karzeleran negar ta negar, gure anaia maitea, badakizu eztugula berze anparorik, zu ezi: beira zazu nola geldituko garen zu gabe peligran galtzeko honrak ta biziak. Urrikarizate gutas, eskapa zaite gureki emendik, goazen norapait, non bizi gaizken Kristioki bakean, naiz pobre. Beraxtu ze anaia, eta guardien borondate onareki gau batez eskapatu zire



ixilkias irurak ania ta arrebak, jakin gabe Presidenteak: eta gero jakinik ezin erdetxi zitue, ellegatu arteo Abian, S. Teresaren sortu-errian. Baña bidean S. Bizentek alako maneran animatu zitue bere bi arrebak ematera biziak Jesu Kristoren amorez, ezi ia etzute berzerik nai, baizik il martir.

3. Arrapatu zuzte Avilan irurak, eta alako ira ta errabiareki, ezi berea-la potroan edaturik deskoiuntatu ta atra zizkiote ezurak beren lekuetaik, ta gero urratu azoteles gorputz guziak, bitarteo zeudelaik irurak animatzen elkar, ta laudatzen Jesu Kristo, ta alegre graziak ematen, zeren eskojitu zituen aiek bere martirtako, ta asistitzen zioten. Ikusirik aien alegria, korajea, ta konstanzia Ministro inpioek, iduriturik aien despreziotan zela, ta beren Jangoikoen deshonretan, arrapatus irurak, ta banaka paratus buruak arri andi baten gañean, an berze arri batzueki txatxakatu zizkiote barratus muñak kanpora, eta martirio gisa goneki bukatu zire sandu gloriosoak. Gelditu zire gorputz sagratuak botarik an, jan zezkiten tzakurrek ta baseiziek, trebe etzirelaik Kristioak orzitzera. Baña beira Jangoikoaren probidenzia bere onetsien alde! Urbileko peña gaietan altxatzen ze serpiente bat temenarioro ikaragarria, anitzei dañu in ziotena, ta guziei sartu beldurra. Etorri ze firrindaka boladan, burua goraturik, eta jarri ze gorputz sanduen aldakan guardian bekala, ezpaize animalerik trebe zenik urbiltzera. Solamente Judio bat errelijione kristioaren mespreziotan urbildu ze: baña nola eztaiken gal Jangoikoas dagona! Saltatu zekio serpientea, inguratu zio gorputza, ertxitzen zue, paratzen zue itotzera ia, baña iago ez: ordu batez iduki zue ala lotsatus, ta leku emanegiteko egin zuena, baize ezauntzea Kristoren podorea, ta goratus begiak eskatzea, o Jesu Kristo, bere sierboen guardazalea, libra benaza serpiente goneganik, ezi ofrezitzen diot erreziatzea orren fedea, ta orzitzea honratuki bere adiskide geben gorputzak. Erran orduko libre utzirik, joan ze andik serpientea, ta etze agertu iago. Judioa akorriturik ta agradeziturik kristiatu ze, ta berze kristio zenbaiteki orzi zitue sanduak, ta fabrikatu zue tenplo bat aien honratan. Nor ezta admiratzen gure Jaunak tuen modues, honratzeko bereak, ta ekartzeko bere federa naituenak? Serpiente bat lotsagarria Martir gloriosoen gorputzen guardian! eta len zebatzen zena iltzen gorputz biziak, orai defendatzen gorputz ilak, ez dezkiene ukitu niork ere; ta ertxitzen Judio gaixtoa, bota dezan bere erreoren benenoa, ta besarka daien Kristoreki! O guruzifikatuaren podorea! O gure Jaunaren onegia! Baña erranen du Kristio herikor, ta gorputzaren amazaleak, nola guardarazi zituen gorputz ilak, zergatik etzitie guardatu bizirik, ta ez utzi iltzera alako maneran? Aien onnaiez, ta glorias koronatzeagatik, eta bere Majestadearen honragatik: ezi ezpalire Tirano ta berdugo gaixtofikatuak, nola izanen

zire Martir gloriosoak? Ala Jangoiko onak guzia egitenku ta permititzen du ones, eta onnaies: On guzia eldu da beraganik: gaizkirik eztaki, ta ez dezake egin. Gaizkiak datoz Deabruenganik ta gizonenganik. Milagro anitz len ta gero agitu da irur anaiarriba geben medios, zeñen martirioa agitu ze Diokleziano ta Maximiano Enperadoreen denboran.



Lastallaren 28.an

San Simon ta San Judas Tadeo Apostoluak

1. S. Simon ta S. Judas Tadeo, Maria Kleoferen semeak, elkarren anaiak, ta Kristoren berzergusuak jaio zire Kana Galileakoan. Deitu ze Simon gau Kananeo, edo Zelotes, distingitzeko Simon Pedroganik: eta bere anaia Judas Tadeo, distingitzeko Judas Iskariote traidoreaganik. Izan zirela Jesus onaren Apostolu maite eskojituak dakigu, ta beraren gloriatan trabajatu, obratu, ta padezitu zutela, bukatu arteo beren bizitzak: baña zer ta zer obratu zuten berex ezta kontatzen, segurki etxakines. Abdias Babiloniakoak omen dio segitzen dena; predikatu ondoan S. Simonek Ejipton, ta S. Tadeok Mesopotamian, biak Juntatu zirela Persian, eta bereala mututu zirela ango Demonioak ematen zuztenak len errespuestak. Agitu omen ze, atra bear zuelarik gerrara Babiloniako erregeren Jenerale batek, jakin naiez nola atrako zen gerra gura, galdegitea beren Jangoiko batai ta berzeai: baña ez batek ere ematea errespuestarik. Ortas admiraturik azkeneko jakin zue on zela, zeren ellegatu ziren Simon ta Judas Jesu Kristoren Apostoluak, zeñen kasos aiek etzeizken mintza. Billarazirik Apostoluak, ta trataturik elkarren eratean, azkeneko ebek eman zioten lizenzia aien Jangoiko falsu ta Demonio egiaskoeki, mintza zeizela. Errespondatu zioten bada beren sazerdoteen medios, gerra luze odoleskoa izanen zela; bi alde-taik anitz bizitza kostako zela. Ontara irri egin zute Apostoluek: eta Jeneralak erran zue, ni nago penas beterik, ta zuek irri egiten? Aiek, Jauna, ezta zer penarik izan: biar goizeko bedratzietako etorriko zaizkio Indioen enbajadoreak eskatzera bakea. Burla ta eskarnio iten zute sazerdote falsu gaiek. Jeneralak etzela plazoa luze biramoneraño, guardarazi zitue preso ala Apostoluak, nola sazerdoteak: pagatuko zuela gezur erran zionak. Biramonean garai señalatuan ellegatu zire enbajadoreak: Kontent agiz Jeneralak nai zitue ilarazi sazerdote falsu gezurti gaiek, baña bi Apostoluek palakatu zute erranes, etzirela etorri kentzera bizia nioren, bai ematera bizitza eternoak guzieren: Admiratu ze ortas Jenerala, eta iago ez admittitu naias erregalo eman nai ziotenik. Eraman zitue bereki Babiloniara erregegana: kontatu zio pasatu zena; estimatu zitue onek agitz ala geroko berri jakite gartas, nola izateas ain prestuak, humilak, ta desapeguatuak lurreko ondasunetaik, ezaundurik zirela Jangoikoaren gizonak.

2. Aurkitzen zire an bi sorgin deituak Zaroes ta Arfaxad Indiatik etorriak iges S. Mateoganik, zeren agertu zituen aien maldadeak ta Deabru-

keriak. Asi zire persegitzen bi Apostoluak ekarrarazis anitz serpiente arte gaixtos: baña Apostoluen manamendus aiei berei ozkatzen ta puntzatzen zioten, oñaize emanen, ta berze kalterik ez. Konfuso aiek joan zire andik ere, publikatus leku guzietan, Apostoluak zirela aien Jangoikoen kontrario. Apostoluek predikatus egietafedea, ta obratus milagro egiaskoak onetan konbertitu zute anitz jende ta errege bera Kristoren federa. Denbora gartan agitu ze berze gauza bat egin zituena glorioso ta famatu Apostoluak. Jaun prinzipale baten alaba utzi ze deshonoratzera, ta erdi ze hume bates: nai zioten erranarazi bere bekatuan izan zuen laguna: emakume gaixtoak maldadea maldadearen gain goratu zio testimonio falsua Apostoluen Diakon sandu bati, zein deitzen baize Eufrosino. Preso eginik daramate erregeren presenziara: Ori jakinik, eta etzuela kulparik Diakonoak, doaz arara Apostoluak, eskatzen dute datozila akusazaleak, ta aur jaio berria ere bai. Ala eginik, manatzen diote Jesusen izenean aurttoari ia bere Aita den Eufrosino. Errespondatu zue klaro aurttoak, ezta nere Aita Eufrosino, zein baita ona ta sandua, sekula bere bizian in ezteuena aragisko bekatu-rik. Arritu zire guziak, eta erraten zioten Apostolueri, mana zezotela deklaratzeko nor zen. Aiek zioten, guri dagokiguna da libratzea inozentea kulparik ezteuena, baña ez agertzea kulpaduna. Ala, Diakona ta Apostoluak gelditu zire honraturik sandu bekala, nola baizire errealdadean.

3. Pasaturik aratago plantatzera Kristiandadea berze ziudadeetan batean deitzen baize Suamir, opatu zute berriz bi sorgin gaiek, zeñiek berrero emanik Apostoluen kontra, inzitatu zute Jangoiko falsuen sazerdoteak, ilarazteko aien Jangoikoen kontrarioak bekala. Arrapatu zute bi Apostoluak: eraman zute Simon iruzkiaren tenplora, ta Tadeo ilargiarenera: eta beren orazioareki botatu ta urratu zute idolo gaiek, ta aietaik atra zire Demonioak beltz bazuen idurian emanen iskiritu, ta marroa ikaragarriak. Ortas sutu zire sazerdoteak alako maneran, ezi jokatu zire furoturik Apostoluen kontra, ta etzire baratu zatikatu arteo biak. Ala izan zela diote Apostolu geben martirioa Jangoikoaren gloriatan. Zego sereno zerua, baña derepente goratu ze tenpestade bat lotsagarria despeitus arri ta ausnarri ainberze, ezi tenploak gelditu zire urraturik ta deseginik, anitz Jentil ilozturik, ta bi sorgin gaiek erre ta errausturik. Babiloniako erregek jakinik Apostoluen eriotzea, nola baize ia Kristio, eramanarazi zitue arara, fabrikatu zioten tenplo andi bat, non egon ziren alik eta denborareki pasatu ziren Romara, non baitaude S. Pedroren tenploan. Noiz il ziren etxakin &



Lastallaren 29.an

San Narziso Obispo ta Martir Geronakoa

1. S. Narziso Geronan jaioa, ta ango Obispo izana, Diokleziano enperadorearen denboran Jangoikoaren inspirazioz joan ze Alemaniara Rhezia deitzen zen Probinziara bere diakon Felix deituareki. Ellegaturik Augustan, ostatus sartu ze, Afra deitzen zen emasteki baten etxean. Onek aiturik ura zela Kristioen Obispo, mogiturik Jangoikoren espirituas, penaturik bere bizimodu gaixtoas, urteki ze Sanduaren oñetan garbitu naiez arima bekatuetatik, ta aurkitu naiez grazia Jangoikoaren begietan. Sanduak, Jangoikoaren Ministro onak bekala animatu zue konfiatzera Jangoikoaren miserikordia infinitoan: eta orazioan pasatus gau guzia, ia goizerat itzali zelarik kandela, bete ze etxea zeruko argis miragarriro Sanduaren petizios. Ellegaturik eguna, Infielek aiturik, Kristioen Obispo bat etorri zela, bializuzte beren mandatariak, jakiteko ta billatzeko non zen. Afrak ia konbertiturik altxatu zue Obispo sandua, ta engañatu zitue arren billa etorri zirenak. Gero agerturik an Demonioa bizpirur aldis, sapite gaixtoa zuela galtzeas len irabazia bere infernurako, bota zue andik S. Narzisosok, eta egin zue berze anitz milagro, zeñen birtutez konbertiturik osoki Afra, bere Ama, Osaba, ta familia bataiatu zitue gozo andiareki.

2. Gero gutibana barratus Jangoikoaren azia ziudadea barna, konbertiturik anitz Kristoren federa, pasaturik bedratzi ilabete ango arazo dibinoan, itzuli ze Geronara, non bere leku propioan bekala enpleatu ze irur urtez lan ta lan Jesu Kristoren, irabazi andiareki: baña Demonioaren inbidias, ta Dioklezianoren errabias beren ministro gaixtofikatuak egun batez zegolaik ofratzen mezaren sakrifizioa, sakrifikatu zute bera biktima Jangoikoaren honratan, heritus moldegaizki lepoan, soñean, ta zangoan, berreun, ta laur ogei ta amazazpigarren urterat guti gorabera. Kristioek altxaturik gorpuz sandua, gero ere an berean depositaturik mantenitzen da oso miragarriro gure denboretaraño, ageri dela astalera urbil gorri gorria odola, autsi zena heridatik, berze anitz prodijioes landara. Famatua da bat agitu zena D. Pedro Irugarren Araguako erregeren denboran, noiz ta Siziliako Bezperen mendekutan (non il zuzten zorzi milla Franzes 1282 urtean, Martxoaren 30.an Bazkoa irugarrenaren bezperetako ezkilak señale) joan ze D. Felipe III.a Franzisko errege (S. Luisen semea, Araguakoren kontra; eta sarturik tropak Geronan, eta S. Narzisoren tenploan, ta galdurik bear zen erreberenzia, Sanduaren obiatik edo urnatik atra

zire infinizio bat uli, edo erle figura, kolore, ta bulto admirabletakoak, ta eutxirik Franzesei ta aien zaldiei puntzatus beren exteneki ilarazi zuzte iago ezi berrogei milla solado, ta ogei milla zaldi: eta andik guti erretiraturik errege iltze Perpiñanen 1285 urtean. Berze okasioetan ere defendatu du S. Narzisosok bere Geronako ziudadea: Bein izan ze 1653 urtean Urriaren 24.an, noiz Franzisko erregek zeukalaik bere exerzittoa Geronaren kontra, izan zire ainberze uliak edo erleak berde ta azul extraordinario eman zutenak Franzesen kontra, ezi ilarazi zuzte iago ezi bi milla zaldi errabiatzen, eta jendeketa bat andia, nola kontatzen duen Aita Maestru Roig bere historian Geronako grandezen; eta okasio goneki Felipe IV.ak konzeditu eta konfirmatu ziote Geronatarrei basallo agitz fielen titulo glorioso. Berze bein 1684 urtean, Maiatzaren 24.an zeukalaik Bellafont Jeneralak inguraturik Gerona bere Franzisko exerzitotoareki, emanik anitz asalto sekulan baño erruagokoak, uste zutelaik guziek errendituko zela plaza, guziek jakin zute Sanduaren manipuloaren gañean agertu zela uli edo erle andi bat anitz koloretakoa, ta milagroaren testimonio artu ze bear bekala: mostratus ala bazituela oraño uliak defendatzeko bere Gerona, bear baliz: eta etsaiek errenditurik utzi zuzte zazpi bandera, ilik geienak, eta gañarakoak iges joanik &. Flos SS.

Azaroaren 2.an Arima Purgatoriokoen memoria. pag. 325.



Azaroaren 3.an

San Malakias Hiberniako Obispoa

1. Leku ta estado guzietaik biltzentu Jangoikoak bere sanduak. Irlandan jaio ze S. Malakias nobleetaik. Aurra zelarik iduri zue adinetakoa jui-zioan, soseguan, on guzietarako afizionean: Goiz eder asi ze mortifikatzen gorputza, sandutzen arima, billatzen ta beneratzen Jangoikoa erretiratus, pensatus ongi, ta adoratus bere Majestadea auspeska lurrean. Azi ze gizon penitente sandu Imario deitu baten konpañian ilik bekala munduari: baña eztaikelaik altxa santidade andia iago ezi iruzkia, ordenatu zue obispoak Diakon; ta gero bere adinean sazerdote, ta enpleatzen zue predikatzen ta erakusten doktrina, ta berritzen sakramentuen uso zegona atzendurik bekala. Egin zute Koneretko obispo, non jendeak bizi zirelaik len animale gisa, gutibana pazienziareki sufritus, ta exortatus, ia guziak bateo, ia banaka negarres ere, ia beraxki, ia gogorki, ta guzia aski etzelaik, eutxis Jangoikoai orazio ta penitenziaeki, gero ere logratu zue aldatzea jendea onera. Baña gerran galdurik bere ziudadea, erretiratu ze berze erreinu batera, non bizitu ze erreljiosoeki monasterio batean.

2. Bitarteo agitu ze faltatzea Arzobispa Ardamakan, zein baize Hiberniako eliza prinzipalena S. Patriziok guzien Apostoluak fundatua ta honratua. Nonbratu zute ango Arzobispo S. Malakias, kentezogatik ere kostumbre gaixto bat segitu zena berreun urte gaietan, baize, jenerazioz baliz bekala dignidade gura, beti artas jabetzea jendaki bateko personak. Zenbat trabajatu ta padezitu zuen ortako, zenbat milagro ta kastigo obratu zuen Jangoikoak, luze da kontatzea. Erresulta izan ze akabatzea arras jendaki gura: eta sandua itzuli ze bere lenbiziko elizara, utziurik ura berze bati, zeren sollik Jangoikoa billatzen zuen. Nai zue utzi bere eliza ere: ortako joan ze Romara, eskatzera errenunzia: baña Aita Sanduak ez solamente etzio admititu, baizik egin zue bere Legado Irlanda guziko: eta kendu bere burutik insignia ta paratu zio buruan S. Malakiasi, eta eman zizio bere ornamenta propioak ere. Ala deskargatu naiez iago kargaturik itzuli ze honras ere, nai ezpazue ere. Aratakoan ta onatakoan alojitu ze S. Bernardoren monasterioan, elkar animatus ta konsolatus, zein baño zein sanduago zirelaik. Nailuke an gelditu, baña ezin kunpli nai lukena: utzi zizio laur bere lagun azi zeizen an, pasatzeko gero Irlandara, nola egin zen, edatus ederki S. Bernardoren erreljionea. Errezibitu zute bere lekuan Jangoikoaren gizona bekala, eta ala ze, eta ala mostratzen ze obratus al guzia

ongi, ta konfirmatus Jangoikoak milagroeki. Jem sandu zen errealidadean, ta idurian ere, barnetik eta kanpotik, pintatzen du ederki S. Bernardok bere adiskide amanteak: eta guzien gañetik humiltasun sendo gura ainberze dignidade, ta honraen erxean.

3. Zer milagro da obratzea Jangoikoak anitz milagro ain humilaren medios? Ezi alakoei fiatzientote Jangoikoak bere ondasunak, banoei ez. Kontatus zenbait bakotx doktrinatako, bein sandu gau egon ze ostatus etxe batean, non gero ellegatu zen egotera heri bat espiritua: espiritu gaixtoak gau batez erraten zire elkarri, begira ez dezan desdixatu gonek ukitu agotza, non etzin zen hipokrita gura. Heriak aiturik, ta entendaturik S. Malakias zerdukatela, injeniatu zue joatea erdi arrastaka, nola zuken, agotz gartara: sentitzen zue nola zion airean, idukak, eztaien ellega, ezi galduko diagu geuren presa. Baña Jangoikoaren piedadez ellegatu ze, eta istantean sendatu ze, ta libratu ze espiritu gaixtoetaik, zein joan zire andik firrindaka rabioso. Ekarri ziote andre bat zegona enbarazaturik ia amaborz ilabete ta ogei egun, ezin aurkitus erremediorik libratzeko. Sandua erretiratu ze egitera orazio, eta bereala ta aisa ura libratu ze. Soldado batek artu zue beretako bere anaiaren andrea: sanduak konsejatzan zio Artzai onak bekala: arrek suturik suber in zue juramentu, etzuela utziko. Sanduak orduan sebero, Jangoikoak utziaraziko dizu, nai ezpauzu ere. Ordu bat pasatu gabe il zute bere kontrarioek, eta ala izan ze eskarmentu berze alakoen emendatzeko. Emasteki bat txoil kolerika furiosa oiularia niork etzezakena soporta, ez bere humeek ere, berze erremediorik etzela, eraman zute sanduagana. Sanduak manso galdegin zio ia konfesatu zen beñere. Errespondatu zio ezetz. Sanduak, bada konfesa bedi. Konfesatu zue, eman zio penitenzia iduri zekiona, ta manatu zio Jesu Kristoren partez, ia beñere etzeiela asarratu andik alzina: eta Jangoikoaren graziaz ainberzeko mansotasun ta pazienza eman zekio, ezi sekula bere bizian etzekie inkietatzen nioreki, eta edozein trabaju, edo desgrazia agi zekion, etzio turbatzen batere bere gogoaren sosegua ta errepausa. S. Bernardok kontatu ondoan nola S. Malakias biztu zuen emasteki bat ila, dio milagro andiagokoa dela bere ustez aldatzea berze emasteki iratu garren jenioa.

4. Ellegatu zekio gizon lego virtuoso bat triste, zeren etzuen senti biotzean nai zuen debozioa Jangoikoaren gauzetan, nai bazio erdetxi grazia goi. Kuadratu zekio gizon orren pretensioa, eta besarkatus erran zio, Jangoikoak dizula eskatzen duzuna. Ordu gartaik ia arren bi begiak izan zire nola bi iturri negarrenak. Apez presumitu bat ellegatu ze ukatzera Jesus onaren presenzia erreala sakramentu aldarekoan. Sanduak nai zue desenganatu bano gura ones eta gaitzes. Etze erremediorik. Exkomekatu



zue sanduak, ta deklaratu hereje: alaere, etzelaik errenditzen, sanduak suturik zelos erran zio, bada eztuzu nai konfesatu egia, konfesarazi deza-zula Jangoikoak bortxaz: ark errespondatu zue amen. Gizonoi gero elle-gatu ze aborrezitzera bere burua joan nai zuela desesperaturik jendeen erretetik; joaterakoan heritu ze eriotzeraño. Ezaundurik Jangoikoaren eskua itzuli ze, deitu zue sandua, konfesatu zue bere kulpa ongi penaturik, ta errezibitzeareki absoluzioea despeitu zue bere arima sanduaren eskue-tan. Bakean paratzeko jendeak, egin zitue milagro klaro admirableak askotan. Ezkindezake akaba, guziak kontatzekos.

5. Gatozin eriotzera. Atra ze konbersazioa erreljiosoen ertean, noiz ta non nai luken il bakotxak. Sanduak erran zue, Hiberman gelditzekos ark nai lukela erresuzitatu S. Patrzioreki; baña andik kanpoan izatekos, nai lukela Klarabalen S. Bernardoren konbentuan, eta arimen egunean. Bear izan zue joan berriz Romara; biajes zoeielaik, ellegatu ze Klarabalen, non S. Bernardok ta Monje guziek errezibitu zuten Aingiru bat bekala. Andik laur borz egun meza erran ondoan, arturik sukar edo kalentura batek, ezaundu zue deitzen zuela beregana Jangoikoak: emen izan bear da ene bukaera, erran zue: ta errezibitu zue biatikoa jautsirik bere oñes eli-zara erreberenziagatik, ta itzuli ze zeldara: errezibitu zue oliadura ere: ta naiz erioa ain urbil egonik deitzen bekala atarian, etzeuka aurpegia kolo-regaitz, ez flako, ez zimur, eztare begiak ilun, ez berze alako akzidenterik: baizik sosegatu, sereno, alegre, animoso. Sandu guzien eguna zelebaturik alegreki, deiturik beregana monjeak, erran zue nola Jangoikoak kunplitu zion bere deseoa, baize iltzea an, ofrezitu zue oroituko zela aietas Zeruan, eman ziote esker milla ta bere bedeizioa: gau gartan entregatu zue arima Jangoikoaren eskuetan 1248 urtean: ta adinaren 54.an. Etzue iduri ila, bai-zik lo zegola sereno eder Aingiru bat bekala. An orzi zute Ama Birjina-ren kapillan, berak nai bekala: eta mutiko bat an zegona besoa ilik dilin-daka, deitu zue S. Bernardok, ta berak eraman ta ukiarazi zio S. Malakia-sen eskua, ta bereala itzuli ze mutikoa sano alegre saltoka &.

Azaroaren 4.an San Karlos, Arzobispo Milango

1. Jaio ze 1538 urtean S. Karlos, izateko Jaun guzien exemplu, karde-naleen, obispoen, Apezaiten, sazerdoteen, ta Kristio katoliko guzien his-pillu ederra. Mostra eman zue zeruak paratus sortuetxearen gañean, jaiotzerakoan, erresplandore admirable bat argitu zuena gaua eguna bekala. Aurzutuan ia zue afizione andia elizako gauzetara, ta adinareki zoeie andi-tus debozioa. Bere iteko ta errekreazio guziak estudioan, ta elizaetan. Amabirjinaren deboto guzis, erretiratu, modestoa, ta prestua. Gasterik asi ze orazio mentalea segitzen maiz, konfesioa ta komunioea asteoro. Gaste buru arinek irri egiten artas: berak ajolarik ez aietas: Juizioskoek admiratzen ta laudatzen zute: Prinzipalki sazerdote alzinatu benerable batek, erreljione katolikoaren zelos beteak ikusten zuen aldioro karrikan baratu beira, ta erraten zue, mutil gau izanen da eliza gonon erreforma-zale, ta eginentu gauza andiak. Eman ziote Abadia andi abrats bat, zeñien errenta tiratzen zuen bere Aitak: baña seme onak bein erran zio animoso, Jauna, informaturik nago Elizako errentak ezaizkela enplea palazioko zerbitzutan, baizik Kristoren ta pobreen zerbitzutan. Admiraturik kora-jeas Aitak utzi zio arren administrazioa, zeñeki sokorritzen zitue nezesi-dadeak. Ogeita bi urtetan graduatu ze Doktore bi dretxoetan, noiz bere Osaba egin zuten Roman Aita sandu. Onek egin zue kardenale ta Arzo-bispo Milango, deitu zue beregana, ta enpleatzen zue iteko andietan. Azertatzeko eman ze Jangoikoai gogotik: egin zitue S. Ignazioren exerzi-zio espiritualeak; ta erretiratzen ze egitera urteoro bein edo bi aldiz. Here-datu zitue bere anaia iltzenaren estadoak: nai zute ezkonarazi, baña desen-gañatu zitue betikos, ta ordenatu ze sazerdote, ta egin zitue exerzizioak, zelebrazteko meza lenbizikoa.

2. Anitz trabajatu zue, akaba zeien ongi Trentoko Konzilio jenerala, ta gero kunpli zeien artan ordenatu zen guzia: ta bera len lenean paratu ze kidari ta exemplu. Bialirik Milana misionari Apostolikoak prebenitzera jendeak, ellegatu ze bera Artzai ona bekala bere saldoaren erdira. Nolako zela, ta dilijenzia, lege ta ordenanzak paratu zituen, mundu guzia da tes-tigo. Zer injenioak injeniatu zituen, erakusteko doktrina Kristioa; nola zebilan bera bisitatzen, predikatzen, erakusten; zenbat trabaju, ta zenbat probetxu egin zuen, ezta mirik erran dezakenik. Bada nezesidade erreme-diatu zituenak, zuen guzia emanik, limosna atra zituenak emateko, nork



konta? Peste-denboran izan ze ikusgarri S. Karlosen karidade andia. Etxean zen zillar-gende guzia diruturik, berze lekuetara bialirik billa, erremediatu zue zeikena. Baña on etze ainberze: bisitatzen zitue bere personas apestatuak; ematen zitote bere eskus sakramentuak; exortatzen zitue sufritzera arimo onareki Jangoikoaren azotea: ta ibiltzen ze karidadeko lan ebetan ain gogotik, nola eixtari bat bere eizian. Beraren probidenzias mantenitzen ziren pobreak solamente Milanen omen zire iruogeitamar milla guti gorabera, enpleatus bere goatze, tapiz, alfombra, ta protxai ziren gauza guziak aien erremediotan. Eta bera bere familiareki ze preziso sustentatzea mertxedes billatus an ta emen. Baña Jangoikoak askotan suplitzen zue bear orduan, nola etzekiela. Agitu ze trabajatu ondoan herieki egun guzian, itzuli etxera, ta ez aurkitzea zer jan. Bereas kontent alegre Jangoikoai plazer iten zekiola, animatzen zitue bereak konfiatzera Jangoikoan: erretiratu ze orazio egitera, ta andik guti abisu eman ziote, nola zegon gizon bat zekarrana milla dukat limosnas. Aur bularrekoen azitzeas zue kuidoado espeziala; eben faboretan egin zitue miragarriak iago ezi balitz guzien Aita ta Ama bakarrik. Azkenean pestearen denbora gartan libratzeko gorputzak, salbatzeko arimak, ta palakatzeko Jangoikoa, egin zitue alako dilijenziak, probidenziak, penitenziak, ta gauza miragarriak, famatu baitire munduan, eta laudatuko baitire Kristoren agos azken egunean. Lendanik ere gasteago zelarik, ezaundu ze sandu gonon karidadearen kodizia, edo eraiki naia biltzeko zeruan, ezi saldurik bere Prinzipado bat, atra zuen diru guzia berrogei milla urreetaraño eraiki zue pobreetan egun batez: eta berze egun batez ogei milla utzi zizkietenak berari testamentus.

3. Baña bere karidadearen mamia enpleatzen ze arimaen alde, beti injeniatzen, trabajaten, egiten ta desegiten, salbatzeagatik proximoak: zelebratus anitz konzilio, paratus anitz manamendu, eskribitus anitz karta pastorale, ta libru, predikatus, consejatus, korrejitus, erreformatus ere errelijioneak, eta egines infinizio bat obra on, galdu gabe eskaidarik ongi egiteko. Padezitu zue anitz persekuzione Justiziagatik; eta bein bere oratorioan zegolaik bereeki orazio egiten, errelijioso falsu batek tiratu zio trabukoas tiro bat laur brazada apart etzegola: erori ze lurrean sandua, ta ofratu ze Jangokoai sakrifiziotan: baña Jangoikoaren milagros bala bat emanik roketean, ta utzirik an señaleara, erori ze lurrean: posta bat pasaturik tresenak baratu ze larruan larranzi gabe, zulatu zuztelaik gañarakoek ol bat eta paretea fuerteki. Etzuenai izan du segi zezaten gaizkiegilea, ta eskatu zue barkazio izan zirenendako konsient. Proximoen fabore bekala zebila beti bere gorputzaren kontra, etziola barkatzen, ta ez dispensatzen

nekerik, otz edo bero, gose ta nezesidaderik, egiteagatik plazer Jangoikoai, ta on proximoei. Barua zue komun, ta kasi egunorokoa, ta geiengan ai ta ur solles. Garizumaetan ogirik ere ez, baizik baba beratxak ogiaren partez. Bein solamente egunean artzen zue alimentu. Goatzea ze lastalla bat agotzes, ta kalamusko maindreak: komunkiro etziten ze bestiturik, eta iteko anitz zuen denboraetan jarririk katedran ze bere loa. Naiz senti kalenturak eta terzianak, etze barkatzen deustan ere zenbait egunes disimulatus gaitza, eta bere erran komuna ze, *persona duena arimen kargu, eztela errenditu bear goatzera, pasatu arteo irur akzesione edo terziana*. Sekulan etzue niork aitu aipatzen janarien on edo gaixtoas, ezpaizue artzen gustorik. Elizen bisitazean, baserri pobreetan zue bere gustoa, etzelaik aurkitzen ez ogirik ere, kontent kastañas, maizas edo basalores. Arrima ze beiratzea denbora beroenetan nola zebilan eguerdiz ta oñez batetik berzera, izerdia zeriola, ta batzutan bustirik erauntsies larruraño, ta alaere deus aldatu gabe elizara zuzen, ta an espazioreki bisitatzen, exortatzen, bere lanak egiten: eta ori Jaun andi batek, Aita sanduaren ellebak, kardenale ta Arzobispo zenak, eta poderoso abrats erregalatu izan zeikenak! Nola den Jangoikoaren gustoa! eta zer den berari gusto in naia! Zein kontra den munduaren jenioa! Alako bizimoduareki etze milagro gaizkitzea: etorri zezkio terzianak: disimulatu zitue zenbait egunes: baña obligatu zute itzultzera Milana: Meza erran, ta berze bat enzunik eman zio borzgarren terzianak: baña andik guti indargabeturik errebitu zitue sakramentuak sandu becala, eta sanduki despeitu zue arima *1584 urtean*, eta adinaren *46.an*. Gauberean agertu zekio glorioso bere konfesoreari erraten ziola, ni nago ongi, eta zuk segituko nauzu laster. Ala izan ze, andik guti il baize ura ere. Berze anitz aparizio ta milagro agitu ze, deklaratus ala Jangoikoak bere sandu onetsiaren gloria, ta ongi egin naia.



Azaroaren 4.an

San Emeriko Prinzipe Ungriakoa

1. Arbolaren konforme da fruita komunkiro; ala agitu ze S. Esteban Ungriako erregeran semea sandu izatea S. Emeriko. Goizik asi ze agertzen Jangoikoaren eskojitua zela; ain Jangoikoai emana ze txikizututik komunikatzen bere Majestadeareki orazioan. Komunkiro berzeak lo zeudelaik gauaz jaikitzen ze sandua orazio egitera, ta errezatzera Dabiden psalmoak, eta psalmo bakotxa bukatzean eskatzen zue barkazio bere bekatuen: eta ala pasatzen zue gauaren zati on bat. Bere Aita errege zego beira zenbait aldiz barronde, admiratus birtutea, ta gozatus alako semeas, ba bedeikatus Jangoikoa eman ziona. Aumentatu ze erregeren opinione ta esperanza ona bere semeas zuena agitu zen lanze goneki. Nai izan zue bein joan fundatu zuen monasterio batera: biali zue alzinean bere semea, errezihi zezaten monjeek bere persona bekala. Ellegatu zeneko atra zire Monje guziak errezihitza Prinzipe Jauna. Eta au ango usanzaren konforme zoeie besarkatus Monje guziak bat banaka: Baña Aitak ellega turik atzetik goart eman zue, nola batzuei ematen zioten apa bat, berze batzuei bida, ta irur ere, bakotx batzuei laur eta bortz ere: eta bat sollik apatu zuela zazpi aldiz. Ortas admiraturik galdegin zio gero berari, zer motibos egin zuen distinzio gura. Seme sanduak deklaratu zio humilki, nola Jangoikoak errebelatu zition bakotxaren kastidadearen gradoak, eta eben ariora egin ziotela bere amorearen demostrazioak: eta Monje gura zazpi aldiz apatu zuena zela birjin, ta agitz perfektoa, deitzen zena Mauro. Onen progu iagotako Errege berze egun batez gelditu ze konbentuan Maitinetan; ondorean goart egin zue koruan gelditzen zirela aiek sollik distingitu zituenak Emerikok besarkan: eta guziei in ziete bere diosalea erregek, ta aiek korresponditu zioite; sollik Mauro etze mogitu egonez ondaturik bere Jangoikoan. Progatze obeki ere, berze egun batez Monje guzian alzinean erreprehenditu zue Mauro gura errelijioso gaixtoa bekala: baña ura zego humil ta ixil defendatu gabe bere burua, ezaundu zue klaroki santidadea, ta andik guti egin zue Obispo ziudade bateko.

2. Zoeie azis Emeriko adinean bekala santidadean ere: ta hein S. Jorjeren elizan gauaz gelditurik orazioan aldare nausiaren alzinean zego pensatzen, zer ofrenda, edo sakrifizio zezoken ofratu Jangoikoai iago kuadra zekiokena. Pensamentu gontan zegolaik, ikusi zue argitasun andi bat argitu zuena eliza guzia, ta aditu zue boza bat erran ziona, birjinidadea da

gauza guzis preziosoa, ta eskatzen zaizuna da guarda dezazula gorputz ta ariman ilartaño. Gelditu ze agitz konsolaturik, ta erresolbiturik mantentzera birjin bizi guzian, eta niori etzio agertu sekreto goi. Bere Aita sanduak erreinuaren onagatik heredero naiez manatu zio artzeko matrimonioaren estadoa. Atajaturik aurkitu ze Prinzipe ona, alde bat eznaiz autxi bere propositoa, berze alde eznaiz desobe ditu bere Aita: gero ere fiaturik Jangoikoan obeditu zio: artu zue esposa donzella bat erreala agitz ederra, modesta, humila, ta sanda, alako esposoari zegokiona: baña beñere etzue ukitu, baizik konsejatu zio guarda zezan arrek ere birjinidadea, eta biok bizi zeizen garbi eder anai arrebak bekala: eta ala bizi zire. Eta ortako baliatzen zire orazioas ta mortifikazioas: eta Jangoiko Jaunak eman zioite grazia irauteko birjinidadean glorioso naiz okasioaren erdian; baita exemplu bat admiragarria, erakusten diguna zenbat dezaken gure naturaleak Jangoikoaren graziareki. Baña Prinzipe sandu gau, lore eder gau zerurako baize digno, ebaki zue Jangoikoak adinik obenean, ta pasatu zue erreinu obeagora. Iltze gasterik zar, eta ikusi ze bere arima igaten zeruetara; eta Jangoikoak deklaratu zue eman zion gloria asko milagroeki. anno 1032.



Azaroaren 9.an

San Teodoro Martir Amasenoa

S. Teodoro izan ze soldado egiaz guapoa enperadore lurrekoaren ta zerukoaren. Zegolarik Amasean Pontoko ziudadean pregonatu ze an manamendu bat txoil kruela Kristioen kontra: zein aitu zuelarik, errebestiturik Jesu Kristoren amoresko suas erran zue oiuis, ni bada Kristioa naiz, nautena nitas egin, prest nago ematera bizia Kristogatik. Artu zute preso, eta nola baize gaste dispozizio ederretakoa, ta ongi onetsia, lastimas utzi zute libre, beira zezala ongi, ta superstizio bano batengatik etzezala nai galdu honra, ondasunak, ta bizia. Etze aldatu gogos; segitzen zue bere deseo gartan emateko bizia Jesu Kristoren amorez, ta eskatzen zio grazia, kunplitzeko errealdades bere deseo ta itzak. Egun batez sartu ze Jentilen tenplo batean, eta ikusirik al ze erru bat zebilala, iduritu zekio eskaida ona erretzeko tenplo gura: bildurik sukaia franko barnetik eta kanpotik, eman zio su, ta aizeareki sugarrak ederki zebaturik bam bam bam, guzia erre ta erraustu ze. Nork in ote du lan gaixto gau? zioze Jentilek. Teodoro etze joan iges, etze altxatu ere, baizik ausart agerri zego erraten, ni ni naiz erre dutena Demonioen kubila zen gori: ta eztut urrikirik. Arrapatu zute berriz: eta admiraturik alako ausardias, korajeas, ta seguranzas, nai zute oraño ere ekarrarazi beren sektara barkatuko ziotela egina: berak irri egi-ten zue aien erranes: eta orgatik azotarazi zute errukiro, ta gero botarazi karzel ilun batean, ta utzi an ertxirik, il zeien goseak. Baña gau gartan agertu zekio Jesus ona, ta erran zio, Teodoro, egon fuerte, ezi ni nago zureki. Ez artu gizonen jateko ta edatekorik, ezi nik emanen dizut bizitza bat nereki zorionekoa ta betirokoa. Oneki gelditu ze guzis alegre kantatzen Jaunaren laudarioak, Aingiruek laguntzen ziotela ta ematen musika zoragarria, aditu baizute guardiek ere, ta ikusi bera inguraturik zeruko es arrigarri eder txuries: eta arriturik eman zute kontu pasatzen zenas. Juezak etorririk aurkitu zue karzela ertxirik, ta Teodoro an nola utzi zuen: eta ertxirik berriro manatu zue emateko egunoro onza bat ogi ta pitxera bat ur. Baña martirak etzue nai errezibitu alakorik, ezi bere Jaun Jesu Kristok sustentatuko zuela. Atra zute gero andik sano ta sendo: berriz ofrezitzen zioze anitz premio, nai bazue egin aien borondatea: baña etzuketela mellarik egin biotz noble gartan iago ezi istupazko balaek peña batean. Ala aiek suturik deitzen zutela sakrilegoa, inpioa, blasfemoa, paratu zute zur bate-lik dilindan, zeatu zute, txarrantxatu zute burriñasko aztaparres, erre zute

alde guzietatik susko zuzies: baña zenbatenas iago tormentu ematen zioten, ark aleganzia iago erakusten zue, nola balego errekreutzen arrosa ta loreen ertean, kantatus berso gura, bedeikatuko dut Jauna denbora guzian, ene agotik beti atrako dire beraren laudarioak. Berdugoak zatikatzen arren aragiak, eta bera kantatzen alegre, nola ezpaliz berea gorputza padezitzen zuena. Azkenean sentenziaturik erretzera, zeñatu ze guruzearen señalear; eta animoso alegre sartu ze suan. Ikusi zue an bere adiskide bat deitzen zena Kleoniko, eta erran zio, ea Kleoniko, esperatzen zaitut, emazu prisa, segi ni. Eta inguraturik sugarres zegolarik lauda zen Jaun guzis poderoso iltze bake onean, eta ikusi ze bere arima igaten Zerura nola argi txuri eder bat. Gorputz sandua artu zue andre on Eusebia deitu batek, eta enbalsamatu ondoan orzi zue bere etxean al zuken obekiena Eutxaita deitzen den ziudadean. Agitz famatua, estimatua, ta honratua izan da soldado sandu gau, zeñen medios enperadore Kristioek erdetxi zuten anitz biktoria, ta &. iltze 304 urtean.



Azaroaren 11.an San Martin Obispoa

1. S. Martin obispo gloriosoa, sazerdoteen perla preziosoa jaio ze Ungrian Sabari deitzen zen errian, ta azi ze Italian Pabian. Buratsoak izan zitue nobleak mundurako, baña infielak errelijionez. Aita ze soldado Maestre de kanpo deitzen zen gradoan: eta nai zue bera bekala semea ere soldado ta Jentil: baña amar urtetan Martin argiturik Jagoikoganik buratsoen borondatearen kontra joan ze elizara, ta eskatu zue in zezaten katekumeno: ala deitzen zire katetxima doktrina Kristioarena ikasten zeudenak bataiatzeko: beti ze afizionatua deboziosko gauza onetara, ta orazio-ara, naiago zuela tratatu Jangoikoareki iago ezi gizoneki. Agitu ze Konstanzio enperadoreak manatzea, militareen seme guziak listatzeko gerrarako. Martin nai ze exkusatu, baña ezin, zeren bere Aitak berak armarazi, ta joanarazi zue gerrara, emanik bere zerbitzuko mutil bat, zeñi iago zerbitzatzan zion sanduak, ta janarazten beti bereki mai batean. Guardatu ze soldadoen bizioetaik kuidado andiareki: Jangoikoa zerama beti begien alzinean; ta amore bekala zio beldur ta errespeto andia: beti ze alaber ongi egin naia guziei al zuken guzian. Bein Amiensko portalean zegolaik soldado laguneki, ellegatu ze pobre bat erdi-biluxirik ta otzak dal dal dal: berzeek etziote egin kasorik, baña Martinek urrikariturik partitu zio bere kapotea estal zeien: Irri egin ziote ortas lagunek beiratus kapa-erdiareki falder: baña urbilen gauean agertu zekio Aingerus akonpañaturik Jesu Kristo erraten ziotela, Martinek, eztelaik oraño baizik katekumeno, estali nau ni kapa goneki, erakusten ziotela eman zuen gura limosnas. Zein amazale den Jangoiko ona gizonen! Zein ongi pagatzen duen ongi egina pobree!

2. Etzego kontent Martin ofizio gartan, nai zue erretiratu emateko guzia Jangoikoai. Ortako eskatu zio lizenzia Juliano enperadore sartu zenai. Onek ustez on zen kobardias, egin zio akar. Martinek erran zio prest zegola paratzera armarik gabe ta beldurrik gabe etsaien tropaen alzinean, solamente armaturik guruzeas. Apostata garrek guruzearen odios ere manatu zue lotu zezatela, ta paratu biramonean ala loturik etsaien aurkasean: baña Jangoikoak nai ta biramonean etsaiek eskaturik bakea egin ze: agian atratzeagatik bere sierboa armaen ertetik. Joan ze andik billatzera S. Hilario Putiersko obispo sandua, zeñeki egonik ikasten santidade ta jakintasun bear zuena bataiatu ta ordenatu ze orden apalago-

es. Gero Jangoikoaren errebelazios itzuli ze bere sortuerrira, pasatus bidean trabajatu ta biziaren peligro ladronen eskus, baña beldurrik gabe ziola, Kristioa naiz, eta dakit Jangoikoa dagola presente bear orduan aparatzeko. Arriturik alako arimo onas utzi zute, ta bat aietaik egin ze errelijioso. Ellegaturik sortuerrian trabajatu zue anitz konbertitzeagatik buratsoak fede kristiora: Ama Kristiatu ze: Aita gelditu ze bere itsutasunean, pena errua zuela ortas seme onak: baña arren partez berze anitz irabazi zue Jangoikoaren. Herejeek ere ta Deabruerk persegitu zute biaje gartan, preso egines, azotatus, ta deshonoratus publikoki de manera ezi bizia ez galtzekos bear izan zue itzultzea bere San Hilariogana. Baña au ere des-terraturik herejeen medios, S. Martin joan Milana ta botarik andik Auxenzio obispo herejeak, bizitu ze altxaturik sazerdote bateki Galinaria deitzen den islatto batean: alik eta jakin zuen arteo itzuli zela S. Hilario. Onengana joanik ta errezibiturik gozo andiareki egin zue monasterio bat, nora segitu zioten zenbait arima onek; aietaik bat katekumenoa oraño bataiatu gabe heriturik iltze egun gutiren barnean, zegolaik ausente sandua: zeñek itzuli ta jakin zuelaik desgrazia, negar egin zue, ikusi zue ila, ta guziak atrazirik, ta gelditurik ilareki bakarrik, ta arren gañean bera edaturik egon ze otoi otoi Jangoikoai biztu zezan: eta biztu zue, ta bereala bataiatu, ta bizitu ze gero anitz urtez. Berze bat biztu zue urkatu zena bere burua; ta geroago berze bat konbertitu naiez infielak.

3. Goizik asi ze Jangoikoa mostratzen Martin zela bere maite eskojitu, zeren bera ere goizik eman zen Jangoikoai Jesu Kristorenbaitan. Jesu Kristo ezaundurik bein, beti onesten, maitatzen, ta amatzen zue: eta alaber Jesu Kristoganik ze onetsia, maitea, ta amatua. Bien biotzak uniturik, batak nai zuena berzeak ere bai: bereala eskuak ere juntatzen zire, obratzekeo nai zuen guzia Martinek, naiz milagro ta miragarriak. Aborrezitzen zitue gasterik arimaren irur etsaiak, Demonioa, mundua, ta aragia: Aragia, baita gorputza beti gogorki tratatus, ez emanez gustorik deustan, ez jan edanean, ez bestitzean, ez loan, ez deskansuan, baizik sollik preziso zen gura, mantenitzeko bizia doi doia; eta bizia ere etzue estimatzen, ezpaze Jaunaren, ta eman naiak zego beti beraren amorez: eta ala biziaren peligro asko izan zituenetan etzue izan beldur pixkarik ere, bai koraje ta aleganzia, nola iltzea balitz irabaztea. Mundua, Jespreziatus emengo banidadeak ta goraberak, al ze utsa ta ezdeus bekala bere Jaunaren aldean: ala bizi ze munduan zabal eder, nola ezpaliz emen, baizik Jangoikoa ta bera bakarrik, apegatzeko biotza, diot; gañarakoan beti guziei ongikin naiak Jangoiko onaren gustora. Demomoa garaitu zue aisa humildade ta orazioareki. Orazioan komunikatus Jaunareki beraren kondizioetara egin ze. Ain afi-



zionatua ze oraziora, ezi ori ze bere bizia, eta elizak dion bekala, begiak ta eskuak zerura goraturik etzue floxatzen oraziotik beñere bere arimo inbenziblea, edo garaitu etzeikena. Orazioan Jangoikostatzen ze, ala errateko: An azitzen zue arimo andi gura, humiltasun, mansotasun, pazienza, ta gañarako birtute exzelente zituenak, guzien ganetik karidade jeneroso dibino gura. Itz batez, S. Martin izan ze Jesu Kristoren imajina bizi bat imitatus daiken guzian gure salbazale Jangoiko gizon gura.

4. Zegolarik sandua bere monasterioan ilik mundurako, ta ortzirik bekala Jangoikoan Jesu Kristoreki, agitu ze iltzea Tursko obispoa. Bereala oroitu zire sanduas, egiteko beren Artzai: baña nola baizekite etzuela naiko, engafiatu zute gizagaizoa. Jaun batek finjitus bere bizikidea zeukala heri andia, eskatu zio nai bazue joan bisitazera, ta ematera bere bedezioa, sendatzeko, edo ongi iltzeko. Sandua nola baize ain ona ta ongi egin naia atra ze konbentutik: jendeketa andi bat zego etxideten noiz atrako zen: arrapatu zute preso bekala, eraman zute elizara, egin bear zela aien Obispo. Bazire orgatik zenbait bakotx bano nai etzutenak, ziotela, zela persona txarra, prezencia gutitakoa, bilo nasia, falder gaizki bestitua, ta indignoa obisopotako: baña Jangoikoak nai zue, ta jende on guziak, ta ala konsagratu zute obispo, zeudelaik guziak kontent, bera sollik negarrez pensatus etzela digno. Paraturik dignidadean egin zuen on guzia nork explika? Jesu Kristoren Apostolu berri bat bekala errebestitu ze beraren espirituas, ta zelo fiñaren suas, urratzeko ta desegiteko Deabruaren erreinua, zein baitire infidelidadea, errereak, bizioak, ta bekatuak: eta plantatzeko Jesu Kristoren erreinua, fede ta santidade guzia. Bere buruari etzio konpasionerik barkatzeko deustan ere, proximoei bai al guzia ongi egiteko beti: ezi berareki azi ze miserikordia. Meza erratera joaterakoan neguan opatu zue nola len pobre bat erdi biluxirik: manatu zio bere Arzedianoari besti zezala: orreki sartu ze elizan, ta gero sakristian errebestitzeko ornamentes. Errebestiturik zegolaik, ellegatu zekio pobre gura erratera nola Arzedianoak utzi zuen deus gabe. Sandua bakarrik gelditurik kendu ze kasulla ta gañarakoak: eta atrarik bere barneko tresena eman zio pobreaki. Atra ze gero erratera bere meza: eta Jangoikoak nai izan zue honratu bere biotzeko sandua inguratus beraren burua argi-errañues, ikusten zutela mereji zutenek ikustea. Berze aldi batez alaber meza erratean ikusi zire bere eskuak adornaturik diamante, ta perla preziosoes. Eta guzietan faboratzen ta honratzen zue bere sierbo ona.

5. Zoeie bein bisitatus bere obispadoko elizak: lagunak atzetik urrun, bera alzinago bere kontenplazioan. Aurkitu zute soldado batzuek zoezinak karroza batean: lotsatu zire zaldiak ikusteareki, eta ezin zezazkete

mogiarazi alzina: atra zire kotxetik aiek, ta golpatu zute sandua moldegaizki de manera ezi erori ze lurrean erdi-illik; baña sereno ixil mellarik in gabe. Aurkitu zute lagunek ala zauris beterik odola zeriola; paratu zute bere astokoan ongi penaturik, baña itzik atra gabe sanduak. Baña Jangoikoak kastigatu zitue soldado gaiek ezpazeizke pasa alzina. Galdegin zute nor zen pobre gura, ta aditurik zela. Martin, ta arriturik eskatu ziote barkazio: ta sanduak alegre arresti amoroso barkatu ta biali zitue beterik admirazios ta agradezimentus. Genero gontan da admirableago agitu zekiona Brizioreki: Ze au sazerdote bat bano utsa, zeñek egin zio milla agrabio sanduari deshonoratus jendeen alzinean, ta kasi emanka jokatus: sandua sereno sufritzen, ta Jangokoai eskatzen arren fabore. Ellegaturik bein kanpoko batzuk S. Martinen billa, galdegin ziote Briziori ia bazekien non zen: arrek erres pondatu ziote, an aurkituko duzie ero zoro gura begiak zerura beira. Gero sanduak mintzatu zio amoltsu, o Brizio, ala iduri zaizu nai zela ni ero zoroa? Bada barkatzen dizut, ta erdetxi dut Jangoikoaganik, barka dezazun, ta izan zaiten eliza gontako obispo, ni ilas geros; baña pasatuko duzu asko trabaju: egon konstante. Ala agitu ze: Brizio urrikitu ta emendaturik gero egin ze obispo, ta sandu. Au baita S. Martinen milagro ederra! Erraten ziotenei nola sufritzen zuen, ta ez kastigatzen, errespondatzen zue, Jesu Kristok sufritzen zue judas, eta nik eztut sufritu bear Brizio? Pazienza bera mantenitzen zue berze asko injuria in zitiotenetan: beñerez mendekatzen, bai barkatzen beti. Oroat egiten zue berze bekatarietiki absolbitus piadosoki konfesatzen zirenak de manera ezi Deabruak bein erreprehenditu zue erraten ziola, etzuela Jangoikoak barkatzen bekatari itzultzen zirenak eror zera bekatu grabeetan. Ontara errespondatu zio sanduak, baldin ik ere desdixatu orrek utzirik tentatzea gizonak, ta urrikiturik eska baiez miserikordia, nik konfiaturik Jangoikoaren onean ofrez nezakak iri ere barkazioa.

6. Ala zebila afanaturik itzuli naiez galduak Jangoikoagana beti. Pasatzen ze erri batean, guzia baize infielena, zein aiturik fama bildu zire guziak de manera ezi kanpoak bete zire jendes ikusteagatik sandua. Au lastimaturik aien itsutasunas asi zekio Jangoikoaren itza erraten alako sentimentu, boza, manera, ta graziareki, ezi baize ageri Jangoikoa mintzatzela beraren agos. Ortan dagolaik, ellegatu ze Ama bat afljitua zekarrala bere seme bakar il zekiona biztu zezan, nola zezaken, izanik ain adiskide Jangoikoaren. Jende guziak oroat eskatzen zio. Sanduak ezaundurik, izan zeikela ori motibo, konbertitzeko jendea, paraturik belaunak lurrean, ta begiak zeruan eskatu zue, o ene Jaun ona Jesu Kristo, nai barin badu, badezake biztu il gau. Ain laster nola atra zuen itza, itzuli ze arima gor-



putzera: eta mutikoa bizturik guzien alzinean, Ama zoraturik kontentus, guziak oiuz laudatzen Jesu Kristo, ta sandua, asi zekizkio erraten nai zirela egin Kristio: Sanduak kontentago ezi logratu duenak flota andi bat Indietatik kristiatu zitue guziak. Zelo berareki nai izan zitue kendu lekue-taik jentilidadearen memoriak: logratu zue lurreratzea ta desegitea zeruko aize ta ausnarrieki dorre bat miragarriro eder gora, non honratzen zuten Demonioa: ta berze erri batean kolumna bat gisa berekoa, jautsiarazis zerutik berze bat autxi ta desegin zuena ura: berze batean arbola temenarior bat, zein erran zioten autxiko zutela berek, paratzen baze bera pean errezebitzeko eror zen zelaik. Admittitu zue tratua: utzi ze paratzera loturik pean alde gartan, nora bear zen botatu: ta ia ia ebaki-urran zutelaik, guziak beira noiz txatxakatuko zuen an berean, saltatu ze arbola aratago, utzirik sandua libre guruzearen señalearen birtutez, ta kasi arrapatutik pean aratago zeudenak beira. Orreki kristiatu zire jendeak. Oroat urratu, erre, ta erraustu zue asko tenplo Jangoiko falsuenak: eta bein ala su emanik tenplo bati, aize erru goratu zenaren kasos edatzen zirelaik etxeetara, sandua igan ze tellatu batera, ta agertu zeneko, itzuli zire sugarrak atzerat instantean. Berze tenplo alako bat nai zuelaik desegin Borgoñan, bildu zire anitz nekazari estorbatzeko, eta batek goratu zue besoa ta arma emateko sanduari: sanduak istante bota zue mantoa, ta edatu zue lepoa, eman zezon, ezi bere bizia ze iltzea Jangoikoagatik: baña Jangoikoaren birtutez gizonoi erori ze atzerat arriturik, ta eskatu zio barkazio. Berze aldi batez berze alako bati erori zekio eskutik arma, ta etze agertu sekulan. Generogontara eldu da agitu zekiona bere konbentura urbil zegon tenplo, edo hermita batean, non biltzen zen anitz jende debozios ustez ziren an zenbait martiren errelikiak, ta orgatik lenagoko obispoek in arazi zute an aldare bat. S. Martinek nai zue ikasi debozio garren prinzipioa nondik edo nola. Niork etxakin. Asi ze sospetxatzen ote zen onez. Joan ze sekretoan bere monje batzueki: Jarri zire orazioan Jangoikoai. Bereala sanduak ikusi zue itzal beltz ilun lotsagarri bat, zeñek erran zion nola zen ladron baten arima, bizia edeki ziotena bere delitoengatik, ta zelebrazten zutela ignoranzias martir bekala; baña ark etzuela ikustekorik martireki, zein baitaude glorian goiti, eta bera infernuko sulezean beiti. Oneki sanduak desengañatu zue jende engañatua, ta desegin zue aldare ta hermita.

7. Ala sanduak bete zitue erriak Kristioes, konbentuak errelijosoes, mundua bere famas. Ikusirik nola amatzen ta faboratzen zuen Jangoiko andiak, infernuak zio beldur, munduak erreberenzia, Jaun andiek ta enperadoreek aten zio. Tetradio Prokonsul jentilak zue mutil bat espiritu gaixtoaganik tormentatua. Jaunarrek eskatu zio sanduari nai bazue libratu.

Sanduak manatu zue ekarri zezotela. Baña espiritu gaixtoa erresistitzen ze joan nai etzuela: etze izan posible etxetik atratzea. Jaunak orduan eskatu zio in zezon mertextede joateas arren etxera. Sanduak zio, eztut nai sartu infiel baten etxean nik. Orduan ofrezitu zue arrek kristiatuko zela, baldin libratzen bazio mutila. Joan ze oneki sandua, ta libratu zue aisa, ta bataiatu ze Tetradio. Iago miragarri da agitu zena Adizianoreki. Ze au Konde Tirano kruela tormentatzen ta ilarazten zituena gizonak, ta ortako sartu ze sanduaren ziudadean. Bere krueltasunak in nai zituen egunaren bezperan, joan ze sandua gauaz arren palazioko atarietara, ta jarri ze an orazioan, guziak lo zeuden bitartean. Kondeak aditu zue boza bat erraten ziola, Jangoikoaren sierboa dago zure etxeko atarietan lurrean, eta zu lo goaztean? Saltatu ze lotsarriturik, ta manatu zio te mutilei idikitzeo ataria S. Martini. Aiek ajola guti aster itzuli zire, deus etzela, baizik ametsa. Lokaturik berriro, berriz oiuz egin zio erruago. Jaiki ze orduan, joan ze bera, idiki zio ataria, bota zekio oñetara, etzuela zer atra itzik, inen zuela sanduak nai zuen guzia: solamente eska zezola Jangoikoai etzezan deskarga bere ira arren kontra. Bereala biali zitue libre preso zeuzkien guziak. Sanduak ikusi zue Demonio bat zegokiona su ematen egiteko injustiziak: fu bateki bota zue Demonio gura, ta andik alzina ondu ze Kondea.

8. Bear izan zue S. Martinek katolikoen onagatik joan enperadore Balentinianorengana. Onek zue Andrea hereje. Orgatik manaturik zeuka ez usteko sartzera palazioan S. Martin zetorrelaik. Bein ta bi aldiz eskatu zue lizenzia sanduak: etzue logratu; baña etzue orgatik utzi bere pretensioa. Akuditu zue Jangoikoagana orazios, barus, penitenzias. Zazpigarren egunean Jangoikoaren Aingiruak manatu zio itzultzeko palaziora: Joan ze, aurkitu zue libre sartzera, niork itzik erran etziola, sartu ze enperadorearen aposentuan: Au asarraturik zerbitzukoan kontra zergatik utzi zuten sartzera, etze mogitzen ere egiteko agur, ta ongi etorria, etzio errespondatu nai ere. Baña derepente sugar batek inguratu zue katedra, non zegon jarri-rik; jaiki bai jaiki lotsarriturik, egin zio sanduari erreberenzia, eta eskatzen zuen guzia: gero konbidatu zue bazkaltzera, ta ofrezitu zio anitz presenta prezioso, baña sanduak etzue nai artu. Oroat gero enperadore eginik Maximo, sandua berriz joan zekio elizaren onagatik: eta izan ze errezebittua ta tratatua Jangoikoaren gizona bekala. Berze atenzioen eritean enperadoreak eskatu zio jan zezala beraren maian: nekez logratu zue gero ere doi doia. Orduko usanzaren konforme atra zute azkenean kaliza andi bat ardo enperadorearen alzinean parti zezan nori nai zion egin honra. Enperadoreak presentarazi zue S. Martinen alzinean parti zezan onek, ta onen eskutik nai zuela artu. Sanduak len lenik eman zio bere Kapellan sazer-



dote an zegonari, gero enperadoreari, honratus ala sazerdotea iago ezi lurreko enperadorea. Eta enperadoreak artu zue ontzat beiratus sandua ala nola gizon bat berze mundukoa. Iago egin zue enperatrizak, baize señora piadosa: askotan sanduaren oñetan egoteas landara aditzen Jangoikoaren itzak, nai izan zio zerbitzatu maian: eskatzen zio ar zezala beraren eskuetaik otronze laburtto bat. Sanduak etzue nai alakorik bere humiltasunez. Enpeñatu ze enperadore Jauna logratzeko. Sanduak ez desplacer egiteagatik, nola bear baizue fabore katolikoendako, obeditu zio gero ere. arririk maian, ikusteko ze nola enperatrizak berak ekartzen, berak ematen zion platera, berak edatekoa humil humila: baita gauza admiragarria. Gero goratu zue maia; bildu zitue otapur guziak errelikiak bekala: baña sandua orgatik ain zego humil, nola in ezpalekio berari honra gura. Berze lanze bat agitu zekio donzella sanda bateki. Bizi ze au erretiraturik bere kanpoko etxe batean asko urtez sandaren fama andiareki. Pasatzean andik urbil sanduak nai izan zue bisitatu naiz etzuen kostunbratzen. Ia etxera urbil zelarik, biali zio donzellak erratera in zezola merxede pasatzeas alzina ikusi gabe. Ori, uste zutelaiak guziek kontent egonen zela bisitatzeas alako gizon sanduak, nola idiki balekio zerua. Sandua joan ze kontent admiratus birtutea, ta laudatus egina, entenda daien zein kuadrable den Jangoikoai ta sanduei donzellaen erretiroa gizonenganik apart Jangoikoaren amorez.

9. Baña zer milagro da sandu gau ez batere mogitzea munduko gora-beraes, bizi zelarik kontino zeruan gogoa, naiz lurrean gorputza? Arara zego igan naiak aspaldirik: konformatzen ze ordea emen egoteas Jangoikoaren zerbitzuagatik. Tenploa pensatzen zue nola zeruko antesala: emen gozatzen ze bere Jaun Jesu Kristoreki presente: Beiratzen zue arimaren begies alako fede biziareki, nola ikus balez gorputzaren begies. Beñere etze jarri tenploan: beti egoten ze edo belauriko, edo txutirik erreberente koloregaizturik beldurra bekala; eta erraten ziotenei, zergatik ala? errespondatzen zue, eztuzie nai beldur izan dezaten, dagolarik emen guzien Jaun Jangoikoa? Bisitatzen zute noizean noiz Zerutik Aingiruek, S. Pedrok ta S. Pablok, S. Teklak, S. Inesek, ta guzien erreginak Maria Santisimak. Baña ia zeude arara eraman naiak, zegon bekala bera ere joan naiak. Ellegatu ze laurogeitasei urtetara: izan zue errebelazio urbiltzen zela plazoa: baña atsartzen zuen bitarteo etzue baratu nai egitetik ongi eginala: Diskordia izan zutela sazerdoteek erri batean jakinik joan ze arara: paratu zitue bakean nai bekala; ta itzultzerakoan asi ze sentitzen indar-falta andi bat; eta erran zioze bere Diszipuloei, ia bere etxe luresko gura erortzera zoeiela. Goratu zute aiek iskitritua zerurano anitz aiots ta

negarreki: erraten zioze, zergatik, Aita, desanparatzen gaitu? edo nori uzten gaitu gu deskonsolaturik? Otsoak sartuko dire berorren saldo gontan. Badakigu joan naiak dagola gozatzer bere Jesu Kristo: baña seguro dauka gero ere bere premio ona: orai gutas urrikari bedi, nola gelditzen garen ori gabe. Nola baize ain ona ta ongi egin naia, beraxtu zekio biotza, eta negarretan begiak goraturik zerurat erran zue, Jauna, barin banaiz oraino prezio berorren saldoaren, eztut errehusatzen trabajua. Kunpli bedi orren borondatea. Itz ebetan adiarazi zue nola sakrifikatzen zen bera, bere ondasun, ta deseo guziak Jangoikoaren gustora. Baña segitus sukarra, beti alaere zego Zerura beira orazio egiten. Nai zute alda zeien posturas, alibiatzeko agian zerbaitto: baña sanduak zio, uz nazaze beira dezaten Zerura obeki ezi lurrera, ikas dezan espirituak ararako badea artu bear duena. Gero agertu zekio Demonioa an tieso: eta sanduak erran zio animoso, zertan ago emen, animale fieroa? Eztuk aurkituko enebaitan gaixtofikatu orrek deus naukenik. Andik bereala iltze eriotze preziosoa Jangoikoaren presenzian.

10. Gorputza bereala errebestitu zue Jangoikoak gloriako señaile argi eder miragarries, paratus fresko luzituago ezi bizi zelarik. Sentitu ze Zeruko Aingiruen musika ez an solamente il zen lekuan, baita ere S. Seberino Obispoak ta bere Arzediano batek aditu zuzte Kolonian urrundarik kantatzen gloria suabekiro; eta dio Sandu gonek, musikak iraundu zuela denbora guzian infernuko ministroak zeuden bitarteo pausuan edo pasatzean deteniarazteko ta examinarazteko S. Martin, naiz banoan. Nondik daiken atra kontua, zer peligrora dugun bekatariak berze munduan, ala persegitzen zutelaiak an etsaiek sandu bat ain andia, nola S. Martin! Jakin zelaik iltzela, ezin sinesta daikena da erri gaietan izan zen dolamena ta pena faltatuas alako Aita, Arzaia, Maestraua, ta anparo nai bekalakoa guzietako. Bildu ze infinizio bat jendeketa zelebratzer beren obispo sanduaren ilaria; aien eratean bi milla Monje aziak sanduaren doktrinaren esneas, ta birjina sandaen koro eder bat, ta berze asko jende ezin konta ala, guziek beiratus gorputz sandu gura nola arima preziosoaren kontxa dignoa, alde bat negar beren galteagatik, berze alde konsolatzen, baizekite glorian zegola: eraman zute gorputza daiken ponpa ta festareki. Il omen ze Kristoren 402 urtean. Baña beraren memoria bizi da oraino ere ain berri fresko, ta biziko da mundua mundu den bitarteo, ez solamente Ungrian, non jaioa baize, ez solamente Franzian non izan baize Obispo, baitaere Alemanian, Italian, Españan, ta Kristioak diren leku guzietan. Errealki S. Martin izan ze Kristiojende guziaren honra, eta defenza, Pontifize sanduen gloria, sazerdoteen perla preziosoa, Jesu Kristoren imajina bizia, imitazale pro-



pia, Jangoikoaren biotzeko onetsi erregalatua. Sanduek milla laudarios zelebratzen dute. S. Gregorio eliza bereko obispo izanak dio kantatzen dena Eliza guzian, O gizon zori onekoa, zeñen despeidan kantatzen duten Aingiruek, proklamatzan sanduek, konbidatzen birjinek &.

Azaroaren 13.an San Brizio Obispoa

1. S. Martinen biziaren atzetik eldu da ongi S. Brizioarena segitu ziona obispadoan. Izan ze beraren Diszipulo, berak azi zuena, ta berak ordenatu: baña dignidade berriareki obetu bearrean banatu ze, ta mundukoi dibertitua erregalatua lazoa egin ze. S. Martinek konsejatzan ta korrejitzan zue: baña heri frenetikoa bekala ura itzultzen ze bere Mediku onaren kontra: eta bein Demonioek inzitatzan zutela, nola ikusi zituen sanduak berak, kasi egin zio emanka sanduari: baña sanduak axuri batek bekala manso sufritzen zue. Etorri ze heri bat S. Martinen billa: Briziok erran zio, billatzen bauzu zoro gura, ara non duzun an nola dagon zerura berra, beti bekala. Heriak aurkitu zue S. Martin, ta arreki bere erremedioa: eta S. Martinek Briziorl erran zio amoltsu, ala iduri zaizu nai zela ni zoroa? Ukatu zue arrek, etzuela erran alakorik. Eztuzu zer ukatu, erran zio sanduak, ezi urrun egonik ere, aditu dut Jangoikoan. Eta nai dut jakin dezazun, logratu dutela Jangoikoaganik, izan zaiten emengo Obispo ene ondorean: baña abisatzen zaitut pasatuko duzula anitz trabaju. Orai bai, zio berebaitan Briziok, egia baita nik errana, zoroa dela zar gau.

2. Iltze bada S. Martin: eta Jangoikoaren borondatez egin zute Brizio obispo ilaren lekuan. Ikusi zuelaik kunpliturik sanduak errana, idatzarri bekala ze; asi ze pensatzen gauza pasatuetan S. Martineki, ta penatzen ez tratatuas ongi, ta oraziora ta penitenziara ematen, ta al guzia ongi kunplitzen bere ofizioa. Baña kunplitus S. Martinek errana trabajues, goratu ze tenpestade erru bat arren kontra. Emasteki bat erreljiosa iduri garbitzen zuena obispoaren etxeko txurigendea, agitu ze gelditzea enbarazaturik, eta erditzea. Jendea ori publikaturik, iago informatu gabe, goratu ze itsua obispoaren kontra nai zutela arrikatu ere; orduraño S. Martinen atenzios ta piedadez sufritu zutela, baña etzezala permiti Jangoikoak zikin zeizen berak apatus alakoaren eskuak. Etzue balio arrazioak jendearen iraren kontra: eta naiz obispoak ukatu, naiz juramentu egin, etzuela kulparik artan, etze protxal. Oroitu ze S. Martinek erranas, ta sufritus pazienziareki persekuzio gura bere kulpen penitenzia bekala, enkomendatzen ze sanduari, ta Jangoikoari. Azkenean manatu zue jende guziaren alzinean ekarri zezatela aur jaijo zena, ogeitamar egun zuena, eta presente zeukalaik, erran zue obispoak, gure Jaun Jesu Kristoren izenean manatzen dizut, erran zazula klaro emen, ia ni nai zen zure Aita. Errespondatu zue



aurttoak klaro, ezta berori ene Aita. Jendeak oi u obispoari, mana zezola aurrai erran zezala nor zen Aita. Obispoak, ori eztagokida niri, baizik zueri: or konpon; nik egin dut bear adiña. Milagro bat ain klaroa etze aski izan sosegatzeko jendea; baizik segitus beren furian ziotela arte gaxtos egin zuela, bulkatzen zute, ta botatzen ordu gaxtoan oi u klamatzen, eztugula nai izan daien gure Artzai. S. Briziok humil sereno enkomendatus Jangoikoai, artu zitue brasa itxeikiak bere mantoan, ta eramanik S. Martinen obiara, an utzi zitue, gelditurik mantoa oso guzis mantxarrik ta mellarik gabe, ziola, ala nola ene oial gau ezten erre suas, ala ene gorputza dago libre luxuriaren bekatutik. Nor ezute garaitu bear alako milagroek? Baña aiek etzire beraxtu alaere; baizik Jangoikoaren permisos bota zute bere elizatik moldegaizki: ta paratu zute arren lekuan sazerdote bat deitua Justiniano. Zenbat manera duen Jangoikoak sandutzeko!

3. Botarik bere elizatik S. Brizio joan ze Romara; eman zio kontu bere trabajuas Aita Sanduari konfesatus klaro senzillkiro, zela Jangoikoaren kastigoa, zeren tratatu zuen gaizki berak S. Martin. Justiniano ere obispo falsua atra ze joateko Romara, baña bidean iltze miserableki. Turskoek nonbratu zute berze bat deitua Armeniko obisopotako: baña Aita Sanduak informaturik egias defendatu zue S. Brizio, ta itzularazi zue bere elizara zazpi urteen buruan. Itzuli ze, baña gelditu ze erri batean bizpirur lekua apart ziudadetik. Bereala heriturik Armeniko gura iltze gauerdirat, ta S. Briziok izan zue ortas errebelazio. Goiz goizean erran ziotelagunei, goazen orzitsera gure Tursko obispoa, zeñen gorputz ila atratzen zute portale batetik noiz ta S. Brizio sartzen zen berze portale batetik. Oneki gelditu ze bakean obispo bere eliza propioan, ta bizitu ze zazpi urte iago: eta ondorean bukatu zue bizia sanduki: eta Elizak zebratzen du sandu bekala. Emen dezakegu ikasi zenbat balio duen sanduen pazienziak ta orazioak, ezi S. Martinen pazienza ta orazioagatik egin zue Jangoikoak S. Brizio obispo ta sandu. Gero eztaikela fia segurki txutirik dagona ezteela eroriko, eta alaber eztaikela deskonfia erori dena eztaikela jaiki Jangoikoaren graziaz. Azkenik ikasi bear da, ezi naiz barkatu Jangoikoak gure kulpak bere miserikordias, baña gaizki egin pagatu bear dela justizias goiz edo berant, emen edo an, ta obe dela emen &.

Azaroaren 13.an Santa Maxelende Birjin ta Martir

1. Ala nola baitire fedearen Martir gloriosoak, badire alaber kastidareen Martir biktoriosoak, ta birtute guzien exenpluak elizan. Ebetaik izan ze S. Maxelende jenerosa Flandesen jaioa. Jangoikoaganik zue naturale ona, ta onera afizionatua aurzututik, eta gaizki den guzietara oposizio zuena, eta ongi azitzeareki mantenitzen ze onean konstante aborrezitus bekatuen zeboak, banidadeak, galak, dibersioak, ta alako arinkeriak. Agitz ze galant eder ederra, ta sanda bateo izateareki famatua ta kuadrablea guzien begietan. Orgatik anitzek pretenditzen zute esposatoko: baña berak eskojitu zue esposotako esus ona ofreziturik konserbatzea birjin. Kaballero abrats poderoso batek guzien gañetik nai zue bizikide, ta ainberze porfia, promesa, ta gauza in ziotel arren buratsoei, ezi aiek ofrezitu ziotel beren alaba etzekiena alakorik. Kaballero gura deitzen zena Arduino agitz kontent zego prestatzen bodetako festa alako eguneko. Bitarteo buratsoek sandari galdegin ziotel, nai zuen artu senar kaballero gura ain poderoso, prestu, ta bear bekalakoa. Obedi zezotela in zuten ajustean, ezi matrimonioiko estadoan ere salba zeikela. Turditu ze aditzeas ere, ta eskatu zue denbora pensatzeko. Gau guzian egon ze orazioan, guarda zezan osorik birjin desloratu gabe, arma zezala bere grazias, garaitzeko tentazio guziak. Eta Jangoikoak in omen zio grazia bialis Aingiruak bisitatu, animatu, ta seguratu zutenak. Biramonean mintzatu ziotel buratsoei animosa akar egines zergatik itz eman zuten aipatu gabe berari, zuelarik adin ezauntzeko on gi zegokiona. Jakin zezatela bera zegola ofreziturik Jesu Kristori aurzututik, ta etzuela utziko mundu guziagatik ere.

2. Ellegaturik egun señalatua, joan ze Arduino akonpañamentu andiareki bere Nobiarene eske: baña au zego bere Jesus onareki orazioan etzuela nai bodarik niolaterel: Aitak arrapatus biloetaik atrarazi zuel jendeen alzinera; baña an mintzatu ze alako arimo, ta determinazioareki etzuela aldatuko estado zeukana, ezi guziek entendatu zute etzutela ezkonaraziko, ta lenago arrek galduko zuela bizia, ezi birjinidadea. Gelditu ze Arduino alde bat alke gorriturik konfuso, berze alde koleraturik furoso. Ala guziak joan zire nor bere alde, ta donzella sanda bere oratoriora, eta andik alzina eman ze iago egitera orazio, baru, bijilia, ta obra on, esperatus laster pasatuko zuela martirio birjinidadeagatik. Andik egun guti sandaren buratsoak konbit joan zire berze etxel batera, utzirik alaba etxean



bakarrik, baizekite etzuela nai alako festarik. Ori jakinik Arduinok, ta au zela eskaidarik obena, bakarrik zegolaik, joan zekio armaturik: eta naiz altxatu zen sanda, aurkitu zute azkeneko. Pensa arren ikaradura: Pensa berzearen itzak, promesak, porfiak, ta gauzak. Baña errebestiturik Jangoikoaren espirituas sandak erran zio erresuelta, etzela izanen desleal Jesu Kristori, zeñi ofrezitu zen: baziokela berak il gorputza, baña arima ez. Au erran ta nolapait eskapatu ze eskuen ertetik: baña arrek amorearen, ta iraren suas furoturik segitu zue ezpatareki eskuan, erdetxi zue, ta bota zue flik lurrean. Baña odola ikusi zueneko gelditu ze itsu bi begietaik. Fama-tu ze lanzea, eta buratsoek akonpañaturik jendees ta sazerdotees orzi zute sanda erri batean urbil, S. Pedro ta S. Pabloren elizan, non egon zen irur urtes. Ondorean zerutik errebelazio izanik, aldatu zute solemneki leku gartara, non ere utzi zuen bizia; an Jangoikoak nai zuela honratu sanda milagroeki. Aldatu zuten egunean, joan ze Arduino itsutua humil humila, konfesatus bere kulpa, eskatus barkazio, ta bista galdu zuena. O Jangoikoaren piedadea! O sanduen mendekatze-modu jeneroso! Bereala sandaren medios argitu zue Jangoikoak antxe berean: eta asi ze oiuz kontatzen bere gaizki egina, Jangoikoaren ta sandaren miserikordia, lagundus jendeak ere laudatzen &. Leku gartan fabrikatu ze tenplo bat sandaren honratan, eta sandaren Aitak Hunbinok egin zio bere ondasunen donazio, eta sandak anitz milagro. Andik gero errelikien parte bentzait aldatu omen ze berze lekuetara, eta guzietan itentu milagroak. Agitu omen ze martirio gau 670 urtean &.

Azaroaren 13.an, Homobono Merkatari. p. 319.

Azaroaren 16.an

San Edmundo Arzobispo Kantuariense

1. S. Edmundo izan ze Inglesa, buratso onen hume ona. Ain onak zire aiek, ezi hume gau izanas geros, elkarren konformidadez Aita egin ze erreljioso konbentu batean: Ama gelditu ze etxean bizitzen erreljiosa bekala, ta azitzen sanduki semea. Konsejatzan zio etzezala beñere ofendi Jangoikoaren Majestadea: mortifika zezala gorputza barus ta penitenzias: eta manten zeuela betiro birjin, mustatu gabe luxurian. Kostunbratu zue barutzeraz orzilareetan ogi ta ur solles: ori, oraño zelarik mutiko. Biali zue-laik estudiatzera, beldurrak kutsa zeien lagun gaixtoeki, bere goraintzi ta conseju ones landara bialtzen zitio tresena ta txurigendearan erlean zilizioak ere, usa zeien; ta ez lazatu. Ain ongi artu zitue Ama onaren consejuak, ezi bizi guzia guardatu zue garbi deshonestidadetik, eta Ama Birjinai egin zio boto guardatzeko, artzen zuela ortako Abogada ta Patrona: eta beraren amorez logratzeko, inarazi zue erastun bat inguruan eskulpi-turik abemaria, mostratu naiez bekala bera bakarrik nai zuela bere esposa: Erastun gau paratu zio Ama birjinaren imajinari erian: eta diote ezi sandua il ondoan bere erian aurkitu zela erastun gura bera, eta ezin atra ziotela niolatero ez mañaz ta ez indarrez, alik eta eskatus humilki nai bazue zeditu, utzi zuen eritik, obratzeko arreaki milagroak abasto. (Berze gauza bat ere kontatzen dute sandu gontas gastezutuan, ezi zeudelaik lagun banoak zelebrazten nork bere ikusgarri edo presenta beren onetsiek emanak, sanduak erran zuela, deus eztute balio zuen onetsiek enearan aldean, ta ez present tiozen guziek niri eman didanaran aldean. Au dio sanduak espirtualkiro, baña aiek entendatus beren gogoaren gisara porfiatzen ziote erakutsi zezotela ikusgarri eman ziona. Eskapatu ze sandua elizara, ta paraturik Ama birjinaren imajina baten atzinean zegokio eskatzen barka zezola mintzatu gisa gartan. Agertu zekio bisionean Birjina soberana, ta erran zio, eztakizula urrikitu errana, ezi onesten banauzu ni, zuk irabaziko duzu abantalla onetsien erlean. Tori ene amorearen seña gau. Eman zio kajatto bat agitz eder prezioso. Zoraturik kontentus zoeie etxerat: baña lagunek arrapaturik ertxitzen zute ikusi bear zutela zion ikusgarria. Atrarazirik, ta idikirik kaja, ikusi zute ta edatu kasulla bat mea miragarria. Batzuek diote au S. Tomases Kantuarikoas Spec. m. t. Maria. ex. 45)



2. Bear izan zue alako Patrona onetsiaren anparoa ez mantxatzeko luxuriaren lekedan, zeren ezi nola baize iduri ederretakoa, fuerteki tenta zute; baña erresistitus fuerteago despeitu zitue ordu gaixtoan: eta mantenu zio bere fedea Ama Birjinai. Parisen ederki estudiaturik egin zute Maestru, ta erakutsi zue anitz urtes, bateo letrak eta birtuteak: eta bere Diszipuloetaik anitz atra zire jakintsu eta sandu. Eta Jangoikoa asi ze mostratzen beraren santidadea milagroeki ere. Alako argi bat etzeike altxatu: eta informaturik Aita Sanduak manatu zio predikatzea gurutzada Franzian: Predikatu zue akonpañatus prodijios. Bitarteo Inghaterran Kantuariako Arzobispado prinzipala gelditu ze bakante: Aita sanduak Gregorio IX.ak manatu zue billa zeuela erreinuan zen gizonik dignoena dignidade gartako. Guziak konformatu zire ori zela S. Edmundo: baize nola iruzki bat izarren ertean. Ezin berzeas errenditu ze obeditus Aita Sanduari artzeko dignidade gura. Etze orgatik goratu bere gogoan, bai birtutean, bizitus bere ta berzeendako. Noranai zoeien, diote sandu gontas apaltzen zela aditzera konfesioak, nor nai zen konfesatu, naiz zela pobre miserableena: sokorritzen beartsuak, bisitazen ta erregalaten heriak, erremediätzen donzellak dotatus bere kostus, obratzen gauza on guziak. Ezin sufritu zute ainberzeo argitasuna begi gaixtoek; eta ala estimatu ta onetsi bearrean persegitzen zute: naiz berak pagatzen zituen gaizkiak onkieki, etze protxurik aieki. Determinatu zue atratzea Inghaterratik Franzia. Ortako aparezitu zekio S. Tomas ango Arzobispo izana lenago ta desterratu, ta animatu zue egiteko biaje gura. S. Edmundo nai zio apatu oña S. Tomasi; onek erretiratu zue: ta erran zio etzeiela trista orgatik, ezi andiki guti admitituko zuela bere besarkan, adiarazi naiez fite joanen zela mundugontaik. Franzian errezibiturik sandu bekala Pontiniako deitzen zen monasterioan heritu ze. Atra zute berze monasterio batera, penaturik uzteas lenbiziko monasteriokoak, zeñei erran zioite itzuliko zela aien etxera S. Edmundo Martiren eguneko. Berze monasterioan amentaturik gaitza, errezibiturik sakramentuak sandu bekala iltze sosegu andian. Eraman zute bere gorputza lenbiziko monasterio gartara, nora ellegatu zen S. Edmundo Martiren egunean, kunplitus ala itz emana. An depositatu zute honratuki, ta Jangoikoa honratu zue anitz milagroeki, espezialki bere erian aurkitu zen erastun garreki. Iltze 1246 urtean: kanonizatu zue Inozentzio IV.ak.

Azaroaren 17.an

San Azisklo ta Santa Biktoría Martirak

1. Azisklo ta Biktoría anaiarrebak il zire Martir glorioso Cordoban. Pregonarazi zue an Dion Juezak, ezi an ziren Kristio guziek sakrifika zezatela arren Jangoikoei, edo il bear zirela. Etzute obeditu bi anaiarrega gebek, ta orgatik preso eginik eraman zuzte arren presenziara; Juezak erran zioite, zarate zuek mespreziatzen zutenak gure Jangoikoak, ta nai eztuzenak in dakioten sakrifizio? Errespondatu zio Azisklok sereno, guk zerbitzatzen, ta agur egiten diogu Jesu Kristori, baita Jangoiko egiaskoa, ez arriei, zur, ta metaleei, ta Demonioei. Juezak, eta badakizu zer sententzia duten eztutenek sakrifikatzen? Errespondatu zio, eta orrek, Dion, badaki zer penak daukien prestaturik Jesu Kristok berorren, ta alako manazaleen? Suturik arrek itz ebeki erran zue anitz blasfemia Kristoren kontra: baña deteniturik guti bat, iduriturik aisago engañatuko zuela Biktoría, baize emastekia, asi zekio amoltsu anitz loxentxueki, lastima zeuela bere buruas; sinetsi zezola Aitari bekala; nai zuela ain ongi nola balitz bere alaba: itzuli zeuela berebaitan, adora zezkiela aien Jangoikoak; orreki libratuko zela tormentuetaik, berari inen ziola plazer, ta logratuko zuela tormentuen partez anitz konbenientzia & Etze batere mogitu arren erranes Biktoría, baizik koraje andi bateki errespondatu zio, mertxede andiango inen dida emateas tion tormentuak, ezi ene on guzia da Jesu Kristo, zeñen baitan baitaukat konfianza guzia, ta beraren amarez iltzea da gananzia. Banoan dabila errendiarazi naiez ene biotza Jaunari eman diotena.

2. Berze asko arrazio ta itzketa pasaturik elkarren ertean, ikusi zuelaik Dionez etzuzkela garaitu biotz gaiek, manatu zue azotatzeko Azisklo baraeiki, ta Biktoría tormentatzeko oñetan: gero biak ertxitzeko kalabozo ilun batean. Egin ze ala. Zeude biak an, triste ez, baizik kontent alegre, nola baleude paraiso batean, oroitus pasatzen zutela Jaunaren honragatik, ta animatus elkar. Jautsi zire laur Aingiru, ta ekarri zioite sustentu, eta indartu ta animatu zuzte miragarriro. Berze egunean etsiturik etzuzkela ekarri bere opinionera, nai izan zue akabarazi beingoas. Loturik lepoetaik arri andi batzuk botarazi zitue Guadalquivir deitzen den ugalde andi gartan ito zeizen an. Baña zer dezake gizonak Jangoikoak nai duenaren kontra? Elementu guziek in bear dute berak nai duena. Uren gañean zeude nola peñasko suelo baten gañean firme, ez ondatu ta ez buzti gabe, laudatus ta bedekatus Jangoikoa gozoro; eta lañu argi eder gañean paratu



zen batean logratu zute ikustea, ez solamente Aingiruak; baitare Aingiruen Jaun errege soberanoa, jautsi zena konsolatzera, ta animatzera. Baña Dionek ikusirik ezin ito zituela, nai zuen bekala, determinatu zue ilaraztea espazioreki. Ortako inarazi zitue errueda gisa batzuk, aietan lotu sanduak, ta pean itxeki su bizkor bat, eta ibiltzeareki erruedak inguraka, zoezin erres ta pizpildus, edo buruak lilura zeizen. O zenbat ingenio maliziarren! baña zer dezake Jangoikoaren anparoan dagonaren kontra? Zego Dion beira sua zeriola begietaik errabias, manatzen erru tormenta zezkitela kupidarik gabe: zeude berdugoak kruel ibiltzen erruedak, ta zirikatzen sua: eta sanduak nola baleude goatze beratxetan sosegu ta seguridade guziareki enkomendatzen Jangoikoai: Jangoikoa zego beira, eta momentuan saltarazi zue sua, ta erre asko jentil an zeudenak lamentatzen iskitutus erresumiñagatik: eta sanduak kantus laudatzen Jangoikoa. Ori guzioi Juezak uste zue sorgindaria zela: eta itsuturik bere malizias etzue ezaundu nai, Jangoikoaganik zela on guzia, eta Deabruaganik berak iten zuen gaizkia. Enfadaturik desengañu ematen ziotenes, eznai aditu egia, kenarazi zue andik Azisklo; eta Biktoriari ebaki bularrak, eta etze odolik atra, baizik esne, Jaunaren gloriatan. Gero kartzelera eraman zute, non zegon anaia; eta zenbait emasteki mogiturik lastimas joan zekizkio bisitatzeran, ta ematera zerbait alibio ta erregalo: baña sandak pagatu zioten emanen ezaumentu egietafedearen; eta aietaik zazpi konbertitu zire. Biramonean presentaturik berriro Dionen alzinean, ain zeude ausart nola len, ta erraten zitiote egiak; baña arrek ez aitu nai: Sanduek ez ixildu nai, espezialki S. Biktoria, zeñi ebakiarazi zue mia: baña mirik gabe ain klaro mintzatzen ze laudatus Jangoikoa, ta graziak emanen bere faborengatik. Azkenean au ilarazi zue saetaeki josis, eta Azisklo ezpatareki plaza publikoan. Aditu zire bozak zerutik ziotela, Atozte enegana ene sanduak, erre-zibitzera koronak prebeniturik daudenak zuendako ain ongi peleatu baitu ze. Agitu ze martirio gau 303 urtean. Gorputz sanduak artu zitue gauaz Andre prinzipale batek deitzen zenak Minziana. Eta Cordobako Patrono dire bi anai arreba gebek, zenen tenploa profanatuagatik Godoen errege Ajila kastigatu zue Jangoikoak ilarazis bere seme bat, ta troparen prinzipalenak, ta andik guti bera &.

Azaroaren 19.an Santa Isabel Ungriakoa

1. Estado guzietaik atra diren sanduek diote daikela salbatu edozein estadotan. S. Isabel Ungriako erregeren alaba, donzellaen, ezkonduen, ta alargunen exenplu, bizitu zelaik donzella, ezkondu, ta alargun. Borz urtean joaten ze afiziones elizara, non egoten zen ain zebaturik orazioan, ezi nekez zezakete apartarazi. Ama birjinaren debota ze extremoki, ta S. Juan Ebanjelariaren, eta enkomendatzen zioten bere kastidada. Diru izan al zuzken guziak ematen zitue andre pobreei, ta enkargatzen zioten erratea Abe Maria. Galaen etsai, ta murmurazioen: itz guti atratzen zue, ta ongi neurrituak: Lanaren adiskide, ta on guziaren, honratua orgatik guzienganik, ta bere buratsoen maite. Ezkonarazi zute Turinjiako Duke Lantzgrabioreki, zeñen konpañian bizitu zen konformidade, humiltasun, ta birtute guzien exenplu ematen, irur hume izan zuztenak azitzen sanduki: ta bitarteo kuidatzen kontinuo komunikatzeas Jangoikoareki orazioan, ta ofizio sanduetan, eta sokorritzeas pobreei al zuen guzian, ta bazuke anitz, zeren senarrak nai zuen on beroi. Jaikitzen ze gauaz orazio egitera deboziosko negarreki: Prozesio ta rogatiba publikoetan joaten ze oin urtuxian: Elizara atratzen zelaik erdiondorean bestiturik humil bere besotan zerama aurra, ta ofrezitzen zue Jangoikoai, eta bateo bere ofrenda sazerdoteai: eta egun gartan bestitzen zue pobre bat, ta partitzen bazkaria. Aur bataiatu berriak bestitzen zitue; orzitzeko pobreak, iten zioten mortajak: aitzen ze errokan ta esku lanetan bere donzellaeki, izateko iago zer eman pobreei: eta etzuelaik, saltzen zitue bere joiak ere: Palaziora urbil zue sala bat, nora biltzen zituen peregrinoak, kuratzen heriak, ta azitzen hume desanparatuak. Egunoro bedratzitan eun pobreei ematen omen zioten bazkaria, gañarako limosnes landara bere Estado guzian, non guziek deitzen zuten Ama ta erremediazalea. Herieki egiten zuena ze agitz arrigarri alako señoran, bere eskus garbitus, kuratus & Bazekie gaizki iduri zekiotela munduko Jaundiei; baña berak etzue ajolarik, baizik ongi iduritzeas Jangoikoai: Abisatu zute Dukea ere, ta konsejatu, etzezola permiti alakorik: baña Dukeak ezaundurik bere esposaren ona onesten zue, ta usten zue in zezan karidade goietaik beraren partez ere, baizebila okupaturik enperadorearen itekoetan.

2. Iltzekio senarra gerrara Joatean leku sanduetara. Sentitu zue, natural baita, baña konformatu ze, baita Jangoikoaren grazia. Libre ia Matri-



monioaren legetik eman ze iago Jangoikoaren gauzetara, iago orazio, iago baru ta penitentzia, iago humillazio, iago miserikordia ta limosna: ze manera ezi senar izanaren aideek kendu ziote ondasunen administrazioa, guzia akabatzen zuela, ta bota zute etxetik; eta bear izan zue erretiratu estrabile gisa batera: an ere etzutelaik utzi nai asko denboras, paratu ze alokatu rik gizon baten etxean bere neskatoeki: baña Jabearen kondizio gaixtos andik ere atrarazi zute, ta alojitu berze etxe batean. Ainberzetara ellegatu ze desanparoa ta desprezioa, ezi opaturik karrikan atso batek loi andi bat zen lekuan, etzela apartatuko guti bat, bulkatus bota zue loiera. Eta nor, ta nork? miserable batek, zeñi egin zion anitz limosna. Proguta-ko zela pensaturik jaiki ze loietik irrikos, deseatus beretako iago trabaju, eta anitz ondasun arren ta berzeendako. Nork kontu gañarako trabaju, desanparo, tratamentu gaixto, eskarnio, persekuzio, ta alako pasatu zitue- nak? Nork explika pazienza sereno sendo gura? Ez pazienza solamente, baizik koraje, alegria, ta iago ta iago naia? Nor ala? errege baten alaba mai- tea, eta Dukesa andia izana. Nor ala? Pobre guzien Ama deitua, erre- mediatzen zituena millaka. Alaere ainberze persegizale? Ain guti fabore? Alaere ainberze pazienza, arimo, ta alegria? Auxe baita sanda izatea: len ain abrats honratua; gero ain pobre despreziatua! len ain billatua, akon- pañatua, ta zerbitzatua: gero ain desetxatua, ta desanparatua! len ta gero berak guziei ongi egiten, eta berai ordaña esker gaitzes itzultzen! Alaere ez inkietatzen! Alaere kontent alegre gogoan! Nola au? Zeren baizue lagun akonpañazale Jesu Kristo, ta oneki sollik kontentatzen baize. Gari- zuman egun batez meza enzun ondoan agertu zekio Jaun dibinoa konso- latus, animatus, ta ofrezitus berareki egonen zela betiro.

3. Bere Aita errege Ungriakoak jakinik bere alabaren tragedia gura manatu zue hume izanak azi zeizen aideen etxeetan, eta alargunari ema- teko bere alimentuak: konbidatu ere zue bere palazio ta konpañiara: baña ain zebaturik zego pobre bizitzean, ta pobreei zerbitzatzean, ezi bere eman ziotenetik alimentutako, egin zue hospitale bat, non erretiraturik biltzen zituen heri pobreak, ta zerbitzatzen ta kuratzen bere eskus tiño- soak, leprosoak, zorris ta zikintasunes beteak kariño guziareki, nola balitz aien Ama ona, edo nola balire aiek Kristo bera. Bitarteo mundukoak oka- tzen zirelaik arren bizimoduas, etze dediñatzen gloriako Errege Jesu Kris- to, agertus amoroso, erregalatus, faboratus, milla maneras egines ongi, milagroak ere, ez solamente berari, bai berzeei ere beraren atenzios, ez gorputzen solamente, bai ta arimen onerako ere. Ikusi zue bein gaste bat buru arin bano utsa: galdegin zio, nauzu in dezaten zuregatik orazio Jan- goikoai? Bai andrea, errespondatu zio, egin bez, nai dut gogotik ere. Egin

zagun bada biek, erran zue sandak: eta paraturik belauriko, andik guti asi ze mutil gura klamatzen, aski da, andrea: utzi bez. Sandak alaere segi bere orazioan: ark oi, andrea, otoi, ez segi iago, ezi erretzen naiz; ta goratzen zitue besoak, ta zoraturik bekala ezin sufritus. Eta errealki tresenak ere ain bero zeuzkie barneko suas, ezi etzeizke ukitu ere kasi. Ala aldatu ze de manera ezi ia gerostik eman ze onera. Berze bana bati ebaki zio biloa bor- txaz bekala; arrek agrabiatu-bearrean erran zio, andrea, Jangoikoak inspi- ratu dio egitea egin duena nereki, ezi banidade gonengatik ezpaze, aspal- dian errelijiosa izanen nitza. Sandak gelditu zue bereki, ta ura kontent bizitu ze sandareki. Ellegatus plazioa despeitzeko mundutik, abisatu zue Kristo gure Jaunak: alegratu ze sanda guzis: armatu ze Elizako Sakra- mentueki: exortatu zitue guziak amatzera Jangoikoa, ta egitera ongi pobrettoei: eta azken atsetan agertu zekion etsai infernukoari erran zio animosa, aparta adi emendik desdixatua, guaie emendik madarikatua: ta enkomentatus Jangoikoai entregatu zio bere arima zori onekoa 1231 urtean: eta arren gloria istante mostratu ze gorputzaren eder miragarri paratzean, ta atxon zeruko gozo bateki. Andik laur urte milagroen podo- rez kanonizatu zue Gregorio IX.ak ta Eliza guziak honratzen du &.



Azaroaren 22.an Santa Zezilia Birjin ta Martir

1. S. Zezilia gloriosa Romana izan ze jendaki agitz noble, ta ilustretik: eta bere entendamentu andiareki Jangoikoaren argis ezaundurik egie tafedea goizik eman ze Jangoikoai, de manera ezi gau ta egun zego pen-satzen nola onetsi ta zerbitzatuko zuen iago ta iago bere Majestadea. Ortako beti zerama bereki ebanjelioen librua, ta leitzen zue maiz, ala biz-kortus ta edertus arima, ta mortifikatus gorputza, izateko Kristoren kon-forme albas. Bere orazio kontinokoa ze, *Jauna, guarda bez garbi mantxarik gabe ene biotza ta gorputza, ez nadien izan konfunditua*. Buratsoek, berak nai etzuela, desposatu zute bere gisako Jaun andi bateki, zein deitzen baize Baleriano: Prebenitzen zire bodak ponpa guziareki: eta sanda prebenitzen ze zilizios, barus, orazios, ta negarrez Jesu Kristori eskatus, etzezan per-miti mantxa zedien niolaterre bera konsagratu zena beraren esposatako, naiz indigna. Enkomendatzen ere ze Aingiruei, ta espezialki bere guar-diaikoai, eta guzien gañetik Ama Konfianza andia paratu zekio, logratuko zuela. Ellegaturik boda eguna, guziak zeudelaik alegre, Zezilia zego kui-dadotan, eta erresolbiturik galtzeko bizia lenago ezi birjinidadea. Bere garaian aurkitu zelarik bakarrik bere esposo deituareki ganbaran, errebes-titurik Jangoikoaren espirituas mintzatu zio grabe ta modesta manera gontan, ene esposo Jauna Baleriano, badut sekreto bat errateko zuri, barin badakizu guardatzen. Baleriano juramentuareki ofrezitu zio guardatzea. Orduan sandak, bada bear duzu jakin dutela nik ene konpañian Jangoi-koaren Aingiru bat ene amazalea, guardatzen nauena zelo andiareki. Guarda zaite beras ellegatzetik enegana, ezi kenduko lizuke bizia istan-tean: baña onesten banauzu honesto ta garbiki nola anaiak arrega, one-tsiko zaitu zu ni bekala, ta inentizu faboreak zuri nola niri. Turditu ze Baleriano aditus alako itzak; eta bere kuidadoareki erran zio, ene esposa, nai bauzu sinetsi dezaten nik diozun goi, ikusiarazi zadazu Aingiru dio-zuna: ezperen, pensatuko dut zaudela afizionaturik berze gizonen bati, eta ain gaitzat artuko dut, ezi arri ta zuri kenduko diziet bizia. Sandak erran zio, ez pensa alakorik, Baleriano, ezi nik eztut sekulan izan, ta ez izanen afizionerik lurreko gizonari, bai sollik gloriako errege den Jesu Kristori, Jangoiko ta gizon egiasakoari, zeñi nagon konsagratua ni, ta zeñek daukan ene guardian bere Aingiru eder bat; baña ikustekos au, da preziso ar deza-zun Kristoren fedea, ta bataioko sakramentua. Baleriano, ofrezitzen

badidazu ikustea diozun Aingiru goi, ni kristiatuko naiz: baña nork era-kutsiko dida Kristoren doktrina, ta emanen bataioa? Orduan sandak biali zue S. Urbanogana, zein baizego altxaturik ziudadetik apart, ta eman zio señalea, aurkitzeko. Aurkitu ondoan kontatu zio pasatu zekiona Zezilia-reki. Aita sanduak informatu zue fedean: eta goratus eskuak eta begiak zerurat erran zue, o Jaun guzis glorioso, konseju kastoen emanzalea, logra beitez Zezilian eraikituen azi onen fruituak, ezi bere esposo gau artu duena nola leon baliente, bialtzen du onara nola axuri bat mansoa, erre-zibitzera berorren legea. Bada argi bezo arima, ezaun dezan orren Majes-tadea, ta ama dezan guzien gañetik. Bereala agertu ze an gizon-iduri bene-rable bat, zekarrana eskuan libru bat eskribiturik urresko letraeki. Lotsa-rriturik Baleriano erori ze lurrean: goratu zue S. Urbanok, ta manatu zio leitzeko letra gaietan ziona, baize, bat dela Jangoiko egiaskoa: bat fedea, ta bat bataioa. Erranik Baleriano sinesten zuela on guzio; gañarakoa era-kutsirik S. Urbanok, ta bataiatu, itzuli ze alegre ezin iagos S. Zeziliaga-na.

2. Sarturik ganbaran aurkitu zue sanda orazioan, eta Aingirua alda-kan gaste eder baten idurian argi-errañues inguraturik. Admirazios ta gozos beterik zegokio beira, ta erreparatuzue zeuzkiela eskuan bi giral-da arrosa ta azuzena zeruko txoil ederrak. Aingiruak eskindu zio bera-ri bata, berzea S. Zeziliar, ebek dire lore biltzen direnak zeruko paraisoan, zein bialitizien Jesu Kristok bieri maiata zaizten elkar emendik alzina amore kasto garbiareki: baña ezin ikusi dezakete baizik amaten dutenek kastidadea zuek bekala. Eta zerengatik zuk, Baleriano, sinetsituzun zeure esposaren erranak, biali nau Jangoikoak erratera zuri, maite zaituela, ta edozein grazia eska dezozun, inen dizula. Gelditu ze Baleriano txoil agra-deziturik, ta auspeska kurturik erran zue, Anaia bat dut deitua Tiburzio, maite dudana neure bizia bekala, nai nuke ikusi kristiatu, ta partizipante niri in zaidan graziaren. Aingiruak seguratu zue kunplutuko zekiola bere deseio goi, Tiburzio inen zela Kristio, eta biok laster Martir glorioso. Andik guti ellegatu ze an Tiburzio anaia, sentiturik loreen fragranzia gozoago ezi daiken izan munduan, eta ori, etzelaik lore denbora, suspen-so admiraturik galdegin zue kausa. Emendik artu zute eskaida, erakuste-ko, nola Jentilen legea zen banidade, engañu, ta perdizio: Kristoren erre-lijionea zela bakar egiaskoa. Progutun kontatu zioite agitua. Konbenzitu-rik ura urtiki ze S. Zeziliaren oñetan, mana zezola zer in bear zuen. San-daren konsejus joan zire bi anaiak S. Urbanoren billa, ta bataiatu ze arren eskus: eta Jangoikoak armatu zitue biak bere espirituas ta grazias alako maneran, ezi ia etzute nai baizik eman beren bizia ta odola Kristoren



amorez; eta emanik beren ondasunak pobreei enpleatzen zire orzitzen Kristo ilen gorputzak; eta errealki pasatu zuzte animoso tormentuak ta martirioa, ta aien exenpluareki berze anitzek: guzien kausa lenbizikoa izan ze S. Zezilia, zeintas baitio Elizak zebilala nola erle eskojitua ematen Jau-nari bere gustoko ezti gozoa.

3. Aiek il ondoan Almakio Juezak aien ondasunen goseak preso in-razi zue sanda, engañatu zituena arren ustez bere esposoa ta goñatua, bide zekiela non ziren aien ondasunak. Ebetas galdeginik errespondatu zue ausartki, ia seguraturik zeudela Jangoikoaren eskuan bialirik pobreen eskus zerura. Errabioso Juezak erran zio, ezpauzu nai galdu bereala bizia emen, Zezilia, sakrifika gure Jangoikoei. Etzio kasorik egin sandak. Ark segi meatxatzen: sandak ofrezitzen bere burua edozein tormentuetara: Juezak manatu zue eraman zezatela tenplo batera, non ofra zezan sakrifi-zio, edo bizia kentzezoten. Ministroek eraman zute, ta beiratus donzella bat ain noblea, ain honesta, ain ona, ain eder agraziatua guzis, ta bere adi-naren lorean, lastimaturik sinez zegozkio errogatzen etzeiela utzi galtzera superstizione bano batengatik, in zezala manatzen ziotena gozatzeko bere edertasun, nobleza, ondasun, ta gauza zituenak abasto. Sandak serena errespondatu zio te amoltsuki, ez pensa, ene Jaunak ta anaiak, ez dezatela pensa iltzea ni Jesu Kristoren amorez dela kalte enetako, baizik irabazi andia: ezi konfiaturik nago ene Jaunaren onean, eta zierto, oraiko bizi labur miserable gonon truk emanen didala bizi glorioso zori oneko eter-no bat bere an goitiko palazio gartan, koronatus erregina bat bekala. Etzaiote iduri arrazio, ematea gauza bat guti balio duena balio duenagatik infinito? trukatzera emengo miseriak ango miragarriengatik? Zergatik eztute nai pasa dezaten nik eriotzea, ta tormentu, dena dela, ain laster pasatzen dena, bada eben medios bear dut joan ene esposo Jaunaren pala-ziora gozatzera ditxa guziak? Estimaten dut oien borondatea; baña ez dezaket egin ene Jaun onaren kontra, ta neure kontra. Bere Majestadeak faboratuko nau.

4. Ain egiaz heritu zuzte sandaren itzek aien biotzak, ezi bereala asi zire guziak klamatzen, sinesten zutela Jesu Kristo dela Jangoiko egiaskoa: eta libre gelditurik sandak eraman zitue bere etxera, eta deiturik sekreto-an S. Urbano, emanik notizia fedearen prinzipalenes, bataiatu zitue aiek ta berze anitz, iago ezi laur eun, eta aien er-tean Gordiano Jaundi prinzipale bat. Jakin zuelaik Almakiok pasatzen zena, iras suturik, ta akar anitz egi-nik sarrarazi zue sanda bañu idor batean, su emanik petik, sofoka zeien an bapore bero garreki. Baña gau ta egun batez ososoa guardatu zue an Jangoikoak, nola balego paraiso, edo erregalotako leku batean. Ori jakinik

Almakiok manatu zue ebakitzeko burua an berean: Heritu zue berdugo-ak irur aldis, ta ezin ebaki zio: eta debotoek biltzen zute zerion odola esponja ta oialeki errelikiatako. Bizitu ze oraño irur egunez predikatus bisitatzen zutenei: Bisitatu zue S. Urbanok ere, zeñi erran zio sandak, eskatu ziola Jangoikoai luzatzea bizia irur egun iago, entregatzeko berari bere hazienda, erreparti zezan pobreei, ta konsagra zezan bere etxe gura Elizatako. Guzia egin ze, manatu bekala: eta sanda gloriosa irur egunen buruan despeitu ze mundugontaik zerura errezibitzera birjin ta martiren koronak, ain ongi mereji zituenak. Agitu ze martirio gau 232 urtean, Ale-xandro Sebero enperadore zenean. Urbano Aita Sanduak orzitzue gor-putz sandua dezenteki: gero Paskual Aita Sanduak aurkitu &.



Azaroaren 23.an

San Klemente Papa eta Martir

1. S. Klemente Romatar agitz noble, ta enperadore Domizianoren aize izana fortunosoago izan ze ezaunduagatik Jesu Kristoren fedea, ta izanagatik S. Pablaren Diszipulo ta lagun, zeñetas eskribitu zioten Apostoluak Filipotarrei, ni eta Klemente, ta gañarako lagunzaleak eneki trabajaten dutenak ebanjelioan, zeñen izenak baitaude asentaturik biziaren libruan. Gero Apostoluen Prinzipe S. Pedrok artu zue bere laguntako, eta bere ondoreko nonbratu zue Aita sandu, ta Kristoren Bikario lurrean: baña S. Klemente humil izanez, pensatus etzela digno, etze jarri S. Pedoren katedran, etzela ere konbeni uztea dignidade gura, ta Elizako berzeak herenzias bekala, baizik eleji zeizen digno zirenak merejimentuz: eta ala egin ze S. Pedoren atzetik S. Lino, gero S. Kleto, ta laurgarrena S. Klemente gau, gobernatzeko Kristoren familia, Kristiogendea. Len lenik predikatze exenplueki, eskribiarazi zitue Martir Kristioek egin ta pasatu zutena, eta Jangoikoaren miragarriak aieki. Gero manatu zue bataiatuak errezebitzeko konfirmazioaren sakramentua, konfirmatzeko fedean. Gero mias ere predikatzen zue Jangoikoaren itza ainberze graziareki, ezi anitz zoezi konbertitus federa, berze anitz bizimodu perfektora, emanez beren haziendak, mantenitus birjinidadean, nola mantenitu zen S. Klemente, nola konsagratu zuen enperadorearen elleba Domitilla: ta ala joan ze aumentatus Kristiandadea. Baña Demonioak zue inbidia, eta sapite: orgatik inspiratu ziote bere ministroei ematea Klementeren kontra.

2. Akusatu zute Mamertinoren presenzian, zein baize gizon prudente humanoa. Deiturik beregana tratatu zue ongi, eta itz ones exortatzen zue adoratzera Erromako Jangoikoak, ta ez paratzeko erreljione berririk. Sanduak errespondatu zio egia grabe ta sendoki. Mamertinok ikusirik ziu-dadea partiturik, batzuk Klementeren kontra, fabore berze batzuk, eman zio kontu enperadoreai, baize Trajano. Manatu zue onek, edo adora zekiela aien Jangoikoak, edo zoeiela desterraturik Ponto Euxinora. Emen izan ze pleitu gisa bat: Mamertinok nai zuela ekarrarazi Zemente aien legera, ta Klementek nai zuela konbertitu Mamertino Kristoren federa, adiarazis desterrua Kristoren amarez zela gustoso. Mamertinok lastimas egin zue negar, ta prestarazi zue itsasonzia bear zuen guziareki: ta erran zio despeidan, zuk adoratzen duzun Jangoikoak fabora dezazula beragatik pasatzen duzun trabaju gontan. Segitu zute anitzek borondatez beren

Artzai ona; eta ellegaturik aurkitu zitue bi milla Kristio desterratuak sentenziaturik ebakitzera ta eramatera marmol arriak. Konsolatu zitue ederki kontatzen zela fortunoso etorriaz aien konpañiara, izateko aien koronaen partizipante. Berze trabajuen gañetik an zutena ze egarria ur-faltaz, bear baizute joan eske bi lekoa bide urrun, ta ekarri soñetan. Urrikaritu ze Klemente, ta in zue ta inarazi zue orazio gure Jaun Jesu Kristori, ager zezoten iturriren bat. Orazioa bukaturik ikusi zue sanduak aldapa batean axuri bat besoa goraturik mostratzen zuela iturrama. Etzue berze niork ere ikusi, sanduak ezi, ta entendatu zue axuria zela Jesus ona. Joan ze lekur Kristioeki, ta altzurreki: Emen idika ze Aitaren ta Semaren ta Espiritu Sanduaren izenean. Andik eta emendik asi zire zulatzen: eta sanduak berak aizurra arturik golpe bat eman zueneko, saltatu ze uraldi bat klaro, garbi, ta ain abasto, ezi bereala egin ze ugalde. Famatu ze milagroa leku gaiek barna, ta zoezi bandaka ikustera ugalde milagroskoa, eta S. Klemente, zeñen medios konbertitu ze anitz jende, ta egin zire irur ogei ta amaborz eliza Kristoren; urraturik Jangoiko falsuen tenplo ta idoloak. Gisaontan zoeie aumentatus Kristoren erreljioea gizon sanduen medios, nola doaien txurtus orai gaixtoen kasos.

3. Jakin zuelaik enperadoreak agitua, biali zue Presidente bat, zeñek martirizatu zuen anitz Kristio; baña ikusirik zeudela guziak konstante, ta iltzen zirela alegre, obe zela kastigatu guzien burua, baize Klemente, ekarrarazi zue, ta etzuke laik errendiarazi, manatu zue eramateko itsasoan barna, ta an loturik ankora bat lepotik ondatzeko urean: etzezaten gero beneratu Kristioek. Eramatarakoan, andiak zire Kristioen klamoreak oiuz, Jauna, salba bez, libra bez. Sanduak ia ondatzera zoezilaik, erran zue, o Aita eternoa, errezibi bez ene espiritua. Ondaturik errezibitu zue martirioaren korona. Gelditu zire Kristioak itsabasterrean agitz triste ta nigarti. S. Klementeren bi Diszipulo izanek erran ziote gañarakoei, egin zagun orazio, nai baitigu Jangoikoak agertu Martir sanduaren errelikiak. Egin zute, ta bereala itsasoko urak erretiratu zire barnerat lekoa bat bide utzirik leor edo seko lurra: andik sartu zire lekuraño, ta aurkitu zute an fabrikaturik kapilla edo tenplo txipi bat, eta barnean arrisko arka bat, ta artan gorputz sandua, ta aldakan ankora gura. Eta ez solamente orduan agitu ze, baizik urteoro beraren martirio egunean erretiratzen ze itsasoa lekoa gura, ta egoten ze ala zazpi egunes, eta fielak joaten zire adoratzera, ta itzultzen zire logratu asko grazia.

4. O gure Jaunaren ona ta ongiegillea! Eta nola honratzentuen bereak, ilak ere! Nola honratzen ta erregalatzen bidetu arimak an goiti bere palazio errealean? Zer prodijioa, erretiraraztea itsasoa, honra zeza-



tengatik lurrekoek sanduaren gorputz ila? Zer obia obeago in zekiok in ziotena baño Aingiruek? Ona berze prodijio bat oraño. Urteoro zoezilaik peregrinazioan itsas-barneko tenplo gartara zazpi egun gaietan, joan ze bein Ama bat bere hume txipi bateki: an zeudelaik, lokartu zekio mutikottoa, ta utzi zue an lo erreklinaturik zokotto batean: eta eldu zela ia itsaso arapatzera guzia aditurik, prisaka atra ze basterrerat berzeeki, atzendurik mutikoas: oroitu zelaik ia berant, guzia estalirik ures, an zire arren aiotsak, lamentuak, eta negarrak erremediorik gabe. Ito bide zela suponiturik zebila baster gaiek barna, ia botako zuen gorputztoa urak arat, orzitzeko berere: ia etsiturik arras itzuli ze etxerat uts. Urbilen urtean alaere segitu zue bere debozioan, naiz etzekion joan ongi urte pasatuan. Sartu ze tenplo gartan: adoratu zue sanduaren errelikia; ta beiraturik zoko gartara, non utzi zuen bere mutikoa, ara non ikusten duen utzi bekala lo: zoraturik kontentus doaie, artzen du besotan, ematen dio anitz apa; nola egon zara, ene humea, emen urte guzian? Ni, errespondatu zio mutikoak, lo egon naiz, eztakit urterik pasatu den, edo egunik. Esker milla eman, ta laudario milla Jangoikoi ta sanduai arrek eta guziek: itzuli zire nor bere lekuetara. Gero Aita Sandu S. Nikolao lenbizikoak eginarazi zue tenplo bat S. Klementeren honratan leku gartan, non sortu zen iturri gura. (Asi ze Papa 858 urtean) Eta beraren denboran Zirilo gizon sandu batek eraman omen zue S. Klementeren gorputza Romara, non kolokatu zen solemneki egin zekion tenplo batean. Onen martirioa agitu omen ze Kristoren eun ta bigarren urtean. Eskribitu omen zitue zenbait obra on, argitzeko eliza sanda doktrinaren argiareki, ez solamente exenplu ta milagroeki.

Azaroaren 23.an edo Abenduaren 6.an S. Pedro Paskasio M. p. 321.

Azaroaren 25.an Santa Katalina Birjin ta Martir Alexandriakoa

1. S. Katalina Birjin ta Martir gloriosa jaio ze Ejiptoko Alexandrian jendaki errealetik, ederra guziz gorputzean, ederrago ariman, adornatzen zuela bere edertasuna honestidade garbiak, ta modestia perfektoak: eta guzien zimendu, edo koronatako entendamentu andiak, ta xakintasun admiragarriak Retorikan, filosofian, ta arte liberaletan, ezpaizue bere parerik. Ala Jangoikoaren graziareki bateo ellegatu ze ezauntzera Jentilen engañoa ta erroreak, eta eztaikela izan baizik Jangoiko bat bizi ta egjaskoa, zenen gana antsaturik eskatzen zio erakutsi zezon zuzenbidea. Ekilino Obispoak kontatzen du, ezi bataiatu baño len izan zuela amets edo bisio-ne gisa gau; aparezitu zekiola Ama Birjina bere seme Jesus aur dibinoareki besotan; Amak semeari ofrezitzen ziola Katalina; eta semeak desetzatzen zuela bere ganik, etzela donzella gura ederra beraren begietan, zeren etzegon bataiaturik. Idatzarri ta itzuli zela berebaitan, eta nola ezpaize boba, logratu naiez Jesus onaren amoreta ta grazia ona, bataiarazi zela, ta kristiatu. Gero berriro agertu zekiola Jesus nola len, eta eginen anitz erregalo, karizia, ta fabore Ama Santisimaren, Aingiruen, ta sanduen presentzian artu zuela bere esposatako, ta paratu ziola señaile erian erastun prezioso bat. Idatzarririk sandak aurkitu zuela bere erian erastuna, ta gelditu zela txoil agradeziturik eta amorosturik Jesus onas. Gañarakoa kontatzen dute Autoreek gisa ontan.

2. Zelarik orienten, edo iruzkiaren sortaldean enperadore Maximino, (asi zena 306 urtean) publikarazi zue manamendu bat, etortzeko guziak beraren presentziara ofratzera sakrifizio arren Jangoikoei biziaren penan. Emezorzi urtetan zoeielaik Katalina, xakintsu guziei zerama abantalla xakintasunean. Ikusirik bada jendeketa ainberze nola bildu zen Alexandrian ofratzera sakrifizio Jangoiko falsuei, Demonio egjaskoei, ta gizon gaixto izanei Jangoiko egjaskoaren agrabiotan; nola tenplo ta aldare guziak zeuden beterik erres sakrifikatzen zirenes, jendeak itsuturik ignoranzias, ta enperadorea beira beterik banaglorias orgatik: sanda lastimaturik perdizio gartas, eta Jangoikoaren espirituas errebestiturik joan ze tenplora, non zegon enperadorea, eta lizenzia eskaturik mintzatzeko, presentatu ze alzinean, guziak zeudelaik beira admiraturik alako edertasunas,



honestidade, modestia, ta serenidadeas, erran zio enperadoreari uts andia ta itsutasun fuertea agitzen zekiona ofratzean sakrifizio idolo banoei, ta gizon gaixto izanen iduriei, ta eramatean bere atzetik jende ignorantea, bear zuena berak desengañatu, ta zuzenbidean paratu: konbeni zekiona zela ezauntzea ta estimatzea Jangoiko bakar egiaskoa, kriatu zuena bera ta egin enperadore, ta guziok juzgatu bear gaituena, zein gu salbatzeagatik egin zen gizon, ta iltzen guruze batean, libratzeagatik gu eriotze eternotik &.

3. Gelditu ze enperadorea suspenso guti bat itzik gabe, zer erran etzekiela; guti baten buruan mintzatu ze, orai utzi gaitzazu bukatzera sakrifizioa; gero aituko gara elkar. Eramanara zizue bere palaziora, eta itzuli zelaik galdegin zio, nor zara zu? Eta zer itz dire errantuzunak an egun? Errespondatu zue donzellak serena ta kortes, nere jenerazioa ongi ezauna da ziadade gontan: deitzen naiz Katalina: enpleatu naiz estudioetan neure denboran: baña zertas duten gloria ta sendagalla da izateas Kristioa, eta kontatzeas ene esposo Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa. Emendik asi ze ematen arrazio bere fedeas ta errelijioeas alako modestia, grazia, ta mintzaera xakintsu eleganteareki, ezi enperadorea zego xoraturik beira anberze grazia, ta aditzen arrazio ematen zituenen indarra, zeñei ezaipazake berak erresponda: eta ezaundurik berea baño iagoko xakintasuna bear zela konbentzitzekos Katalina, manatu zue billatzeko, deitzeko, ta biltzeko arara bere Inperioan ziren xakintsu ta filosoforik andienak konbenzi zezaten, eta bitarteo detenitzeko bere palazioan sanda. Etze au deskuidatu enkomendatzeas Jangoikoai eman zezon grazia, defendatzeko beraren kausa.

4. Bildu zire berrogeitamar Filosofo an, eta xakin zutelaik zertara ziren deituak, alketu bekala zire, iduriturik aien deshonne zela paratzea argumentatzen emasteki bateki, ezi nai adiña entendamentu ta xakintasan izan zezan, gero ere bide zuela emastekiaren entendamentu ta xakintasu-na, ta on beroi aditzera eman ziote enperadoreai berai ere; baña alketuago zire gero, gelditu zirelaik etxakin zer erran. Presentatu zire sala andi batean, enperadorearen presenzian, berrogeitamar Filosofoak alde bate-tik, berze aldetik donzella bat emezorzi urtetakoa humil modesta begiak apal apala: an bildu ze korte guzia, an jendeketa andia, ikusteagatik ta aditzeagatik pelea gisa gura ain berri admiragarria, nola ainberze gizon eskojitu maestru famatuek bear zuten disputatu neska gaste garreki errelijio-nearen gain. Egia da, ezi orduko agertu zekio Jangoikoaren Aingirua, etzezala beldurrik izan, bere estudioen gañetik Jangoikoak emanen ziola argitasun ta mintzaera, konbentzitzeko guziak, ta ekartzeko egietafedearen

ezaumentura; eta aiek ta berze anitz konbertituko zirela, ta ilen martir, eta bera ondorean. Oneki zego sanda serena ta animosa.

5. Asi ze filosofo prinzipalena, guziek zeukatena lenbizikoa xakintasunean, asi ze mostratus begitartean ere desprezio iduri erraten, zara zu despreziazentuzuna gure Jangoikoak itz atrebitueki? errespondatu zue grabe sosegu andiareki, ni naiz iten dutena ori, baña ez itz atrebitueki; baizik arrazio egiasko seguroeki. Filosofoa asi ze probatu naiez beren Jangoiko deituen errealidadea lengo Poetek eman zitioten izen ta laudario bano gaieki: eta Kristo etzeikela izan Jangoiko, zeren guruzifikatu zuten, eta ezpaitue aipatzen filosofo ta Poetek beren libruetan. Nai adiña erran ondoan arrek, asi ze Katalina desegiten arren argumentu guziak klaroki, nola telarañak eskobareki, nola iluntasunak argiareki. Progatu zue arrazio klaroes, eztaikela izan, baizik Jangoiko bat, gauza guzien prinzipio ta fin, kriatutuena zeruak, ta lurra, ta ebetan den guzia, gobernatzen duena iruzkia argitzeko guri, denbora, ta gauza guzien goraberak: dela preziso izatea Jangoiko gau pensa daiken ta eztaiken gauzarik obena, garbiena, sanduena, faltarik ta sobrarik eztuena, ta eztukena; nola aien Jangoiko deituek, zeñetaik batzuk ziren Demonioak gaixtoak gaizkiegilleak gure galmendea nai dutenak, berze batzuk gizonki ta emasteki izanak urdeak, ordiak, asarreak, milla gaixtakeria egin ta egiten dutenak, nola kontatzen duten aien Poetaek berek, ta nolakorik eztagokion Jangoiko egiaskoari niolaterre, ezeta gizon prestu bati ere. Gure Jangoikoa on izanez, ta guri ongi egin naiez egin zela gizon deitzen dena Jesu Kristo, ta eman ziola justiziarik satisfakzio gure partez, eta libratzeagatik gu betiroko perdiziotik, bera utzi zela iltzera guruzean gure amazale salbazale fiadore ta pagadore atrarik: eta naiz etzuten aipatu aien Poeta banoek, baña aipatu zutela Profeta sanduek, ta Sibila famatuek, zein beneratzen zuzten berek ere nola emasteki argituak Espiritu sanduaganik, erran zutenak len ta lendanik klaro eder agitu zena gero Jesu Kristoreki guzia berex.

6. Filosofo gura len ain bano aundi ze ona, gelditu ze arras konbenziturik egietafedeas sandak erranas: ezaundurik Jangoikoa mintzatzen zela arren agos errenditu ze, ta konfesatu zue egia ziola, ta etzeikela deus erran kontra arraziorreki. Arritu ze enperadorea, eta manatu ziote berzeei atra zeizela kontra: baña aiek ziote desengañatu zirela artan guziak, ta etzute-la zer erreplikatu. Zela klaro, eztela baizik Jangoiko bat, zein baita Jesu Kristo, S. Katalinak konfesatzen ta adoratzen zuena, ta berek arrek konfesatzen ta adoratzen zutela. Eztaike explika enperadoreak egin zuen kolera: manatu zue bereala bereala itxekitzeko hogera andi bat, artan erretzeko berrogeitamarrak. Itxeki ze hogera, ta ikusirik aiek bota zire guziak



sandaren oñetara eskatus humil, logra zezotela Jangoikoaganik beren bekatuen barkamendua, zeudelaik ia prest gogotik errezebitzeko bataioa, al baleike. Sanda gozosa guzis, beiratus egiafedeia triunfante, eta xakintsu gaiek, len gezurrez, orai egiaz zirela jakintsu ezaundus Jesu Kristo, ta beragatik bizia eman naiez, mintzatu zekiote amorosa kariño andiareki konsolatus, animatus, ta seguratus ezi Jaun onak barkatzen ziotela, eta se gura izanen zela bataio gisa garbitzeko arimak, igateko zuzen zuzenean ikustera bere Majestadea bere glorian, non bereala aurkituko ziren koronaturik korona gloriakoas, non andik guti berak ere uste zuen aurkitu emanek elkarri zori onak, eta Jangoikoari graziak. Animaturik itz ebeki, zefiatus guruzearen señaleariki, ta inbokatus Jesu Kristo gogotik anitz aldis, bota zuzte sugarretan, non laster despeitu zuzte arimak. Gero Kristioek sekretoan joan ta aurkitu zuzte gorputzak oso mellarik gabe bilo bat ere falta etzela. Milagro goneki adiarazi zue Jangoikoak, zenbat kuadratu zekion aien sakrifizio gura, eta anitz Jentil konbertitu zire: Eta nork erran, zein kontent gloriosa gelditu zen S. Katalina? Eta nork etzue ontan guzian ezaundu bear erreljione Kristioaren egiafedeia?

7. Baña enperadorea errenditu bearrean itzuli ze furoso ta rabioso Kristoren kontra. Nailuke itzularazi sanda tontoak bere opinionera, lastimatzen zela ilarazteas donzella bat ain eder agraziatua, ta jakintsua. Asi zekio amoltsu kariño-iduri, ta promesa andieki, beraxtu naiez petxo baliente gura: beraren Aita izanen zela, ta eginen ziola bere odoreas zezaken on guzia. Baña enperadore obeagokoak Jesus onak amorostu zio lendanik bere biotz noblea, ta etzego ustekotan esposo dibinoa. Ikurisik banoan nekatzen zela, begitarte buztindurik erraten dio asarre, progarakotiola tormentu diren kruel erruenak. Sandak serena, egin bez nai duen guzia, ezi orren tormentuak, direnak direla, akabatuko dire, eta aien premia betirokoa izanen da: eta konfiatzen dut Jangoikoan, ezi orren etxeko jende anitz sal batuko dela, ni nai zela medio. Au zio sandak, ta agindu zio Jangoikoak, sarri ikusko den bekala. Tirano kruelak azotarazi zue gorputz guzitik berga zimalleki sanda preziosa. Bi ordus egon zire berdugoak deskargatzen azotukaldiak furia lotsagarriareki aragi sandu gaietan odola zeriola alde guzietatik, eta presente zeudenei negarrak begietatik lastimas. Sanda zego berriz ain konstante animosa, nola balitz peña edo bronzekoa, baña zauriek ta odol zerionak ziotela aragiskoa. Noizerebait aterturik sarrarazi zue karzel ilun batean asko guardiaeki manaturik biziaren penan ez eramateko niork ere alimenturik, akaba zeien an. Baña Jangoikoak bialitio Aingiruak bisitatzera ta konsolatatzera; eta uso bat ekartzen ziona egunoro sustentu bear zuena. Enperadorearen Andrea ere

aditurik ziotena arren edertasunas eta grazias joan zekio bisitatzera karzelean gauaz akonpañaturik kapitan bateki ta zenbait soldadoeki. Sandaren itzak aditus gelditu ze enperatriza ain afizionatua sandagana, ta ain seguratusa fedearen egias, ezi bataiatu ze; ta oroat in zue kapitanak, ta berreun soldadoek ofrezitus ematera biziak fedeagatik noiznai zen eskalda. Enperatriza zego beldurrak bere indargabeas pasatzeko martirio: baña sandak bere grazia onareki animatu zue guapoki; nola agertu baize geroxago. Sandari agertu zekio an Jesus bera ere, ta utzi zue beterik gozos, ta korajes.

8. Amabi egun pasaturik, jakinik bizi zela oraño, manatu zue enperadorek ekartzeko bere presenziara: ta ikusi zuelaik ez solamente bizirik, baita ere ain eder luzitu brillante, arriturik berrito asi zekio amoltsu erraten ziola, badakit zeure prendaen kases mereji duzula inperio bat, ta izatea munduaren erregina. Donzella sandak entendatu zue Satanasen lakioa, ta errespondatu zio grabe, ezdezala in kasorik gorputzaren ederras, zein desegiten baita nola lore goiza, baizik arimarenas, zein duten sanduek glorian, ta irauten baitu eternidadean. Azkenik anitz itzketa pasaturik, arrek tentatus, sandak errepugnatus, manatu zue Tiranoak egiteko makina bat laur erruedaeki armaturik itze tzorrotz ta punzikes de manera, ezi loturik an sanda, erruedaek inguratus bear zuten zatikatu. Lotu zute; asi zire ia inguratus: baña Jangoikoaren Aingiruak prest antxe lazatu zue instantean, autxi makina ta tiratu zitue erruedak ain fuerte, ezi arapatu ta il zitue anitz Jentil beira zeudenak; ta libratu zirenak asi zire klamatzen, andia dela Kristioen Jangoikoa. Zer biotz gogor, zer tigre etze beraxtu bear milagro goneki? Baña Deabruak errebestitzen zitue Kristioen kontra, espezialki Maximino errabias eta konfusiones, garaitua zela donzella batenganik. Asi ze injeniatzen berze anitz tormentu, akabarazteko sanda. Orduan enperatrizak ezin ia sufritus amorearen sua barnean erretzen zuena, joan ta asi zekio akar egiten bere senar enperadoreari, nola tratatzen zuen ain gaizki donzella sanda gura, ta berze Kristioak niork gaizkirik iten etzutenak? bera ere zela Kristio Jangoikoaren graziak. Au aditzeareki atra ze bere juiziotik enperadorea, ken zezotela begien alzinetik andrea, il zezatela bereala, ta berareki kapitan gura, ta berreun soldado gaiek. Ala kunplitu ze sandak errana. Enperatriza ofrezitu ze martiriora; eta sandari eskatu zio, enkomenda zezala, bukatzeko ongi: sandak erran zio, ea, ez lotsa: Jangoikoa dago orreki, ta erreinatuko du berareki beti. Erran, ta besarkaturik despeitu ze, ta pasatu zue martirioa bere soldadoeki. Gelditu ze enperadorea erresumindurik bere andrearen odolas, eta etsiturik etzuela errendiaraziko Katalina, eman zue sententzia ebakitzeko burua. Publikatu zelarik ori,



bildu ze jendeketa, gizonki, emasteki, Jaundi, señora, zar eta gaste, ikuster. Ellegatu zelaik iltzeko lekura, beiratus beraren grazia, ta modestia amable gura, askok iten zute negar ta lamentu lastimas: baña bera zego alegre ariman, eta aurpegian serafin bat iduri zuela: eta goratus bere begi ederrak zerurat egin zue orazio Jangoikoai emanez graziak in zition faboreengatik, ta ofratus bere bizia ta odola amorearen señaletan: errezibi zezala bere espiritua, ta etzezala permiti gorputza ultrajatzeta berdugoek: eta beraren debotoei in zezotela grazia konbeni zena. Gero soldado batek ebaki zio burua, eta ebakiaren lekutik etze atra odolik, baizik esne txuri txuria. Eta gorputz sandua eraman zute Aingiruek Sinaiko oianera, non depositatu zuten. Guzia mereji zue sanda gloriosak. Agitu omen ze martirioa 307 urtean. Honratu zue gloriosoki Jesu Kristoren izena, beraren esposa propia bekala: ontan ageri da zein ona den Jesu Kristo, ta beraren erreljioea &.

Azaroaren 26.an San Pedro Alexandriakoa Obispo ta Martir

1. S. Pedro Alexandriakoa, S. Katalinaren ziudade ta denbora berekoa, izan ze an Obispo, Patriarka, ta Martir glorioso. Diokleziano ta Maximiano enperadoreen persekuzioean altxaturik aldartez, gal etzeizen ardiak, Artzaia iltzeareki, etze deskuidatzen andik egines eginala, mantentzeko bizi ta bizkor espirituan ardiak, ta eskribitus karta pastoralak, animatzeko iago ezi sei eun ta iruogei Kristio preso zeudenak fedeagatik; eta jakin zuelaik irabazi zutela martirioaren korona, alegratu ze aien ditzas bereas bekala. Itzuli ze gero Alexandri ara, non izan zue itekorik asko herejeeki, zismatiko, ta Jentileki: Beñik bein pribatu zue konzilio batean bere obispadotik obispo bat Likopoliskoa, asko delikto egin ta sakrifikatu zuena Jangoiko falsuei, deitzen ze Melezio; onek konfusioneagatik mendekatu naiez nasi zue eliza, ta izan zue lagun Arrio Alexandriako Diakon infamea S. Pedroren kontra, zeñek exkomekatu ta bota zue elizatik, mereji bekala. Egin ze Orienteko enperadore Maximino kruela, martiritatu zuena S. Katalina, ta egin zue preso S. Pedro obispoa karzelean. Orduan Arrio madarikatuak entendaturik martiritatuko zutela obispo sandua, prokuratu zue beragana zoezin bi sazerdote eskatzera barka zezon ta absolutu exkomekaziotik, ustez ala itzuli graziara, ta inen zuten bera obispo ondorean. Sartu zire bi sazerdoteak deituak Akilas ta Alexandro, presentatu ziote petizioa, barkatzeko Arriori. Obispo sanduak erresponda ziote aiotska, ene Anaiak, etzazela pensa iten dutela krueltasunes, nai zelaik ni ere bekatari pobrea barkazio eske nagona, baña sines ta erraten dizetena nik: Arrio da engañazale malizioso bat: eztiot nere burutik: eztaiel a izan admititua elizan niolateko maneran, ezi joan den gauean agertu zaida gure Jaun Jesu Kristo erran didana, Arriok urratu dida ta zatitu nere bestimenta baita Eliza sanda. Zaude firme, ta ez admiti fielen komuniora; biar etorriko zaizkizu eskatzera arrendako: baña etzaitela beraxtu; baizik bi sazerdote Akilas ta Alexandro etorriko direnei, ta zure ondorean emengo obispo izan bear direnei elkarren atzetik, mana zozute ez dezatela niolater e admiti: eta zu sarri koronatu zue zara martirios. Guziau kontatu ziote sanduak bi gaiei Jangoikoaren partetik, baizekie bere Majestadeak nolako gizon gaixtoa zen Arrio, nolako herejia eraikiko



zuen, ta nolako kalteak inen zituen elizan: nola ikusi baize gero, zelarik obispo Alexandro.

2. Andik guti emanik eriotzeko sententzia S. Pedroren kontra, armaturik jendea defendatzeko beren Artzaia, ta paraturik karzelaren inguruan guardatzeko, etzezaten il, ori ikusirik Tribunoak ilarazteko kargua zuenak, etxiden zue ilundu arteo, erretiratuko zirela nor bere etxera: baña etze agitu uste zuen bekala, zeren ezi jendeak ain maite zue bere Artzai ona, ezi etze nai izan du apartatu andik gau ta egun. Sanduak on ikusirik, deseo zuenareki emateko bizia Jesu Kristoren amorez, eta beldurrareki asiko zirela pelean soldadoak eta jendeak elkarreki, abisatu zue berak sekretoan Tribunoa, noiz, nora, nola ta zer gisas zuken exekutatu sententzia: eta ala eramanara zize karzeletik ixil ixila leku gartara, non ere izan baize martirizaturia S. Markos ebanjelaria, Alexandriako obispo lenbiziko izana. Antxe S. Pedrok orazio eginik S. Markosi izan zeien beraren Patrono martirioan, ta Jangoikoai, anpara zezan Alexandriako eliza; denbora berean aditu zue birjina sanda batek boza gau zerutik, Pedro Apostoluen prinzipio, ta Pedro fin Alexandriako obispo martiren: ta ala izan ze azken iltzena an Jentilen eskus. Orazioa bukaturik, alegreki edatu zue lepoa ebaki zezoten: baña ainberze errespeto ta erreberenzia zioten soldadoek, ezi nior etze atrebitu ematera golpea, baizik bat animale gisakoa diru eman zekionagatik. Gauza admiragarria! Burua ebakirik ta lurrera botarik, gelditu ze gortputza bururik gabe tieso belauriko, ta ala aurkitu zute Kristioek, zeñek arturik anitz negarreki, ta bestiturik ornamenta sazerdotalees, nola balego bizirik jarri zute lenik S. Markosen katedran; andik gero eraman zute andetan palmaeki eskuetan, zirio ta aroma preziosoeki triunfoan bekala orzitzera berak fabrikatu zuen obian, non Jangoikoak honratu duen anitz milagroeki. Gauza bat notagarria kontatzen da sandu gontas, etzela bizi zelaik beñere atrebitu jartzera S. Markosen katedran elizako ofizioetan, baizik alki batean arren beitiko aldean, indigno kontatzen zela, ta iduri zekiola erresplandore bat atratzen zela katedra gartaik. Baña jendeak jarri zue an ilik etzena atrebitu bizirik. Il omen ze Kristoren 310 urtean.

Azaroaren 27.an San Tiago Interziso Martir

1. Gure errelijione Kristio katolikoa Jangoikoaganik ta Jangoikoaren delako, señaile ta progu anitz klaroes landara, da bat txoil admiragarria, au da, Kristio askok zuten ansia gura il naiez orgatik, eta damua ez iltzeas. en exenplu asko da: bat S. Tiago Interziso deitua. Jaio ze Persian jende illustre andietaik, eta bizi ze honratuki an, eta txoil onetsia ta estimatua erregeganik, zeñek erraten zio, bere maiteena izateko faltarik gabe, utzi zeza-la Kristoren errelijionea, zein izan zen gizon billaua guruze batean ilarazi zutena. Ainberze porfiatu zio erregalos, konsejus, loxentxus, meatxus, ones eta gaitzes, ezi azkeneko erregeri gusto egiteagatik gizonoi errenditu ze uztera Kristo, ta adoratzera estatuak. Ori xakin zutelaiak arren Amak ta Andreak, baizire señora guzis Kristioak ta jenerosak, negarrai emanik sentimenturaz, konformatu zire biak eskribitu bear ziotela despeida, ta eskribitu zioten manera gontan, *Gizon mortalai* gusto egiteagatik utzi duzu Jangoiko inmortal, ta bizitza egiaskoa dena. Kuadratzeagatik denari auts pixka bat, ta ustel-urrian duenari, utzi duzu gozo suabe eternoa. Bada ala da egia, nai dugu xakin dezazun, ezi ia emendik alzina ez gaituzula ezaundu bear ta kontatu zeureak bekala gu, ezpaitugu nai bizitu zureki *niolateko maneran*. Leitu zue karta gau gizonak, eta ukiturik biotza Jangoikoaren eskuas asi ze negar ta negar ziola, bada neure Amak, ta neure andreak ezparin banaute ezaundu nai berea bekala, zer inen du Jaingoikoak ain itsuski ofenditu dutenak? Penatu ze, konfesatu ze kulpante, determinatu ze desegitera gaizki egina, ta exponitzera galtzera bizia.

2. Publikaturik ori, deitu zue erregek, ta aiturik nola aldatu zen, nork-taki zenbat dilijenzia paratu zuen beratx eta gogor, utziarazteko Nazarenoen superstizione falsu deitzen zuena? Inzezola gusto gura bere protxutako, ezperen pasatuko zituela tormentu ikaragarriak. Etzekio baliatu bere dilijenzia guzia oraingoan, zeren ia gure Jaunak armatu baizue bere espirituas bere soldado gau, eta nai zue pelea zeien ta irabazi biktoria galdus emengo bizia. Errege sartu ze iraren suan, eta bere gisakoen konsejus berze Kristioen eskarmentutako manatu zue akabarazteko gizonoi ebakis mienbro guziak bat banaka. Eramanik justiziako lekura guzien alzinean berdugoak arturik eskuieko eskua, ebaki zio lenik eri-beatza, gero urbile-na, gero gañarakoak; ezkerreko eskukoak orroat, zegolaik bitarteo Martir gloriosoa bedekatzan Jangoikoa, moxten baizue ala nola bere zarmen-



dua, edo aiena alkitzas. Oroat in zue oñetako erieki: gero oñak, gero eskuak, gero besoak eta zangoak gelditurik sollik gorputza buruareki, animoso alaere eta ale re goratus begiak zerura exklamatu zue, o Jesu Kristo ene Jauna, bizien eta ilen Jangoikoa, naiz nola etxe bat eror zera dagona; berorren pasio sanduagatik libra bez ene anima karzel gontaik. Erran zueneko au, berdugoetaik batek ebaki zio burua, eta egaturik arima zerura, etzire deskuidatu biltzeas gorputzaren errelikia sagratuak Kristio zirenak, espezialki bere Ama ta bizikidea animaturik exenplu ain loriosoas. Agitu omen ze martirio admirable gau berze askoren Teodosio gasteenaren denboran. (a 408 ad 450.)

Azaroaren 29.an San Saturnino Obispo ta Martir

1. S. Saturnino glorioso Iruñeko ta Nafarroko kristiandadearen Aita prinzipala Jangoikoaren partetik, eztakigu non jaioa den, ta nolako jendakitik, bai zela Jangoikoaren gizona, beraren biotzekoa, ta biziaren libruan asentaturik zeukana eternidadetik. Kristoren doktrinan ongi azirik S. Pedrok Apostoluen ta Kristio guzien buruak ordenatu zue obispo, eta biali zue predikatzaera Kristoren ebanjelioa Franzia. Baratu ze Tolosan, non eraiki zuen azi dibinoa biltzeko fruitu zerurako, eramanes arimak fede Kristiora, zein baita zuzen-bide bakarra ararako. Eta onaren kondizioa delarik komunikatu naia, kondizio goi apegatu zio Jangoiko onak bere gizon goni: eta orgatik komunikatu naiez onatago ere bere grazia ta fedea, biali zue Españara, Nafarroara, ta Iruñera sazerdote honesto bat, edo Honesto deitua. Au errezibitu zute Iruñean ongi, mostratus nai zute-la aditu Jangoikoaren itza, informatu errelijione Kristioaren egietafedeas segurki salbatzeko arimak. Ortako eskatu ziote ekarrarazi zezala onat Saturnino Tolosako

obispoa. Etorri ze gogotik ere Jangoikoaren Gizona, eta beraren predikazioareki, ta biotzen disposizio onareki Jangoikoaren graziaz laster kristiatu zire berrogei milla ziudadetik ta inguruko errietaik: prinzipalenaik irur senadore nonbratuak Fausto, Fortunato eta Firmo, zenen semea S. Fermin gero konsagratu ze obispo. Ikusirik emengoan piedadea ta alzinamendua errelijionean, utzirik emen Honesto sazerdotea, itzuli ze bere Tolosara Saturnino. An segitus bere Jangoikoaren azaroan, ta maiz akuditus egin zuen tenplo batera, ango idoloetan Demonioak len ematen zutenak errespuestak Jentilei engañaturik idukitzeko, ezin sufritus sanduaren presenzia mututu zire. Informaturik aien ministroak sazerdote falsuak, ori zela Saturninoren joan-etorrien kasos, eta jende anitz zoeiela desengañatus arren itz sandueki, erresolbitu zire iltzera Jangoikoaren sazerdote ona. Eta bein zeudelaik prestatuak ofratzeko sakrifizio andi bat beren Jangoiko gaiei iles zezen bat larria palakatzeko aien ira, edo arimo gaixtoa, ara non ikusten duten Saturnino eldu dela bere Jangoikoaren tenplora, arrapatzen dute molde-gaizki, ta erraten diote suber, edo sakrifika dezala aien Jangoikoei, edo bera bear dela sakrifikatu. Sanduak sosegu andiareki dio animoso, berak beneratzen duela sollik Jangoiko bat bizi bakar egiaskoa, ta oni sollik ofratzen sakrifizio, baña ez aien Jangoiko



banoei, Demonio direnei, ta idolo bano: alborotaturik aiek lotzen dute zezenari, eta garrotxatus erru zezena botatzen dute eskaleak bera, ta ala burua autxirik, muñak atrarik, ta mienbro asko zatikaturik, entregatu zue Jangoikoai arima andi gura Neronen persekuzioaren denboran: beraren gorputza andre onek kuidatu zute orzitzeas sekretoan &.

Azaroaren 30.an San Andres Apostolua

1. S. Andres Apostolua, S. Pedroren anaia zarrena, izan ze lenbiziko ezaundu ta tratatu zuena Jesu Kristo, Jangoiko-gizona. S. Juan Bautistareki zegolaik Diszipulo bekala, aditu zue bere maestru sandua, erraten Jesu Kristos, *ona Jangoikoaren axuria, kentzentuena munduko bekatuak*: eta bereala bere lagun bateki joan ze Jaun dibinoaren atzetik: eta Jaun onak ikusirik erran ziate amoltsu, zer billatzen duzie? Zer nauzie? Aiek, Jauna, berori, non bizi da? Erran zue, Atozte ta ikusazie. Joan zire berareki, egon zire egun batez, ta gozatu zute beraren konbersazio soberano dibino gura. Andik atrarik opatu zue Pedro bere anaia Simon deitzen zena orduan, eta bozkariundes beterik erran zio, adi zazu, opatu dugu Mesias ta Kristo deitzen dena, Profetaek anunziatu zutena etorriko zela. Eta eraman zue Jesu-sengana. Jaun onak beiraturik erran zio, *zu zara Simon Joanen semea: zu dituko zara Pedro*. Berze egun batez zeudelaik bi anaiak botatzen sareak arranzurako, pasatzen ze urbil Jesus ona, ta erran ziate bie, *Atozte ene atzetik, eginen zaiztet arimen arranzari*. Eta aiek istantean, sareak utzirik, segitu zute. Gero jendeketa andi bat joan zelaik Jesus onaren atzetik oian bate-raño, erranik Jaun dibinoak progatzeko, nondik izanen dugu ogi ebei jatera emateko? eta S. Juanek dio senzillki, bazekiela berak zer in bear zuen. S. Andresek erran zue, bada emen mutiko bat dituen borz ogi ta bi arrai: baña zer da ori anberzeendako? Jarrarazirik guziak belar-gañean borz milla bekala, ta aserik nai adiña, goratu zute sobratuetaik amabi esporta. Gero Jentil batzuk joanik Jaun dibinoaren billa, S. Felipek abisatu zue S. Andres, eta bie Jaun dibinoa.

2. Gañarakoa bear da atra Autore sanduetaik Eskritura sagratues geros, nola errebestiturik Espiritu sanduas, Jangoikoaren amores, sus, argis, ta korajes, emateko infernuaren, munduaren, ta aragiaren kontra, ta asentatzeko Kristoren erreinua munduan, joan ziren Apostoluak nor bere alde pregonatzera ebanjelioa. S. Andresi sortatu omen zekio Eszitia: Predikatu omen zue ez solamente Eszitian, baita ere Sogdiano, ta Sakaetan, Etiopian, Trazian, Kapadozian, Galazian, Bitinian; ta norktiki noraño? Akonpañatu ta konfirmatu zuela bere predikazioa milagroeki, ezta dudarik. Abdias Babiloniakoak kontatzentu anitz: bizpirur berextentut, baitire erakusteko guri. Zar zartu bat gaixtakerian, ala nola animale usteltzen direnak bere ongarrian, *computruerunt jumenta in stercore suo*, etorri zekio



erremedio billa bere gaitz zar, edo azazkar espiritualaren, salbatzeko arima, al baleike. S. Andres paratu ze orazioan, ta barutu ze borz egunes miserable garreatik. Errespondatu zekio zerutik, aditua zela bere orazioa, baña Jangoikoak nai zuela, ezi ala nola sandua barutu zen zarragatik, bera ere baru zeila, ta afliji penitenzias beregatik, nai bazue izan salbo. Sanduak manatu zio barutzeko, ta Kristio guziei, iteko orazio arren alde logratzeko miserikordia. Logratu ze maneraz, ezi ura itzuli ze berze gizon bat bekala, emanik zuen guzia limosnatan, mantenitus ogi ta ur solles sei ilabetez, ondorean iltze, eta sanduari errebelatu zekio atra zela salbo.

3. Berze exenplu bat kontatzen du, nola mutil gaste on bat bere Ama propioak tentatzen, ta inzitatzen zuen egitera maldade andi bat berareki erran eztaikena, eta meatxatzen ziola akusatuko zuela kulpadun bekala, ezpazue konsentitzen. Konsultatu zue mutil honestoak Apostoluareki, ta nola zegon determinaturik ez atratzera itzik bere fabore, ez agertzeagatik bere Amaren kulpaa, ta deshonrea: naiago zuela edozein traba pasatu, ezi bere Ama deshonratu: eta ala eskatzen zio Apostoluai, logra zezan Jangoikoaganik mogi zezon biotza Juezari, etzezan tormentarazi ta ilarazi bera, etzuelaik kulparik. Ama infameak akusatu zue testimonio falsus semea: onek etzue itzik atra Amaren kontra bere faboretan: Apostoluak faboratzen zue: baña Juezak sinestatus emakumeari, sentenziatu zue enkubatzeko semea, ta paratzeko preso Apostolua. Karzelean Apostolua jarri ze orazioan: bereala asi ze lurra ikaritzen, zerua ortotsketan ausnarri tiratzen: Jueza erori ze bere katedratik; jende guzia lotsarriturik lurtean auspeska: eta Ama gura gelditu ze ilozturik ta karturik berartan: ezaundu ze mutilaren ona ta kulpaa gabea, ta sanduaren orazioaren indarra, baitare Jangoikoaren justizia, zeñek uzten badu ere aldarteaz gaixtoa goratzera, ta ona penatzen, gero ere ezta uzten gaizkia kastigorik gabe, ta ez ona premiorik gabe goiz edo berant. Kontatzenere du nola ziren Mazedonian bi kaballero anaiak, batak zituela bi seme, berzeak bi alaba, ta nai zutela ezkondu bi gaiek bi gebeki: eta zeudelaik ia zelebrazteko bodak, izan zutela zerutik abisu ez egiteko alakorik, itzuli arteo S. Andres. Itzuli ze irur egunen buruko: errezibitu zute gozo andiareki, ta beiratu zute aurpegia istargitzen ziola iruzkia bekala. Erreberenzia guziareki erran ziate agitu zen guzia bodaen gain: etxiden zutela etorri arteo bera. Sanduak erran ziate etzela konbeni alako bodarik alde ain urbiletan, Jangoikoaren permisios agi zeizkela eskarmentuak, ta fruiturik ez: egin zezatela penitentzia artu zuten intenzioas. Berak etzuela erreprehenditzen matrimonia, baikiz artan iten diren itsuskeriak.

4. Gatozin ia sandu gonon martiriora, izan baize txoil preziosoa Jangoikoaren ta on guzien begietan. Akaiian Patras deitzen den zitudadean argiturik iruzkiaren gisara anitz arima, ango Prokonsul edo Juez Ejeas deituak, Kristio in zirenak nai zitue mañaz eta indarrez, onez eta gaitzez itzularazi adoratzera Jangoiko falsuak Demonio egiaskoak. Joan zekio S. Andres, eta erran zio animoso, baña atento, arrazio litzake, Jauna, berorrek gizonen juez deitzen denak ezaun lezan bere ta guzien juez dena Jesu Kristo zeruetan dagona, ta andik etorriko dena ilen ta bizien juzgatzen, ta estima dezan Jangoiko bekala, eta utzi bere Jangoiko bano goiek, ezpaitire baizik Demonioak gure kontrarioak. Ejeasek erran zio, zara zu Andres desegitentuzuna gure Jangoikoen tenploak, ta paratu nauzuna Kristoren superstizioe gura enperadoreek debekatu dutena inperioan? Ori beroi naiz ni erakusten dutena zerurako bidea, ta Jangoiko andiaren karidadea, nai izatean erreskatatu gu Demonioen eskupetik, ta salbatu betiroko glorian zeruan: ortako jautsi baize, eta in baize gizon, eta gizonengatik pagatu eriotzeareki guruzean. Orgatik sinestea, onestea, ta zerbizatzea Jaun gau baita obligazio ta probetxu guzia; kontra berriz engaño, ta dañu guzia honratzea idoloetan Demonioak gure kontra beti direnak, berak galdurik gu ere galdu nai gaitutenak. Ejeasek erran zio, zoaz kontatzera on guziori sinestatu nautenei; eta zuk niri sinesta, ezi Judioek paratu zuten bekala zure Kristo guruzean, zu ere paratuko zaitutela nik, ezpaituzu adoratzera gure Jangoikoak. Errespondatu zio S. Andresek, nik Jangoiko guzis poderosoari egunoro ofratzen diot sakrifizio, ez idien aragi, ta auzten odola, baizik axuri dibinoa garbia mantxa gabekoa, zein jan ondoan ere Kristioek, beti gelditzen da oso ta bizi, len bekala. Ejeas asarraturik itz ebeki goratu ze, ta manatu zue sartzeko karzelean S. Andres. Jendea asi ze inkietatzen, eta nai zute eman Juezaren kontra, ta libratu S. Andres: baña sanduak otoi ta otoi geldiarazi zitue, imita zezatela Jesu Kristoren azeria ta mansotasuna: gaitz guti zezakela egin juezak, bai anitz on Jangoikoak arren medios. Etzetozela berai estorbatu martirioa biotz guzias deseatzera zuena Jesu Kristoren amoreagatik, trabajuak eztiela iraupetsu, premia bai eterno immenso infinito.

5. Berze egunean, presentarazirik Andres erran zio Juezak, uste dut itzuli bide zarea zeure baitan leneko erokeriatik, gozatzeko bizitzaren ona ta gustoa, eta ez sentitzeko eriotzearen triste samiña, zein progaraziko dizut nik, baldin oraño barin badaukazu Kristo Jangoitako. Errespondatu zio garboso, *etzuenak sinesten Kristobaitan, ez dezake izan gusto onik, ta ez bizitzarik*, nola predikatu baitut beti Probinzia gontan. Orgatik berorrenegatik, dio Juezak, manatzen dizut ofratzeko Sakrifizio gure Jangoikoei,



desengañatzeko engañatutuzun jendeak, uz dezaten zure doktrinaren banidatea, ta itzuli daitzen ezauntzera beren antiguasko Jangoikoak: ezi dakusatena da ziudade guzietan zure kasos daudela tenploak uts honrarik gabe: eta bada zuk engañatutuzu, arrazio da desengañadezkizun zuk: ezpaduzu on egiten, bazaudezke etsiturik pasatukotuzula tormentu erruak, ta azkenean eriotzea guruze batean. Ontara erran zue sanduak, suturik ia zeloaren suas, o erioaren humea ta zur karra, infernuko sutillite izan bear dena, adi benaza: orai arteo mintzatu diot amoltsuki, ustez juiziosko gizona bekala protxatuko zen, utzis bere Jangoiko bano ta Demonio egiasko goien adorazioa: baña bada orren biotza ia dago arri biurturik gogor, erraten diot ezdezala pensa errendiarazi ni meatxus ta lotsamentus: egin bez nai duen adiña, ezi emen nauka; eta zenbatenaz iago tormentu ematen didan orrek, iago premio emanen dida Jesu Kristok niri, ta iago pena berorri infernua prestaturik daukan gartan orrendako. Asarraturik oneki arras Ejeasek azotarazi zue gorputz guzian zazpi berdugoen eskus ain erru, ta ainberze, aldatas bata berzearen atzetik, ezi ara Lui guziak zatiturik odola zerio barrataka alde guzietatik; eta azkenean on guzioi aski etzelaik, egiteko mellarik sanduaren arimo konstantean, manatu zue paratzeko guruzean gora, ez itzees josirik, baizik loturik sokaeki iago iraun zezan martirioak. Ortako zeramatelaiak kanpo agerrira, jendea zego oiuz, zer egin du gizon justo gonek, ta Jangoikoaren onetsiak? Zergatik guruzifikatzen dute? Sandua zego berriz eskatzen, etzezotela estorbatu onkasun andi gura Jangoikoagatik otoi otoi!

6. Eta urrundani ikusi zuelaik gurutzea, non il beartzen, aleganzias beterik biotza, asi ze klamatzen, agur o gurutze prezioso, ene Jaun Jesu Kristoren gorputzareki izan zinana konsagratua, ta beraren mienbro sandues adornatua, nola margarita preziosoes: lenago lotsatzen zinduz gizonak, baña gerostik onat alegratzen gaituzu. Ni eldu naiz seguro ta gozoso zuregana; zuk ere kontent errezi bi nazazu ni nola Diszipulo Jesu Kristoren zure besotan iltzenaren. O gurutze ona, aspaldirik deseatu zaitut, ta gana onareki billatu zaitut, eta noizerebait aurkitu zaitut; errezi bi nazazu zeure besoetan ni, ta atra nazazu gizonen ertetik, ta itzuli nazazu neure Maestruari, errezi bi nazan zure medios erredimitu ninduenak zure medios. O gurutze ona, zuk atra nazazu salbo mundugontatik. Zer itzak ebek! Zer biotza! Zer antsiak ebek! ez beldurrez, bai deseos il naiez. Non ikasi zue teologia gau? Urkabea ikusteas urkatu bear direnak kongojatzen dire. Oraiko urkabearen lekuan ze orduan guruzea. Ikusten du goraturik beretako S. Andres jenerosoak: ezta asustatzen, ez ikaratzen, ez turbatzen: baizik nola balitz goatze beraz bat deskantsatzeko, ala desahogatzen da

biotz noble gura Jesus guruzifikatuaren amorez. *Barneko suak atratzentzu sugarrak agotik*, dio S. Bernardok. Nolako gozotasuna senti bide zue, ikustean gurutzea, bada dultzatu zio erioaren samintasuna? S. Andres ze, dio, gu bekala gizon aragiskoa sentikorra, baña alako egarria gurutzearen, alako gozo gozoa zue iltzeas gurutzean, ezi zoraturik bekala erraten zitue itz gaiek ain amorosoak. Beraren mia etze aragiskoa, bai sua botatzen zituena sug ararak; eta barin baze mia, ze susko mia, ta bere itzak zire brasak itxekiak Kristok arren barrenean itxeki zuen suareki: baña ezta arritzeko, Jaunak Lorenzori suabe in zionak sua, in zezon suabe Andresi *gurutzea*. Guziau dio S. Bernardok.

7. Guruzera ellegaturik, bere tresenak bere eskus kendu Apostoluak, ta eman zitiote berdugoei: aiek goratu zute bera ta lotu zute guruzean, manatu bekala. Zeude an inguruan ogei bat milla persona lamentatzen alako injustizias, ta enkomendatzen sanduari estimatus, honratus, benertus sandu bekala. Eta sandu jeneroso glorioso bere guruze gartaik nola pulpito berri batetik, Kristo bere Maestruaren gisara, zegokiote predikatzen pazienza, ta karidada Jangoikoaren ta proximoengana. Bi egunes egon ze bizirik bere gurutzean ematen testimonio Jesu Kristoren gureganako amoreas ez itzes solamente, baitaere eriotze moduas, ta santidade guziaren exenpluas. Jendea zego klamatzen etzela il bear alako gizona, ain Jangoikoaren maitea ta maitazalea, kulpa gabea, sandua, mansoa, piadosoa, erakusten zuena on guzia. Aditurik Juezak jendearen sentimentura ta klamoreak, nai izan zue jautsi Apostolua gurutzetik: eta berak joanik manatu ziotte ministroei, laza zezatela ta kendu gurutzetik: baña sandu berak etzue nai kentzezaten andik il gabe. O gauza admiragarria! O Jesusen ganako amore fiña! O gurutzearen esposo amantea! Ministroak asi zire igaten kentzeko: baña ezin ellega sanduaren lepora: edatzen zuzte besoak lazatzeko sokak, baña gogortzen zekizkiote besoak ta eskuak tieso ezin mogitus: zeren Apostolu sanduak klamatzen zuen zerura, O nere Jaun Jesu Kristo, ez permiti, kendu nazan ni emendik juez gaixto gonek, zeren ezaundu baitut ta probatu orren gurutzearen ona ta birtute dibinoa. Berori da ene Jangoikoa, ene Maestru ona, ta ene on guzia, zein ezaundu baitut, zein maitatu, konfesatu, ta predikatu baitut: zeñena bainaiz nai zen guzia, zein sollik deseaten baitut: adi benaza, otoi: ordu da eraman nazan beregana: errezi bi bez ene espiritu gau bere eskuetan. Itzebetara jautsi ze zerutik argitasun eder admirable bat inguratu zuena sanduaren gorputz guzia altxatus aien begietarako, ezpaizezakete ikusi ta ez beiratu ere itsuturik argiaren geiegis, ta ala iraundu zue ordu erdi bat bekala, ta



argi garreki bateo despeitu ze espiritu zori oneko gura Kristoren 72 urtean, Neronen denboran.

8. Apostolu sanduaren gorputza kuidatu zue kentzeas, ta unjiturik aroma preziosoeki depositatzeas leku honratu batean Maximila señora noble batek: Jakin zue Ejeas Juezak, baña etze atrebitu kastigatzera, beiratus andrearen nobletasun, ta podorea, baitare jendearen pena ilagatik sandua: baña zegolaik tratatzen bialtzeas enperadoreai kontu, ta akusazio Maximilaren kontra tribunalean, arrapatu zue Demonioak, jabetu ze artas, maltratatu ta akabarazi zue an marroas, iskiritus, lamentus, manera gaixtoan: eta ikusirik arren eriotze desbenturatua, Jangoikoaren kastigo klaroa, konbertitu zire anitz federa. Gorputz sandua pasatu zute andik gero Konstantinoplara, geroago berriz Amalfi deitzen den ziudadera Napolesko erreinuan, non baitago estimaturik benerazio andian arrazio andiareki: eta bere obia edo urnatik jariten omen da kontino likore prezioso atxon miragarri oneko bat, zeñeki sendatzen diren asko heritasun, eta gaitz Apostolu andi gonon merejimentuz. Beraren beso bat logratu rik erregalos ta mertxedez enperadoreaganik S. Gregorio andiak eraman zue Romara, non S. Andresi konsagratu zuen tenploan guardatzen omen da egungo egunean ere: burua berriz bere Anaia S. Pedoren tenploan, zein eraman zen Romara, zelarik Aita sandu Pio II.a, zein atra zen errezibitzera Romatik bi millatan apart Pontifize sumoa, ta lurrean auspeskaturik adoratu zue deboziosko negarra zeriola begietaik, ta laudatu orazio eleganteariki. Milagro anitz andi klaroak egintu Jangoikoak, adiarazteko zein adiskide andia duen S. Andres, S. Pedoren anaia bekala, arren gisarakoa, jeneroso, animoso, Jaunaren amante ferboroso, ta señaletako ardaike irurak iltzea guruzean ain txusto, Jesus josirik itzeeki burus gora, S. Pedro ere itzeeki burus bera, ta S. Andres loturik sokaeki &.

Izotzillaren 23.an San Raimundo Peñafort. p. 34.

Izotzillaren 14.an San Hilario Obispo Putiersko

1. S. Hilario jaio ze Akitanian, baita Franzian, buratso abrats nobleetaik: estudiatu zue bere denboran ederki, eta ezaundurik errelijione Kristioaren egietafedea kristiatu ze, ta artu zue matrimonioaren estadoa, zeintan bizitu zen exenplu ona ematen birtute guzien, espezialki oposizio fuertearen herejien kontra. Jangoikoaren probidenzias izan ze eskojitua Putiersko Obisopotako, batzuek diote ezi il ondoan bere bizikidea, berze batzuek ezi oraño bizi zelarik, baña beraren, ta guzien konsentimentuareki, zeren ezi beñere eztelaik zillegi izan ta ez usatu Elizan ordenatua geros ezkontzea, baña bai prinzipio gaietan ezkonduak ordenatzea sazerdote, ala nola S. Pedro, bizitus andik alzina berez nola anaiarrebak. Onen denboran Hereje Arrianoak zebiltza furioso eliza katolikoaren kontra, ta armaturik enperadore Konstanzioren faboreas. Ezta aisa pintatzea elizaren estado txar lastimagarria denbora gartan herejia garren kasos, obispoak obispoen kontra, sazerdoteak sazerdoteen kontra, Kristioak Kristioen, ta aideak ere aideen kontra: eta herejeen furia infernukoareki egiten zire gaixtakeriak ta urdakeriak millaka bortxatus andre honestoak, desloratus donzellak, urratus konbentuak, desterratus sazerdoteak ta elizagizonak, eta preso idukis ta maltratatus Kristiorik obenak, eta berze batzuek iges ibilis ta altxatus oianetako sasidi ta kubilaetan. Orzirik bekala egietafedea ainberze herejeen kantidadeas eta podoreas, etzirela trebe asko sazerdote onak ere atratzera aurpegia egiaren defensatan. Atra zue S. Hilariok, presentatu zue bularra, exponitu zue bizia, zeramala alzinean Jesu Kristoren honra, ta eztela podoreik aski bere podorearen kontra, deklaratu zue gerra herejeei arrazios, argumentus, plumas eta mias. Saturnino Arlesko obispo herejeak bilduarazi zue obispoen konzilio bat: naiz deiturik etze nai izandu presentatu bera an, baña presentarazi zue bere fedearen libru bat exzelentea konfunditzeko arren ta bere lagunen erroreak: baña gaizki dabilanak argia aborrezitzen, ilunbea nai, altxatzeko beren gaizkia, prokuratu zute herejeek orzitzea libru gura, ta desterratzea sandua Frijiara, non egon zen laur urtes, ta biztu zue il bat, ta eskribitu zue anitz libru Trintateren gain herejeen kontra.

2. Bildu ze konzilio bat Seleuzian, nora joanik S. Hilario herejeen borondatearen kontra, ta an ere konfunditu zitue; eta nai zutelarik jakinarazi enperadoreai pasatu zena an, beldurra truka zezaten egia gezurrare-



ki herejeek, joan ze sandua bera personan, erreparatu gabe trabajuan, peligroan, deustan ere liza sandaren onagatik. Eskatu zue mana zezan disputa zezatela berareki herejeek an enperadorearen presentian: bana gaixtofikatuak beldurrak izanen zirela kon fundituak sanduaganik beti bekala, konsejatu ziote arri mana zezan itzuli zeuela Hilario bere elizara. Itzuli ze penaturik ezin logratuas disputatzea herejeeki, ta paratzea estado obean ango eliza, ta ez padezituas martirio iago fedeagatik. Itzuli zelaik Franzia-
ra, segitu zue S. Martinek, zeñek izan zue Hilario Maestru bekala, ta hon-
ratu zue atrarik Diszipuloa gero Tursko obispo, ta sandu miragarri glo-
rioso. Errezibitu zute Katolikoek aleganzia ta festa andiareki eldu zen
bekala biktorioso herejeen peleatik. Itzuli zue Franzia geiena, ta konfir-
matu zue fede katolikoan, lagundus Jangoikoaren eskuak milagroeki.
Biztu zue aur bat iltzena bataiatu gabe. Berze milagro bat da egin zuena
bere alaba deituareki Abra, zegolaik sandua desterruan. Gastigatzenzue
arrek nola kaballero batek nai zuen ezkonarazi bereki. Sanduak nai zue-
laik konserba zeien birjinidadean gastigatzen zio etxiden zezala itzuli
arteo bera, ezi nai ziola eman bere eskutik esposo bat ezin obea. Etxiden
zue, ta ellegatu zelaik konsejatu zio mantenitzea birjin, ta artzea esposo
Jesus ona betikos. Logratu zue; baña beldurrak muda zeien emasteki
bekala, eskatu zio Jangoikoai eraman zezan bere grazian emendik: ta
logratu zue: eta ala gaitzik ta oñazeik gabe iltze zori onean, eta Aitak orzi
zue berak; ezpaita au milagro txipiagokoa berzea baño. Bera bere denbo-
ran eraman zue Jangoikoak beregana iltze prezioso bateki 369 urtean.
Admiratzen dute guziek sandu gonon koraje jeneroso, naiz berez izanik
manso humila, emateko herejeen, ta enperadore beraren kontra zeñek
Kristio-kolore persegitzen zituen katolikoak, eta sanduak bere bizia sal-
durik bekala, erraten zue bear zela gizona izan erreparatua defendatzeko
bere burua, baña ausart animoso, defendatzeko Kristoren Eliza &.

Izotzillaren 27.an

San Juan Krisostomo Obispo ta Doktore

1. S. Juan deitu zutena Krisostomo, nai baitu erran, urresko agoa,
bere mintzaera eder eleganteagatik jaio ze Antiokian: Deitzen ze bere Aita
Sekundo kapitan jenerala poderoso: Ama Antusa: Jaio zekiote laik Juan,
biak zire Jentilak, eta ikusirik semearen injenio ona, ta paratu zute Maes-
tru onegi estudioetan, zeñetan alzinatzen ze abantallareki. Ze ango obis-
po Melazio gizon sandua: onek nai zue kristiatu Krisostomo, ta logratu
zue, ta arren medios buratsoak ere bai. Nai zue Aitak zoeien estudiora
berari zegokion akonpañamentu ta ponpareki: baña sanduak bere juizio
ta birtute sendoareki etzue nai alako banidaderik: solamente obediencia-
gatik permititu zue akonpañña zezan mutil batek. Andik guti il zekio Aita:
Ama naiz gaste gelditurik alargun mantenitu ze estado gortan seme ona-
ren esperanzan. Atratzeko gizon guzis perfekto, biali zue Atenasko Uni-
bersidadera, non ziren jakintsu famatuak: Aietaik bat izan ze Krisostomo,
eta bateo agitz humil modestoa, orgatik iago baize estimatua. Estudioen
erretoreak in bear zuelaik prediku publiko bat, jakintsuetatik bat bekala
konbidatu zue Krisostomo, ta ortako biali zio bere kotxea: sanduak etzue
au admititu, bazeikela joan bere oñes ere. Joan ze, ta ellegatzean bera, jaiki
zire guziak kortesias: bat sollik inbidias asi ze mar mar, etzela on ongi
egina: Gañarakoan nola zen, solamente zergatik baize Kristioa. Krisosto-
mok sosegu onareki erran zio, jakintsu bati etzegokiola ongi sumintzea
banidadearen aizeagatik; baña ark tatxatzen ziona Kristio izatea, bear
zuela jakin etzuela gauza obeagorik, ta iago estimatzen zuenik, nola
ezauntzea ta adoratzea Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa, guzien
Kriadore, gobernari, ta salbazalea, ta ez jentilen gisara idolo banoak. Ura
asi zelaik errespondatzen kontra, bereala sartu zekio Demonioa gorpuz-
tean, tormentatzen ta maltratzen zuela: Arriturik guziak, sanduak ora-
zios logratu zue libratzea, ta gero bera konbertitzea, ta berze anitz arren
exenpluareki. Atenasko obispoak milagroa ikusirik, ta sanduaren bear
bekalakoa, nai zue niondik albas gelditu bere elizarako: baña Jangoikoa-
ren borondatez etze orduan erresolbitu, baizik itzulirik bere sortuerrira
enpleatzen ze defendatzen pobreak ta miserableak Abogatu gisa, guziek
amatzen ta estimatzen zutela: zenbat ordea bere Amak?

2. Baña ezaundurik munduaren banidadeak ta peligroak, erresolbitu
ze Krisostomo erretiratzerara monasterio batera. Usmatu zuelarik Amak



egin zition otoiak, negarrak, promesak, porfiak, eta gauzak geldiarazteko bereki, nork explika? Baña deitzen zuelaik berze alde Jangoikoak beregana mundutik apart, segitu zue Jaunaren boza. Konbentuan berriro estudiatu zue santidadean ta xakintasunean: eskribitu zitue libru admirableak sazerdozioaren gain: zebatu ze orazioan Jangoikoareki komunikazioan: kontent zego Jangoikoareki sollik an: baña Jangoikoak nai zue paratu nola argia kandeleroan argitzeko munduari. Ango superioreak orazioan zegolaik ikusi zue bisione gau, nola bi gizon txuris bestituak ellegatu ziren Kristostomoren gana, zegolaik au ere orazioan: eta erran zioten, gu biali gaitu Jesu Kristok zuregana: eta batak paratu zion eskuan libru bat, ziola, tori Jangoikoaren dono gau, ta entenda ni nai zela Juan Ebanjelaria egon nitzana erreklinatirik Jesus onaren bularretan: oneki aisa entendatukotuz Eskritura Sagratuak. Berzeak, zein baize S. Pedro, eman zitio bi giltza eskura, ziola, ni naiz konfesatu nuena Jesu Kristo Jangoiko biziaren semea; zuk izanen duzu potestade barkatzeko bekatuak, ta orren señaie dire giltza gebek. Sandua zego burua kurturik lurrera ziola, ez naiz ni digno alako gauza andien. Eta aiek animatu zute, eta besarka eman ta itzuli zire zerura. Milagroeki ere asi ze Jangoikoa ia ordutik agertzen sandu gau, bat izan ze, ezi leon temenario batek iten zuelaik galmende arrigarria jendeetan, sanduak paratu zue leku batean gurutze bat; eta onen peko aldean aurkitu ze leona il gogoturik biramonean.

3. Ikusirik billatzen ta honratzen zutela an jendeek, eskapatu naiez sartu ze eremua barna, non bi urtes egon zen bakarrik Jangoikoareki goatzerik gabe, sillarik, maiik, ta argirik gabe: baña sobra penitenzias heriturik eraman zute ziudadera kuratzeko. Kuratu ondoan ordenatu zue Obispoak Diakono, ta borz urtes ofizio gontan enpleaturik itzuli ze berriz eremura. Bitartean ilik obispo gura, sartu ze arren lekuan S. Flabiano, zeñi Aingiru batek manatu zio zoeiela Krisostomo zegon lekura, ta ordena zezala sazerdote, zeren bear zen izan ura S. Pablaren gisara eskojitua. Errebelazio bera izan zue S. Krisostomo berak ere, eta zegolarik ortas konfuso turbaturik, aditu zue boza bat zerutik erraten ziola, nork dezake debeka, eztaien egin Jangoikoak nai duena? Obispoak joanik, ta kontaturik agitu zekion eraman zue S. Krisostomo Antiokiara, eta ordenatu zue sazerdote. Konsagratzerakoan jautsi ze uso txuri eder bat, eta baratu ze ordenatu berriaren buruaren gañean señaletako. Bereala Espiritu sanduaren tronpeta bekala asi ze predikatzen alako mintzaera, alako espirituareki, ain miragarriro, ezi ez solamente deitzen zute urresko agoa, baitare Jangoikoaren agoa, ta Kristoren agoa. Flabiano obispoak nai zue utzi bera elejiturik bere ondorengo dignidade gartan, baña etzue konsentitu Kri-

sostomok. Bere antsia guzia ze irabaztea arimak Kristoren. Bere arrazio, mintzaera, ta milagroeki konbertitu zue anitz bekatari, ta anitz Zereje Antiokian ta andik kanpoan, amabi urtes.

4. Iltze orduan Nektario Konstantinoplako Arzobispa, ta Patriarka, non bizitzen zen enperadorea Arkadio, zeñek ta guziek nai zute dignidade gartako Krisostomo, distingitua zena nola izarren erlean iruzkia. Ortako enperadoreak eskribitu zio Flabianori, bial zezola bere sazerdotea Krisostomo Konstantinoplara konsagratzeko Patriarka. Agitz aflijitu ze ta kongojatu sandua, notifikatu ziotelaik enperadorearen borondatea, nola kargatu bear balioite oian bat bere gañean: bada jendea alborotatzera zoeie ez usteko atratzera bere ziudadetik, ta paratu zuzte guardiak ere debekatzeko. Baña injeniatu zue enperadoreak mañas atra zeien atxekia on bateki; orduan arrapatu ta eraman zute nai etzuela, ta konsagratu zute. Bereala guzien Artzai ta Aita bekala asi ze consejatzeten, erakusten, korrejitzen karidade ta balore andiareki. Nola egiten zion Jangoikoai zerbitzu ona, ala kausatzen zio etsaiari inbidia, ta ira rabioso. Orgatik au asi ze persegitzen lenik herejeen medios, gero Kristio on idurien ta obispoen medios. Botarazi zitue herejeak ziudadetik, baña gero eskaturik aiendako tenplo bat Gainak kapitan jeneralak, etzelaik enperadorea trebe ukatzera, sanduak ukatu zio, ta ixilarazi zue enperadorearen presenzian: baña arrek mendekus hein biali zitue soldadoak, berze hein joan ze bera su ematera palazio inperialari; baña ikusi zire Aingiruen tropak defendatzen: ori etzuketalaik, atra kanpora, ta egiten zitue kalte andiak errietan. Etze nior, ez enperadorea ere atrebitzen erresistitzera, ezeta ere joatera eskatzeko miserikordia. Ofrezitu ze sandua bera ortara, naiz zekien beraren kontra zegola iago, ukatuagatik tenploa. Jakin zuelaik Gainak eldu zekiola mintzatzera Krisostomo bera, admiraturik alako baloreas ta santidadeas, atra zekio attento errezibitzera, paratu zekio belauriko, apatu zio eskua, ta paratu zue bere buruaren gañean, eta bere humeei manatu zioite egiteko on beroi; eta baketu ze osoki. Agitu ere ze, hereje batek ia konbertiturik fede katolikora S. Krisostomoren medios, nai zue konbertiarazi bere andrea ere, ta etzuketalaik logra, meatxatu zio utziko zuela, ta etzela ia biziko arren konpañian. Emastekiak itxuras obeditu zio, ta señaletako joan ze katolikoan elizara komekatzera bekala, baña arturik lenik herejeen ogi konsagratua agoratzeko ura sakramentuaren lekuan. Ellegaturik komekatzeko lekura senarrareki artu zue agoan forma sagratua, ta erretiraturik graziak emateko bekala, atra agotik ta eman zio neskatoari, ta artu zue herejeen ogi gura komekatzeko arrek; baña aurkitu zue arri biurturik: arriturik



bera milagro goneki, ta kontu emanik S. Krisostomori, konbertitu ze egiaz, eta sanduak guardarazi zue arri gura elizan memoriatako.

5. Trabaju iagokoak pasatu zitue Kristio falsueki, zeren erreprehenditzen zituen bizioak, prinzipalki kodizia billaua, zein jabetu zen enperatrizaren biotzas ere: zein erresumindurik, zeren sanduak mintzatu zion bi alargunen fabore, erresolbitu ze persegitzera sandua berze Jaun erreprehenditueki bateo: bilduarazi zute konzilio bat zenbait obispoena, zeñetaik batzuek ignoranziaz, berze batzuek pasiones eman zute sententzia desterratzeko sandua. Atra ze ixil ixila sekretoan, beldurrak gora zeien jendea beraren kasos: baña jakin zelaik, ainberze pena izan ze jeneralki, ezi kasi arrikatu zute Teofilo Alexandriako Patriarka, zeñi botatzen zioten kulpa. Geroxago segitu ze terremoto edo lurraren ikaradura bat lotsagarria Konstantinoplan, oiuz klamatus jendeek karrikaetan zela Jangoikoaren azotea, zeren desterratu zuten sandua, de manera, ezi sosegatzekos bear izan zue enperadoreak itzularazi sandua, zein errezibitu zuten nola zeruko Aingiru bat aleganzia andiareki. Baña etze aldatu kondizios; segitu zue egiten bere ofizioa sandu bekala. Berrero goratu ze tenpestadea; berrero Jangoikoaren permisios desterraturik eraman zute urrunago, eta sandua joan ze kontent padezitzeas justiziagatik: eta bere trabajuen erdian eskribitu zue prediku admirable gura progatus, eztuela niork kalterik, baizik bereganik, adiarazis bekatuak gabe trabajuak, Jangoikoaren grazian ta amorean eztiela kalte, baizik probetxu ta gustoso.

6. Ellegaturik bere desterruko lekura, baize Kukuso, nola eztaiken egon iruzkia argitu gabe, sandua enpleatzen ze erakusten angu jende gaiei: eta ainberze irabazi zue Kristoren, ezi bear izan ze konsagratu zazpi obispo berze sazerdoteen gañetik Kristio berrien azitzeko. Baña beraren kontrarioek akabarazi naiez atrarazirik andik eraman zute aratago, ta aratago, leku extremoetara, pasarazis biajean milla neke pena berarias, naiz zegon heri: baña lien gorputza naizbai, gogoa zego bizkor: naiz ez medikurik, ta kuidazalerik lurtean, bisitatu zute zerutik S. Pedrok ta S. Pablok, erregalatus angu erregaloeki. Elletatu ze nolapait erri batera, non zegon ortzirik S. Basilisko obispo ta Martir izana: apareziturik onek erran zio, anima zaitte ene anaia Juan, eta alegra, ezi biar biok aurkituko gara leku batean. Eta bezperan abisatu zue angu kuidazalea, presta zezan leku sanduaren, eldu baize ia. Zeruko prenda on gebeki sanduak eskatu ziote guardiei, nai bazute baratu an: aiek etzutela nai, zeramate aratago: baña ia akabatzena paraturik bear izan zute itzuli arara, non errezibiturik sakramentuak, emanik limosnas zituen pixkak, konsolu ta sosegu onean entregatu zue bere espiritua Jangoikoaren eskuetan. Il omen ze Kristoren 407

urtean, urriaren 14.an. Ondorean erori omen ze Konstantinoplan arre-rauntsi bat ain lotsagarria, uste baizute ondatzen zela guzia arras: ta laur egunen buruan il omen ze enperatriza. Gero urbilen enperadore Teodosio gasteenak biali zitue bere Jaundiak, eramateko sanduaren gorputza Konstantinoplara, baña ezin mogitu zute bere lekutik niolaterere. Ori jakinik enperadoreak eskribitu zio, nola bizirik balego bizi, karta bat txoil humila ta atentoa, zein paraturik sanduaren petxoaren gañean, ta guziak belauriko inguruan eskatzen, azkeneko utzi ze mogitzera, ta eramatera Konstantinoplarat. Prebeniturik errezebimentua, atra ze enperadorea bera bere itsasonzian: arturik an gorputz sandua, goratu ze aizeketa bat errua, nastekatu itsasoa, ta barratu baizitue onziak arat onat: eta sanduaren onzia joan ze baratzera heredaje gartan berean, zeñen kasos erreprehenditu zuen enperatriza, mostratus Jangoikoak anitz maneras bere sanduaren amorea, naiz utzi zuen padezitza. Andik eramanik triumfoan depositatu zute bere tronoan Konstantinoplan Kristoren 438 urtean: andik gero pasatu zute Romara, non baitago S. Pedroren tenploan. Ala Jangoikoak honratzentu bereak. Zirilo obispo bat izan zena sanduaren kontra iltze usteldurik oin bat, ta berzea usteltzen asirik: eta ziote izan zela Jangoikoaren kastigoa. Teofilo Patriarka izan zena prinzipala sanduaren kontra, ellegaturik eriotzera, egon ze agonian iltzen, ta ezin iles, alik eta presentaturik sanduaren imajina, egin zion erreberenzia eskatus barkazio. Arren elleba S. Zirilo eliza bereko Patriarka zegolaik gaizki informaturik, ustez azertatu zuten bere osabak eta berzeek desterratzean S. Krisostomo, etzue nai errezibitu ta aipatu sandu bekala mezakoan. Bear da adbertitu S. Zirilo gau dela Presidente izana Efesoko konzilio jeneralean 431 urtean deklaratu zelaik Maria Santisima dela ta deitu bear dela Jangoikoaren Ama. Agertu zekio bada San Krisostomo azote bateki eskuan bota nai zuela bekala bere elizatik, eta Ama Santisimak eskatzen ziola utzi zezala beraren amorez: eta utzirik ezaunaraziola zela sandu Krisostomo. S. Inozenzio I. Aita Sanduak exkomekatu zitue enperadorea ta enperatriza, desterratuagatik S. Krisostomo. Ezaundu zue enperadoreak arrazioa ta justizia, ta logratu zue barkazioa. Sandu gontan da agitz notagarri Jangoikoaren juizio justoen sekreto admiragarria permititzean persegi zezaten, ez gaixtoek solamente, baita onek ere ta sanduek, labratu ala korona preziosoago berzeren engaña zela medio. Notagarri ere da bere Jangoikoaganako amorearen gañetik petxo andi gura, koraje ta arimo sosegatu firme gura, segitzeko zuzen-bidea, naiz mundu guzia kontra, segi, zetorrena zetorrela. Baitare bere mintzaera abasto elegante gura guziei kuardratzen zaiotena, ain gora, ain apal, ain alde guzietara prest, nola esnes



edo eztizko iturri bat. Izan bidezuela sakramentu aldarekoari debozio espeziala da ezaun eskribitu zituen predikuetan arren gain. Kontatzen dute mezako misterioen bitartean ikusten zituela Aingiruak erreberente inguruan, eta zela gure Jaunaganik erregalatua askotan: eta bein faltaturik erregalo gura zerutik, examinatu ta ezin aurkiturik kausarik berebaitan, lukro ere jakin zue izan zela, zeren bere Diakon batek egin zuen beiratze arin bat emasteki bati elizan. Exenplu ona da zein garbi naia den gure Jauna ona. Kastigatu zue arren kulpa, ta &.

Izotzillaren 29.an San Franzisko Sales Obispo

1. Badire elizan sanduak gure denboratik urrun izanak, ta badire urbil izanak ere: ebetaik bat da S. Franzisko Sales Saboian jaiola 1566 urtean buratso nobleetaik. Ze ederra gorputzes, ederrago ariman, atento, afable, jeneroso, obediente, ta amable, nola Aingiru bat deitzen zutena. Estudia-tzen zue adinari zegokiona atratzeko jakintsu, zeramalaik alzinean beti jakindearen prinzipioa, baita Jangoikoaren beldurtasuna. Konfesatzen ze asteoro gastezutuan: ikasi zue orazio mentala egiten; eta ala Jangoikoaren inspirazios Ama birjinaren alzinean egin zue boto guardatzeko birjinida-dea, ortako arturik Patrona Birjina Santisima. Bere estudioetaik artu zue etsaiak eskaida, galarazteko, al bazezake, edo tropezarazteko gaste sandua. Leitu zue guti direla eskojituak, eta anitz galtzen direnak. Asi ze kabila-tzen, bidea zerurako zein mear ertxia den, ta sollik salbatzen direla pre-destinatuak; eta Demonioak iduriarazten zio, etzela bera predestinatuetaik. Konsolatzen zue konfessoreak, ta bere esperanzak ere aldardez: baña andik guti berriz aflijitzen zue pena garren aranzeak, ai! zer izanen da nitas? Ai bateki gau ta egun penaturik bizi naiz: Ai ene Jauna Jesus, salba-tuko ote naiz? Zebila triste ilun kolore gaizturik, ez lorik apenas, ez gus-torik jan edo edanean, ez deustan ere. Bein sarturik tenploan Ama birji-naren kapillan goart eman zue ol batean eskribiturik S. Agustinen orazio gura Memorare & Bereala bildurik bere arimaren indar guziak erran zue, *Oroi bedi, o piadosisima Birjina Maria, eztela sekulan ere aditu, orrengana akudi-tu duenik, orren anparoa eskatu duenik bakotxik ere izan dela desanparatua: Ni konfianza goneki animaturik berorrengana eldu naiz, berorren alzinean nago otoi ta otoi: ez nazala desanpara ni, o Jangoikoaren Ama ona, baizik adi benaza, ta egin bezada grazia.* Erran zue au negarra zeriola: eta berartan, ala nola desegi-ten diren iluntasunak iruzkia atratzeareki, bereala kendu zekio biotzaren tristura, ta bete ze alegria gozoas; eta iduri zekio erori zekizkiola gorpu-tzetik eskamak bekala, eta ala Ama onaren faborez gelditu ze sosegaturik sereno alegre konfiaturik ederki.

2. Sei urte pasaturik estudiatzen Parisen, itzuli ze sortuetxera; Amak ez luke nai utzi bere konpañiatik ain seme on amablea, baña Aitak nai zue iganarazi munduko dignidadeetan gora, orgatik biali zue Paduara estudia-tzera legeak. An fortunatu zekio Aita espirituale ta konfessore bat sandua, zeñek segiarazi zio Teologia Sagratua, adibinatus bear zela izan obispo, ta



arimen zixtari guapoa. estudio prinzipalena ze sandutzean arima: prinzipalki alke bat birjinala, modestia, ta kastidade garbia mostratzen ze agerrian ere, aurpegian ta begietan ere. Deshonestoek sarnosoen gisara uste zute apegatu arri beren gaitza: ortako billatu, ta alokatu zute emasteki bat erakutsis zer ta nola in bear zuen mutil sanduareki: au eramanarazteko arren etxera, engañatu zute gezurres, etorri zela Doktore famatu bat, ta preziso zela, egitea bisita. Joan ze aieki, ta galdeginik Doktore Jaunas, Damak iduriarazis arren Andrea zela, errespondatu zue atra zela etxetik, baña itzuliko zela fite, nai bazute etxiden: jarri zire, ta Damak iduriarazis juizio ta honestidade, nola balitz sanda, asi zue konbersazio on bat sanduareki: bitarteo lagunak etxea ikusteko atxekiareki zoezi jaikis bata berzearen atzetik, ta utzi zuzte bakarrik biak. Orduan hazienda gaixto garrek usatu zitue bere maña ta tentabide gaixtoak Deabruak erakustentuenak. Sobresaltatu ze mutil honestoa, ta erretiratus laster serio erran zio, uste nue nik negola jardukitzen Andre birtuosa bateki, baña orai iduri zaida nagola urdategi batean, ta on dela urde bat. Irri egin zue arrek, eta segitu zio itz eta akzione itsusies: sanduak lixtu botarik aurpegira utzi zue prisaka iges atrarik etxe gartaik. Lagunak atra zekizkio bidera, nola deus etzekitela: baña sanduak akar in ziote alako maldadeas: eta despeitu zitue betikos alako lagunak. Jakin ze lanze gau ziudadean, eta izan ze batzuen alkai-zun, berzeen exenplu, ta guzien admirazio, beiratzas gaste gura ain guzis ederra kanpotik eta barnetik. Berriz ere izan zue pelea gisa gau, eta biktoria oroat.

3. Etze orgatik egin ausart konfiatu, bai beldurti humilago, jakinik dela *kastidadea Jangoikoaren donoa, ta ez dezakela izan gizonak, ezpadio ematen Jangoikoak*. Eman ze egitera iago orazio ta penitentzia: anitz lan, guti jan ta edan: lo gutiago, luzeago orazioa gauoro: ala kolore gaiztu, flakatu, ta erori ze heri. Ia eriora urbildus, etze lotsatzen, ta ez tristatzen: beiratus bere Aioa negarrez, erraten zio, Jauna, ez negar egin, ezi Jangoikoak manatzen duena bear da obeditu alegreki, jakinik gure Aita dela, ta gure ona nai duela. Ni nago prest oroat iltzeko, oroat bizitzeko, nola duen plazer berak, ezi berarena naiz, dela bizi, dela il. Enkargatu zio enkomentatzea arren arima, ta gorputza entregatzea barberei, egiteko anatomia, protxatzeko zerbait ilas geros, iaketa bizian etzen izan deustako protxal. Admiratu ze Maestraua, ta iago onetsi zue andik alzina. Sendaturik Jangoikoaren grazias graduatu ze Doktore ogeitalaur urtetan. Aitak nai zue munduko, baña Aita zerukoak nai zue Elizarako. Ordenaturik orden sagratuas manatu zion obispoak predikatzeko Korpus Kristiren festan. Zegolaik orduaren beira aditzeas sollik ezkilaren señailea, de repente eman

zio alako ikaradurak, ezi sukarrak arturik preziso izan zue botatzea goatze-gañean. Jangoikoagana goratus biotza: erran zue, *Jauna, noaie predikatzera obedienzias; berorrek plazer barin badu, eman bezada grazia, ezperen, pazienza*. Sentitu ze istantean animaturik, eta predikatu zue ain miragarriro, ezi ze ageri Jangoikoa mintzatu zela arren agos, ta ura zela propioiki Jangoikoaren itza. Guziek in zute Juizio, eskojitua zela Apostolutako; espezialki obispoa zego zoraturik kontentus. Ordenaturik sazerdote guzia enpleatzen ze arimen onetan anitz maneras. Paratu zue bere konfesonarioa elizako atariaren ondoan: an egoten ze goiz guzian pazienziaren alkiari aditus guzien konfesoioak, espezialki pobreenak; eta beraren erranes mogitzen zirelaik egitera negar, ematen ziote bere pañoloa txukatzeo: eta itsuak, eta maingiak, eta malderrak eramaten zitue eskutik komunioneo lekura. Denbora gartan

4. Dominatzen zue herejiak an urbileko probinziaetan. Determinatu ze joatera desengañatza jende gaiek Jangoikoareki bateo. Zenbat trabaju pasatu zue, zenbat peligro biziaren, zenbat aldiz libratu zue Jangoikoak miragarriro? Konbertitu omen zue iago ezi irur ogei ta amar milla arima fede katolikora. Ia Jangoikoak nai zue paratu Elizako kandeleroan eskojiturik Obisopotako. Joan ze izatera examinatua Roman anitz Kardenale, anitz Arzobispo ta obispo, ta anitz berze Persona jakintsuen alzinean: Agertu ze humil modesto sereno: errespondatu zue guzietara klaridade, sosegu, ta satisfakzio osoareki. Aita Sanduak berak gusto andiareki galdegin zio difikultade bat: errespondaturik bere iduritua, erran zio Aita Sanduak, ene humea, ez nue nik ala entendatu. Orduan arrek, bada nik ere eztut nai ala entendatu, baizik nola nai duen orren santidadeak. Emen Aita Sanduak jautsirik bere tronotik artu zue besarka ziola, *edan zazuz zeure iturritik, eta emazu edatera jendei*. Admiratu ze Roma alako humiltasunas alako jakintasunareki batean. Humiltasun, ta modu afable gura izan ze nola zeboa, zeñeki arrapatzen zituen arimak Kristoren. Arreki bateo xakintasuna, mintzaera, ta oraziotik atratzen zuen sua. Bi itzez, *Jangoikoaren grazia ta sanduaren grazia uniturik* zire iten zuztenak prodijio admirableak. Agitz kuidatzen zue eskojitzas sazerdotetako bear bekalakoak. Lenbiziko asi zelaik ordenatzen, ordenatu zue bat Jaunaren ta bere gustokoa. Ondorean elizatik atratzean goart eman zue nola zegon kortesia egiten noribaiti atra zeien lenik, etzelaik an ageri nior. Deitu zue beregana, ta galdegin zio, ia nori egiten zion kortesia. Errespondatu zio humil, nola Janpikoak egin zion grazia ikustas bere Aingiru guardiako: eta lenago au joaten zekiola alzinean noranai zoeien, eta egun nola ordanetu bainaz sazerdote, gelditu da atarian Aingirua, pasa naiela ni lenik; orgatik



porfiatzen nio nik pasatzeien bera len bekala. Admiratu ze sandua sazerdotearen dignidadeas, zein errespetatzen duten ala Aingiruek.

5. Jangoikoaren probidenzias kuidatu zue S. Juana Franziska Fremioten arimas; lagundu zio fundatzen Bisitazioaren errelijioea, eman zitue erregla ta ordenanza bear bekalakoak segitzeko beren fin prinzipala, baita bisitatzea heriak ta beartsuak, arimen probetxu andiareki. Ia aspaldirik Jangoikoak faboratzen zue lagundus milagro klaroeki. Guzieta-ko ze sandua, eta berak etzue erreparatzen deustan ere ongi iteagatik. Baña gorputzak etzezake soporta ainberze Mn, neke, ta karga. Asi ze betetzen gaitzes anitz maneras. Eta berak ere ezaundu zue urbiltzen zela plazioa joateko emendik. Nai zute erregek eta Karlos Emanuel Dukeak asisti zezan aien erlean ajustatu bear ziren itekoetan. Etzekie ukatzen gauza on zenik. Asi ze despeitzen betikos bereetaik. Monjatak zegon aur bati, zeñi len erran zion etzela ellegatuko amalaur urtetara, orduan despeinan erran zio, a Dios, ene alaba, zerurano ezgara ikusiko berriz. Egnik bere biajea, zelebaturik eguerri egunean irur mezak: ia langiadura andiareki S. Juanen egunean erori ze goatzean: eskatu zue oliadura: orduan ez, baña gero gauasko oren batean eman ziote. Sufritu zitue sua-leak buruan pazienza admirableareki, naiz bazekien etzirela izanen protxal. Gero jarri ze iltzen, eta letania bitartean despeitu zue arima sanda gura inozentean egunean, Kristoren 1622 urtean adinaren 55.an.

6. Ilas geros apertu ze zenbaitei glorioso eder miragarriro, eta Jangoikoak manifestarazi du anitz milagro egines bera dela medio: baña milagrorik obena da egina sandua bera ain guzis ona, manso afablea ta amazalea, Jangoikoaren ta gizonen maitea: au da diona Elizak egin zena guzia guziendako: aisatu zuena zerurako bidea, ta suabetu Kristoren bustarria, ta arindu karga: nola? Jesus onaren amore gozo gozoaren birtutez. Bere eskribitu zituen obra eder guzien buruan beti paratzen du lenbiziko itza, Biba Jesus. Amore goneki dulzatu zekio ainberze biotz jeneroso gura, tiratzeko jendeen biotzak Jesusengana. Onek amolsuki iago arima irabazi zue ones on, ezi ez asko misionariiek oiuz eta meatxus. Onek guzia iten zue amarez, amorean, ta amorearen. Biz bedekatua Jesus ona ala apegatu ziona bere jenio ona.

Izotzillaren 31.an San Pedro Nolasko Fundadorea

1. S. Pedro Nolasko jaio ze Franzian erri batean Karkasonatik urbil jendaki noble piadoso batetik. Logratu zute hume on gau S. Tiago Españako Patronoaren medios, nola seguratu zioten andik itzuli zen Peregrino batek. Eta jaio zelarik, agitu zire señale prodijiosoak, Aingiruen musikak, argitasun zerukoak, pobre guzien biltzea etxe gartara nola etzekitela, jendearen admirazioa ta alegranzia. Elizara bere Ama atra zen egunean aurrareki, zego meza erraten sazerdote bat, ta orate fratres erran bear zuelaik, trukatus itzak Jangoikoaren borondatez, erran zue, *hic puerit magnus coram Domino. Ecce propugnaculum ecclesiae, eta egenorum solatium*: nai du erran, aur gau izanen da andia Jangoikoaren begietan: ona Elizaren defenza, ta beartsuen konsolazioa. Kunan zegon batez, erleek fabrikatu zute bere eskuttoan ezti-orratze bat, adiarazteko amore karidadesko izanen zuena, erremediatzeko beartsuak. Esnean zegolarik, alegratzen ze ikusteas pobreak, eta despeitzen bazute norbait limosnarik gabe, negar iten zue, eta ixilarazteko modua ze ematea limosna: ta batzutan etze ixiltzen eman arteo berari, berak emateko bere eskuttoas, eta ikusis pobreak, konsolatzen ze, ta nai zue pasatu aien besoetara: guziok baitire señale gero izanen zenaren. Ezaunzen zitue Jangoikoaganik herejeak, ta etziote beiratu nai ere, eta alako aidereen batek nai bazio festa egin, edo artu besotan, itzultzen zue atzerat aurpegia lotsarriturik bekala negar egines: Kontra berriz, ikusi orduko sazerdote katoliko bat, asten ze irris indarka arren besotara joan naiez. Alako akzione txipi gebek aur ain txipian eztiore prodijio txipiak.

2. Aur andixkoa in zelaik, sazerdote eman zioten bateki azitzeko, ikasi zitue letrak ta birtuteak. Miragarri ze bere modestia, juizioa, geldi ixila, humiltasun, obediencia, ta guzien gañetik karidadea. Limosna ematen zen garaiean berak preziso bear zue egon presente, berak nai ziote partitu, ta erreztatzerakoan paratzen ze, ta pararazten zitue belauriko, eta aurrei berak erakusten zitiote orazio ikasi zituena, ta obeki errespondatzen zutenendako guardatzen zue bere almorzua ta merendua: eta zenbait aldiz itzultzen ze tresenaik gabe pobrettoei emanik. Sazerdoteren bat opatzen bazue, paratzen ze belauriko, ta apatzen zio eskua: herejerik etzue ikusi nai, eta etxera joaten baze alako norbait bazkaris, mutikoa beti apart, etzukete arrimarazi. Denbora gartan goratu zire Ama birjinenen kontra



Albijenseak ukatzen zutenak gelditu zela beti birjinik. Defendatzeko birjin Amaren gloria goi, ta konbertitzeko hereje gaiek, joan ze leku gaietara S. Domingo Españatik, zeñek Jangoikoaren argis ezaundu omen zue mutil sanduak gero inen zuen probetxua Españan, ta erran omen zue, ojala nik atra banez ainberze probetxu Franzian. Il zekizkio Aita lenik, Ama geroxago: bear izan zue gelditu kuidatzen etxea ta hazienda. Aideek ortako nai zute ezkonarazi: Demonioek nai zute eroriarazi aragisko tentazioeki: sandua guartzen ze orazios ta humildades: eta ertxitzeko golpe batez atari guziak etsaiei Jangoikoaren inspirazios egin zue boto guardatzeko birjinidadea bizi guzian, artus Ama birjina Patrona kunplitzeko. Jangoikoak adiarazi zue sakrifizio goi zenbat kuadratu zekion, zeren ezi bereala bere gorputz garbitik asi ze exhalatzen atxon prezioso gozo bat betetzen zuena etxe guzia fraganzia admiragarriak: alik eta logratu zuen arteo libra zezan honrabide gortak. Etze orgatik deskuidatzen bere alde-tik, aumentatus orazioak ta penitenziak, jan edan guti, ta lo eskas ta neketan egines: eskapatus okasio ta peligroetaik; beñere ez beiratus emastekiai aurpegira. Orgatik gloriako erregina Maria Santissima kuadraturik asi zekio egiten zenbait bisita zerutik.

3. Barratu ze herejia leku gaietan sobra, ta ezin erremedia iten zuzten agrabioak Ama birjinai bere imajinaetan ere, pena ta aflikzioaren utses heritu ze kasi eriotzeraño. Akuditu zute aideek izan naiez heredero: eta sanduak egin zue publikoki bere testamentua itz ebeki, Gelditu nitzalaik buratsoak gabe, artu nue Aitatako Jesu Kristo ene Redentorea, Amatako beti Birjina Maria, anaiatako pobreak: eta bada anaiak diren len, ebek bear dute izan heredero ene ondasun guzien. Etzekiote kuadratu aideei testamentu gau, bai ta agitz Jangoikoai ta bere Amai. Gau gartan berean agertu zekio Ama dibina, eta erregalatu zue bere presenziareki, ta itz amoro-soeki erran zio, Medikuek desauziatu zaitute, baña ez nik, ezpaititut desanparatzen nai nautenak Amatako. Anitz urtes bizi bear zara, trabajatzeko pobreen ta kautiboen onetan. Eta ukitus bere eskuareki heria utzi zue sano ta sendo. Biramonean graziak emateko erremediatu zue anitz pobre, ta egin ta adornatu zitue anitz imajina Birjinaren ultrajatu zuztenak herejeek; zeñetaik aborreziturik etorri ze Españarat, bisitatu zue Monsarraten Ama Birjina, eta afizionaturik ango Monjeen bizimodu erretiratura, ikusi zue bisiones zeruko palazio ederra anitz atarieki, zeñetaik sartzen ziren asko jende-mota: aitu zue boza bat erraten ziola, ene Aitaren etxean anitz bizi-leku dire. Orreki ezaundu zue berzetako zeukala bera Jangoikoak. Barzelonara joanik bizi ze aitxaturik bere ustes, baña bere obra

onek manifestatzen zute: eta ala ziudade garrek ta errege Araguakoak D. Pedro II.a honratu zute anitz.

4. An aiturik Kristio kautiboen miseriak Moroen eratean, arturik bildu zuken dirua bere hazienda saldu zenetik, joan ze Valenziara, baizeukate Moroek, ta erreskatu zitue iago ezi irur eun Kristio kautibo, gizonki, emasteki, ta aur. Zebaturik oneki joan ze berriz ere, ta berriz, ta berriz bere kostus erreskatatzera iago ta iago: azkenean gelditu ze bere fiadore pagatzeko utzi zuena zorrean, alik eta erregek biali zuen falta zena. Denbora gartan agitu ze gerra Albijense herejeen kontra eun millataraño, katolikoetaik solamente milla oñezko, ta zorzitan eun zaldizko: eben aldetik zoezi S. Domingo, ta S. Pedro Nolasko, naiz kontrako aldetik eldu ziren bere aideak, ta Araguako errege bera. Eta diote ezi arturik bandera bat, zeintan zegon pintaturik Ama Birjina letra goneki, *Tota pulchra es Maria, et macula non est in te*, Guzia zara ederra Maria, ta mantxarrik zurebaitan ezta, pasatu zela anitz aldiz etsaien ertetik, ta eror zen zirela anitz Birjinaren birtutez. Azkenean ilik errege, ta anitz milla hereje gelditu ze biktoria milagroskoa katolikoan, solo faltaturik zazpi edo zorzi soldado. Berriz heriturik S. Pedro Nolasko, sendatu zue milagros S. Domingok. Konbaleziturik, ta itzulirik Barzelonara, ikusirik alketzen zirela bere lagunak eskatzeas limosna kautiboen erreskatatzeko, zer egin zue? Arturik eskuan Kristo guruzifikatua, noiz ta iaute egun batez zebiltzan jendeak zoraturik erakerietan, atra ze akonpañaturik pobrees karrikas karrika oiuz ziola, *Ene anaiak, gizonaren egunak dire guti munduan, ta azkena noiz den, Jangoikoak daki sollik. Asko bizi direnak orai ilen dire emendik guti; eta iltzerakoan pena izain dute gaizki epleptuas bizitzako denbora, ta plazer izain dute ongi egines. Inzagun ongi, denbora dugun bitarteo, logratzeko bekatuen barkamendua, ta bizitza sekulakoa*. Protxu anitz atra zue prediku gisa goneki, eta atratzen ze maiz gisa berean. Baña zenbait gaixtofikatuak ajustatu zute kentzeko bizia sanduari, noiz ta nola. Ortako forjatu zute armatzea diskordia, ta emanka-iduri bat arren atarietan gauaz, atrako zela baketzera, ustez, ta orduan ilen zutela. Errebelatu zio Jangoikoak aien intenzioa, eta atra ze atarira, non zegon etxideten; ellegatu zirelaik, erran zue amoltsu, Jaunak, zergatik nai naute il ni, eztiotelaik nik gaizkirik egin? Arritu zire aiek, ta eskatu ziote barkazio: eta sanduak barkatu ta besarkatu zitue gogotik ere. Berze bein eman zio batek bofetada erru bat karrikan: sanduak presentatu zio berze matela belaurikaturik, nai bazio eman berze bat. Nai zutelaik zenbaitek mendekatu, etzitue utzi, erraten zuela, Kristoren sierboak bear direla mendekatu, ez ginez injuriak, baizik sufritus, eta bera etzela etorri



honra billa, baizik agrabio; bada aurkituas geros, zela arrazio eramatea ongi. Ebetxek baitire birtute sendoak.

5. Ebeki ta ematen zition inspirazioki disponitzen zue Jangoikoak sandua fundatzeko merzedeko errelijionea kautiboen erredenzionearen. Akuditzen zue sanduak beti bere Ama Birjina Santisimaganana: eta Andre soberana, poderosa bezain piadosa Agustuaren lenbiziko egunean agertu zekio amorosa erraten ziola, bere Semearen, eta beraren gustoa zela fundatzea errelijione bat erreskatatzeko kautibo zeuden Kristioak. Abisu bera eman ziote D.n Jaime erregeri, ta S. Raimundo Peñaforti, bien konfessore zenari. Ala elkarreki komunikatus fundatu zute 1218 urte berean, Kristoren honratuko, ta Kristioen onerako. Fabrika gonon ofiziale prinzipalena, Ama Birjinas ta bere Semeas landara, izan ze S. Pedro Nolasko. Nork konta emantuen probetxuak Elizan, izantuen hume sanduak, libratutuen arimak, eta korputzak, karraiatutuen obra onak eta birtuteak? Eta nork estima mereji adiña sandua bera, zeñen medios egintuen Jangoikoak alako miragarriak? Humildade gura zimendu bekala ain barna ta sendoa! Paziencia gura ain konstantea, eramateko trabajuak ta tormentuak, ez solamente animoso, baita alegreki ere! Deseatze gura martirioa, expontitza eriotzera ainberze aldis! Liberalidadea ezta zer erran, guzia emanik, billatzea berzeetaik emateko, ta ematea bere persona preso libratzeagatik proximoak! Gorputzaren mortifikazioa, penitentzia, tratamentu gaixtoa, ta por konsigiente garbitasun ta kastidade perfekto gura! Guzien zain, prinzipio, ta bizitza den karidadea ia Jangoikoaren, ia proximoen alde nola pinta? Karidadea da amorea: amaten zue, ta ze amatua: proprioki ze gizon bat Jangoikoaren biotzekoa: bera beti plazer in naiez bere Majestadeai, ta bere Majestadea beti fabore in naiez berai. S. Pedro Apostoluak bere izenkideak faboratzen zue espezialki. Maizago, ta bear aldioro bere Aingiru guardiakoak. Zenbat aldis libratu zue gaixtoen eskuetaik, ta erioztetik? Sandu gau, izanik ain sandu, ze agitz beldur sekulako sortearen: Nola konsolatzen, nola seguratzan zue bere Aingiruak Jangoikoaren ordes! Bada Ama Birjina Santisimak maitatzen ta faboratzen zue hume maitea bekala, nola sanduak ere Ama dibina bere Ama bekala. Bear uzietan billatzen zue ta aurkitzen zue piadosa ta amorosa. Orgatik injeniatzen zue honratzea al guzian: larunbatoro kantarazten zue, ta utzi zue manaturik bere errelijionean kantatzeko Salbea solemneki: baitare *celebratzea Maria Santisimaren konzepzio garbiaren festa, zeren aitua zituen kantatzen Aingiruak misterio gonon ofizioa koruan. Eta il bear zen alzimtoan sentitzen zuelarik ezin asistitzea Konzepzioaren maitinetara, Aingiruek eraman zute korura asisti zezan.* Ta berze aldi batez egon ze Ama Birjinaren oñetan glorian bekala irur

ordus aditzen Aingiruak kantatzen. Anitz imajina Maria Santisimarenak altxatuak Moroan beldurrez aurkitu zitue beraren abisus. Anitz aldis izan ze argitua zerutik, ikasteko, ta errateko lendanik geroko gauzak eta sekretoak. S. Fernandori anunziatu zitio izan bear zituen biktoriak Moroan kontra: Eta eguna, noiz bear zen joan mundutik, oroi zeien beras Jangoikoaren presenzian. D. Jaime Araguakoa animatu zue peleatzera seguratus jabetuko zela Mallorkas, ta Valenzias: ta berze anitz alako, de manera ezi Kastelan deitzen zute Profeta Tarragona aldekoa. Azkenean Jesus gure Erredentorearen gisara izan ze anitz gauzetan kautiboen erredentore gau, eta eraman zue beregana eguerri bezperaren gauasko amabietakoan, adiarazis munduari beraren gloria agertus argisko pilare bat zeldatik zerurano, ta gorputzaren atxon &



Otxallaren 10.an San Gillermo Duke Akitaniakoa

1. S. Gillermo Duke Akitaniakoa, ta Konde Piktabiakoa, gizon abrats poderoso, lenik bekatari famatua, gero sandu glorioso (diote ebetan beneratzen den S. Feliziaren anaia izan zela: baña emengo famas landara ezta nion libruetan aurkitzen memoriarik sanda gontas, zein baitiote anaiaganik iges etorririk Amukaña anaia gorrek erdetxirik bere eskus il zuela. Eztakit on zierto; ortas dena dela) Gillermo gau izan ze gizon temenarioa, superbe azkar kondizio: gaixtotakoa. Jigante iduri bat gora, garaitzen zituena indarres guziak, ta zorzi robustoek adiña jateko bear zuena. Arma, pelea, ta emankara afizionatua, koleran su bat, ta gogor kruel piedade gabea, nola peñaskoa balitz, ta altzairuskoa. Orren gañetik ederritsusi gabeko deshonesto eskandalosoa, edeki ziona bere anaiari andrea bortxaz: eta nior ezin atrebi erratera itzik. Bizi ze Klarabalen S. Bernardo penaturik eskandalo eman zituenengatik erreinu guzian Jaun alakoak: onengatik Jangoikoai iten zio orazio, nai lioke mintzatu berari, baña etzekie non, noiz, eta nola. Denborareki ellegatu ze okasio ona. Iltze Aita Sandu Honorio II.a; arren lekuan elejitu zute Inozenzio II.a: onen kontra goratu zute zenbaitek Pedro Leon, edo Pierleon aundinaia, deitu zena Anakleto. Batzuek ta geienek segitzen zute lenbizikoa Papa egiaskoa bekala: berze batzuek bigarrena Antipapa. Egiazaren txuritzeko egin zire konzilioak eta konsultak anitz lekutan, Franzian ere bai, non S. Bernardoren konsejus ta deklarazios admititu zute Aita sandutako Inozenzio guziek, solamente ez Gillermo Dukeak bere gisako obispo bateki. Orgatik persegitu ta bota zitue bere lekuetaik berze obispo segitzen zutenak Inozenzio. Onen kasos bear izan zue sandu gloriosoak atra bere konbentutik, ta joan Dukeagana: zenbat erran zion otoies eta meatxus, ones eta gaitzes, ezin logratu zue deus nai zuenik: eta ala erretiratu ze bere konbentura triste deskonsolaturik. Baña geroxago Aita Sanduak biali zue bere Legado Gaufrido, erremediatzeko gaizki eginak. Laguntako artu zue S. Bernardo. Berriro mintzatu zio sanduak bere espiritu ta mintzaera dibinoareki: logratu zue ezaun zezan Aita Sandu Inozenzio: baña itzultzea obispo desterratu zituenak, on ez. Sandua etsiturik arrenas, baliatu ze Jesu Kristoren piedadeas ta potestadeas: sartu ze tenploan, paratu ze meza erraten, pelean Jaunareki otoiez eta negarrez: komunione-alzinean arturik sakramentua patenaren gañean, atra ze eliza-atarira, non baizego Dukea

etzeikena sar elizan exkomekaturik egonez; mintzatu zio an sebero; orai arteo predikatu diogu Jesu Kristoren ministroek, eta eztigu kasorik egin: Orai eldu da emen bere Majestadea bera betiroko sententzia eman bear diona: ikusagun despreziatuko duen. Itzebetara Jaunaren birtutez erori ze lurrean Dukea lotsarriturik abuña zeriola ezpañetaik, ta ezin atra itzik: eta bateo heriturik biotza, ta argiturik ezaumentua asi ze itzultzen akordura, ta Jangoikoagana, eskatzeko miserikordia. S. Bernardo itzulirik bere zokora, Gillermo erresolbitu ze egitera penitentzia, ta aldatzera bizimodua. Ortako nai zue billatu gizon sanduren bat komunikatzeko zer ta nola in bear zuen. Inklinatzen ze artzera S. Bernardo Maestrutako: baña alde bat, zeren urrun bizi zen, berze alde zeren iduri zekion sobra ofenditu zuela, joan ze sanduaren opinioean zegon monje eremuan bizi zen batengana. Au nola baize senzill ta ez usatua, ikusteareki bere etxolara eldu zela Dukea gizatzar gura, turditu ze, ustez eldu zen gaitzez: asi zekio akar egiten, zela Tirano bat kruela: ia zertara eldu zen arregana; izan zezala Jangoikoai beldur, ta in zezala penitentzia. Ortako eldu naiz, erran zio Dukeak humil humila, konseja nazazun. Baña ura etze nai enkargatu erakusteas: baña biali zue aratago bizi zen zar batengana. Joan ze ixil ta humil, nola baizego ia Jangoikoas heriturik. Bitarteo zar garrek izan ze errebelazio, nola eldu zekion Dukea. Errezibitu zue amoltsuki, eta aditurik nola nai zuen egin penitentzia, animatu zue zar sanduak ederki, ta erran zio, zoeiela bere palaziora, ta egin zezala al guzia limosna, ta niori ez erran intenzio artu zuena, baizik guardatu sekreto, ta itzuli zeie la beragana alako egunean iganik zaldirik obenean. Itzuli ze Dukea etxerat, erran bekala: bitarteo monjeak deiturik arotz edo zerrajari bat inarazi zio loriga edo peto bat burriñaskoa bere lotzaki burriñaskoeki, ta zetorrela egun artako etxola gartara.

2. Ellegaturik eguna, Dukea iganik zaldian ongi prestaturik, nola bali-doei gerrara, ellegatu ze monjearen zeldan: aurkitu zue an bere monjea, ta arotz gura instrumentu gaieki. Diosalea eginik elkarri, Monjeak Jangoikoaren espirituas errebestiturik erran zio tieso, nola egin zuen sobra maldade, nola mereji zituen infernuko pena eternoak, nola Jangoiko onak esperatu zion bere piedadez, eman zezon satisfakzio in zition agrabioes bere ariora: zeren ezi, Jauna, erran zio, anitz engañatzen dire ustez edozein penitziareki purgatzan diren bekatu enormeak, eta oroat sazerdoteak ere ustentuztenak joatera infernura engaño gorreki. Berorrek maite badu bere burua, ar bez ene konsejua; obe du pagatu mundu gontan, ezi an gero eternidadean. Barua da on, domatzeko gorputza: orazioa, sendatzeko arima, palakatus Jangoikoa: limosna berriz guzietako da. Eman bez



duen guzia pobreei: para bez burrinasko xupon gau, ta oin urtuxian bido-eie Aita Sanduagana konfesatus beraren oñetan bere gaizki egina ongi penaturik, eman dezon absoluzioea, ta ken dadien eskandalo emana munduari. Orazio in bear duenas beti Jangoikoai eztiot deus, ezi berak, ta bere bearrak erakutsiko dio.

3. Ageri ze Jangoikoa mintzo zela arren agos, ezi ala aditu ta obeditu zue, nola Jangoikoak berak manatu balio agerrian, edo Aingiruren batek beraren ordas. Bereala edeki zitue bere tresena zirikusko arrullo gaiek, eta paratu zue larruaren gañetik peto gura lagundus Monjeak ta arotzak, ta seguratus amar kateeki ain fuerte, ezi sekulan etzeiken lazatu: buruan morrion edo txapela bat burriñaskoa. Gisaontan armaturik penitente gisa, graziak Monjeari emanik, ta eskaturik bedeizioa, itzuli ze etxera, eman zue limosnas al zuken guzia, ta disponiturik gañarakoas, joan ze ones Aita Sanduagana, zein diote zela orduan Eujenio III.a S. Bernardo-ren Diszipuloa izana. Presentatu zekio ala penitente humil negarti, ta bota zekio oñetan ponderatus bere gaizki eginak, eskatus Earkazezkion, bada ain piadoso zela Jesu Kristo, zeñen Bikario zen bera. Lotsatu ze Aita Sandua ikusirik gizatzar gura ain temenariora bere oñetan: galdeginik nor zen, ta aiturik zela Gillermo Duke Akitaniakoa, iago lotsatu ze, ta erran zio, ezpada diona, ta etorri bada ene engañatzera, begira eztaikion erori Jangoikoaren maldizioa: baña barin bada diona, nola iduriarazten da penitente, izanik ain gaixtofikatua. Badakit dela Jangoikoa guzis poderoso, ta otsoak dezazkela itzuli axuri, baña eztaikit egin duen orreki alakorik oraño, ezpadut ikusten berze progurik. Aparta eneganik, ezi nik eztaikit nor den, ta ez zer egin. Etze turbatu Gillermo itz ebeki, baizik iago humillaturik erran zue, badakit ene bekatuek mereji dutela on ta iago Pena, eta orgatik etorri naiz eman naiez satisfakzio, mana dezadan edozein penitencia, ta eman bere bedeizioa, ezperen, eskatuko dio Jangoikoak kontu arima gontas, nola ardi galduas. Beraxtu ze Aita Sandua, ta urrikariturik ia biali zue Jerusalengo Patriarkagana, bere partez onek in zezon bear zen guzia.

4. Oneki Gillermo konsolaturik, ta Aita Sanduari oña apaturik, joan ze Jerusalem. Patriarka gizon sandu izanas landara ze Dukearen nirabe izanaren semea, ta orgatik ere Jangoikoas geros errezibitu zue agitz ongi, absolbitu, ta animatu zue ederki; ta nai zue iduki bere etxean, baña etzue nai ia erregalorik Duke izanak len, ta orai penitente zenak. Inarazi ze an urbil etxola-iduri bat, non ertxirik egon omen ze bedratzi urtes penitencia erruan, bere alimentu ogi beltz, ta ur sollik bein egunean; bestimenta peto gura ta silizioa: goatzea lurra; bururdikoa arri bat: gabetea tellatua. Gau asko pasatzen zitue orazioan negarrez golpatas bularrak; ta ia etzue

iduri lenekoa deustan ere, baizik gizon bat berze mundukoa. Ia Jangoikoa onak erregalatzen zue, ta bialtzen zitiu Aingiruak bisitatzera ta konsolatzera. Oh! zein egia den, maite badugu, maite gaituela! Zegolaik ala atzendurik mundu guzias, etzeude artas atzendurik bere izanak. Billaturik alde guzietaik gero ere aurkitu zute Jerusalem en etxola gartan. Admiraturik ta lastimaturik in zitioten otoiak, dilijenziak, eta mañak, itzularazteko bere palaziora, nork explika? Baña sorkin ze sandua ia, ez aditzeko munduko itzik. Libratzeagatik tentazio goietaik atra ze Jerusalem sekretoan: baña Jangoikoak adiarazteko on guzia datorrela Jangoikoaganik, permititu zue apegatzea biotzean bereen erranak sobraxko ere, ta deskuidatzea tentazio gartan. Ellegaturik Italiara peregrinazioan aurkitu zue Luka deitzen den lekukoak gerran zeudela inguratzen kontrarioen fuerte bat ezin arrapatus. Bera nola baize soldado guapo izana, ta orduan ia epeldua bizimodu penitentean, asi ze erraten, kapitan gaiek etzekitela zer ai ziren; arren eskuan balego, laster jabelekela fuerte gartas. Gobernariak eskatu ziote enkarga zeila: ofrezitu zue baietz, ta asi ze prestatzen. Bereala gelditu ze itsuturik bi begietaik, ikusi zezan arimaren begis. Ikusi ta ezaundu zue bere uts egina, eskatu zue miserikordia eginez propositoak berriro: eta Jaun onak itzuli zio bista galdua. Gobernariak erran ziote bera zela gizon pobre bat, etzegokiola gerrako gauzarik, baizik penitencia egitea.

5. Despeiturik andik bazoeie berriz Jerusalem alderat itsasos: preso in zute Moroek: eta erregistraturik pensatu zute bide zela Kristio penitenteren bat: nai izan ziote kendu peto burriñasko gura; ezin zukete, ain ertxiturik egones, ta ala utzi zute. Sarturik bere lengo etxolan berriz bereek joanik porfiatu ziote nola len itzultzeien etxera. Baña eskarmentaturik ia eskapatu ze eremu soil batera, non egon zen denbora zati bat orazioan ta penitenzian. Andik etorri ze Españara bisitatzera Santiago bere elizan. Emendik Italiara, non zenbait laguneki hospitale bat egin ta bizitu ze artan. Baña aiek etzezakete soporta sanduaren bizimodu penitentea, ta eznaiz imitatu, ta maltratzen zute: Berze leku batera joanik, ta askok billaturik, ustez beraren konpañian bizitzea aski zen sandutzeiko imitatu gabe, oroat persegitzen zute: baña ez solamente gizonak, baita Demonioek ere Jangoikoaren permisios, ta ala bein arrastatu zute, golpatu, ta erdiilik utzi zute: baña orgatik errezibitu zue fabore andi bat zerutik: ezi arrazio da kostatzea anitz fabore andiak. Agertu zekizkio irur donzella eder ederrak, eta ederrena bat, baize Maria Santisima, mintzatu zekio amorosa konsolatus ta animatus: berze biek su egin, ta berotu ta unjitu zute zerutik ekarrikako ungendueki, ta gelditu ze sano ta alegre guzis. Azkenik Jangoikoaren errebelazio erretiratu ze bi ezkonduen etxe batean, non tratatu



zuten ongi. Egun batez akaiturik nai zuelaik artu zerbait sustentu, ez iltze-
kos, ta etziokelarik eman etxokandreak egonagatik bera ere heri andi, san-
duak in zue orazio, ta Jangoikoak sendatu zue ura istante, ta arrek eman
zio sustentu bear zuena orduan, ta bere egun guzietan. Baña milagroaren
kasos beldurrak tenta zezan banagloriak, joan ze berze leku batera, non
etzezaten ezaundu. Emen bizitu ze falta zekiona; azkenean errezibiturik
sakramentuak iltze Jangoikoaren besotan. Gorputza ilik bete ze argi ede-
rres &. Ann. 1166. Baron. 1156.

Otxallaren 13.an San Martiniano Monje

1. Genero guzietako tugu exenpluak Elizan: Kuidatzeko kastidadeas,
exenplu ederra S. Martiniano. Gasterik eginik errelijioso agertu ze birtute
ta obra miragarrietan zela Jangoikoaren maite eskojitua. Demonioak age-
rrian ere egiten zio gerra itxurapenes, arroitus, lotsamentus. Bein iduri zue
bota bear zuela arren gañean bere etxola: eta sanduak ezaundurik erran
zio, zertan abila banoan? Uste duk lotsarazi ni, daukatelaik ene alde Jesu
Kristo? Aiturik au joan ze iges Demonioa, erraten ziola, etxok etxok guti
bat, Martiniano, ezi nik eroriaraziko aut, humillatu ta botako eure zelda-
tik konfuso; injeniatuko diat bai nola egin, naiz agon i konfiaturik dioken
ortan. Ogeita borz urte bizitu ze ala sollik Martiniano, ez gizon lurrekoa
bekala, bai nola Aingiru bat zerukoa, betes mundua admirazio eta famas.
Bein zeudelaik Zesarean ponderatzen elkarreki arren bizimodu sandu
admirablea, urbidu zekiote emasteki bat deitua Zoe, ta erran ziote ausart,
etzela ainberze estimatzeko arren santidadea, bizi zelaik eremuan baseizia
bekala ikusten etzuela emastekirik: baña berak tenta balez, ta arrek ez
konsentitu, orduan bai zezaketela pensa kasto zela ta sandu. Hazienda
gaixtoa emastekia, Deabruaren arma gizonen galtzeko, Deabrua bera
baño iago beldur izateko dena, konzertatu ze aieki, joan ta progu inen
zuela, ta ezpazue errendiarazten, konta zezatela enbustera gezurtitako,
baña garaitzen bazue, pagatu bear ziotela ongi. Tratua ajustaturik, joan ze
etxera, ta bildurik bere galak, altxaturik ta loturik pañolo batean, biajes
zoeien bekala, bestitu ze tresena pobrees, eta denbora ekaitz-aldi batez
atrarik, euri ugarreak eraunsten zegola, ellegatu ze eremu gartara, ta gaua
sarturik ia ilun, asi ze dei ta dei Martinianoren etxola, edo zeldako atarian,
nola balebila bidea galdurik, boza negarti lastimosoareki ziola, o Janjoi-
koaren sierboa, Jangoikoas otoi otoi urrikari nitas, bainaiz emasteki pobre
bat, erauntsiak arrapaturik ta gauak, galdututena bideak, ilunbetan ezpai-
takit nora joan, ta ez aterberik aurkitu, ta beldur naiz iretsi nazaten basei-
ziek eremu gontan. Ai Jauna, ez nazala desanpara, ezi Jangoikoak egina
naiz ni ere. Jangoikoagatik in bez &. Lamentuebetara idikirik Martinianok
leiatilla, ikusi zue nola zegon emasteki tristea urean funditurik, konpasio-
natu ze, ta iduriturik obligatzen zuela karidadeak, ta galtzen baze an,
kontu eskatuko ziola Jangoikoak, naiz beldur ere zuen, ote zeiken izan
Deabruaren tranparen bat, enkomendatus Jangoikoak guarda zezan bere



esku poderosoas, joan ta idiki zio ataria, egin zue sua idortzeko, eman zio zerbait jateko pixka; eta manaturik zoeiela goizean goizik bere bideas, bera sartu ze barnagoko zeldan. An pasatu zue gaua orazio mentalean, ta psalmo errezatzen. Etze orgatik deskuidatzen etsai madarikatua gogoratzearaz imajinazio itsusi urrinzuak, baña debalde, Jangoikoareki zegon bitartean.

2. Biramon goizean ustez agian joan bide zela, atratzen da bere zeldatik, ta ikusten du nola dagon galas bestiturik, balitz bekala berze bat: dagokio beira xoraturik bekala: ura ezta deskuidatzen usatzeas arte ikasi zituenak Deabruaganik, mintzatus amorosoki, artus eskua, emanen graziak, ofrezitus arren zerbitzura de manera, ezi ia beraxturik biotza errenditzen ze atzendurik Jangoikoas, infernuas, zeruas, orduraño pasatu guzias, oroiturik solamente honra-idurias; eta ala atra ze ikustera ia nior ageri zen. Atra zeneko zeru agerrira, beiratu zio Jangoikoak zerutik; entendamentua argitu zio, ezauntzeko zer itera zoeien; biotza heritu zio kontriziosko doloreas: eta ala itzulirik, ixil ixila, itxeki zue sua abar batzueki, eta oñak urtuxirik sartu ze sugarretan, non egon ondoan denbora zati bat, erraten zio bere buruari, zer iduri zaizu, Martiniano? nola paratu zaituen sutto gonek! Infernuko sua uste baduzu dezakezula sufri, ellega zait onengana, ezi ararako bidea on da. Pensa ango pena eternoak, Demonioen tormentatzea, errabiantez oñazeas akabatu naiez, ta ezin akaba. Berriz sartu ze suan ziola, Jauna, emen erre, ta ez nazala erre infernuko suan. Zego berzea ixil beira arriturik alako penitenzias, eta bera zela kausa. Ukitu zio biotza Jangoikoak, eta ala negarrai emanik, edeki zitue gala gaiek, ta bota zitue sura: eta pobreki bestiturik aiotska ta negarres erran zio sanduari, etzuela ark ia nai itzuli ziudadera, baizik bukatu bere bizia penitenzian señalazezon lekuan. Deabruak artu nau ni, zio, instrumentu, orren galtzeko: Jangoikoak artu du berori medio, salbatzeko ni. Ala zegokio negar ta negar, otoi ta otoi. Sanduak biala zue Betleena, non birjina sanda baten konpañian amabi urtes penitenzian ogi ta ur solles bukatu zen sanduki Jangoikoaren grazias.

3. Gelditu ze S. Martiniano ain errerik ta llagaturik, ezi asko denboras ezin kuratu ze, ta ain eskarmentaturik, ezi iago beldur ze emastekies, ezi ez Deabrues; eta ala ez aurkitzeko berze alako peligroren batean joan ze etxola gartaik. Joaterakoan oiui iten zio Deabruak, andia duk ene podorea ta indarra; garaitu aut, erretiat oñok, ta botatu aut eure zeldatik. Eta goratus iago boza zio, Bagoaie, Martiniano? Bada jakin bear duk ezi, noranai goaien, segituko diatela ta botarazi andik ere, emendik bekala, ta ezautela utziko errendiarazi artaño. Errespondatu zue sanduak, ago ixilik

madarikatua, ezi eztuk zer egin sendagalla biktorias, edeki diat arma, zeñeki uste iuen garaitu, eta ura izain duk ire konfusione. Desapareziturik gaixtoa, sandua laudatus Jangoikoa joan ze itsas basterrerat; An aurkitu zuen mariñel bateki ajustatu ze eramateko itsas-barnean zen peña batera, ta arara noizean noiz ogi ta ur, ta arbolen arrama zenbait, zeñeki inen zituen saski ta esportak, saldurik paga zeien kostua: eraman zue bada peña gartara, nora irur aldiz urtean eramaten zion ogi ta ur: nai zio eraman materialea, egiteko etxolaren bat, baña etzue nai izan du, baizik zeru agerrira an berze estalperik gabe iruzki bero, otz, ekaitz, ta guzietako, alde guzietatik itsasoko ures inguraturik bizi ze kontent, etzeikela emastekirik arara ellega, bere ustez: baña Deabruak injeniatu zue Jangoikoaren permisios. Sei urtes iraundu zue gizon zeruko bat bekala: Jangoikoak aparatus, Deabruak persegitus: askotan nasten zue itsasoa goratzen zitue urbagadak, nola balidoeie ondatzera perla ta sandua: Deabruak oiui iten zio, orai ito bear aut. Sandua sereno geldi.

4. Agitu ze itsasonzi bat pasatzea itsaso gartan, eta Deabruaren malizias ematea peña garren kontra, ta an abarrikatzea: itorik guziak urean, sollik donzella bat eutxirik ol bati zebila ur-gañean, ta peñara urbildurik klatatzen zue, o Jangoikoaren sierboa, Jangoikoaren amoreagatik fabora bezada, ez nadien ito emen. Turbatu ze Martiniano, goratu zitue begiak eta biotza Jangoikoagana, eta juizio eginik zegola obligaturik konzienzias, edatu zue besoa, ta atra zue uretik. Ikusi zuelarik donzella gaste ederra erran zio, eztaude ongi sua ta istupa urbil: zu geldi zait emen: or duzu ogi ta ur sustentutako: etorriko da mariñel bat emendik bi ilabete: arri konta zozu desgrazia agitu zaizuna, eta adios. Au erran ta zeñaturik, zerura beira, erran zue, o ene Jaun ona, ni konfiaturik orren baitan, ez ofenditzeagatik orren Majestadea, botatzen naiz itsasoan, ezi naiago dut gaitzez gaitz il itorik, ezi egon peligroan kastidadearen: eta exortaturik donzellari Jangoikoaren beldur izatea, ta ongi biziutea, saltatu ze itsasora. Bereala bi arrai Delfin deitzen direnek artu zute gañean, ta atra zute leorrera. Eman zio Jaunai esker milla milla, eta determinatu zue ez gelditzea egotez nion ere, baizik ibili peregrino. Ala ibili ze bi urte bizitu zenes. Ondorean Atenas deitzen den ziudadean sarturik elizan, ango obispoari errebelatu zio Jangoikoak nola zegon an Martiniano ere biotzeko gizona. Joan ze ura prisaka elizara, aurkitu zue erreklinaturik tarima batean: elkar besarkatus, batak eskatus bedeizioa, berzeak orazioa Jangoikoaren ikustera ellegatu ondoan, guruzearen señalea formaturik, ta erranik, orren eskuetan, Jauna, enkomendatzen dut ene arima, ta irris despeitu ze mundutik. Donzella gura penan gelditu zena mogiturik sanduaren itzas, ta



exenpluas, ta milagroas, ta prinzipalki Jangoikoaren grazias erresolbitu ze gelditzera an: eta marineleri joan zelaik bere denboran kontatu zio agitu zen guzia, ta eskatu zio humil nai bazio eraman arara gizonkiaren tresenaren bat, ogi, ur, ta elle, ta bere andrea erakusteko zer in bear zuen. Guzia egin ze, ta bizitu ze an ala sei urtes peñan, zelarik ogeitaborz urtetakoa, arara ellegatu zelaik: iltze sanduki an. Gero ellegaturik mariñelak aurkitu zuelaik ilik eraman zue Zesareara: kontatu zio obispoari agitua, ta orzi zue solemneki sanda bekala. Deitzen omen ze Fotina.

5. Sandu gonen bizian dugu ikasteko anitz: lenbizikoa, zein odio errua dioten infernuak Jangoikoaren eskojituei, eroriarazteagatik bere graziatik, ta nolako amorea Jaun onak idukitzeko bere eskutik. Bigarrena zein prezioso estimagarria bide den Jangoikoaren begietan kastidadaea, zeñen zikintzeko ainberze iten duen gure etsaiak, eta guardatzeko berriz ainberze sanduak, ta ainberze Jangoikoak, milagros ere. Irugarrena zein aisa den galtzea, ta nola ezten posible guardatzea, ezpada Jangoikoaren grazias, ta geuren dilijenziak: eta dilijenziarik obena dela okasioetaik iges egitea, ta eztaikelaik beti egin iges, beti mortifikatzea gorputz gaixtoa, obe delaik naiz erre, naiz ebaki, naiz padezitu emen, ez penatzeko eternidadean. Laugarrena zein lastimosoki engañaturik bizi den gizagendea ain ajola guti eginen genero gontan animaletoen gisara, ta nola orgatik kondenatzen diren geienak: eta libratuko eztela bekatutik eztena goartzen zebotik. Gizonkia da sua: emastekia istupa: eldu da Deabrua, ta asten da fuka. &. &.

Martxoaren 4.an San Kasimiro Prinzipe Poloniakoa Birjin. S. Kasimiro Poloniakoa duzu pag. 67.

Martxoaren 7.an Sandak Perpetua ta Felizitas

1. Estado guzietaik Jangoikoak eskojitzentzu bereak berex. S. Perpetua ta S. Felizitas zire ezkonduak Mauritanian Afrikan: biak berze laur Kristioeki bateo paratu zuzte preso, edo utziarazteko fede Kristioa, edo kenarazteko biziak. S. Felizitas zego sabeldun ia zorzigarren ilabetean: S. Perpetua aur txipittoareki bularretan. Onek izan zue bisione bat, iduri zekiola ikusten zuela eskalera bat lurretik zeruraño, armaturik guzia punta tzorrotzes pasa etzeikela heritu gabe, ta beiti ondoan dragon horroroso bat debekatzeko igatea. Alaere aien lagun bat igaten zela, ta animatzen zituela guziak igateko beldurrik gabe. Kontatu zioite ikusi zuena, ta entendatu zute Jangoikoak nai ziotela in mertxede zerura igateas martirioen medios, ta eskatu zioite grazia, atratzeko biktorioso. Presentarazi zuzte Juezaren alzinean: onek nai zitue obligatu obeditzera enperadoreei, ta ukatzera Jesu Kristo: baña zeudelaik prest galtzera milla bizi lenago ezi Kristoren fedea, itzularazi zue karzeleraz Felizitas libratu arteo: geldiarazi S. Perpetua, ia bere aide, senar, ta aurraren amores eta negarres beraztuko ote zen. Guziek egin zute eginala ortako: baña ain fuerte zego eutxirik Jesu Kristori, ezi despeitu zitue guziak tratatus etsaitako, zeren nai zuten apartarazi bere on guzitik, ta eginarazi gaizki. Juezak au ta bere lagunak azotarazi zitue gogorki, ta gero itzularazi karzeleraz, non baizego S. Felizitas. Legearen konforme au nai zue Juezak deteniarazi erdi zeien arteo; baña berak, ta Martir lagunek nai lukete guziek bateo bukatu martirioan. Ala orazioan paraturik guziek eskatu zioite Jangoikoai, egin zezan Felizitas ere aieki bateo izan zeien koronatu martirios. Aditu zitue Jangoikoak, eta Felizitas erdi ze zorzigarren ilabetean: eta nola samiñ erruen kasos kejatzen baize, erran zio karzelzaiak, orai ala kejatzen delaik, zer izanen da, pasarazten diotelaik tormentuak eta eriotzea? Errespondatu zue, orai ni naiz pasatzen dudana, baña orduan Kristo izanen da pasatuko duena enebaitan: errateko, emanen ziola grazia bear adiña. Andik zenbait egunen buruan Juezak eramanara zitue guziak karrikak barna alkaizuntako: gero botarazi plazan artzei ta leonei. Alegre zoezi sandak iltzera kantatus *Jentilen Jangoiko guziak direla Demonioak, ta Jangoikoa dela sollik egintuena zerua ta lurra*. Ori aditus asarraturik Juezak manatu zue golpatzeko aurpegiak bofetadas: baña orduan gorago kantatzen zute kantu bera. Paraturik plazan loturik eskuak, atrarazi zuzte leonak ta leopardoak, zeñek zatikatua zuzten Martir gloriosak, egatus zerura arimak Alejandro Sebero enperadorearen denboran 205 urtean.



Martxoaren 10.an Berrogei soldado martir

1. Sebasten Armeniako ziudadean (Breviar.) berrogei soldado Martir baliente izan zire, Lizinio enperadorearen denboran. Onen Presidente Agrikolaok deiturik beregana laudatu zitue balientetako gerran, ta nai ziotela enperadoreak egin asko mertxede; baña ortako, zio, da preziso obeditzea manatu duena ez adoratzea Kristo. Errespondatu zute, gu izan bagara baliente lurreko enperadorearen zerbitzutan, zer uste du inen digula orai zeruko enperadorearen gloriatan? Bego zierto peleatuko garela animoso, ta atrako garela biktorioso. Kenduko ziotela, zio arrek, soldadoen honorea, beira zezatela ongi: eta sarrarazi zitue presondegian. An in zute orazio gau, bada, Jauna, faboratu gaitu lurreko gauzengatik peleatu garelaik, orai berorren gloriagatik bear dugulaik izan pelea, eman bezagu anitz grazia. Pasatu zute gaua kantatus psalmo gura, Qui habitat in &: eta laudatus Christo gure erredentorea. Agertu zekiote bere Majestadea, ta erran zioite, ongi asi zarate; kuida bukatzeas ongi, ezi korona ezta ematen baizik perseberanzia dutenei azkeneraño. Biramonean presentaturik berze asko soldado ta adiskideen alzinean, laudatu ondoan berriro guapotako, erran zioite Agrikolaok, in zezotela gusto obeditzeas beren honra ta proxtutan. Baña etzuketalaik mellarik egin biotz aietan, guardarazi zitue preso, etorri arteo aien Kapitana. Zeudelaik an, lagun batek, deitzen zenak Zirion, animatzen zitue guapoki peleatzera sufritus zeruko enperadoreagatik; obeki, ezi Liziniok, pagatuko ziotela gloria eternoas, baita ere lagunduko pelean, zein izanen zela labur, gloria eterno.

2. Zazpi egunen buruan ia etorriarik aien Kapitana, eraman zuzte konsejura. Bidean erraten zioite lagun garrek, ea, arimo: Irur kontrario tuzu, Satanas, Presidentea, ta gure kapitana, edo obeki errateko, eztugu bat baizik, baita Satanas berze bien medios iten diguna gerra. Batek bada beartu garaitu berrogei soldado Kristorenak armatuak Jesu Kristos? ez ez alakorik... Kapitanak asko itz gastatu zue itzularazi naiez bere opinionera bere soldado gaiek, baña debalde. Aiek defendatzen zute ausarki erreligione Kristioa. Konsejukoek manatu zute golpatzeko aien agoak arrieki: eta Jangoikoaren permisios anitz ministroen agoak agertu zire odolestaturik, ta sanduenak oso mellarik gabe. Ori ikusirik kapitanak ustez zen arte gaixtos, suturik tiratu zioite arri bat, zein joan ze ematera Presidentearen agoan lastimatu baizio ederki. Itzularazi zuzte berriz presondegira,

pensatu bitarteo zer tormentu gisa bear zioten eman. Karzelean zeude egiten orazio, Jauna, orrengana goratzentugu biotzok, orren baitan gaude konfiaturik, ez garela gaizki atrako. Berriro agertu zekiote Salbadorea ziola, Sinesten duena enebaitan, naiz il daien biziko da. Konfia, ta ez lotsa gizonen tormentues, pasatzen baitire fite: pelea bizkorki, izateko koronatuak. Ala konsolaturik ederki pasatu zuten gau guzia orazioan animoso ta alegre: biramonean atra zuzte aditzeko sententzia.

3. Ze an estanke, edo uresko balsa ta putzanka bat, ekaitz-denbora otz ta izotz, eta gaua eldu ze txoil erru otza izoztu bear zuena estanke gura. Artan sarrarazi zitue guziak biluxirik akaba zeizen otzak; baña bateo manatu zue an urbil idukitzeko bañu bat ur epel ta beros, baldin norbaitek otzaren pasiones garaiturik nai bazue pasatu arara, señale, utzi nai zuela erreligione Kristioa: baize ori tentazio bat txoil tentagarria. Paratu zire guardiak kuidatzeko erne gau guzian. Martirak beren eskus biluxirik sartu zire estankean konfesatus nai zutela pasatu otza ta eriotza ere, lenago ezi utzi Kristoren erreligionea. Gauza errua da, zioite, pasatzea gau bat ain otza emen: baña gustoso izanen da orgatik gozatzea paraisoan: tormentua izanen da labur, baña gloria eterno: gau pixto bat pasatus logratuko dugu betiroko egun bat eztena gauik, ta ez finik. Zenbatek pasatzen dute asko trabaju lurreko Jaunengatik, zeñek ez dezoketen deus eman ilas geros? eta guk eztugu pasatuko gau txar bat gure Jaun zerukoagatik, zeñek emanen digun korona gloriakoa bere erreinuan betiroko? Ofrezitu zire Jaunari sakrifiziotan, eta in zioite orazio gau, o Jauna, berrogei gara sartu garenak orren amorez pelea gisaontan: berrogei alaber atra gaitzela biktorioso izateko koronatuak: eztaiea falta bat berere numero gontaik. Ala orazio eginik, zoezi pasatus ta aguantatus otz ikaragarria. Baña aietaik bat miserablea garaiturik otzak pasatu ze bañu epel gartara utzirik lagunak triste penaturik arren inkonstanzias, eta iago, ikusi zutelalaik andik guti iltzela ta galdu sekulakos. Orrengatik iago animatzen zire elkar aguantatzeko ilaraño.

4. Gau erdirat lokaturik guardiak, portero edo atalzaiak idatzarririk zegonak ikusi zitue jausten zerutik Aingiruak zekarzkitela ogeitaemeretzi korona: zio ark berebaitan, ebek dire berrogei; berrogeigarrenaren korona non da? Ori diolaik, erreparatzen du bat gura, nola atra zen lagunetaik. Orduan atalzaia mogiturik Jangoikoaren espirituas asi ze oius idatzarrarazis guardiak, Kristioa zela ura ere, ta kendurik berak bere tresenak, sartu ze atra zenaren partez, izateko berrogei koronatuak: arri gaitzen, ta lotsarri gaitzen Jangoikoaren juicio justo sekretoes, nola uzten duen erortzera txutirik zegona, ta goratzen duen eroririk zegona: utzi Kristioa, ta artzen



duen Jentila: Judas Apostolua itzulirik traidore, S. Matias sortez atratzen da Apostolu: eztaien nior fia bere buruas, ta ongi asi delakoan, baizik konfia sollik Jangoikoan. Ellegaturik eguna, aurkiturik atalzaia Martiren ertean, nola ta zer gisas agitu zen, manatu zue Juezak abarrikatzeko zangoak guziei paloeki, akaba zeizen iles. Iltzire orreki guziak, bates landara, baize gasteena deitua Meliton. Il guziak zeramazkitelaik karroetan erretzeko, uzten zute Meliton oraño bizi zena, agian aldatuko zela. Ori ikusirik arren Amak, inbidia sandu bateki, berzeak zemazkitela, ta ez bere seme gura, artzen du bere soñean animosa, ta zerama gorputz sanduen karroen atzetik; eta bidean erraten zio, ea, ene seme maitea, ditzosa izanen da zure Ama gau, irauten baduzu firme il arteo fede Kristioan. Animo, ea, zaude fuerte, gozatzeko Jangoikoas zuk, ta egiteko ni Martir baten Ama gozosa. Soldado bekala peleatzen zinduelaik lurreko gizonagatik, ni nindego beldurrak eta negarrez: zeren Deligroa zen andia, ta irabazia deus guti: orai deus guti falta zaizu irabazteko infinito. Aingirua ekarri zizuna korona dago etxideten paratzeko doaielaik zure arima. Sufri gutitto bat, ene humea, segura zaitezen betiko, alegra dezazun egiaz ene biotza, izateas an goiti ene prenda maite bat, logra dezadana igatea ni ere arara, non besarka zaizaten gogotik peligrorik gabe galtzeko. Zoaz zoaz alzina, ene maitea, ta espera nazazu an. Berze Amaek nigar in bezate humeen iltzeas, ezpaitakite non baratuko diren: baña nik baitakit zerura zoazila zuzen zuzena, eztut negarrik, naiz maite zaitudan biotzez, baizik alegranzia izateas Martir baten Ama ditzosa. Orai jaiotzen zara bizi obero Jangoikoaren graziaz. An tuzu Aita ta Ama, ta anaia, ta aide obenak.

5. Itzebek erran bitartean iltze Meliton Amaren soñean, eta Amak il zela ikusirik alegre ia, ta kuidadorik gabe bota zue gorputz ila berze Martiren hogeran: ta etze apartatu, alik eta guziak erre arteo. O Ama ona ta balerosa, ainberze amaten zuena Jangoikoa, ezi onen amarez nai baizue il zeien Martir bere semea bere burua bezain maite zuena! Zer fedea ura! Zer esperanza! Zer karidada! Eriotzea kontatzen fortuna! Martirioa dignidade goren! O denborak! O kostunbreak! Zer ai gara gu Kristio deitzen garenok? Konpara ordukoeki oraikoa.

6. Etzire kontent infielak ilarazias, ta errearazias Martir gloriosoak, aien ezur ta errautsak ere bota zuzte ugaldere, etzekiten honratu Kristioek. Baña non da indarrrik, ta injeniorik aski Jangoikoaren podorearen kontra? Uren gañean konserbatu zitue oso berex busti gabe, ta galdu gabe: ta ango Obispoari, deitzen baize Pedro, manatu zio bil zezkiela ta depositatu honratuki. Joan ze Obispoa elizagizoneki prozesioan: aurkitu zuzte istargitzen zutela izarrak bekala, eta arturik erreberenzia guziareki

paratu zuzte leku dezentean Jangoiko andiaren loriatan, zeñek ala baitaki triunfatzen internuaganik, ta munduaganik bere zerbitzuko faboretan noiz ta nola duen plazer. Gero pasatu zire Konstantinoplara, non geroango Pulkeria enperatrizak zerutik abisaturik kolokarazi zituen S. Tirsoren tenploan. Martirio gau agitu omen ze Kristoren 306 urtean.



Martxoaren 12.an San Gregorio Andia Papa

1. S. Gregorio andian Aita Sanduan dugu anitz ikasteko txipittoek: kontatukotugu protxu iagotako direnak guretako, edo imitatzeke, edo humillatzeko. Jaio ze Romako senadoreen jendaki anditik agitz abrats: bera ere egin zute Prefekto: baña gelditu zelaik bere buruaren Jabe, nai zuena egiteko, sei monasterio egin zitue Sizilian, zazpigarrena Roman bere etxe propioan: Gero emanik bere Ka guziak Jangoikoai pobreetan, eman ze bera ere monasterioan, non guzia ze orazio, humildade, obediencia, penitentzia, ta birtute guzia, guzien gañetik karidadea. Jaten zue erregalotako zenbait bialtzen zitionak bere Amak zillarrezko onzi batean. Bein Superiore zelarik, merkatari pobre iduri batek eskatu zio limosna, itsasonzia galdurik gabetu zela arras: emanarazi zio sei dukat: berriz itzulirik, berze sei: oraño berriz itzulirik ponderatus bere nezesidadea, emanarazi zio, berzerik ez izanez, Amaren baso zillarrezko gura. Onen premiotan eman zekio grazia obratzeko milagroak andik alzina. Bialirik bein Monje gaste bat zar bateki erosteko bear ziren gauzak, arrek sisatu zue diru zerbait ixilkias: Itzuli zelarik konbentura, espiritu gaixtoak arrapatu rik erori ze eliza-atarian. Bildurik monjeek bere orazioareki libratu zute: galdegini ia zerbait sisatu zuen, ukatu zue ezetz: ta bereala berriz arrapatu zue Demonioak. Zorzi aldis libratu rik, zorzi aldis arrapatu zue ukatzen zuenaldioro: alik eta sanduaren oñetan konfesatu zuen bere kulp, ta penitentzia eman zionareki gelditu zen libre betikos. Berze monje batek zeuzkie altxaturik irur dukat, heri andia zegolarik: manarazi zue sanduak nior ez sartzeko arren zeldan konsolatzer, gisaontan ezaun zezan, ta pena zeien bere gaizki eginas, ta ala salba zeien. Iltze, ta ondorean sanduak eskarmentarazteko gañarakoak, manatu zue orzitzeko estrabille batean erranes guziek S. Pedroren itz gura, *pecunia tua tecum sit in perditionem*, ire dirua ireki biz galmendetako. Orreki guziak arriturik etzire ia trebe idukitzera erreal bat ere. Baña orgatik etze deskuidatu ofraraztean mezak atra artaño purgatoriotik.

2. Klaro ageri da zela kodiziaren etsai, eta liberala arroki, biotz jeneroso anditakoa bekala: bana berareki ere liberal izan ze Jangoikoa. Aita sanduak Pelajio II.ak egin zue kardenale, ta biali zue enperadoreagana, baize Tiberio Konstantino, zeñek anitz onetsi ta estimatu baizue, eta arren seme Mauriziook, atzetik enperadore izan zenak, eskojitu zue bere

semearen Aitabitxi. An aurkiturik gure Españako Arzobispo Sevillakoa, egin zire elkarreki adiskide biotzezkoak betikos. An Konstatinoplako Arzobispoa Eutikio eskribitu zuena gorputzen erresurrekzioaren gain makur engañaturik, desegañatu zue guziz de manera ezi arrek iltzerakoan artus eskuko larrua baizio, konfesatzen dut guziok erresuzitatuko garela gorputz goneki berareki. Andik itzulirik errezibitu zute Roman Jangoikoaren Aingeru bat bekala, ta iltzeareki Pelajio pestes, egin zute Papa S. Gregorio. Asko dilijenzia egin zue ez izateko: Azkenik eskapatu ze sekretoan: baña nora eskapatu Jangoikoaren besotik? Noranai zoeien, nonnai altxa zeien, Jangoikoak paratzen zue argisko kolumna bat arren gañean: señaile goneki aisa arrapatu zute. Konsagratu rik Papa edo Aita sandu izan ze Aita sanduen, obispoen, Apez-Aiten, ta sazerdote arimen kargudun direnen exenplu, ta erremedio. Zenbat on obratu zuen elizan manera Luzies, ezta posible kontatzea. Bere santidade, xakintasun, zelo, prudenzia, ta gañaroko prendaen gañetik Jangoikoaren espiritu sanduak argitzen, sutzen, ta kidatzen zue, azertatzeko guzietan, ta inarazteko nai zuena leku guzietan: eta ala bere denboran humillarazi zitue herejeak, erreformatu katolikoak, ta paratu orden onean elizako ofizioak. Pobreen erremediatzean izan zue kuido ta gusto espeziala. Zeuka eginik lista Romako ta kanpoko pobreen: heriei ta alkez altxaturik zeudenei bialtzen ziote beren bear zutena. Eta bein xakinik pobre bat aurkitu zela ilik barride batean, ziudadetik apart, beldurrak il ote zen nezesidades beraren kuido-faltas, penitentzian kastigatu ze bere burua ez ellegatus aldarera zenbait egunes, zelarik bere erregalo guzia meza erratea. Konbidatzen zitue pobreak jatera bereki bere maian; eta bein nai zitiolaik garbitu oñak bere eskus bati, desaparezitu zekio, ta gero apareziturik Kristok erran zio, berze aldietan errezibitu nauzu neure mienbroetan, baña atzo neure persona propioan. Berze bein manatu zio kapellanai ekartzeko amabi pobre: sartu zelaik ikusi zitue zirela amirur. Amabi manatutizut, erran zio; ta nola ekartuzu amirur? Kapellanak, nik amabi ekartut: eta kontaturik, ez tire baizik amabi, zio. Sanduak berriz amirur kontatzen zitue: amirugarrena notatu zue aldatzen zela idurias ta kolores: Bazkal ondoan arturik apart galdegini zio nor zen, ta nola deitzen zen. Arrek errespondatu zio, zertako galdegiten du ene izena, baita admiragarria? Ni naiz merkatari-iduri gura, zeñi eman zion limosnas amabi dukatak, ta Amaren baso zillarrezkoa. Jakin bez zierto, karidade garreatatik nai izan zuela Jangoikoak on izan zeien Aita Sandu S. Pedroren ondorengo. Aiturik au, lotsatu ze S. Gregorio: eta Aingiruak erran zio, eztaiea lotsa, ezi Jangoikoak biali nau, asisti dezoten ilaraño, ta emateko eska dezan guzia. Erori ze sandua lurrean auspeska



ziola, ain gauza gutiagatik in banau Jangoikoak bere Elizaren Artzai-buru, zer ez tut esperatu bear bere esku liberal dibinoaganik, onesten badut bera, ta ongi egiten bere pobree! Anitz lekutan urrun inarazi zitue hospitaleak pobreen: ta Italian gañarakoes landara mantenitzen zitue irur milla Monja; eta zio, aien orazioengatik ezpaze, etzela nior bizirik geldituko.

3. Sandu gau Papa egin zuten prinzipioetan, azotatzzen zue Jangoikoak Romako ziudadea peste lotsagarrias. Palakatzeko Jangoikoaren justizia penitenzias egin zue prediku admirable bat, ta bitarteo il zire elizan laur ogei persona: etze orgatik desanimatu: biramonean prozesio bat eginik S. Maria maior deitzen den tenplora, eramanes beraren imajina: eta ze admiragarri, ezi pasatus becala Maria Santisimaren imajina gura, zoeiela aparatatus pestearen aire korronpitua. Eta sanduak ikusi zue kasteluaren gañean Aingeru bat erretiratzen zuela, ta altxatzen ezpata: Oneki entendatu zue palakatu zela Jangoikoaren ira, ta ala izan ze, ta orgatik deitzen da kastelu gura Santanjelo. Zenbat balio duen gizon sandu batek! Iago ezi milla ta milla gañarakoek. Bada gorputzes ala kuidatzen zuenak nola kuidatzen zue arimes? Aita sandu in baño len ikusi zitue saltzen plazan mutil Inglesak ederrak iduris: galdeginik ia Kristioak ziren Inglaterran, ta aiturik ezetz, lastimatu ze biotzean ziola, Aingiru iduri duten geben Arimen Jabe daikela izan Satanas? Bereala joanik Aita sanduagana eskatu zio bial zezkiela Predikariak Inglaterrara, argitzeko jende gaiek, lastima zela kondena zeizen. Aita sanduak eman zio esku joateko nai zituen laguneki: baña famatu zelaik Roman joan zela Gregorio, asi zire alborotatzen Aita sanduaren kontra zergatik biali zuen: eta zoeielaik S. Pedroren elizara, oiui iten ziote, o Jauna, agitz agrabiatu du S. Pedro, ta galtzera bota du Roma, utzis atratzera emendik Gregorio: maneraz izan ze au, ezi Aita sanduak bialirik mandariak itzularazi zue sandua. Baña gero bera Aita sandu eginik etze atzendu bere Ingleses: biali zitue Augustino ta berze monje sandu batzuk, zeñek sanduaren merejimentus, ta Jangoikoaren milagroes konbertitu zute jende gura fede Kristiora, ta ala Bada Benerableak deitzen du S. Gregorio Inglaterrako Apostolo: baña ez ango, ezi mundu guziko Apostolo deitu daike sandu andi gau.

4. Alaere imitatzeke Jesu Kristo guzietan, ongi eginen ordañak itzuli baizitiote gaizki egines, izan zitue kontrarioak. Kabalero bat exkomekatua, zeren utzi zuen bere bizikidea malamente, baliatu ze sorgines mendekatzeko sanduas, zaldi gañean zebilalaik, sarraraziko zutela Demonioa zaldian, botarazteko ta maltratatu. Ala egin zute, ta etzuketelaik geldiarazi zaldia niolaterre, sanduak Jangoikoaren argis ezaundu zue sorginderia, ta zeñatzeareki bota zue Demonioa, ta itsutu sorginak, zein milagro goneki

konbertitu zire. Kontrario andiagokoa izan zue Maurizio enperadorea, len adiskide izana, zein zeren abisatu zuen etzezala debeka soldado izanak egitea Relijioso, ta etzeiela entremetitu elizako gauzetan, asarratu zekio, ta etzio nai egin gauza onik, naiz sanduak humil humila konsejatzzen zion. Baña Jangoikoak artu zue kausa: ta urte gartan aparezitu ze Konstantinoplako plazan Monje iduri bat oiuis ziola, goratus eskuas ezpata bat, oneki ilen da Maurizio. Bereala akorduratu ze, ta asi ze egiten limosna andiak, ta orazio egiten Jangoikoai, kastigatu bear baze, naiago zuela mundu gontan, ezi ez eternidadean. Errebelatu ze arren kontra Fokas, ta ilarazi zitue bera, ta bere Andrea; ta bere hume guziak lenik arren begien alzinean, sufritus guzia enperadoreak konformidade andiareki. Eta kontatzen da lanze on bat exenplutako: Zoezilaik degollatus humeak Aitaren alzinean, hume txipiena libratu naiez unideak azi zuenak presentatu zue arren partez bere hume proprio bat; enperadoreak beira zegonak deklaratu zue tranpa piasoso gura, nola etzen bere humea iltzera zoezina. Exenplu notablea bi aldetaik (Florez. Clave) Anitz milagro egin zue Jangoikoak sandu gonon amorez. Bat nai dut kontatu doktrinako. Agitz deboto izan ze Aldareko sakramentuaren. Bein andre bat hostiak in zituena, ellegatu ze komekatzera sanduaren mezan, ta forma sagratua agertzean erraten dena *Corpus Domini nostri Jesu Christi* & nai baitu erran, *Gure Jaun Jesu Kristoren gorputzak guarda bez zure arima bizitza eternoraka*, irri egin zue emastekiak: erreparaturik sanduak galdegin zio, zergatik irri egiten zuen? Erresponda zue, zergatik flik egin duten ogia ta hostia, orrek baitio dela Kristoren gorputza. Sanduak manatu zue guziak paratzeko orazioan, ta bera paratu ze aldarealzinean, ager zezan gure Jaunak egietafedea. Bereala, guziak beira zeude-laik, forma sagratua itzuli ze aragi, ta mostratu zio emastekiari, zein konbertitu ze, ta jendea konfirmatu fedean milagroareki: eta andik guti artu zue lengo forma.

5. Milagrorik andiena izan ze sandua bera ain andia, ta ain txipia; andia Jangoikoaren, zeruaren, ta munduaren begietan; txipia bere opinioan: Oroat manatzen, meatxatzen, humillatzen erregeak, obispoak, ta Jaun andiak: orroat jaten pobre zorrizueki maian, garbitzen aien oñak, baitare erakusten mutikoei doktrina ta elizako kantua. Milagro andi bat ere ze azken denboretan heri egonik geienean, alaere ordenatzea, eskribitzea, obratzea ainberze gauza on. Milagro ere pazienza andi gura, ta arimaren sosegu admirable gura ainberze iteko, gaitz, trabaju, ta persekuzioen erdian. Ala dio berak bere karta batean, badu ia bi urte, nagola goatzean gotaren oñaze ain errueki, ezi doi doia naik jai egunetan zelebratzeko; eta bereala oñazearen erruak obligatzen nau etzitera, ta ertxitzen nau



de manera ezi emanaraztentida aiotsak eta suspiroak: eta oñaze gau aldar-tes biziago da, aldartes ilago, baña beñere ez ain il, ezi uz nazan libre, beñerez ain bizi, ezi akaba nazan: eta ala egunoro iltzen, ta beñere ez naiz akabatzen; eta ezta milagro iduki nazan Jangoikoak ala preso ainberze denboras nai zelaik ain bekatari andia. Jangoikoak libratu zue purgatorio gortaik, gobernatu ondoan Eliza amirur urte, sei illabete ta bedratzi egun, Kristoren sei eun ta laugarren urtean. S. Gregorio andias dio S. Isidorok, Doktore bere denborako ta lenagokoetaik nior ere eztela ellegatzen bar-dintzera berareki: ta S. Ildefonsok dio, daramala guziei abantalla &.

Aprilaren 27.an San Pedro Armengol Merzedekoa

1. Bekatari andi bat ta sandu andi bat, bekatuen ariora penitentzia, ta obra on egin, ta trabaju pasatu zuena izan ze S. Pedro Armengol Merzedeko erreljiosoa konfia dezaten Jangoikoaren miserikordian bekatari-ek non ta egiten duten penitentzia dignoa. Jaio ze jendaki agitz nobletik Tarragonako Arzobispadoaren billa batean, deitzen baita la Guardia de los Prados. Jaio zelarik, an arkitu zen fr. Bernardo Korbaria venerableak erran zio Aitari, aur gau urkabeak inen du sandu. Azi zute ongi, ta Amak espezialki esneareki komunikatu zio Ama Birjinaren debozioa erakutsis lenbizikorik abe Maria: eta aurttoak, edozein erran zezoten, errespon-ditzen zue abe Maria. Iltzekio Ama ona, oraño zelarik aur txipittoa, baña urtean ariora zoeie aumentatus debozio gura, errezatus mutikozutuan ez solamente abe Maria, baita errosarioa ere egunoro, ta berze orazioak, ta barutus beraren festibidade guzien bezperaetan. Ikasi zue eskolaetan lei-tzen, eskribitzen, ta latinidadea, ta konfesa-komekatzen ongi ta maiz, obe-diente zelarik, modesto, ta amable guziera. Nork pensatu alako mutila ain ongi azia emanen zela gaixtakeriara? Niores eztaike fia. Naiz zegon Maes-tru onaren kontura, joan zelaik bere Aita, erregeek deiturik, beregana, asi ze tratatzen lagun buru arineki, ta banidadean zebatus, nor gaixtoago, ura guapoago zeleberratus, jokuan, ezpatan, pelea, ta emankaetan egin ze ausart, suberbo, desatento, alkegabe, ta buru gaixtoen gaixtoena ta lenbi-zikoa bekala: eta bere etxera bildus bere gisakoak, arrokeria ta exzesoe-ki laster zerama galdus etxea ta ondasunak. Aita informaturik almendeas, itzuli ze etxera, ta arturik apart ere semea egin zio kargu bere bizimodu gaixtoas Aitaren amore ta konpasionearaki. Oroitzen naiz, erran zio berze gauzen ertean, zu jaio zinalaik, erran zuenas sandu garrek, urkabeak inen zinduzala sandu zu. Sandu egiteas duda paratzen dut; urkabeas naiz bel-dur. Jangoikoak guarda gaizala alako desgraziatik, eta zeurorrek ere bai. Negarrak etzio utzi erratera iago itzik: eta semeak beraxturik biotza, kon-fesatu zue bere gaizki egina, ta proponitu zue emendatzea.

2. Ortako despeiturik dibersio, ta lagun gaixtoetaik, eman ze eiziaren dibersiora, ta gogotik Aitak suplitzen zio bear zuen guzia eiziarako, ustez ala libratuko zen gaizki egitetik: baña engañatu ze, ezi Deabruak nonnai paratzentu lakioak eiziatzeko arimak, eta arri kalterik andiena etorri zekio eiziatik. Egun batez atra ze laguneki eizialarri deitzen denera, orkatz, otso,



basurde, ta alakoetara: eta berze alde batetik berze kaballero bat bere laguneki: ebek goraturik basurde bat, ain txusto eskapatu ze Armengol zegon lekura, zeñiek tiratu ta utzi zue ilik oñetan. Ellegaturik berzea asi zekio akar egiten atrebenzias, nola il zuen desatento eizia goratu zuena arrek. Bata suber, berzea suber, atra zuzte ezpatak pelezeko elkarreki: baña lagunek boladan joanik etzuzte utzi, bai apartarazi nor bere alde. Baña ain suturik, ta erresumindurik gelditu ze Armengol, ezi ez lira ezi, arren kasta guzia akabatu bear zuela: ta ortako bereganatu zitue lagun ausartenak: eta ebeki asi ze bideak artzen, aien galtzeko, al bazuke, ta azkenean, errobatzen nornai bandolero bekala. Oh! nola txindi batetik in daiken su andi arrigarria! Zenbat ladronkeria! zenbat eriotze! zenbat maldade in zuten Deabruen ofizio gartan, nork kontu? Etzeike ibili, etzeike bizi ere seguro nior aien eskuetaik. Eta nork erremedia? Bear izan zue D. Jaime erregeak pasatu Montpellier alderat: ortako enkargatu ze Armengolen Aita garbitzeas bideak ladronetaik. Atra ze soldadoen bi konpañiaeki, ta zenbait zaldieki: ta biali zitue alzinean abre kargaturik abrats ta ederki, zebatzeko aien kodizia. Bereala atra zire errobatzera: bereala gañetik soldadoak kontra: pelean daudelaik elkarreki, ain txusto fortunatu zire aurkez aurke soldadoen ta bandoleroen buruzagiak Aita ta semea, eta pelea-bitartean batzuk arat, berze batzuk onat emanik, gelditu zire biak bakar. Orduan derepente urtikirik Armengol Aitaren oñetan, ia orai, zio, ene Aita ona, emen nauka errenditurik: konfesatzen diot ezin iagos indigno atra nai zela deitzeko berorren seme: nai badida barkatu bizia, egiteko penitentzia, ia eztiot desplacerik eginen, orziko naiz non ere ez nazan ikusi munduak: barka bezada, otoi, oraingoan ere, ezi Aita da: baña justiziatu nai banau, utzi benaza konfesatzera iltzeko. Biotza lastimaturik Aitak goratu zue lurretik, negarra zeriola; konzertatu zire altxa zeila Barzelonan, erdetxi arteo erregeganik barkamendua, zein aisa erdetxi baizio Aita onak hume gaixtoaren.

3. Erretiraturik Barzelonan guzia ze negarra, etzela agertu nai jendeen alzinean, ez eta ere bera niork ikusi nai, gaixto infame izanagatik: fuerteki zego urrikiturik, baña ez bear den afekto onareki, baizik triste aburriturik bekala. Baña Artzai onak nai zue bereganatu ardi galdua. Inspiratu zio joatea Merzedeko tenplora, noiz ta fr. Bernardo Korbaria benereable gura erran zuena jaiio berrias urkabeak inen zuela sandu, zegon predikatzen penitentzia, ta Jangoikoaren ona ongi penaturik daudenendako. Aditus bekala, zokio urtus biotza negar amorosotan, ez len bekala aburriturik, baizik konfiaturik ongi. Asi ze klamatzen Jangoikoai eskatzen grazia, ezauntzeko, ta ustutzeko konfesioan bere bekatuen pozio guzia.

Egin zue konfesio bat jenerala, eta jaiio berritu bekala ze, ta izateko ia berze gizon bat, logratu zue izatea admititua Merzedeko errelijionean. Famatu ze konbersionea, ta izan ze enenplu, ontzeko anitz. Biotzeko dolore kontriziosko erruareki asi ze egiten justiziak, ta kastigatzen gorputza fuerteki. Barua kontino; orazioa gau ta egun: loa lurrean, ta guti: disziplinak usu ta erru: silizioak ikaragarri, de manera ezi denbora labur ilkolore artu zue. Superioreek ezaundurik, debekatu ziote asko penitentzia geiegi; baña gero ere arrigarri ze iten zuena. Profesatu ondoan bilarazi ziote limosnak, erreskatatzeko kautiboak: Zer ze beiratzea orai ain humil modesto penitente, ain arro ausart ikusi zutena len? Ikustea ere Jaunaren prodijio gura aski ze, mogitzeko biotzak ematera iago ta iago limosna. Bi aldiz eraman zute erreskatatzera, ta itzuli ze anitz kautibo erreskatatueki.

4. Obligatu zute ordenatzera sazerdote, ta egunoro zelebratzen zue meza sandua alako debozio, humiltasun, ta negar amorosoeiki, ezi aditzen zeudenei ematen ziote negargale, nola ikus balezate Kristo bera guruzifikatzen; ta iago probetxu atratzen zute arren meza enzuteas, ezi misionerik obena. Berriz ta berriz biali zute erreskatatzera kautiboak, ta bietan erreskatatuen konpasionez gelditu ze fiadore ekarriartaño diru falta zena. Bigarren aldan Arjelen guzia pagaturik, itzultzeko zegolaik, aditu zue nola zeuzkiten Moroek kautibo emezorzi aurtto, nola berze ainberze axurritto. Etzio sufritzen biotzak uztea; eta ala eginik tratu emateko aiengatik milla eskutu, logratu zue utzi zezaten bere laguna joatera aieki libre, gelditzeareki bera an predatako obligaturik ezi ezpaze entregatzen prezioa plazo señalatuan, egiteko Justizia arren personan. Gelditu ze kontent, ta bere zelo andi garren birtutez enpleatzen ze guziei ongi egiten, Kristioei, ta Moroei, milagros ere, zeren ezi errege beraren palazioa itxeki zelarik sua, ta niork ezin itzali, Armengolek joan ta manaturik suari deteni zeila, detenitu ze, ta ezperen, erreko ze bizirik an errege, zein orduan gelditu ze agradeziturik sanduari, baña fite atzendu ze. Predikatzen zue erreligione Kristioaren egietafedea animosoki, ta anitz Moro konbertitzen zire, berze anitz goratu zire sanduaren kontra, nola heri frenetikoak Medikua- ren kontra. Eta ez ellegatzeareki milla eskutu ofrezituak bere denboran, maltratzen zute moldegaizki. Zorzi ilabetez iduki zute kalabozoan, golpatus egunoro zurriagos eta palos: baña Jaun onak zerutik konsolatzen ta animatzen zue. Azkenean kejatu zire erregeri, etzirela ellegatzen diru ofrezituak, mana zezala ilarazteko. Erregek bizia kendu ez, baña preso iduki bai kalabozo ertxiagokoan, dio. Atra zute batetik eramateko berzera, arrastatus, ostikatus, golpatus, lixtukatus, maltratatus milla maneras, ta ala utzi zute loturik kalabozo ilun gartan. Bakarrik ikusi zelaik, asi ze keja-



tzen amorosoki, o ene Jesus, ta ene arimaren amore gozo gozoa, nola permititzen du ain fite utzi nazaten tormentatzetik? O Jauna, ta zein goxo diren tormentuak pasatuak orren amorez! Ain goxo delaik padezitzea orrengatik, ezta admiratzeko eman dezan neurriturik gutikara, ezi eztezte gizonek mereji alako gozo, ta alako loria ain andia. Lauda bezate serafinnek, ta supli bezate ene falta, ezpaitakit graziak ematen bear bekala.

5. Utzi zute ilunbe gartan atzendurik berarias eman gabe sustenturik, baña etzire atzendu zerukoak. Moroek uste zute il bidezela, baña ikusi zutelaik bizi ta bizkor, an zire aien oiuketak eta tratamentu gaixtoak: Berriro klamatzen zute il bear zela, baitare zeren aitu zuten gaizki erraten aien Profeta Mahomaren kontra. Azkeneko sentenziatu zute iltzera urkatuturik. Notifikatu ziote sententzia prisaka, baña berant, zerengatik orduko ia Maria Santisimak eman zio berri goi; eta ala ministroei erran ziote kontentus zoraturik, adiskideak, badakit biar dela egun ditxoso gura, ta nik ain deseatu gura, zeren Maria Santisimak berak, edertasun guziak baño ederrago agerturik erran dida. Ene Aingiruak ere anunziatu dida fortuna gau ain andia. Orai zuek ez dezazela luzatu martirio deseaten dutena. Gau gura luzeago iduritu zekio deseo zuenaren utses ellegatzeko urkabera. Biramonean atrarik eramateko, ikusi zuelaik urkabera goraturik, salutatu zue nola S. Andresek gurutzeta, ta andik ararañoko bidea ibili zue belauriko. Urkatu zute, ta utzi zute dilindaka urkabetik, guardatus guardiek gau ta egun, etzezan kendu niork ere. Zorzigarren egunean ellegatu ze laguna dirueki, ta aditurik pasatu zena, kejatu ze erregeri; baña protxurik ez ia, solamente logratu zue lizenzia, kentzeko urkabetik, ta eramateko errelikiak. Ellegatu zelaik erreparatuzue bizi iduri zuela, ta erraten zuela, o ene Jaun ona, zein dulce ta amablea den gustatzeuntenendako! Zer egin dut nik, honratzeko orrek ala ni, bialis bere Ama Santisima manteni dezan ene bizitza? O Ama Santisima, nolako alegria ematen didan berorren presenziak? Eta lagunari erran zio, ellega zaite, anaia maitea, ken nazazu leku gontaik, ezi Jangoikoak nai du bizi nadien, ta kantatu beraren miserikordiak: lagun zadazu ematen eskerrak, eta egin zozu diosalea Ama Santisimari, baitago presente Aingirus akonpañaturik. Admirazios beterik arrek laguneki jautsi zue urkabetik: eta gero diru garreki atrarik zenbait kautibo, itzuli zire sandua ta guziak Barzelonarat.

6. Gelditu zekizkio betiko señaleak memoriatako, lepoa makurturik, ta ilkolore: eta bera baño len, ellegatu ze fama, ta atra zire infinizio bat portura, errezipitzeko ta ikusteko Martir bat bizirik, urkatu bat libratuturik, ta sandu bat lurrean Jangoikoak deklaraturik. Akonpañatu zute konbenturaño ezin ases beiratus milagro gura. Gelditu zelaik konbetuan erreli-

jiosoeki, an ze eben galdegitea, nola ta zer gisas izan zen milagro gura: baña ezin atrarazi itzik, obligatu arteo obediencias. Orduan erran zue humil, Jangoikoaren ta gure Ama Santisimak eskatu zio bere Seme Jaunari ene biziaren luzaera, eta agindurik grazia, Ama dibinak iduki nindue bere esku birjinalleetan, ez nindeien ito sokareki. Emen zire arren humillatzea, esker ematea, ta afekto alakoak, ezi bereala goratu ze elebaturik airean gora. Gerostik ain maiz elebatzen ze, ezi lurrean zegolaik, kontu zegola zeruan: Ama dibinak espezialki erregalatzen zue kasi kontino, aditzen zutela kanpotik ere. Nai zute errelijosok xakin zer pasatzen zekion ainberze elebazioetan. Erres pondatu zue, Jangoikoak daki: neuronek eztakit osoki: solamente dakit, agitz ditxosoa dela gizona padezitzen duena Kristorengatik. Manatu ziote enplea zeien predikatzen, konbertitzeko arimak, baize ori bere antsia. Nork daki zenbat konbersione logratu zuen Jangoikoareki bateo? Zeren ezi beiratzea solamente pulpitoan ze beraxteko biotzik gogorrenak. Orren gañetik milagroketa obratzen zuena arimen ta gorputzen onetan. Orgatik ze aklamatu, ta billatua leku guzietaik, ditxoso kontatzen zirela zuketanak apatu beraren habitua, edo errezipitu bedeizioa. Iges in naiez alako laudario ta estimazioetaik, pasatu ze Guardiako konbentura: Bidean akonpañatu zute Barzelonakoek ainberze negar, ta dolameneki, ezi bear izan zue bere sendotasuna, segitzeko bajea. Ellegaturik ugalde Lobregat deitura pasatzen ze uraren gañean oñez busti gabe: eta pasatzerakoan fortunaturik soñatzea abemaria-ezkilak an erri batean, aitu zueneko paratzen zelaik belauriko errezatzeko, usatu bekala, urak partitu zire, ta utzi ziote lurra idor bukatu arteo erredua, ta pasatu arteo berze aldera. Errezipitu zute bere sortuerriko konbentuan nola Aingiru bat zerutik etorria. Zorzi urtez bizitu ze an bizitza bat kasi zerukoa, zuela komunikazio kontinoa zerukoeki. Azkenean eman zio heritasun bat, abisu bekala, pasatzeko bizi obero. Eskatu zitue sakramentuak, ta errezipiturik komunione sagratua, gelditu ze elebaturik Jesus onaren besarka amorosoan denbora luzean. Bere baitara itzulirik erran zue nola joan bear zuen biramonean mundugontaik; eta jautsirik Ama Santisima asistitzeko ordu gartan Aingeruen guardiareki, despeitu zue bere arima ditxosa Aprilaren 27.an 1304 urtean. Bereala mostratzeko beraren gloria Jangoikoak obratu zitue montonka milagroak, sendatus heri-genero guzietaik, ta biztus ilak ere: eta egungo eguneraño logratu, euri bear delaik, euri, serenidade bear delaik, serenidade, solamente atratzeareki prozesioan kaxa dauzkiena errelikia sanduak. Bedeikatua biz Jangoiko ona, ain egiaz baitaki barkatzen, ta otsoak itzultzen axuri, ta bekatariak sandu, kantatzeko bere miserikordiak.



Maiatzaren 12.an San Nereo, Akileo, Domitila, ta Pankrazio

1. S. Nereo ta Akileo elkarren anaiak zire nirabe zeudenak Flabia Domizilaren zerbitzuan ongi estimatuak, eta beren etxokandre goi ze donzella ta señora andia, enperadorearen elleba. Aiek in zire Kristio S. Pedroren medios, eta konsejatu zioze beren etxokandreai egin zeien bera ere Kristio, eta egin ze. Tratatzen ze ezkontzea Aureliano Jaun andi bateki; eta zegolaik bein adornatzen gala preziosoeki Nobia bekala, bi anaiak mintzatu zioze, o Domitila, paratzen duen dilijenzia adornatzean gorputza, para balez edertzean arima, kuadra leike ortas Jesu Kristo, ta ar lezake bere esposatako, ta iraun lezake orren edertasunak eternoki. Errespondatu zue, ezta gaixto Matrimonioaren estadoa, Jangoikoak paratu duena, bizitzeko elkarren konpañian, ta azitzeko humeak zerurako. Aiek erran zioze, baña zenbat obeago da birjinidadearen estadoa, Jesu Kristok erakutsi ta konsagratu duena? Orrek beiratzentu matrimonioaren onak, ta eztu beiratzten dituen trabajuak, kargak, ta neke-penak. Galdu bear donzellatasunaren nonbre, gala ta gloria: egon bear gizon baten sujeziora: sufritu bear humore gaixtoak, eta asko naigabe, ta bear ezten: gero zenbat kuido, trabaju, peligro, molestia, eta guruze gisa? ezin konta ala orputz ta arimaren aldetik. Kontra berriz birjinidadearen estadoan libre sujekzio goietaik, gorputza sendoago, ta ederrago, arima sosegu obean daukala bere esposotako Jesus ona dakiena onetsitzen ta ongi egiten beti, gaizkirik beñere ez, guziz ederra, poderoso, abrats, liberal, afable, amante ta amable ezin obea, ta nai bekalakoa. Emen gozaraztentu bere amorearen erregalo soberanoak, eta an egitentu erreginak koronaturik glorias, ezi zeruan ere distingituak dire birjinak beren insignia berex gloriosoareki. Oh! ezaun balez ongi abantalla! Azkenean senar emen artu dezana faltatuko zaio goiz edo berant, nai badu ezpadu: Jesus gloriako errege soberanoa betirokoa da, ezta faltatzen, eztaere aldatzen. Donzella juiziosoak aitu ondoan erran zue, oh! lenago aitu banu doktrina gau, ofrezitu baño len ni esposatako! Oh! balitz modu, libratzeko ni Aurelianoren eskuetaik, ta mantenitzeko birjin, nola nai nuken!

2. Utzi zute arimo onareki Domitilla, ta joan zire kontu ematera Aita sanduari, baize S. Klemente sandaren lengusua. Aditu zituelaik erran zue,

iduri zaida au dela denbora, pasatzeko martirio nik, eta arrek, eta zuek: baña bada Jesu Kristok dio, ez beldurtzeko iltzen dutenes gorputza, etzagula in kasorik gizon mortaldas, Jangoikoak egiteagatik plazer. Goazen Domitilagana: joan ze, ta konsagratu zue Jesu Kristoren, nola nai zuen. Bere esposo Aurelianok jakin zuelaik, eman zition trabajuak eta molestiak, ezta aisa kontatzea ere; desterrarazi zue urrun, ustez ango trabajueki errendituko zen artzera bera esposotako. Akonpañiatu zute desterruan bi mutil sanduek: Joan ze araraño Aureliano ere ikustera ia beraxtu zen; baña aurkiturik firmeago zegola len baño ere, eta bi anaiak zirela medio, eben kontra itzuli zue bere ira, nai zitue ilarazi; azotarazi zitue moldegaizki: biali zitue Terrazinara, kastiga zezkien ango Juezak Minuzio Rufo deituak: onek ezin zuzkelaik ez ones, eta ez gaitzes errendiarazi, zeren baiziotze, munduagatik etzutela utziko fedea S. Pedro Apostoluak erakutsi ziotena, tormentarazi zitue potroan, errearazi burriñasko plantxa goritues saietsak, ta azkenik ebaki buruak. Orziarazi zitue beren Diszipulo izanak, ta Domizilaren kuidoazaleak Romara urbil, beraren heredaje batean.

3. Gero Domizila bera eraman zue Aurelianok Terrazinara obligatu naiez eskontzera: ortako ertxiarazi zue ganbara batean: bilarazi zue anitz jende zelebratzeko boda: disponitu ze danza, ta Aureliano dantzatu ze maneraz, ezi antxe akabatu ze, orazioan zegon bitarteo Domizila eskatus libra zezan arren eskuetaik. Libratu ze Jangoikoaren graziaz, baña ez martiritiotik, ezi Aurelianoren Anaia batek mendekatu naiez erdetxi ze Trajano enperadoreaganik manamendu egiteko presa Domitilla Kristiogatik, ta ilarazteko, ezpazue utzi nai. Oneki joan ze Terrazinara: aurkitu zitue Domizilia ta berze donzella juntatu zekizkionak guardatu naiez birjinidadea. Notifikatu zioze manamendua, eta mantenitzen zirelaik firme beren propositoan, enzerraturik kuarto batean Domizilla. Teodora, ta Eufrosina, emanarazi zue kanpotik su, an erre zeizen. Biramonean Diakon batek, Zesario deituak aurkitu zitue agos bera nola baleude orazioan: suak kendu bizia bai, baña ez erre ta ez ukitu bilo batean ere: ta ala sanda bekala ortzi zitue honratuki. Arimak zerura Jangoikoak.

4. S. Pankrazio amalaur urtetako mutikoa, gelditurik emazurz, kuidatzen zue bere osaba batek Dionisio deituak. Onek azitzen ta erregalaten zue berea bekala, ta eraman zue bereki Romara, non baratu zire barride batean, zeintan zegon Aita sandua altxaturik persekuzioeagatik. Deseantzen zute ikustea bere fama onagatik. Ikusi zute, aditu zute, ta ikasirik fede Kristioaren egia errezibitu zute ain gogotik, ezi arren amorez ia zeude il naiak. Andik guti iltze osaba erio naturales: mutikoa in zute preso, ta eraman enperadore Dioklezianogana, zeñek jakinik zela jendaki noblekoa, ta



ikusirik ain gassettoa, ta ederra, nai zue milla loxentxus ekarri adoratzera aien Jangoikoak. Mutikoak errespondatu zio juizio andiareki, admiratzen naiz nola berorrek ain juizioskoa izanik nai duen adora dezkiten nie Jangoikotako gizon ain bizioso gaixto izanak, ezi alakoak balire bere mutil zerbitzukoak, bota lezazke etxetik ongi zeaturik. Errespuesta goneki suturik enperadoreak degollarazi zue: eta sanduaren gorputza gauas arturik Oktabila Matrona Romanak ta enbalsamaturik depositatu zue 303 urtean.

Maiatzaren 26.an San Felipe Neri Konfesore

1. Florenzian jaio ze S. Felipe Neri sazerdoteen lorea, ta gala. Aurzutuak ze agitz juizioso ta birtuoso, deitzen baizute Felipe ona. Estudiatzen zitue ongi letrak, baña obeki birtuteak, ain Jangoikoai emana, ezi erre zelarik Aitaren hazienda bat agitz baliosoa, etze orgatik turbatu. Biali zue Aitak Napolesa, izateko an bere osaba abrats baten heredero, enpleatus merkatari-tratuan: baña naiago zue berak enpleatu zerurako tratuan. Orgatik joan ze Romara, non enpleatzen ze bere estudioas landara bisitatzen estazioak, orazioan, baruan, penitenzian: espezialki arimaren ta gorputzaren kastidatean. Armatu zizkiote lakioak zeboareki; baña atra ze libre irabazis Jangoikoarendako tentazaleak. Bere libru betirokoa ze Kristo guruzifikatua, zeñi beiratus ere urtzen ze amoresko negarres, ta eman ze amatzera ta imitatzera al guzian. Jauna ere asi ze erregalazten miragarriro bere amazalea. Eta zer erregalo obeago, ezi ematea amorearen iago ta iago sugar gozoak? Ain abasto eman zio bein, ezi erori ze lurrean biotzaren palpitazio erru bateki, zein iraundu zion bizi guzian, ta ezin kabitus biotzak petxoaren barnean, bi kostillezur autxi, ta goratu zekizkio: ta on zio te medikuek zela Jangoikoaren probidenzias, etzeien heritu biotza salto gaieki, ta izan zezan leku desahogatzeko ta freskatzeko. Jangoikoaren amoreai darraio proximoen amore; eta ala zebila injeniatzen beti nola egin ongi eginala: diru guti naiz bai, baña zue karidade anitz. Billatzen zue andik eta emendik erremediatzeko beartsuak: ta bere Aingiru guardiakoak lagun iten zio, ta libratzen ere bai peligro andietaik. Baña bere personas zerbitzaten zio te hospitaleetan heriei bear guzietan, eta afizionarazi zitue ofizio goietara berze asko: rinzipalki S. Kamilo Leli, zeñek gero fundatu zuen erreljionea, lagun iteko heriei ongi iltzen: eta zeudelaik exortatzen, ikusi zue S. Felipek nola zeuden Aingiruak inspiratzen itz erran bear zuztenak.

2. Baña arimen eiziara zue bere afizionea prinzipalki. Ortako eman ze guzia aditzera konfesioak: eta ofizio gortan trabatu zuena ilartaño, atra zituen fruituak, lagundu ziona Jangoikoak, eta ala obratu zituen prodijio miragarriak, ezta mirik explika dezakenik: Zenbait bakotx aipatukotut, entenda daien zein kuadrable den Jangoikoai lan gisa gau, berak manatua becala. Goizoro agitz goixtar joaten ze elizara, ta jartzen ze pazienziaren alkian, diot, konfesonarioan, etxideten penitenteak, andik etze jaikitzen,



ezpaze meza erratera, edo gauza prezisoren batera, ta alakoetan uzten zue abisaturik nora zoeien, abisa zezaten, nai bazue norbaitek. Etzelaik konfesatzekorik, egoten ze konfesonarioaren aldakan orazioan edo leitzen, orreki aurkitzen zue nai zuenak noiznai. Zebatzen asi zelarik jendea, komunkiro agitzen ze konfesatzea berrogei persona argitu orduko, eta ebek ta gañarako konfesatzen zituenak jaiegunetan bialtzen zitue egitera orazio, erran arteo berak meza, zein guziek enzuten zute, ta komekatzen zitue artan bere eskus: gero graziak emanik, bear zuzte bisitatu heriak, ta zerbitzatu hospitaleetan. Baña nolako gauzak inarazten zitiote, alzinatze-ko birtutean? Eta obeditzen ziote puntualki, ikusirik nola Jangoikoak laboratzen zituen obedienteak, eta kastigatzen desobedienteak. Orgatik atra zire bere penitenteetaik anitz sandu, ta errelijioso. S. Ignazio Loiolak deitzen zue S. Felipe ezkila, zeren nola ezkilak dorrean dagolaik ekarraztentuen fiela tenplora, ala Felipek errelijionera penitenteak, gelditurik bera kanpoan. Nai zuelaik sartu Jesusen Konpañian, etzue admititu S. Ignaziok ikusirik probetxu iten zuena munduan. Berriz aditus Indietako berriak, joan naiak zegolaik arat konbertitzeko infielak, errebelatu zio Jangoikoak errelijioso bati, Feliperen Indiak zirela Roman: nola baize ageri, prinzipalkiro administratus penitenziako sakramentua.

3. Prinzipioan errepugnatzen zue konfesatzea emastekiak; baña erdetxi zuenas-sueros biktoria andi bat gaixtoek armatu zioten galbide ta eskaida andi batean, Jangoikoak komunikatu zio kastidadearen dono bat ain exzelentea, ezi ala nola iruzkiak balsaloi ta ongarietaik ezten mantxarrik, ala sanduak naiz kuratus gaitz eta lлага urrintzuak, etzue senti beñere mellarik: antes bien errespiratzen zue bereganik atxon edo fragranzia bat zerukoa; eta usmas ere ezauntzen zitue personak, atxon onetik honestoak, deshonestoak usai gaixtotik. Baña zenbat berze dono ere komunikatu zio bere Majestadeak? Beraren argis ikusten zitue biotzen pensamentuak, eta afektoak sekretoenak: abisatus zer ta zer atzen zekioten konfesatzean: baitare erranes berak berek erran baño len. Opaturik bein bateki erran zio, zein beitate gaixtoa duzun! Erretiraturik arrek egin zitue zenbait akto kontriziosko konfesatzeko, ta ondorean erran zio sanduak, berze beitarterik duzu orai. Berze bat gaizki konfesatzen zena sartu ze ikustera sandua bere kuartoan: sandua ikusi orduko asi ze negarres ziola, zergatik etzara konfesatzen osoki? Beira ez dezazun gezur egin Aita espiritualeai: deklarara dena den bekala. Gelditu ze ura arriturik. Biramonean konfesatu ze berze bateki: gero joan ze bisitatzerara sandua, ta sanduak, orai bai, erran zio arresti, edertu baizara. Berze bat konfesatu ze sanduareki zeremonias: sanduak erran zio serio, Espiritu Sanduak erran

dida, konfesatu duzun guzia dela gezurra. Lotsarriturik ura konfesatu ze gero ongi, ta sartu ze Relijioso. Berze bati altxatzen zituenai alkez, erran zio, zuk duzu bekatu gau, ta ura, ta berze gura, konfesazkizu, ezpazara nai kondenatu. Berze batzuei alketzen zirenei alzinatzen ze bera erratera amoltsuki zuten guzia. Berze batzuek konfesatu ondoan bere iduri gura, galdegiten ziote, Aita, gelditzen ote zaida zerbait? Sanduak zio, bai, au edo berzea, edo segurutzen zitue konfesatuas ongi.

4. Bada Jangoikoak eman zion donoa, berexteko biotzak, inarazteko bear zena, kidatzeko, ta salbatzeko arimak, eztaike aski pondera. Bere konfesatu bat zego estudiantzen afanaturik igan naies gora munduan. Sanduak biotza ikusirik erraten zio kariño andiareki, ditxosoa zu, orai estudiantu guapoki, ta gero famatuko zara, ta logratukouzu dignidade ta errenta abasto. Ditxosoa zu, ain gora goratzen zarelaik, nor zuri atrebitu mintzatzera ere? Ala zoekio erranes mutilai ia gogoan pasatu zuen guzia, ta aldioro ditxosoa zu. Mutila zego zoroturik kontentus ustez erraten zion sinez. Azkenean burua eskus artu ta arrimatus bere petxora, erran zio bearrira itzto gau, eta gero?... Inprimituzekizkio ain fuerte biotzean, ezi etzei due atzen. Joan etxera, ta beti bere buruareki kabilatzen, bai orai estudiantu andi naiez: eta gero? Gero graduatuko aiz, ta inen aiz Abogatu: eta gero? Gero juez Konsejuan. Eta gero? Pensamentu goneki despeitu zue munduko banidadea, ta eman ze Jangoikoai: ta itzto gorreki desenganatu zitue berze anitz. Señora bat konfesatzen zena sanduareki, zeren alde bateki asarraturik etzen baketu nai, erraten zion bekala sanduak, apartatu ze konfesatzetik berareki. Mantenitzen zelaik odio gartan sobra; gau batez sentitu zue ematen ziotela bofetada bat, ta bateo aditu zue S. Feliperen boza erraten ziola, noiz arteo mantenitu beazu ira goi? Lotsaturik andre gura bereala argitu orduko joan ze bere konfesore sanduagana ia biotza aldaturik. Bere sazerdote lagun bat bialirik itekos zego aflijiturik hein bekatuaren peligroan. Urrun zegolaik sandua agertu zekio bere kuartoan erraten ziola, nola zaude? Arrek, gaizki. Sanduak eskua buruan paraturik zeñatu zue, ta erran zio, ez beldurrik izan. Oneki desaparezitu ze, ta ura gelditu ze alegre, ta aurkitu zue ataria ertxirik, utzi bekala. Emasteki bat heri zegona ia iltzeko bisitatu zue sanduak, ta animatu zue bere tentazio andietan: gero atra ze joateko bisitatzerara berze heriak: karrikan zoeielaiak baratu ze guti bat, ta erran ziote lagunei, ah pobrettoa, pobrettoa! Preziso da itzuli gaitzen. Itzuli ze, ta aurkitu zue kasi desesperaturik. Oiu iten zio, bada erran zadazu, norengatik iltze Jesu Kristo? Arrek, bekatariengatik iltze. Sanduak, eta zu zer zara? Arrek, ni bekatari gaixto bat. Sanduak orduan, bada Kristo il baze bekatariengatik, ta bekatari izan zu,



beras salbo zara Kristoren kostus. Fu ematen zio aurpegira, egiten zue orazio, ta buruan eskua paraturik, ta beira zegokiolaik, oiuz erran zio, arima, nik manatzen dizut Jangoikoaren partetik atra zaitela gorputz gontaik. Istante berean iltze. Deklaratu zue gero sanduak, izan zela Jangoikoaren grazia, ezi iraundu bazue iago, zela peligro andia erori zeien tentazioan. Dirudi zeukala bere eskuan erioa ta bizia, osasuna ta gaitza. Erraten zue batzutan, nik eztut nai iltzaiten orai: eta bereala sendaturik. Berze batzutan burua galdurik zeudelaik itzularazten zitue juiziora, konfesatzeko. Mutiko bateki agitu zena da notagarri. Arren Ama zegolaik erditzeko ia, senarrak eskatu zio sanduari enkomenda zezan Jangoikoai. Sanduak suspenso egonik guti bat errespondatu zio, zure andrea erdiko da seme bates; nik nai dut para dezozen izena ene gustora: etzara kontent? Ark, baietz. Sanduak orduan, bada deitu bear da Paulo. Kunplitu ze guzia erran bekala: jaio ze, azi ze, ta konfesatzen ze Paulo sanduareki. Amalaur urte-tan artu zue kalentura kontinokoak: bi ilabete terdis heri egon ze: Sanduak egunoro bisitatzen zue, zeren baizue maite. Iltzerakoan abisatu zute sandua zetorrela, nai bazue ikusi bizirik: sandua orduan zego mezan, ta bukatu zueneko bukatu ze Paulo, ta zeude mortaxatzeko. Ellegatu zelaik sandua paratu ze orazioan, eman zio ur bedeikatu, egin zio, ta oiuz, Paulo Paulo. Onek istante idikirik begiak errespondatu zio, Aita: bekatu bat atzendu zekida, ta nai nue konfesatu. Atrarazirik jendeak, ta guruze bat eskura emanik konfesatu zue. Gero sarturik etxeakoak kuartoan, asi ze mutikoa kontatzen bere Ama ta arreba ilak zirenes. Ordu erdi bat iraundu zue itzketak. Gero galdegin zio sanduak, ia nai zen il: arrek errespondatu zio baietz, joateagatik zerura, non ikusi zituen bere Ama ta arreba. Orduan sanduak, emanen bere bedeizioa, erran zio, zoaz Jangoikoareki ordu onean, eta otoitz egizu enegatik Jangoikoai. Istantean mutikoa alegre deus mogitu gabe gelditu ze ilik, asko zeudelaik beira.

5. Sandu glorioso laur ogei urte beterik, infinizio bat obra on eginik, ta infinizio bat arima irabazirik Jangoikoaren, izanik munduaren exenplu sendoa birtute guzietan, espezialki karidadean, kastidadean, ta humildadean, ellegatu ze azkenerat, ta erraten ziotelaik bereek eska zezola Jangoikoai S. Martinek bekala, Jauna, barima banaiz oraño preziso berorren jendearen, eztut errepugnatzen trabajua: errespondatu zue sentimentu andiareki, Jangoikoak guarda erratetik alako itza nik; nor naiz ni, presumitzeko nai zela preziso deustako ere? Ala uste zue beti zela ez solamente inutil, baita ere munduan zen gaixtoena. Jangoikoai erraten zio, Jauna, guarda benaza, otoi, ta iduki benaza bere eskutik, ezperen itzuliko nazaio traidore. Bein zoeie karraka barna oiuz ziola, ni nago desesperatu-

rik. Ongi nai zutenek, zer du? galdeginen zioten, zer agitzen zaio? Errespondatu zue ia sereno, nago deseperaturik neureas, baña seguraturik Jangoikoas. Azken eguneraño enpleatu ze meza erraten egunoro, erreztatzen, ta konfesatzen goiz-arrats: Azken egunean, baize Korpus Kristiren eguna, jarri ze agitz goizik konfesatzen jendea, eskatus erreza zezatela errosarioa berarendako il ondoan: ta besarkatus, ta despeitus amorosoki: gero erran zue meza zoraturik bekala alegranzias, glorian espezialki erdi kantatus: gañarako lanak ere egin zitue, baña alegreago noiz baño. Gauerdirat eman zio odolesko akzidente batek, zeñeki bereala despeitu zen arima 1595 urtean. Milagroak abasto bereala: izan ze kanonizatua S. Isidro Nekazariareki, S. Ignazio, S. Franzisko Xabier, ta S. Teresareki 1622 urtean.



Maiatzaren 19.an San Dunstano Arzobispo Kantuariakoa

1. S. Dunstano Inglesa, buratso guzis nobleen humea, kastidadearen defendazale, ta deshonestidadearen kontrario insigneña señalatu zue Jangoikoak jaio baño len ere. Berareki sabelean bere Ama zegolaik kandelera prozesioan, derepente aizerik gabe itzali zire kandela guziak; arrena solamente gero itxeki ze an goratik jautsi zen argi milagrosko bateki; eta artaik guziek itxeki zuzte bereak, ta entendatu zute emanen zuela argira seme bat argituko ziotena guziei zerurako bidean. Jaio ze bere denboran Dunstano txoil eder agraziatua. Pasaturik aurzutua eman ze estudiatzera alako aplikazioareki, ezi sobra estudiatus heritu ze eriotzeraño: baña iltzeko zegolaik gau erdian de repente saltatu ze goatzetik sano ta sendo, eta joan ze elizara graziak ematera, ta ertxirik zeudelaik atariak, aurkitu ze barnean milagros. Anitz habilidade izan zue eskribitzean, pintatzean, urre zillar labratzean, eskulturaren, musikan, ta berze estudioetan: baña prinzipalena orazioan, ta birtutean aritzean. Bere osaba Kantuariako Arzobispoak ezaundurik guzietako zela on, enkomendatu zue erregeri: erregek estimatzen zue mereji bekala; baña inbidiosok etzute ikusi nai, ta goratu zioten asko testimonio ta persekuzio malamente: bear izan zue joan aien begietaik: bidean erdetxirik maltratatu zute milla maneras, ta etzute akabatu iles, zeren tzakur-tropa batek defendatu zuen. Joan ze libratu Jangoikoaren graziaz S. Elfego obispoagana, zeñek ordenaturik sazerdote bizitu ze denbora zati bat erretiraturik penitentzian, ta orazioan Jangoikoareki.

2. Baña il ondoan errege gura, arren anaia Edmundok errege berriak deitu zue beregana: baña inbidiosoen astuzias bota zue bereganik. Jangoikoak ordea ikusiarazi zio erregeri bere utsa, zeren aurkiturik biziaren peligroan, ta ezaundurik zela Jangoikoaren kastigoa, ofrezitu zue itzulaztea Dunstano; ta ala libratu kunplitu zue, ta sanduareki bateo fundatu zue monasterio bat izan zena ango kristiandadearen muralla bekala. Ilik errege, ta bere anaia, sartu ze Eduino gaixtofikatua, ta ain itsutua bizio deshonestoan, ezi bere koronazioko egun berean utzirik Jaundiak konbita solemnean erretiratu ze bi Ama alabaeki guzien eskandalo ta murmurazioareki, zenen sosesgarazteko joan ze sandua, erreprehenditu ta itzulia-

razi zue erregea Jaun gaiengana: baña ainberze ira artu zute bi gaiek, ezi desterrarazi zute sandua erreinutik, ta ez kontent orreki sollik biali zuzte ministro manatuak arrapatzeko, ta atratzeko begiak sanduari; Ain furioso da pasionea urdeetan! Baña orduko Flandesa joanik zego sandua. Agitz konsolatu zue an Jangoikoak sandua S. Andresen medios, laster akabatuko zela trabajua, ezi errege buru arinak laster galdu zue erreinua-ren zati andi bat, eta bizia, eta ezpazue galdu arima betikos, izan ze sanduaren otoi ta negarren birtutez, ezi sanduek ala pagatzen zuten gaizkiak onkieki. Arren anaia Edgardo eginik errege, lenbiziko in zuena izan ze deitzea S. Dunstano beregana, ta gero egitea obispo Bigornian ta Londresen lenik, ta azkenik Kantuariako Arzobispo Primado. Emen ere izan zue iteko asko deshonestoeki: zeren ezi Konde Jaun andi bat ezkondu ze bere goñata bateki dispensarik gabe: abisatu ta erreprehenditu zue sanduak, ta etzelaik berze erremediorik, exkomekatu zue. Asarraturik arrek akuditu zue erregegana, ta Aita sanduagana, beraxtu zezaten S. Dunstano, baña ikusirik zegola firmeago ezi peña, arriturik beldurrak erori zekion ganean Jangoikoaren maldizioa, despeitu zue emastekia, eta obispoeki Arzobispoa zegolarik konzilio nazionalean, sartu ze Kondea oin urtuxian penitente, botatu ze sanduaren oñetan humil humila eskatus penitentzia ta absoluzioa. Errege berareki ere, naiz ain onetsia zen beraganik, iteko izan zue genero gontan, zeren erregek ikusirik konbentu batean donzella bat agitz ederra an azitzen zena, deiturik beregana azkeneko desloratu zue. Jakirik S. Dunstanok artu zue bidea erregeren palaziora: ellegatu zelaik, nai zue erregek artu eskutik honratu naiez; baña sanduak grabe erretiratu zue eskua, erraten ziola garbi zeila lenik penitentiako sakramentuan, ta gero ukituko zituela beraren eskuak baizire sagratuak. Bereala errege bota zekio oñetan, konfesatu bere gaizki egin, ta eskatu zio penitentzia, zein paratu zio sanduak zazpi urtetakoa, ta kunplitu zue erregek humil.

3. Berze iteko batean ikusiarazi zue S. Dunstanok bere santidadea ta konstanzia. Bizi zire orduan eliza-gizonak Inghaterran arro deshonestoki, ezkondu bekala anitz aietak. Etzire askitu berze erremedioak: bear izan ze usatu burriña ta sua, kendus Jangoikoaren etxetik deshonne itsusi gura, botatus alako kalonje ta elizagizonak beren elizaetaik, dignidade, ta errentaetaik, ta paratus aien lekuan Monje sanduak. Egin ze lan gau anitz lekutan Aita sanduaren ta erregeren ordenamendus. Baña kexatzen zirelaik ta lamentatzen despeituak, erregek juntarazi zue konzilio obispoena Bintonian: S. Dunstanok proponitu zitue an bere arrazioak ta moduak, nola egin zen: aprobatu zute Jaun guziek: baña nola baizire anitz ta pode-



rosoak pribatu zirenak, eutxi zire erregeri otoies eta negarres eskatus itzultzea lengo errentak: Ia lastimatu zire errege ta zenbait Jaun andi, eta asi zire eskatzen S. Dunstanori, lastima zeien bera ere, ta barka zezoten aldi gartan, ta ezpazire emendatzen, gero bota zezkiela berriz betikos: Zegolarik sandua pensatzen, Kristo gurutifikatuak an zegonak guzien alzinean, goraturik boza imajinatik erran zue, eztaielea egin, eztaielea egin: Ongi ordenatu duze: etzazela aldatu gaizki. Gelditu zire ta Jaun guziak arriturik; eta S. Dunstanok erran zue, ia eztugu itekorik: Jangoikoa da eman duena sententzia. Ala gelditu zire orduan gauzak: baña denboraren buruan aien humeak asi zire berriz erreklamatzan beren Aitaen erren-taengatik: billatu zute ortako Abogatu elegante bat, zeñek ederki presentaturik Ze arrazioak, sanduak sereno ta grabe erran zue, badakize pleitu gau aspaldian dagola bukaturik Jangoikoaren sententzias. Nik orai arteo kuidatu dut laguntzea elizai nere indar guties: orai adinareki ta trabajueki nago konsumiturik pasatu naiez bakean falta zaizkidan egunak. Jangoikoi-ai enkomendatzen diot bere eliza, defenda dezan. Azken itza erran zue-neko, aiek zeuden sueloa ondatu ze, ta guziak eroririk bera maltratatu zire; baña sandua zegon lekua oso gelditu ze berareki. Ala konfirmatu zue Jangoikoak emanikako sententzia.

4. Berze gauza batean ere mostratu zue justiziaren zela. Sententzia-tu zuzte irur monedari falsu iltzera, ta luzaturik justiziatzea egun batez, zeren baize Espiritu Sanduaren bazkoa, utzi zue meza egun gartan, etzuela erranen in artaño justizia gura. Gogor iduritu zekiote zenbaitei ta rigore, baña Jangoikoak adiarazi zue etzela baizik zuzenbide: zeren ezi aiek justiziatuas geros, paratu ze meza erraten, ta jautsi ze uso bat elurra baño txuriago, ta egon ze sanduaren buruaren gañean, bukatu artaño meza, beraren konsolazio ta deboziosko negar gozoei. Asko bisita zeruko gozatu zue, ta bein joaterakoan Ama birjinaren tenplora, akonpañña zute birjin zerukoek arturik erdian, ta kantatus miragarriri, paratu arteo elizan. Ikusi ere zue grazian dauden arimen edertasuna, ta amorosturik ala arimes etzue berze antsiarik, baizik irabaztea arimak. Juande Salvatore egun batez zegolaik kontenplätzen Kristoren triunfoa igatean zerura, ikusi zue infinizio bat persona txuri argi eder sartzen elizan guziak koronaeki buruetan: erraten ziotela, barin bazego prest, zoeiela aieki zerura zelebratza festa gura. Sanduak esker milla emanik, errespondatu zue bere ofizioa zela erakustea fielei misterio gura, ta zerurako bidea: orgatik etzeikela joan egun artan aieki. Aiek ontzat arturik exkusa erran zioten presta zeila bada urbilen larunbateko. Eta egun gontan igan ze ikustera Jangoikoiaren aurpegia zeruan, Kristoren milla urteen inguruan: 988 urtean &.

Garagarrillaren 14.an San Basilio andia Doktore

1. S. Basilio andia, eliza katolikoaren Doktore ta pilare fuertea, herejeeen mallua, jaio ze Helenoponton: bere jendaki guzia izan ze sandu, ta bera agitz sandu. Atenasen estudiaturik S. Gregorio Nazianzenoreki egin ze txoil adiskide, ta biak bat bekala zire, biak agitz sandu, ta agitz jakintsu. Jerusalemgo peregrinazioa bukaturik, itzuli ze Basilio Antiokiara, non ordenaturik Diakono asi ze predikatzen asko lekutan: ellegaturik Zesareara ordenatu ze sazerdote, ta askok nai zute egin obispo orduan ere: baña bera S. Gregorioreki erretiratu ze desertura, non bizitu ziren obratus, ta erakutsis santidade guzia. Andik iten zioten gerra herejeei, argitus ta agertus iruzki batek bekala aien erreoren ilunbeak. Baña jakinik iten zituela herejiak kalte andiak Zesarean, atra ze zoko gartaik konfunditzeko herejeak, ta konfirmatzeko katolikoak ziudade gartan. Eta faltaturik ango obispoa, obligatu zute izatera, nai ezpazue ere. Bear-izan ze alako bat, zeren agiturik goseketa erru bat denbora gartan, sanduak zuen guzia saldurik ta emanik, exenplu ta itz oneki kuidatu zue erremadiatzea al guzian: ta inarazi zue hospitale bat, non kuidatzen zuen pobrees ta heries bere eskus ere zerbitzatus. Etzire falta murmuratzen ziotenak, ta karidadea deitzen banidade: baña etzue ajolarik, klaro zelaik ageri Jangoikoi plazer iten zekiola, zeren ezi sandu gontan beti distingitu ze petxo bat andia, korajea, ta konstanzia Jangoikoaren zerbitzuko gauzetan.

2. Progratu ze fede katolikoaren defensatan. Juliano Apostatak tratatu zuenak estudioetan Atenasen, enperadore eginik gastigatu zio nai bazekio joan ikustera, nola adiskidea adiskideagana. Errespondatu zio ausart kristio katoliko zela bera, ta zegola prest iltzera fedeagatik. Julianok artu zioten oposizio berai, ta S. Gregorio Nazianzenoi, baizekie zirela bi defendazale fedearnak garai etzezazkenak arrazios, ta nai zitue ilarazi Persiako gerra bukatu ondoan, baña an bukatu ze bera heriturik zerutik, eta diote ezi S. Basiliok orazio eginagatik Ama birjinai. Baña Balente enperadorea-reki izan zue geiago iteko. Arrek desterratu zitue anitz obispo katoliko, laur ogei sazerdote eramanik itsasan dira onzi batean, su emanarazi zio, an erre edo ito zeizen, berze sobra gaixtakerien gañetik, nola baize Hereje Arrianoa. Joan ze Zesareara ere, eroriarazteko S. Basilio, baize iago erresistitzen ziona guziek baño. Baña nola baize ain estimatua ta errespetatua guzienganik, batzutan bialtzen zitio bere konsejukoak irabazi zeza-



ten loxentxus, berze batzutan kapitanak lotsa zezaten meatxus: baña tieso beti sandua, nola peña bat. Enperadorearen Prefektoak, Modesto deituak, baña inmodesto zenak ta moldegaitz, presentarazi zue bere alzinean: eta deskortes desatento erran zio lenbiziko itza, zer atrebenzia da orrena ala oponitzen baita enperadorearen Majestadeai? Uste du badezokela erresisti? Errespondatu zio sereno emekiro, nik eztakit zergatik deitzen nauen atrebitua ni, eztutelaik egin gauzarik izen goi mereji duenik. Prefektoak suber dio, ene keja da, zeren guziek obeditzen diotelaik enperadoreai, orrek sollik desobediencia ta desprezio iten baitio. Sanduak tieso, nik bear diot obeditu zeruko ta lureko enperadoreari, ta arren kontra ni ori ez. Prefektoak emen, nik nai dut obedi nazan. Eztagokio ongi gure lagun izatea profesatzen dugun artan? Sanduak, gauza ona da izatea berori lagun, ez Arriano bekala, bai Kristio katoliko bekala, orrek nai baluke izan, ezi kristioa estimatu bear da fede egjaskoagatik ta konzienzia garbiagatik. Berori uste dut dela enperadorearen Ministro ona, ta gizon andia; baña orgatik eztut uste dela Jangoikoai kuadrableago ni baño. Sutu ze oneki Prefektoa, ta asi ze meatxu egiten inen ziola au ta ura, desterru, tormentu eriotze. Sanduak errepausa andiareki erraten dio, Modesto Jauna; ez pensa lotsatu ni meatxus. Eztut beldurrik kentzeas ondasunak, ezpaititut; eztaere desterruas, ezi mundu guzia da desterru enetako, paraisoa patria: eztaere tormentues, ezi ene gorputz gau dago flakurraturik, golpe gutireki ilen da: eriotzeas gutiago dut beldur, baitakit idikiko didala ataria, pasatzeko Jangoikoagana. Arritu ze Prefektoa korajeas, ta erran zio, eztut aurkitu nior mintzatu didanik ain libre ausart, nola orrek. Sanduak, on bide da, zeren eztuen tratatu obisporik, ezi obispo garenok gara obligatuak izatera humilago guziak baño gañarakoan, baña Jesu Kristoren fede ta honraren asuntoan animoso ausart. Azkenean Prefektoak erran zio, gau gau ematen zaio, pensa dezan ongi dagokiona. Sanduak, ni oroat izanen naiz biar, nola egun.

3. Kontatu zio Prefektoak enperadoreai pasatu zena Basilioreki, ta admiratus konstanzia manatu zue enperadoreak utzi zezatela geldi. Eta ikusi daien sanduen jenioa nola en, Prefekto gura ain gogorki tratatu zuena agitu ze gero erortzea gaitz trabajoso batean erremediorik etzuela niondik: eskatu zio S. Basiliori, nai bazekio joan ikustera: joan zekio sandua boladan; ark eskatu zio barkazio: sanduak ez barkazioa solamente, baita osasuna ere eman zio bere orazioareki; adiarazis nola Jangoikoaren alde zen leon bat bekala, ta bere agrabioetan axuri bat mansoa pagatus gaizkia onareki. Errege-egunean, edo Epifamaren festan joan ze enperadorea tenplora, zeudelarik zelebrazten katolikoak beren obispo Basiliore-

ki, sandua guzien erdian atento erreberente orazioan mogitzen etzela iago ezi arri bat, eta guziak inguruan ixil modesto deboto: ellegatu ze enperadorea ofratzera bere ofrenda preziosoa: nior etze mogitzen errebizbitzera, ezpaizekite nai ote zuen sanduak errezi bi zeien arren eskuetaik, etzelarik katoliko: Arriturik zego enperadorea, ta turbaturik burua, bear izan zue iduki zezaten eskus, ez erorzekos. An mintzatu ze sanduareki atento, ta beraren itz sandueki beraxturik asi ze tratatzen katolikoak amoltsuago: baña bere konpañian zituen herejeak zire ainberze, ta ain porfiatuak, ezi emanarazi zio te manamendu desterratzeko S. Basilio. Ia prestaturik guzia, kunplitzeko sententzia, etorririk gaua, atarian karroa eramateko, alegantzias herejeak, katolikoak tristuras akonpañatu naiez beren Artzaia, Jangoiko onak nai izan zue agertu bere esku poderosoa: Gau berean enperadorearen seme bakarrai eman zio gaitz bat ain errua, ezi medikuak etsiturik, enperatriza klamatzen on zela Jangoikoaren kastigoa sanduari iten zioten agrabioagatik: enperadoreak lotsaturik deitu zue Basilio, ta erran zio, zure fedea barin bada egjaskoa, egin zazu orazio, eztaien il ene semea. Sanduak errespondatu zio, Jauna, baldin orrek sinesten badu nik sinesten dutena, ta uzten badu bakean eliza, biziko da orren semea: bataiarazi bez katolikoen eskus. Oneki bereala asi ze obero ematen, ta atra ze andik sandua: baña o herejeen seta gaixtoa! Etzeien pensa sendatu zela S. Basilio-ren orazio, bataiarazi zue herejeen eskus, eta bereala iltzekio: protxun dakiola.

4. Lastimaturik gelditu ze enperadorea, baña ez emendaturik. Berriro adiskide ta obispo herejeen porfiaz, aien erreljioneak etzukela iraun, zego bitarteo Basilio Zesarean, determinatu zue desterratzea. Formatu ze ia manamendua, eraman zio te firmatzeko, ta katedra, zeintan jartzera zoeien ortako, autxi ta urratu ze derepente, irur pluma arturik eskribitzeko, ezin markatu zue letrarik bates ere; alaere segitus porfian, eskuieko eskua perlesiatu rik ikaratu zekio: orduan autxi zue papera, ta utzi zue geldi sandua. Berze milagro bat ere egin zue Jangoikoak sanduaren kasos fede katolikoaren progutan. Nizean Balente berak manatu zue katolikoei kendu eliza bat ta emateko herejeei. Ango katolikoek eskatu zio te S. Basiliori, nai bazue enpeñatu enperadoreareki itzularazteko beren eliza katolikoei. Joan ze, eskatu zue, baña ezin deus atra zue. Orduan sanduak fede ta libertade andiareki erran zio, Jauna, iduri bazaio, para zagun pleitu gau Jangoikoaren eskuan. Mana bez ertxitzeko fuerte eliza: berorren sektakoe in bezate orazio, ta berez idikitzen badire atariak, biz aiendako eliza: ezpalire idikitzen, guk katolikoek inen dugu orazio, ta gure oraziora idikitzen bada, biz guretako. Artu zue ontzat enperadoreak. Ertxiazirik ata-



riak, egon zire goiz guzian herejeak orazioan, baña atariak geldit: Paratu ze gero S. Basilio katolikoeki orazioan, eta bereala zerroju guziak urratu rik idiki zire parean-par atariak. Orreki anitz hereje desengañatu zire, baña bere teman beti Balente, zein andik guti Godoek garaiturik batalla batean, iges doaielaik, altxaturik agoztegi batean erre zute bizirik hereje bekala.

5. Berze Prefekto bateki ere izan zue iteko. Arren Asesore edo Abo-gatuak nai zue ezkonarazi bereki Andre alargun noble abrats bat, etzuen a nai baizik mantenitu kastidadean. Ortako errefujiatu ze tenplora, ta anpa-ratu zue sanduak. Prefektoak nai zue atrarazi tenplotik: estorbatu zio san-duak. Berzeak hereje bekala eman zue sanduaren kontra iduriarazis zela gaixtoa. Eramanara zizue bere alzinera, urratu zio gañeko mantoa, mea-txatus tormentaraziko zuela. Sandua sereno, in zezola nai zuen guzia. Jen-deak jakinik agitzen zena, joan zire guziak lasterka, gizon, emasteki, gaste, zar, pobreak ta abratsak armaturik nola zuketan, libratzeko beren Artzaia otso garren aztaparretaik. Sanduak sosegatu zitue, ta libratu zue Prefek-toa, emanez ongi gaizkiaren ordañaz. Andre honesta gura paratu zue monasterio batean, non zen Abadesa sanduaren arreba S. Makrina. Berze lanze bat gogorrago agitu zekio. Kaballero prinzipale atek, deituak Prote-rio, zue alaba bat nai zena egin erreljiosa. Deabruak inzitatu zue beren nirabe bat pretenditzeko bere Andretako. Ze klaro etzukela logra ones, ezi ez berak, ez bere Aitetamek etzute naiko, zelarik ain desbardin. Balia-tu ze arte gaixtos sorgin baten medios, errenegatus Kristoren fedea, ofre-zitus Deabruari bere arima, eginik zedula bere eskus firmatua. Jangoiko-aren permisios Deabruak tentatu zue dondella maneraz, ezi ia zego ansia-tzen ezkondu naiak bere nirabe garreki: eskatzen zio negarrez bere Aita-ri ezkon zezan arreki. Zenbat egin zuen Aitak, ta berze ongi nai zutenek, kentzeko burutik erakeria gura, niork etzuke. En fin ezkondu ze: ta gero ikusirik bere gura etzela sartzen elizan, ez zeñatzen, ta ez Kristio urrinik, azkeneko aberiguatu zue tratu egin zuena Deabruareki. Emen zire arren urrikiak, eta negarrak, eta lamentuak, eta ikaradurak. Joan ze, ta joanarazi zue S. Basiliorengana: sanduak animatu zue, ta konfiarazi Jangoikoaren miseriakordian. Anitz baru, anitz orazio eginik sanduak, eta gizonak: azke-nean jendea bildurik elizan, ta guziak sanduareki orazioan zeudelaik, utzi zue Deabruak eror zera zedula sanduaren alzinean, zeñek zatikatu zue an, eta absolbitu gizona manaturik zer in bear zuen urrengoan. Berze bat eman ze luxuriara txoil itsuki ta itsuski: baña biotza ukiturik Jangoikoaren eskuas akorritu ze, konfesatu ze, emendatu ze: eta seguratu naiez barka-menduas, eskribiturik bere bekatuak papel batean eman zio sanduari eskatus logra zezan Jangoikoaganik aien borratzea, entendatzeko barka-

tuak zirela. Sanduak egin zue orazio, ta aurkitu zire borratu rik gañarako-ak, sollik ez bat, baize enormea. Segi ark bere teman eta penitenzian: iltze bitarteo sandua, eta zeramataleik orzitzera, paratu zue paper gura gorputz sanduaren gañean, eta geroxago aurkitu ze ura ere borratu rik. Berze asko milagro agitu ze sandu gonon birtutez, ezauntzeko zein maite zuen Jan-goiko onak, nola berak ere baizue maite bere Majestadea guzien gañetik.

6. Onen progu on bat eman zue iltzerakoan. Zue adiskide Mediku Judio bat agitz entendatua, zein beñere ezin erreduzitu zuen in zeien Kris-tio. Ia iltzeko zegolaik deitu zue, pulsa zezan. Galdegin zio sanduak, zer iduri zaio ene disposizioas, Josef? Josef deitzen ze. Onek errespondatzen dio, Jauna, on iltzen da: ta gaur berean. Sanduak erraten dio, eta zer errain duzu, ikusten banauzu biar bizirik? ori ezta posible, dio Medikua. San-duak berriz, eta zer, ikusten banauzu joaten elizara? Orduan Medikua, on agi baledi, ni obligatzen naiz errezibitzera bataioa. Sanduak Jangoiko-ai eskatu zio luza zezon bizia, emateko Judioari arimaren bizia: ta logratu zue. Biramonean jaiki ze Jangoikoaren indarrez: eta Medikua admiraturik bereala ofrezitu ze bataiora: eta sanduak joanik bere oñes elizara, berak bere esku bataiatu zue ura ta arren familia guzia: eta orreki kontent gra-ziak emanen Jangoikoai, itzuli ze goatzera iltzeko. Jendeak jakinik peligroa akuditu zue otoies eta negarres, al balezakete deteniari, naiz beren bizien kostus. Baña ia Jangoikoak eta zerukoek nai zute bereganatu: eta ala exortatu guziak amatzera ta zerbitzatzera Jangoiko ona, erran zue, Jauna, berorren eskuetan enkomendatzen dut ene espiritu. Iltze Kristo-ren 378 urtean. Eztaike pondera guzien sentimentura ta pena, diot, Kris-tio katolikoena, faltatzeas elizari alako muralla, eztare konta jendeke ta akuditu zuena honratzera, ta ukitzera gorputz sandua, ta beraren edozein errelikia. Guzien er tean Mediku gura, Kristio berria, etzeike apartarazi, baizik apatus sanduaren eskua, erraten zue, O Basilio, Basilio, oraño ere etze ilen, berorrek nai ezpazue. Deitzen dute egiaren pregonari, Kristio-en begi argia; bizitza ta doktrina bardin izan zituena, Espiritu Sanduaren interprete, Kristoren soldado baliente, elizaren defendazale garai eztaike-na: eta kristiandadearen tortxa argia, egiaren iruzkia, Jangoikoren kolum-na, jakindearen hume propioa, Aitaren enbajadorea, Semearen tronpeta, Espiritu Sanduaren dispensadorea &.



Garillaren 6.an Santa Godoleba ezkondua

1. Zerurako laster-bidea da padezitzea kulparik gabe; arimaren salbatzeko bide erreal laburrena eramatea ongi trabajuak direnak direla Jangoikoaren amorez konzienzia onareki, au baita guruzearen bidea, ta imitatzea Jesus guruzifikatua. Orra Matrimonioaren estadoa paratu zue Jangoikoak elkarri asistitzeko ta laguntzeko bizikideak, baña izaten dire trabajuak bataren edo berzearen kulpas. S. Godoleba jaio ze Franzian, noble, abrats, ta ederra gorputz ta ariman. Flandesko Jaun andi batek pretenditu zue bere esposatako enpeñu anitzeki. Gero ere Aitak eta Amak ofrezitu ta eman ziote beren alaba ona. Eginik bodetako prebenzio andiak, ta eramanik bere etxera Nobia Bertulfok, ala deitzen ze Jaun gura, derepente ia lenbiziko egunetik aldatu zekio biotza, ta artu zio alako oposizioa, ezi etzue ikusi nai ere; bizten zio su gau bere Amak aurpegira emanen, zertako joan zen kanpora andre billa, zituelaik autara obeagokoak bere lekuan? Godolebak oña paratu zuen istantetik etxe gartan ezaundu zue armatzen zen tenpestadea beraren kontra, ta biotzas enkomendatzen ze Jangoikoai. Irur egunes iraundu zue bodetako festak; baña Bertulfo etze agertu ere nai, ez ikusteagatik bere esposa: eta ala au utzirik bere etxean, joan ze era bere buratsoen etxera aburriturik. Godoleba gelditu ze kuidatzen etxeas aborrezitua bere senar ta Amaiarrebaganik, baña onetsia Jesus onaganik humila, modesta, prudenta, sanda, guzien exenplu ona. Bertulfok ezin dijeritus utzi zue nirabe moldegaiz bat enkargaturik, etzezola utzi, baizik ogi puska bat, gatz, eta ur ordu señalatuetan, gañarakoan guzia ertxirik. Moldegaitzak tratatzen zue moldegaizki esklaba bekala: Sandak zerama guzia arimo onareki kontatus bere lagun bekala Jesus guruzifikatua, errespodatus nirabeari txoil amoltsu emekiro, baizezake beraxtu arrisko biotz bat ere, eta ematen zion ogitik partitzen zue pobreei parte bat. Laburtu zio arrazione señalatutik erdia senarrak, ilarazteko goseak. Sandak etzue orgatik galdu pazienza, konsolatus arima, ta sustentatus orazioeki. Aumentatzen ze aflikzioa, su emanen senarraren aideek maltrata zezan akabarazi artaño: on nai zue arrek, baña etze trebe agerrian andrearen aideen beldurrez, baizire poderosoak.

2. Ainberze alzinatu ze odio ziotena, ezi bear izan zue, ez iltzekos, eskapatu ixilkiaz, oiñ urtuxian sollik neskato bateki bere buratsoen etxera. Ebek Jaundien ta obispo baten medios obligatu zute Bertulfo errezi-

bitzera, ta tratatzera bizikidea, nola zen arrazio. Ezin berzeas ofrezitu ze arrek, ta errezibitu zue berriro etxean, baña ez gogoan, baizik akabarazteko len baño len: eta ala tratatzen zue moldegaizki esklaba bekala ta alesia despreziatua. Ezaundu zue Godolebak, Jangoikoak nai zuela bide gartas eraman zerura, eta zenbait andre on lastimatzen zirenei arren trabajuas, erraten ziote berak etzuela nai munduko gustorik, eta Jangoikoak erregalaten zuela biotz-barnean. Baña Bertulfok ia berantetsirik manatu ziote bere gisako bi nirabeei il zezatela sekretoan gau batez: eta engañatzeko sanda obeki, mintzatu zekio bera amoltsu-iduri, penaturik bekala ordurañokoas, ta andik alzina obeki estimatua izanen zela, ta ori enkargatu ziotela bi mutil gaiei, bera itzuli arteo biaje batetik. Oneki joan ze urrun esperatzeko an berria nola iltzen, ta iduriarazteko etzela izan arren kulpas. Gau batez bada guziak lo zeudelaik, bi gaiek jaikiarazi zute sanda, ta oiñ urtuxian ta ator utsean eraman zute, urkatu zute, ta bota zute ugaldera akaba zeien iles, atra zute gero, ta paratu zute goatzean estalirik, pensa zeien iltzela naturalki, ustez ala altxatu maldadea. Altxatu ze denbora zati bates, ta orzi zute ilaria eginik, ta famaturik il zela derepente. Baña Jangoikoak manifestarazi zue egia obratus anitz milagro bere sandaren birtutez; lurra, non il zuten, itzuli ze elurra bezain txuri; ta lira non sartu zuten ze ain birtute anditakoa, ezi sendatzen zire lien guziak abeki. Sandaren memoria ta beneraziotan fundatu omen ze monasterio bat an Flandesen. Agitu omen ze martirio gau 1070 urtean. Gero 1088 urtean gorputz sandua depositatu omen ze honratuki; obratzeko milagro ta fabore andiak. Bat izan ze konbertitzea Bertulfo egin zena Monje ta iltzena ongi penitentzian.



Garillaren 17.an San Alexos Romanoa

1. Anitz maneras da admiragarri Jangoikoa bere sanduetan, ta sanduak beraren amorez egin eta pasatututenetan: Bat espezialki da S. Alexos. Aita sandu zelarik Inozenzio I.a ta enpradore Honorio, bizi ze Roman kaballero Jaun andi bat, aberatsa, ta poderosoa, deitua Eufemiano, ezkonduarik señora bateki deitzen zena Aglaes, baña humerik ez, non utzi beren ondasunketa andia. Eskatzen ziote kontino Jangoikoai egines asko orazio ta limosna. Gero ere logratu zute seme bat, Jangoikoak emana bekalakoa, deitu zutena Alexos. Azirik sandua bekala, ia bere adinean autatu zute beraren esposatako donzella bat ongi zegokiona. Manatu ziote ar zezala estado, eta obeditu zue Alexosek disimulatus intenzio zuena Jangoikoaren manamendus, baize utzirik esposa ta guziak, joatea peregrino mundu ori barna. Boda zelebraturik, erretiratu zirelaik nor bere aposentura, ia zegolaik bereareki bakarrik, eman zio urresko erastun bat, ta joia batzuk, guarda zezkiela amorearen señaie bekala, Jangoikoak nai zuen arteo. Erran ta atra ze; eta jaintsirik peregrino gisa joan ze etxetik, niork ikusi gabe, eta portuan ain txusto aurkiturik onzi bat prest, enbarkaturik artan pasatu ze Laodizeara, andik Edesara, non baratu zen, ta pobreei emanik zuen guzia, bera pobre gisa asi ze bizitzen limosnas. Geieanean egoten ze eliza baten soportale baten aterbean, non baize Ama Birjinaren imajina bat, zeñeki zuen debozio ta komunikazio andia. Bere esposa, Aita, Ama, ta gañarakoak, etzelaik ageri niondik, zeude arriturik, zer in ote zen: esposa desegiten negarres, Ama kongojas lamentatzen: Aita bialtzen mutilak ta mandatariak, al bazezakete aurkitu nonbait. Denborain buruan aditurik ots zerbait, ellegatu zire billa Edesan, non baizego; baña egoteareki guzis aldaturik idurian penitenzia, baru, ta pobre zareki, eman ziote limosna, ta etzute ezaundu, berak bai aiek. Gozatu ze errebitzeas limosna bere nirabe proprioetaik.

2. Amazazpi urtes iraundu zue etxetik kanpoan, ezauntzen etzutela gizonak, bai Jangoikoak. Asi ze ia notatzen bere birtutearen ona Edesan. Ango sakristau bati agertu zio Ama Birjinak, zein kuadrablea zen Jangoikoaren begietan pobre gura aterbe gartan gordetzen zena. Famatu ze ori, eta ia beiratzen zutelarik sandu bekala, iges iteagatik estima ziotik, enbarkatu ze itsasos joateko Ziliziako Tarsora bisitatzeraz S. Pabloren tenploa: baña Jangoikoaren probidenzias aizeek eraman zute onzia Italiako portu-

ra: eta lurrera atrarik Jangoiko beraren inspirazioz, niori ez emateko gasurik, ta izateko iago merejimentu, determinatu zue joatea bere etxera, fiaturik etzutela ezaunduko. Bisitaturik Romako zenbait eliza, eskaturik Jangoikoai fabore, garaitzeko pasione ta tentazio izan bear zituenak, zoeilaik karrikan aurkitu zue bere Aita Eufemiano akonpañaturik ederki, nola zegokion: eskatu zio humil, Jangoikoaren amoreagatik, Jauna, barin bada zokotto bat berorren etxean, nai badu uz nazaten an egotera altxaturik: eztiot niori obra gaixtorik eginen, eta Jangoikoak pagatuko dio ene partez: ala Jangoiko ona biz anparo berorren gauza guzien, nonnai diren. Beraxtu ze itz ebeki Eufemiano oroiturik bere semeas, zein alzinean zeukan, ta ez ezaundu: Manatu zue emateko aterbe an estalpetto batean pobretto garri. An egon ze berze amazazpi urtes altxaturik ezauntzera eman gabe niori, sufritus mutilen ta lakaioen atrebenziak, eskarnioak, ta golpeak ere ixil ixila: ezi zeukate sinpletako, ta dibertitzen zire arren kostus irri abarres.

3. Baña etze ori tentaziorik andiena, bai berze bat etziona sufrituko biotzak, ezpalego garaiturik Jangoikoaren amoreas, zeren ezi bere esposa ona beraren amorez etze nai izan apartatu arren Aitetamen konpañiatik: eta Ama etzeike atzen bere Alexoses. Zer ze aditze gura noizean noiz lamentatzen, Ah! ene entrañetako hume maitea, non zara? Zertako eman zinduzada Jangoikoak, baizik izateko ene konsolu guzia, ene zarzutuaren deskansua, ta ene ondasun guzien Jaun ta Jabea? ta ez usteko ala triste au martirio gontan ezin ikusis ta gozatus eman zidana Jangoikoak. Bada berze aldetik aditzea bere esposa negarrez erraten, zergatik utzi nauzu alargun tristea eriotzea baño len? zertan ofenditu zaitut nik? Guziendako zina amoltsu; ni sollik tratatu nauzu zeurea ez bekala. Ai, eztut senti ainberze nere falta, nola etxakitea bizi den, edo non den nere esposo ona, naiago baitut, neure bizia baño. Fortunosa kontatzen nitza izateas alako bizikidea: Laster bukatu ze fortuna, ta gelditu da pena erremedioarik gabe. Ebek eta alako lamentazioak aditzen zitue Alexosek bere maitean zirenganik, zer Jangoikoaren amorea bear ze garaitzeko dolore amoroso gau? Bada zer ze ikuste gura kasi egunoro pasatzen kanpora edo etxera bere Aita, bere Ama, ta bere esposa? zierito adiarazten zaigu zein poderosoa den Jangoikoaren amorea gabetzen bada biotzas. Jabetu ze Alexosenas, eta ala egiten zio egunoro sakrifizio kuadrablea, garaitus Jangoikoaren amorez berze amore guziak. Asteoro konfesatzen ta komekatzen ze: gau ta egun egoten ze orazioan bere zoko gartan: kontino humil manso, pazienza andian, zeren baizego Jangoikoan.



4. Ellegatus plazoa, errebelatu zio Janoikoak eguna: eta berak eskribitu zue paper batean bere izena, ta buratso, esposa, ta historia pasatuarena, ta zeuka eskuan ertxiturik: ta zego etxideten ordua. Bitarteo zego Aita Sandua meza erraten, ta enperadorea enzuten. Aditu ze goratik boza gau, atozte enegana trabajutan zaraten guziok & Lotsaturik urtiki zire lurrean miserikordia eske. Aditu ze berriz, billa zaze Jangoikoaren sierboa, eska dezan Romagatik, baitago joateko mundutik. Ori famaturik; bildu zire berriro jakin naiez nor zen ziona: errespondatu zekiotte, billa zezate la Eufemianoren etxean. Aiturik ori, erran zio enperadoreak Eufemianori, alako ona zindeuka etxean, ta ixildu diguzu? Goazen ikustera. Alzina-tu ze Eufemiano etxera, errezibitzeko enperadorea ta Aita sandua an, ellegaturik, ta sarturik ikustera pobre gura bide zela aurkitu zue ilik istargitzen zuela: Nai zio kendu paper gura eskutik, baña etzuke. Paratu zute ilara andi batean, nora sarturik Aita Sandua ta enperadorea belauriko eskatu ziotte paper gura, ta utzi zue eskutik: eta leiarazi zute: Aipatu zelaik beraren izena, buratsoen ta esposarena, Eufemianok goratu zue ixkiritua tiratus biloak, ta bota ze seme ilaren gañean, ai ene desgrazia &. Amak bada aditu zuelaik zena, zoraturik penas pasatu ze guzien ertetik: segitu zue esposa fielak, ta besarkatus ilara, aien lamentuak, aien lastimak, eta marrikak, eta doloresko itzak nola explika? Guziei kausatu ziotte lastima ta negargale: Paratu zire Aita Sandua ta enperadorea erlean utziarazteko ilara, baizeukate arrapaturik besarka: Nai zute eraman elizara, baña ezin apartarazi jendea: guziak beira, ta ezin ase beiratus alako gizona, alako penitenka, alako amoreta Jangoikoagana. Leku inarazteko, botatu zue enperadoreak arrabutxa urre ta zillar: baña kasorik etzute, baizik beiratzeas ta admiratzeas sandua: eta milagroak zoezinak obratus, sendatus heriak, argitus itsuak & Gero ere erman zute S. Pedroren tenplora, non iduki zute zazpi egunes ortzi gabe, zeudelaik an bere Ama, esposa, ta Aita konpañia egiten gau ta egun. Ondorean ortzi zute S. Bonifazioaren tenploan: eta bere memoria bizi da ta biziko da, erakusteko zenbat dezaken Jangoikoaren amoreak biotz &.

Garillaren 25.an San Kristobal Martir

1. S. Kristobal jaio ze kananeo: eta bataiatu Jangoikoaren inspirazio pasatu ze Liziara predikatzera Kristoren erreljioa. Ze gizon andi gora admiragarriro. Zerama eskuan palo bat, zein frinkaturik bein lurrean bereala berdatu, ta loratu ze; eta milagro goneki ta berze anitzeki amentatu ze Kristiogenea Lizian; eta sandua egin zute preso orgatik Dezio enperadorearen manamendus. Juezak nai zue ones edo gaitzes errendiarazi ukatzera Kristoren fedea, baña etzuke: eta gogoratus galaraziko ziola fedea aisago, galarazten bazio kastidatea, biali zitio presondegira bi emasteki alkegabe deshonesto: sartu zireneko gelditu zire ain lotsarriturik ikar ikar, ezi erori zire sanduaren oñetan barkazio eske. Ta sanduak predikatus egietafedea egin zitue Kristio ain firme, ezi gero utzi zire iltzera Martir fedegatik berze anitz konbertitueki sanduaren predikues. Baña Juezak ikusirik etzukela bereganatu sandua niolatero, determinatu zue ilaraztea tormentu errueki. Eta ala lenik zeatu zue azotees urratu arteo; gero paratu buruan burriñasko txapela bat suan goriturik: gero edatu eskañu edo goatze-iduri burriñaskoan, eman gañetik olio irakiten, eta petik brasak, erre zeien gutibana. Baña andik sereno alegre Martirak erraten zio, beira bez fede Kristioaren birtutea, ezpaitut senti tormenturik. Ala atra ze andik mellarik gabe. Lotuarazizue gero palo bati, ta saetarazi an: baña zenbat saeta kantidade tiratu zioten, batek ere etzue heritu, bai berdugotaik bati eman begian, ta atra zio: baña arrek untatus be gia sanduaren odolareki logratu zue bista begiarena ta arimarena. Azkenean ebaki ziotte burua iltzeko, eta lentxago in zue orazio, bere gorputza orzi zeien lekuan ezezan kalterik eman arrerauntsiak, edo pesteak, edo suak, edo goseak. Konbertitu omen zire sandu gonon kasos berrogei ta zorzi milla arima. Agitu omen ze martirio gau Kristoren 254 urtean.



Garillaren 27.an San Pantaleon Martir

1. Errelijione Kristioa dela egietafedeskoa Jangoikoaganik, dire bera-
ren itz errealaren gañetik infinizio bat progu, Martir gloriosoetan prinzi-
palkiro. Ebetaik bat da S. Pantaleon miragarria. Ze Nikomedian Mediku
famatua, gizon prestu, atento, amoltsua, guziek ongi nai zutena, baña ez
Kristio. Sazerdote batek deitzen zenak Hermolao, nai zue egin Kristio, ta
egin zekio adiskide, ta erraten zio maiz, o Pantaleon, sinesta niri, ezaun
bazindez Jesu Kristo, ta sinetsi beraren egiafedeskoak, obe zinduke
munduko medizina, ta arte guziak baño: aipatus solamente Jesusen izena,
senda zindezazdue heriak, ta ilak ere. Apegatzen zekizkio biotzean arren
itzak; eta egun batez pensatus aietan zebilalaik, opatu zue aurtto bat ilik,
eta aldakan bibora bat mostratzen bekala ark il zuela. Erran zue bere bai-
tan, egia barin bada Hermolaok errana, aipatzeareki Jesus, aur gau biztu,
ta bibora ilen da. Pensatu zueneko agitu ze pensatu bekala: eta orreki
seguraturik alegre joan ta kontatu zio Hermolaori, ta eskatu zio bataia
zezala: ta bataiatu zue kontent. Andik guti etorri zekio gizon bat gastatu
zuena guzia Medikueki, ta logratu zuena, len bista labur, ta azkenean itsu
gelditzea. Pantaleonek paratu zitio eskuak begien gañean, inbokatus Jesu
Kristo, senda zezan itsu pobrea. Istante argitu zekio gorputzeko bista, ta
arimarena ere bai, ezi kristiatu ze. Oroat Pantaleonen Aita, baizego pre-
sente, zein andik guti iltze sanduki. Andik segitu ze famatzea Pantaleon
Mediku andia bekala: andik berze Medikuen inbidia; ta akusatzea Maxi-
mianoren alzinean, nola zen Kristio. Aiturik enperadoreak ekarrarazi zue
lenik itsu argitua, zein zegolaik firme porfiatzen sendatu zela Jesu Kristo-
ren birtutez, ta ez aien Jangoiko deituen birtutez, ilarazi zue bereala. Eta
Pantaleonek kuidatu zue orzitzeas arren gorputza: baña pensaturik, iltze-
ko peligroan zegola bera ere, errepartitu zitue bere ondasunak, parte bere
zerbitzukoeki, parte pobreei, ta heriei, egoteko enbarazurik gabe martirio-
rako. Etze engañatu, ezi fite deitu zue beregana enperadoreak, eta pasa-
turik itzketak elkarren ertean, seguratus beti Pantaleonek agerrian zela
Kristio, ta adoratzen zuela sollik Jangoiko guzis poderosoa, zeruaren ta
lurraren Kriazalea, eta ez aien Jangoiko zureskoak, metaleskoak, ta arris-
koak deustako eztirenak, egin zue apostu, ekarri zeuela heri bat inkurablea,
eta aien sazerdoteek in zezatela orazio beren Jangoikoei, ta berak inen
zuela Jesu Kristori, eta nork ere sendatzen zuen, ura iduki zeuela Jangoi-

kotako. Egin ze ala: ekarri zute perlesiatu bat anitz urtepietan ezindua:
aien sazerdote-iduriek egin zute eginala, baña guzia banoan, heria nola
len. Orduan Pantaleonek biotzean eskaturik Jesu Kristori, artzen du esku-
tik heria erraten diola, Jesu Kristo Jangoiko biziaren semearen izenean
jaiki zaite sano. Erran ta egin: Momentu berean jaikitzen da alegre salto-
ka emanen Jangoikoai ta sanduai esker milla milla. Ori ikusirik anitz kon-
bertitu zire federa. Enperadorea konfuso gelditu ze: jendea pasmaturik:
sazerdoteek alkes ta errabias iago suturik, galduko zutela beren autorida-
dea ta irabazia, sinetsiarazi ziote enperadoreai, Pantaleon zela sorgin, ta
ezpazue botatzen mundutik, galduko zela beren Jangoikoen errelijione, ta
bateo inperioa, ezpaitaika manteni errelijionea gabe.

2. Enperadoreak erresolbitu zue errendiaraztea Pantaleon, edo aka-
baraztea tormentus. Ortako lenik plazan biluxi ta paratu zue dilindan zur
batetik, ta ala larrantzi gorputz guzia burriñasko aztaparras, ta erre susko
zuzies. Tormentu gontan dagolaik, goratus begiak zerurat eskatzen dio
Jesu Kristori fabore: Agertzen zaio bere Majestadea Hermolao sazerdote
garren idurian; konsolatzen ta animatzen du ederki diola, zureki egonen
naiz beti pasatzen duzun guzian. Eta istantean lazatu zire lotzakiak, itzali
sua, ta berdugoen besoak ezindu. Arriturik, eta koleraturik enperadoreak
erraten dio, zer sorginderiaren artez itzali duzu sua, ta ezindu Ministroak?
Sanduak errespondatzen dio, ene sorginderia da Jesu Kristo ongi egiteko:
gaizki egiteko solamente dire oien Jangoikoak, baitire Demonioak. Bete
zute bertz andi bat plomu urtuas, ta sartu an Pantaleon; baña plomua
istante oztu ze nola ura. Admiraturik guziak, enperadoreak porfiatus
lotuarazi zio arri andi bat lepotik, ta botarazi itsas-barnean. Baña sutik
libratu duenak ezto libratuko uretik? Arria urain gañean nola osto arin bat
dabila, ta Pantaleon oñez nola leorrear. Etze errenditu Tiranoa alako pro-
dijioeki: manatu zue paratzeko plazan, jan zezaten leonek eta tigreek. Atra
zire furoso, baña ikusi orduko sandua, mansatu zire nola axuriak, humil
humila ellegaturik lamikatzentiotie oñak, eginez festa. Jendeak alde bat las-
timaturik ikusteas alako maneran Pantaleon gaste prestu eder ongiegillea,
berze alde arriturik alako prodijioes klamatzen zue, libre libre biz gizon
sandu goi: andia da Kristioen Jangoikoa bere parerik eztuena. Eraturik
furias Maximianok ilaraztentu animale gaiek, zergatik barkatu zioten san-
duari, eta sandua loturik errueda pisu bateki botarazi oian piko batetik
aldapa bera. Baña lazaturik istante, erruedak arrapatu ta maltratatu zitue
anitz infiel, eta sandua libre mellarik gabe. Guzia uste zue Maximianok
zela arte gaixtos; eta ala galdegin zio nor izan zuen Maestru profesatzen
zuen fede ta bizitzaren. Martirak naiz ezaundurik arren intenzio gaixtoa,



nola baizekie nai zuela Hermolaok izan lagun martirioan, deklaratu zue bere Maestra zela Hermolao: zein bereala inarazi zue preso. Lentxago aparezitu zekio Kristo, eta erran zio zerura bear zuela igan biramonean.

3. Presentaturik Hermolao sazerdotea ta galdeginik anitz gauza, goratus begiak zerura, errespondatu zue koraje andiareki: eta asi ze ikaratzan lurra, ta idoloak erori, ta zatikatu zire. Orgatik au ere tormentaturik ilarazi zue bere bi anaiak bateo. Azkenean etsiturik etzuela errendiaraziko Pantaleon, errabias azotarazirik berriro, manatu zue ebakitzeko burua kanpoan, ta erretzeko orputza. Atra zute, lotu zute oliba-planta bati: Goraturik ezpata, golpea ematerakoan, itzuli ze alzairua beratx nola argizaria, mellarik in gabe. Urtiki zire berdugoak sanduaren oñetan humil barkazio eske. Sanduak eskatu zio Jangoikoai, barka zezotela: eta errespondatu zekio baietz, ta bera deitu bear zela Pantaleemon, au da guzis miserikordiosoa. Azkeneko berak animatus berdugoak kunpli zezaten sententzia, batek ebaki zio burua, ta lepotik odolaren partez atra ze esne, ta oliba gura bereala agertu ze beterik fruitas. Manatu zue Tiranoak ura zañetaik atratzeko, eta gorputza erretzeko: baña azken gau etzire atrebitu egitera; eta orgatik Kristioek izan zute eskaida artzeko ta orritzeko dezenteki. Sandu gau bizian honratu zuena Jangoikoak asko milagroeki, honratu du il ondoan ere. Beraren odola Napolesen ta Roman guardatzen dena kristalesko anpolla edo erredoma batean, dagolaik kuajaturik gañarakoan, bere festaren bezperatik biramoneraño ikusten omen da urturik nola dabilan inguraka. Oroat agitzen omen da Madrilen S. Agustinen Monjaen Monasterio erreal enkarnaziokoan duten odol porzione batean, dionez Brebiarioak sandu gonon lekzioetan. Guzia da posible Jangoikoarendako, zeñek honratzentu ederki bere zerbitzukoak, ez solamente glorian, bai emen ere &.

Agustuaren 12.an Santa Klara Asiskoa

1. S. Klara S. Franzisko Asiskoaren lekukidea, ta aren errelijosaren lenbizikoa ta Maestra izan ze buratso abrats nobleen alaba: zenen Ama zegolaik erditzeko egunetan orazio egiten kruzifixo baten alzinean, aditu zue boza gau, etzaitela beldur, emanen duzu argira argi bat argituko diona munduari: orgatik paratu zio izena Klara. Goiz eder asi ze agertzen Jangoikoaren eskojitua zela, ain banidadearen etsai, ain onera emana, ain afizionatua oraziora, espezialki pensatzean Kristoren pasio doloreskoa. Nai zutelaik buratsoek ezkonarazi, errepugnatu zue konstante, ta ofrezitu zue Jangoikoai bere birjinitadea. Bizi ze orduan S. Franzisko, zenen konsejus despeitu zue mundua, ta besarkatu ze Kristo guruzifikatuareki, eta gau batez etxetik eskapaturik joan ze S. Maria porziunkularen elizara, non zegon etxideten S. Franzisko bere errelijosoei, ta biloa kendurik bestitu ze habitu pobre gura; ta bere aizpa batek segitu zio geroxago, eta geroxago berze anitz donzella jenerosaek. S. Franziskoren manamenduz artu zue guzien kargua nai etzuela, ta gobernatzen zitue humil zerbitzatu guziei. Espezialki gozatzen ze pobre zan, zenbatenas gutiago, kontentago. Eta Jangoikoak aprobatzen zue debozio goi milagroeki ere suplitus bear orduetan. Aita sandu Inozenzio IV.ak nai zue dispensatu pobre zaren geiegian iduris, baña sandak eskatu zio, absolbi zezala bekatuetaik, baña ez pobre zaren ertxitasunetik. Zebila beti oiñ urtuxian; habitua zue erremendatu pobreena: goatzea lur utsa komunkiro, edo erregalos zarmendu batzuk. Abenduan ta Garizuman barutzen ze ogi ta ur solles egunoro, ta Astelen, asteazken, ta orzilarre garizumakoetan amenik artu gabe. Nork erranen du gañarako penitentzia? Ainberze, ezi obispoak ta S. Franziskok obligatu zute moderatzera, ez sobra laburtzekos bizia.

2. Bere bizia ze orazioan, auspeskatus, apatus lurra Jangoikoaren atenzios, beiratzen zuela beti presente bere Majestadea, eta esu Kristo imaginatus guruzifikaturik bere begien alzinean. Zeudelaik berzeak lo deskansatzen, sanda zego erposatzen orazioan. Andik atratzen ze beterik espiritu sanduas, ageri baize mintzatzean ere, aurpegian ere. Deboziorik andiena izan zue aldareko sakramentuagana. Labratzen zitue bere eskus korporale preziosoak errepartzeko elizaetan. Komekatzea zue erregalorik andiena mundu gontan, ta gustatzen zue al zuken guzia maiz. Gañarakoan bere errefujioa, ta kafia bekalaz zue sakramentuaren presentzian, ta



guardatzen bekala ze Jaunaren egalpean. Pasatzen ze bein Federiko enpedorearen tropa; nola baizego sandaren konbentua ziudadetik kanpoan, ta an elduki anitz hereje arima gaixto, nai zute sartu konbentuan egiteko gaixtakeriak. Joan zire Monjak zoraturik beldurrak kontatzera sandari: sandak, heri egonik ere, serena konsolatu zitue, ta eramanara zize bera, ta sakramentuaren custodia atari alzinera, ta an belauriko paraturik in zue orazio gau humilki, Jauna, *ez permiti animaleen eskuetara arimak berorri emanak ta konfesatzen dutenak*. Aduze ze Jaunaren boza klaro, *nik guardatuko zaitzet beti*. Eta soldadoak lotsarriturik joan zire iges batzuk, berze batzuk igan zirenak paretean gora itsuturik erori zire: ta ala libratu zire Monjak sandaren orazio, zeñek enkargatu ziote sekreto. Berze bein zeukatelaik inguratuturik ziudadea, sanda bere Monjaeki buruan autsa paraturik egon ze orazioan: eta biramoneko desegin ze tropa gura, eta Jenerala andik guti iltze eriotze gaixtos. Eta berze milagro franko egin zue Jangoikoak S. Klararen amarez: bera milagro obena.

3. Ogeitazorzi urtes egon ze heri iago edo gutiago, eta etzue uzten lana naiz erreklinaturik: eta batzutan egonik nekepena andieki, beñere etzute ikusi deskonsolaturik triste, beti bai animosa alegre. Berrogeitabi urte bizitu ze konbentu gartan gobernatzen santidade guziareki: eta urbildu zelarik plazoa, errezibitu zue bere Jaun sakramentatua debozio ezin iagokoareki. Egun berean bisitatu zue Aita sanduak Inozenzio IV.ak ta eman zio bedeizio Apostolikoa ta induljenzia. Kontentus etzeike ase emanes Jangoikoai graziak, ta konbidatzen zitue lagunak emateko eskerrak; zeren Jesu Kristo bere sakramentuan, ta beraren Bikarioa personan etorri zekizkion bisitatzera. Eta bere Aizpa Ines zegokiolaik eske ta es ge negarez, eraman zezala bereki mundugontaik, zaude, erran zio, oraño guti bat, ala baita Jangoikoaren borondatea, segituko nauzu denbora gutiren buruan: eta ala kunplitu ze. Negar iten zute berze Monjaek ere, eta sandak konsolatzen zitue animatus zerbitzatzera Jangoiko onari. Gero bere arima propioari erraten zio, zoaz se gura, ezi kidari ona duzu beti onetsi zaituena. Agertu zekio Jesus ona amoroso, ta bere Ama Santissima akonpañaturik zeruko birjines. Eta alako erregalo ta faboreen eratean despeitu ze arima sanda gura 1253 urtean. Asistitu zute beraren ilarian ez solamente infinzio bat jendeek, baitare Aita sandu berak kardenaleeki, eta nai zuelaik akanta zeien birjina sanda ten meza ale re, baize on nola deklaratzera sanda ta kanonizatzea, etze egin kardenale ostiensearen konsejus, zeñek predikatu zituen sandaren laudarioak ilarian: eta andik bi urte kanonizatu zue Alexandro IV.ak konfirmatus milagroeki Jangoikoak &.

Agustuaren 31.an San Ramon Nonnat

1. S. Ramon izan ze Portel deitzen den errikoa Katalunian jendaki guziz noblekoa. Bere Ama erditzeko egunaren esperan zegolaik, joan ze konfesa-komekatzera elizan, eta on egin ta itzuli zelarik etxera, eman zio akzidente batek ain erru, ezi ordu gutiren barnean edeki zio bizia. Eta etxakin zergatik, aurra etziote atra, alik eta ogei ta laur ordu pasatuas geros ellegaturik Kardonako bizkondeak manatu zuen atratzeko, naiz medikuek ta guziek uste zuten ilik bide zegola ia. Atrarik ikusi zutelarik bizi zela konsolatu ta admiratu zire, ta bataiatu zute, Aitabitxi zelarik bizkonde bera, zeñen izena paratu ziote Ramon, ta izengañekoa Nonnat, baita oroat nola ezjaioa, agitu zenagatik. Ezaumentura ellegaturik, ezaundus Jangoikoaren faborea kuidatzen zue enpleatzeas ongi bizi emana. Eman ze elizara afizionez: baña etzuelaik Aitak nai ortako, biali zuen deserratu bekala montañan zuen etxe batera, kuida zezan haziendas ta gauzes an. Joan ze obediente Ramon, eta S. Nikolasen hermita batean, an Ama birjinaren imajina bat baize, arara zue bere errefujioa, an bere dibersioa, deskansua, ta errekreazioa errezatus abe Mariak gogotik, espezialki adituas geros imajinaren agotik erran zion gau, *etzazula izan beldurrik, Ramon, ezi nik oraidanik artzen zaitut ene humetako, eta dezakezu konfianza guziareki deitu ni zure Ama, ta akuditu ene anparora nauzun guzian*. Zer admirazio! zer konsolazio ta alegranzia sentitu zuen itz ebeki, nork explika? Ordu gartaik artu zue bere Amatako, ta amore fiñareki ansiatzen zue zerbitzatzera Ama seme dibino gaiei, izateko digno izenaren. Kuidatzen zue agitz garbitzeas imajina eta hermita kontino, ta paratzeas korona loreskoak Amari ta semeari buruan, ta lore obenak egunoroko errosarioan. Berarias joaten ze Artzaiareki leku gartara, ta bialtzen zue ura berze itekoetara, ta bera gelditzen ze ardieki egotea atik iago hermitan, eta askotan egoten ze Aingiru bat ardieki guardian, Ramon zegon bitarte orazioan hermitan.

2. Nai izan zue engañatu Demonioak agerturik Artzai zar baten idurrian, konsejatus itzuli zeila etxerat, bizitzeko kaballero ta gaste bekala emanes adinari berea. Mutil sanduak errespondatu zue, nik eztut segituko, ta ez bear ere berze doktrinarik, baizik erakusten didana ene Ama Maria birjinak. Izen gau aipatu zueneko, desaparezitu ze Artzai iduria, utzirik infernuko usai bat, su, eta kee iluna. Ezaundurik nor zen, sartu ze



Ramon bere hermitan ematera graziak: eta Ama amorosa; añaditus grazia graziaren gañetik, agertu zekio guziz eder ederra: amorosten zuela guziz bere Majestadeas arima gura. Eta ala beraren zerbitzutan eginala egin naiez, ta etxakin zer egin, galdegin zio zer nai zuen egin zezan: Birjina Santisimak errespondatu zio, *ene gustoa da egin dezazun boto, guardatzeko kas-tidadae*: eta ala egin zue berartan, erranes itzak Ama Santisimak, ta erre-petitus sanduak. Zer fineza amarena au! Gero bere Majestadeak sarrarazi zue Merzedeko erreljionean, non imitatu zuen perfektoki bere Aita fun-dazalea S. Pedro Nolasko. Birtute guzietan distingitzen ze, baña prinzi-palki prinzipalenean, au da, karidadean Jangoikoaren ta proximoen alde. Ordenatunk sazerdote, ta Predikari, konbertitzen zue anitz arima itzas ta exenpluas, deitzen baizute komunki fraile sandua: eta Jangoikoa asi ze konfirmatzen milagroos ere. Kaballero batek eman zio puñaladaka bere Andreari, zeren goratu zioten testimonio falsu bi Mutilek, zergatik andre onak erreprehenditzen zituen aien gaixtakeriak. Urrikitu ze bereala kaba-lleroa ezaundurik etzuela kulparik bere Andreak. Joan ze S. Ramonen zel-dara, eta negarres kontatu zio bere gaizki egina. Sanduak konsolatu zue, bidoeie, erran zio, aurkituko du bizirik bere Andrea, ezi nola testimonioa baize falsu gezurrezkoa, ala puñaladak eztire izan egiaz, baizik itxuraz: eta akusazale gezurtiek fite pagatuko dute pena. Joanik aurkitu zue mellarik gabe kontent; eta bi gaiek andik guti izan zire justiziatuak, ta urkabearen oñean konfesatu zute klaro goratu zuten testimonio falsua. Orgatik S. Ramon dute Abogatu persona aflijituek testimonio falsueki: ta dezakete izan edozein trabajutan.

3. Baña bere antsia prinzipalena ze libratzea Deabruaren eskupetik arimak, eta kautiberiotik kautiboak. Ortako joan ze Arjela, ta erreskatatu-rik anitz, eta iago naiez, diru-faltas, bera gelditu ze fiadore bilduartaño. Bitarteo etzeike sosega trabajatu gabe ansioso desengañatu naiez arima engañatuak. Konbertitu zitue anitz prinzipalenetatik, ta bataiatu. Asarra-turik orgatik Gobernariak nai zue ilarazi bereala, baña kobratzeagatik kautibo emanen prezio zor zena, detenitu ze, baña emanarazi zio anitz bofetada, azote, ta golpe. Guzia zerama animoso ta alegre sanduak. Eta konsolatzen zutenei erraten ziote, *ezta konsolatu bearrik itzes konsolatzen duena Jangoikoak nekepenes: eta nik eztut konsolu bearrik, dutelaik ene konsolu nai bekalakoa padezitzean. Etza da zela izan lastima, bai inbidia, ezi pena gebetan altxatzen da gusto gozoa, ta galdu-idurian irabazi andia. Anima zaizte zuek ere pasatzera Kristoren amorez, ezi aurkitukouze ortan tesoro prezioso altxatua*. Zeba-turik tratu gisa gartan gose iagoreki segitzen zue ez solamente sekretoan, bai karrika ta plazaetan ere predikatzen Kristoren egietafedea, konfirma-

tus Kristioak, konbertitus Moroak. Gobernariak suturik berriro, manatu zue eraman zezatela biluxirik azotatus karrikas karrika: eta plazan zulatu ezpañak itze goritueki, paratu zerroju bat, ta ala ertxi zezotela agoa, etze-zaken predika Kristo. Ala egin ze, baña agoa ertxirik, andik zerion odola zego predikatzen klaro eder. Sarrarazi zue kalabozo barna ilun batean: non zegoen sanduaren gorputza penetan, baña gogoa zeruan gozoso pasa-tzeas Kristoren amorez.

4. Kalabozo gartan elebatu ze espirituan, ta ala aurkitu zute joan zirenek ematera sustentu, il etzeien. Idatzarrarazi zute lo gozo gartaik: erori zire kateak ta zerrojua bere kabo: baña moroek tratatus sorgin beka-la makilukaldis, berriz paratu zizkiote kateak esku oñetan, ta zerrojua ezpañetan. Zorzi ilabetez iduki zute martirio gortan, irur eguntaik irur eguntara emanez sustentu piska bat, etzeien akaba; ta aldioro kendus ta paratus zerroju gura, ta berritus llagak eta oñazeak, pensa nolako mane-ran! Ez lukete nai moroek agertu zeizen Jangoikoaren miragarriak san-duareki, baña berek ere etzezazkete ixildu admirazioaren utses. Nork dezoke uka martirioaren gloria ta merejimentua, naiz etzen an akabatu iles, Jangoikoak ala nai izanez? Edatu ze kalabozo gartaik fama mundua barna Romaraño, eta Aita sanduak kreatu zue kardenale: ta pagatu ondo-an kautiboen erreskatearen prezio faltatu zena, nai zuelaik gelditu an aka-batzeko labratu martirioaren korona ain alzina zeramana, obligatu zute itzultzera Española. Eta Barzelonan errebitu zute nola martir bizi bat, ta Romako kardenale ponpa andiareki: baña berak naiago zuela bizi altxa-turik konbentuan nobizio bat bekala enpleatzen ze ofizio apalenetan. Pasatzean karrikan erauntsiketa batez ikusi zue zartto gaizo bat erdi bilu-xi, ta buru agerrian: bereala kendu zue bere sonbrelu gorri kardenalarena, ta paratu zio pobreaki estal zeien. Gau gartan agertu zekio Ama Santisi-ma koronatu zuela lorees; eta sanduak geroko erreserbatus korona loreskoa, emen sollik Kristo nai zuela, aparezitu zekio Kristo bera aran-zes koronaturik, ta gañetik ark eman zuen sonbrelua: eta ala Ama Semeak honratu ta erregalatu zute miragarriro.

5. Deitu zue Aita sanduak berak Gregorio IX.ak Romara, baña Jesu Kristok gloriara, zeren ezi Kardonara joanik despeitzera bere Aitabitxia, erori ze gaitz andi batean; eskatu zitue sakramentuak; eta berantzen zue-laik sazerdoteak sakramentuareki, eskatu zio humil Jangoikoai, etzeien il ori gabe: eta bereala ikusi zue sartzen bere kuartoan Aingiruen prozesio bat argizarieki eskuetan erreljioso-iduri, ta azkenean bat guziz benerablea errebestiturik ornamenta sagratues zekarrala kustodia, zeñen eskuetaik errebitu zue komekadura sanduak urtikirik lurrean: eta bereala despeitu



zue bere arima aunaren eskuetan 1240 urtean, ta adinaren 42.an. Gelditu ze argi eder aurpegia kausatzen zuela admirazio ta gozo beiratzen ziotenei. Amaborz egunez egon ze orzi gabe fresko atxon admirableareki, agiturik pleitu gisa bat bizkondearen, ta Fraileen ertean, nai zutela tesoro gura nork beretako: alik eta errege D. Jaimek, S. Pedro Nolaskok, ta Barzelonako obispoak manatu zuten paratzeko gorputz sandua mula itsu baten gañean, ta uzteko libre zoeiela nora nai zuen. Mula bere kabo pasatus sanduaren sortuetxeko atarien alzinean belaurikatu ze an: segitus alzina baratu ze S. Nikolasen hermita gartan, zein inguratus irur aldís baratu ze atarian: eta edeki orduko karga prezioso gura gañetik, erori ze ilik an berean. Orzi zute eliza gartan, non geroxago egin zen konbentu bat. Ararako badean ere honratu zue Jangoikoak anitz milagroeki: bat izan ze, akonpañatzen zutelaik anitz argieki, ezpaize bat berere itzali, naiz izan asko erauntsi ta aize erruak bitartean. Bereala asi zire beneratzen sandu bekala kulto publikoareki: eta diote lizenzia eman zuela ortako Aita sandu berak Gregorio IX.ak: eta gero 1414 urtean kanonizatu zuela Benedikto XIII.ak Aita sanduak kendu baño len Konzilio Konstanziakoan. (D. Pedro de Luna deituak.) Gero Merzedeko erreljiosoei eman ziotelizenzia Aita sandu Urbano VIII.ak. Paratu Martirolojio Romanoan Alexandro VII.ak: eta Brebiarioan Klemente X.ak, zelebratzeko guziek.

Urriaren 3.an Santa Serapia Birjin ta Martir eta S. Sabina

1. S. Serapia Antiotxiako donzella noblea artu zue bere etxean ta konpañian S. Sabina Romakoak Balentino Jaun andi baten alargunak, zein kuadratu zen arren grazia onas, eta kristiatu ze beraren konseju ones. Romako Presidente ze Berilo, zeñek inarazi zue presa Serapia, ta ermanarazi bere presenziara; akonpañatu zue bere borondatez Sabinak ain maite zuenak, ta ederki laudatu zuenak, zeñen atenzios utzi zue orduan itzuli zeien berareki etxera. Donzella sanda nai ze itzuli berriro Juezagana eman naiez bizia Jesu Kristoren amorez, ta erraten zio Señoragarri, berorren kasos eztut logratu martirioaren korona: utzi benaza noaien berriz: etzue utzi nai bere konpañiatik arrek, eta pasatzen zute denbora egiten orazio Jangoikoai, bukatzeko ongi. Berilok ia urrikiturik utzias, irur egunen buruan ekarrarazi zue berriz Serap ia: segitu zue atzetik Sabinak al bazuke libratu, baño etzuketlaik, eginala eginik, erreprehenditu zue ausarki Jueza, ta meatxatu zue: ta itzuli ze bere etxera negarrez. Zeukalaik baka-rrik Serapia Berilok erran zio, ofrazo zute sakrifizio gure Jangoikoei, manatzen duten bekala enperadoreek. Errespondatu zue, Nik adoratzen dut sollik Jangoiko bizi egiaskoa egintuena zeruak, ta urra, ta gauza guziak. Orrek tion goiek eztire Jangoiko, baizik Demonio engañatzentutenak oiek. Presidenteak, eta non da zure Jangoikoaren tenploa? eta zer sakrifizio ofratzen diozu? Au da, zio sandak, sakrifizio kuadratzen zaiona Jangoikoai, biotz garbiareki bizitus amatzea bere Majestadea, ta prokuratzea ama dezaten berzeek ere. Beras, erran zio Juezak, zeuroi zara tenplo ta sakrifizio zeure Jangoikoaren? errespondatu zue firme, bai, Jauna, bizi banaiz garbi beraren gustora. Beras, galarazten badizut birjinidadea, erran zue Juezak, ia etzara izanen zure Jangoikoaren tenplo? Sandak errespondatu zio, baldin norbaitek ultrajabalez Jangoikoaren tenploa, lira galduko du Jangoikoak. Etzue entendatzen Juezak Teologia gebetaik. Eta ala manatu zue utzi zezatela bi ejipzioen eskuetan ganbara batean. An aurkitu zelaik, bereala Jarri ze orazioan belauriko Jangoikoai eskatus, guarda zezan berea bekala, edo il zezan lenago ezi permititu desloratzea. Bereala agitu ze arroitut andi bat ortotsa bekala, ta terremoto ikaragarri bat, eta bi gaiek erori zire ta egon zire ilak bekala, ez mintzorik, ta ez mogimen-



turik gabe, idirikik solamente begiak tieso, ta ala aurkitu zuzte biramonean ministroek idiki zutelaik ataria.

2. Juezak aditurik lanzea galdegin zio sandari zer sorgindierias egin zuen lan gura? Errespondatu zio, Kristioek eztugu usatzen sorgindieriarik nola eztirenek, baizik gure Jaun Jesu Kristok kentzen ta erremediatzentu sorginen gaizki eginak. Juezak, on ala barin bada, biztuzkizu bi gaiek, entenda dezagun eztituzula zuk paratu ala arte gaixtos. Ekarri zuzte, eta sandak goraturik begiak zerura eskatu zio gure Jaunai, desengañatzeko itsu gaiek, nai bazitue itzuli biak lengo estadora: ta erran ziote, Jesu Kristoren izenean jaiki zaizte sano. Bereala jaiki zire: ta erran zute nola ganbara gartan agertu zen gaste-iduri bat istargitzen zuena iruzkiak adiña; ikusteas lotsarriturik aiek erori ta on zirela sentidorik gabe: eta donzella gau o ezta arte onez, edo andia da bere Jangoikoa. Juezak sandari, deklarazu zazu sorgindieria in duzuna, ta utziko zaitut libre. Sandak, Nik beti aborrezitutut gaixtakeriak, baitakit Jesu Kristoren birtutez deseginen direla guziak. Juezak, bada ikusko dut baliatuko zaizkizun sorgindieriak, burua kenduko dizut. Sandak serena, egin bez nai duena, ezi nik eztut inen oien Jangoikoen borondatea, baita gaixtakeria, naiz il nazan, zeren Kristioa bainaiz. Itz ebeki suturik Juezak manatu zue paratzeko sandari zuzi itxe-kiak bi aldetaik, erre zeien bizirik. Paratu ziozte, baña istantean itzali zire, ta parazaleak erori zire ilik an. Sandak orduan goratus begiak zerura erran zue, o ene Jaun ona Jesu Kristo, alketu beitez ia orren etsaiak, ta ezaun bezate ta adoratu Jangoiko bekala orren Majestadea. Juezak asarre, sakrifikatu zute gure Jangoikoei, etzaitengatik il: sandak, eztiotet sakrifikatzen Demonio goiei, ez naiengatik il. Juezak, adi nazazu ni, sorgin gaixtoa gaizgi-egillea, libra zaiten tormentuetaik ta eriotzetik. Errespondatu zue sandak, oiek dire sorgin gaixto gaizki egilleak, ezpaitute adoratu nai Jangoiko egiaskoa, baizik Demonioak, galtzeko betikos aieki bateo. Ni ofratzen naiz sakrifiziotan ene Jangoiko Jaun Jesu Kristori, bainaiz berarena Kristioa. Golparazi zue makilukaldika sanda; bitarteo agitu ze terremoto bat, eta palo gaietaik baten puska batek saltaturik eman zio Juezari begian, ta oñazes erretzen ta errabiatzen egonik irur egunez gelditu ze itsu: eta manatu zue ebakitzeko burua sandari, ta ala egin ze Agustuaaren *29.an*, Kristoren *122* urtean, enperadore Adrianoren denboran.

3. Bere Diszipula Sabinak egin zio ilari agitz honratua: eta andik guti berze Juez Elpidio deituak presentarazirik bere alzinean erran zio, Zara zu Sabina jendakiaz ta matrimonio izanas ainberze honratua? Errespondatu zue, Ala naiz, baña esker milla diot ene Jaun Jesu Kristori, libratu bainau bere sierba Serapiaren medios Demonioen potestadetik. Asko maneraz

tentaturik utzi zezan Kristoren fedea, Juezak ezin deus atra zukelaik manatu zue ilarazteko, zeren despreziatzen zituen aien Jangoikoak. Eta Kristioek beraren gorputza paratu zute berak Serapia paratu zuen obia berean, ta bien arimak Jangoikoak zeruan.



Lastallaren 20.an Santa Irene Birjin ta Martir Portugalgoa

1. Santa Irene jaio ze Portugalen kasta nobletik: Zue osaba bat bere Ama Eujeniaren anaia Abade an urbil zen konbentu batean, zeñek ezaundurik bere elleba Ireneren naturale ona, injenio, ta entendamentu andia, señalatu zio monje prinzipale bat deitua Remijio, erakusteko letrak eta birtuteak. Estudiatzen zue Irenek erretiraturik bere bi izeba ta berze donzella batzueki, eta bein sollik atratzen zire urtean erriko elizara S. Pedoren egunean. Elizara urbil bizi ze bere palazioan Britaldo heredero bakarra oraño ezkondu gabe. Ze Irene guziz eder agraziatua idurian ere, nola ariman ere bai. Ikusi zueneko Britaldok itsuturik Sartu zue alako amorea, ezi iduri zekio, etzela, ta etzeikela izan berze nior alakorik nion ere. Eta ura sollik nai zue, ura sollik pretenditzen zue beretako, baña arren erretiraturik bizitzeareki etzukeleik tratatu, ta ez logratu, nai bezain laster, afizione sobraz konsumitzen ze heriturik penaz, eta medikuek ezin kura, etxakinez kausa. Jangoikoaren errebelazios jakin zue Irenek, ta determinatu zue bisitatzea Jangoiko beraren inspirazios, ezi berze gisas etze ongi paratzea peligroan. Joan ze bada akonpanaturik jende honesto onratueki: mintzatu zio, ta deklaratu zio gaitza ta itsutasuna: konsejatu zio enpleatzea amore Jangoikoan, eta bizitzea honestidade ta honra guzian; ta bere mintzaera ta itz sandueki utzi zue konsolaturik kontent, solamente obligatus sanda etzela afizionatuko berze niori. Oneki despeiturik au, ura gelditu ze kontent, eta sendatu ze laster.

2. Kontentago itzuli ze sanda bere erretirora uztez ia bere iteko guzia zen Jangoikoareki sollik: baña etsai infernukoa, ezpaita lokartzen beñere, asi ze inzitatzen berze bat arrenanako tentazioeki: nor ori? Beraren Maestru propioa, de manera ezi ia ezin disimulatus, asi ze deklaritzen berari bere pasionea. Sandak erreprehenditu zue fuerteki, nola zen arrazio. Gelditu ze ura alketurik, baña ez emendaturik: ta desesperatu, ta Jangoikoaren beldurra utzirik, ta amorea odiotan itzulirik zebila pensatzen nola mendekatu iras ta errabias, eta Santanasen inspirazios injeniatu zue ematea pobreaki edari bat, zeñeki gelditu zen aunditurik sabela, ain nola balego aurdun. Famatu ze au, ta pensatu ze gaitzerat jendeen eratean Ireneren deshonne andiareki, naiz kulparik gabe. Britaldok aditurik, eta bere

begis ikusirik ageri zen andidura, zer kolera egin zuen, nola explika? Bereala erresolbitu zue botatzea mundutik. Lan gau enkargatu zio soldado bati, zeñek goart emanik nola Joan zen gau batez Irene Maitinetara, ta andik gero ugalde-basterrera egitera an orazio bakantasunean Jangoikoai, libra zezan deshonne gartaik, nola zegon libre kulpatik, ortan zegolaik belauriko, soldadoak pasatu zio lepotik ezpata, eta utzirik ilik atorrutsean bota zue ugaldera, altxatzeko obeki maldadea. Argiturik biramona, etzuteleik aurkitzen bere bi izeba gaiek pensatu zute oan ote zen iges ezin sufritus infamia gura. Oh! zein sekreto barna diren Jangoikoaren juizioak! Eta nola uztentuen gaixtoen eskus iltzera onak, baña beti onez beraren aldetik!

3. Bere osaba Abadea zegolaik suspenso aditzen zuenas ta agitzen zenas bere ellebareki, egiten zio orazio Jangoikoai, eta bere Majestadeak errebelatu zio agitu zen luzia, eta non aurkituko zuen gorputza. Predikatu zio jendeari zena zen bekala, eta formaturik prozesio bat, joan zire billa: eraman zute urek ia ugalde andi Tajo deitzen denera. Prozesioa ellegatu zelaik, erretiratu ze ugaldea zati batean, ta agertu zue orputz sandua ia paraturik kaja edo obia fabrikatuan Aingiruen eskus. Nai zute eraman andik, baña ezin mogitu zute niolater: solamente artu zute zerbait errelikia, zeñeki obratu ziren anitz milagro. Milagro bat izan ze, ugalde erretiratu zena, etorzean prozesioa, gero itzultzerakoan artu baizue bere bidea estalis obia milagroskoa. Eta Eskalabis deitzen zen billa orai deitzen da Santaren Santa Ireneen gorputz an dagonagatik. Biz bedeikatua Jangoikoa egitentuen sanduak asko maneras. Amen.



Lastallaren 21.an San Malko Monjea

1. Kontatzen du S. Jeronimok berari kontatu ziona Malko Monjeak bere buruas, ezkaitzen fia geuren juizioas, bai Superioreenas. Izan ze Nekazari-humea Antiotxiako aldiritakoa, nai zute buratsoek ezkonarazi bortxaz ere, baña berak Jangoikoaren inspirazioas nai zue konserbatu kastidadea, eta orgatik eskapaturik bere etxetik ixilkias sartu ze errelijioso Monasterio batean, non bizitu zen anitz urtez zerbitzatzen Jangoikoai mundutik aparte. Jakinik iltzela bere Aita, ta utzi ziola zenbait heredaje ta gauza, pensatu zue egitea agerraldi bat sortu-etxera, konsolatzeko Ama alarguna, ta saldurik utzi zitionak, emateko parte pobreei, parte Monasterioai, ta parte bere bearretarako. Deseo gau komunikatu zue bere Superioreareki, zeñek ezaundurik zela tentazioa, konsejatu zio zegola geldi artu zuen estadoan, ta ez itzuli atzerat munduko peligroetara. Uste zue Malkok ala konsejatzan ziola Abadeak bere konpañian idukitzeagatik: segitu zue bere tema, despeitu ze konbentutik akonpañiatu triste Abadeak, zeñek erraten zio, beiratzan zuela ia nola ardi zabartua saldotik ta Artzaiaganik apart, peligroan otsoek arrapa zezaten.

2. Ellegatzeko bere errira bear zue pasatu leku eremu soil batetik, non atratzen ziren bideaskoei Moroak; ta orgatik biltzen zire bideaskoak oateko seguroago elkarreki, ta orduan bildu zire iruogeitamar bat gizonki ta emasteki; eta obenean zoezilaik, ikusi zuzte eldu zirela Moroak armaturik. Barraiatu zire aiek iges arat onat: eta Malko erori ze kautibo aietaik baten eskuetan, ta arreki bateo berze baten Andre zen bat. Eraman zitue biak Barbaro garrek bere lekura; ta paratu zue Malko Artzai, eta onek guardatzen zue lealki hazienda; Jabeak seguratzegatik etzekion eskapa, nai zue ezkonarazi kautiba lagun ermanareki. Malkok eskatu zio etzezola inarazi alakorik, ezi kristioa zela, eta Kristioari eztela zillegi ezkontzea duenareki senar, nola baizue andre garrek. Asarraturik Barbaro garrek paratu zio puñale bat bularretan, bizia kenduko ziola, ezpazue egiten: ala iduriarazteko baietz, eman zire elkarri eskuak. Bear-izan zue eraman bere etxolara; oroitus bere Abadeak erranas. Paratu zire alde batean bata, berzean berzea etzirela ikusi ere nai elkar. Asi ze negarrez Malko bere buruareki, au duk Jangoikoaren kastigo merezi dukena eure kulpas. Noraño ellegatu den ire desgrazia: Len etxe ta hazienda, ta boda onak utzirik bizitzeagatik kastidadean, eta biziturik libre adingontaraño, orai zarzuturat

bear duk izan andre? ta ori berze batena? Zer protxu duk oraiarteoko bizituas libre, ta garbi Jangoikoagatik, baldin orai kontra jten baduk? Zer inen dugu emen? obe duk il gorputza, ezi arima, eta izan kastidadearen Martir: eta atrarik kanibeta bat iltzeko bere burua, erran zio emastekiari, geldi bedi Jangoikoareki, ezi Kristoren Martir ikusnonau lenago ezi orren senar. Emastekiak turbaturik erran zio, Jauna, eztauela il bere burua ere kaltetan; eta iltzekos il benaza ni lenik. Eta iten badu, guardatzeagatik kastidadea, jakin bez ni ere nagola proposito berean, ta lenago utziko nai zela iltzera, ezi autxitzera. Iduri bazaio, izan gaitzen Jangoikoaren begietan anai arreba bekala, ta Nausi barbaro goni iduriarazi senar-emaste, izan arteo eskaida, eskapatzeko. Admiratu ze Monjea emastekiaren birtuteas eta prudenzias; eta ala bizi zire, naiz beldur eta kuido andiareki ez ikusteko elkar.

3. Jabea ia konfiatu ze etzirela eskapatuko. Baña Malko beti zego suspiratzen bere lekura naiez, ta lengo bizimodura. Tratatu zue emastekiareki, baizego ain eskapatu naiez. Il zuzte bi aker, aien aragias alimentatzeko ta aien larrues auditurik aizes pasatzeko ugalde andi bat bidean preziso pasatu bear zena. Ibili zute irur eguntako badea beti gibela beira ia norbait eldu zen aien atzean. Irur egunen buruan ikusteunte eldu direla Nausia ta mutila bi kamelloetan dra dra dra. Sartu zire pobreak an kubila batean, ta gelditu zire saiets batean pokalean beldurrak, barnago zegoken baseziaren bat, nola baizego. Nausiak ikusi zituenak sartzen, ta sarrarazi zue Mutila ezpata biluxiareki, atrarazteko, edo iltzeko an. Sartu ze mutila oiuz ziola, atra zaizte onat il bearrak, ezi Nausia dago zuen esperan or. Arren oiuetara atra ze barnetik leona bat, eta atzaparreki arrapatu ta iltzue antxe, zeudelaik beira biak, ta itzuli ze bere barnera. Nausia berantetsirik etzela atratzen mutil ori, uztez bien ertean erresistitzen zioten, sartu ze bera bere armaeki oiuz guzien kontra: baña leonak jokaturik bereala utzi zue an ilik Mutila bekala. Nola bide zeuden bi pobre gaiiek ainberzeko arrixkoen ertean, zer izanen zen aietas? Zeude geldi geldia, ta ixil enkomendatzen Jangoikoai. Libratu zitue bere Majestadeak. Leona nonbait errezelaturik ikusi zutelata, ta etzegola an seguro, atra ze bere humeareki agoan, ta joan ze andik berze lekutara. Biak esker milla milla emanen Jangoikoai joan zire akorritus lotsamentura gartaik: atra zire geroxago, ta iganik kamello gaietan amar egunes ellegatu zire Romako enperadorearen lekuetara; ta arturik kamelloen prezioa eman ziotena, emastekia paraturik monja batzuen konbentuan, Malko itzuli ze bere konbentura, non ia orduko il baize Abade utzi zuena: eta biak nor bere konbentuan bizitu



zire zerbitzatzen Jangoikoi, kontatus agitu zirenak, ta kantatus Jaunaren miserikordiak.

4. Historia gonon ondorean dio S. Jeronimok, au kontaktu zida niri gaste nitzalaik Malkok ia zarturik, eta nik orai ia zartu nai zelaik kontaktzen diotet kastoeri, zeren baita kastidadearen historia, ta exortatzen tut donzellak guarda dezaten beti. Zuek konta zazie zeuren ondorengoeri, jakin dezaten guziek, kastidadea desertuetan ere, ezpata ta baseizien ertean ere eztagola kautiba: eta persona Jesu Kristori emana badezaketela il, baña garaitu ez. Guziok dire S. Jeronimoren itzak ezaunarazteko kastidadearen preziosidadea, ta estimarazteko kristale gau ain preziosoa, ta ain eskas txur aurkitzen dena mundu zikin urrinzuan. Agitu bide ze 370 urtearen inguruan.

Azaroaren 13.an San Homobono Merkatari

1. Estado guzietan salba daizkela gizonak, progu dire sandu izanak estado guzietan. S. Homobono izan ze merkatarien hume ta merkatari, ez abrats, ta ez pobre: bai liberal, atento, kuidadoso ez perjuiziorik egiteko niori: ze egi-errallea, manso, bakeskoa, afable agraziatua, ta guzis neurritua itz eta gauza guzietan; orgatik guziek nai baizute ongi. Buratsoei txoil obediente, agora beira, gusto egin naia guzietan. Aien manamendus artu zue esposa donzella bat, zeñeki bizitu zen sanduki matrimonioan. Il ondoan bere Aita, nola gelditu baize etxe ta haziendaren aun ta Jabe, liberal arroago egiten zitue limosnak, zeintara baize txoil afizionatua; ta etze boboa, baizekie gal eztaikela tratu gisa ontan beñere, ta irabazten dela beti batendako eun. Etzego beira eska zezoten beartsuek: bera alzinatzen ze, ta bilatzen zitue bear zutenak. Konsolatzen aflijituak, konsejatzen ongi etzebiltzanak zuzen, erakusten ignoranteak, ta guzieki egiten zue nola bear zuten, maneraz ezi ze egiaz deitzen zena Homobono, nai baitu erran gizon ona, ta ala zeukate nola guzien erreljioa. Bizikideak zekusalaik ain liberal, nola berak ezpaizue ain zabal biotza, beldurrak pobretu sobra emanen, kargu egiten zio galtzera botatzen ziola: senarrak berriz sereno zio, ala obeki aumantatzen zela, nola azaro obenareki hazienda. Onen progutan agitu zekio gose-denbora batez elizatik itzultzean etxera segitza anitz pobreek, eta arrek, andrea kanpoan zelarik, ematea saski bat ogi aurkitu zuena: ta gero afaltzerakoan aurkitzea ainberze ogi, baña agitz obeagokoak: ortas arriturik andrea desengañatu zue sanduak. Berriz zituelaik peonak lan egiten alor batean beraren, zeramalaik ardo edatekoa flaskoetan, aurkitu zue bidean anitz pobre eskatu ziotenak edatera: eta nola ezpaizekie ukatzen, eman zitiote flaskoak: gero utsik ez eramateko, bete zitue ures iturri batean. Alorrera ellegaturik, asi zirelaik peonak edaten kontent, galdegiten zioten nondik atra zuen ardo gura ain ona. Sanduak irrikos uste zue burlas erraten ziotela: txastatu zue, ta aurkitu zue milagrosko ardo ona zela: baña disimulatu zue humiltasunes: baña Jangoikoak nai ta agertu ze, gizon batek ikusirik nola bete zituen ures &.

2. Ze alaber sandu bekala guzis emana oraziora, zeintan ez solamente egunas, baita gauas ere egoten ze denbora luzean: eta gauoro faltarik gabe asistitzen zue maitinetara, maneraz ezi Apeza deitzen baize Oberto, ezkila soñatu orduko bereala joaten ze idikitzera ataria, sartzeko Homo-



bono, ta zenbait aldiz aurkitu zue barnean orazioan idiki gabe ataria berak, idikis Aingiruak. Milagro gisa gebeki konbertitu zitue anitz hereje fede katolikora, etzirenak konbertitu nai Teologoen arrazios. Azkenean *1197* urtean joanik gau batez maitinetara, usatu bekala, egon ze Kristo guruzifikatuaren alzinean orazioan goizeraño, eta mezakoan sazerdoteak Gloria erraterakoan, edatu zitue Homobonok besoak guruzearen forman, ta ala gaitzik gabe, sentitu gabe niork eman zue bere espiritua. Aurkitu zute ala ilik, eta famaturik urrun etorri zire jendeak honratzera sandua orzi zutena S. Jilen eliza gartan berean, bere sortuerrian, baita Kremona Lonbardian. Eta Jangoikoak adiarazi zue beraren santidatea ainberze milagro klaroeki, ezi urbilen urtean *1198.an* kanonizatu zue solmeneki Inozenzio III.ak Aita sanduak.

Abenduaren 6.an San Pedro Paskasio Obispo ta Martir

1. S. Pedro Paskual jaio ze jendaki noble ta Kristiotik Valenzian zeukatelaik Moroek berea bekala. Onen buratsoek alojitzen zute beren etxean S. Pedro Nolasko joaten zen aldioro erreskatatzera Kristio kautiboak. Sandu gonek ikusirik zeudela deskonsolaturik ez izateas humerik, logratu ziote Jangoikoaganik orazios au, ta erran ziote sandu izanen zela, ta arren atenzios deitu zute Pedro. Aurttoa zelarik oraño ze ain onera emana, ezi bildus berze aurrak jostaketaen lekuan zegokiote erakusten doktrina Kristioa. Aditurik bere buratsoak kontatzen, nola Moroek in zutzen Kristoren Martir zenbait errelijioso, ta loturik ibili zutzen arrastaka, inbidia sandu bateki ala izan naiez Martir, biltzen zitue Moroek humettoak, ta egiten zue lotu zezkioten eskuak, ta eraman arrastaka. Buratsoek ikusi zuzte morotxoak nola zeramaten arrastaka arroituketan, erreprehen dituzte zergatik ala maltratatzan zuten, eta sanduttoak diskulpatzen zitue, uz bezkite, ezi naramate izatera Martir. Zein goizik paratu zion Jangoikoak martirioaren estimazioa ta deseoa! Buratsoek erreskatatu zute sazerdote Doktore bat, zeñek erakutsi zition sandu goni letra bear zirenak: baña ikusirik beraren zeloa errelijione Kristioagatik, nekez uzten zute atratzera etxetik, beldurrak iltzezaten Moroek. Agitu ze Araguako errege D.n Jaimek irabaztea Valenzia, tratatus bitarteo Moroek agiz gaizki Kristio kautiboak, inbidia zuela sanduak ez padezitzeas aien partez. Erregek bereala berriturik katedralea egin zue ango Kalonje. S. Pedro Nolaskoren konsejus joan ze Parisa estudiantzera Teologia S. Tomas ta S. Buenabenturareki an. Egin zute Doktore: ordenatu zute sazerdote, ta asi ze predikatzen Jangoikoaren itza: eta nai zuelaik sartu bereala errelijioso, luzarazi zio S. Pedro Nolaskok fruitu iten zuenagatik estado gartan.

2. Eginik errelijioso Merzedeko, bereala distingitu ze bizimodu sanduan, ta erregek egin zue bere seme D.n Santxoren Aio, ta Maestru. Atra zue kautiberiotik Granadan anitz Kristio, zein itzultzerakoan Toledora, egarriak itotzen zeudelaik ur-faltas, egin zue orazio Jangoikoai, eta bereala bete zire ures butzuak agorturik zeudenak. Elejiturik D.n Santxo Arzobispo Toledoko, nonbratu zute sandua Granadako, ta Toledokoaren Gobernari. Il zute Moroek D. Santxo, eta sandua urbildu ze Granada



alderat erremediatzeko aisago bere Granadako Feligresak Moroan erlean zeudenak. Lizenzia logratu rik bisitatu zitue, ta erremediatu asko galetsirik zeudenak Moroan konpañiareki. Konsultatu zue Aita sanduareki Romara joanik ortako. Egin zute gero Jaengo obispo, nondik iten zituen bere sarraldiak Granadan, konsolatus bere feligres, ta kristiatus anitz Moro. Aborrezitzen zute orgatik, ta arrapatu zute preso. Zeukatelaik presondegian gaizki tratatus, alaere kuidatzen zue libratzeas berze kautiboak deskuidatus bere buruas. Joan zire bere elizatik tratatzeko beraren erreskateas, baña eraman zuten diruareki libra zitue anitz aur ta emasteki, gelditurik bera kuidatzeko gañarakoes. Auxe baita karidadea, Kristorenaren gisarakoa! Moroek esperatus bialiko ziotela diru berriro beraren erreskatzeko, uzten zute zebilala ziudade-barnean. Etze deskuidatzen ongi egiteas guziei bear zuten guzian. Zegolarik bein aurttoen erdian galdegiten doktrina, opatu zue bat errespondatzen ziona ain ederki, ezi admiraturik galdegin zio, ene aurttoa, nor zara zu? Errepondatu zio amoltsu, ni naiz Jesus zure karidadeak ekarrarazi nauena. Erran, ta desapareztu ze. Gelditu ze sandua zoraturik bekala fabore alakoagatik, egin ta desegin naiez Jaunaren amarez. Segitu zue karidadean.

3. Zeramalaik bein askotan bekala jateko gauzak kautiboei, opatu zue erregek, ta galdegin zio ia zer zeraman habituaeren pean: errespondaturik ezi arrosak; arrosak agertu zire Jangoikoaren milagros, zelarik Abenduan. Berriz biali ziote bere elizatik dirua bere erreskatearen, baña berriz enpleatu zue erreskatatzen berzeak, gelditus bera kautibo nola len. Pagatu zio gure Jaunak ederki: Bein lagundu zio meza erratean aurtto eder batek kautibo idurian. Erran zue meza beñere baño debozio iagoreki. Admiraturik zein ongi lagundu zion, galdegin zio ia bazuen Aitarik eta Amarik. Errepondatu zio, baitut, naiz ene Ama eztagon emen. Galdegin zio doktrina, ta nor den Aita: errespondaturik miragarriri ongi: galdegin zio, eta nor da semea? Orduan aurrak goratus jaketilla, ta erakutsis kostadoko llaga, erran zio, ni naiz semea: beira nere llagak: eta zuk erreskatzareki aurrak egin nauzu zure prisionero. Eta nai zitiolaik sanduak apatu onak, etze agertu. Fabore gebeki segitzen zue ongi egiten, eskribitus ere bai egietafedeak: Sartu zute kalabozo ilun batean: baña Aingiruek ekartzen ziote argi ta plumak, ta bear zen guzia eskribitzeko. Eskribitu zue galantki Mahomaren kontra. Orgatik sentenziatu zute ebakitzera burua. Jakinik on, bezperan, naiz zegon ansiatzen iza naiez Martir, gizon bekala zego beldurti eskatzen Jangoikoai fabore. Agertu zekio Jesus guruzifikatu bekala, ta animatu zue padeztizera gogotik ere. Goiz goizean erran zue meza, ta bereala ebaki ziote burua, eta diote ezi arri baten gañean, zein-

tan ofratu zuen axuri dibinoa sakrifizioan. Agitu ze martirio gau *1300 urtean*: eta ondorean Jangoikoak honratu du anitz milagroeki, eta Elizak kulto publikoareki martir bekala.



Abenduaren 17.an

San Franko de Sena karmelokoa

1. S. Franko de Sena lenik bekatari infamea, gero penitente sandu admirablea izan ze nekazari honratu bertuosoen hume Groti aldiritan Toskanan, Senara urbil. Sel ordu aio baño len amets in zue bere Amak ematen zuela argira monstruo itsusi lotsagarri bat, zein gutibana zoeien itzulis gizon. Bataioan deitu zute Franko, ta azi zute ongi. Biali zute Senara ikastera letrak, baña naturale gaixtoa segitus ta lagun gaixtoak, doi ola ikasi zue leitzen ta eskribitzen, ta on ere ez ongi. Paratu zute ofizio batean; baña ze lanaren etsai alfer-nai. Iltze bere Aita, baize guti bat detenitzen zuena, eta Amas ajolarik etzuela eman ze bizio ta gaixtakerietara, ez Jangoikoaren ta ez gizonen atenziorik gabe. Bere ofizioa jokari, ladron, alkegabe ta emakume galdueki gau ta egun jokuko etxe, taberna, ta bide gaixtoetan. Laster akabatu zue Amaren ondasun pixka, ta bizi ze ladronkerietatik. Niork etzeuka seguro ez bere hazienda, ez bere bizikidea arren eskuetaik: ain ze animale bruto indartsu ausart tentu gabea! Etze nior trebe korrejitzera, ta nioren konsejurik ere etzue aditu nai, ta ez ikusi nai bertuosorik, ez mezarik, ez sakramenturik, ez elizarik usatzen zue. Ama afljiturik penas iltze: semeak ortas zue plazer ziola, ia oraidanik nautena inen diat, joan delaik atso gaixtoa beti ene kontra zena. Fite galdu zue gelditu zekion guzia. Egin ze soldado, ez ainberze erregeri zerbitzatzeko, nola Deabruari sueltoago: baña ez solamente soldado, baizik iduriarazten ze batzutan estudiante, berze batzutan peregrino, hermitaño, ta milla itxuratan tranpeatzeko: guziau zertako? gastatzeko gaizki, ta jokatzeko. Gau batez galdu zue guzia, tresenak ere, oñetakoak ere: eta señalatus begiak erran zue furoso, nork naitida jokatu ebek? ezi nik ukatzen dut egintuena. Blasfemia itsusi goni errespondatu zio Jangoikoak emanegietako min erru bat, zeñeki gelditu zen itsu. Orreki despeitu zute solkadeskatik, etzela gauza.

2. Asi ze ia ataris atari eskarmentu guzien, niork apenas eman nai ziola ogi amen bat odio ziotenagatik. Ala asi ze akorduratzan, ta itzultzen Jangoikoagana, berze niork nai etzuelaik. Asi ze lenik negar egiten bakan-tasunean, gero konfesatzen oiuz karrikan, mereji zuela iago ta iago kastingo; Etzue galtzen konfianza Jangoikoan, zein izanik ofenditua iago ezi guziak, iago ezi guziak baita benigno; ta ordu bateko konfesioareki barkatzen baitu anitz urtetako bekatuak. Egin zue konfesio bat jenerala asko

negarreki, ta eman zue bildu zukena satisfaktiotako. Injeniatu zue anitz penitentzia gisa, deskitatzeke: nai izan zue etorri peregrino Española Santiagora: baña nola baizego itsu, Jangoikoaren fortunaz aurkitu zue kidari berze bekatari penitente bat eldu zena. Baña Demonioak kendu zio berzeari burutik intenzio on gura; Franko egon ze konstante in bear zuela peregrinazioa. Paratu ze bidean, baña ezin ikusi: Zer inen zue? O Jangoikoaren ona! zerbaitto argitu zio bista, bidea ikusteko diña. Oneki firmatu ze propositoan: eta iago, noiz ta Gaskuñako oian batean bi bide opaturik, etzekielaik zeñetaik eman, eskatus Jangoikoai azertua, aditu zue boza bat erraten ziona, emazu eskuieko bideas, andik joanen zara seguro. Pensa nola konsolatu zen konfiatus nai zitiola barkatu bekatuak alako faborea iten zionak. Paraturik lurtean belauriko negarrez eman zio esker milla milla. Etzego kontent Demonioa eskapatzeas bere saretik Franko zeukana beretako. Agertu zekio peregrino-itxuran, lagun inen ziola. Lenbiziko egin ziona galarazi bidea: gero nai zio galarazi esperanza; etzuela erremediatorik; kondenatua zela. Furiatu ze agitz Franko itz ebeki, baña oroiturik Jangoikoaren onas erran zue, nik badakit eztutela mereji barkatzea; baña badakit ere Jangoikoak dezazkela barka, nai barin badu: nai duelako esperanza ematen dida bere amorearen geiegiak, zeñeki utzi zen iltzera gurutzean enegatik. Oneki iges eginik Deabruak, Franko graziak emanez Jangoikoai itzuli ze bidera: ta ellegaturik Santiagora an konfesa-komekaturik berriro garbitu zue arima, ta señalatan kobratu zue osoki bista.

3. Ikusirik zein ongi joan zekion peregrinazio gontan, nai izan zue egin berze batzuk. Joan ze Romara S. Pedro ta S. Pablo Apostoluen bisitatzeran: an errezibiturik Gregorio IX. Aita sanduaren bedeizioa egon ze garizuma guzian barutus ogi ta ur solles. Andik pasatu ze bisitatus debotiozko santuarioak Italian, Napolesen, Sizilian, Loreton: emen izan zue elebazio soberano bat, zeintan mostratu zekion Ama Santissima amorosa seguratus barkazioas, ta consejatus perseberanzia. Itzuli ze Senara, non zaku bateki estalirik, oin urtuxian, ta beti buru agerrian, zela euri, zela iruzki, asi ze deskitatzen penitentiasko obraeki lengo eskandalo emanak. Guzia ze baru kontinoa, errezibitza sakramentuak, enzutea mezak ta predikuak: eta gauoro atratzen ze karrikak barna oiuz ziola, o bekatariak, konberti zaizte Jangoikoagana, ta egin penitentzia dignoa. Joaten ze bekatuen etxeetara, ta azotatzen ze bizkarrean burriñasko katees: botatzen zitue jokuko maiak eta barajak: bisitatzen zitue hospitaleak: eta berze gizon bat ze ia ta iduri zue. Agerturik ango eliza batean Ama Santisimik, seguratzeko grazian, consejatu zio erretiratzea. Erretiratu ze etxola batean eremuan, non sustentatus gorputza belarres, ta arima orazioz ta kontri-



ziosko negarres bizitu ze milagrosko bizi bat. Baña araraño ellegatzen ze Deabruaren tentazioa. Iltze Senan Jaun abrats bat utzi zuena testamenuan manaturik emateko Sena-inguruan zeuden eremutar guziei borzna florin urresko: joan zire testamentariak emateko Frankori bereak: errespondatu zue etzituela nai; eraman zezkitela bereki: baña aiek etziote obeditu, bai utzi an leio pokalean. An egon zire, alik eta ellegaturik alargun pobre bat limosna eske zebilana erremediatzeko bere alaba, sanduak erran zion barnetik artzezkiela urre aiek, ta enkomenda zezala utzi zitue-na. Ainberze kuadratu zekio Ama Birjinal karidade gau, ezi urbilen gauean agertu zekio eman es amoreko señaleari. Baña pensa zein aldaturik zegon biotz gura: len edekitzen berzerenak, orai eznai artu bereak ere.

4. Etzekio eldu alako faborengatik banagloria, bai berritzen kontriziozko pena, ofenditua Jaun bat ain ona. Tratatzan zue gorputza gogorkiro penasko instrumentu lotsagarrieki: eta zergatik ia famatu zen, ta billatzen zuten, eskapatu ze andik bere errira urbil zen zoko ilun batera. Baña andik ere asi ze barratzen bere santidadearen argitasuna. Kostunbratzen zute errikoek egitea prozesio bat, zeintara konbidatzen zuten eremutarrak: etzue nai Frankok, baña obligatu zute, baita artzera ere bazkari usatzen zena. Ze go an sandua artzen amen bat edo berze, porfia iten ziotenagatik: baña berze bat sobra berotu zena asi ze gaizki erranka sanduaren kontra: ta azkenean erran zue, nik erran dut egia, ta diot iago ere, ala daikela salbatu au, nola bizitu plater gontan dagon kapon gau. Istante saltatu ze bizirik plateran zegona erroerik; ta gizon artas jabetu ze Demonioa. Sanduak bere salbazioaren testimonio gartas konsolaturik, baña konpasionaturik berzearen gaitzas in zue orazio: ta ura libratu ze ta emendatu: eta guziak sanduaren onas admiratu zire. Baña infernukoek ezin soporta berendako zeukatena ikustea Jangoikoaren ain maite, inzitatzan zute beren injenio ta indar guzies eroriarazteko bekaturen batean pintatus imajinazioan lengo deshonestidadeak, ta itxekis gorputzean luxuriaren sua ain erru, ezi ezpaliz Jangoikoaren graziaz, nola zeike libra? Baña bere aldetik ere egiten zue eginala orazio, penitenzia, ta dilijenzia: zeatzen ze odolesko disziplines, etziten ze aranze ta larren gañean guzia larranzitus, sartzen ze estanke izoztuan: ala logratzen zue Jangoikoaren grazia ta biktoria kontrario guzietatik.

5. Ama Birjina gloriosak nai izan zue paratu bere Karmesko erreligijoneko jardin edo paraisoan. Agertu zekio amorosa zekarrala eskuieko eskuan gloriako loreen korona, ta ezkerrekoan Karmesko habitu erreligioso, besti zezan. Bereala Franko joan ze konbentura eskatzera admitti

zezaten. Etzute admittitu lenbizian beiratus bere adin pasatua, baize iruogeitazorzi urte. Ama Santisimak animatu zue segitzeko pretensioan: Segitu zue eske ta eske belauriko negarrez. Admittitu zute: baña luza-bide, bear zela diru erosteko habitua; ta sanduak ez izaki: baña erremediatu zue zeruko erregina gloriosak. Zeudelaik bildurik erreligiosoak, sartu ze Aingiru bat gaste eder baten idurian zeramala Josirik habitua bear bekala, ta emanik Prioreari eskura erran zue, au da Frankoren. Erran ta desapareztu ze utzirik guziak arriturik ortas. Nor ezta admiratzen emen Maria Santisimaren onas ta ongi egin niais, ta zein entremetitua den on guzietan! Eginik erreligioso nolako bizimodua zeraman, nola explika? Bere janaria komunki belarrak, edo ogi ta ur sollik, ta ori astean irur egunes solamente, ezi astelen, asteazken, orzilarre, ta larunbatean etzue txastatzen baizik komunione sagratua. Goatzea zue ol bat utsik lurreean: Gorputz guzia habituaeren petik inguraturik burriñasko aro, edo ustai, ta kateeki: lepoan argolla bat, ta agoan plomusko bola bat librerdikoa, ixilik egoteko; eta atra bear zuelaik mintzatzeko bear orduetan, gal etzekion, zerama katea bate-tik dilindaka. Gero inarazi zue burriñasko peto bat kentzen etzue, baizik zatitzeko gorputza azotees. Oneki guziareki ze lenbizikoa lan guzietan koruan, sukaldean, enfermerian. Manteniarazteko agertu zekio Jesus guruzifikaturik llagetaik odola zeriola, ta ziola, beira zenbat pasatu nuen gizonengatik, ta zein gaizki pagatzen didaten!

6. Oneki guzia guti iduri zekio iten zuena, ta zego ikar ikar, barkatu ote zion: ta erraten zue maiz, Justoa doi doia salbatzen bada, zer izanen da bekatarias? Konsolatzen zue Jangoikoak. Bein corpus Christiren oktaban progatzeko manatu zio konfesoreak ez komekatzeko egun gartan: gelditu ze trunkil, ezaundus arrazio zeukala konfesoreak ez uzteas sartzera Jaun dibinoa ain petxo indignoan. Baña meza laguntzean saltatu ze sakramentuaren zatitto bat aldaretik, ta sartu zekio agoan, ta andik barnean betetzen zuela debozios. Berze bein Kristo guruzifikatuaren alzi-nean zegolaik orazioan ikar ikar oraño ere ote zegon beraren grazian ta amorean, Kristok itzeetaik eskuak lazaturik besarkatu zue bi aldiz amoroso erraten ziola, Franko, etzaudela beldurrak: segi asi duzunean, ta logratukouzu nauzuna. Oraño ere irauten zio beldurrak: etze deskuidatu Ama Santisima; agerturik kariño andiareki erran zio, Franko, barkatutizu Jangoikoak bekatuak. Ez orgatik utzi zitue penitenziak, baizik aumentatu zitue. Argitu zio entendamentua Jangoikoak, eta Kristo guruzifikatuareki eskuan egiten zitue prediku admiragarriak, ta konbertitzen zitue bekatariak, etxeetan, karrikaetan, plazaetan. Obratzen ere zitue milagroak humil humila. Jakiten ere zitue gauza sekretoak eta gerokoak, eta eguna, noiz



bear zen il. Aipatus bein bere konfesoreak, zein on den sufrajio egitea purgatorioko arimen, erran zio Frankok, in bezada karidade ofratzeas meza enegatik il ondoan bereala. Errespondatu zio, erranen dut, bizi banaiz zu baño iago. Erran zio Frankok, segurutzen diot Jangolkoaren partetik biziko dela urte bat ni il ondoan, ezi ni ilen naiz abenduaren amekagarrean 1291 urtean, ta urbilean berori. Guzia agitu ze, erran bekala. Eginik berriro konfesio jenerala, ta errezibiturik berze sakramentuak, zelo gaik lastalla uts batean, ta ori ere obediencias obligaturik, beterik zelda zeruko argis, despeitus errelijiosoak erran ziote, geldi beitez bakean, ene anaiak: eta berorrek, ene Jesus ona, eta ene Jangoikoa, ar bez bere eskue-tan ene arima. Istante &

Azaroaren 2.an Purgatorioko Arimen memoria

1. (Kredoaren itz lenbizikoa *Jangoiko Aita guzis poderoso*, zeruaren ta lurraren kriadore: azken itza *bizitza sekulakoa*: adiarazteko, ezi Jaun andiak kriatutuenak gauza guziak, guzien Jaun ta Jabeak inen duela justizia zerbitzitzen dutenei, ta ofenditzen dutenei, ta daukala erreserbaturik aiendako premio eternoa, ta ebendako pena eternoa. Pena eternora direnak deitzen dire kondenatuak: Premio eternoa logratzen dutenak deitzen dire sanduak, bienabenturatuak, zori onekoak. Orgatik laur dire gizonaren azkenekoak, edo Nobisimo deituak, Eriotzea, Juizioa, Infernua, ta Gloria. Eriotzea da gorputzetik arima berextea, noiz gorputza gelditzen den ilik sentidorik gabe erresurrekzioko eguneraño, orgatik baitio Kredoan *argaren erresurrekzioa*, zeren aragia edo gorputza baita iltzen dena propioiki, ta gero erresuzitazen dena, edo berriro bizten, itzultzeareki arima, zein ezpaita iltzen propioiki beñere. Juizioa deitzen da kontu artzea bizimodu pasatuas, ta sententzia ematea Jangoikoak. Bietas dio S. Pablok, statutum est & *dagola dekretaturik gizonen iltzea bein, ta orren atzetik Juizioa*. Infernua deitzen da lurraren barren barrenean, ta zerutik urrunenean Jangoikoak fabrikaturik daukan, presondegi edo kalabozo ilun lotsagarri gura, non penaraztentuen berak kondenatuak su eta tormentu errueki Deabruen eskus, zein baitire bere justiziako ministroak eta berdugoak. Gloria deitzen da propioiki bizitza sekulako ditxoso gura gozatzan dutena Jangoikoaren eskojituek eginik errege ta erregina koronatuak beraren ta Aingiru onen konpañian zeruen zeru goren gorenean, deitzen baita enpireo, ta Jangokoaren korte ta palazio, ta paraiso erreala. Laurebetas oroi gaitzela, dio Espiritu Sanduak, ta eztugula sekulan ere bekaturik eginen. *Memorare novissima tua* &. Bizi emengoa labur: eriotzea segur: kontuak ertxi: sententzia segi: Gloria edo Infernua beti: Beti ebek memorian iduki.

2. Orai bada) Jesu Kristok zeruetara iganik idikias geros angu atariak, ustu ze Abrahamen senoa deitzen zena ta paraisoa, non len zeuden erreserbaturik Patriarka, Profeta, ta berze arima sandak, nora Kristo il ondoan jautsi zen, an zeuden arima sanden atratzera: gerostik onat, (aur bataiatu gabe, ta berze bekaturik gabe doazines landara, zein baitoaz aurren linbora) gañarakoak irur estado gisatan atratzen dire emendik, batzuk bekatu mortalean Jangoikoaren odioan, iran, ta desgrazian: alakoak doaz infernura sekulako galduak: Berze batzuk doaz Jangoikoaren grazian garbi



eder onetsiak guziz: alakoak doaz gloriara zuzenean: Berze batzuk ez ain gaizki nola aiek, ta ez ain ongi nola ebek, baizik ere grazian bai, baña dute-la kulpa leberen bat, edo berze barkatu bearra, edo barkatuen pena ta satisfakzio zerbait pagatu bearra, ezi bekatu guzietan dire bi gaitz, kulpa eta pena: kulpa barkatzen da penitenziako sakramentuas, pena ere bai, baña ez guzia beti; ta pagatu bearko satisfakziozko obraeki, penitencia, orazio, limosna, obra on, trabaju, pazienza, induljenzia, ta alakoeki: Orai bada badagoke grazian bat, naiz izanik zerbait kulpa lebe, naiz zor zerbait pena: baña nola baitakigu egietafedez, glorian sartu eztaikela pagatu gabe azken marabidiraño, ta garbitu gabe motarik den txipena ere, orgatik da preziso sinestea, zerura baño len alakoak, purgatzentuela Jangoikoak berze munduan: eta lan goi ta leku goi deitzen da Purgatorio, ta ortan detenitzen diren arimak purgatorioko arimak, Jangoikoaren grazian sandak, salbazioko karreran, zerurako bidean, ta gloriara joateko seguraturik daudenak. Eta naiz bitarteko dauden neke-penatan, dire Jangoikoaren eskojitu maiteak, sanduen lekukide ta lagun izain direnak: orgatik sanduen festibidadearen atzetik elizak urbilen egunean iten du memoria purgatorioko arimen, ta bialtzen sufrajio, gloriartzeko len baño len, ta bitarteko alibiatzeko pena gaietan. S. Odilon Monje kluniazenseen Abadeak diote paratu zuela arimen funziõne goi bere errelijioean, ta bereala Eliza guzian Aita sanduak milla ta zenbait urtetan: baña berreun urte lenago Amalario Fortunatok paratzen du sanduen ofizioaren atzetik arimena, baita señaile, iten zela ia orduko ere. Arimen memoria egitea mezan ia kristiandadearen prinzipiotik usatua da Apostoluen tradizioz: eta kristiandadea paratu baño len ta len egiten zela orazio ilengatik, klaro dio eskritura sagratuan. Famatua da nola Judas Makabeoak biali zuen Jerusalem amabi milla zillarrezko drakma, ofratzeko sakrifizio ilengatik. Libro 2. Machab. 12. Eta akabatzen du itz ebeki, *Beras gauza sandua ta protxugarria da orazio egitea ilengatik, libre laza daitzen bekatuetaik.*

3. Bi egia fedesko tugu emen; *bat*, badela purgatorio, ta purgatzen direla arimak, glorian sartzeko: *berzea*, arima gaiet balio diotela bizen sufrajioak, libratzeko, ta alibiatzeko. Progatzen da on klaro Eliza Ama Sandak duen kostunbre usatuareki enkomendatzeas ilak Apostoluen denboratik onaraño: baitare eskritura sagratuko testimonioeki Aita Sanduek explikatzentuten gisan. S. Pablok diona korintotarrei lenbiziko kartaren irugarren kapituloan, *Zimendua dela Kristo Jesus, elo beraren edea. Beira dezala bakotxak nola obratzen uen zimendu gonen ganetik: baldin agotz, belar, lasto aratzen badu, on erraustu suan, ta bera salbo atrako dela, baña pasatus suan*: S. Agustinek explikatzen du bekatu benialees pagatzen ta purgatzen direnes pur-

gatorioan h. 16. de 50. S. 41 de Sanctis. Alaber diolarik Kristok, *Espiritu Sanduaren kontra erraten duenai blasfemia, etzaiola barkatuko ez mundu gontan, ta ez berzean*, atratzeunte S. Gregoriok, S. Agustinek, ta berze Doktoreek, badirela zenbait bekatu barkatzen direnak berze munduan: Zein dire ebek? benialeak, zeñengatik ezten arima kondenatzen, bai purgatzen purgatorioan. Eta kulpak purgatzen badire, zenbat obeki pena zor direnak pagatus ango suan faltatu zena emen? E gia gau deklaratu ta konfirmatu dute anitz Konzilio Probinzialeek Afrikan, Españan, Alemanian, Franzian, Italian: baitare Jeneraleek, Lateranenseak, Florenziakoak, ta azkenik Trentokoak. Eliza guziaren usanzas fede ematen dute S. Dionisio Areopajitak, S. Juan Krisostomok, S. Agustinek, ta berze sanduek orazio, sakrifizio, ta sufrajio iten zuztenek, ta eskatzen zuztenek berendako. S. Agustinen Ama S. Monikak iltzerakoan enkargatzen zue in zezatela memoria beras aldarean. Anitz dire historia kontatzen direnak purgatoriotik aparezitues eskatzera sufrajio: Eta naiz zenbait diren kontu banoak ta engañoak: baña franko dire sinestatzeko egiaskoak: nola kontatzentuenak S. Gregoriok, S. Pedro Damianok, S. Brijidak.

4. Asentaturik egietafedetako badela purgatorio, erragun non den, ta nolako penak tuen. Klaro da Jangoiko guziz poderosoak nonnai dezakela purgarazi arima, baña leku ordinario komuna da lur-barnean infernuaren saiets batean: non pasaraztentioten bi pena-genero zor dutenaren ariora: lenbiziko pena da pribaturik idukitzea, ta debekaturik ikustetik Jangoikoaren aurpegia, deitzen baita *dañuaren pena*, baita agitz penaraztentuena ezauntzeareki ia emen baño klaroago, zein on den Jangoikoaren ona, ta beraren gozatzea, ta beren kulpas debekatzen zaiotela: ala nola neska aldiritar bat destinatua izateko errege andi eder baten esposa ta erregina, arren palaziora joan bearrean baleukate deteniturik kalabojoan bere faltaz. Berze pena-mota da sentidoaren pena, sentiarazten diotena suaren ta berze tormentuen erruareki: zein, sanduek diotenez, da erruago, eta sentigarri penosoago, ezi munduko pena ta martirio guziak: ala diote S. Gregorio andiak, S. Agustinek, Bada benerableak, S. Anselmok, ta S. Bernardok: eta S. Tomas Doktore Aingiruak añaditzen du, purgatorioko penak direla erruago ezi martir guzienak, baitare iago ezi Kristo berak bere pasio doloreskoan pasatu zituenak: zeren ezi ango su gura da infernuko su-genero berbera: Orgatik S. Agustinek prediku batean dio ala; *erranen du agian norbaitek, guti zaida detenitzeas ni purgatorioan, nola ellega naien zerura. Niork, ene anaia maiteak, niork ere ezdezala on erran, zergatik Purgatorioko su gura erruago da ezi pena guziak munduan ikusi, senti, elo pensa daizkenak: eta nola dagon eskribiturik juizioko egunas, egun bat milla urte idurituko dela. Eta nork*



daki, su gartan pasatuko duen denbora izanen den egunen, edo ilabeteen, edo urteen denbora? Orai eztenak iduki nai eri bat sollik ere suan, nola eztu beldur izateas tormentatua su bizi lotsagarri gartaz, naiz dela denbora gutiz? Orgatik baktxak bere indar guziaki kuida bez libratzea mortaleetaik, ta deskitatzea benialeak obra oneki, eztaidn geldi deus konsumitu bear denik sugarreki. Guziok dire sandu jui-zioso garren itzak. Onen konforme kontatzen da, ezi heri on bati nekatu zenari egonez anitz denboraz oñazeeki goatzean, bere Aingiruak Jangoi-koaren orde z eman ziola autara, zein nai zuen, edo ala heri egon oraño urte batez, igateko gero berla zerura, edo berladanik joan purgatoriora irur eguntako. Arrek autatu zuela au: eta ermanik espirituan arara, ia iduri zekiola ordu adiña urte &. Orai emen dudatzen da, ia purgatorioan ere diren tormentatuak Demonioen eskus. Doktore batzuek diote baietz, berze batzuek ezetz. Zierto dena da arimen atratzea purgatoriotik, eta aiei emendik sufragatzea, sentitzen dutela Demonioek, ta estorbatzeko iteun-tela in ala.

5. Zierto ere da egietafedez daizkela pena gaiek alibiatu zerukoen ta lurrekoen medios. Fundatzenda egia gau Kredoaren artikulo gartan, *Eliza Sanda Katolikoa ta Sanduen komunioa*, au da, elizan baita Kristio fiel guzien kongregazioa ta familia, zeñen burua den Jesu Kristo, Kristio fiel guziak direla partizipante elkarren obra onetan. Kristoren erreinu deitzen den Eliza edo familia gontaik ez tire apartatzen ez zerukoak ere, ta ez purgatorioak ere: sollik infernukoak daude apartaturik betikos. Purgatorio-koek bada senti dute aldartz alibio zerbait: lenik egoteaz seguro daudela Jangoikoaren grazian, ta ez dezaketela galdu, eta pena gaiek akabatuko direla, eta ellegatuko direla gloria eternora goiz edo berant. Eta ala naiz penak diren erruak, pasatentute pazienza ta konformidade andiareki. Gero beren bisitak iten omentiotie Aingiruek, beren guardiakoek espe-zialki. Gero faboratentute sanduek, prinzipalki Maria Santisimak. Ortas landara Mundutik Eliza Ama Sandak laguntzen diote orazios, sakrifizios, sufragios. Sufragiorik andien ta preziosoena da mezako sakrifizioan ofra-tzen den axuri dibino gura, zein paratu zelaik guzien fiadore ta pagadore, eta pagatu zuelarik abasto pasio ta eriotzeareki gurutzean, aldareko mai gartan presentatzentu bere burua, bere lllagak, penak, gorputza, odola, ta merejimentuak guregatik: eta nola purgatorioak baitaude ongi disponi-turik, gozatzen dute pagamenta an ofratzen dena, beren ariora. Emen errain du agudoren batek, mezan ofratzen den axuriak balio duelarik infi-nito, nola ez tire meza bateki libratzen arima guziak, zeñengatik ofratzen den? Zeren Jangoikoaren justiziak admititzen duen satisfakzio gartaik onenberze baktxaren bere neurri txustoan, ez balio duen diña berebai-

tan. Baña guziek baño balio diote iago arrek sollik, zeren baita ofrenda kuadrableena Jangoikoari. Orgatik sartu da elizan kostunbrea, juntatzeko fielek ofrenda dibino garreki beren ofrajeak: eta da guzis antiguasko debozio usatua. (Tobias.)

6. Berze sufragio balio diotenak aiei aplikatus dire balio diotenak baktxai obratus: eta tuzu bildurik berso gebetan: *Ora, operare, dato, puni te, ferque ferenda: Sacra indulta tibi cura quot possis habenda.* 1.^a orazioak. 2.^a obra onak. 3.^a limosnak. 4.^a penitenziak. 5.^a trabaju sufrituak. 6.^a induljenziak. Eta entenda ongi ongi, ezi naiz batek egin ta eman arimendako alako obra onak, dela aplikatus, nola satisfakzioak, dela suplikatus, nola orazioak ta sufragioak, ezuela orgatik galtzen tratu gisaontan, baizik irabazten. Entendatzeko obeki da ikastea, gure edozein obra onetan Jangoikoaren graziareki direla irur efekte, fruitu, edo probetxu: lenbizikoa da *merejimen-tua*, au da merejitzea iago grazia ta agrado Jangoikoaren begietan, ta segi dan dretxo iago gloriaren. Ontan eztu berze niork ere parterik, baizik iten duenak beretako merejitzendu. Berze efekte edo fruitu ta *inpetrazioa*, au da logratzea arreki berze edozein gauza. Irugarrena da *satisfakzioa*, au da zorren pagamenta. Bi gebek daizke aplika ta eman arimendako; eta eman-geros klaro da ori gabe gelditzen dela: baña zer da gero, barin badu orgatik karidadearen merejimentua, kuadratzea Jangoikoai iago, ta iago dretxo gloriara? Eta berze alde esperanza ere ona, arimek zerura joan ondoan itzuliko diotela ordaña ona. Iduri zaida niri sufragioen egite gau dela ala nola eraikitzea lur onean, edo azaro ona egitea. Barraiatutuen gra-noak gabe gelditzen da: baña ortako du eraizioaren esperanza. Klaroago: Baleude presondegian erregeren humeak, ez tituela utzi nai Aitak atratze-ra, pagatu arteo zor dutena; ta zierto balitz, andik atra ta bear dutela erreina-tu Aitareki, ta ortako ematea nornaiek kuadratzen zaiola erregei ere, ez solamente aiei, lanze gontan ematea batek dezaken guzia ez litzake gal-tzeko, baizik irabazteko. Bada lanze berean gara: errege zerukoaren humeak eta maiteak dire purgatorioak arimak: zierto da andik atra ta izan bear direla errege ta erregina zeruan: zierto ere da ematea aiei ortako dela txoil kuadrable Jangoikoai ere: zer ai gara? Nola eztiogute eginen eginala sufragio ta gauza? Beldur gara galtzeas? Ezta pellik. Edo irabazia iduri zaigu guti? Gutiena da batendako eun: eta ori emen munduan: eta espe-ranza gloria eternoaren, geurok nor bagara. Edozein limosnatan da ori; obeki arimen limosnan.

7. Arimei iten zaioten limosna gisa gau alde guzietaik da on: alde bat, zeren baitire agitz *pobre nezesidade extremoan* daudenak, ezin irabazi deus, ezin adiarazi ere guri beren lastimak: berze alde dire *pobre onak eta san-*



duak, ezi asko sandu kanonizatu direnak elizan, pasatu dire purgatorioko suas, nola S. Seberino, nola S. Paskasio, zeñen dalmatikak sendatzen emen heriak, ta bera an purgatzen suan, nola berze asko. Berze alde dire *pobreak sari abratstuko direnak* bete betea, nai-adiña. Orai berean andik ere bada-kite ongi egiten beren ongiegilleei, bentzait bai Jangoikoak aien partez. Eta zerura doazelaik, zer eztute eginen? Non da fedea? edo sinesten badugu au, non da karidadea? edo non da kodizia? ezi abrats andi poderoeri eman naia kodizia dirudi: eta aiek ezpadire, izanen dire abrats andi poderoso Jangoikoareki. Berze alde agian asko an, zeñei dioguten obligazio, edo zeren gure buratso, aide, Maestru, edo kargudun izan diren, edo gure karguko izanak, zeñeki faltatu dugun, edo gure adiskideak, ezaunak, edo kideak, agian gure faltaz daudenak an: Berze alde bide dire asko atzenduak an, eztutenak nior enkomendatzentuenik. *Berze* alde nezesidade gura delarik extremoia, ta iten zaioten limosna ain ona ta protxugarria, guziek dute posibilidadade egiteko, nior eztaike exkusa ez izanes, ezi ezta bear bolsa andirik, baizik biotz prestu beratxa, sokorritzeko aria edo orla. Sokorritzentuenak orai emendik dezake espera ilen dela ongi, atrako dela ongi juizioan, ta admitituko dutela glorian, zeren an izanen baitu anitz bere fabore: Kontra berriz eztuena ajolarik aietas, bera ere utziko dute atzendurik. Eta zer izanen da eztuenas nork anparatu bearren bearrean? Atra bear da emendik prinzipalki bizitzea Jangoikoaren beldur onareki, ezi kulpa lebeak ala kastigatzen baditu, nola inen du grabees justizia? Miseremini mei, miseremini mei, saltem bos &.